
ONOMASTICON VASCONIAE


26

IZEN TTIPIAK
EUSKARAZ

PATXI SALABERRI ZARATIEGI



EUSKALTZAINDIA



ONOMASTICON VASCONIAE

ONOMASTICON VASCONIAE

26

IZEN TTIPIAK
EUSKARAZ

PATXI SALABERRI ZARATIEGI



EUSKALTZAINDIA

2009

Salaberri Zaratiegi, Patxi (1959-)

Izen ttipiak euskaraz / Patxi Salaberri Zaratiegi. – Bilbo : Euskaltzaindia, 2008. – (Onomasticon Vasconiae ; 26)

XVIII, 310 orr. ; 27 cm

ISBN 978-84-95438-50-8

I. Pertsona izenak-Euskal Herria. II. Euskaltzaindia. III. Onomasticon Vasconiae (Euskaltzaindia)

Burua / Presidente: Iñigo, Andres
Idazkaria / Secretario: Gorrotxategi, Mikel
Kideak / Vocales: Galé, Patxi
Goikoetxea, Imanol
Gonzalez de Viñaspre, Roberto
Knörr, Henrike (†)
Lasa, Iratxe
Lizundia, Jose Luis
Martinez de Madina, Elena
Mugurutza, Felix
Peillen, Txomin
Salaberri Zaratiegi, Patxi

© Patxi Salaberri Zaratiegi

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / A.L.B.

Plaza Barria, 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: info@euskaltzaindia.net

Webgunea: <http://www.euskaltzaindia.net>

ISBN: 978-84-95438-50-8

Legezko-gordailua: NA - 1002-2009

Fotokonposizioa / Fotocomposición: Composiciones RALI, S.A.

Particular de Costa, 8-10

48010 Bilbo/Bilbao

Inprimaketa / Impresión: GRAPHYCEMS / Gráficas CEMS, S.L.

San Miguel Industriagunea

31132 Villatuerta

Nafarroa / Navarra

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| AITZINSOLASA | XV |
| 1. AZTERTUTAKO GARAIA | 1 |
| 2. IZANDAKO ITURRIAK | 3 |
| 3. HIPOKORISTIKO EDO IZEN TTUPIAREN DEFINIZIOA ETA BESTE .. | 7 |
| 3.1. Zer da hipokoristikoa? | 7 |
| 3.2. Hipokoristikoa izengoiti mota bat ote? | 8 |
| 3.3. Izen ttipien eta hizkuntza mailaren arteko erlazioaz. | 10 |
| 3.4. Badae mailarik hipokoristikoetan? | 12 |
| 4. HIPOKORISTIKOAK HALABEHARREZ SORTUAK DIRA ALA ARAU JAKIN BATZUEI JARRAIKIZ? MUNDUAN BARNAKO LEKUKOTASUN BATZUK | 15 |
| 4.1. Gaztelania | 15 |
| 4.2. Frantsesa | 16 |
| 4.3. Ingelesa | 17 |
| 4.4. Alemana | 19 |
| 4.5. Errusiera | 22 |
| 4.6. Mazedoniera | 25 |
| 4.7. Yiddish | 25 |
| 4.8. Hebreera | 26 |
| 4.9. Arabiera | 26 |
| 4.10. Nootka edo nuuchahnulth | 29 |
| 4.11. Banawa | 30 |
| 4.12. Akan | 30 |
| 4.13. Zuluera | 31 |
| 4.14. Xhoseera | 32 |
| 4.15. Txitunbuka | 33 |

| | |
|---|-----------|
| 4.16. Hausa | 34 |
| 4.17. Japoniera | 35 |
| 4.18. Koreera | 36 |
| 4.19. Euskara | 36 |
| 5. HIPOKORISTIKOEN ERABILERA DESBERDINA DA HERRIALDE BATETIK BESTERA EUSKAL HERRIAN? | 37 |
| 6. ALDAERA HIPOKORISTIKOEN BALIOAZ | 39 |
| 6.1. Izen ttipiek mespretxua adierazten dutea? | 39 |
| 6.2. Emaztekien hizkeran izen ttipiak ardurago ibiltzen direa? | 40 |
| 6.3. Handiagarriak izan daitezke? | 40 |
| 6.4. Hipokoristikoak, izen bereko pertsonen bereizgailu | 41 |
| 6.5. Izen ttipien neutralizazioa dela-eta | 42 |
| 7. HIPOKORISTIKOAK GURE HIZKUNTZAN EGITEKO IZAN DIREN ETA DIREN BIDEAK | 43 |
| 7.1. Hipokoristikoak egiteko lehen bidea: bustidura | 48 |
| 7.1.1. Txistukariak | 48 |
| 7.1.1.1. [č] duten hipokoristikoak | 53 |
| 7.1.1.2. [š] soinua dutenak | 66 |
| 7.1.1.3. [š] eta [č] batera dituztenak | 87 |
| 7.1.1.4. [s] eta [c] dutenak | 88 |
| 7.1.2. Sabaiko herskari ahoskabearen erabilera | 90 |
| 7.1.2.1. [t] > [t̥] | 90 |
| 7.1.2.2. [t̥] beste kontsonante bat bustitzearen ondorena | 95 |
| 7.1.3. [d̥] erabiltzea, [r], [r̄], [R], [d], [d̥]-ren ordain bustitzat | 95 |
| 7.1.4. Hortz hobietako sudurkariaren bustitzea ([n] > [ɲ]) | 97 |
| 7.1.5. Dardarkariaren bustitzea ([r], [r̄], [R] > [λ]) | 100 |
| 7.1.6. Hortz hobietako albokoaren palatalizazioa ([l] > [λ]) | 102 |
| 7.2. Izen ttipiak egiteko bigarren bidea: atzizkiak | 103 |
| 7.2.1. <i>-(a)ga, -(a)ge</i> | 105 |
| 7.2.2. <i>-(a)ndo, -(a)nda</i> | 105 |
| 7.2.3. <i>-(a)ndako</i> | 106 |
| 7.2.4. <i>-(o)teko</i> | 107 |
| 7.2.5. <i>-an</i> | 107 |
| 7.2.6. <i>-degi</i> | 107 |
| 7.2.7. <i>-do</i> | 107 |
| 7.2.8. <i>-el, -elo, -ela</i> | 109 |
| 7.2.9. <i>-en</i> | 109 |

| | | |
|---------|---|-----|
| 7.2.10. | <i>-et, -ete, -eta</i> | 110 |
| 7.2.11. | <i>-etako</i> | 117 |
| 7.2.12. | <i>-etillo</i> | 117 |
| 7.2.13. | <i>-eto</i> | 117 |
| 7.2.14. | <i>-eton</i> | 117 |
| 7.2.15. | <i>-go</i> | 117 |
| 7.2.16. | <i>-go(t)xe(a)</i> | 120 |
| 7.2.17. | <i>-got(e)</i> | 121 |
| 7.2.18. | <i>-goto</i> | 121 |
| 7.2.19. | <i>-gotxo</i> | 121 |
| 7.2.20. | <i>-goxo</i> | 122 |
| 7.2.21. | <i>-goxoto</i> | 122 |
| 7.2.22. | <i>-iket</i> | 122 |
| 7.2.23. | <i>-iko (-iku), -ika</i> | 122 |
| 7.2.24. | <i>-ikon</i> | 127 |
| 7.2.25. | <i>-ikoni</i> | 127 |
| 7.2.26. | <i>-ikot, -ikote</i> | 127 |
| 7.2.27. | <i>-ikoti</i> | 128 |
| 7.2.28. | <i>-ikotx(ea)</i> | 128 |
| 7.2.29. | <i>-ikox</i> | 128 |
| 7.2.30. | <i>-illo (-iello(s)), -illu, -illa (-iella)</i> | 128 |
| 7.2.31. | <i>-ilon</i> | 130 |
| 7.2.32. | <i>-in, -ino, -ina</i> | 130 |
| 7.2.33. | <i>-intxe</i> | 133 |
| 7.2.34. | <i>-ito, -itto, -ita</i> | 133 |
| 7.2.35. | <i>-itxo</i> | 137 |
| 7.2.36. | <i>-ki, -gi</i> | 138 |
| 7.2.37. | <i>-kin, -kina</i> | 139 |
| 7.2.38. | <i>-kito</i> | 141 |
| 7.2.39. | <i>-ko (-ku), -ka</i> | 141 |
| 7.2.40. | <i>-kot(e)</i> | 158 |
| 7.2.41. | <i>-koti</i> | 159 |
| 7.2.42. | <i>-koto(a)</i> | 159 |
| 7.2.43. | <i>-koxe(a)</i> | 159 |
| 7.2.44. | <i>-l</i> | 160 |
| 7.2.45. | <i>-let(e)</i> | 161 |
| 7.2.46. | <i>-liko</i> | 161 |
| 7.2.47. | <i>-lo</i> | 161 |
| 7.2.48. | <i>-los</i> | 162 |
| 7.2.49. | <i>-lot</i> | 163 |
| 7.2.50. | <i>-nko, -ngo</i> | 163 |
| 7.2.51. | <i>-no, -na</i> | 163 |
| 7.2.52. | <i>-ñi</i> | 164 |
| 7.2.53. | <i>-ño</i> | 164 |
| 7.2.54. | <i>-o</i> | 166 |
| 7.2.55. | <i>-on (-un), -ona</i> | 168 |

| | | |
|----------|--|-----|
| 7.2.56. | <i>-onet</i> | 171 |
| 7.2.57. | <i>-oni</i> | 172 |
| 7.2.58. | <i>-onin, -onina</i> | 172 |
| 7.2.59. | <i>-osoa</i> | 172 |
| 7.2.60. | <i>-ot(e, a)</i> | 172 |
| 7.2.61. | <i>-otiko</i> | 180 |
| 7.2.62. | <i>-otin</i> | 180 |
| 7.2.63. | <i>-oton</i> | 180 |
| 7.2.64. | <i>-otxe(a)</i> | 181 |
| 7.2.65. | <i>-otxo</i> | 181 |
| 7.2.66. | <i>-s</i> | 181 |
| 7.2.67. | <i>-ski</i> | 181 |
| 7.2.68. | <i>-skito</i> | 182 |
| 7.2.69. | <i>-skitxo</i> | 182 |
| 7.2.70. | <i>-sko, -xko, -ska, -xka</i> | 182 |
| 7.2.71. | <i>-skot</i> | 185 |
| 7.2.72. | <i>-so, -xo (-xu)</i> | 186 |
| 7.2.73. | <i>-sot</i> | 190 |
| 7.2.74. | <i>-ste</i> | 190 |
| 7.2.75. | <i>-sto</i> | 191 |
| 7.2.76. | <i>-stot</i> | 191 |
| 7.2.77. | <i>-t</i> | 191 |
| 7.2.78. | <i>-ta</i> | 192 |
| 7.2.79. | <i>-te</i> | 192 |
| 7.2.80. | <i>-ti (-di)</i> | 195 |
| 7.2.81. | <i>-tiko</i> | 196 |
| 7.2.82. | <i>-til</i> | 197 |
| 7.2.83. | <i>-tilko</i> | 197 |
| 7.2.84. | <i>-tillo</i> | 197 |
| 7.2.85. | <i>-to(a), -tto(a)</i> | 197 |
| 7.2.86. | <i>-toko</i> | 204 |
| 7.2.87. | <i>-ton</i> | 205 |
| 7.2.88. | <i>-toni</i> | 205 |
| 7.2.89. | <i>-tonko</i> | 205 |
| 7.2.90. | <i>-txe(a), -xe(a), -(t)xa</i> | 205 |
| 7.2.91. | <i>-txeko</i> | 212 |
| 7.2.92. | <i>-txen</i> | 212 |
| 7.2.93. | <i>-txet</i> | 212 |
| 7.2.94. | <i>-txeto</i> | 212 |
| 7.2.95. | <i>-txi</i> | 213 |
| 7.2.96. | <i>-txin</i> | 213 |
| 7.2.97. | <i>-txis</i> | 213 |
| 7.2.98. | <i>-txito</i> | 213 |
| 7.2.99. | <i>-txo(a), -txu</i> | 213 |
| 7.2.100. | <i>-txoki</i> | 222 |
| 7.2.101. | <i>-txon, -txun</i> | 222 |

| | |
|--|-----|
| 7.2.102. <i>-txonki</i> | 223 |
| 7.2.103. <i>-txot(e, a)</i> | 223 |
| 7.2.104. <i>-txto</i> | 223 |
| 7.2.105. <i>-txuko</i> | 224 |
| 7.2.106. <i>-tzo (-tza)</i> | 224 |
| 7.2.107. <i>-uelo, -uela</i> | 224 |
| 7.2.108. <i>-x, -tx</i> | 225 |
| 7.2.109. <i>-xito</i> | 228 |
| 7.2.110. <i>-xto</i> | 228 |
| 7.2.111. <i>-zo, -zu, -za</i> | 229 |
| 7.2.112. <i>-zon</i> | 230 |
| 7.3. Hipokoristikoak egiteko hirugarren bidea: izenen laburtzea | 231 |
| 7.3.1. Aferesia | 234 |
| 7.3.2. Izen trinkotzea eta barne laburtzea | 237 |
| 7.3.3. Apokopea | 240 |
| 7.3.4. Errepikapen edo bikoizketa | 248 |
| 7.3.5. Bestelakoak | 253 |
| 8. ONDORIOAK | 255 |
| 8.1. Disemiarik ez gehienetan euskal hipokoristikoetan | 255 |
| 8.2. Euskal hipokoristikoak ezin dira eremu dialektal bakarrera mugatu . . . | 256 |
| 8.3. Etxe eta lagun giroan ibili dira, baina agirietan ere azaltzen dira | 257 |
| 8.4. Hipokoristikoak ez dira euskara baliogabetzearen ondorio | 257 |
| 8.5. Euskara mendekoa izateak eragina izan du | 258 |
| 8.6. Erabideen bilakaera: ikuspegi orokorra | 258 |
| 8.6.1. Hots sinbolismoa | 259 |
| 8.6.1.1. Txetxekari afrikatua ([č]) | 259 |
| 8.6.1.2. Sabaiaurreko igurzkaria ([š]). | 261 |
| 8.6.1.3. [s], [c] dutenen eremu banaketa eta antzinasuna | 261 |
| 8.6.1.4. Sabaiko herskari ahoskabea ([tʃ]). | 262 |
| 8.6.1.5. Sabaiko herskari ahostuna ([dʒ]) | 262 |
| 8.6.1.6. Hertz hobietako sudurkariaren bustitzea ([n] > [ɲ]). | 263 |
| 8.6.1.7. Dardarkariaren eta albokoaren palatalizatzea | 263 |
| 8.6.2. Erabide morfologikoa: atzizkiak | 264 |
| 8.6.2.1. Atzizkien eremu banaketa | 264 |
| 8.6.3. Izenen laburtzea | 266 |
| 8.7. Izen batek hipokoristiko bat baino gehiago | 267 |
| 8.7.1. Izenik ohikoenen aldaera hipokoristikoak | 268 |
| 8.8. Hipokoristikoak ezin gizarte maila jakin batekin lotu | 270 |
| 8.9. Soinu galtze eta aldatzea arrunta da izen ttipietan | 270 |

| | |
|--|------------|
| 8.10. Atzizkiak gutxitan agertzen dira aldaera laburtuekin | 271 |
| 8.11. Hipokoristiko atzizkiak ugariagoak dira txikigarriak baino | 272 |
| 8.12. Izen ttipiak ez dira gaitzesgarriak izan euskaraz | 272 |
| 8.13. Euskararen hipokoristiko sistema ez da bitxia munduan | 272 |
| 9. LABURDURAK | 275 |
| 10. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA | 281 |
| 10.1. Onomastikaren ingurukoa (batez ere) | 281 |
| 10.2. Agiri bildumak eta datutegiak | 295 |
| 10.3. Literatura eta testuak | 300 |
| 10.4. Bestelakoak | 303 |

Eskaintza:

*Bizia eman zidan aitari,
Gildo Salaberri Buztintzeri
zorigaitzez lan hau ikusiko ez badu ere*

AITZINSOLASA

Gure artean onomastika lanak urriak izan direla ezin erran daiteke, anitz baitira eta aspaldidaniakoak arlo honetan egin diren saioak, baina gehienbat toponimia aztertu da, ez hainbeste antroponimia, eta hau landu denean batez ere ponte izenak eta deiturak hartu dira ikergaitzat.

Jakina, onomastikan sail guztiak elkarrekin hertsiki loturik daude: lehen ponte izenak zirenak orain deiturak dira (*Andres, Jimeno, Maiora, Ojer, Oneka...*) edo toponimoen (*Gartziarana, Ilurdotz, Paternain, Petiriberro...*) eta oikonimoen (*Arrosakoa, Beñatenea, Bettinea, Ferranenea, Lopekoa, Lutzikoa, Mariestebanbaita, Martzelinorenea...*) osagaitzat aurkitzen ditugu. Etxe izenak eta haueetan oinarritutako izengoitiak, bestalde, maizkara deitura bilakatu dira (*Arotzarena, Bartzelona, Dorai, Etxeberria eta Etxeberri, Jauregizar, Karlosena, Mitxelena, Paris, Petrirena eta Petri, Salaberria eta Salaberri...*) eta orobat toponimoak (*Abartzuza, Arizkun, Azpeitia, Elizondo, Erbiti, Ezkurra, Legasa...*). XVI-XVII mendeetan, gainera, ohikoa da toponimoak pertsona izentzat kausitzea, emazteki izentzat batez ere (*Mariarano, Mariabaztan, Mariamendaro, Mariasunbil, Mariezkurra...*), eta azken urteotan jokabide hau franko hedatu dela erran dezakegu (*Bianditz, Irati, Saioa*), ardura Andre Mariaren santutegiaren eta baselizen izenek izan duten arrakastagatik (*Aitziber, Arantzazu, Belate, Estibaliz, Idoia, Oskia, Muskilda, Uxue*, e.a.).

Beraz, onomastikaren barreneko sail guztiak loturik daude, gure hizkuntzan eta besteetan, eta sail horietako bat lantzen denean besteak ere ukitzen dira hein handi edo txikian. Errate baterako, Mitxelenak *Apellidos Vascos* lan bikainean deiturak hartu zituen aztergaitzat, baina toponimia lanetarako ere ezin baztertuzko tresna eskuetaratu zigun, eta hipokoristiko edo izen ttipi batzuk ere ukitu eta aztertu zituen. Bestalde, toponimia lantzean argitzen diren puntuak eta jasotzen diren datuak, historikoak eta egungoak, hagitz baliagarri izaten zaizkigu deituren ikerketarako, erran bezala toki izen franko deitura bilakatu direlako. Era berean, hemen ematen ditudan datuak, aztertzen ditudan

izenak eta jaulkitzen ditudan hipotesiak lagungarri izanen zaizkio, hala espero dut behintzat, toponimia, oikonimia edo antroponimiaren beste sailen bat gainetik ikusi edo sakonki ikertu nahi duenari.

Nolanahi ere, eta erran gisa sail guztien arteko harremanak ugari eta estuak izanagatik, bakoitzak bere nortasuna du, eta ikertzaileak aldian horietako batean sakontzea erabaki dezake, metodologikoki egoki iruditzen bazaio. Hau da, lan batean oikonimia azter dezake, hurrengoan herri edo eskualde bateko toponimia eta hirugarrenean herri bateko edo garai bateko deiturak, adibidez. Hau bistako kontua dela uste dut, eta ez da zertan azalpenak ematen hasi. Jokatu ere, gainera, horrela jokatu ohi da gehienetan.

Hipokoristiko edo izen ttipietara itzuliz, erran dezaket saio zabalik ez zaiela eskaini gurean; beste sailen batean sakontzean ikusi dira, iragaitzaz bezala, nahiz badiren datuak jaso dituzten lan batzuk, eta jaso ez ezik aztertu ere egin dituztenak: Del Valle Lertsundiren bi artikuluak, Leo Spitzer-ena, Mitxelenaren ohar batzuk, Irigoienen artikulu eta liburu atal zenbait, Knörren txosten bat eta Salaberriren artikuluxka nabarmendu daitezke horien artean (ikus bibliografia), baina bururen buruko lanik ez dut ezagutzen eta uste dut horrelakorik ez dagoela, arrunt oker ez banabil.

Lan honetan dokumentazioan han-hemen agertzen diren datuak bil-tzen ahalegindu naiz eta ikertzaileek honetaz edo hartaz erran dituztenak jasotzen. Liburua buru-buztan, hasi eta buka irakurtzeko adorea eta kuraia duenak ikusten ahalko duen moduan, hipokoristiko anitz agertzen dira hemen, aurkitu ditudan ale desberdin guztiak. Alabaina, segur naiz badirela oraino franko, niri itzuri zaizkidanak. Geroko lanak azaleratuko beharko ditu, beraz, orain gaitzerupean estalirik gelditu diren horiek.

Hipokoristikoen azterketa zergatik den garrantzizkoa galdeginen balidate ihardetsiko nuke, lehen-lehenik, euskaldunok erabili ditugun eta oraino erabiltzen ditugun izendatze bideen berri ematen digulako dela munta handikoa. Nago hau, berez, aski arrazoi pisuzkoa dela, izan ere onomastikaren zeregina izen bereziak aztertzea baita. Honetaz landa eta bigarrenik, izen ttipiek egungo deitura eta oikonimo asko ongi ulertzeko aukera ematen digute: adibidez, *Peruskirena*-n *Peru* dugula lehen begiratuan antzeman daiteke, eta bukaera edutezko genitiboa dela, baina tarteko segmentua zer den ez da garbi egonen hipokoristiko sistema ikertu ezean. Era berean, *Martija* deituran *Marti* dagoela aise ikusiko dugu, baina ez diogu apika amaieran dugunari igorriko, gure izendegia aztertzen ez badugu.

Hirugarrenik, izen ttipien arloko ikerketa toponimoen etimologia argitzeko ere lagungarri izan daiteke; erraterako, Baztango *Almandoz* herri ize-

nak *Alaman* antroponimoaren eratorri batean, hipokoristiko batean, duke oinarri, **Alamando*-n hain zuzen ere, Irigoienek ustekaria egia izatera (1995f), eta nire iritzian egiantz handikoa da. Nik neronek ez dut bizkaitar euskaltzainak aipatzen zuen aldaera aurkitu, baina bai horren biziki irudia den *Alemantto*. Erran bezala, euskal onomastika arautzen ere lagun diezagukete hipokoristikoek, oraingo deituraren jatorria eta nondik norakoa hobeki ulertzeko bide ematen digutenez geroztik.

Laugarrenik, izen ttipiek aukera ematen dute ohiko hizkeraren azpian dauden egitura fonologikoak aztertze: silaben barne egitura eta motak, «template» edo plantillak, errepikapen baliabideak eta irudikatze fonologikoaren maila desberdinen arteko harremanak batez ere (Lipski, 1995: 387). Nik garbi baino garbiago dakusat, azken urte hauetako lanak irakurrita, hipokoristikoaren azterketan aurrera eginen badugu fonologialarien premia dugula, euskal onomastikariok ez baitakigu –nik segurik ez– fonologiaren barreneko zoko-mokoen eta (azken) korronteen berri.

Bosgarrenik, dialektologiarekin ere badute zerikusia, izen ttipiek berek eta hauek erdiesteko ibilitako erabideek historian zehar izan duten hedadura geografikoa bestelako ezaugarri dialektalekin erlazioa daitekeelako, euskalkien garapena eta bilakaera hobeki konprenitzeko.

Buruenik, izen ttipiak hertsiki erlazonaturik daude haur hizkerarekin, eta garbi dago arlo honetan ari diren ikertzaileei ekarpen polita egin diezaikegula onomastikariok, eta orobat haiek guri, hipokoristikoak eremu zabalago batean kokatzeko abagune ematen digutelarik. Michaelssonek (1939: 110) haurren beren hizkerari baino garrantzi handiagoa aitortzen dio helduek haiekin ibiltzen dutenari: «La part de l'enfant dans ces formations est généralement minime; les transformations sont avant tout dues à la mère, aux parents [...]». Stratmannek (1935: 30-31), ordea, haurren hizkera bera nabarmentzen du, helduek umeekin komunikatzeko erabiltzen dutena ez ezik: «Wenn man an seinen eigenen Familienkreis, seine nähere Umgebung denkt, wird man sich sofort des weiten Einflusses der Kindersprache bewußt». Ikertzaile honek bokal eta kontsonante sistemetan gauzaturikako hots aldakuntzak, izenen laburtze eta sinkopak, eta azaldu gabeko formak haur hizkerari leporatzen dizkio. Boyd-Bowmanen iritziz ere munta handikoak dira haurren hizkera eta helduen horiekilakoa (1955: 337-338):

«También señalaremos que estas deformaciones se deben en gran parte al rudimentario sistema fonemático de los niños que aprenden a hablar, y a los esfuerzos que hacen los adultos, con intención cariñosa, para imitar el sistema».

Afrika erdialdeko Hausa hizkuntzan, Newmanek eta Ahmadek dioteenez (1992: 162), hipokoristiko era gehienak batez ere helduek hurrekin edo

haur koskortuek gazteagoekin hitz egiten dutenean erabiltzen dira. Daviesek (2000: 22) izen ttipietan agertu ohi diren errepikapenak eta italieraz gertatzen den geminazioa haur hizkerari leporatzen dizkio. Lipskik (1995: 388, 422-423) gaztelaniako izen ttipien eredu oinarriak haur hizkeran berean eta helduok haurrekin mintzatzen garenean egiten ditugun bakuntzeetan bilatu beharrak direla uste du, eta Piñeros (2000) Amerikako gaztelaniako hipokoristikoak zuzentzen dituzten arauak eta haur hizkerarenak lotzen saiatzen da.

Nik ez dakit haur euskaldunak zer adinetan hasten diren izen ttipiak, mota batekoak izan edo besteak izan, ibiltzen. Badira haurrarekiko hizkera adierazkorra biltzen duten (Salaburu, 1984: 119 eta hurr.) edo aztertzen duten (Zubiri, 2002) zenbait lan, baina ez, dakidala, hipokoristikoez mintzo denik. Gaztelaniaz, Aguirrek, Albalak eta Marrerok egindako ikerketaren arabera (2005: 141), urte bat eta bederatzi hilabeterekin eman zuen Magín zeritzan umeak lehenbiziko hipokoristikoa, eta hilabete gehiagorekin Mariak. Nolanahiko gisan, gogoan hartzekoa da atzizki bidezko izen ttipiak eman zituztela haurrok eta euskaraz gaia korapilatsuagoa dela, aukeran baliabide gehiago daudela.

Zernahi dela, akort naiz Irigoienekin (1995: 1) euskararen eremuko Erdi Aroko hipokoristikoen sorrera aztertzean «se me hace necesario manifestar aquí, que, como es obvio, considero que el mundo de los hipocorísticos es de una gran complejidad, y que no puedo penetrar en él más que de soslayo, máxime tratándose de textos medievales» dioenean. Nik, dena dela, Nafarroako egungo hipokoristikoak ere biltzen ditut, bizkaitar euskaltzainak ez bezala, eta historikoak eta gaurkoak eskema orokor baten barnean sartzen ditut (ikus beherago). Bestalde, hark ez bezala, izengoitiak alde bat utzi ditut usaian (*Per Arnalt dicho Velçto*-ren modukoak), zenbait aldiz lehen izenaren eta izengoitiaren arteko bereizkuntza arrunt garbi ezin egin badaiteke ere (ikus hirugarren atalean diodana).

Euskal onomastika ikertu duten lanek arruntean ez dute kontuan izan gure inguruan eta munduko beste alderdi batzuetan gertatzen dena: erraterako, Jimeno Juriok eta biok argitara emandako *Artajona. Toponimia Vasca / Artaxoa. Euskal Toponimia* liburuan Nafarroako herri horretako leku izenak aztertu genituen, baina ez ginen saiatu toponimo horiek beste hizkuntza eremu batzuetakoekin erlazionatzen, eta uste dut neurri batean hau normala dela holako liburu batean. Hala ere, iruditzen zait hats handiagoko lanetan baitezpadakoa dela euskaraz arruntak diren gertakariak gure inguruko eta urrutiagoko beste hizkuntza batzuetan badirenetz aztertzea, hots, geurea bakarra den zer-baiten aitzinean gauden ala munduan barna aski ezaguna den erabide baten aitzinean. Alegia, uste dut ez garela gure txokoan goxo-goxo gelditzen ahal eta ahaleginak egin behar ditugula kanpoan zer dagoen jakiteko. Hau da, izan ere, euskal hipokoristikoen gaia ikertzean bestetan gauzak zertan diren ikustera bultzatu nauena.

1. AZTERTUTAKO GARAIA

Nire helburua historia ezagun guztia besarkatzea izan da, eta, horregatik, ikerketa hau Akitaniako idazkUNETAKO datuetatik abiatu dut, batik bat Mitxelenaren eta Gorrotxategiren lanetan azaltzen direnetatik. Erdi Aroko material argitaratuak ere –garai honetako datuak jasotzen dituzten agiri bildumak– arakatu ditut. Jakitun naiz, halarik ere, lan hau askoz hornituago egon litekeela, alderdi anitzetatik.

Bestalde, ez ditut antzinako izenak eta oraingoak zerrenda banatan sailkatu nahi izan, osotasun-zurrean, nahiz garbi dakidan aspaldiko datuak egungo egunekoekin multzokatzea arriskugarri izan daitekeela (ikus González Ollé, 1962: XXIII). Kontuan eduki beharra dago, alabaina, behialako baliabideetako batzuk, eta izen hipokoristiko batzuk, bizirik daudela oraino (*Matxin*, *Txomin* adibidez), alegia, halako jarraitasun bat ikusten dela datuetan. Akort naiz Algeorekin (2006: 9) ondokoa dioenean:

«The (onomastic) theory should be capable of dealing with both synchronic and diachronic facts of its subject. In onomastics the sharp division between historical study and descriptive study of an *état de langue*, which has characterized twentieth-century linguistics, has never been made. In naming, more than in other aspects of language, users are aware of history. For that reason at least, a distinctive approach to the synchronic/diachronic dichotomy is called for».

Edozein modutan, lehengo eta egungo lekukoak ongi bereizi dira, aurreneko horiei aldakan beti erreferentzia ezarri baitiet, hots, nondik atera ditudan erraten baitut. Gainera, gaur bizirik daudenei gehien-gehienetan azentua paratu diet; arau honetatik kanpo gelditu dira *Auspoa* bildumatik eta beste liburu eta agerkari batzuetarik idokitako zenbait izen, lan horietan azenturik ageri ez delako.

Garbi dago, nolana ere, hemen ez naizela sozionomastikaren arloan mugitu, ez dut sinkronia bat –gure egunotakoa edo iragan mende batekoa adibi-

dez– espresuki aztertu; nirea gehiago lan «pankronikoa» izan da, nahiz egungo datuak ere, Nafarroakoak partikulazki, biltzen eta sailkatzen ditudan. Era berean, hau ez da etnografiaren edo antropologiaren ikuspuntutik bideratutako lana, ez dut egin Alfordek orain urte batzuk, 1988an, Estatu Batuetan egin zuena, edo ez behintzat osotara, gure helburuetako batzuk amerikarraren xedeetako batzuekin bat datozen arren (ikus ikertzaile horren laneko 25. orrialdea).

2. IZANDAKO ITURRIAK

Erdi Aroko agiri bildumak izan dira lan hau burutzeko baliatu dudan iturri behinenetako bat. Horietan nabarmentzekoak dira Eusko Ikaskuntzaren *Fuentes documentales medievales del País Vasco* izeneko sailean argitara emandako lanak, Nafarroatik atera eta Euskal Herriko beste herrialdeetara, Hegoaldekoetara behintzat, iristeko aukera eman didatelako. Sail honetan aipa daitezke, beste askoren artean, M. Crespok, J. Enríquezek, C. Hidalgo de Cisnerosek eta M^a. T. Ruizek kaleratu dituzten hango eta hemengo artxiboetako agiri bildumak, beste norbaitekiko lankidetzan arruntean.

Nafarroako dokumentazioan biziki garrantzizko dira J. M^a Lakarraren *Colección Diplomática de Irache*, S. Garzia Larragetaren *El Gran Priorado de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos XII-XIII. Colección Diplomática*, A. Martín Duqueren *Documentación Medieval de Leire (siglos IX a XII)*, J. M^a Jimeno Jurioaren *Documentos medievales artajoneses* eta *El libro Rubro de Iranzu*, J. Carrascoren *La Población de Navarra en el siglo XIV*, I. Ostolatzaren *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*, J. Goñi Gaztanbideren *Colección Diplomática de la catedral de Pamplona. 829-1243* eta azkenik, baina ez gutienik, R. Zierbideren liburu ugari eta joriak, batez ere E. Ramosekin batean argitara emandako *Documentación Medieval del Monasterio de Santa Clara de Estella (siglos XIII-XVI)*, *Documentación Medieval del Monasterio de Santa Engracia de Pamplona (Siglos XIII-XVI)*, *Documentación Medieval del Monasterio de San Pedro de Ribas de Pamplona (siglos XIII-XVI)*, *Documentación medieval del archivo municipal de Pamplona (1129-1356)* eta, buruenik, *Archivo municipal de Tafalla (1557-1540)*.

Iparralderako lanik axolazkoena oraindik argia ikusi ez duen (tesi moduan 1966an aurkeztu bazuen ere) E. Goihenetxeren *Onomastique du nord du Pays Basque (X^e – XV^e siècle)* izan zait, eta beste neurri batean R. Zierbideren *Censos de población de la Baja Navarra* eta *Le Censier gothique de Soule*. Autore honen eta J. Santanoren lankidetzaren fruitu diren *Colección Diplomática de Documentos Gasco-*

nes de la Baja Navarra (siglos XIV-XV). Archivo General de Navarra. Tomo I eta Colección Diplomática de Documentos Gascones de la Baja Navarra (siglos XIV-XV). Archivo General de Navarra. Tomo II direlakoak ere baliatu ditut ikerketa honetan.

Euskal Herriaren inguruko agiri bildumak ere aintzat hartu ditut, Valpuestakoa (Pérez Soler, 1970) eta Donemiliaga Kukullakoa (Ubieto, 1976, Ledesma, 1989) bereziki. Anitzez liburu gehiago ere arakatu ditut, bibliografian ikus daitekeen bezala, ikuskatu ditudan guztiak hor azaltzen ez diren arren, zeren, izan ere, behin kopuru batera iritsiz gero neke baita, biziki, datu berriak kausitzea.

Bestalde, eta Erdi Aroaz geroko datuez kestione, garbi aitortu behar dut ditudan lekukotasun gehienak erreinu zaharrekoak direla, eta lan hau, beraz, zeharo alderditua eta makurtua dagoela Nafarroa aldera, aieka honetatik. Izan ere, dokumentazioko bilketa lana batez ere Nafarroako Protokolo Artxiboan egin dut. Ahozko lekukotasunak jasotzeko galdeketak ere, gutiz gehienetan, Foru Erkidegoan eginak dira, eta izenak, beraz, nafarrak dira ia beti. Puntu honetan argi utzi nahi dut aipatzen diren hipokoristikoko batzuk dagoeneko hilik dauden lagunak direla, berriemaileek herrian berean edo inguruko herriren batean ezagutu zituztenenak.

Bestalde, hemen agertzen diren testigantza dokumental gehienxkoenak pertsona historikoei dagozkie, hau da, noizbait bizi izan ziren pertsonen, noizbait hori noiz edo noiztzu izan zen ongi dakigularik, agiri ofizialetan kausituak baitira gehien-gehienak. Alabaina, ez dut oikonomia baztertu nahi izan, agiri ofizialetan aurkitzerik izan ez dudana zenbait izen azaltzen direlako. Izan ere, euskal oikonimo horien sorrera zein izan den bistakoa da, hots, euskal etxe-izen horien oinarrian zer dagoen garbi dago, eta ez dut arrazoirik ikusten garai batean, behiala, *Karloskorena*-ren sorreran, adibidez, edo bere izenarenean bederik, *Karlosko* izan ez zela uste izateko.

Lekukotasun historikoen landa, egun bizirik dauden hipokoristiko franko ere bildu ditut, arestian erran bezala ia guztiak Nafarroakoak. Datu gehienak eman dizkidatenak ondoko lagun hauek dira: Sagrario Aleman (Etxaleku), Jose Ramon Amoros (Arantza), Maider Antsa (Arano), Pello Apezetxea (Etxalar eta Goizueta), Aitor Azkarate (Aniz, Berroeta), Joxe Mari Beratsain (Ultzama, Basaburua, Odieta, Imotz, Anue), Edurne eta Izaskun Bertiz (Doneztebe, Labaien, Saldias), Jose Luis Erdozia (Etxarri Aranatz, Sakana), Maider Goñi (Oitz (1)), Andres Iñigo (Malerreka aldea), Aitziber Iratzoki (Le-

(1) Ez dakit honek emandako datu guztiak Oizkoak diren; kopuru handia ikusirik eta hurbil dauden beste herri batzuetan errepikatzen direla jakinik, uste dut ezagutzen zituen guztiak eman zizkidala, hots, bere herrikoak eta ingurukoetakoak. Halarik ere, seguru ez dakidanez gero, Oizkotzat jotzen ditut, baina, erran bezala, duda egiten dut denak herri honetakoak ote diren.

saka), Ainhoa Iriarte (Arizkun, Biarritz, Erratzu, Urdazubi, Zugarramurdi), Itxaro Irigoien (Oronoz), Peio Kamino (Luzaide, Arnegi), Bittorio Lizarraga (Leitza, Eratsun, Ezkurra), Patxi Menta (Arizkun), Paskual Rekalde (Amaiur, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Senpere), Jose Mari eta Pilar Satrustegi (Arruazu, Arbizu, Dorrao, Etxarri Aranatz, Etxauri, Lakuntza, Lizarraga Ergoiena, Oderitz, Larraun, Uharte Arakil, Urdiain), Klara Zelaieta (Igantzi) eta Juan Jose Zubiri (Goizueta, Gipuzkoa).

Aitzinekoez landara, Nafarroa Beherean Louis Xuri (Gamue) eta Xane Idiart (Amendüze) elkarrizketatu ditut, eta Zuberoan Jean-Louis Davant (Larabile) eta Txomin Peillen (Santa Grazi) euskaltzainak. Hemen hauen guztien alderako nire zorra ezagutu eta aitortu nahi dut, beraien laguntzarik gabe ezinezkoa baitzatekeen lan hau burutzea. Bide honetatik ikasirikako datuak azentuz horniturik ageri dira, gorago erran gisan. Era berean, Mitxelenaren Zaraitzuko euskararen gaineko lana (1967) eta Caminoren Aezkoako hizkeraren ingurukoa (1997) oso kontuan hartu ditut, galbidean edo dagoeneko galdurik dauden Nafarroako Pirinioetako mintzoen berri ematen digutenez geroztik.

Iturritzat erabili dut, baita ere, eta gorago erran bezala, *Auspoa* bilduma ederreko hainbat lan, bertan oraindik bizirik dauden edo orain gutxi arte bizirik egon diren hipokoristikoak biltzen direlako. Hauek, adierazi moduan, azenturik gabe azaltzen dira. Iparraldeko izenen bilketarako azken urteotako *Herria* erabili dut. Euskal literaturan agertzen diren hipokoristiko batzuk ere aintzat hartu ditut, jakina, baina arlo honetan ez dut arrunteko lanik egin, hots, ez dut burutik bururako lanik moldatu. Puntu honetan ezin dut aipatu gabe utzi Patziku Perurena goizuetar leitzartuaren *Leitzako Errege Erreginak* liburu bikaina, hainbat eta hainbat hipokoristiko jasotzen dituena, ez eta ere idazle honek Juan Jose Zubiri herritarrarekin kaleratutako *Goizueta eta Aranoko hizkerak* deritzana.

3. HIPOKORISTIKO EDO IZEN T'TIPIAREN DEFINIZIOA ETA BESTE

3.1. Zer da hipokoristikoa?

Aitzina baino lehen komeni dela dirudi hipokoristikotzat zer ulertzen dudana azaltzea. González Ollek dio (1962: XXII), txikigarriez ari delarik, ez duela definiziorik eman nahi, baina liburua idazteko ezinbesteko duenez gero, zehazten du txikigarriztat atzizki txikigarria hartu duten hitzak ematen dituela; hauek *txikigarri sintetikoak* dira, izen eta izenondo osatutako *txikigarri analitiko* deitzen dituen bestelakoak. Armasen iritzian (1974: 195) hipokoristikoak populuak pertsona, animalia edo gauzen izenatarik apetzat eratoritzen dituen formak dira, zein lagunartekoagoak, «intimoagoak» eta laburragoak baitira jatorrizkoak baino.

Leónek (1980: 56) familia ohiturak sortutako izen aldaerak direla dio, eta maitasunean, tradizioko erabileran eta hurrek izen horiek osorik ebakitzeko duten zailtasunean oinarriturik daudela. De Klerkek eta Boschek ere (1997: 106) familiak izen ttipien sorreran duen garrantzia nabarmentzen dute, eta horrekin batean umeei izenak ahoskatzeko dituzten oztopoak ere aipatzen dituzte hipokoristikoen iturburutzat. Lázaro Carreter-en arabera (1990 [1953]: 223) hipokoristikoa amultsuki erabiltzen den hitza da, zenbait aldiz nolabaiteko itxuratxartzea jasan duena. Terminu honekin, aipatu autorearen iritzian, izen bereziek familia hizkeran izaten dituzten laburtze eta itxuraldaketak adierazi ohi dira. Moreraren arabera (1991: 206) «hipokoristiko» hitzarekin erakuntza txikigarri jakin batzuk ematen dira aditzera, bai eta ere konfiantza edo onginahia eragiteko, sortzeko egiten diren izen berezi edo arrunten itxuragabetzeak, usaian laburtzearen ondorio direnak.

Feldmanen irudiko (1959: 242), «pet-names» direlakoak bakarrik hurbilekoendako dira, «for special intimates only»:

«Pet-names, for instance, suggest an intimacy in which one can treat another or be treated as a child. Their use in non-intimate occasions quickly brings

out the fact that they contain perceptions which criticize, devalue and threaten. In the mouths of unauthorized persons, they are insulting».

Newmanek eta Ahmadek (1992: 159), berriz, honela definitzen dute:

«Hypocoristic (henceforth HC) formation involves modification in a given name, by affixation or reduplication, in order to indicate attitudinal information about the affection of the speaker toward the person referred to».

Frankek (1975: 514) dio *Kosename* maitasunak bestelakotu duen izen (neutro) baten aldaera dela, eta hau, maitasun joera horretan oinarriturik, usukara laburtzen dela, «wofür bestimmte Suffixe symptomatisch sind». Zernahi gisaz, atzizkirik ez duten izen aldaerek, forma osoek eta aldaera laburtuek ere («Kontraktionen und Kurzformen») hipokoristiko edo *Kosename* papera egin dezaketela gehitzen du. Halaber, haur hizkerak duen garrantzia aitortzen du (ibid., 518. or. eta hurr.).

Definizioaz mintzatzean ezin da aipatu gabe utzi hizkuntza batzuetan, hipokoristikoen iturritako, nik aintzat hartzen ez ditudan bestelako izenak ere onesten dituztela, pertsonenak ez ezik. Erraterako, japoniera aztertzean unibertsitate izenen hipokoristikoez mintzo da Milam (2006), eta Stonhamek (1991) jakinarazten digu, Kanadako nootka edo nuuchahnulth hizkuntzan hipokoristikoak sortzeko bideez ari delarik, leinu izenak eta erlazio terminoak ere aintzat hartzen direla. Armasek (1974: 195), bestalde, erraten du Guatemalako gaztelanian (apika hango bertako hizkuntzen eraginez) *Guatemala*, *Xelajú*, *Retalhuléu*, *Huehuetenango* eta *Chichicastenango*-ren moduko toponimoak *Guate*, *Xela*, *Huehe* eta *Chichi* bilakatzen direla.

Onomastika batzordeko bizkaitar kideek erraten didatenez, Jaurerriko gaztelanian normala da *Portugaleta* eta *Sopelana*-ri *Portu* eta *Sope* deitzea, hots, «*voy a Portu*» edo «*vengo de Sope*»-ren modukoak erratea. Iruñean «*me voy al Piri*» ('me voy al Pirineo') entzunik nago, mendizale porrokatu baten ahotik, baina eginen nuke holakoak bakanak direla, oraingoz behintzat. Dena dela, Iruñeko *La Milagrosa* eta *La Rochapea* auzo izenak (*Arrosadia* eta *Arrotxapea* euskaraz) *La Mila* eta *La Rocha* bilakatzen dira iruindar zenbaiten hizkeran, lagun arteko solasean betiere. Era berean, Gasteizko *Cuchillería* eta *Zapatería* karrika izenak (*Aiztogile kalea* eta *Zapatari kalea* euskaraz) *Cuchi* eta *Zapa* dira zenbaitetan, ikasle jendearen ahotan.

3.2. Hipokoristikoa izengoiti mota bat ote?

Izenen aldaera laburtuak direla eta, erran beharra dago zenbait iker-tzailek izengoitizat hartzen dituztela, ez hipokoristikotzat: «Accepted short

forms of first names (Sue, Cath, Pat) and “ee” derivatives of first names (Susie, Cathy, Patty) are considered as nicknames» (Zaitzow, Skipper eta Bryant, 1997: 84). Hau harrigarria da, bereziki kontuan hartzen badugu bigarren ikertzaileak lehenagoko beste lan batean kontrakoa dioela, hitzez hitz «... a nickname is a name which is not derivative from a person’s given name or a diminutive of it. It is a name which is substituted for, or used alternatively with a person’s given name» (Skipper, 1986: 134). Bistan da, beraz, denbora igarotzearekin iritzia aldatu duela.

Beste ikertzaile batzuek ere izengoitizat hartzen dituzte nik lan honean hipokoristikotzat ematen ditudanak (ikus apokope edo «regression» delakoari eskainitako atala), hots, izenaren aldaera laburtuak, atzizkidunak edo atzizkirikgabeak (H. B. Allen 1956, Stankiewicz 1957, Mook 1967, Kaden 1972, Seeman 1983, Debus 1988, Holland 1990, Neethling 1994 eta 2005, De Klerk & Bosch 1996 eta 1997, Butkus 1999, Davis & Zawaydeh 1999, Grüter 2003, Abel 2004, Mehrabian 2006 [1997]), baina ez denek (Armas 1974, Busee 1983, Short 1983, Morera 1991, Piñeros 2000, Bodenhorn 2006).

Besteren batek ongi bereizten ditu bi sailak, nahiz onartzen duen hipokoristikoetako batzuk izengoiti bilakatu direla (Iglesias, 1980). Frankek (1975: 514), berriz, uste du pertsonaren ezaugarri bat nabarmentzen duen izengoitia («der Bei- oder Übername») hipokoristiko bihur daitekeela, maitasunez erabilia denean. Kennedyk eta Zamuner-ek (2006) goitizentzat hartzen dituzte hipokoristikoak, baina «hypocoristic nickname» azpisailean kokatzen dituzte; hauek, dena dela, zenbait kiroletako hiztegian segurik, deituetan egon ohi dira oinarriturik, gure arteko batzuk bezala (cf. *Xala* pilotari famatua, erraterako). Lieberson & Kennyk (2007) hipokoristikoak «nicknames» etiketa zabalagoaren barnean sartzten dituzte, baina gero, beharrak eraginda, «shortened forms of a given name» itzulira jo behar dute haiek adierazteko, izenarekin erlaziorik ez duten bestelako izengoitietatik (*Red*, *Swift*-ren modukoetarik) bereizteko.

Fokker-ek (1960) sail banatan ezartzen ditu errusierazko izen laburrak eta izen adierazkorak (hipokoristikoak eta gaitzestekoak), eta Lawsonek ere (1973: 222-223) ingelesezko izen laburrak (*Daniel* → *Dan*, *David* → *Dave*, *Frederick* → *Fred*, *James* → *Jim*) eta izengoitiak (*Daniel* → *Danny*, *David* → *Davey*, *Frederick* → *Freddy*, *James* → *Jimmy*) multzo banatan sailkatzen ditu. Hondarreko ikertzaile honek, beranduagoko beste lan batzuetan (Lawson & Roeder, 1986; Lawson, 1990: 323), izenatarik eratorritako aldaerak ez ditu izengoitizat hartzen, maitasunezko formatzat (*David* → *Davey*, *James* → *Jimmy*, *Patricia* → *Pattie*, *Robert* → *Bobby*) edo izen laburtzat (*David* → *Dave*, *James* → *Jim*, *Patricia* → *Pat*, *Robert* → *Bob*) baizik.

Newmanek eta Ahmadek (1992) «hipokoristikoa» hitza besterik ez dute ibiltzen Hausako samurtasun eta maitasun izenak aztertzean. Abelek dioenez (2004: 281), «one of the ongoing debates among onomasticians is whether diminutives or derivatives of first or last names should be considered nicknames». Gaineratzen du berak ere izengoitizat hartzen dituela, De Klerk eta Boschen 1996ko lanak horretara eraman zuelako, nonbait. Azken bi ikertzaile hauek honela diote aipatu lanean (527. or.):

«In defining nicknames, many writers choose to exclude from their analyses those names which are obvious short forms or derivatives of the first name (*Thomas* > *Tom*; *Natalie* > *Nats*; *Candice* > *Candy*). [...]. If the numbers of a group consider them to be nicknames, the researcher has an obligation to do likewise [...].».

Dena dela, autore hauek «callname» ibiltzen dute normalki lehen izenetik eratorritako hipokoristikoa adierazteko, nahiz dei-izen hori ere goitizentzat ematen duten.

Nik uste dut euskaraz *Burugorri*, *Buruxuri*, *Lepoto* eta *Motza*-ren tankerakoak *Izaskun* → *Ixaxkun*, *Estanislao* → *Ixtanix*, *Nagore* → *Nago* eta besteren modukoez arrunt bestelakoak direla, eta hiztunek ere desberdin dakuskitela. Horregatik, lan honetan «hipokoristikoa» edo «izen ttipi» darabilte ingeleseko *Tom*, *Nats* eta abarren euskarazko parekoez ihardukitzean, ez «izengoiti», «goitzen» edo antzekorik. Lawson eta Lawson & Reader-en erranen kariatara (cf. goraxeago), ikus aitzinago aipatzen ditugun «bir-hipokoristikoa».

3.3. Izen ttipien eta hizkuntza mailaren arteko erlazioaz

Bestalde, gure izen ttipiak aztertzeko garaian kontuan eduki beharra da euskara beti mendekoa izan dela, hots, gainetik beti beste hizkuntza ofizial, idatzi bat izan duela eta honek dokumentazioko datuak behar bezala ulertzea galarazten digula, segurua baita agiritan erdarazko izen ohiko batekin (*Martin*, *Pedro*...) agertzen diren pertsonetarik anitz etxeko giroan, are karrikakoan, beste modu batera (*Matxingo*, *Peruski*...) ezagutzen zirela. Honen froga dira dokumentuetan kausitzen ditugun ezin konta ahala hipokoristikoa, eguneroko erabileran zuten indarraren erakusgarri direnak. Elebitasun egoeran bizitzeak usu aldaera adierazkor hutsak zirenak erdarazko izenen baliokidetzat hartzea ekarri zuen berekin. Hau ez da nire kaskotik atera den burutazioa, 1596. urtean opatzen baitut honen lehen testigutza: *Egogui Machini mantua, / ta ez afari guertua* (RS, 160. erretra). Erdaraz honela dago itzulirik: *De suyo le está a Martín el manto, / y no la cena aparejada*. Astarloaren lanean ere ageri da; honela dio durangarrak (1883: 677):

«Hagámoslo ver aplicando el mismo artículo a los [nombres propios] que acaban en consonante, y sirva de ejemplo el nombre propio *Machin*, que equivale al Martin de los castellanos».

Honek erran nahi duke *Matxin*, adibidez, erdarazko *Martín*-en euskarazko baliokidetzat hartzen zela, ez azken hizkuntza honetako *Martie* edo *Marti(n)*-en kideztat. Hau berau gertatu da, beste maila batean, euskararen eta erdararen artean, hau da, ardurakara euskararen erregistro jaso eta lagunartekoa garatu beharrean, erdarak, erdaretako batek, bete du jasoaen papera, eta gureak, berriz, lagunartekoarena (ikus Zuazo, 2005: 217).

Nolanahi ere den, badakigu euskal izenak, ez hipokoristikoak bakarrik, anitzetan bazterturik gelditzen zirela dokumentazio ofizialean, eta agertzen zirenean goizentako agertzen zirela: «*Joan de Abanoeta, dicho Joane Ona*» (Andoain, 1475, Le. & Ta., 1996, 20, 67. or.), «*Martin de Camino, dicho Martiehobe*» (Ziz.-Ad., 1470, Le. & Ta., 1996, 18, 62. or. = «*Martin de Camio, dicho Martio-be*», ibid., 59. or.), «*Juan de Ydiaca, dicho Juane Gupuçua*» edo «*Juan Ydaqueiç dicho Juane Guipuça*» (Segura, 1496, Lu. & Zu., 2001, 95, 96, 90 eta 172. or.). Azkenurreko adibideak identifikatzaile edo deiturak ere erdaratzen zirela erakusten du, *de Camio* hori, segur aski *Kamioko(a)* baten itzulpena dena, are gehiago itzultzen baita, erdarazko sudurkaria sartuz, Galizian-eta egin izan den bezala (Boullón, 1997).

Egoera hau bera kausitzen dugu oraino ere Iparraldean. Jean Etchamendy edo Mañex Etxamendi bertsolariaz mintzo dela honela zioen Lafitte zenak orain hogeita hamazazpi urteko lanean (1972: 13):

«Bai herriko bai elizako paperetan “Jean” deitua gatik, etxekoek eta bertze herritarrek ere Mañex erranen zioten. Funtsean, aspaldiko usaia da gure familietan, izen frantses ofizialaren orde, eskuarazkoa ekartzea».

Hegoaldean ere ofizialki *Francisco* edo *Pedro María* diren batzuk, *Pantxito* edo *Pellomari* dira herriko giroan, Baztan aldean, konparaziorako. Bestalde, eta mendiez hona indian betiere, *Francisco* direnek, euskaltzaletzen direnean, *Patxi* izendatuko dute beren burua –gure kasua da hau–, *Antonio*, *Jesús* edo *Miguel* dena euskaltzaletu edo abertzaletzearekin *Andoni*, *Josu* edo *Mikel* bilakatuko den bezala (1), hondarreko izen hauek (aurreneko biak behintzat) berez, jakina den gisa, S. Aranaren uztakoak diren arren, ez izen herrikoiak. Pertsona izenen, identitatearen eta politikaren arteko harremanez luze mintza liteke, baina

(1) Joan-etorriko itzulia egin duenen bat ere ezagutzen dut, alegia *Miguel* bat *Mikel* bihurtu zena, baina azken urte hauetako giroak eta gora nahiak bultzaturik, antza, berriz ere *Miguel* izatera bihurtu dena.

ez da hau leku egokia horretarako; nahi duenak Isaacs (1975), Rosaldo (1984), Alford (1988), Arno (1994), Rymes (1996), Herbert (1999), Aceto (2002) eta Tai (2006) ikus ditzake.

3.4. Badea mailarik hipokoristikoetan?

Irudi luke badirela hipokoristiko batzuk «goiko» maila iritsi dutenak, hala nola *Josetxo*, *Patxi*, *Pello*, Astarloaren *Matxin*-ez landa, izen ttipien artean badirela aldeak, denak ez direla maila berekoak. Hau beste hizkuntza batzuetan ere gertatu da; alemana dela eta, erraterako, honela mintzo da Naumann (1976: 2):

«So sind Vornamen wie Fritz (aus Friedrich), Heinz (aus Heinrich), Lutz (aus Ludwig), Hans (aus Johannes), Bernd (aus Bernhard), Kurt (aus Konrad) und viele andere heute bei uns gebräuliche Vornamen allmählich aus dem nichtoffiziellen in den offiziellen Namengebrauch hinübergewachsen».

Ikus, orobat, Debus (1988: 28). Nik irudipena dut *Ixaxkun* eta *Pello* maila eta giro banatako hipokoristikoak direla, eta, horregatik, lehena gehienbat etxera eta lagunartera mugaturik dagoela, Armasek (1974: 196) «intimitatea» deitzen duena behar duela, eta bigarrena, berriz, jende aurrean lasai ederrean ibil daitekeela. Wierzbickak 1992ko lanean (225. or. eta hur.) argi bereizten du aldea laburtu, arautu eta onartua duten izen ttipien (*Benjamin* → *Ben*, *William* → *Bill*, *Gillian* → *Gill*) eta holakorik ez dutenen artean (*Sebastian* → *Bas*, *Cheryl* → *Che*), izan ere, bata erabili edo bestea erabili, balio pragmatikoa hagitz desberdina baita. Hala bada, ingelesez askoz markatuagoa da *Sebastian* edo *Cheryl* errateko *Bas* edo *Che* erabiltzea *Benjamin* adierazteko *Ben* erabiltzea baino. Shortek (1983: 35) erraten du Ingalaterrako Essexen, mutiko izenetan, silaba bakarreko hipokoristikoak direla nagusi (*Bob* eta *Rob* < *Robert*, *Ed* < *Edward*, *Gar* < *Garry* < *Gareth*, *Ken* < *Kenneth*, *Tel* < *Ter* < *Terry* < *Terence*), -i akabaila dutenen aldean, hain zuzen ere bukaera hori daukatenetako batzuk (*Berney*, *Danny*, *Garry*, *Terry*, *Tony*) oinarritzko bilakatu eta bokal palatalaren bidezko erabidea galarazten dutelako. Kanarietako gaztelanian ere badira neutraltze bilakaera hori nozitu duten izenak (Morera, 1991: 207-208, 215): *Chona* (< *Concepción*), *Lola* (< *Dolores*), *Pancho* (< *Francisco*), *Pepe* (< *José*)...; beste batzuk, berriz, hipokoristikoak dira oraino: *Chago* (< *Santiago*), *Chichín* (< *Jesús* < *Jesús?*), *Lele* (< *Andrés*).

Nik susmoa dut gurean ere badela iruditsuko zerbait, gauza ber-bera ez den arren, ingelesak eta gaztelaniak han-hemen eta euskarak Euskal Herrian izan duten eta duten estatusa guztiz desberdina delako, jakina den bezala. Puntu honetan, apika, hipokoristikoez eta «bir-hipokoristikoez» mintzatu behar genuke, hots, hipokoristikoen hipokoristikoez. Multzo honetan, beharbada, *Birjina* → *Biki*, *Dominika* → *Domi* → *Momi*, *Edurne* → *Nune*; *Josune* → *Totune* →

Totu, Tutu; Juan Kruz → Kaku, Maria Antonia → Manttoni → Mantto eta *Mari Paz → Papax*-en modukoak sar genitzake, batez ere, ikusten den bezala, errepikapenez sortutako izen ttipiak, ardura izen neutrotik ateratako hipokoristikotik irten direnak. Hirugarren maila batean sailka genitzake, irudi duenez, familia giroan eta lagunartean baizik ibiltzen ez diren forma laburtuak, maiz silaba bakarrekoak direnak, aldakan, usukara, aldaera osoagoa dutenak: *Laura → Lali → La, Leire → Lele → Le, Lidia → Lili → Li, Maider → Ma, Maite → Maitte* edo *Maitetxu → Mai*. Alemanez ere, Debusek (1988: 37, 41) biltzen dituen datuetan ikus daitekeen moduan, badira silaba bakarreko «Kurzformen»: *Beatrice → Be* (eta *Bea*), *Michael → M* (sic), *Mi* eta *Mich*, *Peter → Pe*, eta berebat frantsesez (Plénat, 1982: 88), hizkuntza honetan bi silabako izen ttipiak aise ugariaoak, eta euskaraz gertatzen den bezala, finkoagoak izanagatik, «plus stables», ikertzaile horren hitzetan.

Silaba bakarreko hipokoristiko hauek, ematen duen baino ohikoagoak direlako susmoa dut, baina, familia giroan eta lagunartean ibiltzen direnez gero, ikertzailearendako ez da erraza horrelakoak aditu eta biltzea. Debusek (1988: 34) erraten duen bezala, «vor allem stellt sich aber dem Sammler das Problem, daß es sich bei dieser Namensorte wegen ihres Privatcharakters um schwer erfahrbare Benennungen handelt». Arazo metodologikoa dugu aurrean, beraz, aise ezin konpon daitekeena. Erakusgarritzat neure kasuaren berri emanen dut, jendearen aitzinean biluztea deabrua bazait ere, lanaren eragozpenak argiroago ikus daitezten: semeek *Txap* deitzen didate normalean etxean (*Patxi → Txapi → Txap*), baina forma hori ez dute inoiz besteren aitzinean ibiltzen, hots, erran dezakegu intimitatera mugaturik dagoela, ez dela barruko gunere horretatik inola ere ateratzen.

Zernahi dela, goi mailako / behe mailako izen ttipien afera honetan, agiritako testigantzei doakienez behinik behin, mugak paratzea nekekara dela uste dut, dokumentazioa ikusirik anitzetan hipokoristiko huts-hutsak bide zirenak ere agiri ofizialetan lasai aski azaltzen direnez geroztik: *Antxiko, Antxot(e), Domekato, Elbirato, Estebeko, Gartxot, Joanetako, Joangoxe, Katalintxoa, Maiorto, Malliko, Maritonko, Martiki, Matxiko(te), Matxin* («*Machin de Çalua, clerigo de las finanzas de los cofres del rey*», 1413, Castro, XXX, 116, 57. or. Ez zen beraz, ikusten den bezala, morroi edo peoi zenbait. Idoatek 1969ko lanean erakutsi zuen bezala, hau izan zen euskarazko gutun baten egilea), *Matxingo* (*Machingo d'Orotz = Martin de Oroz, Martin de Orotz*), *Migeliko, Mitxelko(xe), Nabarko, Otxoteko, Perukot, Peruski(to), Xemerot, Txurdintxo* eta abar. Agertze hau, nolana ere, erran dudan moldean, hipokoristikoek eguneroko bizian zuten indarraren erakuskari da, nire iritzian. Hasselrotek dioenez (1957: 24), stock onomastikoaren bat-bateko pobretzeak ondoriotzat zenbait atzizkiren bitartez erdietsi izenen kopurua berretzea izan zuen, honela gizabanakoaren identifikatzea errazagoa izan zedin. Ikertzaile frankok aipatu dute urritze hau atzizki patronimikoaren erabileraren handitzearen iturbegitzat (ikus Salaberri, 2003).

Dokumentazioan, zenbait aldiz, aipatu dudan *Machingo d'Orotz* = *Martin de Oroz*, *Martin de Orotz*-en moduko hipokoristikoa / (erdarazko) izen neutroa bikoiztasunaz landara izen beraren bi aldaera ere aurkezten zaizkigu, denbora batean zegoen askatasunaren edo finkatze ezaren seinale, baita agiri berean ere: *Peru d'Irissarri*, *corrayllero de Pomplona* = *el dicho Betri d'Irissarri* (Iru., 1338, Ruiz, 2004, 1878, 54-55. or.).

Stankiewiczek dio (1957: 208-209) errusieraz etorkiz hipokoristiko ziren era batzuek, denbora igaro ahala, zuten adierazkortasuna (edo honen parte bat behinik behin) galdu dutela eta egun izengoitizat har daitezkeela. Euskarari dagokionez, ez dakit puntu honetan «goi mailakotzat» aitortu ditudan horien kasuan ez ote dagoen jatorriz zuten adierazkortasunaren galtze zerbait, baina, nolana ere, bistan da galtzapen hori ez dela erabatekoa, holakorik izan bada behintzat.

4. HIPOKORISTIKOAK HALABEHARREZ SORTUAK DIRA ALA ARAU JAKIN BATZUEI JARRAIKIZ? MUNDUAN BARNAKO LEKUKOTASUN BATZUK

4.1. Gaztelania

Leonek (1980: 56), gaztelaniako izen ttipien gainean ari dela, erraten du batzuk erregela zenbaiten ondorioztat jo daitezkeela, baina beste batzuk sistemako arauetatik kanpora sortzen direla (ikus, baita ere, Lenz, 1935: 222). Armasek (1974: 195), Guatemalakoeh diharduelarik, azaltzen du hipokoristikoek erakuntzak ez dituela hizkuntza arauak hertsiki jarraitzen, baina badirela behin eta berriz errepikatzen diren gertakari batzuk, besteak beste ordezkapena (*Lucio* → *Lucho*, *Jorge* → *Coque*), ezabaketa (*María del Carmen* → *Maricarmen*) eta alderantzizkatzea (*Flor de María* → *Mariflor*), lehena beregainki. Boyd-Bowmanek dio (1955: 337-338) hipokoristikoak nahierara egindako aldaketak ez, baizik hizkuntza orokorrak dituen hatsarre fonetikoak bezain erregularrak diren beste hatsarre berezi batzuen emaitza direla.

Morerak (1991: 207) halabeharreko hipokoristikoak, oinarriko izenarekin zerikusirik ez dutenak (*Nieves* → *Pichi*, adibidez) eta ordezkaten duten antroponimotik atera direnak (gehienak) bereizten ditu. Bigarren kasuan erabiderik usuena azentuaren aurreko zatia ezabatu eta hondarrekoa uztea dela dio: *Dámaso* → *Maso*, *Gonzalo* → *Zalo*, *Rosendo* → *Sendo*... Oinoharrean zenbait aldiz kontrako antolabidea, izenaren bukaera ezabatzea ere badela erraten du: *Candelaria* → *Cande*, *Gonzalo* → *Gonza*... Honetan, bistan da, azentua ez da erabakigarria izan. Aurreko beste autore batzuek bezala (ikus 7.1.1 atala), «soinu palatalen errepikapena» nabarmentzen du (*Francisco* → *Pancho* → *Chillo*, *Antonio* → *Toño*, *Gregorio* → *Goyo*, *Concepción* → *Chona*...), bai eta *o*, *i* bokalen maiztasun handia ere.

Piñerosek (2000) Ameriketako gaztelaniako hipokoristikoek azterketa egiten du, Morfologia prosodikoaren ikuspuntutik, eta erraten bi mota nagusi

direla, a) oinarrizko izenaren aurreneko bi silabak atxikitzen dituztenak: *Elvíra* → *Élvi*, *Joséfa* → *Jóse*, *Leocádja* → *Léo*, eta b) izenaren azken silaba(k) gordetzen d(it)u(z)tenak (oinarrizko azentu ereduaren arabera azken silabatik, azken bietatik edo azken hiruretatik irtetzen dira hipokoristikoak): *Beatríz* → *Tícha*, *Jesús* → *Chúcho*, *Elvíra* → *Víla*, *Joséfa* → *Chépa*, *Leocádja* → *Káya*. Bien arteko alde da lehen sailekoak beti ezaugarri berak dituzten kideak («featurally-identical correspondents») direla eta bigarrenekoak ezaugarri berak ez dituztenak («featurally unfaithful correspondents»). Gaztelaniako izen ttipiek bi morako oin bakarra ohi dute, autore honen arabera.

Lehen sailekoetan bigarren silaba *r*, *l*, *n* edo *s*-z tratatua bada, azken kontsonantea atxiki daiteke edo ez (*Ricárdo* → *Ríca* edo *Rícar*, *Rodólfó* → *Ródo* edo *Ródol*...); hondarreko kontsonantea bestelakoa bada beti erortzen da (*Concepción* → *Cónce*), eta diptongoa badago honen lehen osagaiaren ondokoa galtzen da (*Danjél* → *Dáni*, *Javjér* → *Jávi*, *Júlja* → *Júli*, *Manwél* → *Mánu*). Bigarren multzokoetan ozentasun gutxiko segmentuak ageri dira silaba-hastean eta ozentasun handikoak silaba-muinean. Kontsonante multzoak, bestalde, bakundurik ager daitezke (*Alejandrína* → *Dína*) eta diptongoaren elementu ez-silabagilea lekutu daiteke (*Horténsja* → *Téncha*); kodan, bestalde, sudurkaria baizik ez daiteke ager (*Albéрто* → *Béto*). Kausitzen ditugun soinu aldakuntzak ([č] < [ś], [p] < [f], [k] < [x], [l] < [r]) silaba «optimizatze» bidea besterik ez dira Piñerosen irudiko. Palatalizatze edo bat-egitea ere burutzen da, *s*, *r*, *l*, *d*, *t* eta *n*-k ondoan /j/ dutenean: *Atanásjo* → *Nácho*, *Victórja* → *Tóya*, *Amálja* → *Máya*, *Djégo* → *Yéyo*, *Sebastjána* → *Chána*, *Eugénjo* → *Kéno*...

4.2. Frantsesa

Plénatek (1982, 1984) frantseseko hipokoristikoak aztertzen ditu, gehienbat errepikapenezkoak, eta dio lehen bi kontsonante multzoak berdinak dituzten $C_1VC_1V(C_1(\emptyset))$ erako silababikoak arrunt ugariak direla: *Thomas* → *Toto*, *Victor* → *Totor* eta *Marguerite* → *Guiguite*, adibidez(1). Oinarrizko izenetik abiatuak, hipokoristikoa sortzeko eskuineko zatia ezaba daiteke (*Dominique* → *Dodo*, *Geneviève* → *Gé*, *Sophie* → *Sosso*, *Valérie* → *Vava*), ezkerrekoa (*Bernadette* → *Dédette*, *Irénée* → *Néné*, *Sophie* → *Fifi*), erdikoa (*Marie* → *Mimi*, *Marie-Alice* → *Malice*), eskuinekoa eta erdikoa (*Bénédicte* → *Bibi*, *Théophile* → *Toto*), ezkerrekoa eta erdikoa (*Bernadette* → *Nanette*, *Dominique* → *Mimique*, *Marguerite* → *Guite*, *Guiguite*), bi aldeetakoa (*Dominique* → *Mimi*, *Simone* → *Momo*), bi aldeetakoa eta erdikoa (*Angeline* → *Gigi*, *Catherine* → *Titi*, *Eveline* → *Vivi*).

(1) Steriaderen arabera (1988: 145) «kantitate-sentibera den janboa» («a quantity-sensitive iamb») da hau.

Bilakaera horiek guztiak azaltzeko bi «hurbiltze» dakuski: autosegmentala eta melodiko edo metrikoa. Errepikapenezko hipokoristikoetarako proposatzen duen egituraketa lanaren tituluan ageri den ANAR da, hots, silaba-hastea («attaque» frantsesez, «onset» ingelesez) + silaba-muina («noyau» edo «nucleus») + silaba-hastea + errima («rime» edo «rhyme», muina eta koda bere baitan biltzen dituen, silabaren barnean). Kontsonanteek zenbait murrizketa dituzte, agertzeko tenorean:

- a) Hipokoristikoaren koda-kontsonantea beti izenaren koda batetik atera da: *Alfred* eta *Chantal*-en izen ttipiak *Fefed*, *Tatal* dira eta ezin dira erabili, adibidez, *Frédéric* eta *Nathalie*-ren hipokoristikotzat.
- b) Hipokoristikoaren haste-bokala beti izenean eginkizun bera duen beste batetik irten da: *Féfé Félix*-ekin lot daiteke, ez *Joseph*-ekin, *Sissi Sylvie*-rekin erlaziona daiteke, baina ez *Régis*-ekin, erraterako.
- c) Hipokoristikoan koda-kontsonanteak izenean zuen bokal bera du aitzinean: *Almeyric* → *Riric*, *Ernest* [eRnes] → *Nénesse* bai, baina *Frédéric* → **Dédéc*, *Régis* → **Réresse* ez, konparazione.
- d) Hipokoristiko baten silaba-haste konplexuaren osagaiak beti eta bakarrik izenaren silaba-haste konplexutik ateratzen dira: *Christine* → *Cricri* bai, baina *Christine* → **Tritri* ez; *François* → *Soisoi* bai, baina *François* → **Foifoi* ez.

Alegia, jatorrizko izenaren segmentu baten silaba-haste edo errima beti atxikitzen da hipokoristikoan eta izen ttipia sortzeko izen osoa silaba batera murriztu beharra da: hola bada, *Paulette*, erraterako, *Po* edo *Let*-era labur daiteke, baina ez *Pol*-era, eta, horregatik hain justu, *Popol Paul* izenetik aterako da eta ez *Paulette*-tik. Bigarren pausoa, ikusten den bezala, CV segidaren errepikapena da. Inoiz, bestalde, oinarritik ateratako silaba-hastea bakundu daiteke (*Alfred* → *Fefed*), baina hau aukerazkoa da, ez nahitaezkoa (*Brigitte* → *Bribri* edo *Bibi*). Bakuntze horretan, gertatzen bada, silaba-hasteen lehena ez den soinua galtzen da.

Nelsonek ere (1998), frantseseko izen ttipiak aztertzean, garrantzi handia ematen dio izenaren silaba eta prosodia egiturari.

4.3. Ingelesa

Hizkuntza honetan, Seun-Hoon Shin-ek S. Davisen argitaragabeko lan batean oinarrituz dioenez (1998: 445-446, 2003: 420-422), hipokoristikoak hiru taldetan sailkatzen dira, laburtze bilakabideen ereduaren arabera:

- a) Atzizkiaren aitzinean (justu aitzinean) ahoskatzen den kontsonante bakarra dutenak: *Douglas* → *Dougie*, *Edward* → *Eddy*, *Gabriell* → *Gabby*, *Harold* → *Harry*, *Sigmund* → *Siggy*.
- b) Atzizkiaren aitzinean bi kontsonante dituztenak: *Angela* → *Angy*, *Barbara* → *Barby*, *Gordon* → *Gordy*, *Kandance* → *Kandy*.
- c) Aurrekoak ez bezala, izenaren bigarren edo hirugarren silaban oinarriturik daudenak, ez lehenean: *Amanda* → *Mandy*, *Elizabeth* → *Lizzy*, *Betty*; *Roberta* → *Bertie*.

Seung-Hoon Shin azaltzen saiatzen da zergatik **Douglie*, **Edwy*, **Gabry*, **Harly*, **Sigmy*, **Annie*, **Barry*, **Gorry*, **Kanny*, **Amy* edo **Manny*, **Elly* edo **Liie*, **Robby* edo **Berry* ez diren ibiltzen eta, biziki argiro, honela laburbiltzen du ingeles hipokoristikoen erakuntza:

- 1) Hipokoristikoa, ahalaz, oinarriko formaren lehen silabaren gain antolatzen da.
- 2) Atzizkia erantsia duen formaren azken bi kontsonanteek beheranzko ozentasuna («falling sonority») izan behar dute: *Sigmund* → *Siggy* bilakatzen da, *Sigmy*-k goranzko ozentasuna lukeelako.
- 3) Oinarriaren azken bi kontsonante horiek ingeles eredu fonologikoarekin akort izan behar dute. Arrazoi honengatik *Kimberly*-k *Kimmy* du hipokoristikoa, ez **Kimby*, *mb* ezin izan baitaiteke koda ingelesez.
- 4) Hipokoristikoen erakuntza oinarriaren azentu ereduarekin loturik dago: azentudun silabak atxikitzen dira, eta lehen silaba azentuga-beak galtzen.

Berriki argitaratu lanean, Kennedyk eta Zamuner-ek (2006) hockey eta baseball jokalariei Estatu Batuetan emandako izengoitiez dihardute, eta, horien barnean «hypocoristic nicknames» direlakoak aztertzen dituzte. Ikusten den bezala, gehien-gehienak deiturretan oinarri harturik sortu dira, eta laburtuak eta atzizkigabeak izan daitezke, edo laburtuak eta atzizkidunak. Aurrenekoen artean *Donald Brashear* → *Brash*, *Andrew Cassels* → *Cass*, *Jeff Friesen* → *Freeze*, *Peter Popovic* → *Pop*-en tankerakoak aipatzen dituzte; bigarren multzokoetan azpisail bat baino gehiago bereizten dituzte, hartzen duten atzizkiaren arabera: a) laburtuak + [-i]: *Daniel Alfredsson* → *Alfie*, *Craig Conroy* → *Connie...*, b) laburtuak + [-ə]: *Craig Billington* → *Biller*, *Pat Jablonski* → *Jabber...*, c) laburtuak + [o]: *Guy Carbonneau* → *Carbo*, *Roman Cechmanek* → *Checko*, *Greg Devries* → *Devo...*, d) laburtuak + [s]: *Andreas Dackell* → *Dacks*, *Mike Eagles* → *Eags*, *Chris Gratton* → *Grats...*, e) labur-

tuak + [ʃ + i] (bi besterik ez dituzte aipatzen): *Kirk Muller* → *Mullsie*, *Tom Poti* → *Potsie*.

Horien ezaugarri fonologikoei doakienez, egileek erraten dute (404) hipokoristikoeak ez dituztela inoiz bi silaba baino gehiago, eta kasu gehienetan aurrenekoak baizik ezin duela bokala eraman. Atzizkiaren karietara, azaltzen dute (411) lehen silabaren bukaerako segmentu(ar)en menpe dagoela:

«In summary, our analysis shows that the segment or segments that close the first syllable of a hypocoristic can help predict whether it receives no suffix, a vocalic suffix, or a consonantal suffix».

Ez dut hemen ingelesaren hipokoristiko sistema osoa goitik behera aztertu gogo, besteak beste arrunt gai korapilatsua delako, beste hizkuntzetan ere den bezalakoa, bestalde. Izan ere, eta Wierzbickak erraten duen gisan (1992: 225 eta hurr.), munduko ingeles-hizkera mota guztiak ez dira berdinak, izenen arloan ere badira aldeak batzuetarik besteetara (*Dave*, kasurako, *David*-en «aldea laburtu estandarra» da Ameriketako ingelesean, baina ez Australiakoan), eta, bestalde, forma laburtu guztiak eta aldaera atzizkidun guztiak ez dute balio bera. Aipatu autoreak dioen moduan, gutxienez sei kategoria bereizi behar dira: izen oso markatugabeak (*Martin*, *Clare*), izen oso markatuak (*William*, *Deborah*), aldaera laburtu markatugabeak (*Tom*, *Pam*), aldaera laburtu markatuak (*Ter*, *Ger*, *deb*, *Pen*), *-iel-y* aldaera markatugabeak (*Penny*, *Debbie*, *Terry*, *Jerry*) eta *-iel-y* aldaera markatuak (*Jimmy*, *Bobby*, *Pammy*, *Ruthie*). Gainera, zenbait kasutan, emazteki eta gizon izenek balio bana dute, eta beraz, kontua gehiago bihurritzen da. Ni, lan honetan, bistan da, ezin lot naskioke horiek guztiak azterteari eta horrenbesterekin etsi beharko.

4.4. Alemana

Itô eta Mester-en arabera (1997) alemaneko «truncation» edo aldaera laburtuen forma orokorra hau da: izenaren oinarriaren hastapeneko silaba dute, oinarriko kontsonante gehigarria eta *-i* atzizkia: *Gabrièle* → *Gábi*, *Stéfanie* → *Stéffi* (hemen <f> bikoitzak aurreko bokala laburra dela besterik ez du adierazten), *Górbatschòw* → *Górbi*, *Hónecker* → *Hónni*... Bestalde, «truncata» edo aldaera laburtuetan «onset» edo silaba-haste konplexuak alde batera uzten direnez gero, egileek erraten dute *-i*-dun forma laburtua alemanez posible den silaba izan behar duela. Gainera, «truncatum»ak oinarritik atera daitekeen silabarik handiena izan behar du.

Wieseren arabera (2001: 154-155) alemanaren *-i* hipokoristiko atzizkiak (ikus beherago) helburu prosodikoa du, oinarriak azenturik gabeko

bigarren silabaz hornitzea hain zuzen ere. Ikertzaile berak erraten du «truncation» eta hitz arruntetako errepikapena (*Schickimicki, Ruckizucki, Holterdipolter, Wischiwaschi*) kate beraren bi muturrak besterik ez direla. Honela dio (ibid., 152):

«The relation between reduplications and truncations in German is already apparent, though it is still quite superficial: both phenomena belong to the domain of prosodic morphology, and words of both types display an /i/ that does not have a clear morphemic status as a derivational head».

Zernahi dela, alemanez, *-i* duten hipokoristikoekin batera badira bes-telako batzuk ere (Frank, 1975: 518 eta hurr.):

- a) Izenaren lehen silabarekin edo lehen eta bigarrenarekin moldatuak, hots, nik «apokope» deitu dudanaren barnean sar daitezkeenak («Verkürzung»): *Annegret* → *Änne*, *Benedikt* → *Bene*, *Birgit* → *Bi*, *Christian* → *Chris*, *Dorothea* → *Doro*, *Gabriele* → *Ga*, *Marcus* → *Marc*, *Michael* → *Mi*, *Thorsten* → *Tho...*
- b) Izen trinkotzea eta barne laburtzea («Kontraktion») erakusten dutenak: *Bernhard* → *Bernd*, *Gerhard* → *Gerd*, *Gisela* → *Gisa* eta *Gilla*, *Stephanie* → *Steffi*, *Ursula* → *Ulla*. Inoiz barne laburtzea eta *-i* ditugu batera: *Georg* → *Gorgi*.
- c) Aferesia («Verkürzung») jasan dutenak: *Anette* → *Nette*, *Brigitte* → *Gitte*; *Daniela*, *Michaela* → *Ela*; *Joachim* → *Achim*, *Johannes* → *Hans*, *Martina* → *Tina*, *Regina* → *Gina*, *Regine* → *Gine*, *Ulrike* → *Rike*.
 - c.1) Aferesiarekin batean *-a* dutenak: *Birgitt* → *Gitta*, *Elisabeth* → *Bit*.
 - c.2) Aferesiarekin batean *-chen* dutenak: *Annette* → *Nettchen*, *Regine* → *Ginchen*, *Sabine* → *Binchen* edo *Bienchen*.
- d) Aferesia eta apokopea batera pairatu dituztenak: *Angelika* → *Geli*, *Elisabeth* → *Lisa*.
- e) Lehen edo azken silabaren errepikapena («Reduplikation») erakusten dutenak: *Annegret* → *Annene*; *Birgitt* → *Bibi*, *Joachim*, *Josef* → *Jojo*; *Liane* → *Lilli*, *Lothar* → *Lollo*, *Sabine* → *Sasa*. Honen barnean sar daitezke, orobat, errepikapenaz gainera bukaeran *-i* dutenak: *Karin* → *Kaki*, *Petra* → *Pepi*, *Susanne* → *Susi* (eta *Nanni*), eta bes-telako aldaketaren bat izan dutenak: *Christiane*, *Marianne* → *Nane*; *Diane* → *Lilli*, *Erik* → *Kiki*, *Sigrid* → *Gigi*.

f) Atzizkia dutenak:

- f.1) Izenaren lehen silaba edo lehen bi silabak eta *-chen* atzizkia dituzten formak: *Babette* → *Babettchen*, *Berthold* → *Bertchen*, *Elke* → *Elckchen*, *Jutta* → *Juttchen*, *Liane* → *Lichen*, *Stefan* → *Stefchen*...
- f.2) Izenaren lehen silaba edo lehen bi silabak eta *-e* dutenak: *Detlef* → *Dete*, *Egbert* → *Ecke*, *Hildburg* → *Hilde*, *Kerstin* → *Kerstine*, *Norbert* → *Noppe*.
- f.3) Izenaren lehen silaba edo lehen bi silabak eta *-i* dutenak (*-ie* kasuren batean): *Andrea*, *André*, *Andreas* → *Andi*, *Birgitt* → *Biggi*, *Britta* → *Britti*, *Cornelia* → *Conni*, *Hartmut* → *Hardy*, *Jörg* → *Jörki*...
- f.4) Izenaren lehen silaba galdu eta *-i* hartu dutenak: *Birgit* → *Gitti*, *Martina* → *Tini*, *Susanne* → *Sanni*.
- f.5) Izenaren lehen bi silabak eta *-maus* dituztenak: *Ellen* → *Ellenmaus*, *Ulrike* → *Ulimaus*.
- f.6) Izenaren lehen bi silabak eta *-mops* dituztenak: *Julia* → *Julimops*.

Ikusten den bezala, bestelako bilakaera fonetikoak ere gauzatzen dira aipatu gertakariekin batean: kontsonante multzoen bakuntzea (*Andrea*, *André*, *Andreas* → *Andi*, *Gabriela* → *Gabi*, *Ulrike* → *Ulimaus*), ahoskabetzea (*Egbert* → *Ecke*, *Jörg* → *Jörki*, *Norbert* → *Noppe*), ahostuntzea (*Hartmut* → *Hardy*), asimilazioa (*Cornelia* → *Conni*), hersketa (*Annegret* → *Änne*), bokal erortzea (*Cornelia* → *Nela*, *Johannes* → *Hans*) eta, ustez behintzat, palatalizazioa (*Jojo*, *Lilli*, *Lollo*, *Ulla*; *Ilsegrit* → *Illi*, *Ulrike* → *Ulli*, *Ursula* → *Uschi*, *Wolfgang* → *Wolli*), besteak beste.

Hautetaz landara, Itôk eta Mester-ek (1997: 120) *-o* atzizkia aipatzen dute (*Heinrich* → *Heino*), baina, diotenez, *-i* da benetan emankorra den atzizki bakarra. Ikus, halaber, Naumann (1976). Hipokoristikoeak aleman deituretan utzi dituzten aztarnen berri laburra izateko Itô & Mester (1997: 119) eta Bahlow (2002, XV-XViii) ikus daitezke.

Suitzako alemanean gauzak antzekoak bai, baina ez dira, itxuraz, erabat aleman batuan bezala, nahiz bietan prosodia eredu bera den, trokeo silabikoa (Grüter, 2003: 29, 34). Ikertzaile honek bukaeran *-u* duten Bernako izen ttipiak biltzen ditu; horien artean ondoko sail hauek bereiz daitezke:

- a) Bukaera aldatu dutenak: *David* → *Dävu*, *Konrad* → *Könu*, *Lukas* → *Lüku*, *Oswald* → *Ösu*, *Silvan* → *Silu*, *Simon* → *Simu*, *Thomas* → *Tömu*.
- b) Bukaera aldatzeaz landara aferesia jasan dutenak: *Adolf* → *Dölfu*, *August* → *Güstu*, *Eugen* → *Genu*.
- c) Inoiz izen baten hipokoristikoa egiteko bi bideak daude, hautara: *Erich* → *Richu* / *Eru*, *Giuséppe* → *Tschüsu* / *Seppu*, *Marcel* → *Selu* / *Märsu*, *Markus* → *Küsu* / *Märku*, *Oliver* → *Livu* / *Ölu*.
- d) Zenbait aldiz kontsonante multzoen bakuntze edo aldatzea gerta daiteke: *Bernhard* → *Bernu*, *Benu*; *Jörg* → *Jörgu*, *Jöggu*; *Norbert* → *Nörbu*, *Nöbu*.

Bestalde, eta aleman batuan agitzen denaz bestera, «umlaut» edo bokal hersketa izaten da izen ttipi horietako anitzetan, adibideetan ikus daitekeen bezala, Grüter-en arabera «the consequence of the underlying representation of the suffix» (ibid., 30).

4.5. Errusiera

Stankiewicz (1957: 196) erraten du errusieran eratorpen adierazkorra biziki emankorra dela eta tankera horretako izen berezien sistema konplexua dagoela. Egungo hizkera estandarrean hiru bide hauek dakuski izen ttipiak taxutzeko:

1) Erro osoaren laburtzea; batzuetan errepikapena ere bada. Hauetan erro laburtu osoa agertzen da eta azenturik gabeko *-a* deklinabide atzizkia, nominatibo singularrean. Gehienak silaba bakarrekoak dira eta (C)CVC- edo VC-itxura fonemikoa ohi dute; gutxiak baizik ez dute onesten kontsonante multzoa hondarkiaren aitzinean. VC- (edo inoizka VCVC-) hasieran bokala duten emakume izenetan ohikoagoa da gizasemeenetan baino. Bestalde, ardura izen beraren hipokoristiko aldaera desberdinak daude edo izen desberdinei dagozkien aldaera berdinak.

Gizon izenen hipokoristikoak erro osoaren lehen silaban daude oinarriturik: *Borís* → *Bórja*, *Fëdor* → *Fedja*, *Gennádij* → *Géna* edo *Génja*, *Kostantín* → *Kóstja*, *Kirill* → *Kira*, *Lavréntij* → *Lárja*; *Nikíta*, *Nikoláj*, *Nikífor* → *Nika*, *Polikárp* → *Pólja*, *Rotisláv* → *Róstja*; *Sevastián* → *Sëva*, *Séva*; *Valentín*, *Valerián* → *Válja*, *Volodímir* → *Volódja*, *Vólja*; *Zósím* → *Zósja*...

Hasmentan bokala duten izenen aldaera laburtuek azentudun silaban dute oinarri: *Aleksándr* → *Sánja*, *Anatólij* → *Tólja*, *Arsénij* → *Sénja* (behin edo

beste *Ársja*), *Egór* → *Górja*, *Góra*; *Evgénij* → *Génja* (inoiz *Énja*), *Elizár* → *Zárja*, *Iván* → *Vánja* (gutxitan *Íva*). Arau honek badu salbuespena: azentua bukaeran daramaten izen silabanitzen aldaera laburtuek erdiko silaban dute abiapuntu, /l/-z edo /n/-z bukatzen bada: *Afanásij* → *Fónja*, *Afónja*; *Appolónij* → *Pólja* (edo *Apólja*), *Nikoláj* → *Kólja*.

Emakumeen izen ttupiak erro osoaren lehen silaban ohi daude oinarriturik eta hein txikioagoan erdikoan. Hala bada, femeninoek, maskulinoek ez bezala, hipokoristikoko pareak onartzen dituzte. Hala ere, aurreneko silaba giblean kontsonante multzoa (/st/ salbu) duen bokal azentugabea bada eratorritako aldaera erdiko silaba azentudunaren gain moldatzen da: *Aleksándra* → *Álja* edo *Sánja*; *Ksána* edo *Anís'ja* → *Ánja* edo *Nisja*, *Galína* → *Gálja*, *Gála* (bakana) edo *Lina*, *Iraída* → *Íra* edo *Ída*, *Kapetolína* → *Kápa*, *Lina* edo *Tólja*; *Katerína* → *Kátja*, *Larissa* → *Lára*, *Lid'ja* → *Lída*, *Ljudmila* → *Ljúda* edo *Mila*, *Naděžda* → *Nádja*, *Natálja* → *Náta* edo *Tálja*, *Nastás'ja* → *Nástja*, *Stásja*, *Tásja* edo *Ásja*, *Valentína* → *Válja* edo *Tina*... VCC- duten emakume izenen hipokoristikoak erroaren erdiko silaban oinarritzen dira: *Afrosín'ja* → *Frósja*, *Anfisa* → *Físa*, *Antonína* → *Nína* edo *Tónja*, *Evfimja* → *Fíma*...

Izen desberdinen hipokoristikoek «overlapping»-a ohi dute usu, hots, forma bera: *Apollónij* eta *Polikárp* → *Pólja*, *Dmítrij* eta *Mitrofán* → *Mítja*, *Egór* eta *Geórgij* → *Górja* eta *Góra*, *Rostiláv* eta *Vjačesláv* → *Sláva*; *Valer'jan*, *Valentín* eta *Valentína* → *Válja*...

Bestalde, hipokoristikoko oinarrien azken kontsonanteak palatalizaturik edo despalatalizaturik ager daitezke:

- a) Ezpainkari bigunek biguntzea galtzen dute: *D'im'ján* → *D'óma*, *Kap'italína* → *Kápa*, *S'im'ón* → *S'óma*.
- b) Gizon izenen horzkari gogorrek eta ozenak palatalizaturik ohi daude: *Al'iksándr* → *Sán'a*, *Dm'itr'ij* → *M'it'a*, *F'ódar* → *F'éd'a*, *Iván* → *Ván'a*, *V'itál'ij* → *V'it'a*... Bakana da azken kontsonante bigunaren despalatalizatzea: *Júr'ij* → *Júra*, *Kir'il* → *Kíra*. Emazteki izenetan, berriz, zeuden-zeudenean gelditzen dira kontsonanteak, gogorrek izan edo bigunak: *Anf'isa* → *F'isa*, *Kat'ir'ína* → *Kát'a*, *Natál'ja* → *Náta*, e.a., salbuespen gutxi batzuk izan arren: *Nastás'ja* → *Nást'a*, *V'iktór'ja* → *V'it'a*, *Varvára* → *Vár'a* (palatalizaturik); *L'id'ja* → *Lída*, *Lar'isa* → *Lára* (despalatalizaturik).

Stankiewiczek aldaera errepikatuak ere forma laburtuen artean sartzen ditu; ikus, gai honen inguruan, errepikapenari eskaini atalean diodana, errusieraren karietara.

2) Atzizkien erabilera. Hauek gehienetan laburtzen ez diren izenekin ibiltzen dira eta bakunak nahiz konposatuak izan daitezke. Lehenen artean *-#k-*, *-ik-*, *-n'* (*n* palatala), *-s'* (*s* palatala), *-š-*, *-un'*, *-ur-*, *-ut-*, *-uš-* eta *-ux-* daude besteak beste; guztiek, nominatibo singularrean, azenturik gabe ko *-a* bukaera dute, *-#k* eta *-ik* atzizkiek salbu, hauek *-a* ez ezik zero ere onesten baitute. Konposatuen artean *-#k-ik-*, *-#k-#k-*, *-uš-#k* eta *-uš-en'-#k* aipatzen ditu Stankiewiczek: *Andrėj* → *Andrjúša* → *Andrjúšen'ka*; *Borís* → *Boríska*, *Borísók*; *Egór* → *Egórik*; *Gléb* → *Glébka* → *Glébočka*; *Karp* → *Karpúša* → *Kárpúška*, *Karpúška*; *Luká* → *Lučók*; *Pável* → *Pávlen'ka*, *Pávlík*, *Pavlúša* → *Pavlúšen'ka*; *Pětr* → *Petrúša*, *Petrúxa*; *Mitrofán* → *Mitrofánčik*, *Tít* → *Titók*, *Vánja* → *Ván'ka*, *Valentín* → *Valentínčik*, *Vóva* → *Vóvka* gizonen izenetan, *Irina* → *Irinčik*, *Kátja* → *Kátik*, *Líza* → *Lízók*, *Márfa* → *Marfúša* → *Márfuška* eta *Marfúška*, *Marfúta*; *Nina* → *Ninók*, *Ninčik*, *Ninúša* → *Ninúšen'ka*; *Véra* → *Vérik*, *Vérka* → *Véročka*, *Verúsja*, *Verúša* → *Verúšen'ka* emaztekienetan.

Hemen nabarmendu behar da atzizki guztiak ez direla berdin adierazkorak, alegia, aldeak badirela batzuetarik besteetara, errusiera hagitz hizkuntza aberatsa baita arlo honetan. Honela dio Wierzbickak (1992: 237):

«In languages with rich expressive derivation such as Russian any tripartite division of names similar to that into full first names, nicknames, and affectionate nicknames is unthinkable in view of the exceedingly wide variety of alternative forms of address (and reference), unimaginable to native speakers of a 'sober' language such as English. For example, a study of colloquial speech in the Russian town of Penza and the surrounding area (Bondaletov and Danilina 1970) has revealed the use of as many as eighty different expressive suffixes, each with its own pragmatic meaning».

Autore honek ondoko berrekailuak aipatzen ditu (ibid., 246 eta hur.): *-očka* (*Lídija* → *Lída* → *Lídočka*, *Ljubóv'* → *Ljúba* → *Ljúbočka*, *Júrij* → *Júra* → *Júročka*), *-ečka* (aitzinekoaren aldaera: *Ánja* → *Ánečka*, *Sónja* → *Sónečka*), *-en'ka* (*Katerína* → *Kátja* → *Káten'ka*, *Rája* → *Ráen'ka*), *-on'ka* (aurrekoaren aldaera: *Ríta* → *Ríton'ka*), *-ik* (*Lavréntij* → *Lávrik*, *Mark* → *Márik*), *-ok* (*Íra* → *Írók*, *Nína* → *Ninók*), *-ėnok* (*Kátja* → *Katėnok*, *Nikíta* → *Nikitėnok*), *-ėnyš* (*Kátja* → *Katėnyš*, *Klára* → *Klarėnyš*), *-úška* (*Ánna* → *Ánnuška*, *Maksím* → *Maksímuška*), *-úša* (*Il'já* → *Il'júša*, *Pável* → *Pavlúša*), *-ka* (*Egór* → *Egórka*, *Nína* → *Nínka*, *Véra* → *Vérka*).

3) Laburtzearen eta atzizkien uztardura, hots, biak batean ibiltzea. Hemen gorago ikusirikako *-uš-*, *-un'* eta *-us'* atzizkiak aipatu behar dira, hauek laburtutako hipokoristikoei ere, hots, lehen kontsonanteetara murriztutako aldaerei ere eransten zaizkielako: *Górja* → *Gúnja*, *Pável* → *Púša* gizon

izenetan, *Dótja* → *Dúša*, *Dúnja* edo *Dúsja*, *Már'ja* → *Músja*, *Nísa* → *Njúša* edo *Njúsjja* emakumeenetan.

Laburtutako oinarriei eratxikitzen zaizkien beste atzizki batzuk *-š-* (emankorrena, gehienetan gizon izenekin), *-n'* (emazteki izenekin batez ere) eta *-s'* (ez da emankorra) dira. Lehenarekin izen ttipi hauek daude, besteak beste: *Agáp'ja* → *Gápa* → *Gaša*, *Aleksėj* → *Alěša*, *Antónij* → *Antóša*, *Geórgij* → *Górja* → *Góša*, *Mixail* → *Miša*, *Pável* → *Páša* (gi.), *Agáp'ja* → *Agáša*, *Arína* → *Ariša*, *Már'ja* → *Máša*, *Natál'ja* → *Natáša* (em.). Bigarrenarekin beste hauek ditugu: *Aleksėj* → *Lěnja*, *Grigórij* → *Grínja*, *Pável* → *Pánja*, *Sergėj* (edo *Seměn*) → *Sénja* (gi.), *Ánna* edo *Antonína* → *Ánja*, *Dár'ja* → *Dánja*, *Már'ja* → *Mánja*, *Tat'jána* → *Tánja* (em.). Hirugarrenarekin, buruenik, beste hauek: *Fedós'ja* → *Fésja*, *Lukér'ja* → *Lúsja*, *Tat'jana* → *Tásja* (em.).

Ikus daitekeen bezala, guztiz korapilatsua da errusieraren hipokoristiko sistema; Stankieviczek honela dio bere artikuluaeren amaieran (1957: 209):

«In conclusion, derivatives from proper names form an intricate pattern of expressive terms which are rendered through different formal devices, and which relate to neutral terms pertaining to different stylistic levels».

4.6. Mazedoniera

Gulevskak (2002) mazedonieran ohikoak diren hipokoristikoez mintzo delarik, erraten du hizkuntza horretan, mendetan gobernu administrazioirik ez izatearen ondorioz, pertsona izenek eslabiar etorkiko hipokoristiko sare zabalak osatu dutela, eta horietako zenbaitek hasierako funtzio «estilistiko» galdu dutela eta neutralizatu direla, hots, oinarrizko-edo bilakatu direla. Egun, ordea, gazteen artean-eta ohikoak dira Europako mendebaldeko hizkuntzetarik hartutako izenak eta beraien eratorriak (*-i* bukerak duten hipokoristikoak): *Elizabeta* → *Bet* eta *Beti*, *Rebeka* → *Beki*, *Edvard* → *Edi*, *Oliver* → *Oli*... Mazedonieran aspaldi onetsi ziren izen mailegatuen kanpoko hipokoristikoak ere erabiliak dira: *Aleksandar* → *Alek* edo *Aleks*, *Georgi* → *D'ord'*, *Katerina* → *Ket* edo *Keti*, bai eta, berebat, eslabiar jatorriko izenen gain eratu aldaera laburtuak ere, *Tomislav* → *Tomas*, erraterako.

4.7. Yiddish

Askenazi juduen izenetan laburtzea eta palatalizazioa kausitzen ditugu batean, eta inoizka *umlaut* edo bokal hersketa ere bai (Beider, 2001: 98-100). Dena dela, palatalizazioa bakar-bakarrik ere ager daiteke (*Bune* → *Bunye*, *Cher-*

na → *Chernya*, *Khana* → *Khanya*, *Mine* → *Minye*), edo izenak zenbait atzizki hartzen dituenen gauzatu daiteke. Beider-ek dioenez, kontsonanteak bustitzea eslabiar jatorriko gertakaria da. Edozein modutan, askenazi juduen sistema onomastikoan izen ttipiak osatzeko biderik emankorrena erroari edo beste hipokoristiko bati atzizkiak eranstea da. Hauek gehitzearekin, bestalde, oinarria maiz-kara laburtu egiten dela dio aipatu ikertzaileak.

4.8. Hebreera

Hebreeraren moduko «quantity-insensitive language» batean Bat-Elek (2005) bi hipokoristiko mota dakuski: «tenplatikoa» edo «plantilladuna» eta «ez-tenplatikoa». Lehenek bi silaba ohi dituzte eta maiz izen luzeagoen laburtze edo «truncation» delakoaren ondorio dira: *ʔasáf* → *ʔási*, *Joséf* → *Jósi*, *ʔalíza* → *ʔáli*, *Tíkva* → *Tiki*... Jakina, silaba bakarrekoez ez dute laburtu beharrik: *Dán* → *Dáni*, *Rút* → *Rúti*, *Tál* → *Táli*, e.a. Ikusten den bezala, gehienek *-i* atzizkia hartzen dute; holakorik ez dutenen artean forma errepikatuak daude: *Dóron* → *Dódo*, *Me(ʔ)ira* → *Méme*, *ʔalíza* → *Záza*.

Bigarrenek, «ez-tenplatikoez», izen osoaren egitura eta azentua atxikitzen dute, eta ez dira laburtzen. Berrekailuei doakienez, *-i* har dezakete (emaitza paroxitonoa da): *ʔerán* → *ʔeráni*, *Revítál* → *Revítáli*... , *-le* (emaitza proparoxitonoa da): *Cipóra* → *Cipórale*, *Tíkva* → *Tikvale*, *Xána* → *Xánale*... edo biak batean: *ʔerán* → *ʔeráni* → *ʔeránile*, *Mixál* → *Mixáli* → *Mixálile* (proparoxitonoak dira). Beraz, oxitonoa den izenak *-i* edo *-i-le* hartuko du, kontsonantez bukatzen bada behintzat, bestela ezin baitu atzizkirik hartu; izen paroxitonoek, bestalde, *-le* jasoko dute.

Egileak, ondoriotzat, erraten du oin trokaiko bitarra dela hipokoristikoaren egituraren erroan dagoena, gaztelanian, ingelesean, alemanean, serbo-kroazieran, nootkan eta japonieran bezala, izan dadin oin trokaiko bitar hori silababikoa edo morabikoa (ibid., 139-140):

«Given the low type-frequency of trochaic stems, it is unlikely that their presence in the language is the source of the structure of the hypocoristics. Rather, it is the universally unmarked status of the binary trochaic foot in quantity-insensitive languages which is responsible».

4.9. Arabiera

H. B. Allenek (1956) bi erabide nagusi dakuski Egiptoko arabierako hipokoristikoetan:

1. Lehen multzoan izenaren hots aldakuntza zenbaiten ondorio direnak sartzen ditu, beregainki, arabiera hizkuntza semitikoa denez geroztik, izenaren bokalen aldakuntzaren bidezkoak: *Sallam* → *Selmi*, *Samir* → *Asmar*. Bokal aldatzearekin batean azentu aldatzea ere izan daiteke: *Hámdi* → *Hamáda*, eta izenak ohi dituen hiru kontsonanteetarik bat hurbilekoa den beste batek ordezkari dezake: *Fatma* → *Batta*. Honelakoetan, Allenek dioenez, paronomasia-eren eragina izaten da batzuetan: *Makram* → *Ekrama* ('mahatsa'), *Naíma* 'zorte edo adur onekoa' → *Néima* 'Allahen oparia edo bedeinkapena'.

2. Bigarren erabidea errepikapena da, hots, izenaren silaba oso baten edo silabaren zati baten bikoizketa: *Bothaina* → *Bosbos*, *Ekbál* → *Bolbol*; *Farouk*, *Fouad* → *Fufu*; *Galila* → *Gulgul*; *Hassan*, *Suleiman*, *Sayed*, *So'ad* → *Susu*; *Kawther* → *Kuku*, *Mohammed* → *Mimi*; *Mostafa*, *Safwat* → *Safsaf*; *Nabil*, *Nabila* → *Bolbol*, *Nabil* → *Nunu*, *Sami* → *Semsen*, *Tawfik* → *Tutu*, *Widád* → *Dada*...

Ikertzaile honek, orobat, bi azpimultzo txiki, «two very small subclasses» dakuski hipokoristikoetan (ibid., 78):

3. Silaba baten galtzearen ondorio direnak, hots aldaketarekin edo gabe: *Farida* → *Fari*, *Hanieh* → *Hani*, *Nabilla* → *Boula*, *Samíha* → *Miha*.

4. Bi morfemaren lotzearen ondore den *-ti* (*-t-* femeninoa + *-i* genitibo pronominal enklitiko) hartzen dutenak: *Hanieh* → *Hani* (mutikoa) → *Haniti* (neska), *Nabil* → *Bolbol* (mutikoa) → *Bolbolti* (neska).

Daviseketa Zawaydeh-ek (1999ko lanean bereziki, baina baita 2001ekoan ere), hiru eredu bereizten dituzte Jordaniako arabieraren hipokoristikoetan:

1) C1aC2C2uuC3

Azentu nagusia bokal luzean dago honelakoetan: *Basma* → *Bassuum(e)*, *Raa'ed* → *Ra'ruud(e)*, *Xaaled* → *Xalluud(e)*, *Yaasir* → *Yassuur(a)*, *hasan* → *hassuun(e)*...

Hemen garrantzizkoa da, autoreek diotenez, hipokoristikoan bakarrik erroko kontsonanteak azaltzen direla nabarmentzea. Badira, gainera, beste bi murrizketa, eredu honetan: erroaren bigarren edo azken kontsonantetzat soinu irristaria duten izenek ezin dute eredu honetako hipokoristikorik sortu (*Fadwa* → **Fadduuw(e)*, *Rawhi* → **Rawwuuh(a)*, *Ruqayya* → **Raqquuy(e)*), eta, era berean, erroaren erdiko kontsonantetzat laringekari edo faringekari jarraikorra duten hipokoristikoak zalantzazkotzat jotzen dituzte zenbait hiztunek (*Suheel* → *Sabhuul(e)* edo *Wahiid* → *Wahhuud(e)*, konparazione).

2) eta 3). Ondoko bi ereduak C1aC2C1uuC2 eta CúCu dira, eta errepikapenezko hipokoristikoei dagozkie.

C1aC2C1uuC2 normalki oinarrizko izenak erroan bi kontsonante dituenan erabiltzen da, baina hiru kontsonante dituenan ere bai, baldin eta hirugarrena soinu irristaria bada: *Diima* → *Damduum(e)*, *Faadya* → *Fadfiud(e)*, *Marwa* → *Marmuur(a)*, *Muusa* → *Masmuus(e)*, *Riim* → *Ramruum(e)*, *Ruba* → *Rabruub(e)*, *Saami* → *Samsuum(e)*, *Zaki* → *Zakzuuk(e)*... Erroaren bigarren eta hirugarren kontsonantea bera denean ere errepikapenezko hipokoristikoak izaten dira: *Binaan* → *Banbuun(e)*, *Dalaal* → *Dalduul(e)*, *Matta* → *Matmuut(e)*, *Tamaam* → *Tamtuum(e)*, *Widaad* → *Wadwuud(e)*, *Žalaal* → *Žalžuul(e)*. Hondarreko hauek, dena dela, C1aC2C2uuC2 ereduko hipokoristikoak ere izan ditzakete: *Binaan* → *Bannuun(e)*, *Dalaal* → *Dalluul(e)*, *Tamaam* → *Tammuum(e)*, *Widaad* → *Wadduud(e)*, *Žalaal* → *Žalluul(e)*... bigarren eta hirugarren kontsonantea bera izanik bi nahiz hiru kontsonanteko errotzat har baitaitezke holakoak.

Kontsonantearen nolakoa (/n/ sudurkaria edo ubularra izatea, adibidez), edo soinu segida ([wu] erraterako) garrantzizkoa da errepikapena edo bes-telako eredu hautatzeko garaian. Aipatutako kasu horietan errepikapenezko hipokoristikoak saihesten dira: *ħanan* → *ħannuun(e)* (ez **ħanħuun(e)*), *Rana* → *Rannuun(e)* (ez **Ranruun(e)*)... Inoizka errepikapenezko hipokoristikoaren oinarrian hiru erro-kontsonante dituzten izenak egoten dira, betiere hondarreko ozena delarik: *Basma* → *Basbuus(e)*, *Bušra* → *Bašbuuš(e)*, *Hadiir* → *Hadhuud(e)*, *Lubna* → *Labluub(e)*.

Ikusitako errepikapen hipokoristikoekin batean badira, berebat, CúCu egitura dutenak, ondoko eredu hau jarraitzen dutenak: «Take the first consonant of the full name, put [u] after it and reduplicate the sequence». Honek hurrengo hauen tankerakoak sortzen ditu: *Basma* → *Bubu*, *Binaan* → *Bubu*, *Dawuud* → *Dudu*, *Fadwa* → *Fufu*, *Malaak* → *Mumu*, *Samiira* → *Susu*, *Saliim* → *Susu*, *Zaki* → *Zuzu*... Lehen soinua irristaria, faringekaria, laringekaria edo ubularra bada, ordea, ezin da hipokoristikoaren oinarrizkat hartu eta, holakoetan, bigarrena hobesten da: *Hind* → *Nunu* (**Hubu*), *ħula* → *Lulu* (**ħuħu*), *Yaasir* → *Susu* (**Yuyu*, **Ruru*), *Waliid* → *Lulu* (**Wuwu*), e.a. Hirugarren kontsonantea hartzea ere debeku da, honelakoetan. Egileek ematen duten arrazoia da, batetik, irristariak eta goiko bokalak elkarren irudiegiak direla, eta, bestetik, zintzurkariak (*gutturals*, hots, faringekariak, laringekariak eta ubularrek) hizkuntza semitikoetan, gertakari frankotan, berdin eta batera jokutzen dutela.

Beste hipokoristiko ereduetan bezala, CúCu hauetan ere errokoa ez den kontsonantea ez da izen ttipian agertuko: *Mufida* → *Fufu* (**Mumu*), *MuS-Tafa* → *SuSu* (**Mumu*). Kasuren batean, lehen kontsonantea errokoa ez izanik

bigarrena faringekaria bada hipokoristikoa hirugarrenaren gain eratzen da: *Muḥammed* → *Mumu* (**huhu*), *Muhannad* → *Nunu* (**Hubu*, **Mumu*). Hortaz, goitiago ikusi eredia honela birformulatu behar da Davisen eta Zawaydehen arabera: «Take the first root consonant of the full name that is not glide or guttural, put [u] after it and reduplicate the sequence».

Ikertzaile berak, ondoko lan batean (2001), berriz ere Jordaniako Amman hiriburuko arabierako hipokoristikoez mintzo dira eta azaltzen hizkuntza horren beste dialektoetan ere antzeko zerbait dagoela. Beraz, haren inguruan egin zehaztapenek arabiera orokorrarendako ere balio dute. Autoreok diotenez, izen osoaren kontsonanteen silaba egituraren ezaugarriek (haste edo «onset» den, koda, geminatua...) ez dute garrantzirik; axola duena kontsonante horiek hizki (aurrizki, artizki...) batekoak, epentetikoak ala errokoak diren ikustea da, lehen biak (hizkikoak eta epentetikoak) ez baitira agertzen hipokoristikoan. Argibidez, *ḥaamed* oinarritzkoak eta *muḥammed* aurrizkidunak hipokoristiko bera dute, *ḥammuud*. Kontua, beraz, ez da fonologikoa, morfologikoa baizik, hitz erakuntzaren barrukoa, erroaren kontsonanteekin zerikusia duena: «Thus, taken together, the data [...] provide compelling evidence that hypocoristic formation in Arabic crucially references the consonantal root, distinguishing root consonants from affixal and epenthetic consonants» (ibid., 516). Erroko kontsonante horiek, zehaztu beharra dago, izen osoan agertzen direnak dira.

4.10. Nootka edo nuuchahnulth

Kanadako nootka edo nuuchahnulth hizkuntzarako Stonhamek (1991, 2004: 196) ematen duen erregela hau da: «Moztu izena bigarren bokalaren aitzinean, eta gelditzen den bokala erdiko bihurtu, aurreko edo atzeko, jatorrizko bokalaren biribiltasunaren arabera. Orobat, bokala luzatu, luzea ez bada, eta *-ʔis* atzizkia gehitu» (2). Beraz, ikusten den moduan, hipokoristikoak beti laburturik daude, oinarriko izenaren aldean; bokala sistema fonologikoan hizkera adierazkorrean eta maileguetan baizik ageri ez den bokal erdikoa da, luzatua (*e:* edo *o:*). Honi guztiari aipatutako atzizkia eransten zaio beti: *Hapu:λ* → *He:pʔis*, *Sapir* (hizkuntzalari handiaren deitura) → *Se:pʔis*, e.a. Morfema mugek, bestalde, ez dute prozedura oztopatzen. Aipatutako arauak, dena dela, ez ditu kasu guztiak azaltzen, eta, azken buruan, hipokoristiko plantilla edo «template»-a irudikatzen du. Honela dio Stonhamek, silaba egituraren marrazkia sartu eta ondoan (2004: 199):

«What this template represents is a maximal syllable, containing an onset, a partially-specified nucleus, and a coda containing as many consonants as

(2) ʔ herskari glotala da (Eun-Sook Kim, 1999: 126).

available, disregarding morpheme boundaries, but respecting the phonotactic requirements of the language».

Eun-Sook Kim-ek (1999) lau multzo bereizten ditu hizkuntza honetako hipokoristikoen artean, eratzen diren moldearen arabera. Stonhamen «azterkera», erregelen bidezkoa, ez zaio egokia iruditzen, horietako bat baino gehiago behar direlako hipokoristikoa laburtze edo «truncation»-tzat hartzen denean. Azterkera horrek generalizazioa du eskas, gertakari bakarrerako (hipokoristiko erakuntzarako) lau arau behar direlako. Bigarren, arauak ez du azaltzen zergatik gelditzen den jatorrizko izenaren zati bat hipokoristikoaren barnean; hirugarren, ez du erraten zergatik dituen hipokoristiko atzizkiak forma desberdinak (/ʔis/ edo /is/) oinarriaren arabera, eta, buruenik, ez du zehazten zergatik laburtutako parteak ez den unitatea: fonema kentzen da kasu batzuetan, silabaren zatia beste batzuetan, silaba osoa edo silaba bat baino gehiago beste zenbait aldiz.

Eun-Sook Kim-ek nuuchahnulthe ko hipokoristiko erakuntza errepikapen gertakaritzat hartzen du. Izan ere, hizkuntza honetan, familia bereko beste batzuetan bezala, zenbait atzizki oinarriaren zati bat errepikaturik egon dadin galdegiten dute, baina izen ttipien kasuan silaba bakarra gelditzen da hipokoristiko atzizkiarekin, ez beste izenetan bezala errepikatutako zatia, oinarri osoa eta atzizkia. Honen arrazoia hipokoristiko erakuntza silababiko oina izatea da autorearen arabera. Bestalde, errepikapena eragiten duen hipokoristiko atzizki horrek berak markatzen du lehen silabako bokalaren nolakoa eta luzera.

4.11. **Banawa**

Brasilgo Amazoniako banawa hizkuntzan, Everetten arabera (1996, 1999), hipokoristikoak egitura silabikoan oinarriturik daude, ez morarenean, eta bi silaba dituzte: *Sábatào* → *Bátaò*, *Hóbetò* → *Béto*, *Atidekè* → *Déka* (autoreak ez daki *-a* hori zeri zer zaion), *Sólimào* → *Rímaò*, *Téresina* → *Sína*. Izenok deikiak direnean bestela azentuatzen dira, baina berdin laburtzen: *Batáu*, *Betú*, *Bidú*, *Deká*.

4.12. **Akan**

Obengek dioenez (1997: 41 eta hurr., 2001: 113, 121-127), Ghana eta Boli Kostako akan hizkuntzak izen ttipiak osatzeko bi erabide morfologiko darabiltza (elkarketa eta errepikapena) eta lau erabide morfofonologiko (ezabaketa, bokal harmonia, doinu aldaketa eta silaben edo unitate fonikoen luzapena), zein bakarka edo batean gerta baitaitezke. Elkarketan honelakoak ditugu: *Ákósuyíá* + *ési* → *Ákósuyíàási*, *Èwùràá* + *èfúá* → *Èwùrèéfúá*, *Kɔ̀bina* + *èbó* →

Kɔ̀biméé!bo... Obengen arabera, elkargaien erro egitura atxiki egiten da hipokoristikoan; honela bada, aipatu dudan lehen izenean osagaiek VCVCV eta VCV egitura dute, eta hipokoristikoak VCVCV-VCV. Alde bakarra lehen osagaiaren azken bokalaren izaera aldakuntza da. Errepikapena nola antolatzen den jakiteko gertakari honi eskainitako atala ikus daiteke.

Erabide morfofonologikoetara igaroz, Obengek erraten du akanen ezabaketa nabarmena dela izen ttipiak antolatzean. Hitz hasteko ezabaketa, hitz akabailakoa eta erdikoa bereizten ditu, hots, nik aferesi, apokope eta izen trinkotze edo barne laburtzea deitu ditudanak. Gainera, gertakari horiek bakarka gauza daitezke edo elkarrekin: *Àkɔ̀sɔ̀yíá* → *Àkóó* edo *Àkó*, *Kɔ̀bíná* → *Kɔ̀bí*, *Kòfí* → *Kòó* eta *Fíí*, *Fíífi*-z gainera, *Jɛn wura kofi* → *Jóófi*, *Jɛn wura kwesi* → *Jóòsí* (3), *Kwèsi* → *Síi*, *Kèé* eta *Síísí*...

Beste alde batetik, aipatu ikertzaileak zehazten du izen ttipien eraketa prozesuan doinua anitz aldatzen dela horietako askotan (adibidez, *Kòfi* izenak L-H [low – high] doinu eredua du, baina haren *Fíífi* eta *Fíi* hipokoristikoek H-L-H eta H-L dute), baina ez denetan, eta ez bide da eredu finkorik aldaketa gauzatzeko tenorean. Bokal harmoniaz kestone, autoreak zehazten du harmonia edo bokalak elkarrekin agertzearen murrizketa gertakari garrantzitsua dela akan mintzairan: izen ttipi batzuetan bakarrik mihia aitzinatua duten bokalak azal daitezke, eta besteetan aitzinatua ez dutenak. Badira, alabaina, arau hori hausten duten izen ttipiak. Bokal luzapena, azkenik, usaiakoa da errepikapenez erdietsitakoetan (ikus erabide honi eskaini atala).

4.13. Zuluera

Hego Afrikako zuluera hipokoristikoak batez ere emakume izenetan erabiltzen dira (Koopman, 1979: 162-163). Normalki izen osoen laburtzearen fruitu ohi dira, a) aferesiarera (*u*- izen-aurrizkia alde batera uzten badugu behinik behin (4)): *uNtombizodwa* → *uZodwa*, *uNtombizonke* → *uZonke*, b) apokoparena: *uJabulisiwe* → *uJabu*, *uThandekile* → *uThandi*, *uThembekile* → *uThembi*. Ikusten den bezala, bigarren multzo honetan laburtzarekin batean bokal aldaketa ere burutzen da, zenbait kasutan. Gizon izenak ere laburturik erabil daitezke, baina bakarrik gizonarenak direla argi dagoenean: *uMandlenkosi* →

(3) «Here, the stretch [-ɛn wura kwe] is deleted. A prolonged [o] vowel is then placed between the remaining [j-] and [-si]. The same process of deletion is undergone by *jóófi* and *jóódzɔ̀*».

(4) Zuluerekin hertsiki erlazonaturik dagoen xhosera hizkuntzan singularrean dauden pertsona izenek hartzen dute *u*-, eta pluralean daudenek *oo*- (Neethling, 1994: 89). Ikertzaile honek, xhoseraren hipokoristikoek mintzatzean, alde batera uzten du hasierako *u*- hori.

uMandla, *uVusumusi* → *uVusi*; *uThembinkosi* → *uThembi* eta *uJabulani* → *uJabu*, ordea, ez dira gizonkien gogoko izen ttipiak, *uThembekile* eta *uJabulisiwe* emakume izenen hipokoristikotzat ere har daitezkeelako. Koopmanek oin-ohar batean dioenez, holakoak ibili ohi dituzte neskek mutilak deitzeko, zirikatzeo gogoia dutenean.

4.14. Xhosea

Neethlingek (1994, 2005) alderdi bereko xhoseraren izen ttipiak azterzen ditu eta dio zuluera ez bezala aldaera laburtuek ez dutela argitzen, normalki, oinarriko izena emakumearena den ala gizonarena. Izan ere, oinarrian azaltzen diren klase markatzaileak (*no-*, *ma-*, *-w-* emakumeenetan, *-ile* gizonenetan) maiz desagertzen dira hipokoristikoetan. Alabaina, zenbait aldiz, baina ez beti, *-w-* galtzen denean *ma-* hartzen du izen ttipiak, nolabait ere femeninitasuna atxikitzeo. Ikertzaile honek bost multzotan sailkatzen ditu xhoserako hipokoristikoak.

Lehen multzoan bi azpimultzo egiten ditu; aurrenekoan, nik apokope deitzen dudanean, izenaren lehen silaba edo lehenbiziko biak atxikitzen dira, eta besteak galtzen: *Khayaletu* ‘gure etxea’ → *Khaya*, *Malizole* ‘bakea izan dadila’ → *Mali* edo *Malizo*, *Monwabisi* ‘poz emailea’ → *Monwa*, *Velaphi* ‘nondik heldu zara?’ → *Vela*... Bigarren azpimultzoan aferesia dago, hots, lehen silab(ar)en erortzea: *Nokuzola* ‘otzana’ → *Zola*, *Nomalizo* ‘indar emailea’ → *Lizo*, *Nomawethu* ‘gutako bat’ → *Wethu*, *Sonosakhe* ‘haren [gizonaren] bekatua’ → *Sakhe*, *Vizicelo* ‘eskaerak adituak izan dira’ → *Celo*... Ikusten den bezala, xhosa izenak adieradunak dira, baina laburtzen direnean, gutxiz gehienetan, erranahia ilundu egiten da edo galtzen. Hau mesedegarria da adiera gaitzesgarria duten izenen eramaileendako, adibidez ‘gerla’ edo ‘hutsa, erratua’ erran nahi dutenen jabeendako.

Bigarren multzoan, «diminution through abbreviation» delakoan, izena modu batera edo bestera laburtu ondoren amaieran *-i* atzikia azaltzen da (*-i*, *-ie* edo *-y* idatzia). Hemen Neethlingek afrinkaansaren (*Koos* → *Kosie*) edota ingelesaren (*Rob* → *Robbie*) eragina dakusa (5). Hona etsenplu batzuk: *Lindiwe* ‘espero genuena’ → *Lindie* edo *Malindy*, *Mpumelelo* ‘arrakasta’ → *Mpumi*, *Mzwardile* ‘etxea handitu da’ → *Zwayi* (6), *Nandipha* ‘zapora ona du’ → *Nandy*, *Nompazamo* ‘hutsa, hanka sartzea’ → *Mpazie*, *Nomvuyo* ‘zoriontasuna’ → *Mvuyi*, *Thobeka* ‘esanekoa’ → *Thobi-Thobi*, *Zanele* ‘aski dira’ → *Zani*, *Zoliswa* ‘bare-

(5) Hondarreko hizkuntza honen eta xhoseraren arteko kultura harremanak izenetan nola islatzen diren jakin nahi duenak De Klerk & Bosch (1995) irakur dezake.

(6) Ikusten den bezala, horzkariaren palatalizatzea burutu da hemen, laburtzea ez ezik.

tzen duena' → *Zolie*. Kasuren batean afrikaansaren *-sie, -si* atzizkia azaltzen da: *Lindiwe* → *Lindisie*, *Thobeka* → *Tobsie*.

Hirugarren multzoan bukaeran *-s* edo *-sh* [ʃ] duten izen laburtuak sartzen ditu Neethlingek: *Khulile* 'heldua' → *Khush*, *Loyiso* 'garaipena' → *Loys*, *Mashwabada* 'Mashwabada leinukoa' → *Shwabs*, *Monde* 'pazientzia' (gi.) → *Mundas*, *Ncediswa* 'laguntza izan duena' → *Ncesh*, *Nomonde* 'pazientzia' (em.) → *Mondes* edo *Samonds*, *Nomthandazo* 'otoizgilea' → *Thandies*, *Nondyebo* 'ugaritasuna, oparotasuna' → *Ndyeb*s, *Sabelo* 'oinordekoa' → *Sabs*, *Thembile* 'konfiantzakoa' → *Thesh*...

Laugarren multzoan errepikapenezko izen ttipiak ditugu, hots, silaba baten errepikatzea erakusten dutenak: *Lulama* 'otzana izan' → *Lulu*, *Nokuzola* 'otzana' → *Zozo* edo *Mazozo*, *Nomvula* 'euria' → *Mvumvu*, *Nomvuzo* 'ordaina, saria' → *Vuvu*, *Sonwabo* 'kontent' → *Soso*, *Zama* 'saiatu' → *Zam Zam*, *Zuzani* 'irabazi(a)' → *Zuzu*... Neethlingek hau gehitzen du: «These names again probably function within a small, intimate and exclusive circle». Gauza bera erran daitekeela uste dut euskarazko *Kaki*, *Kaku*, *Lele*, *Lili*, *Totu* edo *Tutu* eta bestez. Ikus errepikapenari eskainitako atalean ematen ditudan lekukotasunak.

Bosgarren multzoan («miscellaneous» deritzanean) besteetan ezin sar zitezkeen denetariko izen ttipiak daude. Honelakoetan hipokoristikoaren eta oinarriaren arteko lotura aski lausoturik dago, errepikatutakoa maizkara silaba batera edo soinu batera murriztu baita.

4.15. Txitunbuka

Malawiko txitunbuka hizkuntzan (Moyo, 2002) neke da, izenek adieradunak direnez geroztik, izengoitiak lehen izenatarik bereiztea, baina, nolana ere, irudi du aldaera laburtuek bi silaba dituztela, eta ezabaketa hitzaren hastapenetik nahiz bukaeratik egin daitekeela:

- a) Hasieratik. Gizonkien izenak: *Chatonda* 'konkistatu' → *Tonda*, *Chingonegone* 'edariagatik edo emakumeengatik nonahi lo egiten duena' → *Gone*, *Masuzgo* 'arazoak' → *Suzgo*. Emaztekiena: *Tafika* 'iritsi gara' → *Fika*.
- b) Bukaeratik. Gizonen izenak: *Chizaso* 'joan eta itzuli den haurra, izpiritua haragitu duena' → *Chiza*, *Kawerenga* 'irakurri, kontatu' → *Kawe*, *Zwangendawa* 'albistea, erran-merrana' → *Zwange*. Emaztekienak: *Gomezga* 'konfiantza' → *Gome*, *Wongani* 'esker onekoa' → *Wonga*.

4.16. Hausa

Nigerian eta Nigerren mintzatzen den hausa hizkuntzan hipokoristikoak, ardura, izen laburtuen gain antolatu ohi dira, Newmanen eta Ahmaden arabera (1992: 161): *Aa'ishaatù* → *Aa'i* → *Aa'illoo*, *Aa'ishaatù* → *Shatù* → *Shatùwaa*, *Mustàphaa* → *Mùdde* → *Mùddeede*. Ikertzaileok hizkuntza honetan hipokoristikoak taxutzeko dauden aukera ugariak aipatzen dituzte, denak atzizkien bidezkoak, nahiz errepikapena ere (ikus gertakari honi eskaintzen diodan atalean erraten dudana) ezaguna den, berrekailuaren barnean betiere. Doinuak ere paper garrantzizkoak jokatzeko bide du.

Lehen mota atzizkiaren barnean errepikapena duena da: *Àamadù* → *Àamadùudu*, *Bàlaa* → *Bàleele* (*-a(a)* bukaera duten izen bakanez *-e-z* ordezkatzen dute), *Bintù* → *Bintuutu*, *Inuu* → *Inuunu*, *Màatii* → *Màatiiti*, *Yaarò* → *Yàarooro*... Bigarren motak *-(aa)tii* atzizkia du eta LHH (beheko + goiko + goiko) doinu melodia erregularra; artikulua egileek erraten dutenez, berrekailu hau hartzen duten izenek bukaeran *-a* dutenak baitira, ezinezkoa da jakitea atzizkia *-tii* den eta azken-aurreko bokalaren luzapena gauzatu den ala *-aa-tii* berrekailuaren aitzinean garen: *Abbà* → *Àbbaatii*, *Bàaba* → *Bàabaatii*, *Gār̀bà* → *Gār̀baatii*, *Ummà* → *Ûmmaatii*.

Hirugarren erabidea goiko melodia duen *-aloo* atzizkiaren bidezkoa da. Autoreek diote ez dakitela zergatik agertzen den, zenbait aldiz, *-aa* bukaera, legokiokoen *-oo*-ren ordainetan, ez eta ere *Jummàlaa* bezalako batek zergatik duen HLH doinua, lihoakiokoen H-ren partez. Nolanahi ere, aski ezohikoa da hipokoristiko mota hau. Hona lekukotasun batzuk: *Bintà* → *Bintaloo*, *Habiibà* → *Habiibaloo*, *Jummai* → *Jummaloo* eta *Jummàlaa*, *Kànde* → *Kandalaa*, *Sandà* → *Sandaloo*...

Laugarren antolabidea *-lle* atzizkiarekin egindakoa da; kasu honetan oinarriak bere doinua atxikitzen du eta halaber goikoa duen berrekailuak: *Bàaba* → *Bàaballe*, *Hajiyaa* → *Hajiyalle*, *Kaawi* edo *Káawu* → *Kàawulle*... Bosgarren era denetan irregularrena bide den *-(a)le* berrekailuarekin taxutzen dena da: *Abbà* → *Abbàale*, *Baawà* → *Baawale*, *Kàaka* → *Kàakalè*, *Uwa* → *Uwàale*... Honetan ez dago alde aurretik doinua zein izanen den erraterik, eta hondar-aitzineko bokalaren luzera lehen bokalarenaren arabera da, honen alderantzizkoa: aitzineko hori laburra bada, azken-aurrekoa luzea izanen da, eta itzulietara. Seigarren modua, bosgarrenaren iruditsua, *-ndi* atzizkia duena da: *Bàaba* → *Bàabàndi*, *Kàaka* → *Kàakàndi*, *Lawán* → *Lawàndi*.

Zazpigarren erabidean, berezko LH (beheko + goiko) doinua duen *-uwaa* berrekailua baliatzen da, gehienbat emazteki izenekin: *Àdoodo* → *Àdoodùwaa*, *Duudà* → *Duudùwaa*, *Kulù* → *Kulùwaa*... Gainerakoak ez bezala,

hau femeninoak egiteko hausak erabiltzen duen $-(u)uwaa$ atzizkiarekin identifikatu daiteke. Zortzigarren motan hiru multzo egiten dituzte Newmanek eta Ahmadek: a) Bukaeran errepikapena duen hipokoristiko bikoitza edo bir-hipokoristikoa: $Iyà \rightarrow \dot{I}yàale \rightarrow \dot{I}yàaleele$, $\dot{U}baa \rightarrow \dot{U}baalè \rightarrow \dot{U}bàaleele$, b) Amaieran $-uwaa$ duen hipokoristiko bikoitza: $Audù \rightarrow \dot{A}udoodo \rightarrow \dot{A}uddoodùwaa$, $Bintù \rightarrow Bintuutu \rightarrow Bintuutùwaa\dots$, c) Akabailan $-iya(a)$ duen hipokoristiko bikoitza: $\dot{A}li \rightarrow \dot{A}lèele \rightarrow \dot{A}liiliyà$, $\dot{U}baa \rightarrow \dot{U}baalè \rightarrow \dot{U}baaliyà$, $Uwa \rightarrow Uwàale \rightarrow Uwàaliyà$. Ikusten den bezala, zortzigarren sail honetan euskarak historian zehar izan dituen atzizki konposatuak modukoak ditugu, hots, *Juankoto*, *Martixko* edo *Totakoxe*-ren tankerakoak.

4.17. Japoniera

Poser-ek (1984) eta Milamek (2006) berebiziko garrantzia ematen diote hitzaren egitura prosodikoari, japoniera bezalako «quantity-sensitive language» batean. Lehen ikertzailearen arabera (1984: 221), hizkuntza honetan hipokoristikoak aldatu gabeko pertsona izenen gainean era daitezke, $-txan$ atzizkiaren bidez, edo, beste gisan, izena labur daiteke, baina ez nolana, ez eta ere silaba egiturari so eginez, erroaren mora kopuruari begira baizik:

«To summarize what we have learned so far, modified hypocoristic stems from names less than five morae long must be exactly two morae long, no more, no less. The two morae must be of any form permitted in Japanese, CVCV, CVV, or CVC. This last pattern I have thus far illustrated only where the last consonant is a nasal, but I will illustrate the case where it is an obstruent».

Mester-ek (1990: 484) $-ko$ hipokoristiko atzizkia ere $-emazteki$ izenetan agertu ohi den $-ko$ -z bestelakoa da, aipatzen du eta dio silaba bakarreko oinarri laburtuari gehitzen zaiola: $Hiromi \rightarrow Hi-ko, Ro-ko, Mi-ko, Hik-ko, Hii-ko, RoN-ko, Mii-ko$ eta abar. Ikertzaile honek morabiko plantilla edo «template»-a beti begiratzen dela dio, eta, Poser-i jarraikiz, hipokoristikoen oinarria (ez oinarrian dagoen izena) luza daitekeela ($Midori \rightarrow Mii-čan$) edo laburtu ($Yooko \rightarrow Yoko-čan$), eta inoizka jauzi edo «skipping»-a ere ikusten dela ($Mariko \rightarrow Mako-čan$); batzuetan atzizkiaren lehen kontsonantea hedatu egin daiteke plantillaren bigarren mora betetzeko: $Takako \rightarrow Tač-čan$. Gehitzen du pertsona izen batek, oro har, hipokoristiko bat baino gehiago sor ditzakeela: $Hiromi \rightarrow Hiro-čan$ edo $Romi-čan$, $Midori \rightarrow Mido-čan$ edo $Mii-čan$, $Yooko \rightarrow Yoko-čan$ edo $Yoo-čan$, $Hanako \rightarrow Hana-čan$, $Haa-čan$ edo $Hač-čan$, $Takako \rightarrow Taka-čan$, $Taa-čan$ edo $Tač-čan$. Izen gutxi batzuek bost moratik goiti dituzte, eta hola eta erroak «oinka» sailkaturik daude, oin horietako bakoitzak bi mora dituela (ibid., 225-226).

4.18. **Koreera**

Koreeraz hipokoristikoak egiteko bi era daude: lehenaren arabera ize-nari *-ya* (bokal ondoan) edo *-a* (kontsonante gibelean) atzizkia lotzen zaio. Badago, orobat, beste erabide bat, lehen silabako bokala luzatzen duena, hizkuntza honek galdegiten duen bi morako eredu bat betetzeko (Jin-Seong, 1991: 135).

4.19. **Euskara**

Euskal hipokoristikoei doakienez, erran dezakegu palatalizazioaren eta atzizkien bidez sortzen diren gehienak, ikusiko dugun bezala, arau finko eta argiei jarraikiz jaiotzen direla, eta eskuarki erroan dagoen izena franko ongi ezagutzen dela (salbuespen bakan batzuk badira: *Gatxi*, *Nitxin*, *Txanen*, *Txare*, *Txarieko*, *Txetu*...). Besterik da ordea, forma laburtuen oinarrian dagoen eredu fonologikoaren berri ematea, holakorik bada behintzat, eta izatekotan bakarra bada, gurean hain azentu sistema desberdinak egonik (Hualde, 1997), daitekeen delako egungo hipokoristikoen oinarrian eredu bat baino gehiago izatea, non nola.

5. HIPOKORISTIKOEN ERABILERA DESBERDINA DA HERRIALDE BATETIK BESTERA EUSKAL HERRIAN?

Argi ikusten da Gipuzkoa eta Bizkai aldeko dokumentazioan –Arabian gauzak ez ditut hain garbi– izen ttipi gutxiago azaltzen direla, nahiz eta Erdi Aroan izan, Nafarroakoan baino. Erreinu zaharreko XVI. mendeko agirietan, konparazione, Gipuzkoako XIV.ekoetan baino hipokoristiko gehiago kausitzen ditugu, eta ez Probintzian gutxiago zeudelako (cf. Del Valle Lertsundiren lana), goizdanik Gaztelaren eta gaztelaniaren eraginpean egonik agiri ofizialetan euskal aldaerak gutxiago azaltzen direlako baizik. Agertzen badira, gainera, zenbaitetan izengoitizat hartuak dira; cf. Gipuzkoako «*Pero Martines sobrenonbre Perucho*» (Legazpi, 1384, D.Sal., 55) eta Arabako «*Joan Lopez dicho Joanecho*» (Agurain, 1510, Lema, 2007b, 59, 206. or.), Nafarroako *Perusquito de Xuarberen* aldean (Eu., 1549, At.p., 1, 82). Honek, dena dela, ez du erran nahi salbuespenik ez dagoela; joeraz mintzatzen ari naiz, ez erabateko araez. Cf. «*Peruchote, e Machin de Heara*» (Zaldu., 1464, Po., 2001, 8, 356. or.), *Machin de Camino* (Irura, 1450, Le. & Ta., 10, 20. or.), *Joanecho de Uralde* (Agurain, 1510, Lema, 2007b, 59, 207. or.).

Hemen Orpustanen hipotesia arbuiatu nahi dut; ikertzaile honek, Arabako XV. mendeko hipokoristiko ugariez ari delarik (1999: 134), erraten du horiek gaztelaniaren eraginari zor zaizkiola, eta beste edozein eremu dialektaletan baino usaiakoagoak direla. Nire irudiko, aldiz, eta dokumentazioa arakatu ondoren, euskal izen ttipien erabilera euskararen osasun eta indarrarekin loturik dago zuzen-zuzenean, hots, Orpustanek pentsatzen zuenaren alderantzizkoa pentsatzen dut nik, euskararen eta euskal hipokoristikoen erabilerari dagokionez. Hau da, euskara indartsuago, biziago, eta izen ttipien erabilera handiagoa izan dela uste dut. Hedadura dela eta, bestalde, Euskal Herri osoan ibili dira. Honen aztarna da, adibidez, gorago aipatu ditudan *Matxin* edo *Txomin* bizirik

egotea, oraino. Gainera, ikusiko dugun bezala, erabide batzuk indarrean daude egun ere, eta izen ttipiak erdiesteko baliabideetan aldea nabari den arren, bada, denboran zehar, ezin ukatuzko berdintasun eta jarraikitasuna.

Bizkaiari doakionez, Oñederrak dio (1990: 23-24) «asimilaziozkoa ez den bustidura, *lato sensu* bustidura adierazgarria, euskalki guztietan» aurkitzen dela; honek erran nahi duke, aipatu ikertzailearen arabera, asimilaziozko bilakabide sintagmatikoa baino zaharragoa dela. Zernahi gisaz, oin-ohar batean, bizkaieran bustidura adierazkorrak funtzionatzen ez duelako J. A. Lakarra bizkaitarraren «aierua» aipatzen du, eta, beraz, nire irudipena da, gauzak ez daude zeharo garbi mendebaldeko egungo euskaran. Aieruak eta irudipenak, nolana ere, ikerketaren bidez argi, azal eta froga daitezke, askotan.

6. ALDAERA HIPOKORISTIKOEN BALIOAZ

6.1. Izen ttipiek mespretxua adierazten dutea?

Lan honetan ez dut sakonki aztertzen aipatzen ditudan hipokoristiko atzizkiek mespretxuzko balioa izan dezaketen ala ez, horretarako eskuarki erabili ditudan datu historiko bakartuak biziki egokiak ez direlako (hauek baino anitzez hobeak dira literatur lanak), baina, edozein modutan, izen ttipiek orain ez duten maila eta erabilera zutela irudi du, agiri ofizialetan barra-barra agertzen direlako, erran gisa Gaztelaren mendeko lurraldeetan nolabaiteko galga, balazta egon zela hauteman badaiteke ere, haiei sarrera emateko –edo ez emateko– tenorean.

Izen palatalizatueta, batzuetan, bada alde zerbait lehengo eta oraingo erabileren artean; konparaziorako, egun norbaitendako *gixona* dela erraten dugunean ez gara lagun hori goratzen, laudatzen ari, beheratzen eta laidoztatzen baizik, baina Erdi Aroan gauzak ez ziren osoro orain bezala, eta *Gixon* lasai ibil zitezkeen pertsona izentzat (Goihenetxek [1991: 304] goitizentzat hartzen du, baina nik izentzat ere aurkitu dut, behin baino gehiagotan), *Aketza*, *Ardia* ('ahardia' beharbada), *Bargoa*, *Zerria*... eta antzeko beste batzuk agiri ofizialetan lasai ibil zitezkeen era berean (1).

Atzizkien mespretxuzko balioa dela-eta A. Alonsok dio, espainoleko izen arunt atzizkidunetz mintzatzean (1982 [1954]: 167), normalki maitasunezkoak direnak mespretxuzko eta arbuiozko bilaka daitezkeela, etsaiarendako erraten direnean. Era berean, eta Espainiako garai klasikoaz ari delarik, «txikigarria» laidozkoa zela zehazten du, izen bereziei ezartzen zitzaieanean (*Gongorilla*, *Lopillo*) (2).

(1) Grosclaudek *Bacot* deitura gaskoia aztertzean honela dio (1992: 46): «De *vaca*, vache, avec suffixe diminutif *-ot*: *vacca* et ses dérivés faisaient partie des noms individuels donnés au Moyen Âge. On ne doit pas les considérer comme des sobriquets: la vache n'était nullement un animal méprisé et son nom n'était pas une injure».

(2) Errusieraz, Fokker-ek dioenez (1960: 268), izen adierazkorak bi sailetan banatzen dira: hipokoristikoak dira batzuk, eta izen gaitzesgarriak («pejorative names», hitzez hitz) bes-

Txikigarriak neskame-morroiak eta behe mailako jendea izendatzeko ere usu baliatu direla gaineratzen du (honetaz ikus, orobat, Boyd-Bowman, 1955: 364, Latorre, 1956: 117, Fontanella, 1962: 570-571 eta González Ollé, 1962: 78, 138-139, 170-172), eta erabilera «beheragarri» honetatik heldu dela txikigarriak duen irainitzeko ahal hori. Honela dio Leringo hizkuntzalariak (ibid.):

«Este poder injuriante debe venir del uso del diminutivo con nombres propios de servidores y gentes de menor estado. No me parece haya sido la base la idea de tamaño reducido. Expresa familiaridad impertinente. El llamar con diminutivo a los sirvientes y gente menor en general, tenía tradición secular. Ahí el diminutivo, pretendiendo expresar afectión, denunciaba condescendiente superioridad».

Errusiako inperio handian, Polonia eta Lituania barruan hartzen zituenean, hipokoristikoa nekazarien eta langileen artean aski arruntak ziren, baina ez goragoko gizarte mailetan. Petri Lehenak, 1701ean, dokumentu ofizialetan erabiltzea legez galarazi zuen, debeku honen ezarpena mantso samarra izan bazen ere (Beider, 2001: 78).

Gurera etorri, euskararen egoera soziolinguistikoagatik ezin dugu jakin ziurtasunez hipokoristikoa gizartearen beheko mailetan goikoetan baino gehiago erabiltzen ziren ala ez. Irudi luke, bai, gaztelaniarako eta errusiarako aipatu den ohiturak gurerako ere balio duela, baina hau aierua eta uste behar bada erdi edo erabat ustela besterik ez da.

6.2. Emaztekien hizkeran izen ttipiak ardurago erabiltzen direa?

Izen ttipiak emakumeen hizkeran ohikoagoak diren, Boyd-Bowmanek (1955: 364) eta Fontanellak (1962: 570-571) nahi duten moduan, ez dut batere garbi ikusten, eta bistan da gaiak azterketa sakonagoa behar duela, aieka honetatik. Mexiko hiriko gaztelanian, Báezek (2006) burutu duen ikerketan, gizonen eta emaztekiek berdin ibiltzen dituzte hipokoristikoa eta, kultura mailari doakionez, aski parekatu daude: %49 hiztun ikasiek erabiltzen dituzte, eta %51 herri hizkera egiten dutenek.

6.3. Handigarriak izan daitezke?

A. Alonsok erraten du (1982 [1954]: 167), betiere izen arruntez mintzo delarik, atzizki txikigarriek espainolez ez ohi dutela adiera handigarririk, kon-

teak. Azken hauek, egoera berezi zenbaitetan, hipokoristikotzat ere erabil daitezke. Ikus hizkuntza honetaz ihardukitzean laugarren atalean erran dudana.

trakoa erratea franko arrunta bada ere (ibid., 163-164). Euskarari doakionez, eguneroko hizkeran «handitasuna» adierazten duen [s] kausitzen dugu zenbait aldiz, usaiakoak diren [č] eta [š]–ren ordez, nolabaiteko hipokoristiko handigarria sortzeko, hau daitekeena bada behinik behin: *Félicz, Jezúz, Mizél...* (Baztan, Bortzerriak, Eratsun, Leitzza, Luzaide, Sara... Ikus beherago). Hauek, gainera, ez dira bart arratseko kontuak, agertu ere Erdi Aroko dokumentazioan agertzen baitira: *Micelco d'Arreguipere* (Irulegi, 1412-13, *CPBN*, 111. or.), *Miçelco* (Ortzaize aldea, 1412-13, *CPBN*, 94. or.). Mende bereko *Sança* izena (*Sança de Larrinaga, Sança de Osynaga, Sança de Yraegui*, Oñati, 1489, Zu., 1994, 34, 254, 256 eta 261. or.), garai hartan ohikoa *Sancha* zela irudi baitu (*Sancha de Segura*, herri eta urte berean), hipokoristiko berezi hauen modukotzat eman liteke apika.

Goizuetako *Patziku* edo Arizkungo *Mantziku*-ri kutsu bera hartzen diet nik, kasu honetan, *San(t)za*-renean bezalaxe, jatorrizkoa [c] baldin bada ere. Sinkronikoki, ordea, *Patxi, Patxiku, Pantxito*-ren aldaerak irudi dute horiek, nolabaiteko balio adierazgarria dutenak. *Frantzisko*-ren eratorrietan ematen du Menéndez Pidalek (1977: 225-226) «regresión» deitzen duenaren antzetsuko zerbait (*Agapito* → *Agapo* eta *Margarita* → *Márgara* aipatzen ditu) gertatu dela, hein batean behintzat, alegia, oinarrizko izen horretatik atera diren *Prantxito, Pantxito* (eta apika **Pantxiko*) hipokoristikotzat, eratorritzat sentitu direla, eta, horren ondorioz, *Pantxo, Patxi* eta beste sortu direla. Ez dakit, bestalde, *Domingo* → *Ddomingo*-ren alderantzizko aldakuntzarik ez ote dagoen Larrek (2001: 30) aipatzen duen *Damatit* izenean, ematen duen bezala *Jean-Baptiste*-tik atera bada. Seguru egoteko gizona ezagutu behar nuke eta handia den, edo zakartasunarekin lot daitekeen ezaugarririk baduen ikusi.

6.4. Hipokoristikoak, izen bereko pertsonen bereizgailu

Euskal hipokoristikoak aztertzean ezin dut aipatu gabe utzi haurrideak elkarretarik bereizteko jokatu duten paper garrantzizkoa; izan ere, eta Satrustegik dioenez (Euskaltzaindia, 2001: 12), oraintsu arte seme-alabei izen bera ezartzea usaiakoa zen, eta senideen izenak bata besteagandik bereiztea palatalizazioaren, atzizkien, edo biak batean ibiltzearen gain gelditzen zen. Beste bide batzuk despalatalizazioa eta hizkuntza desberdinetako izenak erabiltzea ziren: *Pedro* → *Pelo, Piarres* eta *Betti* Luzaiden. Izen ofiziala *Pedro* zen eta erabiltzen ziren aldaerek Hegoaldeko erromantze batean *-Pelo-*, Iparraldeko batean *-Piarres-* eta euskaran *-Betti-* zuten sorburua.

Fuerteventurako gaztelanian familia batean izen bera zuten aitatxi, aita eta semea bereizteko ere ibili izan dira hipokoristikoak: lehenaren izenak *-ito* hartzen zuen, bigarrenarenak \emptyset eta azkenarenak *-illo* (*Juanito, Juan, Juanillo*, erraterako) (Morera, 1991: 216).

Frantzian, historian zehar, hipokoristikoek oinarrizko izenen urritasun gorria nolabait betetzeko erabili dira:

«La sélection progressive s'accroissait, au point qu'un petit nombre de noms avaient la faveur de la mode et, par suite, étaient portés par un grand nombre de personnes. Pour individualiser les innombrables *Jean, Guillaume, Pierre*, etc. force était de leur adjoindre un surnom à l'aide de suffixes ou d'autres déformations: tel *Jean* sera *Jeannot*, tel autre *Jeannet*, celui-là *Jeanneret*, etc.; les possibilités sont nombreuses; ici aussi la porte est ouverte à la transmission héréditaire» (Dauzat, 1988 [1949]: 111).

Gure artean ere badirudi izen bera zuten lagunak elkarrengatik bereiztea izan dela hipokoristikoak erabiltzearen arrazoietako bat.

Aizpitartek jasotzen duen *Juan* izenaren *Juanischume* hipokoristikoak (Knörr, 1981: 96) eta Igleciasek (2000: 46, 114, 281) dakartzan *Ganichumé*-k (*Ganis, Ganix*-etik (3)), *Marichoumé*-k motibazio bera zuketean menturaz, bai eta, orobat, aipatu ikertzaileak biltzen dituen Biarrizko XVIII. mendeko *Mariehaurra Dibarrart, Maria haurra de Gramont* eta *Joannahaurra*-k ere (ibid., 278). Lhanderen arabera (1926: 714), *Marigazte, Marittipi* eta *Marixume Marie*-ren txikigarriak dira, 'Mariette' alegia. Ibarrart baigorriarrak *Mendigaineko Piarrestipi* darabil (Ikus Lafitte & Barbier, 1967: 92), Zubirik (1990: 44) eta Otsobik (1992: 115) *Maittipi*. Xarrittonek dioenez (Saint-Pierre, 1998, X), Antsuberoren anaia Joanes *Joastipi* eta *Papiti* deitzen zuten. *Maridúrria* bizirik egon da berriki arte Luzaiden, eta Hazparnen bada oraino izen horretako emaztekoa.

6.5. Izen ttipien neutralizazioa dela-eta

Azken hamarkada hauetan, hein handi batean Satrustegiren izendegiaren ondorioz (1972az geroztik), egungo gazteek berez hipokoristikoak diren formak dituzte izentako, izen bakartako: *Antton, Beñat, Eñaut, Ganix, Gartxot, Maia, Manex, Txomin, Xoan...* Honek erran nahi du hipokoristikoak erabiltzeko behar zen hurbiltasuna, konfiantza, erabat galtzen dela kasu hauetan, beti izen ttipiarekin deituko baitituzte, adiskide izan edo ez hain adiskide, maitasunez mintzatu ala aiherkundez. Gainera, horietako batzuk «bir-hipokoristikotzen» zailak dira, nahiz ez denak; hots, zenbait kasutan ez da erraza atzizkia paratzea: *Beñat* → **Beñaño, *Beñatxo*, baina *Eñaut* → *Eñautiko* (Etxaleku), eta nahi bada *Anttontto, Txomintxo*, e.a.

(3) Otsobik (1992: 23) *Ganxume* dakar.

7. HIPOKORISTIKOAK GURE HIZKUNTZAN EGITEKO IZAN DIREN ETA DIREN BIDEAK

Euskaraz hipokoristikoak egiteko hiru sistema desberdin daude, eta hiru horien uztarduratik ateratako laugarren bat ere bai:

- a) Bustidura: *Ana* → *Aña*, *Domeka* → *Txomeka*, *Izaskun* → *Ixaxkun*, *Katalin* → *Txatalin*; *Migel*, *Mikel*, *Mikele* → *Mitxel*, *Mitxele*...
- b) Atzizkien erabilera: *Juan* → *Juantxo*, *Martie* → *Martieko*, *Mitxel* → *Mitxelot*, *Peru* → *Peruski*...
- c) Izen laburtzea. Hau ez da, bakarrik, biziki ezaguna euskaraz: *Ladislao* → *Ládis* (Baraibar), baina *Estanis(lao)* → *Ixtánix* (Goi.), *Saturtino* → *Xátur* (Arantza). Apokopea ez ezik aferesia ere izan daiteke: *Anastasito* → *Tasíto* (Les.), *Jwángoxitò* → *Xítò* (Goi.), edo biak batean: *Hipolito* → *Póli* (Amaiur). Hitz barreneko soinu bat edo gehiago ere lekutu daitezke: *Frantziska* → *Praiska* (*Peru Abarka*), *Jose Fermin* → *Jóxe:ermìn*, *Jose Joakin* → *Jóxeakìn* (Lei.), *Juana Mari* → *Mamáí* (Aniz).

Satrustegik kontatzen duen bezala (2001: 15), Urdiainen *Finatxo* izena hogeita hamaseiko gerlaren aurretik ugariak ziren *-ina*-rekin bukatutako edozein izenen laburdura izan zitekeen, *Agustina*, *Catalina*, *Florentina*-rena edo gero etorri ziren *Agripina*, *Avelina*, *Carolina*, *Crispina*, *Cristina*, *Delfina*, *Faustina*, *Josefina*, *Justina*, *Marina*, *Rosalina*, *Sabina*, *Senorina*, *Serafina* eta *Valentina*-rena, besteak beste.

- d) Aurreko horietako biren arteko uztardura. Gaztelanian ere, Baezek gogorarazten digunez (2002: 242), palatalizazioa eta izenaren laburtzea batean azaltzen dira: *Antonio* → *Toño*, *Cecilia* → *Chechi*,

José María → *Chema*... Lan honetan laugarren mota honi dagozkion lekukoak ez ditut aparteko atal batean ematen, aitzineko hiruretan baizik.

Gorrotxategik eta Lakarrak erraten duten moduan (2001: 430), euskal hizkuntzalaritzaren eginkizunetako bat da palatalizazio adierazkorraren erabilearren eta atzizkien bilketa –eta azterketa gehitzen dut nik– egitea, eta hori da hain zuzen ere, lan honetan erdietsi nahi ditudan helburuetako bat.

Izenen laburtzea dela eta, ezin aipatu gabe utzi Nafarroako herrietan, eta orobat beste herrialdeetakoetan, Hegoaldean behinik behin, gizonentzako izenak emaztekieztakoetarik bereizteko erabiltzen den prozedura: lehenek –o edo konsonantea izaten dute bukaeran, eta bigarrenek –i, gaztelaniazko –a galdurik, etorkizko izenak –ia amaiera duenean: *Anbroxio* / *Anbroxi*, *Antonio* / *Anttoni*, *Antoni*; *Baxilio* / *Baxili*, *Benantxio* / *Benantxi*, *Bittor* / *Bittori*, *Emilio* / *Emili*, *Eulogio* / *Eulogi*, *Euxebio* / *Euxebe*, *Euxabi*; *Euxtakio* / *Euxtaki*, *Eustaki*; *Gergorio*, *Gregorio* / *Gergori*, *Gregori*; *Hilario* / *Hilari*, *Iñaxio* / *Iñaxi*, *Julio* / *Juli*, *Liborio* / *Libori*, *Luzio* / *Lutxi*, *Maurixio* / *Maurixi*, *Prudentxio* / *Prudentxi*; *Tiburtxio*, *Diburtxio* / *Tiburtxi*, *Diburtxi*; *Toribio*, *Ttoribio* / *Toribi*, *Xerapio* / *Xerapi*, *Xeapi*; *Xixilio* / *Xixili*, *Zezili*... jatorriz bestelako bukaera duten *Anunciación* → *Anuntxi*, *Axentxio* / *Axintxi*, *Concepción* → *Kontxesi*, *Kontxexi* eta abarrez lekora (1).

Hau bat dator nonahi opatzen ditugun *Grazia* → *Grazi*, *Garazi*, *Gerazi*, *Graxi*, *Txaxi*-rekin eta *Maria* → *Mari*-rekin (ohikoena, alabaina, *Maria* da), beste batzuetan horrelakorik ez badago ere: *Auria*, *Oria*... Inoiz, gainera, bereizketa oinarriak bi kasuetan –io duenean ere egiten da: *Roxario* (gi.) / *Roxari* (em.), eta maskulinorik ez dagoenean edo usaiakoa ez denean ere bai, behin edo beste: *Engrazia* → *Ingraxi*, *Eulalia* → *Eulali*, *Natalia* → *Natali*...

Bukaerako –i hori, hipokoristikoetan ere, femeninoaren ezaugarritzat hartu da Hegoaldean, eta jatorriz bukaeran –ia edo –ión ez duten beste izenekin ere erabiltzen da orain: *Arantxa* → *Arantxi*, *Elena* → *Eleni*, *Katalina* → *Katti*, *Koxpa* → *Koxpi*, *Maria Luisa* → *Muxi*, *Patrizia* → *Patti*, *Pilar* → *Pili*, *Ramona* → *Ramoni*... Zenbaitetan, bestalde, apokopearen emaitza da, baina bukaeran –i egiteko joera horrek eragina izan duela dirudi: *Epifania* → *Epi*, *Isidora* → *Ixi*, *Josefina* → *Joxepi*, *Martzelina* → *Martxeli*... Greulek ere (1983-84), bokal berarekin bukatzen diren alemaneko hipokoristikoen eta gainerako formen iturriak aztertzean, bilakabide hau berau aipatzen du (*Daniel* → *Dani*, *Elisabeth* → *Eli*...). Whissellek dioenez (2001: 104-105), ikertzaile batzuek emakume hipokoristikoek («girls' nicknames» egilearen hitzetan) bukaeran /i/ izan ohi dutela nabarmendu dute.

(1) Historian zehar maskulinoak eta femeninoak bereizteko euskaraz erabili diren baliabideez Iñigo & Salaberri (1997) ikus daiteke.

Zernahi dela, gizon izenetan ere aurkitzen ditugu zenbait *-i* bukaeran, baina bakanka, eta gizonenak bakarrenak direnen kasuetan: *Andres Mari* → *Apalli* (Ea.), *Nartziso* → *Nartxi* (*Nártxi*, Lei.), *Patrizio* → *Patri* (2) (*Pátri*, Lei.), *Santiago* → *Xanti* (*Xánti*, *Xánti*, leku frankotan; ikus beherago), *Tomas* → *Tomi* (*Tómi*, Ara.), *Xabier* → *Xabi*, *Txabi* (*Xábi*, *Xábì*, *Txábi*, anitz tokitan)..., gehienetan, ikus daitekeen gisan, gaztelaniaz egiten den bezala. Ez dut uste bi hizkuntzotan arruntak diren *-i*-dun hipokoristiko horiek, Boyd-Bowmanek (1955: 363, 1960: 148) eta Van Wijkek (1964: 311-312) nahi duten bezala, ingeleseko edo frantseseko alderei jarraikitzearen ondorio diren.

Beste hizkuntza batzuetan ere, artetik errateko, bada hipokoristikoak *-i*-z egiteko joera. Gaztelanian anitz dira *-i* bukaera dutenak, gizonenak (*Antonio* → *Toñi*, *Basilio* → *Basi*, *Cándido* → *Candi*, *Casimiro* → *Casi*, *Juan* → (*Juanito*) → *Juani*...) nahiz emaztekiek (*Maria* → *Mari*, *Natividad* → *Nati*, *Pilar* → *Pili*, *Purificación* → *Puri*, *Trinidad* → *Trini*...). Honen etorkia *-ita*, *-ito* bezalako atzizkien *Rückbildung*-ean eta honen ondoko analogian bilatu beharra da, dirudienez (ikus Stratmann, 1935: 29-30); barnean bokal palatala duten izen laburtuek ere lagundu dukete, nire irudiko. Morerak (1991: 207-208) Kanarietan hitz bukaeran *-i* bokala duten hipokoristiko femenino anglosaxoiak hedatzen ari direla dio, oraindainoko *-a*-dunen kaltean, eta gizonkienetan ere (*Edy*, *Fredy*, *Jimmy*, *Tony*...) eremua irabazten ari direla.

Ingelesean ere badira *-i*-dun hipokoristiko femenino eta maskulinoak: *Abigail* → *Abbie*, *Abby*; *Adam* → *Addie*, *Addy*; *Adrian* → *Ade*, *Adie*, *Agnes* → *Aggie*, *Nessy*, *Nessie*; *Alban* → *Albie* eta *Alby*, *Carla* → *Carly*, *Carlie*; *Catherine* → *Cathy*, *Cynthia* → *Cindy*, *Diana* → *Di*, *James* → *Jimmy* edo *Jimmie*, *John* → *Johnnie*, *Johnny*; *Laurence* → *Larry*, *Margaret* → *Peggie*, *Peggy*; *Pearl* → *Perlie*, *Perly*; *Patricia* → *Pattie*, *Patty*; *Rebecca* → *Becky*, *Robert* → *Bobby*, *Sarah* → *Sally*, *Stephanie* → *Steffie*, *Susan* → *Susie*, *Theodore* → *Teddy*... (Allen, 1983: 310; Short, 1983; Seeman, 1985: 241; Macleod & Freedman, 1995; Zaitzow, Skipper & Bryant, 1997: 84, 92-93, 97-97; Nelson, 2002: 322). Bistan da, beraz, Seung-Hoon Shinek (2003: 420) dioena («one type of English hypocoristics is formed by truncating a name and adding the affix /i/ which is spelled as *-y*, *-ie* or *-ey*») egia dela. Xhoseran ibiltzen diren *-i* bukaerako izen ttipiak afrikaansak eta ingelesak eragindakoak dira, Neethlingen arabera (ikus laugarren atala).

Alemanez ere badira honelakoak, ikusi dugun bezala: *Claudia* → *Claudi*, *Dietmar* → *Dieti*, *Felicitas* → *Feli*, *Hans* → *Hansi*, *Renate* → *Reni*, *Ute* → *Uti*, *Uwe* → *Uwi*, *Wolfhart* → *Wolfi*, *Wolli* edo *Wolferli* (Naumann,

(2) Ohar *Patrizio*-tik *Patri* ateratzen dela (Leitzan), eta *Patrizia*-tik, berriz, *Patti*. Alegia, bada bi izenok bereizten dituen ezaugarria, horzkariaren palatalizazioa hain zuzen ere.

1976: 17 eta hurr., 1996: 1757), *Adalbert* → *Adi*, *Dietrich* eta *Dietlind* → *Didi*, *Nicola* → *Nici...* (Debus, 1988: 39), *Agnes* → *Agi*, *Andreas* → *Andi*, *Benjamin* → *Benni*, *Edmund* → *Edi*, *Ferdinand* → *Ferdi*, *Frank* → *Franki*, *Franziska* → *Franzi*, *Fanni* eta *Cissi*; *Mark* → *Marki*, *Rudolf* → *Rudi...* (Wiese, 2001: 133 et passim), *Klaus-Michael* → *Klaumi*, *Monika* → *Moni*, *Silvia* → *Silvie* (Köpcke, 2002: 297), *Elisabeth* → *Elli*, *Gerhard* → *Gerdi*, *Hardi*; *Sebastian* → *Sebi*, *Basti*; *Wilhelm* → *Willi* (Januschek, 2005: 240 eta hurr.) (3).

Hungarieran ere aurkitzen dugu *-i* bukaera, emazteki nahiz gizon izenetan, bakarrik edo berrekailu luzeago baten barnean: *Ágnes* → *Ági*, *Erzsébet* → *Erzsi*, *Ferenc* → *Feri*, *János* → *Jani* (eta *Jancsi*), *Júlia* → *Juli*, *Katalin* → *Kati*, *László* → *Laci*, *Márton* → *Marci*, *Péter* → *Peti*, *Piroska* → *Piri*, *Zoltán* → *Zol-ti...* Inoiz, gainera, euskarazko *aitzaki-maitzaki*, *aukera-maukera*, *estakuru-mestakuru*, *hautsi-mautsi* burutara dakarzkiguten errepikapenezko formak ere ba dira: *Andreas* → *Andi-Bandi* → *Bandi*, *Anna* → *Anna-Panna* → *Panna* → *Panni* (Posgay, 2002: 1029-1030).

Errusieran ere ezagunak dira *-i* duten aldaerak: *Ekaterina* → *Kitty*, *Valentina* → *Valy'*, *Vera* → *Veri* (Lawson & Nevo, 2005: 60, 72, 73), hizkuntza honetan *-ik* bukaera dutenak aise ugariagoak izanagatik ere: *Oleg* → *Alik*, *Pavel* → *Pavlik*, *Pyotr* → *Pepik*, *Semyon* → *Zambik*; *Sergey*, *Sergei* → *Serik*, *Stanislav* → *Stasik* eta beste; honen erabileraz eta balioaz ikus Stankiewicz (1957: 201-202). Mazedonieran bada grekeratik aspaldixko hartu eta gizon izenen hipokoristikoak antolatzeke erabiltzen den *-i* atzizkia, bai eta ere Gulevskaren arabera (2002: 190) Europako mendebaldean etorki duen beste *-i* atzizki bat (*-ci*, *-gi*, *-ki...*), maskulino nahiz femeninoetan ibiltzen dena, bertako zein kanpoko izenekin: *Elena* → *Eki*, *Goran* → *Goki*, *Igor* → *Igi*, *Krste* edo *Krsto* → *Kiki*, *Milan* → *Miki*, *Risto* → *Riki*, *Slobodan* → *Bobi*, e.a.

Egiptoko arabieran (H. B. Allen, 1956: 76 eta hurr.) ugariak dira *-i* bukaera dutenak: *Affaf* → *Fafi*; *Affaf*, *Afifa*, *Fakhria*, *Hanifa*, *Ferial*, *Fatma*, *Shafika*, *Wafa'* → *Fifi*; *Amal* → *Moli*; *Átimad*, *Khalda*, *Magda*, *Nadia*, *Wadia*, *Widad* → *Didi*; *Ebtisam* → *Bibi*, *Karimán* → *Riri*, *Mohammed* → *Mimi*; *Nawal*, *Néimat*, *Nabed* → *Nani*; *Ragaa* → *Ragi*, *Sallam* → *Selmi...*

Hebreeraren ere, ikusi bezala, ohikoak dira bukaeran bokal palatala duten izen ttipiak: *Dávid* edo *David* → *Davídi*, *Jákov* → *Jáki*, *Menáxem* → *Méni*, *Mírjam* → *Míri*, *Sigál* → *Sígi*, *Sofána* → *Sófi...* (Bat-El, 2005: 116). Nolanahi ere, *-i* atzizkia alemanetik mailegatua da eta hori daramaten formak ez bide dira *-le*-dunak bezain hipokoristikoak; aipatu autoreak izenaren aldaera ez-formal-

(3) Alemaneko bukaeran *-i* duten erakuntzez Werner (1996) ikus daiteke.

tzat hartzen ditu *-i*-dunak. Greko klasikoaren dialekto batean ere (arkadieran) usaiakoak ziren *-i* erroak zituzten hipokoristikoak: Ἀλεξίς, Δέξις, Ονασις, Ζεῦξις, e.a. (Davies, 2005: 37).

Egia da, bestalde, historian zehar, gure artean, zenbait antroponimo eta hagonimo maskulintan *-o* galtzeko joera egon dela: *Andreo* → *Andre*, *Aparizio* → *Aparizi*, *Gregorio*, *Gorgorio* → *Gergori*, *Txorgori*; *Done Belaio*, *Done Pelaio* → *Done Belai*, *Done Perai*; *San Pelaio* → *San Pelai*, *San Makario* → *San Makai*, *San Zoilo* → *San Zol...* Honek ez du erran nahi gertakari hau gurea bakarra denik, baina bai gure artean maiz aurkitzen dugula. Ezaguna da, bestalde, izena proklisian joateak, hau da, identifikatzaile (izengoiti, patronimiko...) baten aurrean joateak izenaren hondarreko bokala galarazi duela, eta ez bakarrik euskaraz, jakina: *Azubele* → *Azubel*, *Lopo* → *Lop* → *Lope*, *Martino* → *Martin* eta abar.

Bustirik azaltzen zaizkigun *-a* galdutako emakume izenetako asko lehen multzoan sailkatu ditut, hots, forma palatalizatuekin batean, hirugarrenean egin beharrez, nahiz, menturaz, azkeneko honetan berdin egoki sar zitezkeen.

Erran bezala, ez da pentsatu behar aipatu ditudan hipokoristikoak egiteko hiru bide hauek elkarrengandik zeharo bereizita daudela eta batuk bestearekin ez dutela inolako harremanik. Izan ere, usu bide morfonologikoa (honetaz Oñederra 2002 ikus daiteke) bide morfologikoarekin batean aurkitzen dugu (*Dota* → *Dotxato*, *Maria* → *Malliato*, *Txariako*; *Mikel*, *Migel* → *Mitxelkoxe...*), bide morfonologikoa laburtzarekin (*Domingo* → *Txomin*, *Pantxito* → *Patxi* (4)) edo laburtzea atzizkia eranstearekin (cf. gorago aipatutako *Finatxo*). Zernahi dela, kontu egin daiteke bide morfonologikoa eta morfologikoa uztartzen diren kasuetan atzizkidun forma genuela oinarrian (*Mariako*, *Mariato* adibidez), eta gero bustitzea burutu dela (*Txariako*, *Malliato*), berrekailua zuen aldaeratik abiatu. Alegia, bi bideak batera ageri dira hemen, baina beharbada ez dira biak aldi berekoak.

Beste hizkuntza batzuetan ere aipatu gertakariak nahasirik aurkitzen ditugu; Hasselrotek frantsesaz ari dela dioenez (1957: 196) «il est vrai que les suffixes diminutifs ne sont pas seuls mis à contribution pour former les noms d'amitié, les hypocoristiques; ils sont souvent complétés ou remplacés par d'autres procédés, tels qu'aphérèse de l'initiale ou de la finale, réduplication affective de l'initiale etc». Gorago erran dut askenazi juduen izenetan laburtzea eta azken kontsonantearen bustitzea batera azal daitezkeela.

(4) Bilakaera hau egiantzekoa bada ere ez da txoil segurua.

7.1. Hipokoristikoak egiteko lehen bidea: bustidura

7.1.1. Txistukariak

Hizkera arruntean ohikoa den bustidura erabili izan da izen berezietan hipokoristikoak moldatzeko, partikulazki [č] edo [š] soinuen bidezkoa (5). Zenbait aldiz, gainera, [č] hori protetikoa zen, alegia, ez zen deusen palatalizazioaren ondorioa, hitzari aitzinetik itsasten zitzaion soinua baizik. Gure artean hagitz arrunta izan den eta den arren, [č]-ren erabilera ez da euskararena bakarrarena, ikusiko dugun moduan hemendik kanpora ere aurkitzen baitugu, Aragoi adibidez (Buesa, 1989; Saura, 1999-2000: 172, 176), baina baita bestetan ere (Spitzer, 1934, Stratmann, 1935, Boyd-Bowman, 1955, Armas, 1974).

X-z den bezainbatean, aurreko [j], [s] edo [š] baten aldaera adierazkortzat kausitzen dugu. Gorrotxategik 1984ko lanean (186-186) erraten zuen Akitaniako idazkunen batean bustitze honen erakuskaria bazegokeela, *Cissonbonnis*-en adibidez. XX. mendearen bukaera aldean ezagutzera eman ziren Hagenbach-eko idazkUNETAN garbi ageri da erromatarren garaian, akitanieran, sabaiaurreko igurzkaria (<x>) hobietakoaren (<s>-ren) aldaera adierazkortzat ibiltzen zela; froga *Sembus* izen ohikoaren *Xembus* aldaera da (ikus ikertzaile beraren 2003ko artikulua, 34-35, eta lan honen 7.1.1.2. puntua).

Mitxelenaren arabera (*FHV*, 184-185) *tt* da fonemarik adierazkorrena, hain zuzen ere latin hizkuntzetan gutxienik ibiltzen dena delako. Hau horrela dela ez dut dudarik egiten, baina izenen hipokoristikoak egiteko orduan maizetik aurkitzen dugun bustidura *x*-ren bidezkoa da egun, datuetan ikus daitekeen gisa. Ameriketako gaztelanian ere, zenbait aldiz, jatorrizko txistukaria [š] bilakatzten da (*Aniceta* → *Xeta*, *Beatriz* → *Tix*, *Estanislao* → *Tanix*, *Inés* → *Nex*, *Tomás* → *Max*), baina ohikoena afrikaria ([č]) da (ikus beheraxeago).

Euskaraz, Errenteriako hizkuntzalari handiak dioenez, [č] zenbait kontsonanteren kide palatalizatua da hizkera arruntean, hasierako lekunean partikulazki, *tt*-tik igaro delarik edo ez. Antroponimian ere, ikusiko dugun bezala, *tx* hurrengo kontsonante hauen kide palatalizatua da: **d**-rena (*Txomeka*, *Txomen*, *Txomin*), **f**-rena (*Txerran*, *Txurtin* (6)), **g**-rena (*Txabon*, *Txaxi*, *Txorgori*, *Mitxel*), **j**-rena (*Txoan*, *Txofre*, *Txurdana*; hauek, alabaina, *x*-dun aldaeratarik

(5) [c] ere ager daiteke [č]-ren aldaera adierazkortzat. Cf. Goizuetako *Patzíku*, Luzaideko *Patzíko* 'Patxi' edo Arizkungo *Mantzíku*, adiera beraz. Hau lotua dagoke Aezkoako Hiriberrin ibiltzen den *tziki* 'oso txikia'-ren tankerakoekin (ikus Camino, 1997: 335-338), bai eta, agian *Pitzitzi*-ren (< *Pitzitxi*) moduko katu izenekin ere (Dirassar, 1995: 28).

(6) Bi kasu hauetan protetikoa ere izan daiteke, *Ferrand*, *Ferrant* eta *Furtin*-etik ez ezik, *Erran* eta *Urtin* dokumentatuatarik ere abia gaitzkeelako.

ere atera zitezkeen), **k**-rena (*Mitxel, Mitxele, Txatalin, Txorboran*), **l**-rena (*Txope, Txopelo, Txopiko, Txopillo, Txopin, Txopino, Txopei(t)za*), **m**-rena (*Txaora, Txaria - Txariko, Txarin, Txaringo, Txartiko, Txartin(a), Txartingo*), **n**-rena (*Txekolas*; zernahi gisaz, **Mekolas*-en moduko bat ere har daiteke iturburutzat; nik *Necolas* eta *Micolas* ere dokumentatu ditut, *Nicolas* ez ezik), **p**-rena (*Txeru, Txeruko, Txerun, Txerute*), **s**-rena (*Txantxo, Txeme*; lehena asimilazioaren fruitu izan daiteke), **t**-rena (*Antxon, Txatxin*), **ts**-rena (*Antxo, Otxoa*) eta **tz**-rena (*Anuntxi, Gartxo, Kontxesi, Prantxito*). *Matxin* ezagun eta zabalduan, izen beraren hipokoristikoa den *Txatxin*-en eta *Martzelo*-tik atera diren *Matxélo, Patxélo*-n palatalizatzear landa aurreko dardarkariaren galtzapena ere ikusten da; soinu hau, dena dela, franko aldiz erortzen da izen ttipietan. Behin edo beste **z**-ren ordeztu ere ageri da **tx**-, **x**-rekin batera, baina kasu berezia da (*Xuri, Xurio / Txuri, Txurio...* Ikus 7.1.1.3).

Bustitzea, erran bezala, ez da bakarrik euskaraz gertatzen; Erdialdeko eta Hego Amerikako gaztelanian ere ugariak dira *tx*-k ordezkatzeko dituen soinuak. Hauek, ardura, [ʃ] edo hortzarteko [θ] dira (hondarreko hau menturaz [ʃ] ebakitzen dateke), baina ez beti, ezta gutxiagorik ere. *Tx* hipokoristikokoaren hasieran ager daiteke, nahiz eta etorkizko izenean palatalizatu den soinua beste toki batean egon: *Adelaida* → *Chila, Aniceto* → *Cheto, Ascensión* → *Chon, Chenchon*; *Asunción* → *Chon, Chona*; *Basilía, Basilio* → *Chila, Chilo*; *Benjamín* → *Chemín, Chelín*; *Casiano* → *Chano, Casimiro* → *Chimiro*; *Cecilia, Cecilio* → *Chichila, Chichilo, Chila, Chilo*; *Eliseo* → *Cheo, Cheyo*; *Gumersinda* → *Chinda, Jacinto* → *Chinto, Josefa* → *Chepa, Julia* → *Chula, Luciano* eta *Ponciano* → *Chano, Marcelina* → *Chelina, Sofía* → *Chofa, Rosalía* → *Chalía, Chala*; *Rosaura* → *Chagua, Santiago* → *Chago, Chano, Chango*; *Vicenta, Vicente* → *Chenta, Chente*; *Zoila* → *Chola...* (Lenz 1935: 222, Boyd-Bowman 1955: 338. eta hurr., 1960: 74-77, 138-139, Van Wijk 1964, Nández 1973: 107, Armas 1974: 198, Piñeros, 2000).

Beste lekune batzuetan ere ager daiteke [č], Ameriketako gaztelanian: *Agustín* → *Cacho, Alfonsina* → *Joncha, Alfonso* → *Foncho* eta *Joncho, Poncho*; *Anastasio* → *Nacho, Tacho*; *Basilio* → *Bacho*; *Cecilia, Cecilio* → *Chila, Chilo*; *Demetria, Demetrio* → *Mecha, Mecho*; *Esperanza* → *Lancha, Florencia, Florencio* → *Lencha, Lencho*; *Ignacia* → *Ñacha, Lázaro* → *Lacho, Patricia* → *Pachi, Ticha*; *Teodosia* → *Tocha*; *Vicente, Victoriano* → *Vicho...*

Emaitza bestelakoa ere izan daiteke, baina, zernahi gisaz, maiz soinu palatala ohi da: *Adelaida* → *Yaya, Amalia* → *Maya*; *Antonia, Antonio* → *Toña, Toño*; *Apolonio* → *Loño, Bernarda* → *Naya, Bernardo* → *Beño, Candelaria* → *Cayaya, Carola, Carolina* → *Cayoya*; *Desideria, Desiderio* → *Yeya, Yeyo*; *Eleuteria* → *Tella* edo *Teya, Encarnación* → *Caña* edo *Encaña, Eulalia* → *Laya, Ignacia* → *Ñacha, Leocadia* → *Caya, Leonardo* → *Nayo, Mario* → *Mayo, Nicasia* →

Nica eta *Ñica*, *René* → *Ñeco*, *Rogelio* → *Geyo*, *Teodora* → *Doya*; *Virginio* → *Quiño*... (Lenz, 1935: 222, Boyd-Bowman, 1955: 338 eta hurr., 1960: 74-77, 138-139, Van Wijk, 1964: 303 eta hurr., Nájuez, 1973: 107, Armas, 1974: 198).

Zernahi dela, badira aldeak eta desberdintasunak herrialde batetik bestera; argibidez, azken ikertzaileak (ibid., 195) dio *Jesús* izena Guatemalan *Chus* dela baina Mexikon *Chucho* erraten dela, eta orobat *Antonio*, zein *Tono* baita aurreneko herrialdean eta *Toño* bigarrenean. Autore honek berak (ibid., 198) Guatemalan gertatzen den *-r > -x* gertakariaren berri ematen digu, aski berezia dela ohartu gabe, edo ohartarazi gabe behinik behin: *Esther* → *Tex*, *Leonor* → *Nox*.

Ikus daitekeen moduan, aipatutako hipokoristikoetan bustitzearekin batera soinu galtze eta hitz sinpletzeak gertatzen dira, Stratmannek dioenez (1935: 31-32) haur hizkeraren ondorioz. Boyd-Bowmanen arabera (1955: 345. eta hurr., 1960: 144-145) aldaera hipokoristikoek ia beti bi silaba dituzte eta azentuatze paroxitonoa. Errusieraz ere izen laburtuek bi silaba izaten dituzte eta paroxitonoak dira, Fokkerren arabera (1960: 270), eta maiz hola izaten da (*Alefina* → *Alya*, *Alexander*, *Alexandra* → *Sasha*, *Alina* → *Alya*, *David* → *Denya*, *Dinya*, *Elena* → *Lena*, *Lyalya*, *Fyodor* → *Faya*, *Fedya*, *Irina* → *Ira*, *Iren*...), atzizkien erabilera aintzat hartzen ez badugu behinik behin (*Abram*, *Avram* → *Abrasha*, *Daniil* → *Danyasha*, *Dunyasha*... Ikus Lawson eta Nevo, 2005).

Boyd-Bowmanek azaltzen du (1955: 356) gaztelaniaz sudurkari ondoan usu *ch* afrikaria agertzen dela: *Alfonso* → *Poncho*, *Clemencia* → *Mencha*, *Concepción* → *Concha*, *Constancia*, *Constanza* → *Tancha*, *Crescencio*, *Crescencia* → *Chencho*, *Chencha*... Euskaraz horrelakoetan hortz hobietako bizkarkari afrikaria izaten da oinarriko izenean ([c], <tz> alegia); honen aldaera maitasunezkoa sabaiko afrikaria ([č] edo [tʃ], <tx>) denez gero, normala da soinu hau aurkitzea. Gure hizkuntzan erran dezakegu soinu galtze eta hitz bakuntzeak historian zehar ardurakoak ez direla izan, edo gutxienez agiri ofizialetan ez direla azaltzen, baina gaur guzuzen usaiakoak direla, datuetan ikusten den gisan (cf. beheago).

Euskaraz *tx*-protetikoa duten izenak hauek dira: *Txalbi*, *Txana*, *Txandres*, *Txanton*, *Txelena*, *Txesteban*, *Txordon*, *Txosan* eta *Txurdin(txo)* (7). Honela mintzo da Mitxelena gertakari honek izen arruntetan duen tokiaz ari delarik (FHV, 189):

«El valor expresivo de (t)x- se aprovechó al máximo. No sólo podía sustituir casi a cualquier otra consonante, sino que podía prefijarse a una inicial vocálica: vizc. *txaul* ‘débil’, com. *a(h)ul* [...]».

(7) Txileko gaztelanian ere ez da ezezaguna: *Ema* → *Chema* (Lenz, 1935: 222).

Eta jarraian, izen berezietara igaroz, honela dio:

«En nombres de persona, como demostró F. Del Valle Lersundi, *č* podía sustituir en Guipúzcoa y Vizcaya a una consonante cualquiera o prefijarse a una inicial vocálica».

Kasu bakanen batean soinu bustiaren errepikapen adierazkorra dugu: *Txantxo*, *Txatxin*, asimilazioaren fruitu ez badira bederik.

Buesak dioenez (1989: 43), baliabide hau ohikoa da mundu hispanikoan eta beste hizkuntza batzuetan. Errusieraz ere, adibidez, badira palatalizazioak izen ttipietan, baina despalatalizazioak ere bai, noiz nola (ikus Stan-kiewicz, 1957: 200). Hizkuntza honetan, bestalde, hipokoristiko atzizkietan maizkara agertzen dira soinu palatalak (ibid., 201-202; ikus laugarren atala). Txekieran, Beider-en arabera (2001: 68), «there is a group of diminutive [irakur bedi *hypocoristic*] suffixes composed of two sounds, a vowel and the consonant /sh/, spelled *š*. Among the most common examples are *-uš*, *-eš* and *-iš* [...]. In Prague there are the names Beneš, Ebruš and Jaroš in 1348». Iker-tzaile honek dioenez (ibid., 70-71), egungo yiddishean dagoen *-she* hipokoristiko atzizkia Polonierako *-sia / -sza* (*sya* ukraineraz eta bielorrusieraz) berrekailuaren eraginari zor zaio. Polonian yiddishek hartu duen beste atzizkia *-shi* da, baina hau «hypocorisms» egiteko ez, baizik «pet forms» sortzeko ibili da. Nolanahi ere, ez da garbi ageri bi terminoen arteko aldea zein den. Mazedonieran bada palatala bukaeran duen *-ush* atzizkia (Gulevska, 2002: 191); polonieran, Kurylowicz-ek dioenez (1967: 7), «(la coexistence de consonne dure et molle) permet de renforcer l'expressivité de noms hypocoristiques par la palatalité de la consonne finale lorsqu'ils s'opposent aux noms pleins à consonne dure».

Bestalde, Asiara joanez, hau irakurtzen dut Nepalgo bhasa hizkuntza dela eta: «A diminutive suffix, *-cha*, is added to a name when the addresser is older than the addressee, and it is used freely with both male and female. Depending on the context, *-cha* can be either endearing or demeaning» (Shrestha, 2000: 34). Gorago erran bezala, japonieran *-txan* da hipokoristiko berrekailu nagusia; Hego Afrikako xhoseran ohikoak dira bukaeran *-s* edo *-sh* [š] duten izen laburtuak (ikus laugarren atala).

Porrasen arabera (1986: 543-544), gaztelaniazko izen ttipietan burutzen diren aldaketak (*Alfonso* → *Poncho*, *Anastasio* → *Tacho*, *José María* → *Txe-ma*, *Eduardo* → *Guayo*, *Antonio* → *Toño*, *Erminia* → *Miña*...) ordezkapentzat hartu behar dira, ez bustitetzat, gertakari sinkronikoak ez direlako. Autore honek beronek haur hizkeraren hondartako ematen du helduaroan gauzatzen diren aldakuntza horiek (ibid., 544):

«Bástenos anotar que los procesos operados en los hipocorísticos españoles son, obviamente, una réplica de los que se efectúan en el habla infantil, cuyo contexto social bien puede ser de índole lúdico-afectiva».

Eta pixka bat aurrerago:

«(La “conciencia palatal”) alude a un posible remanente síquico que funciona en la mente de todo hispano-hablante adulto: remanente de los procesos fonológicos operados durante la infancia, concretamente del “período palatal”».

Euskaraz [č] edo [š] ibiltzea ardurakoa izan da historian barrena, da-tuetan ageri den bezala, eta egun erabidea oraino ere emankorra da, azken markadetan zabaldu diren izen «berrietan» ikus daitekeen moduan: *Aitziber* → *Aitziber*, *Egoitz* → *Egoitz*, *Gaizka* → *Gaixka*, *Gotzone* → *Gotxone*, *Haritz* → *Haritz*, *Olatz* → *Olatz*, *Zumar* → *Xumar*... Leonek dioenez (1980: 56), hipokoristikoak maitasun giroan sortzen dira, haurrekiko solasean (8), eta, beraz, ez da miresteko egungo izen horietan ere aurkitzea, araua bera baita, *input*-a zein ere den. Zernahi gisaz, eta J. J. Zubiri lankide goizuetarrak diostanez, berak ez du somatu hurren artean, izen berrietan alegia, zaharrekin bezalako joerarik palatalizatorako. Hots, lan honetako izen zerrendetan ikus daitekeen moduan, aldaera palatalizatuak ugariak dira Goizuetako izen «klasiko»-en artean, baina bakanak izen berrietan. Honen arrazoietakoa bat, eta ez Goizuetan bakarrik, izen horien tradizio falta dateke, baina, berebat, horietako batzuk aldaera neutroan ere palatalizaturik egotea: *Beñat*, *Eñaut*, *Maddalen*, *Matxin* eta beste. Honetan, ez dago zalantzarik, hipokoristikoak eta hipokoristikoak ez direnak batera eta nahasirik ematen dituzten hondar urteotako zenbait izendegi kaskarrek ez dute asko lagundu (9).

Puntu honetan gogoan hartu beharra da izen ttipiak hein batean adinarekin eta tamainarekin ere loturik daudela, eta garai batean *Egoitz* edo *Haritz* zirenak, haztearekin, batik bat morrosko handiak badira, *Egoitz* eta *Haritz* bilakatzen direla. Beste horrenbeste gertatzen da hurreko hainbat *Fermintxo*,

(8) Juan Jose Zubiri lankideak Goizuetan *Xaloun* aditua duela erran dit, haurrari hitz egiten dion amaren ahotik. Egoera hau da: haurra eta gurasoak Saloun izanak dira bakantzetan, eta herrira itzultzean amatxik non izana den galdegiten dio mutikoari. Haurra ttikiegia da eta ez da oraino erantzuteko gai; amak, laguntzeko, *Xaloun* erraten dio haurrari, honek amatxiri ihardets diezaion; alferrik, jakina.

(9) Madrilek eman berri duen legeak dioenez, hemendik aitzina ez da inolako arazorik izanen haurrari izentzat hipokoristikoa paratzeko: «La ley 3/2007, de 15 de marzo, reguladora de la rectificación registral de la mención relativa al sexo de las personas, en su disposición final segunda, apartado dos, ha dado una nueva redacción al párrafo segundo del artículo 54 LRC, eliminando la prohibición de imponer como nombres diminutivos o variantes familiares y coloquiales de aquellos». Garbi dago, beraz, izen ttipien atea ireki dela eta aurrerantzean edozein (?) hipokoristiko ezartzen ahalko zaiola haurrari, ponte izentako.

Migeltxo eta abarrekin, zein, urteak igarotzearekin, *Fermin* eta *Migel* bihurtzen baitira. Gaztelaniaz ere gauza bera dugu: haurretan *Consuelito*, *Isidrito*, *Reginito* zirenak *Consuelo*, *Isidro*, *Regino* bilakatzen dira adinean aitzina joatearekin (10). Hau, alabaina, ez da erabateko araua, eta zenbaitetan izen ttipiek izenaren jabea zaharturik edo handiturik ere irauten dute (*Jose txo*, *Patxi*, *Pello*...). Honela dio Armasek (1974: 196) Guatemalako egoeraz:

«Nuestro pueblo tiene justa fama de cortés, atento, ceremonioso, y con frecuencia usa también los hipocorísticos con terminación diminutiva para expresar afecto o consideración, y no pequeñez. Así nos hallamos con que en una familia se llama Chemita a un hombrazo de dos metros de altura, y Tullita a una mujerza cincuentona».

Mintza-doinua eta egoera ere aintzat hartzekoak dira hipokoristikoa ibiltzeko edo baztertzeko tenorean; izan ere, amultsuki hitz egiten delarik normalak izanagatik, erreata emateko orduan, ahakar egiteko denboran, palatalizazioa edo atzizkia gal daiteke, edo biak, nolabait ere barne irakidura linguistikoki urruntzearen bitartez adierazteko. Kanarietako gaztelanian ere berdin agitzen da: haurrari haserre ematen zaionean, helduari zorrotz mintzatu behar zaionean hipokoristikoa alde batera uzten da ardura, eta izen osoa erabiltzen (Morera, 1991: 206-207); ingelesez ere haurrari errieta egiteko tenorean hipokoristikotik izen osora igaro ohi da hiztuna, hau egin daitekeen kasuetan bederen (Wierzbicka, 1992: 232). Afrikako akan hizkuntzan, Obengek (2001: 118) dioenez, «a shift in the use of a hypocoristic form to a non-hypocoristic form may signal a shift in the relationship between members of a social network».

7.1.1.1. [č] duten hipokoristikoak

Hurrengo hauek dira hizkera bizian, batez ere Nafarroakoan, kausitu ditudan [č]-dun hipokoristikoak:

– **Aitziber** → **Aitxiber**, **Atxi**: *Aitxiber* (Arr., Les.), *Atxi* (Les.).

– **Alfontso** → **Alfontxo**, **Alpontxo**: *Alpóntxo* (Aritz., Err.), *Alfóntxo* (El., Ig., It., Sak.), *Alfóntxò* (Goi., Lei.), *Alfontxo Musungoa* (Lei., Peru., 1996: 168). Boyd-Bowmanek dio (1955: 356-357) gaztelaniako haur hizkeran ohikoak direla f (edo \emptyset) $> p, j > k$ aldaketak, eta, oro har, igurzariaren ordezkaria ahoskatzea: *Bonifacio* → *Pacho*, *Delfina* → *Pina*, *Sinforosa* → *Polocha*, *Eugenia* → *Queña*, *Jacinto* → *Cacho*... Euskaraz ere honelakoak ardura aurkitzen ditugu

(10) Errusieraz ere, Fokker-ek dioenez (1960: 273), hipokoristikoak gehienbat haurrekin mintzatzerakoan ibiltzen dira; hemen, dena dela, kontuan hartu behar da hizkuntza honetan izen laburtuak eta gaitzestekoak ere badirela eta egileak ez dituela hipokoristikotzat hartzen.

izenetan, ttipietan partikulazki (*Alfonso* → *Alpontxo*, *Jesus* → *Kexux*, *Jose* → *Kotte*...), baina baita hauetatik kanpo ere, hemen kontuan hartu beharra baita gure hizkuntzako hizkera batzuetan bereziki *f* > *p* aldakuntza ongi ezaguna dela (ikus *FHV*, 262 eta hurr.), eguneroko solasean ere.

– **Anton** (*Anton Koko* ‘Antonio el arriero’, *Euskaldunak*, 142) → **Antxon** (egungoa): *Antxón* (ohikoa). Ibarak (200: 508) Larrasoañako *Antxon* oikonimoa jasotzen du. S. A. de la Gandararen 1757. mendeko Gabon kanta batean ere ageri da: «Eznea Perico, / arzazu: / gastaeta, Joanico, / ez aztu. / Ardaoagaz, Anchon / contu pichiruon. / Fararira / Presenteguín eah / Zast hurira» (Kaltzakorta, 1999: 149).

– **Anuntzi(azion)** → **Anuntxi**: *Anúntxi* (Ara., Arr., Auza, El., Ig., Oitz), *Anúntxi* (Arr., Goi.), *Anuntxi* (Lei., Peru., 1996: 129).

– **Arantza(zu)** → **Arantxa**: *Arántxa* (Arr., Auza, El., Ig., Lab.).

– **Asentzio, Azentsio, Azentzio** → **Axentxio, Axintxio, Axintxo, Axintxi**: *Axéntxjo* (Ea., gi.), *Axéntxiò* (Goi., gi.), *Axíntxo* (Bere., Ea., Igoa, Lak., gi.), *Axíntxi* (Zeg., em.), *Axintxio Olaberrikoa*, *Axintxio* (Lei., Peru., 1996: 8, 67, 68, 164, 189, 200, 206), *Axentxio «Lixarri»* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 217).

– **Asuntzion** → **Asuntxion, Axuntxion, Axuntxon**: *Axúntxjon*, *Axúntxon* (El.), *Áxuntxón* (Eu.), *Asúntxjòn* (Ig., Lei.).

– **Bautista** → **Batxi**: *Batxi* (Bilbo; Irigoien, 1995g: 130).

– **Benantzio, Benantzia** → **Benantxio, Benantxi**: *Benántxi* (Am., El., Ig., It.), *Benántxo* (Arb.), *Benántxjo*, *Benántxo* (El.), *Bénantxi* (Lei.).

– **Domingo** → **Txomin**: *Chomin de Horosco* (Mark., 1516, Enríquez, 1989, B zatia, 36), *Chomin de Mendaro* (Mutriku, 1518-20, Fdez. & Mont. & He., 2007, 110, 396. or.), *Chomin de Guesalsoro* (Deba, 1518-20, ibid., 533. or.), *Chomin de goycueta* (Goi., 1552, At.p., 1, 82). Hedatua da egun; cf. *Txómin* Alkotzen, Anizen eta Arruazun. Ilurdotzen *Chominena* izeneko etxea ageri da 1644an, 1677an eta 1726an, *Txomin* bilakatua egun (Ibarra, 2002: 505).

– **Domingo** → **Domintxo**: *Domíntxo* (Ig., Les.). **Domin*-etik abiatu-rik sortu dela kontu egin daiteke; honela izatera *-txo* atzizki ezaguna genuke izen honetan.

– **Egoitz** → **Egoitx**: *Egóitx* (Goi.).

– **Esperantza** → **Espeantxa**: *Espéantxà* (Ig., Lei.).

– **Florentzio, Florentzia** → **Florentxio, Florentxo, Fontxo, Pron-
txio, Pontxio, Florentxi**: *Floréntxo* (Alkotz, Auza), *Floréntxi* (Ari., It.), *Florén-
txiò* (It.), *Fóntxo* (Lier.), *Próntxjò*, *Póntxjò* (Lei.), *Peusteneko Pontxio Larraz* (Lei., Peru., 1996: 149).

– **François, Françoise** → **Frantxoa, Frantxua, Pantxoa, Pantxua, Pantxo, Frantxa**: *Pantxoa* (Treku, 1982: 15), *Pantxo* (Larzabal, 1991: 91), *Pantxo* (Minaberri, 1998: 175), *Pantxoa Etchegoin* (Bes., Duhau, 2003: 407), *Frantxa Errandonea* (Sara, *He.*, 2003-XI-13, 4), *Pantxua Bimboire* (Ip., *He.*, 2004-VI-10, 1), *Frantxua Garicoits* (Irisarri, *He.*, 2004-X-28, 5), *Pantxo Oronos*, *Pantxo Cedarry* (Bi., *He.*, 2004-XI-25, 5), *Frantxoa Iribarren* (Aih., *He.*, 2005-I-6, 5),

Frantxa Halzuet (Urruña, *He.*, 2005-X-6, 3). *Frantzua* ere bada (*oseba Frantzua*, Larre, 2001: 115), jende azkarren izenek-eta izaten duten soinu bizkarkari horrekin. Ikus *Frantxo*, *Pantxo* / *Pantzo* kontrajarpenaz Lafittek dioena, beherago. Barbierrek ere (1987: 231) *Frantxoa* darabil eta Larrek (2001: 279, 281) *Frantxua Barbier*, *Frantxua Haristoy* biltzen ditu. Espartza Galarren *Pancho Beriain* izeneko etxea zegoen 1838an (Jimeno, 1987: 198).

Jean-Louis Davantek diostanez, *Frantxua*-ren modukoak ez dira izen ttipizat hartzen ahal, baina bai *P-* dutenak, hots, *Pántxo*, *Pántxua* bezalakoak (azken hau Lapurdin eta Baxenabarre mendebaldekoan ibiltzen dela dio, baina ez Zuberoan). *Pántzo* (*Hirigarai*) forma ere (Baigorri aldekoa, Irulegi irratiko esataria eta idazlea) adierazkortzat har daitekeela uste du.

– **Frantzisko, Frantzisku, Frantziska** → **Frantxisko, Fantxisko, Frantxiska, Frantxixka, Frantxix, Frantxi, Frantxixko, Frantxisku, Frantxixku, Frantxiko, Maintxika, Prantxisko, Patxiko, Patxiku, Prantxo, Prantxito, Pantxito, Patxito, Patxi, Pantxo, Pantxa, Pantxika, Pantxix, Patxika, Patxo, Patxu, Patxikito, Prakito**: *Patxika* (Aldude aldea), *Frantxíxko*, *Frantxíxke*, *Fantxike*, *Pantxike* (Am.), *Frantxísko*, *Frántxi* (Ara.), *Prantxító*, *Pantxító* (Ari.), *Frantxíxko*, *Patxíko* (Arr.), *Frantxíxka*, *Frantxíxko*, *Pátxi* (Auza), *Patxíku* (Done.), *Patxíko* (Dorrao), *Frántxiskù* (Era.), *Frantxíxka*, *Frantxíxku*, *Pátxi*, *Patxíku*, *Pantxító* (El.), *Frantxíxko*, *Pátxi*, *Patxíko* (Eu.), *Frantxíko*, *Pátxu*, *Prakíto* (Ea.), *Pantxikà* (Goi.), *Pantxix* (Haz., irratiko esataria), *Frantxíxka*, *Patxikító* (Ig., Lier.), *Frantxíxko*, *Patxíku* (It.), *Frantxíxko*, *Frantxíxka*, *Patxíku*, *Pátxi* (Lab.), *Frantxíxko* (Lakuntzan bizi den mutil gaztea; berez kanpotarra da), *Frántxixkà*, *Frántxixkè*, *Frántxixkò*, *Pántxiké* (Lei.), *Maintxike Goñi* (Lekaroz; EHHaeko berriemailea), *Pantxító* (Les.), *Pátxi*, *Fantxísko*, *Fantxíxko*, *Frantxíxa* (Luz.), *Patxi Biskarret* (Otsagabia, Artola, 2006: 189), *Pátxi*, *Patxíko* (Sak.), *Pantxika* (Ziburu), *Pantxika*, *Patxiko* (Zug.).

Patxi (Altsasu, Izagirre, 1967: 55), *Frantxiko* (Sak.er., Erdozia, 2001: 144, 157, 259, 303), *Pantxika* (Loti, ikus Knörr, 2002b: 142; Treku, 1982: 123), *Frantxix* (Duny-Pétre, 1966: 60, Sen., *He.*, 2005-VII-7, 4), *Frantchichko* (Moulier, *Piarres*, 17), *Frantxixka Zabaleta* (Lei., Zubi. & Peru., 1998: 208), *Frantxixko* (Larre, 2001: 11), *Frantxixko Lapitz* (*He.*, 2005-1-6, 1), *Pantxo* (Larzabal, 1991: 71), *Pranchisco* (Del Valle, 1934: 194), *Patxíku*, *Frantxiska* (Peru., 1996: 116, 144, 176), *Patxíku Altamira* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 198), *Pantxika* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 253, 257), *Prantxisko Goenaga* (Aranalde, 1999: 154), *Prancho* (Del Valle, 1934: 194), *Pacho* (Aizpitarte, XVIII. m., Knörr, 95-96; Del Valle, 1934: 194), *Pachico*, *Patxíko* (Del Valle, 1934: 194, Azkue, 1969 [1906]: 159; Irigoien, 1995g: 130), *Patxíku*, *Patxika* (Azkue, 1969 [1906]: 159), *Pantxo Oxoby Ganixhaurranekoa* (Bi., *He.*, 2004-X-28, 5), *Pantxika* (Irisarri, *He.*, 2005-I-6).

Cf., gainera, *Peru Abarka*-ko pasarteño hau (30. or.): «M.J. Artu daio-gun kontu maia *serbietan* dabillan neskatillari. Ze izen dau? / P. Praiska deritxo [...]» eta D. Intzak (1974: 44) biltzen duen Larraungo esaera hau: «Patxiko, joan

ziñen betiko»; *Patxi Esponde* (Iparraldeko apeza, HUD, 1992: 189), *Patxiku Alduntzin* (Lei., Peru., 1996: 95). Izetak (1996: 215) ondoko erranairu hau jaso zuen Baztanen: «*Frantxisko asti gutixko, neskatxetako molde gutixko*». Lotik *Frantxita* darabil (Knörr, 2002b: 143), baina ez dakit honek nolako tradizioa duen. Azkuek hiztegian *Patxi*, *Patxiko*, *Patxiku* formak *Francisco* edo *José Francisco*-ren izen herrikoitzat ematen ditu, eta *Patxika Francisca*-rentzat. Ditudan *Patxi*-ren lehen lekukoak XVI. mendekoak dira: *Pachi erecalde* (Espartza Zaraitzu, 1569, eliza artxiboa, bataio libururik zaharrena, 9. org.), *Don Pachi Arguedas* (Ezkarozeke bikarioa zen, 1574an, ibid., 101. org.), «*Francisco garcia alias pachi*» (Biloria, 1694, Ar.p., 7) (11).

– **Fulgencia** → **Fuljéntxi**: *Fuljéntxi* (Zug.).

– **Gontzalo** → **Gontxu**, **Txalo**: *Txálo* (Done.), *Góntxu* (Zug.).

Etxauriko 1727ko *Gonchaloenecoa* oikonimoan *Gontxalo* hipokoristikoa egon daiteke, baina *Gontzalo*-ren transkripzioa ere izan daiteke.

– **Gotzone** → **Gotxone**: *Gotxóne* (Oitz).

– **Ildefontso** → **Ildefóntxo**; *Ildefóntxo* (Arr.).

– **Inozentzia**, **Inozentzio** → **Inoxentxia**, **Inoxentxio**, **Iñoxentxio**: *Iñoxéntxja* (Aniz), *Inoxéntxjo* (Azp.), *Iñóxentxiò*, *Iñóxintxò* (Goi.).

– **Izaskun** → **Txaskun**: *Txáskun* (Lab.). Neska hau *Ízas* eta *Kákun* ere deitzen dute.

– **Jesus**, **Jexux**, **Kexux** → **Ketxu**, **Ketxus**, **Txus**: *Kétxus* (Arr., Ea.), *Kétxu* (Ig.), *Txús* (Les.).

– **Jexuxin** → **Txutxin**: *Txutxín* (Ea., Lak., Lei.).

– **Jexuxita** → **Txutxita**: *Txutxíta* (Arr.).

– **Joan Frantzisko** → **Joan Patxiku**: *Joan Patxiku Alduntzin*, *Joan Patxiku* (Lei., Peru., 1996: 35, 176).

– **Jose Lorentzo** → **Joxelo(r)éntxo**: *Jòxelo(r)éntxo* (Aniz), *Joxé Loréntxo* (Ig.).

– **Juan Kru(t)z** → **Juankutx**, **Kankutx**: *Kánkutx* (Ari.), *Juankúttx* (Ea.).

– **Kontsuelo** → **Kontxuelo**: *Kontxwélo* (Arrarats, It., Ua.; Lakuntzan izen bereko gizona dago).

– **Kontzesiana** → **Kontxixiana**: *Kontxíxjanà* (Lei.).

– **Kontzezi(on)** → **Kontxexion**, **Kontxesi**: *Kóntxexjón* (Arr., Auza), *Kóntxexì* (Goi., It.), *Kóntxexì* (Lei.), *Kontxesi Pedroarena* (Garralda, Camino, 1997: 539).

– **Laurentz**, **Lorentz** → **Laurentx**, **Lorentx**: *Lauréntx* (Amü., Ostantkoa, Lan.; izen ofizialtzat *Laurent* dute), *Laurentx* (Etxarren, 1985: 64). Oi-

(11) *Patxi*-ren hasierako *P-* hori zenbait euskalkitan aise azal liteke, baina ez segur aski denetan; badaiteke, halaber, batean gertatu aldaketa besteetara hedatu izana, baina haur hizkerarekin eta adierazkotasanarekin ere lot daiteke. Zernahi dela, Aragoin (Buesa, 1989: 44) *Panchisco*, *Panchis*, *Pachi*, *Pacho*, *Pancho* ditugu, eta Ameriketako azkeneko aldaera behintzat ongi ezaguna da.

konimian ere aurkitzen dugu aldaera hipokoristikoa: *Lauréntxen bénta* (Ari.), *Launtxáinja* (Luzaideko Pektotxeta auzoan; Satrustegik *Laurenchena* biltzen du 1770 eta 1772an, 1961: 217 eta 1965-1966: 29), *Lorenchena* (1786, Sat., 1961: 217), *Lorench* (1849, 1859, A.h., 3, 71 eta 255-256. or.) Auritzen, *Lorenchenea* (XVIII. m.), *Laurenchoneco borda* (XIX. m.), *Laurenchon-borda* (XX. m.) Goizuetan (Her., 1978: 82), *Loréntxon bordà* ebakia egun.

– **Lorentzo, Lorentza** → **Lorentxo, Loentxo, Lontxo, Loentxa, Lontxa**: *Loréntxo* (Ara., Ari.–Aritz., Aritzu, El., Oitz, Suarbe), *Loréntxo, Loréntxa* (Auza), *Loréntxò* (Goi.), *Lóntxo* (Iru.; Zug.), *Loréntxo* (It. [goizuetarra da], Sak.), *Loéntxo* (Urdiain), *Lontxo Lasarte Aristondo*, *Lontxo Lasarte Otermin*, *Lontxa Olano*, *Lontxo Zubitur*, *Loentxa, Arriango Lontxo* (Lei., Peru., 1996: 10, 13, 164, 200), *Lorentxo* (Arroa, Peru., 1996: 203), *Loentxo* (Goi. eta Arano, Zubi. & Peru., 1998: 248, 255).

– **Luzi(a)** → **Lutxi(a)**: *Lútxi* (Am., Arr., El., Ig.), *Lútxi* (Goi.), *Lutxi* (Zubieta, *Berria*, 2005-6-25, 42. or.). Ez dakit Muru Asteraingo 1727ko *Luchia-rena* oikonimoaren oinarrian *Lutxia* hipokoristikoa dagoen ala *Lutzia* jatorrizko forma (cf. Aranoko 1726ko *Luzienea* oikonimoa, *Lútziné* ebakia egun, eta Zubietako 1626ko *Luciarena*, *Lucicoa* data horretatik aitzina, *Lútzia*, *Lútzikuà* orain, Iñigo, 1996: 569).

– **Madalen(a)** → **Matxalen**: *Machalen* (Bilbo; Irigoien, 1995g: 130). Mitxelenak dio (FHV, 190) *Matxalen* forma *Maddalen*-etik atera dela, ahostuntasuna galtzearen ondorioz; galtze hau hersketaren indartzeari zor zaio, errenteriarraren arabera.

– **Marcel, Marcelle** → **Martxel, Martxela**: *Martxéla* (Amü.), *Martxel Arribillaga* (Sen., *He.*, 2003-XI-20, 4), *Martxela Sabarots* (Bes., Duhau, 2003: 406).

– **Maria Asuntzion** → **Maxuntxon**: *Máxuntxón* (Lei.).

– **Maria A(s)zentzion** → **Maixtentxon**: *Máixtentxón* (Eu.).

– **Maria Jesus** → **Matxus**: *Matxús* (Arr., Les.: *Maríxux*, *Máixux* ere bai).

– **Martzelino (Marcelino, Marcellin), Martzelina (Marcelina, Marcelline)** → **Martxelino, Martxelina, Martxalina, Martxalín Martxelin, Martxeli**: *Màrtxelína* (Auza), *Martxalín* (em., Heleta), *Mártxelì* (Lei.), *Martxélino* (El., Ig.), *Martxélin* (em., Lan., Zug.), *Màrtxelíno* (Luz.), *Martxelin* (em., Luz.; MAren gutunak), *Martxalina*, *Martxelin* (Larzabal, 1991: 93, 254), *Martxalín* (em., Sen., *He.*, 2005-VII-7, 4).

– **Martzelo** → **Martxelo, Matxelo, Patxelo**: *Martxélo* (Ara., Arr., Eu., Ira., Luz.), *Matxélo*, *Patxélo* (lagun bera, Eu.). Iglasiasek dioenez (2000: 281), *Bartxelo(t)* aldaera ere izan zen XVIII. mendean Uztaritzen.

– **Mertzedes** → **Mertxe**: *Mértxe* (Alkotch, Ara., Auza, El., Eu., Ig., Ira., Lak.; Etxalekukoari *Mértxéx* ere erraten diote), *Mértxè* (Goi.), *Mertxe Zabaleta* (Lei., Peru., 1996: 95, 96). Goizuetan *Mertxe* 1616rako ageri den *Mercherena* oikonimoaren oinarrian dagoela dirudi (*Mértxénè* egun).

– **Migel, Mikel** → **Mitxel**: *Mitxel* (Ig.), *Mitxel* (Lei.). Ikus datu historikoak, beheitxeago.

– **Olatz** → **Olatx**: *Olátx* (neska izena; Azpeiti-Azkoiti aldean).

– **Prudentzio, Prudentzia** → **Prudentxio, Prudentxo, Proentxio, Proontxio, Prontxio, Prudentxi, Proentxi, Poentxio**: *Prudentxi, Prudentxo* (Am.), *Proóntxjo* (Ari.-Aritz.), *Prudentxo* (Auza), *Próntxiò* (Ereñotzu), *Prudentxi, Prudentxjo* (El.), *Prudentxiò, Proéntxiò* (Goi.), *Prudentxi* (Ig., It., Oitz; em.), *Proentxi Huizi* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 207), *Proentxio, Poentxio* (lagun bera, Arano, Zubi. & Peru., 1998: 254). Pilar Satrustegik dioskunez, Zumaian *Prudentxo* ezagutu zuen.

– **Silbestre, Silbestra** → **Txilibistro, Txilibistra** (egun; Irigoien, 1983: 11).

– **Sinforiano** → **Txifuriano**: *Txifurjano* (Bere.).

– **Tiburtzio, Diburtzio, Tiburtzia, Diburtzia** → **Tiburtxio, Diburtxio, Tiburtxi, Diburtxi**: *Tibúrtxjo* (El.), *Tibúrtxiò, Dibúrtxiò, Tibúrtxi, Dibúrtxi* (Goi.), *Tibúrtxi* (Ig.), *Tibúrtxo* (It.).

– **Urtsula** (Ürsula, Ursule) → **Urtxula, Ürtxula: Ürtxúla** (Altzai), *Urtxúla* (Bere., El.), *Urtxula* (Larzábal, 1991: 262), *Urtxula Dithurbide* (Sara, 2003-XI-27, 7).

– **Xabi** → **Txabi**: *Txábi* (Iru.; aski zabaldurik dago).

– **Zeferino** → **Txipirin**: *Txipírìn* (Goi.).

– **Zezilio** → **Txixilio**: *Txíxiljò* (Lei.).

Dokumentazioan ondoko hipokoristikoak azaltzen dira:

– **Albi** → **Txalbi**. Goizuetan 1616rako ageri den *Chalbirena*-ren eta Etxarri Larraungo 1726ko izen bereko oikonimoaren oinarrian dagoke, baina ez da txoil segurua. *Albi* izena Irigoienek biltzen du (1983: 15); nik *Albis* besterik ez dut jaso (*Alvis de Legarda*, Astegieta, 1486, Enr. & Sar., 1986, 42).

– **Aldontza** → **Aldontxa**. Añorbeko 1727ko *Aldoncharena* oikonimoaren oinarrian dagoela dirudi, baina ez da segurua, <ch> digramak, kasu honetan, euskarazko txistukari bizkarkaria ([c], <tz>) irudika dezakeelako.

– **Ana** → **Txana**: *Chana de Escurandi* (Ziortza, 1411, Enr. & Sar., 1986, 15), *Chana* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179). Zernahi dela, *Joana, Xoana*-ren moduko batetik ere atera zitekeen, apika. Amerikako gaztelanian *Feliciana* (Van Wijk, 1964: 304), *Sebastiana* eta *Susana*-ren (Boyd-Bowman, 1955: 350) hipokoristikoa da *Chana*.

– **Andres** → **Txandres**: *Chandres* (Ber., 1503, Lema, 2007b, 28, 109), *Chandres* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179). Cf. *Chandra Uri* (Oñ., 1489, Urkixo, 1912: 57).

– **Anton** (*Anton Koko* ‘Antonio el arriero’, *Euskaldunak*, 142) → **Txanton**: *Chanton* (Ber., c. 1550, Del Valle, 1933: 179), *Txanton Piper* (*Garoa*, 288), *Txanton Pipir* (*Euskaldunak*, 102).

– **Antso** (*Anso d'Echevelce*, Donu., 1395, *Doc.Gasc.II*, 265. Cf. Oihe-narten 28. atsotitza: «*Anxo limosnari, vrde ebatsiaren oinac demaza beharrari*». Irigoien, 1992: 34; Txillardegik [1971: 34] *Antxo* transkribatzen du) → **Antxo** (12): *Ancho Berari* (Orreaga, 1366, *LPN*, 488), *Ancho Oppuca* (Dg., 1396, *Doc.Gasc.II*, 281), *Ancho Errantz d'Aguerre* (Dg., 1397, *Doc.Gasc.II*, 283), *Ancho* (Sen., 1415, Goih., 1966: 57). Behin *Ancho*-k eta *Anto*-k pertsona bera izenda-tzen dute: *Ancho Lucra –Lucea* irakurri behar dela irudi du– eta *Anto Luçea* (Lesaka-Bera, 1359, MD, 1971, 81). Ez dut konprenitzen zergatik azaltzen duen Orpustanek (2000: 194, 205) horrelako mesfidantza *Anso* (*Anso*, *Anso* baxena-bartar irakaslearen hitzetan) eta *Santxo* (*Sancho*) bat-bertzat hartzeko orduan. Cf., erraterako, *Jaun Anso Miqueleiz* (Uterga aldea, 1221, *GPrior.*, 179) = *Don Sanso Miqueleiz* (1226, *ibid.*, 192).

– **Domeka** → **Txomeka**: *Chomeca* (NVP, 586).

– **Domenga, Domenia** → **Txomen**: *Chomen* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179-180).

– **Dota** → **Dotxato**: *Dochato* (Dg., 1412-13, *CPBN*, 104. or.).

– **Elena** → **Txelena**: *Chelena* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179).

– **Esteban** → **Txesteban**: *Chesteban* (Deba, 1525; Del Valle, 1934: 193).

– **Ferran** → **Txerran, Txarran**: *Cherran de Leyçaoia* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 119. or.), *Cherran de Vrquiaga* (Dur., 1453, Hid. et al., 1989d, 1, 3. or.), *Cherran de Yndo* (Deba, 1465, Her. & Bar., 2006, 59, 196. or., 1482, Bar. & Her., 2006, 3, 18. or. = *Ferrando de Yndo*, *ibid.*, 26, 47. or.), *Cherran Cherran* (Oñati aldean, 1496, Lu. & Zu., 2001, 95, 52. or.), *Charran de Vrquiaga* (Dur., 1512, Hid. et al., 1989c, 169, 747. or.), *Cherran de Leyçao-la* (1518-20, Deba, Fdez. & Mont. & He., 2007, 110, 533. or.), «*Cherran, hijo del dicho Pero Ochoa*» (Arra., 1520, Le. & G., 1998: 234), *Cherran yxur* (Betelu, 1520, J.p., 5), *Cherran* (Gesalatz, 1521, J.p., 5), *Cherran* (Deba, 1525; Del Valle, 1934: 193). Mitxelenak (*FHV*, 70) 'Fernandito' adiera ematen dio *Txerran*-i.

– **Fortuño, Ordoño** → **Txordon, Txorron**: «*Chorron de Çubiate el Mayor*» (Aretxabaleta, 1497, Le. & C. & La., 16, 196. or.), *Chorron de Çubiaurre* (Leintz, 1497, Le. & C. & La., 19, 218. or.), *Chordon* (Lekeitio, 1520, Enríquez et al., 1992b, 267, 923. or.), «*Ausso Chordon arz orri / ta nic yñes dayda*». Erdarazko itzulpena hau da: «*Ten Hordoño a esse osso, / y yo haré huyda*» (*RS*, 1596, 422), *Chordon* (Del Valle, 1933: 176). *Txordon* > *Txorron* pausua ez da segurua, baina bai egiantzekoa (cf. *Fernando* > *Ferrando*, *Ferrando*), nahiz *rd* multzoa euskaraz

(12) Hau ez da erabat segurua, zeren, Irigoienek (1987: 198) dioen bezala, Erdi Aroko *Sancho* izena *Sanço*-tik atera baita (honen aldaera adierazkorra zatekeen), eta hau, lehenago, *Santio*-tik. Beraz, bilakaera *Sanctio* > *Sanço* (*Santzo*-ren tankerako zerbait, oker ez banabil) > *Santxo* > *Santso* (txistukari asimilazioz) > *Antso* (txistukari disimilazioz) izan zitekeen. Kasu honetan *Antxo* zuzenean *Santxo*-tik atera zela pentsa daiteke; honela izatekotz, *Antxo Antso*-ren aldaera adierazgarria izan beharbidean balio bereko forma litzateke.

ongi gordetzen den hitz zaharretan (*ardi, erdi, urde...*). Nolanahi ere, *Cherron de Çubiate* ere bada Eskoriatzan (1497, Le. & C. & La., 19, 219. or.); irakurketa ustelaren fruitua ere izan liteke, alabaina. Cf. *Txerran* (< *Ferran*).

– **Furtin, Urtin** → **Txurtin** (cf. *Txurdin*): «*Churtin, fijo de Martin capero*» (Oñati, 1489, Zu., 1994, 34, 264. or.), *Churtin de Junguitu* (Oreitia, 1510, Lema, 2007b, 59, 208. or.).

– **Gabon** (*Gabon*, em., Oñ., 1489, Ugarte, 1973: 369; *Maria Gavon*, Aramaio, 1499, Bazán & Martín, 1999: 21; *Juan Gabon*, Elorrio, 1501, Hidalgo et al., 23; *Gavon de Jahuregui*, gi., itxuraz, Oñ., 1514, Zu., 1999: 163) → **Txabon**: *Chabon* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179).

– **Garze(a), Garzia, Garzo...** → **Gartxea, Gartxia, Gartxo, Gartxot, Gartxote, Gatzot** (cf. *Martin* → *Matxin*): «*Garchot, clamado Alaranda*» (Leatxe, 1366, LPN, 454), *Garchea, Gachot, Garchot d'Uhart* (Uharte Garazi, 1378, Goih., 1966: 166), *Garcho lucea* (Azantza, 1517, J.p., 5), *Garcho goya* (Munarriz, 1517, J.p., 5), *Garchote* (Gazolatz, 1549, Li.p., 2), *Garchot* (Hiriberri Arakil, 1563, HA.p., 2). Cf., gainera, *Martin Garchoa* (Zeg., 1504, Po., 2001, 35, 115. or.).

– **Garzio** (*Garcio Periz*, Lizasoain, 1366, LPN, 520) → **Gartxio**: *Garchio* (Lekeitio, 1510/1556, Enríquez et al., 1993, 95. or. Cf. *Garçi de Çarandona*, ibid., 105. or.).

– **Garzo** (*Garzo de Biota*, Aragoi, 1212, Goñi, 492) → **Gartxo**. Hiriberri Arakilgo *Garcho*-n (1572, HA.p., 4), Ibiriku Eguesibarko (1649, Ue.p., 40) eta Azpirozko (1726) *Garchorena* oikonimoetan dago.

– **Gorgorio** → **Txorgori**: *Chorgori* (NVP, 422). Cf. *Peru Abarka*-ko pasarteño hau (113. or.): «M.J. –Ze izen emoten deutzazu? Zer da Ioanis? / P. –Ioanis esaten deutsee prantzés euskaldunak Juan edo Juaniko esaten deutzagunari, zelan Petri Pedrori, ta Estebe Estebani. Kiputzari esan deutzat Txorgori Gregorio esateko».

– **Grazia** → **Txaxi**: *Chaxi de Aranaztegui* (Andoain, 1475, Le. & Ta., 1996, 19, 65. or.), *Chaxi de Mendibelcua* (Mutriku, 1504, Fdez. & Mont. & He., 2007, 57, 128), *Chaxi* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179-180 = *Doña Gracia*). Etxalarko *Xaxinea* oikonimoan haren aldaera zatekeen *Xaxi* genuela dirudi.

– **Jaime** → ***Xaime** → **Txaime**: *Chaime* (Utergako etxea, 1854, Legarda, 1976: 437). Ez da erabat segurua.

– **Joan(a), Joango, Joaneto, Joana** → **Txoan(a)** (*Choan*, NVP, 416), **Txango, Txantxo** (*Santxo*-tik ere atera zitekeen. Ikus Del Valle, 1934: 192-193. Irigoienek [1995d: 74] Irungo *Txantxotenea* oikonimoa aztertzean «*Chancho* corresponde nítidamente a una forma hipocorística del nombre de persona *Sancho*» dio), **Txoaneto**. Irigoienek (1995d: 74) Oñatiko *Txuanena* baserri izenean dagoen *Txuan* aldaera aipatzen du; abiapuntuaren eta abiaburuaren artean *X*-dun formak izan dirateke, apika. Ikus beherago. Arruitzen 1726an *Choanenea* oikonimoa ageri da, menturaz aitzineko **Choanarena* baten ondorengoa dena (*Arotzarena* → *Arotzenea*, *Martinarena* → *Martinenea*, *Zurginarena* → *Zurginenea*

bilakaera arrunta izan da, izan ere, etxe izenetan). Ikus, bestalde, gorago *Ana* → *Txana*-z hitz egitean erran dudana.

– **Jofre** → **Txofre**: *Choffre* (Beraskoain, 1366, *LPN*, 523; egia erran, agertu *Choffre* agertzen da, baina badirudi <r> gaizki irakurri dela), *Pero Chofre de Arismendi* (Eibar, 1409, Elortza, 2000, 1, 9. or.), *Chofre* (Deba, Del Valle, 1934: 193). Tarteko pausua **Xofre*-ren moduko bat izanen zen, apika.

– **Juanperi**([t]z) → **Txaperi** (ikus *Juanperitxe* eta *Txaperiko*): *Chaperi de Axpe* (Ispaster, 1469; Enríquez et al., 1992: 240), «*Martin de Muxica, çapatero* [...] *Chaperi, su criado*» (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 141. or.), «*Chaperi, fijo de Juan Perez de Arexmendi*» (Mark., 1471, Enríquez, 1989, 4), *Chaperi de Vega* (Markina – Amallobieta, 1512, Enríquez, 1989, 43).

– **Juantxo, Juantxu** → **Txatxo, Txatxu(a)** (cf. «*Joan de Çumeta, dicho Chachuluçe e Maria su muger, e Joango su fijo, dicho Chachucho*», Ziz.-Ad., 1470, Le. & Ta., 1996, 18, 62. or.): *Chachu Arrona* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 118. or.), *Chachu de Arança* (ibid., 120. or.), *Chachu de Errmua* (sic) (ibid., 121. or.), *Chachu Corrillo* (1453, ibid., 46, 154. or.), *Chachu de Eleyçabuno* (Ziz.-Ad., 1470, Le. & Ta., 1996, 18, 60. or.), *Chachu de Ansotegui* (Mark., 1471, Enríquez, 1989, 4), «*Peru Chachu, carpentero*» (Oiar.al., 1478, C. & C. & G., 1997, 69, 56. or.), *Chachu Andia* (Legazpiko ibarra, 1483, Aierbe, 1993, 34, 121. or.), «*Chacho de Erlaete e Johan de Erlaete*» (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 5. or.), «*Chachu Çuri* [...] e *Chachu fijo de Johan Peres de Basabil* [...] e *Chachua fijo de Domingo de Arriola*» (ibid., 6. or.), «*Chachu fijo de Peruco de Mendaro* [...] e *Chachu Gorioso el çapatero de Oliden* [...] e *Chachu de Vçarraga* [...] e *Chachu de la Rementeria*» (Deba – Itziar, ibid., 10. or.), *Chachu Ochoco*, *Chachu Arança* (Deba, ibid., 102, 123. or. eta 104, 124. or.), *Chachu de Meabe* (Mark., 1500, Enríquez, 1989, 32), *Chachu de Ayara* (1506rako hila zegoen, Ber., Lema, 2007, 48, 328. or.), *Chachu de Çabala* (Ziortza, 1508, Enr. & Sar., 1989, 21, 22, 218 eta 233. or.), *Chachu* (Lekeitio, 1511, Enríquez et al., 1997, 212). Irigoienek (1995d: 75) Oñatiko *Txatxukoa* baserri izena aipatzen du eta dio *Txatxu* hipokoristikoa daramala, baina ez du lekukotasun historikorik biltzen, eta ez du zehazten zein izeni dagokiokoen. Aranon *Chachuenea* oikonimoa zegoen 1726an, itxuraz egungo *Itxátxò* bera, hau txoil segurua ez bada ere.

– **Jurdana** → **Txurdana**: *Churdana* (Del Valle, 1934: 179). *Xurdana*-ren moduko baten bitartekotza egonen zen beharbada. Cf. Donamariako *Churdarena* oikonimoa (1726).

– **Katalin** → **Katxalin, Txatalin**: *Chatalin* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179). *Txatalin* honen *Txetalin* aldaera bide dago Azpirozko 1726ko *Chetalinena* oikonimoaren oinarrian; cf. *Martin*-en hipokoristikoa den *Txartin*-en *Txertin* aldaera. Oronozen 1727an *Cachalinena* etxea ageri da, *Katxalinja* bihurtua orain; *Katxalíneko bórda* ere bada herri honetan. Legasan, urte berean, oinarrian *Katxalin* bide duen *Cachalillena* (sic, *Cachaliñena*-tik segur aski) oikonimoa azaltzen da.

– **Korboran** (eta **Gorboran** inoiz) → **Txorboran**: *Chorboran de Echayz* (Amezqueta, 1519, Aierbe, 2006, 314, 345. or. Badaiteke *Ch-* hori [k] irakurri behar izatea, ez [č], baina hirutan azaltzen da, ez behin bakarrik) = *Chorboran de Esays* (ibid., 347. or.).

– **Lope, Lopiko, Lopillo, Lopei(t)za** → **Txope, Txopiko, Txopillo, Txopin, Txopino, Txopei(t)za**: *Chope de Arança* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 122. or.), *Chopico de Anuncibay* (XV. m., LGS, 252, 264), *Chopin de Loreda* (ibid., 333), *Chopyno d'Anuçibay* (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 47. or.), «*Chope de Ysasti, fijo de Garçia Martinez de Ysasti*» (Erre., 1474, C. & C. & G., 1997, 58, 24. or.), *Chope de Artybay* (Mark., 1499, Enríquez, 1989, 31 = *Lope de Artybay*, ibid.), «*Sancha de Vgarte [...] Lope Ybannes de Otaola, su marido, e a los dichos Chope e Gonçalo e Martina e Sancha e Osana, sus hijos legitimos herederos*» (Ziortza, 1507-1510, Enr. & Sar., 1989, 6, 18. or.), *Chope de Ybaseta* (Mark., 1512, Enríquez, 1989, 46), *Chope de Betoño* (Arra., 1517, Le. & G., 1998: 190; ibid., 1518, 205-206. or.), *Chopeiza* (Getaria, XVI. m.; Del Valle, 1934: 193). Lafittek honela dio (1990: 173): «1821eko urriaren 26an, Eskiulako Benoît Goyhenex Chope delako batekin astaña-tratu batez hasten da hizketa [...]».

– **Madalen(a)** → **Matxalen**: *Machalen* (Bilbo; Irigoien, 1995g: 130).

– **Maiora, Maora** → **Txaora**: *Chaora* (Aramaio, Del Valle, 1934: 192).

– **Maria, Mari, Mariako, Mariko** → **Txaria, Txari, Txariako, Txariko**: *Charia de Sagarraga* (Soraluze, 1481, Elortza, 2000, 1, 59. Or.), *Charia de Goribar* (Oñ., 1489, Urkixo, 1912: 57), *Charia de Elgoybar* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 252. or.), «*Michelco fijo de Chariquo*» (Bera, 1366, LPN, 529), *Charico de Uhobil* (Oñ., 1502, Zu., 1999: 192), *Charia de Çuburti* (Elorrio, 1511, Enríquez et al., 1997, 149. or.), «*Maria Perez, su muger [...] Teresa e Charia, sus hijas*» (Mark., 1512, Enríquez, 1989, 45), *Charia* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179), *Chariaco Martinez de Amatiano* (= *Doña Maria*, Ber., 1548; Del Valle, 1933: 179). Goizuetako *Charienea* (XVIII. m.), *Charinea* (1726, XIX. m.) oikonomoaren oinarrian (Her., 1978: 81) *Txari* aldaera dagoela irudi luke, baina badaiteke, berebat, XVIII. mendean **Chariarena* izatea, herri bereko beste oikonomo batzuekin agitzen den eran (*Olajaundiarena* > *Olajaundinea* > *Olajaundinea* [Her., 1979: 79] > *Olájondi* egun). Hola izatera, jakina, *Txaria* genuke iturburuan.

– **Marina, Maringo** → **Txarin, Txarina, Txaringo**: «*Miguel e Marina, su muger, defunta, padre e madre de los dichos Juan e Charin*» (Ber., 187, Lema, 2007b, 16, 67. or.), *Charin de Garibay*, *Charin de Lanzaran* (Oñ., 1489, Urkixo, 1912: 57), «*Marina de Larriasoro [...] Charin, su sobrina*», *Charin de Elorça*, *Charin de Arriçruçe* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 254, 257 eta 258. or.), «*Charina el de Ybirriagua [...] la dicha Charina*» (Mutriku, 1504, Fdez. & Mont. & He., 2007, 57, 124-125. or.), *Charin* (= *Doña Marina*; Ber., 1552, Del Valle, 1933: 180), *Charingo* (ibid.).

– **Martie, Martin, Martino, Martina, Matxin** → **Txartie** (Pasaiaiko *Txartienenea* etxe izenean dagoke, 1867an, Elortegi, 1992: 173), **Txartin, Txer-**

tin, Txartiro (Txartero?), Txartina, Txatxin: *Chachin Urragui* (Arra., 1429, Crespo et al, 1996, 94, 95. or.), *Chartyn* (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 158. or.), *Chartin de Larrea* (Arra., 1475, Crespo et al., 1996-b, 228, 417. or.), *Chartin* (Leintz Gatzaga, 1477, Zu., 1994, 13, 89. or.), *Chartin* (Leintz ibarra, 1497, Le. & C. & La., 16, 18, 197. eta 207. or.), *Chartin Bazterbero* (ibid., 19, 218. or.), *Chachin de Ugartondo*, *Chartin de Çanartu*, *Chartin de Garibay*, *Chartin de Aguirre*, *Chartyn de Çubia*, *Chartin de Lancaran* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 247, 254, 256, 261 eta 266. or.), *Chartero de Huobil*, *Chartiro* (ibid., 254 eta 261. or. Ez dakit seguru *Martino*-ri ote dagozkion; *Chartico* gaizki irakurri bat ere izan daiteke, bigarrena bederik), *Pedro Chachin* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Chartin de Lequioda* (Oñ., 1502, Zu., 1999: 76 ≠ *Martiecho de Lequioda*, ibid.), *Chertyn de Vasaury* (ibid., 78), «*Chartina criada de Pascoal de Meçeta*» (Mutriku, 1506, Fdez. & Mont. & He., 2007, 66, 177. or.), *Chartin Lazcano* (Oñ., 1512, Zu., 1999: 140), *Chartin de Arriçuriaga* (ibid., 142), *Martin fijo de Chartin* (Betelu, 1520, J.p., 5), *Chachin* (Deba, 1525; Del Valle, 1934: 193). Arrasaten, 1476an (Crespo et al., 1996-b, 232, 467. or.) *Chartun de Uriburu* ageri da; segur aski hutsa dateke.

– **Martiko, Martiku, Martikot(e)** (*Marti* aldaeratik; cf. *Martiona*, *Martie ona*, Etxauri, 1521, J.p., 5) → **Txartiko, Matxiko, Matxiku, Matxikote:** *Machicote* (Sunbilla, 1366, LPN, 569), «*Chartico de artero e Johanco su cuñado*, *Johanto fijo de Johan de aroz*; *sus fijos choanco, choaneto, chartico*» (Betelu, 1520, J.p., 5).

– **Martin, Martingo, Martinko, Marti, Martiko, Matiko** → **Matxin, Matxingo, Matxinko, Matxi, Matxiko.** Hemen ez dakit tartean *Mattin*-en moduko bat egon den ala ez. Lekukotasunak: *Machin de Sent Per* (Donaz., 1353, Goih., 1966: 153), *Machin de Suscun* (Suh., 1353, ibid., 163), «*Machin, el capero*», *Machin Hindirguo* (Done., 1366, LPN, 529), *Machin d'Aoz*, *Machin de Bera* (1359, MD, 1971, 81), *Machi d'Ozte(t)* (Hozta, 1378, Goih., 1966: 219 = *Martin d'Ozte(t)*, *Machin d'Ozte(t)*, *Machico d'Ozte(t)*, *Machingo d'Ozte(t)*, ibid.), *Machi de Heugaburu* (Dg., 1378, ibid., 331), *Machi Baztan*, *Machin Baztan* (Dg., 1387, ibid., 327), *Machin de Leet* (Sara, 1395; ibid., 59), *Machingo de Suescun* (Suh., 1404, ibid., 164), «*Machin d'Ibierreta Rementerero*» (Erre., 1406, C. & C. & G., 1991, 27), *Machin de Çalba* (Iru., 1422, *Doc.Gasc.II*, 330), *Machin de Lara* (Araia, 1455, Po., 2001, 12, 33. or.), *Machin Gorra* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 247. or.), «... *a Machin de Yvayguren e a Machin de Çetoquis*» (Mark., 1471, Enríquez, 1989, 4), *Petri Machin* (Oiar.al., 1475, C. & C. & G., 1997, 62, 35. or.), *Machin*, *Machin de Laqueregui* (Leintz Gatzaga, 1477, Zu., 1994, 13, 89. or.), *Machin de Arriola* (Deba, 1482, Bar. & Her., 2006, 46, 71. or.), «*Machin de Aguirre e Machin de Masucariola*» (Legazpiko ibarra, 1483, Aierbe, 1993, 34, 121. or.), *Machin de Varroeta* (Mark., 1498, Enríquez, 1989, 29 = *Martin de Barroeta*, ibid.), *Machin lo vaccouer* (Biarritz, 1498, Goih., 1966: 25), «*Martin de Yturbe [...] Machin de Yturbe, mi fijo*» (Ber., 1510, Lema, 2007c, 57, 188. or.), *Machin de Adana* (Agurain, 1510, Lema, 2007b, 59, 197. or.), «*Juangui de Viayn*

e *Machin de Viayn*» (Oñ., 1512, Zu., 1999: 143), *Machin de drendiayn* (Geren-diaian Ultzama, 1536, At.p., 1, 42), *Matxin* (Lhande, 1926: 720).

– **Martina** → **Txartina**, **Txatina**, **Txartingo**: *Chartyngo* (Ber., 1503, Lema, 2007b, 28, 109. or.), *Chartina* (Mutriku, 1506, Fdez. & Mont. & He., 2007, 66, 179. or.), *Chatina de Arenaça* (Ond., 1511, Enríquez et al., 1987: 185). Cf. «*Martin de espinal dicho matina*» (Aup., 1606, Ue.p., 42).

– **Marta** → **Martxa**. Posibilitate bat besterik ez da, hots, ez da batere segurua, baina Aranoko *Marcha*, *Marchaco borda* (1726), *Martxá*, *Mártxako bórda* (egun) oikonimoetan *Marta*-ren izen ttipia egon liteke. Atzizkirik eza dela eta, cf. herri bereko *Perucho* (1726), *Péutxò* (egun).

– **Mederi**, **Meteri** → **Metxeri**: *Mecheri* (ikus Mitx., 1969: 19).

– **Migel**, **Migelko(xe)**, **Mikele**, **Mikel(ko)** → **Mitxel**, **Mitxele**, **Mitxelko**, **Mitxelkoxe**: «*Michel, sacristano*» (Villatuerta, 1350, LPN, 307), «*Michel, fillo de Miguel Sebastian*» (Buñuel, 1353, Uranga, 1961: 151), «*Michelco fijo de Chariquo*» (Bera, 1366, LPN, 529), *Michel Gorrtayrico* (Ari., 1366, LPN, 531), *Michel, Michel Esquerra* (Erre., 1406, C. & C. & G., 1991, 27), «*Michel, seynor de Çubiat*» (Ortzaize aldea, 1412-13, CPBN, 95. or.), *Michel* (Sen., 1415, Goih., 1966: 57; *Mixel* irakurri behar?), *Michel de Macuso*, *Michel de Çuasnabar*, *Michel de Altamira* (Oiar.al., 1474, C. & C. & G., 1997, 59, 25. or.), *Michel d'Eldoz*, *Michel Vorda* (Oiar.al., 1475, ibid., 62, 35. or.), *Michel cantero* (Deba, 1482, Bar. & Her., 2006, 46, 70. or.), *Michele Sarral* (Oiar.al., 1490, ibid., 81, 99. or.), *Michel Nabarro* (Bilbo, 1495, Enríquez et al., 1996, 85. or. = *Miguel Nabarro*, Bilbo, 1496, ibid., 113. or. = *Migel de Nabarra*, Bilbo, 1498, ibid., 132. or.), *Michel de Ybarra* (Oñ., 1502, Zu., 1999: 77), *Michel Urtaça* (Oñ., 1502, Zu., 1999: 79), *Michel de Ybarluçegoyena*, *Michel de Egoarre* (Amezketeta, 1519, Aierbe, 2006, 311, 335. or.), *Michel de Loydi* (Amezketeta edo Abaltzisketa, ibid., 314, 347. or.), *Michel de arrayz* (Arraitz-Orkin, 1537, At.p., 1, 22).

– **Mikeo** → **Mitxeo**: *Micheo de Yturbide* (Andoain, 1475, Le. & Ta., 1996, 19, 65. or.).

– **Nekolas**, **Mikolas** → **Txekolas**: *Checolas* (Del Valle, 1933: 181).

– **Osan(a)** → **Txosan**: *Chosan* (1507-1510, Ziortza, Enr. & Sar., 1989, 7, 22. or. = *Osana* [emakumea], ibid., 21. or.), *Chosan* (Ber., 1547; Del Valle, 1933: 179).

– **Otsoa**, **Otsando** → **Otxoa**, **Otxando**: *Ochoa Remiriz (retor) de Sagues* (Sagues, 1524, J.p., 5), *don Ochando* (Beriain-Subitza, 1379, Mar., 328). Kremer-ek dio (1995-96: 215) latineko *Lupus*-en ondorengoek bilakaera bana eduki dutela, izen arrunta izan (*lobo*) edo antroponimoa izan (*Lope*...). Pentsa liteke euskaraz ere izen arruntak (*otsoa*, *otsoko*, *otsando*) eta onomastikoak (*Otxoa*, *Otxoko*, *Otxando*) franko goiz bereizi zirela.

– **Peru**, **Peruko**, **Perute** → **Txeru**, **Txeruko**, **Txerute**: *Cheru de Elore-gui* (Arra., 1511; Le. & G., 1998: 89), *Cheru de Olaçabarren* (Zeg., 1516, Po., 2001, 43, 239. or.), *Cheru*, *Cheruco* (Aramaio, Del Valle, 1934: 192-193 eta NVP, 585. Ikus orobat Knörr, 1998: 223), «*Pero Ruis de Laris, dicho "Cherute"*»

(Ziortza, 1508, Enr. & Sar., 1989, 23, 245. or.), *Cherute* (ibid., 279. or.), *Cheru de Corta* (Legazpi, 1513, Aierbe, 2006, 290, 273-274. or.). Jose Lezamizen (1654-1708) *Vida del Apostol Santiago* liburuko Gabon kanta honetan ere ageri da *Txeru*: «Matxiniko / zer dio, Txeru? / Atzorik ona / ze barri dogu?» (Kaltzakorta, 1999: 135).

– **Petiri** → **Petxiri**. Ez da segurua, bakarrik Aranoko 1726ko *Pechiri* oikonimoan aurkitu dudalako, eta, bistan da, grafia horren azpian *Pettiri*-ren moduko bat egon daiteke.

– **Sante** (*Sante d'Echeuerria*, Lesaka aldean, 1366, LPN, 567) → **Txante**: *Chante d'Ayduri*, *Chante de Salduriz* (Bera aldean, 1366, LPN, 567).

– **Santso** → **Txantxo**: *Chancho Ylundain* (Altzorritz, 1796, Elo.p., 47, 171).

– **Urdin(a)** (*Hurdin*, Oñ., 1489, Ugarte, 1973: 369), **Urdintxo** → **Txurdin**, **Txurdina**, **Txurdintxo**: «*Churdincho yerno de Jobango*» (Les., 1423; Jiménez de Aberasturi, 1980: 393), *Churdin Aguirre* (Oñ., 1489, Urkixo, 1912: 57), *Churdin* (em., Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 249. or.), *Churdin de Herremiritegui* (ibid., 254), *Churdyn de Viluao* (em., Mark., 1507-1510, Enr. & Sar., 1989, 26, 331. or. = *Churdina*), *Churdina* (Mark., 1507-1510, Enr. & Sar., 1989, 26, 331. or. = *Churdyn de Viluao*), *Churdin de Ardança* (Mark., 1511, Enríquez et al., 1997, 173. or.), *Churdyn de Araxola* (Dur., d.g., Hid. et al., 1989c, 231, 1033. or.).

Irigoienek dioenez (1995: 25), Bilboko *Txurdinaga* (*Txurdinaga*) auzo izena ere *Txurdin*-etik atera da; *-aga* «toponimikoa» da atzizkia bizkaitar euskaltzainaren arabera. Cf., dena dela, mendebaldeko euskara egiten den alderdiko *Katalinaga* eta *Paskoalaga* (edo *Paskoalage*), *-(a)ga* atzizkiari eskainitako atalñoan. Etsainen *Churdinena*, *Churdiñena* azaltzen da 1640tik 1644ra (Ue.p., 40-41).

Oikonimian ere aurkitzen dugu *tz* > *tx* pausoa: *Churgincorena* (Ororbia, 1614, Jimeno, 1989: 308), *Marimochenea* (Azp., 1821, Ba.h., 1, 92, 65. Hau ez da segurua, *Marimotzeneana*-ren moduko baten transkripzioa izan daiteke-elako), *Arotx*, *Auntxaia* (Zaraitzun; Mitx., 1967: 167), *Lorentx* (Otsagabia, Arto-la, 2006: 226), *Arotx* (Garaioan orain; Camino, 1995: 88. 1774an *Arozarena* zen [Au.p., 37, 30] eta 1795ean *Arochena* [Oi.p., 78]), *Arótxan itxéà* (Goi.; arotzak izan dira eta oraindik ere hala dira). Orobat etxe izenetatik eratorritako izengoitietan: *Erratzenea* (etxea, Sunbilla) → *Errátxo*, *Komentzane* → *Komentxa* (Ezkurra, Peru., 1996: 158). Perurenak berak (1996: 165) biltzen duen *Beñes* leizarraren bertso batean *Joxe* “*Iantzi motza*”-ri *Iantxi* erraten zaiola ikusten da.

Zenbait aldiz ez dakit zein den oinarrian dagoen izena:

– **Gatxi**. 1705eko Gabon kanta batean ageri da: «Goazen gu ere, Petiri: / Pascoal ez dek agiri: / ardiak kontu dadukala / esan zeagot Gatxi'ri» (Kaltzakorta, 1999: 135). *Gartzi(a)*-ren izen ttipietako bat da?

- **Nitxin:** «*Nichin Martines Barrena, alcalde de la Hermandad de Segura*» (1516, Le. & G., 1998: 276).
- **Txabira** (*Albira?*): «*Chabira, fija de Lope Yvañes de Narvaxa*» (Agu-rain, 1510, Lema, 2007b, 59, 196. or.).
- **Txan** (*Joan?*): «*Chan de Ybarrondo, Chan de Landaburu*» (Aulesti, 1516-1520, Enr. & Hid. & Mar., 2006, 34, 382. or.). Cf. «*Chandaiteri, cantero*» eta «*Chandorregre*» (ibid.).
- **Txandra** (*Andrea?*; *andra* izen arrunta?): «*Chandra Uri*» (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 251. or.).
- **Txanen** (cf. *Sanet*): «*pieça de Chanen viejo vesino de Legarda*» (Aste-gieta, 1486, Enríquez & Sarriegui, 1986, 42).
- **Txanio:** «*Chanio de Çallain*» (Bera aldean; 1366, LPN, 567).
- **Txara, Txare:** «*La dicha Chare*» (em., Mark., 1471, Enríquez, 1989, 4, 30. or.), «*Chara Martin*» (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 250. or.). *Taresa-tik?* Cf. *Chareco*. *Txaria* 'Maria'-tik ere atera zitekeela pentsa liteke, artikulutzat hartu zatekeen –a kentzean (cf. *Mari, Malli*) *Txari* egin beharreak *Txare* atera zela kontu eginez gero. *Txara* azaltzeko *Txare-tik* abiatu behar genuke, kasu honetan (cf. *landare > landara*).
- **Txaran:** «*Charan de Gamboa*» (XV. m., LGS, 200).
- **Txasu:** «*Chasu de Sarasti, Chasu de Sarastitegui*» (Oiar.al., 1474, C. & C. & G., 1997, 59, 25. or.). Hau, segur aski, *Txatxu*-ren aldaeratzat hartu beharko dugu.
- **Txerio** (*Peri(o), Peiro?*): «*Cherio de Olaran*» (Zeg., 1516, Po., 2001, 43, 239. or.).
- **Txerraman:** «*Cherraman*» (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 261. or.).
- **Txetxona:** «*Ynesa e Chechona de Elorça*» (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 260. or.).
- **Txetu:** «*Chetu de Usarraga*» (Oñ., 1514, Zu., 1999: 162. *Cheru* gaiziki irakurria?).

7.1.1.2. [š] soinua duten hipokoristikoak

Mitxelena dio (FHV, 191) gipuzkerak, bizkaierak eta goi-nafarreraren zati handi batek soinu hau, hitz hasieran, aldaera adierazkorretan baizik ez du-tela (*xagu, xexen, xaxpiki...*), eta izengoitietan hagitz erabilia dela (*Xabala, Xari, Xento...*). Gehitzen du antzinako aldaera adierazkorra oinarritzko bilakatzen de-nean txistukari ez-bustia duen aldaerak balio handigarria, mespretxuzkoa har-tzen duela, eta iraingarritzat edo goitizentzat erabil daitekeela (*zakur, zerri, zin-gurri...*).

Sabaiaurreko igurzkariaren iturburuak historian zehar eta orain [š] eta [s] izan dira eta dira, ondoko datuetan ikus daitekeen bezala, baina beste orduz

[j] ere izan zitekeen. Iparraldean egun [š] dago euskaraz, frantsesez [ž] duten izenen ondorengoetan: *Xán* < *Jean*, *Xáne* < *Jeanne* (L, NB), [j] dutenen aldakan: *Jána* (Amü., Ami.).

Soinu sabaikariaren lehenbiziko lekukotasunak, irudi duenez, Hagenbacheko zilarrezko xafletan ageri diren *Xalinis*, *Xembus* eta *Xembesus* ditugu (Gorr., 2003: 34-35). Aurreneko biak *Salinis* eta *Sembus*-en aldaera bustiak dira, eta hirugarrena **Sembe*-tik atera datekeen **Xembe*-ren eratorritzat eman daiteke.

Irigoienek Guardiako *Pero Xona* (1350, LPN, 342) aipatzen du eta dio *Hona*, *Ona* (< *ona*) izenaren hipokoristikoa dela. Baliteke hau horrela izatea, baina *x-* ez da agertzen soinu protetikotzat euskal antroponimian, dakidanez; bai ordea, beste hizkuntzaren batean. Yucatanen, erraterako, maitasunezko [š] maia aurritzia erabiltzen da: *Clotilde* → *Xclot*, *Eleuteria* → *Xlut*, *Felipa* → *Xpil* (Boyd-Bowman, 1955: 363); Guatemala eta Ekuadorko eremu elebidunetan ere erabiltzen da sabaiko soinu hori, nahiz ez protesitzat: *Cecilia* → *Xixi*, *Inés* → *Nex* (ibid., 365).

Errusieraz soinu palatalak ardura agertzen dira izen laburtu eta ttipietan (Fokker, 1960: 269. or. eta hurr.): *Agrafena* → *Gruxa*, *Aleksandr* → *Saxura* → *Saxa*, *Aleksej* → (*A*)*loxa* eta *Ljosja*, *Anna* → *Anna* → *Anja*, *Njusja* eta *Njura*, *Elena* → *Lelja*, *Grigorij* → *Grixa*, *Jakov* → *Jaxa*, *Lev* → *Ljova*, *Ljudmila* → *Ljusja*, *Mar(i)ja* → *Maxa*, *Pjotr* → *Petja*, *Valentin* → *Valja*, *Varvara* → *Varja*, *Zachar* → *Charja*... Hipokoristiko atzizkiek ere, usu, soinu bustia dute beren baitan: *Fjodor* → *Fedoruxka*, *Saxura* → *Saxuretxka*, *Stepan* → *Stepanuxka*, *Tolja* → *Toletxka*, *Toljuxa*, *Toljuxetxka*, *Toljuxen'ka*...

Sabaiaurreko soinu bustia beste hizkuntza batzuetako bukaera eta atzizkietan ere aurkitzen dugu, bestelako berrekailu eta erabideen aldamenen, erraterako arabieran (Littmann, 1953), letonieran (Rūķe-Draviņa, 1960) eta xhoseran (Neethling, 1994 eta 2005. Ikus laugarren atala). Kitxuak eragindako Peruko alderdi bateko gaztelanian (E. Tovar, 1942) ohikoa da euskararenaren antza duen zenbait kontsonanteren bustitzea: *Asunción* → *Axuco*, *Axuca*; *Casimiro*, *Casimira* → *Caxi*, *Celia* → *Xela*, *Consuelo* → *Conxo*, *Ernesto* → *Nexo*, *Isolina* → *Ixu*, *Jacinto*, *Jacinta* → *Jaxi*, *Jose* → *Joxe*... Egia erran, palatalizatzea sabaiaurrekotik haratago doa lurralde honetan.

Palatalizazio mota honen bilakaera aztertzeke denboran aurkitzen dugun arazo larrietakoa dokumentazioko grafien oinarrian soinu bustia edo bes-telakoa zegoen jakitea da. Datuak ikusirik usu zalantza egiten dugu <ch>, <ss>, <s>-ren azpian sabaiaurreko igurzkarria dagoen edo *tx*, *s* dauden. Arazoaren erroa inguruko erdaren sistema ortografikoek euskarak berezko dituen soinu txistukari ugariak irudikatzeke eskuarterik aski ez edukitzean datza.

Hauek dira bildu ditudan lekukotasunak:

– **Adorazion** → **Adoraxon**: *Àdoraxón* (Eu.).

– **Agustin, Austin (Agustín, Augustin), Agustina, Austina** → **Aguxtin, Auxtin, Aguxtina, Aguxtiña, Auxtiña, Auxtina**: *Auxtíne* (Am.), *Áuxtín* (Aniz), *Auxtín* (Auza), *Auxtín, Auxtina* (Azp., Oronoz), *Agúxtin, Aúxtin, Agúxtiñà, Auxtiñà* (El.), *Áuxtín, Áuxtiñà* (Goi.), *Áuxtín* (Ig.), *Aúxtin, Aúxtiña* (Lab.), *Áuxtín* (Lei.), *Áuxtín Zamora* (Sen.), *Auxtina, Aguxtina* (Lezo aldean; Caminok [1997: 400] aipatzen du), *Auxtín Estecorena* (Sen., *He.*, 2004-VI-3, 4).

– **Alizia** → **Alix**: *Alíxi* (It.), *Alix* (Irazusta, 1994: 207).

– **Ana Josefa** → **Ana Joxepa**: *Ana Joxepa* (Lei., Peru., 1996: 152).

– **Anastasio, Anastasia** → **Anastaxio, Anaxtaxio, Anastaxia, Anaxtaxi**: *Ànastáxja, Ànastáxjo* (Am.), *Ànastáxi* (Luz.), *Ànaxtáxjo* (It.), *Anaxtaxio* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256).

– **Anbrosio, Anbrosia** → **Anbroxio, Anbroxo, Anbruxio, Anbrixio, Anbroxi**: *Anbrúxjo* (Bakaiku, Ea.), *Anbróxjo* (El., Osk. [Etxalekun bizi da]), *Anbróxo* (Eltz.), *Anbróxi* (Ig.), *Anbroxio* (Irazusta, 1994: 25), *Anbroxi, Anbroxio* (Lei., Peru., 1996: 10, 144), *Anbrixio* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 261), *Anbruxio Erdozia Beltza* (Ea., Erdozia, 2001: 38, 234). Zuberoan *Anbrósi* erraten diete, [z]-rekin, ofizialki *Ambroise* direnei.

– **Andres, Andresa** → **Andrex, Andresa**: *Ándrèx, Andrèxà* (Lei.), *Andrèx* (Ea., Ira.), *Andrex* (Ea., Erdozia, 2001: 21, 152), *Andrex* (Aranalde, 1999: 43).

– **Anizet (Anicet), Anizeto, Anizta** (< *Anizeta*) → **Anixet, Anixeto, Anixta**: *Aníxet* (Ami., Zub.), *Anixéto* (Auza, Ua.), *Aníxta* (Goi.).

– **Anselma, Anselmo** → **Anxelma, Anxelmo**: *Anxélma* (Lak.), *Anxelma* (Zaraitzun; Mitx., 1967: 167), *Anxelmo* (Bakaiku, Ondarra, 2005: 496).

– **Antonio Frantzisko** → **Antoniofraxku, Antoniopraxku**: *Antoniofraxku, Antoniopraxku* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256).

– **Añes** → **Añex**: *Añéx* (Luz.), *Añex Hazquet* (J. Camino, 2008: 13). Oieregiko 1727ko *Añassena* oikonimoaren oinarrian **Añax* aldaera dagoela dirudi, baina ez da segurua.

– **Arrosa, Errosa, Rosa** → **Arroxa, Erroxa, Roxa**: *Érroxà* (Lei.), *Róxa* (Am., Berroeta, Oitz), *Arróxa* (egun aski zabaldurik dago; ikus *Egunkaria*, 1999.4.4, 12), *Arroxa* (Uitzi, Peru., 1996: 137), *Arróxakòà* (Lakuntzako etxea).

– **Asentzio, Azentsio, Azentzio** → **Axentxio, Axintxio, Axintxo, Axintxi**: *Axéntxjo* (gi., Ea.), *Axéntxiò* (gi., Goi.), *Axíntxi* (em., Zeg.), *Axíntxo* (gi., Bere., Ea., Igoa, Lak.), *Axintxio Olaberrikoa, Axintxio* (Lei., Peru., 1996: 8, 67, 68, 164, 189).

– **Asier** → **Axier** → **Axi**: *Axièr* (Goi.), *Áxi* (Les.).

– **Asunzion** → **Axunxion, Axuntxon, Axun**: *Àxunxjón* (Am., Aniz), *Áxun* (Am., Arb., Ari., Arraitz, Arr., Les.), *Àxuntxón* (Auza, Eu.), *Áxùn* (Goi.), *Áxùn* (Lei.), *Axun* (Ea., Erdozia, 2001: 147), *Axun «Xardena»* (Goi., Peru., 1996: 10).

– **Atanasia** → **Atanaxi**: *Àtanáxi* (It.). Ez dakit Lintzoaingo *Atanaxena*-k (Ibarra, 2002: 494) honekin zerikusirik baduen.

– **Azentzio** → **Axentxio**: *Axéntxiò* (Goi.).

– **Basilio, Basilia** → **Baxilio, Baxilia, Baxili**: *Baxilja* (Am.), *Baxili* (Ara., El., Zug.), *Baxiljo* (Aniz, Eltz., El., Ig., Lak., Oderitz, Ua.). *Baxili* Pío Barojaren liburu batean ere ageri da (Knörr, 2002: 612).

– **Basiliko** → **Baxiliko**: *Baxilikò* (Lab.; aitatxi, franko gizon azkarra, *Baxiljo* da).

– **Bautista, Batista, Batiste** → **Bautixta, Batixta, Batixte**: *Batixta* (Ara., El., Ig., It., Lab., Les., Zug.), *Bautixta* (Lier.), *Batixta* (Barbier, 1987: 185; Zubiri, 1990: 75; Lafitte, 1982: 118), *Batichta* (Laphitz, 1986: 187, Moulrier, Piarres, 20), *Batixte*, *Batixte Zabaleta*, *Batixte Sukuntza*, *Batixte Txuri*, *Batixte Sagastibeltza* (Lei., Peru., 1996: 77, 87, 110, 161, 207), *Batixta Teillerie* (Itsasu, *He.*, 2003-X-9, 4).

– **Bisi(tazion)** → **Bixi**: *Bíxi* (Ea., El., Ihabar).

– **Bizente, Bizentiko, Bizenta** → **Bixente, Bixentiko, Bixenta**: *Bixénte* (Aniz, Ari.–Aritz., Auza, El., Ip. [*Vincent* berezko izenez], It., Sak., Zug.), *Bixénte*, *Bixénta* (Arr., Ea., Eu., Ig.), *Bixéntè* (Goi.), *Bixénte*, *Bixénta*, *Bixentíko* (Ig.), *Bixentè* (Lei.), *Bixentà* (Ereñotzu. *Bixèn* ere erraten diote emakume honi), *Bixénte*, *Bixentíko* (Oitz), *Bixentíko* (Urdazubi; Arruazun *Bizente* izenekoaren ilobari erraten diote *Bixentíko*, aitonaren antzekoa delako; bere izenez *Javier* da, orde), *Bixenta* (Bécas, Lafitte & Barbier, 1967: 149), *Bixente Usabiega*, *Bixenta Sobarrengoa*, *Bixente* (Lei., Peru., 1996: 9, 12, 158, 178), *Bixente Garro* (Aldatz, Peru., 1996: 220), *Don Bixente Hernandorena* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 195), *Bixenta* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 254), *Bixente Garzandía*, *Bixente*, *Bixente Gillen* (Ea., Sak., Erdozia, 2001: 21, 152, 328), *Bixente Arrieta* (Sara, *He.*, 2004-XI-4, 4). Zaraitzun ere *Bixente* dugu (Mitx., 1967: 167). Sail honetan Lapurdiko (Beskoitze, Ziburu) *Bixíntxo* gehitu beharra da, lehen etorkia latineko *Vincentiu*-n duena.

– **Bonifazia, Bonifazio** → **Bonifaxio** → **Faxio, Paxio, Paxi**: *Bòni-fáxjo* (Zug.; *Fáxjo* ere deitzen dute), *Páxi* (Goi.), *Paxio* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216).

– **Damaso** → **Damaxo**: *Dámaxo* (Err.), *Dámaxo*, *Damáxo* (Zug.).

– **Dionisia, Dionisio** → **Dionixia, Dionixi, Dionixio, Donixio**: *Djoníxjo* (Alkotz, Aniz), *Djoníxi*, *Djoníxjo*, *Doníxjo* (Am.), *Djoníxja* (= *Djóni*, Etxalarren; Arruazun ere bazen), *Diónixiò* (Goi.), *Djoníxi* (Ig.), *Djoníxjo*, *Doníxi* (It.), *Djoníxi* (Lab.), *Djoníxjo* (Urdiain), *Dionixio Agirre* (Ordizia, Peru., 1996: 222), *Dionixia* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256). *Doníxi* eta *Doníxjo*-n, ikusten den bezala, euskaraz arrunta den diptongoaren bakuntzea gertatu da.

– **Dolores** → **Dolorex, Doloex**: *Dolórex* (Ara., Eu., It.), *Dolórèx* (Goi.), *Dolórex*, *Dólòèx* (Lei.), *Dolorex Sagastibeltza*, *Dolorex*, *Doña Dolorex* (Lei., Peru., 1996: 11, 77, 162, 177, 206).

– **Dominik** (*Dominique*) → **Dominix** (gi.), **Dominixe** (gi.): *Dominixe* (Amü., L, Zub.; *Dominique* izen ofiziala dute), *Mendiriko Dominixe* (Karrrika, 1990: 22), *Dominixe* (Minaberri, 1998: 19), *Dominix* (Euskaltzaindia, 2001: 108, *Domiku* sarrera), *Dominix Hirigaray* (Luhuso, *He.*, 2003-XI-20, 5), *Dominixe Durruty* (gi., Aih., *He.*, 2003-XI-20, 5), *Dominixe Borda* (gi., Ma.-Le., *He.*, 2004-III-18, 4).

– **Eba(r)isto, Eba(r)ista** → **Eba(r)ixto, Ebaixta**: *Ebarixto* (Ig., Sak.), *Ebaixto* (Urdiain), *Ebarixto, Ebarixto Elduayen* (Lei., Peru., 1996: 121, 122), *Ebaixto* (Lizaso, 1998: 89), *Ebaixta* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 237), *Ebarixto* (Aranalde, 1999: 40).

– **Elisabet** → **Elixabet**: *Elixabét* (Arr., Berroeta, Ip.), *Elixabet* (Ip.; Dirassar, 1995: 118), *Elixabet Cremonesy* (Haz., *He.*, 2004-XI-4, 4). Zuberoan *Eli-sábet* erraten da, [z]-rekin.

– **Eloisa** → **Eloixa**: *Eloixa* (Ondarrolakoa; Luzaideko ABren gutunak).

– **Engrazia** → **Engraxi, Ingraxi**: *Engráxi* (Aniz, El., It., Larraun, Oitz), *Íngraxi* (Lei.), *Engraxi* (Peru., 1996: 23).

– **Enkarnazio** → **Enkarnaxion**: *Enkárna-xjon* (El.), *Enkarnaxjón* (Arruazu ingurukoa).

– **Errosalia** → **Erroxali**: *Erroxali Elizalde* (Peru., 1996: 116).

– **Errosario, Rosario** → **Erroxario, Roxario, Roxari**: *Roxárjo* (em., Aniz, Auza, Eu., Ig., Zug.), *Roxárjò* (gi.), *Roxári* (em.) (Goi.), *Roxári* (It.), *Erróxarjò* (Lei.). Pfo Barojak *Roxari* darabil liburu batean (Knörr, 2002: 616).

– **Espe** → **Expe**: *Éxpe* (Ig.), *Éxpè* (Lei.).

– **Esperantza** → **Espe(r)antxa, Esperantxita**: *Esperantxíta* (Auza), *Espeántxa* (Ig.), *Esperántxa* (It.).

– **Estanis(lao)** → **Extanix, Ixtanix**: *Extánix* (Auza, Lab.), *Ixtánix* (Goi.).

– **Esteban** → **Exteban, Extean, Extuan, Ixtuan**: *Extéban, Extéan* (Am.), *Extéban* (Aniz, Auza, Bere., Gartzaron, Ihaben, Ituren. Auzakoari *Extebaniko* ere erraten zioten; txiki xamarra zen), *Extében* (Ig.), *Extwán* (Eu.), *Ixtwán* (Ip.), *Exteban* (Lizaso, 1998: 154), *Ixtéban* (cf. *San Ixtéban*, Lizaso, 1998: 82, 85), *Exteban* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256), *Exteban* (Irañeta, Erdozia, 2004: 515). Ikus daitekeen bezala, *Extéan* aldaeran bokal arteko igurzkaria erori da; *Īxtwán*-en hori bera gertatu zen apika, baina azentu ondoko bokala galdu eta ezpainbiko igurzkaria bokaldu dela ere kontu egin daiteke.

– **Estebe, Istebe** → **Extebe, Ixtebe**: *Extébe* (ofizialki *Étienne* da; Iparralde osoan), *Ixtébe* (L); *Extebe* (HUA, 1972: 55), *Ixtebe* (HUD, 1992: 283).

– **Esteben** → **Exteben, Ixteben**: *Extében* (El.), *Ixteben* (Mitxelarenaren amaldeko aitaxi, Donibane Lohizunekoak. Ikus *EIG*, IX, 40), *Exteben* (Arano; Zubi. & Peru., 1998: 256).

– **Estebeni** → **Extebeni**: *Extébeni* (Gabadi), *Extebeni* (Luz., MAren gutun argitaragabeak), *Extebeni Mokokzain* (Duvoisin, 1987: 39).

– **Estefania** → **Extefania, Extefani, Extefana**: *Èxtefaní* (Goi.), *Extéfana Irastortza* (Hendaia), *Extefania* (Luzaideko MAren gutunetan).

– **Ester** → **Exter**: *Extér* (Auza, Eu.).

– **Eusebio, Eusebia, Usebio, Usebia** → **Euxebi, Uxebi, Euxabi, Euxebio, Uxebio**: *Euxébi, Uxébi, Euxébjø, Uxébjø* (Am.), *Euxébjø* (Aniz, Arb.), *Euxébjø* (Auza, Ilarr.), *Euxébjø, Uxébjø* (El., Lab.), *Euxábi* (Goi.), *Uxébi* (Ig.) *Euxébjø, Euxébi* (It.), *Euxébi* (Lak.), *Euxebio* (Lei., Peru., 1996: 177, 210), *Euxebio Markotegi* (Ea., Erdozia, 2001: 21, 38, 263).

– **Eustakio, Eustakia, Ustakio** → **Euxtakio, Euxtaki, Uxtakio, Oxtakio**: *Uxtákjo* (El.), *Euxtákjò, Euxtákì* (Goi.), *Euxtákja* (Ig.), *Euxtákjo, Euxtákì* (It.), *Èuxtákjò, Èuxtákì* (Lei.), *Euxtákjo* (Lizaso), *Oxtakion Itxea* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 202).

– **Faustin, Faustino** → **Fauxtin, Fauxtino**: *Fauxtíno* (Eltz.), *Fáuxtin Bentaberri* (Garazikoa), *Fauxtin* (Karrika, 1990: 26; Ain. & Etx., 2002: 176).

– **Felis, Felisa** → **Felix, Felixa, Felixi**: *Félix* (Am., Ara., Ari., Arr., Atharratze, Berroeta, Bere.), *Félix* (Am., Eltz., El., Zug.), *Félix, Felixa* (Auza), *Félix, Felixà* (Goi.), *Felixi* (Oitz), *Félix* (gi.), *Felixi* (em.) (Pasaia), *Felix* (Sak.er., Erdozia, 2001: 153), *Joakin Felix* (Garoa, 213. or.), *Felix* (Luzaideko MAren gutunak), *Felix Deskarga, Felixa, Felix* (Lei., Peru., 1996: 8, 45), *Felix Narvarte, Felixa* (Goi., Arano; Zubi. & Peru., 1998: 191, 264).

– **Feliziano, Feliziana** → **Felixiano, Felixana, Felixi, Felixano**: *Felixi* (Ara.), *Felixjáno* (Auza), *Felixána* (Berastegi), *Felixána, Felixjáno* (It.), *Xerorenbordako Felixiana, Felixiana, Xeroren Felixiana, Felixiano* (Lei., Peru., 1996: 108, 178).

– **Felizidad, Felizi (Félicie)** → **Felixi**: *Felixi* (Haz., Ig., It.), *Felixi* (Haz., He., 2004-VII-1, 4).

– **Franzisko, Frantzisko, Franziska, Frantziska, Françoise** → **Franxiko, Frantxixku, Fantxixko, Frantxixka, Franxixa, Frantxix**: *Frantxíxko, Frantxíxke* (Am.), *Frantxíxko, Frantxíxko, Frantxíxka, Frantxíxka* (Auza), *Frantxíxko* (Eu., It.), *Frantxíxku, Frantxíxka* (Ig.), *Frantxíxko* (It.), *Frantxíxko, Frantxíxka* (Lab.), *Frántxixkà, Frántxixkè, Frántxixkò* (Lei.), *Frantxíxka* (Lier.), *Frantxíxa, Fantxíxko* (Luz.), *Frantxíxko* (Zug.), *Franxixa* (Sat., 1981: 344). *Frantxixko Arriola, Frantxixka serora* (Garraldakoa; K. Barboten gutuna), *Frantxixka Irungoa[ri]* (Irigarai, 1971: 243), *Frantxix* (Duny-Pétre, 1966: 60), *Frantchichko* (Moulier, Piarres, 17), *Frantxixko* (Larre, 2001: 11), *Frantxixko Lapitz* (He., 2005-I-6, 1).

– **Gaizka** → **Gaixka**: *Gáixka* (El., Etxauri).

– **Garazi** → **Garaxi**: *Garáxi* (Etxalar, Lak., Zug.), *Gáraxi* (Lei.).

– **Gaspar** → **Gaxpar**: *Gaxpar de Yasi* (Galdakao, 1514, Enríquez et al., 1997, 1514, 1. or.), *Gaxpár* (Erbiti, Goi., Ig.).

– **Gazuza (Gracieuse)** → **Gaxux, Gaxuxa, Gaxusa**: *Gaxúx, Gaxúxa* (Ip., Luz. Ikus Sat., 1961: 215), *Gaxúxa* (Amü.), *Gaxúsa* ([z]-z ebakia, Zub.), *Gaxuxa* (Etxepare, 1985: 292; Zubiri, 1990: 32; Barbier, 1987: 63; Lafitte,

1982: 117; Landart, 1978: 81; Etxarren, 1985: 183; Larzabal, 1991: 93; Mina-berri, 1998: 19), *Gaxuxa Arrabit* (Lasa, *He.*, 2004-III-11, 5), *Gaxuxa Peyroutet* (Behauze, *He.*, 2004-XII-30, 7). Antsuberroren arrebetako bat ere *Gaxuxa* zen, nahiz eta paperetan *Marie Louise* ekarria izan, Xarrittonek dioenez (Saint-Pierre, 1998, X). Knörrek erraten du (2002b: 143) *Gaxuxa* lortzeko *Gracieuse*-ren **Garaziusa* anaptisidun aldaera izan behar zuela tartean, eta ustekari honen lagungarritako, Zuberoako herri literaturako *Graziusa* aipatzen du.

– **Gertrudis** → **Ketruxa**: *Ketrúxa* (Ea.).

– **Grazian** (*Gratien*) → **Geraxan, Geaxan, Gehexan, Graxien, Gaxien, Gaxen, Gaxan**: *Gexán* (Garazi), *Gaxán*, *Geaxán* (Luz.), *Geaxán*, *Gehexán* (NB), *Gexán Alfaro* (Urepele), *Gachien* (Barbier, 1926: 34), «*Graxien Setoain, Luzaide-Arnegi Bitorianoenekoa*» (Larre, 2001: 133. Luzaiden –hemen sortua eta bizitua baita– *Grazján* erraten diote), «*Graxien Heguy Ortaiz Iroxxgarraikoa*» (ibid., 308), *Geexan* (ibid., 94), *Gehexan* (Etxarren, 1985: 169), *Gachen* (Heleta, *He.*, 2004-VII-22), *Graxien Bordarrampe* (Iholdi, *He.*, 2004-XI-11, 5), *Graxana Perissans* (Donoztiri, *He.*, 2004-XII-2, 5), *Graxana Etchelet* (Jutsi, *He.*, 2005-X-13, 5). Satrustegiren arabera (1961: 216), *Geraxán* ere ohikoa da Iparraldean, *Geaxán* ez ezik.

– **Grazia** (*Engrace, Engracia, Gracieuse*) → **Graxia, Garaxi, Graxi, Graxito, Xaxi**: *Graxi de Arrayz* (Arraitz, 1549, At.p., 1, 84), *Xáxi* (Altzai, Larrabile; izen ofizialtzat *Engrace* dute emazteki hauek), *Gráxi* (Hozta), *Graxia* (Luzaideko MAren gutunak), *Graxi Arotçarena* (Donamartiri, *He.*, 2003-XI-27, 5), *Graxi Marisco* (Bi., *He.*, 2004-XI-25, 5). Lhandek hiztegi ezagunaren hasieran (1926) «Graxi Lhande, ene amañi zenaren oharmentxetan, erakatsi zeitadalakoz haurrian Jinkuaren othoizten üskaraz» eskaintza dakar, frantsesezko «À la mémoire de feu ma grand'mère Gracieuse Lhande, qui m'apprit, dans l'enfance, à prier Dieu en basque»-ren aitzinetik; Duhauk (2003: 407) Azkaingo *Graxi Solorzano* izan zuen laguntzaile.

– **Graziana, Graziane, Gerezina, Gehazina, Gezina** → **Graxiana, Graxiane, Geraxane, Gerexina, Geexina, Gexina, Geaxia, Gehaxina, Graxiena, Gaxine**: *Graxiana de yribarren* (Zuaztoi, Azp., 1525, Eo.p., 1, 135), *Gaxíne* (Ami., L, Mithiriña), *Graxjána* (Berroeta, NB, Zub.), *Gerexína*, *Gexína* (Luzaiden *Graziana* direnei *Gexina* erraten diete; ikus Sat., 1961: 215). *Graxiana*, Xarrittonek dioenez (Etxepare, 1988: 207, 2. oin-oharra), Etxepare medikuaren arreba zen; *Geaxia Eyberart* (Eihalarre, *He.*, 2004-II-25, 5), *Marttaeneko Geexina* (Bi., *He.*, 2005-X-6, 5), *Graxiana Vivier* (Ortazaize, *He.*, 2005-IX-22, 5), *Graxiana Harreguy* (Izturitze, *He.*, 2006-VIII-31, 5), *Graxiane Bidart* (Iholdi, *He.*, 2006-X-19, 5), *Geraxane Iriberrikoa* (Duvoisin, 1987: 29), *Gexina* (Zubiri, 1990: 75, 236; Barbier, 1987: 97), *Gexahina* (Etxamendi, 1988: 44, 72), *Graxiena* (Larre, 2001: 23). Igariko 1726ko *Grajinarena*-ren oinarrian *Grazian(a)*-ren hipokoristikoa den *Graxian(a)* dagoke.

– **Graziano** → **Graxiano**: *Graxjáno* (It.).

– **Inazio (Ignacio, Ignace), Inazia** → **Inaxio, Inaxia, Inaxi, Iñaxio, Iñaxi, Ixio, Axio**: *Ináxjo* (Am., Arr., Eltz., It., Lar., Oitz, Sak., Zub., Zug.), *Iñáxjo* (Arr., Ig.), *Ináxjo*, *Ináxi* (Auza), *Ináxi* (Dorrao), *Iñáxi*, *Iñáxjo* (El.), *Ináxja* (Eu.), *Iñáxi*, *Iñáxiò* (Goi.), *Ináxjò* (Lei.), *Iníxjo* (Sak.), *Áxjo* (Sak.), *Ixio* (*Garoa*, 99. or.), *Mainaxi* (Larzabal, 1991: 101), *Inaxi Astibia Lasarte*, *Inaxio*, *Mitxelaundiko Inaxio*, *Aliñegoiko Inaxi* (Lei., Peru., 1996: 7, 142, 170, 177, 221), *Inaxi*, *Urriztiko Inaxio*, *Iñaxio* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 191, 217, 218), *Iñaxio* (Aranalde, 1999: 40); Zaraitzun ere *Inaxio* dugu (Mítx., 1967: 167). Knörrek (2002: 613) Pío Barojaren liburu batean ageri den *Iñachi* izena *Inatxi* arautzen du eta azaltzen *Ignacia*-ren hipokoristikoa dela, *Iñaxi* baino gutiagotan agertzen dena; lan berean (610. or.) erraten du idazle ospetsua zenak *sh* eta *sch* ibiltzen dituela euskal *x* irudikatzeke. Nire ustez badaiteke aipaturikako *Iñachi* egungo grafiarekin *Iñaxi* idatzi behar izatea, ez *Iñatxi*.

– **Inesita** → **Inexita**: *Inexita* (Arruazun txikitan horrela deitzen zioten *Inés* izena zuen bati. Etxaleku; ez da erabat segurua).

– **Inozentzio, Inozentzia** → **Inoxentxio, Iñoxentxio, Iñoxentxia**: *Iñoxéntxja* (Aniz), *Inoxéntxjo* (Azp.), *Iñóxentxiò*, *Iñóxintxò* (Goi.).

– **Isabel, Isabela** → **Ixabel, Ixabela**: *Isabél* (Am., Aniz, Auza, Eu., L), *Ixábel* (El., Ig., It., Oitz), *Ixábèl* (Goi.), *Íxabèl* (It., Lei.), *Ixabéla* (L, Zub.), *Ixabel* (Barbier, 1987: 89), *Ixabel* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 251), *Ixabel Xarritton* (Seaskako presidentea, *He.*, 2004-X-28, 3, *Berria*, 2004-XI-16, 18). Lhandek (1926: 559) *Ixabel* ‘Isabelle’ Iparralde osoko izentzat ematen du.

– **Isaak, Isak** → **Ixaak, Ixak**: *Ixaák* (Arr.), *Ixák* (Am., Aniz, Goi.).

– **Isidoro, Isidora** → **Ixidoro, Xidoro, Ixidora**: *Ixidóro* (Arruazu, El., Ig.), *Ixidóra* (Gartzaron-Auza, Zug.), *Xidóro* (Ara.), *Ixidora Lasa Elso* (Lier., Erdozia, 2001: 39).

– **Isidro, Isidra, Isidrito, Isidrita** → **Ixidro, Xidro, Ixidrito, Ixidrita**: *Ixidro* (Aniz, Azp., Eltz., El., Ilarr., It., Oitz, Suarbe, Ua., Zug.), *Ixidra* (Lak.), *Ixidró*, *Ixidritò*, *Ixidrità* (Lei.), *Ixidro* (Irazusta, 1994: 22). Lizarraga Ergoienean *Ixidróna* izeneko etxea dago (Erdozia, 2001: 206). Salaburuk (1984: 78) *Isidro*-ren aldaerak-edo diren *Zidro* eta *Xidro* aipatzen ditu.

– **Izaskun** → **Ixaxkun**: *Ixáxkun* (Aniz, Auza, Ig.).

– **Iziar** → **Ixiar**: *Ixiár* (Aniz, Arr., Auza), *Ixiàr* (Goi.).

– **Jazinto, Jazinta** → **Jaxinto, Jaxinta, Kaxinto, Kaxinta**: *Jaxínto* (Aniz, El., Lab., Luz., Urdiain), *Kaxínto* (Auza, Bere., Ea., Lizarragabengoa), *Jaxíntò*, *Jaxíntà* (Goi.), *Jáxintò*, *Káxintò* (Lei.), *Kaxinto* (Ul. eta Sak.er., Ibarra, 1995: 318 eta Erdozia, 2001: 169), *Kaxinta* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256).

– **Jesus, Jesusa** → **Jexux, Kexux, Jexuxa**: *Jexúx*, *Jexúxa* (Am., lehenaren aita *Jezúz* zen; El.), *Jexúx* (Aniz, Auza, It., Lab.), *Jexúx*, *Jexúxa* (Arr.), *Jexúxa* (Eu.), *Jexúx* (Ig., Sak.), *Jexúx*, *Kexúx* (Lei.), *Jexux* (Ul. eta Sak.er., Ibarra, 1995: 318 eta Erdozia, 2001: 153). Aranon *Jexux Leonet*, *Jexux* dugu eta Goizuetan *Jexux Etxegia* (Zubi. & Peru., 1998: 13, 253).

– **Jesusmari** → **Jexuxmari**: *Jexuxmári* (Arr., Auza), *Jexúxmari* (El.).

– **Joan Jose, Juan Jose → Joanjoxe, Joankoxe, Kankoxe, Juangoxe, Juanjoxe:** *Jwángoxè* (Goi.), *Jwanjóxe* (Aniz), *Jwanjoxé* (Ig., It., Lak.), *Jwánjoxe* (Oitz), *Jwánjóxe* (Urdiain), *Johan Coixe* (Luz., 1428. Sat., 1961: 213. Herri honetan, XIX. mendean, «cancosei paratia» dugu, arotzaren kontu liburuan, Sat., 1969: 170. Ikus *Kankoxe*), «*Juan Jose Echeberria Cancosche*» (Luz., 1847, ibid.), *Joanjoxe Kanflanka*, *Joanjoxe Zestau* (Lei., Peru., 1996: 9, 13, 124), *Joanjoxe* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 251).

– **Joanes, Juanes, Joanis, Juanis → Ganex, Guanix, Ganix, Manex, Mañex, Manix, Mañix:** *Mañé IgáRtekwà* (Gamue), *Ganix* (L), *Mañex*, *Mañéx* (Luz., Garazi), *Aniz'ko Ganix* 'Juan el de Aniz' (Ormaetxea, 1976: 152), *Ganich* (Barbier, 1926: 18), *Guanix* (Otsobi, 1992: 55), *Ganix* (Lhande, 1926: 332; Lapurdikoa dela dio eta *Jean* erran nahi duela. Barbier, 1987: 137; Larzabal, 1991: 71), *Makeako Ganix* (Larre, 2001: 120), *Ganix Larzabal* (Sara, *He.*, 2004-XI-11, 4), *Ganix* (Eiheralarre, *He.*, 2005-X-6, 5), *Manex Tristan* (Bi.), *Manex Xilibolost* (Arnegikoa) (Azkue, urterik gabe, 34. or.), *Manech* (Bécas, Lafitte & Barbier, 1967: 163), *Manex* (Etxepare, 1980 [1910]: 110; Lhande, 1926: 711, 'Jean'; HUA, 1972: 49 (13), Zubiri, 1990: 236, Ormaetxea, 1976: 177, 267; Otsobi, 1992: 23, P. Iturralde [P. Lafitte] 1982: 65, Xalbador, 1976: 30, Karrika, 1990: 174, Dirassar, 1995: 20, Arbelbide, 2003: 87), *Ganex* (Mitx., 1956: 346), *Mañex* (HUA, 1971: 163; Otsobi, 1992: 25; Larre, 2001: 220; Ain. & Etx., 2002: 177), *Mañix* (Larre, 2001: 11), *Mañe garaztarra* (Arbelbide, 2003: 89), *Manex Hounçarren* (Heleta, *He.*, 2004-1-29, 5), *Manex Bellecave* (Haz., *He.*, 2004-XI-4, 4), *Manex Gabarrain* (Haz., *He.*, 2006-VI-8, 4).

Lafittek 1972an *Mañex Etchamendy bertsularia (1873-1960)* izeneko liburua eman zuen argitara; Euskal Herriko Hizkuntza Atlaseko Arnegiko informatzailea *Manix Idiart* izan da. Cf., gainera, «*don Arnaldo el Coxo et Manes*» (1198, Mont., 220. Irudi duenez Euskal Herritik kanpokoa zen). *Manex* Gerendiain Erroibarko egungo oikonimoa ere bada (Ibarra, 2002: 499). P. Larzabalen antzezlan batean (1991: 11) *Ganixon* da pertsonaietako bat; Pío Barojak *Ganix* eta *Manix* darabiltza bere bi eleberritan (Knörr, 2002: 613, 615). Mitxelenaren arabera *Joanes*, *Juanis* → *Ganix* → *Manix* izan da bilakaera. Ikus NVP, 416. Zuberoako Basabürüan *Junés* erraten da, [ž]-z; Pettarrean, berriz, *Juanés* da izena, soinu ahostun berarekin emana.

– **Joanes, Juanes, Juanis → Joanex, Juanex, Juanix, Fanex, Fanix:** *Fánex Iriartékoa*, *Fánix*, *Joánex*, *Joanex Iriartekoa*, *Juanix Iriarte* (Aezkoan, Camino, 1997: 194, 322, 546, 549), *Jwánèx* (Lei.).

– **Jose, Josef, Josefa, Josepita → Joxe, Koxe, Oxe, Joxepe, Joxepa, Joxepi, Joxepita, Joxi, Koxpi, Oxepa, Oxepita:** *Joxépa* (Altsasu, Izagirre, 1967: 61), *Joxé*, *Jóxe*, *Joxépa* (Am.), *Joxé* (Aniz), *Kóxpa* edo *Kóxpi* (Ari., pertsona bera), *Joxé*, *Joxépa* (Arr., Auza, Eu.), *Joxéfa*, *Kóxpa* (Azp.), *Jóxè* (Ea., Sak.er.), *Jóxi* (Ea.),

(13) Hiriart-Urrutik berak, zenbaitetan bederen, *Manex* izenaz sinatzen zuen. Ikus Hiriart-Urruti (1994: 261-262) eta Saint-Pierre (1998, XI).

Joxé, Koxé, Joxépa, Jòxepità, Joxépi (El.), *Oxé, Oxépà, Oxépità* (Goi.), *Joxépa, Joxépità* (Ig.), *Joxé, Joxépa* (It.) *Joxé, Joxépa, Joxépità* (Lab.), *Joxé, Koxé, Jòxepà, Óxepà, Jòxepità, Óxepità* (Lei.), *Joxépe* (Luz.), *Joxepíta* (Oitz), *Joxépa* (Urdiain), *Jóxe* (Zug.).

Joxe, Joxepa (Mezkiritz, Saragueta, 1979: 29. Autore honek «anitz *Joxe* baze herrian» dakar), *Joxe* (Sak.er., Erdozia, 2001: 191, Leazkue, Camino, 2003: 93), *Iturraldeko Joxe* (*Garoa*, 64. or.), *Pello Joxepe* (kantu baten izena da; Azkue, urterik gabe, 21. or.), *Joxepa* (Loidi, 1968: 20), *Oxe* (Arbelbide, 1986: 7, 13), *Koxe* (M. Etxamendi, Lafitte, 1972: 243; E. Etxamendi, 1988: 99; Aih., *He.*, 2004-VIII-12, 5), *Joxe Aranburu, Joxe Gaztañaga, Joxe Perurena, Joxepa, Joxe Zabaleta, Joxepa, Joxe, Esalakorteko Joxe, Joxepa, Joxepa Rekondo, Joxe Astibia «Benitona»* (Lei., Peru., 1996: 7, 9, 10, 11, 12, 34, 49, 128, 134, 138, 139, 184, 238), *Koxe Garazi, Koxe Darvunt* (Azkaine, Peru., 1996: 65, 66), *Joxepa Lekuona, Oxepa* (Lizaso, 1998: 73, 74), *Oxe Aranburu, Oxepa* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216, 218), *Joxepa, Joxe Aola* (Arano, ibid., 250, 251), *Koxe Arozena* (*He.*, 2004-X-28, 4), *Koxe Gonzalez* (Sara, *He.*, 2005-3-24, 4). Pío Barojak *Joxepe* darabil bere liburu batean (Knörr, 2002: 614). Zuberoan kanpotiarrak diren *José* izenekoei *Kosé* erraten diete; bestela *Júsef*ibiltzen dute. Ez dakit Labaiengo egungo *Joxépeténia* oikonimoaren oinarrian xuxen zer dagoen, baina irudi luke puntut honetan ikusi ditugun izenetako bat dagoela.

– **Jose Agustín** → **Joxeauxtin**: *Joxeáuxtin* (Ara.).

– **Jose Anjel** → **Joxanjel**: *Joxánjel* (Arr., Ea., Eu., Sak.er.).

– **Jose Antonio** → **Joxe Antonio, Joxantonio, Joxentonio, Joxan, Oxantonio, Oxentonio, Oxenton**: *Joxantónjo* (Arr., Auza, Eltz., Eu.), *Jóxan* (Arr., aipatu dudán *Joxantónjo* bera; EA, Sak.er.), *Oxéntòn, Oxéntoniò* (Goi.), *Joxantonio Sukuntza, Joxantonio, Joxantonio Apezetxea Zabaleta, Joxantonio Bordaberri, Oxantonio «Burruntzalina»* (Lei., Peru., 1996: 12, 43, 54, 120, 143, 155, 193), *Joxentonio Alduntzinbordakoa* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 191), *Joxentonio* (Arano, ibid., 249).

– **Jose Bernardo** → **Joxe Bernardo**: *Joxe Bernardo* (Zubi. & Peru., 1998: 214).

– **Jose Fermin** → **Joxefermin, Joxefermiñ, Joxepillin**: *Jòxefermín* (Auza, Eu.), *Joxéfermín* (It., Oitz), *Joxépillìn* (Lei.), *Joxe Fermin Rekondo, Joxe Fermiñ* (Lei., Peru., 1996: 11, 120, 146).

– **Jose Inazio** → **Joxe Inaxio**: *Joxe Inaxio Lopenekua* (Peru., 1996: 203).

– **Jose Joakin** → **Joxejuakin, Joxuakin, Joxakin, Joxakiñ, Oxejuakiñ, Oxokin**: *Joxwákin* (Aniz), *Joxé Jwákin* (Ig.), *Jóxejwákin, Oxókin* (It.), *Jòxejwákin* (Lizaso), *Joxakin Arribillaga Perurena, Sorobarrengo Joxakin Sukuntza, Joxakin Otermin Betrenekoa, Joxakin Ozparrungoa, Joxakin Kaskantakoa, Joxakin* (Lei., Peru., 1996: 7, 31, 60, 96, 132, 138), *Joxe Joakin* (ibid., 132, 201), *Joxakiñ* (ibid., 204), *Joxakin Loyarte* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 226), *Oxejoakiñ* (Arano, ibid., 247).

– **Jose Juan** → **Oxejuan**: *Oxejuan* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 247).

– **Jose Julian** → **Joxejulian**: *Joxejulian* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 250).

– **Jose Luis** → **Joxeluix, Oxeluix**: *Jòxelwìx* (Arr., Auza), *Joxélwìx* (Ea.), *Oxeluix* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216), *Joxe Luix* (Furundarena, 2002: 20).

– **Jose Manuel** → **Joxemanuel**: *Jòxemanwél* (Eu., Ua.), *Joxemanuel* *Arribillaga*, *Joxe Manuel Zabaleta*, *Joxemanuel Bordaberri* (Peru., 1996: 7, 13, 31, 118, 134, 156, 182), *Joxemanuel* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 254).

– **Jose Mari** → **Joxemari, Joxemai, Oxemari, Oxemiri**: *Jòxemàri* (Aniz, Arr.), *Oxémari*, *Oxémiri* (Goi.), *Joxémari* (Ig., Oitz), *Joxémari*, *Jòxemàri* (It.), *Jòxemàri* (Auza, Eu., Sak.; Imozkoari gazteek *Txéma* erraten diote), *Joxemari amerikanoa*, *Joxemari Perurena*, *Joxemari Razkin*, *Olasoko Joxemari Aleman*, *Joxemari Berasategi*, *Joxemari Sagastibeltza*, *Joxemari Peru*, *Eztebeneko Joxemari «Burruntzali»*, *Joxemari Saralegi* (Lei., Peru., 1996: 8, 10, 11, 31, 45, 46, 120, 121, 133), *Oxemari Txanikenekoa* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216), *Joxemari*, *Joxemai* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 221, 247, 250).

– **Jose Martin** → **Joxemartin, Joxemartiñ, Joxematiñ**: *Jòxemartín* (Lak.), *Joxe Martin*, *Joxe Martin Zabaleta*, *Joxemartin*, *Astaitzako Joxematiñ* (Lei., Peru., 1996: 8, 12, 67, 165, Era., ibid., 117), *Joxe Martin Albarrazin* (Ea., Erdozia, 2001: 21), *Joxemartiñ* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 250).

– **Jose Migel** → **Joxemigel, Joxemiel, Joxemi, Oxemiel**: *Joxémièl* (Ara., Ig.), *Joxémi* (Ari.), *Jòxemièl* (Arr., Eu.), *Jòxemigél* (Auza, Ea., Sak.er.), *Oxémièl* (Goi.), *Joxemiel Arregi*, *Joxemiel Zabaleta*, *Azpiko Errotako Joxemiel*, *Joxe Miel «Landa»*, *Joxemiel Arraras*, *Joxemiel*, *Joxemiel Landa* (Lei., Peru., 1996: 7, 12, 60, 110, 126, 132, 134, 147, 158, 184, 208), *Joxemiel* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 263).

– **Jose Ramon, Joserra** → **Joxerramon, Oxerramon, Joxerra**: *Joxérra* (Ara., Ea.), *Jòxerramón* (Arr., Auza, Eu.), *Joxerramon Perurena*, *Joxerramon Abadena*, *Joxerramon*, *Joxe Ramon* (Lei., Peru., 1996: 10, 89, 130, 147, 177), *Oxerramon* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216).

– **Josefa Antonia** → **Joxepa Antoni, Joxepa Anttoni, Joxepantoni, Joxepanttoni, Koxpantoni, Oxepantoni, Oxepanttoni**: *Joxépantóni*, *Kóxpantóni* (emakume bera zen, 1903an Erratzun sortua), *Oxépantoni* (Goi.), *Joxepanttoni*, *Joxepa Anttoni*, *Joxepa Antoni* (Lei., Peru., 1996: 132, 161), *Oxepanttoni* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 219).

– **Josefa Inazia** → **Joxepa Inaxi, Joxepa Iñaxi, Joxepinazi, Oxepiñaxi**: *Oxépiñaxi* (Goi.), *Joxepinazi* (Lei., Peru., 1996: 177), *Joxepa Inaxi* (Lizaso, 1998: 94). Pío Barojak *Joxepa Iñaxi* darabil liburu batean (Knörr, 2002: 614).

– **Josefa Mikaela** → **Joxepa Mikela**: *Joxépa Mikéla* (Eu.).

– **Josefina** → **Joxefina, Joxepina, Joxepiña**: *Jòxefína* (Arr.), *Joxépiña* (Astigarraga), *Joxéfinà* (Goi.), *Joxépinà* (Lei.), *Martikoneko Joxefina* (Lei., Peru., 1996: 147).

– **Juan Bautista** → **Juan Batixte**: *Juan Batixte Tolatsenekoa* (Lei., Peru., 1996: 197).

- **Juan Isidro** → **Fanixidro**: *Fanixidro* (Burundan, Zuazo, 1994: 320).
- **Juana Josefa** → **Joana Joxepa**: *Joana Joxepa* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 174).
- **Justin** → **Juxtin**: *Juxtin Gorostiaga* (Ezkurra, Peru., 1996: 119).
- **Justino, Justina** → **Juxtino, Juxtina**: *Juxtino, Juxtina* (Eltz.), *Juxtino* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 255).
- **Justo, Justa** → **Juxto, Juxta**: *Juxto, Juxta* (Am., El.), *Juxto* (Aniz, Ara., Ig., Oitz), *Juxta* (Eltz., Zug.), *Juxtò, Juxtà* (Goi., Lei.), *Juxto* (Irañeta, Erdozia, 2004: 515).
- **Kalisto** → **Kalixto**: *Kalixto* (Arr., Berroeta), *Kalixtò* (Goi.), *Kalixto* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 181), *Kalixto, Kalixto Garziandia* (Garziandia, 2004: 32, 72). P. Larzabalen lan batean *Kalixtro* da pertsonaietako bat (1991: 20).
- **Karlos** → **Karlox, Kalox**: *Kálox* (Arr.), *Kárlox* (Eltz., El.).
- **Kasiano** → **Kaxiano, Kaxano**: *Kaxiano* (kantari eta soinu jotzailea zena), *Kaxano* (Ul.; Ibarra, 1995: 318).
- **Kasildo, Kasilda** → **Kaxildo, Kaxilda**: *Kaxildà* (Goi.), *Kaxilde* (Ari.), *Kaxildo* (Ihaben), *Kaxilda* (It.), *Kaxilda* (Irazusta, 1994: 26). Pío Barojak ere badarabil hipokoristikoko hau (Knörr, 2002: 614).
- **Kasimiro** → **Kaximiro**: *Kaximiro* (Goi.), *Kaximiro* (Lakuntzako etxea).
- **Kontxesi** → **Kontxexi**: *Kontxéxi* (El.).
- **Konzeption** → **Konxixion, Kontxexion**: *Konxixjón* (Aniz), *Kon-txexjón* (Arr.).
- **Kosme** → **Koxme**: *Kóxme* (Ara.), *Kóxmé* (Goi.).
- **Kostantino** → **Koxtantino**: *Koxtántinò* (Goi., Ig.).
- **Kristobal** → **Krixtobal, Krixtuel**: *Krixtóbal* (Arr., Igoa), *Krixtóbal* (Goi.), *Krixtwél* (Lier.).
- **Lazaro, Lazara** → **Laxaro, Laxara**: *Láxaro* (Eltz., It., Les., Lier., Luz., Zug.), *Láxarò* (Goi., Lei.), *Láxara* (Eu.), *Laxaro* (Etxamendi, 1988: 163), *Laxaro Perurena, Aiarrako Laxaro* (Goi., Peru., 1996: 10, 42, 173, Zubi. & Peru., 1998: 182), *Laxaro* (Abaurrea, Camino, 1997, 267), *Laxaro Azkune* (Aranalde, 1999: 148). *Laxaro* Gerendiain Erroibarko egungo etxea ere bada (Ibarra, 2002: 499).
- **Luis, Luisa, Louise** → **Luix, Luixa**: *Lwix, Lwíxa* (Am., Auza), *Lwíxa* (Amü., Zub.), *Lwix* (Goi., It., Les.), *Lwíxa* (Err., Ig., Urdiain), *Lwixà* (Lei.), *Luixa* (Barbier, 1987: 65; Larzabal, 1991: 93), *Luixa* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 257), *Luix* (Sak.er., Erdozia, 2001: 153), *Luixa Daguerre* (Sen., *He.*, 2003-X-9, 4), *Luixa* (Sara, *He.*, 2004-XI-4, 4).
- **Luisito, Luisita** → **Luixito, Luixita**: *Lwixító* (Arr., Auza, Ig.), *Lwíxitò, Lwíxità* (Lei.), *Lwixító* (Sal.)
- **Luis mari** → **Luix mari**: *Lwixmári* (Am., Ig., It., Urnieta).
- **Lukas** → **Lukax**: *Lúkax* (Arb., Ea., Lak.), *Lukax Dorronsoro* (Aranalde, 1999: 70).

– **Luziano, Luziana** → **Luxiano, Luxiana**: *Luxiàno, Luxiàna* (Goi.), *Luxjána* (It.), *Lúxjanò* (Lei.), *Luxjáno* (El., Ig., Urd.), *Luxiano Zarauztarra* (Peru., 1996: 208), *Luxiano* (Lizaso, 1998: 132).

– **Luzio, Luzia** → **Luxio, Luxia, Lüxia, Luxi, Lüxi**: *Luxía* (Am., Ea., Eu.), *Lúxi* (Amü., Zub.), *Lúxjo* (El., Ua.), *Lúxi* (It.), *Lúxià* (Lei.), *Lüxia* (Zub.), *Luxi* (Irazusta, 1994: 249), *Luxio* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 257), *Luxi Laralde* (Sara, *He.*, 2004-XI-11, 4), *Luxi* (Sen., *He.*, 2005-I-13, 4).

– **Maria Asuntzion** → **Maxuntxon**: *Máxuntxón* (Lei.).

– **Maria Inazia** → **Maiñaxi**: *Maiñaxi* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 254).

– **Maria Isabel** → **Marixabel, Maixabel, Maxabel**: *Maxabél* (Arr.), *Marixabél* (It.), *Maixabel* (Ul.; Ibarra, 1995: 318), *Marixabel*, *Marixabel Lasarte* (Lei., Peru., 1996: 10, 202, 220).

– **Maria Jesus** → **Marijexux, Maijexus, Marixux, Maixux, Makexux, Maxux**: *Maixúx*, *Marjáxux* (Aniz), *Mariájexúx*, *Makexúx*, *Maxúx* (Arr.), *Máixùx* (Ereñotzu, Goi.), *Marijéxúx* (It.), *Mákexùx*, *Máxùx* (Lei.), *Maríxux*, *Máixux* (Les.), *Maxúx* (Oitz), *Maijexus* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 191).

– **Maria Josefa** → **Mariajoxepa, Marijoxe**: *Màrjajoxépa* (Auza), *Marijóxe* (Oitz).

– **Maria Luisa, Marie Louise** → **Marialuixa, Mailuixa, Mailuxa, Mailux, Maluxa, Mailüsa**: *Mailwíxa*, *Mailúxa* (Ami., Amü.), *Màrjalwíxa* (Auza, Err., Ig., It.), *Mailüsa* ([z]-z ebakia, Zub.), *Maluxa* (Burunda, Zuazo, 1994: 315), *Maria Luixa* (Lizaso, 1998: 55), *Mari Luixa* (Trekü, 1982: 15), *Mailux Ahadoberry* (Larre, 2001: 109), *Mailuxa Peyrelongue “Kanttoinea”* (Bes., Duhau, 2003: 407), *Laxalde Mailux* (Baigorri, *He.*, 2004-X-28, 5), *Mailux Arteta* (Baigorri, *He.*, 2004-XII-2, 5).

– **Maria Paz** → **Papax**: *Papáx* (Dona.).

– **Maria Rosa** → **Mari Roxa**: *Maríroxà* (Ig.).

– **Maria Soledad** → **Marisol** → **Marixol, Maixol**: *Màrixól* (Auza, Oitz), *Maixól* (Eu.).

– **Maria Teresa, Marie Thérèse** → **Mariaterexa, Mariterexa, Maitexa, Matexa**: *Maitéxa* (Behauze; Uhartehirikoa da), *Matéxa* (Aniz), *Mari Terexa* (Trekü, 1982: 15), *Maria Terexa* (Ortzaize, Arrosagarai, 1983: 130), *Maitexa Aphessette* (Dg., *He.*, 2004-VI-17, 5), *Maitexa Mailharro* (Izura-Azme, *He.*, 2004-VIII-5, 5), *Maitexa Teillierie* (Itsasu, *He.*, 2004-XI-11, 4).

– **Marisa** → **Marixa, Maixa**: *Maríxa*, *Matxa* (Aniz), *Máixà* (Lei.). Bustidura txistukariaren aurreko bokalardiari ere zor lekiok e hemen.

– **Marisol** → **Marixol, Maixol**: *Máixól* (Goi.), *Màrixól* (It.), *Maríxól* (Err.), *Marixol* (Aranalde, 1999: 55). Hemen ere palatalizatzea, kasuren batean, aurreko bokal sabaikariari zor dakiok e.

– **Markos** → **Markox**: *Márkox* (Arb., El., Ig.), *Màrkòx* (Lei.), *Markox* (Sak.er., Erdozia, 2001: 153).

– **Martin Jose** → **Martinkoxe, Martioxe, Martin Joxepe**: *Martin Coche* (Bécas; Lafitte & Barbier, 1967: 155), *Abadebordako Martioxe, Martioxe*

Tolarekoa, Atsotitako Martioxe (Peru., 1996: 8, 23, 148), *Martin Joxepe* (Joan Mari Lekuonaren amaren bertso batzuetan ageri da, Zubirik eta Perurenak bil-tzen dutenez, 1998: 179).

– **Masimina** → **Maximina**: *Maximina* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 219). Kontu grafiko hutsa izan daiteke oraingoa, *Maximina* baita erdarazko ize-na, baina *Felix* eta *Maximo*, *Maxi* bezala, palatalizaturik ere egon daiteke, eta hola delakoan sartu dut.

– **Masimo, Masi** → **Maximo, Maxi**: *Máximo* (El., Lier.), *Máxi* (Iru.).

– **Matias** → **Matiex**: *Mátjex* (Ea.).

– **Maurizio, Maurizia** → **Maurixio, Maurixi**: *Maurixi* (Ara.), *Mau-rixio* (E. Etxamendi, 1988: 17).

– **Merzedes** → **Merxedex**: *Merxedex* (Luzaideko MAren gutunetan ageri da).

– **Migel Jose(pe)** → **Mieljoxe, Miel Joxepe**: *Miéljoxé* (Arr., Eu.), *Miel Joxepe* (Lei., Peru., 1996: 52).

– **Modesto, Modesta** → **Modexto, Moexto, Modexta, Moexta**: *Mo-déxto* (Am., Eltz.), *Moéxto* (Aniz), *Modexta* (Lei., Peru., 1996: 166), *Modexta, Moexta* (emakume bera, Arano, Zubi. & Peru., 1998: 262).

– **Nikolas, Mikolas** → **Nikolax, Mikolax, Nikolex**: *Nikoláx* (Am., Ari., Auza), *Nikólex* (El.), *Nikolàx, Mikolàx* (Lei.). Lintzoainen *Nikolaxenia* oi-konimoa dago (Ibarra, 2002: 494).

– **Oskar** → **Oxkar**: *Óxkar* (Am., Aniz, Lab., Oitz).

– **Paskal** → **Paxkal**: *Paxkál* (Arnegi), *Paxkal* (Barbier, 1987: 52; Etxarren, 1985: 170; Larre, 2001: 181), *Paxkal Duhau* (Bes., Duhau, 2003: 407), *Paxkal Indo* (*He.*, 2003-XI-13, 1), *Paxkal Elgart* (Gabadi, *He.*, 2004-VII-22, 3), *Paxkal Mouxaut* (*Haz.*, *He.*, 2004-VIII-12, 4), *Paxkal Vourgoin* (*He.*, 2004-X-28, 3), *Paxkal Ibarrola* (Bi., *He.*, 2004-XI-25, 5).

– **Paskalin** → **Paxkalin**: *Paxkalin* (Luz.), *Paxkalin* (Duny-Pétre, 1966: 56; Larre, 2001: 23).

– **Paskasia** → **Paskaxi**: *Paskaxi* (Pío Barojak darabil, Knörr, 2002: 616).

– **Paskual, Paskuala** → **Paxkual, Paxkuala, Paxuela, Paxku**: *Páxku* (Am., Lab.), *Paxkwál, Paxkwála* (Auza, Eu.), *Paxkwál* (Eltz., El., Ig., Irur., Les.), *Paxkuál* (Otsagabia, Artola, 2003: 400), *Paxkual* (Lizaso, 1998: 52), *Paxkuela Dominazpikua* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 259). Mezkitritzen *Paxkualeña* oiko-nimoa dago (Ibarra, 2002: 500).

– **Pazita** → **Paxita**: *Paxita* (Eu.).

– **Pedro Jose** → **Pedrojoxe, Pellojoxe**: *Pellojoxe, Obillosko Pedrojoxe Ariztimuño* (Lei., Peru., 1996: 18, 35).

– **Piarres** → **Piarrex**: *Piarrex* (Zubiri, 1990: 66; Otsobi, 1992: 268-269; Karrika, 1990: 184).

– **Plazido, Plazida** → **Plaxido, Plaxida**: *Pláxido* (Bere.), *Plaxida Intchauspe* (Nafarroa Behereko Azkarate, *He.*, 2003-X-9, 5).

– **Presentazion, Presen** → **Prexentazion, Prexen**: *Préxen* (Aniz, El., Luz., Zug.), *Prexéntazjòn* (El.; *Préxen* ere erraten zaio).

– **Resu** → **Rexu**: *Réxu* (El., Ig., Ira., It., Oitz), *Réxù* (Goi., Lei.).

– **Rosa** → **Roxa**: *Róxa* (Les.).

– **Sa(l)badi(n)(a)** → **Xabadin, Xalbadi**: *Xabadín, Xalbadí* (Haz.), *Xabadín* (Luz.). *Sabine, Sabina* bide da; ikus Satrustegi (1961: 219) eta Euskaltzaindia (2001: 311). Ikus *-in, -ino, -ina* atzizkiari eskainitako atalñoan diodana eta cf. hurrengo sarrera eta *Salbat* → *Xalbat*.

– **Sabino, Sabina, Sabine** → **Xabino, Xabi, Xabina**: *Xabíno* (Bere., Sak.er.), *Xabína* (El.), *Xábi* (em., Sak.er.), *Xabina* (Izturitze, *He.*, 2003-XI-20, 5). Lhandek dio (1926: 1027) *Xabina* izena *Sabine*-ren baliokidea dela; Pío Barojaren liburu batean *Xabino* ageri da (Knörr, 2002: 618).

– **Salbador** → **Xalbador**: *Xalbadór* (Aniz, Arb., Azp., Done., Eltz., Zug.), *Xalbádor* (El., Ig., Sak.), *Xalbadòr* (Goi.), *Xalbador* (Oitz), *Xalbador* (Otsobi, 1992: 26; Etxarren, 1985: 170; Dirassar, 1995: 85), *Xalbador Etxarte* (Lizaso, 1998: 52). Lhandek (1926: 1029) *Xalbador* eta *Xalbat* izenak *Sauveur*-en kidetako ematen ditu.

– **Salbat** → **Xalbat**: *Xalbat* (*Sauveur* berezko izenez; ikus *Xobur, Xó-bür*; Gamue, Sen., L, NB), *Xalbat* (Etxepare, 1985: 268; 1996: 65; Larzabal, 1991: 183; Dirassar, 1995: 117, Arbelbide, 1986: 38, Larre, 2001: 255), *Xalbat Arotzarena* (Xarrittonek aipatzen du; Saint-Pierre, 1998, XIII), *Xalbat Elissetche* (Bi., *He.*, 2003-X-9, 5), *Xalbat Arhancet* (Heleta, *He.*, 2004-II-19, 5), *Xalbat Leizagoyen* (Sara, *He.*, 2004-XI-11, 4), *Xalbat Arbelbide* (*He.*, 2004-XII-2, 1), *Xalbat Martinon* (*He.*, 2006-VIII-31, 6).

– **Santiago, Santi** → **Xantiago, Xanti**: *Xantjágo* (Am., It.), *Xánti* (Am., Aniz, Arr., Auza, Done., Ig., It., Lab., Oitz, Sak.; lehen herrikoari *Zánti* ere erraten diote), *Xantío* (Ara., Les.), *Xantí, Xantiò* (Goi.), *Xántiò* (Lei.), *Xanti Sestorain* (Lei., Peru., 1996: 175), *Leontxonbordako Xanti* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 221). *Xanti* Pío Barojaren liburu ezagun baten pertsonaia da.

– **Santos** → **Santux, Xantux**: *Xántux* (El., It., Lab., Les., Sunbilla), *Xántux* (Goi.), *Santux* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 252). Lakuntzan bada *Xántux, Xántuxenà* izeneko etxea.

– **Saturnino, Saturdino, Saturdina** → **Xaturnino, Xaturdino, Xaturdiñe**: *Xaturdino* (Bere.), *Xatúrdino* (El., It.), *Xatúrdinò* (Goi.), *Xaturnino* (Treku, 1981: 71), *Xaturdiñe* (Lei., Peru., 1996: 166). Cf. Moretek biltzen duen *Iaundone Satordi* ‘San Cerni(n)’, ‘San Saturnino’ (14), eta Inbuluzketako *Joandone Zattordio* hagiotoponimoa (Ue.p, 41).

(14) Honela dio: «... aquella parte de la ciudad –de las tres en que de muy antiguo estaba dividida– en que está su templo, se llama Burgo de San Saturnino y goza también los primeros honores de la república, y fue ennoblecida de los reyes con singulares privilegios. Llámánle los naturales en su lengua vasconica *Iaundone Satordi*, que suena el señor Santo Saturnino, y con singular afecto y devoción Pamplona le venera por su patrón [...]», *Anales*, I, 63.

– **Sauveur** → **Xobur, Xobür**: *Xóbür* (Ami., Zub.), *Xobur Martinon* (Aih., He., 2005-X-13, 5). *Ikus Salbat* → *Xalbat*. Lhandek (1926: 1048) *Xobür* «Sauveur, prénom» dakar.

– **Sebastian, Sebastien, Sebas, Sebastiana** → **Sebaxtian, Xebastian, Xebaxtian, Xeaxtian, Xaaixtian, Xaastian, Xaaxtian, Xaaxtin, Xaixtian, Xastian, Xebastian, Xebaxtien, Xebas, Xebaxtiana**: *Xebastján* (Am., Auza), *Xebáxtjan* (El.), *Xebástjàn*, *Xebáxtjana* (Goi.), *Xébas*, *Xebástjàn*, *Xebáxtjana* (Ig.), *Xebástjan* (It.), *Xeáxtjàn* (Lei.), *Xàaxtín* (Lakuntzako mutil gaztea; aita *Seastján* da. Aintzat har bertako ermita eta patroia *Sàn Xaaxtín* dela), *Xastian Lesaka*, *Xastian*, *Xabastian* (Ormaetxea, 1976: 320, 324, 325), *Xaixtian*, *Oseba Xaaixtian* (Etxamendi, 1988: 39, 80), *Xaastian* (ibid., 104), *Xebastian*, *Sebaxtian* (Lei., Peru., 1996: 172, 198), *Xeaxtian* (Aizarna - Arano, Zubi. & Peru., 1998: 253), *Xebastien Gonzalez* (pilotaria, He., 2003-X-9, 7), *Xebaxtien* (Ezterenzubi, He., 2005-I-13, 5), *Xebaxtian Ihidoy* (He., 2005-IV-28, 1)

– **Seberiano, Seberiana, Sebe** → **Xeberiano, Xeberiana, Xebe**: *Xébe* (em., Eltz., Urritzola Ultzama), *Xébe*, *Xeberjána* (Oitz; emakume bera da), *Xeberiano* (Peru., 1996: 165).

– **Seberino, Seberina** → **Xeberino, Xebeino, Xebeino, Xibirin, Xebeina**: *Xeberino*, *Xebéino* (El.), *Xebéino*, *Xebéino*, *Xebéina* (Goi.), *Xeberino* (Ig., Urd.), *Xibirin* (Lei.), *Xebeino* (Peru., 1996: 174, Zubi. & Peru., 1998: 216, 226). Lhanderen arabera (1926: 1048) Lapurdiko *Xobadin* frantseseko *Séverine* izenaren baliokidea da.

– **Sebero** → **Xebero**: *Xebéro* (Ig., Urd.), *Xebero* (Lizaso, 1998: 25).

– **Segis** → **Xegis**: *Xégis* (El.).

– **Segundo, Segunda** → **Xegundo, Xeundo, Xegunda, Xeunda, Xunda**: *Xegúnda* (Altsasu, Irun), *Xegúndo* (Auza, It., Lak., Sak.), *Xe(g)úndò*, *Xe(g)úndà* (Goi.), *Xunda* (Ul.; Ibarra, 1995: 318), *Xeundo* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 263), *Xegundo Mozo Luch* (Unanu, Erdozia, 2001: 39). Pío Barojak *Xegundo* darabil liburu batean (Knörr, 2002: 618).

– **Segundino** → **Xegundino, Xeundino**: *Xegúndinò*, *Xeúndinò* (Goi.).

– **Serafin, Serafina** → **Xerafin, Xerafina**: *Xerafina* edo *Xeráfina* (El.), *Xeráfin*, *Xeráfina* (Goi.), *Xerafina* (Hirigarai, 1998: 17).

– **Serapio, Serapia** → **Xerapio, Xeapia, Xerapi**: *Xerápjo* (Eltz., Lier.), *Xerápjo*, *Xerápi* (Goi.), *Xerápjo*, *Xerápi* (It.), *Xéapjà* (Lei.), *Xerápi* (Oitz), *Xerapio Aundie*, *Joxe Xerapiona* (Lei., Peru., 1996: 121, 168), *Xerapio* (Abaurrea, Camino, 1997: 271), *Xerapio* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 219).

– **Silberio, Silberia** → **Xilberio, Xilberi**: *Xilbérijò* (Goi.), *Xilberi* (Pío Barojak darabil; Knörr, 2002: 618).

– **Silbia** → **Xilbia**: *Xilbja* (Zug.).

– **Silbina** → **Xilbina**: *Xilbínà* (Goi.).

– **Simeon** → **Ximeon**: *Ximeón* (Ig.).

– **Simon, Simona** → **Ximon, Ximun, Ximona**: *Ximon* (Olague, 1366, LPN, 533), *Ximon de Arandia* (Dur., 1443, Hid. et al., 1989, 8, 36. or.),

Ximon de Alviz (Leintz Gatzaga, 1515, Le. & C. & La., 31, 387. or.), *Ximóna* (Aniz, Eu., Ilarr.), *Ximón* (Arr., Auza, Goi., Ira., It., Oitz, Sal.), *Ximón* (eta *Zimón*; biek lagun bera adierazten dute, Azp.), *Ximón*, *Ximóna* (Ea.), *Ximón*, *Ximóna* (Lei.), *Ximun Dubour* (Larre, 2001: 133), *Ximun Zubikoa* (Iparraldeko bertsolaria, *He.*, 2003-X-9,5), *Ximun Haran* (*He.*, 2004-III-11,1), *Ximun Oxarango* (Ma.-Le., *He.*, 2004-XI-18, 4), *Ximun Etcheverry* (Aih., *He.*, 2004-XII-30, 5). Lhandek (1926: 1041) Lapurdiko *Ximun* izena jasotzen du eta frantseseko *Simon*-en kidetako ematen. Ukarren *Chimonena* etxea zegoen 1727an; Elgorriagan *Ximonenea* dago orain (Iñigo, 1996: 494).

– **Sinforosa** → **Xinpoxa**: *Xinpoxa* (Goi.).

– **Sobadin** → **Xobadin**, **Xobadina**: Lhandek (1926: 1048) *Xobadin* izena *Séverine*-ren baliokidetzat hartzen du. *Xobadina* ere bada (Barbier, 1987: 158, 162). Cf. *Xabadin*.

– **Sofia** → **Xofia**, **Xofi**: *Xofia* (Eltz., Ig.), *Xófi* (Biarritz).

– **Sole** → **Xole**: *Xóle* (Ara., Arraitz, Arr., El., Lar., Urroz), *Xólè* (Goi.).

– **Sonia** → **Xoni**: *Xóni* (Zug.).

– **Sorkun(de)** → **Xorkun**: *Xòrkún* (Lei.).

– **Telesforo** → **Telexforo**: *Telexfóro* (Ari.).

– **Teresa** → **Terexa**, **Tehexa**, **Teexa**: *Teréxa* (Am., Eu., It., Oitz; Imozkoa ez da gututz segurua), *Teréxa* (Goi.), *Téexà* (Lei.), *Terexa* (Amorotzeko letra, 1970; Etxamendi, 1988: 60; Irazusta, 1994: 25; Lizaso, 1998: 55), *Teexa* (Etxamendi, 1988: 78), *Terexa Lekunberri* (*He.*, 2004-I-29, 1), *Terexa Borda* (Ma.-Le., *He.*, 2004-III-18, 4), *Tehexa Alduntzin* (Sara, *He.*, 2004-XI-11, 4). Azpirozko 1726ko *Ataragena* oikonimoak *Ataresa* aldaeratik ateratako **Atarexa*, **Ataraxa* duke oinarrian.

– **Tomas**, **Tomasa**, **Tomasito** → **Tomax**, **Tomaxa**, **Tomaxito**: *Tomáx* (Am., Aniz, Ara., Auza, El., It., Lab., Lei.), *Tomaxito* (Arr.), *Tomáx*, *Tomáxa* (Ig.), *Tomáxa* (Lak., Unanu), *Tomax Aldaro* (Ormaetxea, 1976: 208), *Tomax Pagodi* (Loidi, 1968: 86), *Tomaxa Elizalde*, *Tomax Barun*, *Tomax* (Era., Peru., 1996: 117, 184), *Tomaxa* (Hirigarai, 1998: 17), *Tomax Urdaniz*, *Tomax Xapaterona* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 207-208), *Tomaxa* (Arano, ibid., 254). Pío Barojak *Tomaxa* darabil liburu batean (Knörr, 2002: 617).

– **Tristan** → **Trixtan**: «*Trixtan Elizagaraiako eta Mari Gilendegikoen bosgarren horren ixtorio miresgarria!*» (Karrika, 1990: 182).

– **Ursula** → **Urxula**: *Úrxula* (Luz.).

– **Xarles** → **Xarlex**: *Xarlex Uhalde* (Iholdi, *He.*, 2005-III-24, 5).

– **Zeledonia** → **Xeledoni**: *Xeledóni* (Hondarribia; herri honetako toponimia jasotzen duen liburuaren aurkezpenean egileari, J. J. Furundarenari, aditutako izena; irudi duenez berriemaitzat izan zuen delako emazteki hori). Knörr irakasleak dio (2002: 618) Pío Barojaren liburu batean ageri den *Xele* forma *Celedonia*-tik atera dela.

– **Zelestino**, **Zelex** → **Zelextino**, **Xelextino**, **Xele**: *Zelextino* (Aniz, Ari.), *Xelextino* (El.), *Xéle* (El., Sak.er.), *Xeléxtinò*, *Xélè* (Goi.).

- **Zesario** → **Xixario**: *Xixárjo* (It.).
- **Zezilio, Zezilia, Zezil** → **Xexilio, Xixilio, Xexilia, Zexili, Xixili, Xexila, Xexil**: *Xixíli* (Am., Ara.), *Xixíljo* (Berastegi), *Xexili* (Exalar), *Xixiliò, Xixilì* (Goi.), *Xéxiljà, Xixilì, Xixiljò* (Lei.), *Xexila, Zexilí* (em., Zub.), *Xixili Perurena, Xixili Narbarte, Olajaundiko Xixilio* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 13, 202; em.), *Xexil Etchart* (em., Aih., He., 2005-I-13, 5).
- **Zipriano, Zipri, Ziprien** → **Xipriano, Xipri, Xiprien**: *Xiprjáno, Xípri* (El.), *Xípri* (Goi.), *Xípri* (Madotz), *Xiprien Partarrieu* (Haz., He., 2004-I-29, 4), *Xípri Arbelbide* (Nafarroa Behereko idazlea).
- **Ziril** → **Xiril**: *Xiril Alvarez* (Bes., He., 2004-VII-22, 3).
- **Zumar** → **Xumar**: *Xumár* (Goi.).

Dokumentazioan ondoko hauek opatu ditut:

- **Azari** → **Axari**: *Asary, Axary, Axiari* (Garazi, 1189, Goih., 1966: 169).
- **Azeariko** → **Axeariko**: *Axearico* (Orbaizeta, 1366, LPN, 474). Ikus Irigoien (1995e).
- **Azubele** → **Axubele**: *Domino Axubele in Sancti Martini* (1068, Leire, 84).
- **Basko** → **Baxko**: *Baxko*. Orpustanek dio (2000: 205) *Pascal*-en forma gaskoia den *Pascoau* Erdi Aroan urria izan dela, baina boladan egon dela azken denboretan, *Baxko* itxurarekin. Nik uste dut *Basko* ere har daitekeela *Baxko* horren iturburutzat (cf. *Basco d'Aysa*, Iru., 1343, Barr., 152 edo *Juan Basco de Çubia*, Lekeitio, 1511, Enríquez et al., 1997, 196. or.). Dauzatek (1988 [1949]: 161) izen etnikoen artean sartzen ditu *Basq, Bascou* eta hauen *Bascoulés* «txikigarria», *Aragon, Breton, Catalan, Navarre* eta besterekin batean.
- **Garzia, Gasia, Garze, Garzi** → **Gaxia, Gaxie, Gaxi**: *Gayssia Arnalt* (1269, DNLO, 55), *Gaissia d'Ustia*, (Uztaritze, 1311, Goih., 1966: 74), *Gassie de larrenduche* (Gixune, 1340, ibid., 36), *Gaxia Fuert* (Zan., 1363 eta 1367, Jimeno, 1973: 269 eta 271), *Gachia* (Iru., 1366, LPN, 547), *Gassie de Salaberrye* (Ilharre, 1412-13, CPBN, 82. or.), *Gassie d'Ithurrosco* (Sarasketa, 1412-13, ibid., 101). Cf. *Gassernaut* (Altzümarta, 1412-1413, CPBN, 82. or.). Goihenetxek (1991: 302) *Gassia, Guaxi, Gaxia* biltzen ditu Iparraldean Erdi Aroan.

Zierbideren arabera (1994: 62) *Gassie* aldaera *Garsea* / *Garcia*-ren bilakaera gaskoiaren fruitu da, eta Orpustanen iritzian (2000: 210) *Gassie Garcia*-ren aldaera «fonetikoki erromanizatua» dugu. Badirudi bi ikertzaileok hizpidean daudela eta izan ere horrela dela: cf. *Arnaut Gassie* (Izpura, 1381, Goih., 1966: 137) = *Arnalt Gassie* (ibid., 1385, 1387) = *Arnaut Gaxie* (ibid., 1389) = *Arnaut Garcia* (ibid., 1392). Beraz, hipokoristikoko baten aitzinean ez, baizik erdal bilakaeraren aitzinean gaudeke hemen. Irigoienek (1995: 25), ordea, *Gachia* eta *Gaxia* dokumentatuak *Garcia, Gartzia, Gasia* (< *Garzia*, ikertzaile honen irudiko) formen aldaera palatalizatu adierazkortzat hartzen ditu. Irtenbidea bi iritzia ontzat hartzea dateke, alegia, batzuetan (*Gassie, Gaxie*) aldaera erdaldun-

duaren aitzinean gaudela kontu egitea, eta beste batzuetan euskarazko aldaera sabaikaritu adierazkorraren aitzinean garella (*Gachia*, *Gaxia*). Noiz bata eta noiz bestea bereiztean dago koska.

– **Gizon** («*Item Guiçon, peyllitero*», Eiheralarre, CPBN, 71. or.; «*Hojer, el punnalero [...] Guiçon, su entenado*», Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 197. or.) → **Gixon**: *Guixon* (Ip., Goih., 1991: 301. Lan berean, 304, izengoitizat hartzen du), *Guisson Mulatero* (Saragueta, 1366, LPN, 471), «*Guisson, seynor de Beheythie*» (Lapizketa, 1412-13, CPBN, 74. or.), *Guixon de Valingan* (Don., 1495, C. & C. & G., 1997, 91, 146. or.). Cf. *Mixel Gixona* Iparraldean (Dirassar, 1995: 71). Egozkuen *Gissorena* ageri da 1726an (< *Gixonena*, herri bereko *Suescurena* < *Suescunena* bezala), Aurizperrin *Guisonena* 1764an (Au.p., 37, 57). Ikus *Gixonto*, beherago. Boullonek (1999: 58) *Guison* izena kausitu du Galizian.

– **Gonzalo** → **Xonzalo**: «*e Ochoa Lopes de Avlestia e Xonçalo Ybannes de Vgarte*» (Dur., 1471, Hid. et al., 1989, 48, 266. or.). Hutsa ote da? Hala ez bada pentsatu behar genuke *x*-ren inputa, goian aipatu ditugunez landara, belar ahostuna ere izan zitekeela.

– **Grazi(to)** → **Graxito**, **Txaxi** (eta *Xaxi* ere bai, segur aski): *Graxito de yraycoz* (Ira., 1536, At.p., 1, 11), *Chaxi de Mendibelcua* (Mutriku, 1504, Fdez. & Mont. & He., 2007, 57, 128), *Chaxi* (Del Valle, 1933: 180 = *Doña Gracia*).

– **Joakin** → **Xoakin**. Soraurengo 1611ko *Choachiñena* (Ue.p., 42) oikonimoaren oinarrian dateke, baina *Txoakin* zegoelako ustea ere ezin da baztertu.

– **Joana**, **Joane**, **Joaneki**, **Joango**, **Joanko**, **Joankote**, **Joanesko**, **Joaneto**, **Juane**, **Juan** → **Xoana**, **Xoane**, **Xoaneki**, **Xoanko**, **Xoankote**, **Joanexko**, **Xoanexko**, **Xoaneto**, **Xuane**, **Xuan**, **Xango**: *Xaneton* (Maule, 1377, Zier., 1994: 227), *Mary Xoanexco* (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 29. or.), *Choane de Baratsar* (Bai., 1465, Goih., 1966: 91), «*Mari Joanexco, tixedora*» (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 130. or.), *Xuane de Bustanguriarçan* (Irun, 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 102. or.), *Xuan Hernandez de Çamalloa*, *Xuan Lopez Monnago* (= *Juan Lopez Monago*, Dur., 1490, Hid. et al., 1989b, 79, 432. or.), *Xuan Ibannez de Ybarrondo* (= *Juan Ybannez de Yuarrendo*, ibid.), *Xuan Saez de Murga* (= *Juan Sanchez de Murga*, ibid., 433. or.), *Xuan Perez de Otalora*, *Xuan de Hegurbidi* (ibid., 436. or.), *Xan Sanchez* (ibid., 79, 445. or.; hutsa ote da?), *Xoaneto de lanz* (Lantz, 1537, At.p., 1, 29), «*Joanes alias Xoane*» (*Joanes de Gaztelu*-ren semea; Almandoz, 1537, Eo.p., 1, 113), *Xohana ferrero* (Irur., 1541, Eo.p., 1, 94), *Xoanco chipia de garcaron* (Muskitz, 1546, At.p., 1, 49), *Xohane de mayora* (= *Joane mayora*; Ziga, 1555, Eo.p., 1, 56), *Xoane Mitrero* (Barbier, 1987: 145). Olondritzen oinarritako *Xango* dukeen *Sangorena* oikonimoa ageri da 1726an eta 1794an (A.p., 42), *Xango* egun (Ibarra, 2002: 496). Labaienen *Xoá:nià* dago orain, menturaz 1726an *Juanenea* itxurarekin ageri denetik atera den aldaera.

– **Juan Nikulas** → **Xuan Nikulas**: *Xuan Niculas de Yuarreta* (Dur., 1490, Hid. et al., 1989b, 79, 438. or. = *Juan Niculas*, ibid.).

– **Juan Simon** → **Juan Ximon, Juanximo**: *Juan Ximon de Ocumardia* (Oñ., 1502, Zu., 1999: 70) = *Juanximo de Ocomardia* (ibid., 192. or.) = *Juan Chimon de Ocomardia* (ibid., 1512, 140. or.).

– **Juanete** → **Xuanete**: *Chuanete* (Ip., Goih., 1991: 301). Hau *Xuane* + *-te* ere uler daiteke, gutxieneko kontuan.

– **Jurdan** → **Xurdan**. Zubietako *Xurdanenea* oikonimoaren oinarrian dago (Iñigo, 1996: 580-581. Cf. Iturengo *Jurdanenea*, ibid., 528. Narbarten 1727an *Churdanena* dago).

– **Mozo** (*Moço Periz*, Lakarra, 1387, Goih., 1966: 144) → **Moxo**: *Moisso* (Esnottz, 1366, LPN, 468), *Moisso Çauleco* (Erro, 1366, LPN, 469), *Moxo de Gracia* (Aribe, ibid., 473), *Moyssso* (Abaurrea, ibid., 474), «*Martin Peres e Sanchu, fijos de Suyto e Moxo*» (Legazpiko ibarra, 1384, Aierbe, 1993, 7, 10. or.), *Moxo de Çulaga* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 100. or.), *Mojo Sarategui* (Zug., 1545, Eo.p., 1, 100?). Cf. Lesakako *Móxo* izengoitia; Luchairek (1881: 167) Iparraldeko *Mocho Urruti* jasotzen du. Donamarian egun *Móxenìa* izeneko etxea dago.

– **Sabat, *Sabata** → **Xabat, Xabata**: *Xabata Ruy Sanches* (XV. m., LGS, 294), *Sabat* (Err., 1530, Eo.p., 1, 142), *Jabat de Sansoain* (Muruzabal, 1596, O.p., 10), *Sabat capagujlearena* (Elgorriaga, 1531, Eo.p., 1, 101). Cf. *Jabat* deitura eta Aezkoako *Jabat* etxe izena, *Xabat* –edo *Xabatena*– euskaraz (Orbara, Camino, 1995: 89. Ikus, baita ere, Iñigo, 1996: 667). Berriozarren *Xabatena* jasotzen du Jimenok (1992: 300); Nagoren *Sauatena* zegoen 1726an. Irudi dueñez, gaskoiko *sauvat*, *sauvada* ‘salbatua’-rekin dago loturik (Grosclaude, 1992: 218); femeninoan *Sabada* zen izena: *Sabada de Aguirre* (Hondarribia, 1577, H.V.B., 1960). Ikus Euskaltzaindia (2001: 156, 311). Lhandek (1926: 1027) *Sauveur* dela dio eta *Salbat*-etik eratortzen du (ikus gorago). Egundak *Xabat* izen eza-guna da, Igantzin erraterako. Lhandek (1926: 1048) *Xabat* eta *Xobur*-en arteko nahasketa irudi duen *Xobat* (*Sauveur*) jasotzen du.

– **Salbatore** → **Xalbatore**. Labaiengo 1726ko *Chalbatorena* oikonimoaren oinarrian dagoela irudi du, baina, grafia arazoak tarteko, ezin segurutzat eman, *Txalbatore* ere izan bailiteke.

– **Semen** → **Xemen**: *Xemen Lopiz de Elorçe* (Zenborain, 1138, Leire, 312), *Xemen Biriuila* (1178, Goñi, 357), *Chemen Gasser de Baygur* (1356, *Doc. Gasc.*, 9, 52. or.), *Xemen Martiniz* (Eparotz, 1366, LPN, 506), *Chemen de Briscos* (Bes., 1371, Goih., 1966: 27), «*Albire, moyller de Perochemen qui fo*» (Dg., 1412-13, CPBN, 104. or.). Ikus 7.1.1.3 puntuan *Xeme* / *Txeme* aztertzean diodana, Goizuetako oraingo *Txeménè* oikonimoaz mintzatzean.

– **Semeno, Semena, Simeno** → **Xemeno, Xemena, Ximeno**: «*Xemena mulier de Amatu*», *Xemena Sanoiz de Garsia Galindoiz*, *Xemena Axubeliz* (Adoain, 1033, Leire, 25), *Xemeno* (Sarasketa, 1350-53, CPBN, 65. or.), *Ximeno d’Uroz* = *Xemeno d’Uroz* (1362, Ruiz, 1998, 525, 198. or.), *Chimeno de Bruslade* (1364, *Doc. Gasc.*, 40, 74. or.), *Xemeno Luxarreta*, (Uritz, 1366, LPN, 507), *Xemeno Ederra*, (Bidaurreta, 1388, Ur., 1954: 280), *Ximeno de Aibar* (1396, Mar.,

370), *Xemeno de Yturriaga* (Dur., 1443, Hid. et al., 1989, 9, 36. or.), *Xemeno de Echaue* (Deba, 1453, Her. & Bar., 2006, 46, 154. or.), *Xemeno de Garanaga* (Gernika, 1511, Enríquez et al., 1997, 226).

– **Semero, Semerot** → **Xemero, Xemerot**: *Chemero Galdroytz* (= *Semero Galdroytz*, Dg., 1372, Goih., 1966: 330), *Xemerot de Garro* (Gerezietza, 1378, Goih., 1966: 31; ikus beherago) (15). *Xemero* (Otsagabia, 1641, Z.p., 1, 4), *Xemerorena* (Elortz, 1591, Iru.p., 5-1, 98; Nagore, 1627, Au.p., 2bis, 241; bigarren herrikoa 1726an *Jemerorena* ageri da) etxe izenean ere kausitu dut.

– **Semon** (*Semon Ruffat*, Faltzes, 1330, LPN, 247) → **Xemon**: *Xemon Sancheç* (Milagro, 1291, Sta.C., II-2), «*Fortuynno, fijo de Xemon*» (Oteitza, 1330, LPN, 288), *Xemon d'Arozpide* (Burunda, 1388, Ur., 1954: 266). Ikus Irigoien (1994: 256).

– **Simen** → **Ximen**: *don Ximen Periz de Redin* (1334, Zier. & Ram., 1998, I.19), «*Juan Dias bisnieto de Ximen Dias de Amallo*» (Segura, 1340, D.Sal., 14), *Ximen d'Armissen* (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 163), *Ximen Çapata* (Corella, 1413, Castro, XXX, 235, 115. or.).

Oikonimian ere badira eta izan dira aldaera palatalizatuak: *Apexarena* (*Apejarena* izkiriataua, Sorauren, 1611, Ue.p., 42), *Aroxtoarena* (Lantz, 1608, Ue.p., 42), *Axariarena* (*Assariarena*, Utergako etxea, 1727), *Baxtan*, *Martinexker*, *Xoliman*, *Xubri* (Zaraitzu, Mitx., 1967: 167), *Xalómena*, *Xalómenëan* (inesib.) (Otsagabia, Artola, 2003: 384, 400), *Bixargorrirena* (Lar., 1552, At.p., 1, 118), *Bixárgorri* (Aranon egun, *Bizargorri* 1726an), *Bixkai* (Aintzioako etxea, Ibarra, 2002: 497), *Elixaga* (Etsain, 1644, Eugi, 1648, Ue.p., 41), *Elixagarena* (*Elichagarena* idatzia, Aintzua, 1788, Au.p., 42), *Ixúrnè* (Aranon orain, *Ijurrenea* 1726an), *Lujea*, *Lujearena* (Lusarreta, 1726, Au.p., 43, 66, 1773), *Luxearena* (Urritzola Ultzama, 1608, Ue.p., 42, Lusarreta, 1773, Au.p., 43, 66, Gerendiain Erroibar, 1796, Au.p., 42), *Xarako* (XX. m., Aintzioako etxea, *Careco* 1644an, *Zarecorena* 1726an; Ibarra, 2002: 497), *Xolix* (Abaurregaina, Orbaizeta, Camino, 1995: 88), *Xubirinea* (*Cubirinea* 1644an, *Zubirirena* 1726an, Aup., Ibarra, 2002: 500), *Xubroina* (*Zubiri*-tik, Garralda eta Orbaizeta, Camino, 1995: 88), *Xubiena* (*Zubiri*-tik, Garaioan, ibid.).

Deitura izendegian eta goitizendegian ere ohikoak dira: *Almandoz* → *Almandox* (eta *Almandotx*, Arano, Zubi. & Peru., 1998: 225, 263), *Exkúrrà*

(15) Mitxelenak honela dio izen hauek aurkezten duten hasierako txistukariak (1985 [1972]: 244): «Como los préstamos latinos en vasco suelen ser aducidos (a mi modesto entender, sin razón) en favor de una pronunciación apical de lat. *s*, quiero hacer constar simplemente que en un nombre de persona, *Jimeno*, los documentos navarros presentan una curiosa particularidad: *Xemen(o)* predomina más bien en zona romanizada, frente a *Semen(o)* en territorio de habla vasca (y, en forma específicamente vasca, siempre *Semero*, patr. *Semeroyz*, como *Anso* 'Sancho', patr. *Sanoyz*) [...]». Hau, gure datuak ikusirik, ezin da zeharo ontzat hartu.

(Ezkurra herrikoa da, Goi.), *Gaztelu*, *Lastolea* (oikonimoak, Les.) → *Gaxtélú*, *Laxtól*; *Goizueta* → *Goixút* (izengoitia, Les.), *Idiazabal* → *Idixabal* (sic) (Idiazabalgoa zelako; Arano, Zubi. & Peru., 1998: 250), *Lasarte* → *Laxarte* (Ezkurra – Arano, deitura; Zubi. & Peru., 1998: 252), *Salaberri* → *Xála* (lapurtar pilotari ezaguna), *Xabálà*, *Xubíri* (*Zabala*, *Zubiri* deituretatik, Goi.), *Xàlamankino* (Salamanca jaioa, Les.), *Xàkrixlán* (gizon elizkoia, Les.), *Susperregi* (deitura, Les.) → *Xúxpe*, *Zabala* → *Xabala* (Ea., Erdozia, 2001: 151), *Zubita* → *Xuita* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 262; Malerrekako Zubieta herrikoa zen); *Zumeta* deitzen zuten leitzarra *Xumeta* aipatua ere aurkitzen dut (Peru., 1996: 90).

7.1.1.3. [š] eta [č] batera dituztenak

Puntu honetan arazo grafiko anitz daude zehazkiro jakiteko <s>, <x> eta <ch> idazten direnen azpian zer dagoen. Irudi luke sabaiaurreko igurzkarria ([š]) dagoela, baina hau ez da segurua. Bestalde, kontu dialektala ere izan daiteke hein batean, ezaguna baita Iparraldeko hizkeretako anitzek sabaiaurreko igurzkarria izaten dutela hitz hastean (*xahar*, *xar*, *xingar*, *xixtor*, *xori*, *xuri* vs. *zahar*, *txar*, *zingar*, *zixtor*, *txori*, *txuri* edo *zuri*). Lekuko gutxi ditut, eta denak dira dokumentaziotik ateraiak:

– **Xeme / Txeme** (*Seme*-tik; cf. *Seme d’Uart*, Bera, 1366, LPN, 567): *Xeme d’Erreparaçe* = *Cheme Erreparaçe*, *Seme d’Erreparaçe* (1359, MD, 1971, 82), *Cheme d’Eliçandi* (Bera, 1366, LPN, 567), «*Per Arnalt, dicho Xeme*» (Suh., 1350-53, CPBN, 70. or.), *Cheme* (Mon., 1351, Zaro, 1378, Goih., 1966: 132, 148), *Seme*, *Cheme de Gamoart* (Larزابale, 1351, ibid., 228), *Cheme Arhalde* (Dg., 1386, ibid., 326), *Cheme d’Arozteguialde*, *Cheme d’Iryart* (Sarasketa, 1412-13, CPBN, 101. or.), *Cheme* (Sen., 1415, Goih., 1966: 57), *Xeme de Sorburu* (Oiar. al., 1475, C. & C. & G., 1997, 62, 35. or.). Ikus Irigoien (1994: 256). Goizuetan *Chemerena* oikonimoa azaltzen da 1616tik aitzina, *Chemenea* 1700. urteaz gerortzik (Her., 1978: 80), *Txemenè* bihurtua egun. Nolanahi ere, 1678an *Chemenea* dago, eta, beraz, ezin erabat baztertu oinarrian *Xemen*-en aldaera zatekeen **Txemen* zegoelako ustea.

– **Xurio, Xuri / Txurio, Txuri**: «*Miguel, fijo de Xurio*» (Altsasu, 1516, Po., 2001, 43, 255. or.), *Xurio de gorriti* (Osk., 1552, At.p., 1, 82), *Xurio* (Bere., 1581, Ih.p.), «*Juan Martínez de la Plaza, dicho Churio*» (Elgoibar, 1452, Aierbe & Etxezarraga, 1999: 32), *Churi de Uria*, *Churio Ferrero*, *Churio Zumarraga* (Oñ., 1489, Urkixo, 1912: 57), *Churio de Çumarraga*, *Churio de Guipusche*, *Churi de Uria* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 254, 264 eta 268. or.), *Churio de Çerayn* (Zerain, 1490; Aierbe, 1993, 37, 149. or.), *Churio de Matacua* (Oreitia, 1510, Lema, 2007b, 59, 208. or.), *Churyo de Garmendia* (Abeltzisketa, 1519, Aierbe, 2006, 312, 338. or.). Berueten 1551n *Martie xuriorena* kausitzen dugu (At.p., 1, 111), Leitzan 1726an *Churionea* oikonimoa ageri da.

7.1.1.4. [s] eta [c] duten hipokoristikoak

Hipokoristikoek ttikitasuna, maitasuna, hurbiltasuna adierazten dute, ezaguna den bezala. Itxuraz honen aurkako efektua lortzeko batzuetan [s] ibiltzen da, eta inoiz [c] (ikus Azkue, 1969-I: 195 eta *FHV*, 191): *Mantziku*, *Patziku*, *Manezño*... baina baita *Juantzo*, *Mieltzo*, *Unaitzo*, *Zabierto*, e.a. Cf., orobat, Nafarroako zenbait hizkeratan ohikoak diren *katzarro* ‘katzarro, traste handia, zakarra’, *potzolo* ‘biziki potoloa’, *tzarra*, *tzerria*, *tzorrotz*, *zokolatea* ‘txokolate zakarra’ etab. Ikus Polgek (1983: 120) Allièrsi ikasitako *buxera* → *buzera*-z dioena.

Soinu ez-palatal horiek pertsonaren arabera erabiltzen dira, handitasuna, gizentasuna edo zakartasuna adierazteko. Errespetua ere egon daiteke tartean, bai eta mespretxua, trufa edo iseka egin nahia ere, zenbait aldiz. Zernahi dela, lagun arteko giroan ere erabiltzen dira honelakoak, konfiantza dagoen giroan alegia. Bestalde, *-tzo* atzizkiaren barrenean sartu ditudan zenbait izen (*Juantzo*, *Mieltzo*, *Unaitzo*...) hemen ere sar litezke, oinarria, abiapuntua, *Juan*, *Miel*, *Unai* gabe *Juantxo*, *Mieltxo*, *Unaitxo* izan direla kontu egiten badugu. Cf., gainera, bietan egon behar duen *Zabierto*.

Hauk dira bildu ditudan lekukoak:

– **Anastasia**, **Anastasio** → **Anastazia**: *Anastázja* (Lan., azkarra). Ez dakit hemen frantseseko txistukaria euskal [s] bihurtzeko dagoen ohiturak ez ote dion eragin. Bi joeren bat-egitea ere izan daiteke.

– **Andres** → **Andrez**: *Andrés* (Lei.).

– **Austin** → **Auztin**: *Auztín* (Done.).

– **Basilio**, **Basi** → **Bazilio**, **Bazi**: *Baziljo* (Lab.; aski gizon azkarra da), *Bázi* (ibid., haurretan *Baxilikò* deitzen zuten).

– **Eusebio** → **Euzebio**: *Éuzebjò* (Lei.).

– **Felis** → **Feliz**: *Féliz* (Am., Luz.), *Féliz* (Lei.).

– **Fermintxo** → **Fermintzo**: *Fermíntzo* (Les.).

– **Isidro** → **Izidro**, **Zidro**: *Ízidró* (Lei.). Salaburuk (1984: 78) *Isidro*-ren aldaerak-edo diren *Zidro* eta *Xidro* aipatzen ditu.

– **Jabierto** → **Jabierto**: *Jabjértzo* (Ig., franko azkarra da; etxean *Jabjértzo* erraten diote).

– **Jesus** → **Jezuz**, **Ketzu**: *Jezúz* (Amairkoa, handia zen; semea *Jexiúx* da. Anizen ere bazen *Jezúz* izeneko gizon bizkorra. Arizkunen oraino bada *Jezúz* izeneko mutil indartsua. Iturenen eta Zugarramurdin ere ibiltzen da), *Kétzu* (Urroz; aski mutil sendoa da).

– **Jose**, **Josetxo**, **Josemari**, **Josepe** → **Joze**, **Jozetzo**, **Jozemari**, **Joze-mo**, **Jozepe**: *Jozé* (Am., Eratsun (16), Zug.; lehen herrikoa handia da, bigarre-

(16) Mikel Xoraxuria Erretegi ikasleari zor diot datua.

koa azkarra), *Jozétzo* (Ig.), *Jozé* (It.; sendoa da), *Józè* (Lei.), *Jozémo* (Lab.; txikitatik franko bizkorra izan da), *Jozé*, *Jozemari* (Les.), *Jozépe* (Luz.).

– **Jose Antonio** → **Jozeantonio, Zaton**: *Záton* (Lab.; aski azkarra da); Lintzoainen *Jozeantonio* izeneko etxea dago (Ibarra, 2002: 494).

– **Jose Luis** → **Jozelo, Jozelu**: *Jozelo* (Les.), *Jozélu* (Urroz; franko indartsua da).

– **Juan Simon** → **Juantzimon**: *Jwántzimòn* (Les.; lodia zen).

– **Juanjosito** → **Juanjozito**: *Jwánjozitò* (Lei.).

– **Juliantxo** → **Juliantzo**: *Juljántzo* (Les.).

– **Kankoxe** → **Kankoze**: *Iribárneko Kankozé* (Luz.; gizen antza da).

– **Lorentxo, Lontxo** → **Lorentzo, Lontzo**: *Loréntzo* (Ig.), *Lóntzò* (Lei.). Kasu honetan bizkarkaria etimologikoa da. Ikus *Pantxito*, beheago.

– **Manes** → **Manez**: *Manéz* (Luz.). Cf. *Juan de Iribarne Manez* (herri bera, 1770; Sat., 1961: 221).

– **Manueltxo** → **Manueltzo**: *Manwéltzo* (Am.).

– **Migeltxo** → **Migeltzo, Mieltzo**: *Miéltzo* (Ig.), *Migéltzo*, *Miéltzo* (Urd.).

– **Mixel** → **Mizel**: *Mizél* (Lapurdin, azkarrak direlarik), *Mizél* (Luz.; Amaiurren ere bazen izen honetako laguna, sortzez saratarra), *Mizel* (Etxarren, 1985: 59), *Mizel Mateo* (Bi., *He.*, 2004-VI-24, 3 = *Michel Mateo*, *ibid.*, 2003-X-9, 5).

– **Nikolas, Mikolas** (**Txikolas?*, cf. *Txekolas*) → **Zikolas**: *Zikolàs* (Lei.).

– **Pantxito, Pantxo, Patxi, Patxiko, Patxiku** → **Mantziku, Pantzito, Pantzo, Patzi, Patziko, Patziku**: *Pántzo* (Am., Baigorri aldean, Zug.), *Patziku* (Ara., El., Goi., Ig., It., Lab.), *Mantziku* (Ari.), *Pátzi* (Ari., Ig.), *Pantzító* (Err.), *Pántzitò* (Ezkurra), *Patziko* (Luz.), *Ontxariko Patziku*, *Patziku Errerokok* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216), *Pantzo Irigaray* (*He.*, 2005-X-6, 5). Hauetan bizkarkaria etimologikoa da, baina zenbait aldiz behintzat balio afektiboa duela erran daiteke, alegia, soinu hori dutenak ez direla izen aldaera neutroak. Lafittek (1987 [1944]: 149) *Pantzo* aldaera *Frantxo*, *Pantxo*-ren handigarritzat jotzen du.

– **Paskal** → **Pazkal**: *Pazkál* (Urd., Ip.).

– **Rosarito** → **Rozarito**: *Rozarito* (Luzaideko gutunetan ageri da).

– **Santi** → **Zanti, Zan**: *Zánti* (Am., handia da; Lab., gizon normala da, ez azkarra. Urd., hagitz handi eta indartsua da; *Xánti* eta *Zán* ere deitzen dute).

– **Santsin** → **Zantzín**: *Zantzín* (*Sanche*-ren “handigarria”, Lafitteren arabera, 1987 [1944]: 149).

– **Saturdino** → **Zaturdino**: *Zatúrdino* (It.; mespretxuz mintzatzen denean).

– **Sebastian** → **Zebastian**: *Zebáztjan* (Ara.; handia da), *Zebáztjàn* (Lei.), *Zèbáztján* (Oitz).

– **Simon** → **Zimon, Zimun**: *Zimón* (Azp., It.), *Zimún* (Luz.; gizon handia zen; cf. *Zimun kauterra*, Zubiri, 1990: 79).

- **Tomas** → **Tomaz**: *Tomáz* (Lei.).
- **Txomin** → **Tzomin**: *Tzómin* (Am.; gizon handia da), *Tzómin* (Lab.; mutil gazte azkarra).
- **Xabi(er)** → **Zabi(no)**: *Zabi* (Les.; mutil zabala da), *Zabino* (Ig., NARBARTE).
- **Xabierto** → **Zabierto**: *Zabjértzo* (Les.; mutil zabala da).
- **Xalbát** → **Zalbat**: *Zalbat* (L, NB, izen eramailea azkarra delarik).

Iraizozko 1727ko *Marizena* oikonimoaren oinarrian *Maritx*-etik ateratako *Mari(t)z* egun liteke.

7.1.2. Sabaiko herskari ahoskabearen erabilera

Biziki bilakabide arrunta da hau, bai Hegoaldean eta bai Iparraldean. Halarik ere, mendebaldean gauzak nola dauden ez dakit xuxen; anitzetan aipatzen den hiztun adinekoen [t̪] > gazteen [č] aldakuntzak ez du, hain segur, adierazkortasuna atxikitzen, palataltasuna gordetzen badu ere.

7.1.2.1. [t̪] → [t̪]

- **Alberto** → **Albertto**: *Albértto* (Luz.).
- **Anparito** → **Anpaitto**: *Anpáittò* (Lei.).
- **Antonio, Anton, Antonia, Antoniko** → **Anttonio, Antton, Anttoni, Anttoniko**: *Anttón, Anttónjo* (Am., Luz.), *Anttónjo* (Aniz, Arr., Auza, Les.), *Anttón* (Donaixiti), *Anttón, Anttóni, Anttónjo* (El., Oitz), *Anttóniò, Anttóni, Anttónikò* (Goi.), *Anttóni, Anttónjo* (Ea., Ig., Lab.), *Anttóni, Anttónja* (Eu.), *Anttón* (L, NB), *Anttón, Anttonjò* (Lei.), *Anttóni* (Zub., Zug.), *Anttoni* (Mezkiritz, Saragüeta, 1979: 29).

Antton (Larzábal, 1991: 286), *Antton Bide, Antton Arambel* (Aldudekoak ziren; Etxepare, 1992: 259-260), *Antton* (Ul.; Ibarra, 1995: 318), *Anttonio Sagastibel-tza, Anttoni Zabaleta, Anttoni Zestau, Anttoni, Anttoni Astibia, Anttoni Azitakoa, Anttonio Solabordakoa, Anttonio Pillipena, Anttoni Lasarte* (Lei., Peru., 1996: 11, 12, 49, 110, 158, 178, 206, 236), *Antton* (Minaberri, 1998: 81), *Anttonio* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 248, 256), *Antton* (Arb., Ea., Erdozia, 2001: 317), *Antton Cabanne* (Donaixtikoa auzapeza, *He.*, 2003-XI-20, 5), *Antton Lascano* (Sen., *He.*, 2004-III-18, 4), *Antton Villeneuve* (Bi., *He.*, 2004-XI-25, 5), *Antton Alkhat* (Arm., *He.*, 2005-X-13), *Antton Etchegorry* (Altzümarta, Larre, 2001: 164, *He.*, 2006-VIII-31). *Anttónjò* Etxarri Aranzako etxe baten izena da egun, eta *Antton* (edo *Kaxton*) Aurizperriko beste batena zen XX. mendearen lehen erdian (Barandiaran, 1973: 257).

- **Bartolo** → **Barttolo, Marttolo, Mattolo**: *Barttólo* (Auza, El., Ziga), *Barttolo* (Abaurregaina, Camino, 1997, 258; Mezkiritz, Ibarra, 2000: 248).

Ikus, gainera, HUD (1992: 369). Ormaetxeak *Azpirozko Marttolo* dakar lehenik (1976: 94) eta *Azpiroz'ko Mattolo* gero (ibid., 313).

– **Batista (Jean-Baptiste), Bautista; Batita** (Irur., Luz.) → **Battit, Battita, Battitt, Battitta, Battitte, Battittu, Battti**: *Battitta* (Ari., Haz., NB, Zub.), *Batti* (NB), *Battittu* (Zub., aski hipokoristiko mugatua da, Davantek dioskunez), *Battitta* (Luz., Camino, 1997, 273). Cf. Baionako Gaskoiko *Battitte* (Gavel, 1969 [1920]: 483, 1). Ikus, orobat, *FHV* (185). Ormaetxeak (1976: 266) *Batite Heleta* 'Bautista Heleta' pertsonaia du *Euskaldunak* liburuan; *Battitta* (Zubiri, 1990: 36; Barbier, 1926: 34, Otsobi, 1992: 25; Larre, 2001: 26, 108), *Battit* (Zubiri, 1990: 72, 75; Etxamendi, 1988: 121), *Battit Amestoi* (Uztarizkoa, *Egunkaria*, 2001-1-30), *Battitt* (Etxamendi, 1988: 122), *Battitta Duhau* (Bes., Duhau, 2003: 406; Haz., He., 2004-VII-1, 4), *Battitta Urruty* (Garindaine, He., 2004-II-19, 2), *Battita Landart* (Bi., He., 2004-XII-2, 5), *Battitta Urgorri* (Lekorne, He., 2005-VII-7, 4).

– **Beltran, Bertran** → **Pettan**: *Pettán* (Garazi, Larzabale, Lasa; ikus, gainera, NVP, 411), *Pettan* (Zubiri, 1990: 54; Barbier, 1987: 113, 192; Landart, 1978: 16; Etxarren, 1985: 50; Karrika, 1990: 192; HUD, 1992: 279), *Pettan Aphessette* (Azkarate, He., 2004-VI-3, 5), *Pettan Garakoitz* (Larzabale, He., 2006-V-11, 5). Ikus Lhande (1926: 859). *Pettan*-etik *Petan* «handigarria» atera dateke (cf. *Manex, Mañex* → *Manez, Mixel* → *Mizel*). Lasan bazen gizon handi bat, *Pettán* edo *Petán* deitzen zutena.

– **Beti, Betiri, Petiri, Pheti** → **Betti, Bettiri, Pettiri, Pette, Phetti**: *Bétti, Bettiri* (egun, Ip., Luz.), *Pétte* (Zub.), *Phetti* (Zub.), *Pechiri* (Irunberri, 1366, LPN, 501; cf. *la casa de Pechivarrena*, Mithiriña, 1350-53, CPBN, 40. or. Orpustanek 1350eko *Pechiri* biltzen du, 1999: 132), *Joanes Pechirirena* (Elkoatz, 1593, A.p., 5, 79), «*Pedro Camino, Betti*» (Banka, 1847; Sat., 1961: 213 eta 1969: 74), *Betti* «diminutif de *Betri Pierre*» (Lhande, 1926: 159), *Betti* (Zubiri, 1990: 52), *Pettiri* (P. Iturralde [P. Lafitte], 1982: 62, Larzabal, 1991: 197), *Bettiri* (HUA, 1994: 12; Lafitte, 1990: 189; HUD, 1992: 298), *Ospitaleko Betti* (Larre, 2001: 14), *Betti Bidart* (He., 2003-XI-13, 7), *Pette* (Barbier, 1926: 41, Etxarren, 1985: 111, Arbelbide, 1986: 9, 69, Larzabal, 1991: 244, Coyos, 2005: 646). Ormaetxebarriak dio (1986: 187) bilakaera *Petri* > *Betri* edo *Betiri* > *Betti* > *Bechi* izan dela; hondarreko aldaera justifikatzeko *Bechirirena* oikonimoa aipatzen du, baina ez bide da ohartu hau *Bettirirena* adierazteko grafia ere izan daitekeela. D. Intzak Ziaurrizko esaera zahar batean *Pittiri* aldaera asimilatua bildu zuen (1974: 124): «*Pittiri zango-gorri kutxa aundi ortan dago*»; Ormaetxeak (1976: 54, 187) *Pitiri Trakets* eta *Petiri Karrika* dakartza.

– **Bitor** → **Bittor**: *Bittor* (Am., Ara., El., Ig., Oitz, Zug.), *Bittór* (Goi.), *Bittor* (Larzabal, 1991: 126), *Bittor Perurena* (Lei., Peru., 1996: 10).

– **Bitoriano, Bitoriana** → **Bittoriano, Bittoriana**: *Bittorjáno* (Am., Ara., Ig.), *Bittorjáno, Bittorjána* (Eu.), *Bittórjanà* (Goi.), *Bittoriana* (Peru., 1996: 91), *Bittoriana Salaberria* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 187).

– **Bitorino, Bitorina** → **Bittoino, Bittorina**: *Bittorína* (Zug.), *Bittoino, Bittoina* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 238, 250).

– **Bitorio, Bitori(a)** → **Bittorio, Bittolo, Bittori, Bittoria**: *Bittóri* (Alkotz, Am., Arr., Bere., Done., El., Eu., Goi., Ig., Sak.), *Bittórjo* (Auza, Urdiain; bigarren honi *Bittólo* ere erraten diote), *Bittólo* (Ea., Urdiain), *Bittorjò* (Lei.); *Bittorio Alkoz Larrea*, *Bittori Arribillaga Lizarraga*, *Bittori Zabaleta*, *Bittorio Martikonekoa*, *Bittorio Alkoz Martikonekoa*, *Bittori*, *Bittorie*, *Bittorio Xaki*, *Bittorio Zakillena*, *Bittorio Lazkano*, *Bittorio*, *Bittori Sagastibeltza* (Lei., Peru., 1996: 7, 12, 46, 54, 82, 88, 122, 142, 157, 168, 209, 214, 216), *Bittorio* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 249).

– **Emeterio** → **Metterio**: *Mettérjo* (Ea.), *Metterio* (Ea., Ergoiena; Erdozia, 2001: 403, 2005: 63).

– **Fermin Antonio** → **Fermin Anttonio**: *Fermin Anttonio* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 219).

– **Florentino, Florentina** → **Florenttino, Florenttina**: *Floréttinò*, *Floréttinà* (Goi.).

– **Frantzisko Antonio** → **Praxku Anttonio**: *Praxku Anttonio Altuna* (Lei., Peru., 1996: 238).

– **Jean-Baptiste** → **Janbattit, Janbattitt, Jamattit, Jamattitt**: *Jamattit*, *Janbattit* (orain, Ip. Lafitte, 1990: 213; Dirassar, 1995, 5), *Janbattitt Sabarots* (Bes., Duhau, 2003: 406; *He.*, 2004-III-11, 5eko *Jamattit Sabarots* bera?), *Jean-Battitte Etchegaray behautarra* (Arbelbide, 2003: 13), *Janbattit Capdevielle* (Ma.-Le., *He.*, 2003-XII-25,5), *Jamattit Mendiondo* (Aih., *He.*, 2003-X-9, 5) = *Jan Battitt Mendiondo* (*He.*, 2004-VIII-12, 5), *Jamattit Abittu* (Haz., *He.*, 2004-II-25, 4), *Jamattitt Etcheverry* (Sen., *He.*, 2004-VIII-5, 4), *Jan Battitt Arribillaga* (Sen., *He.*, 2004-X-28, 4), *Jan Battitt Peyroutet* (Behauze, *He.*, 2004-XII-30, 7), *Jamattitt Bidart* (Kanbo, *He.*, 2005-I-6, 4), *Janbatitt Tipy* (Bi.-Ari., *He.*, 2006-XII-28, 5).

– **Josefa Antonia** → **Josepanttoni, Joxepanttoni, Oxepanttoni**: *Josépanntóni* (Ara.), *Joxepanttoni*, *Joxepa Anttoni* (Lei., Peru., 1996: 132), *Oxepanttoni* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 219).

– **Katalin(a)** → **Kattalin(a), Kattaliñ, Katti**: *Kattalín* (orokorra; Bere., Ea. eta Luz., erraterako), *Kátti* (Ea.; *Kattalín* ere deitzen dute), *Kattálinà* (Goi.), *Káttalinà* (Lei.). Cf. *Kattalin* (Lhande, 1926: 591; Barbier, 1987: 175; Zubiri, 1990: 35; Landart, 1978: 16, 77; Lafitte, 1982: 108; Etxarren, 1985: 7; Etxamendi, 1988: 55; Etxebarne, 1989: 8; Minaberri, 1998: 21), *Kattaliñ*, *Kattalin*, *Katti* (Lei., Peru., 1996: 87, 150), *Kattalin Sallaberry* (*He.*, 2003-X-9, 3), *Kattalin Landart* (Donoztiri, *He.*, 2004-II-19, 5), *Kattalin Olçomendy* (Baigorri, *He.*, 2004-VI-17, 5). D. Intzak Leitzako eta Eratsungo esaera zahar banatan jasotzen du izena (1974: 55, 94): «*Kattalin, Kattalin, bazoaz? Beste bat etorriko da denboraz*», «*Kattalin, pottolin: ire amak aurra egin din; aur-zapillik ez, ta kattullarru(a)n bildu din*». A. Irigaraik jasotako Urtsuko kantuan *Mari Kattalin* ageri da (1971: 80); autore honen beronen arabera Alkotzen haurrei pixontzian daudenean hau kantatzen zaie: «*Ttilin, ttilin, panpalin, / errotako Kattalin. / Ollo beltzak errun din / Xuriak ere mokoan din / laixter-in Kattalin*». Luzaiden orain

urte batzuk hau kantatzen zen, P. Kaminok diostanez: «*Kattalín, ttúku-ttúku, Kattalín ariná, zónbana saltzen dúzu, dózena sardiná?*» («Pasaiako herritik» airearekin).

– **Katrin** (Catherine) → **Kattin, Kattina, Katti**: *Kattin* (Arnegi, Luz. Ikus Sat., 1961: 217), *Kattin* (Etxepare, 1980 [1910]: 71; Zubiri, 1990: 76; Etxamendi, 1988: 78; Larre, 2001: 23), *Kattin Parachu* (Bi., *He.*, 2004-VIII-12, 4), *Kattin* (Aih., *He.*, 2004-VIII-12, 5, ib., 2004-XI-4, 5), *Kattina* (Larzábal, 1991: 183; Larre, 2001: 23), *Katti Azeri* (Izturitze, *He.*, 2004-VI-3, 5). Frantsesez *Catin* forma *Caterine* izenaren aldaera hipokoristikoa da (ikus Glez. Ollé, 1962: 214 eta *Katixa*).

– **Kintino, Kintina** → **Kinttino, Kinttina**: *Kinttínò* (Goi.), *Kinttína* (Oitz).

– **Klara Antonia** → **Klaranttoni**: *Klaranttoni* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 255).

– **Laurentine** (→ ***Lorantina**) → **Loanttina**: *Loanttína* (Amü.).

– **Maitane** → **Mattane**: *Mattane* (Nafarroako Zubietta, *Berria*, 2005-6-25, 42. or.).

– **Maite** → **Maitte**: *Máitte* (Lab.; *Máj* eta *Májtétxu* ere deitzen dute).

– **Marguerite** (→ ***Margerita**) → **Margitta**: *Margitta* (Amü., Gü, Lan.), *Margitta Mathieu* (Gü., *He.*, 2004-XI-18, 6).

– **Maria Antonia** → **Mari Anttoni, Manttoni**: *Manttóni* (Err., Eu.), *Mari Anttoni* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 174).

– **Maria Teresa** → **Maittere**: *Májttere* (Arr., Eu., Ig.), *Májtterè* (Zubietta).

– **Marta** → **Martta**: *Mártta* (Ami.), *Martta* (Ondarrola, MAren gutunak).

– **Marti, Martin(to, tto), Patin, Martina** → **Martti, Marttin, Mattin, Mattinto, Mattito, Pattin, Marttina, Ttattin**: *Matin d'Espuru, Matin Perez d'Echaçarreta* (Don., 1478, C. & C. & G., 1997, 68, 51. or.), *Martin Sanchez de Mattito* (sic) (Dur., 1490, Hid. et al., 1989b, 79, 437. or.). Cf. «*Martin de espinal dicho matina*» (Aup., 1606, Ue.p., 42).

Mattín (Am., Azp., Dorrao, Ea., It., Lei., Oitz, Urd.; Ultzama aldean ere *Mattin* dago, Ibarra, 1995: 318; Lapurdin eta Nafarroa Beherean orobat. *Mattín*, ezaguna den bezala, Ahetzeko bertsolari ospetsua zen; ikus Xalbador, 1976: 118), *Atta Mattin* (Bidankoze, Artola, 2006: 229), *Marttína* (El.), *Mattintto* (Les.), *Martti* (Zub., Lhande, 1926: 716. Eskualde honetan, bai eta Amendüzen ere, *Martin* ofiziala *Martí* ohi da, Jean-Louis Davantek eta Xane Idiartek erraten didatenez), *Marttin* («variante de Martin», Lhande, 1926: 716), *Mattin* (Elizanburu, 1982: 30; Otsobi, 1992: 25) *Mattin Çuburu* (Bi., *He.*, 2005-IX-8, 5), *Mattin Iribarren* (Sara, *He.*, 2006-VIII-31, 4).

Lafittek dioenez (1987 [1944]: 149), *Mattin* handigarri bilakatzen da hasierako *m-* > *p-* pausoaren bidez (*Patín*); Etxepare medikuak (1988: 171) *Mattin* eta *Pattin* darabiltza elkarren segidan, ustez lagun bera izendatzeko. Barbie-

rrek (1987: 76) *Pattin Artzaina* dakar eta Larzabalek (1991: 29) *Pattin* du bere antzezlanetako batean; Duny-Pétrék (1996: 149) eta P. Narbaitzek (1999: 22) ere biltzen dute izen hori. Xarritonek dioenez (Narbaitz, 1999: 6), azken horren lehengusua zen *Pattin Narbaitz*. *Ttattin* aldaera Urepeleko *Ttattin Arambel* zenaren deizioan ageri da (He., 2004-IV-12, 5).

– **Mateo** → **Matteo**: *Mátteò* edo *Mátteó* (Goi.), *Alkasoko Matteo* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 221), *Matteo* (Peru., 1999-II-12, *Egunkaria*-ko *Nafarkaria* saila).

– **Migel Antonio** → **Miel Anttonio**: *Miel Anttonio Sagastibeltza*, *Miel Anttonio Solabordakoa*, *Miel Anttonio Azpiroz*, *Miel Anttonio Errementanekoa* (Lei., Peru., 1996: 93, 128).

– **Natalia** → **Nattali**: *Nattáli* (Ara.).

– **Pakito, Pakita** → **Pakitto, Pakitta**: *Pakítto* (El., It., Les., Oitz), *Pákittò*, *Pákittà* (Goi., Lei.), *Pakitto* «*Monterona*» (Lei., Peru., 1996: 138).

– **Pantaleon** → **Panttaleon**: *Pánttaleòn* (Ara., Arr.), *Panttaléon* (Les.).

– **Patrizia** → **Patti**: *Pátti* (Done., Eo., Les.), *Pátti* (Lei.).

– **Pedro Antonio** → **Prenttonio**: *Prenttónjo* (Urroz).

– **Ramona Antonia** → **Erramona Anttoni**: *Erramona Anttoni* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 174).

– **Santiago** → **Santtio**: *Sánttiò* (Lei.).

– **Sebastian** → **Ttattan**: *Ttattán* (Lei.).

– **Teles(for)** → **Tteles**: *Ttéles* (Ea.), *Tteles* (Ea., Erdozia, 2001: 134).

– **Teodora** → **Tteodora**: *Tteódorà* edo *Tteódorá* (Goi.).

– **Tere(sa)** → **Ttele, Tte**: *Tté* (Ea.), *Ttelé* (Sara).

– **Tomas** → **Ttoma**: *Ttoma Ospital* (He., 2004-VIII-12, 5). Hemen kontuan hartu behar da frantseseko izenaren azken txistukaria ez dela ebakitzten.

– **Toribio** → **Ttoribio**: *Ttoribjo* (El.).

– **Tote** → **Ttotte**: *Tttotté* (Garazi).

– **Tristant** → **Ttittant**: *Ttittant Barneix* (Izura-Azme, He., 2004-I-29, 5).

Oikonimian eta goitizendegian ere badira honelakoak: *Anttonio*, *Benttura*, *Bittorio*, *Kattalin*, *Monttero* (Zaraitzuko oikonimoak, Mitx., 1967: 167), *Botton* (honela dio Erdoziak [2001: 131]: «Etxarriko izengoitia dugu hauxe, *botton*-aren hipokoristikoa, pertsona txikia dela adierazteko), *Montte*, *Ttarde* (Etxarri Aranazko etxeak, ibid., 135), *Mattiko* (Lei., *Joan Martin* zuen izena eta *Martikonea* etxekoa zen, Peru., 1996: 167), *Fermiñ* «*Kattarro*» (Zubi. & Peru., 1998: 226), *Puttiko* (Larre, 2001: 26), *Ttorttero* (Ezkurrakoa, «denbo askon bason talok itten aittua emen yuen, ta angatik esaten omen zeoten Ttorttero», Peru., 1996: 174-175). Goizuetako *Karrétò* baserrian sortutako Patziku Perurena idazleari *Karrétò* erraten diote.

7.1.2.2. Inoizka [t̪] beste kontsonante bat bustitzearen ondorena ere izan daiteke

Irudi luke, [t̪] soinua [t̪]-tik edo kontsonante multzo batetik atera ez denean, erdian [ʃ]-dun aldaera izan dela, zubi lana eginez. Bestela neke da [ʃ]-tik zuzen-zuzen [t̪] atera dela sinestea.

– **Jesusin** → (***Jexuxin**) → **Kettuttin**: *Kèttuttín* (Ea.).

– **Jose, Joxe, Koxe, Kote, Tote** → **Kotte, Ttote, Ttotte**: *Kótte* (Err.), *Kótte* edo *Kotté* (Les.), *Kótte Ezenarro* (Hendaiako lehengo alkatea), *Tótte* (Ip.; Lafitte, 1987 [1944]: 149), *Kotte* (Ul.; Ibarra, 1995: 318), *Tiotte Ardohain* (HUD, 1992: 189), *Tiotte Etcheveste* (*He.*, 2003-XI-13, 7), *Tote Ipuy* (Donoztiri, *He.*, 2004-II-25, 5), *Tiotte Munduate* (Banka, *He.*, 2005-II-17, 5), *Tiotte Cornu* (Aih., *He.*, 2005-III-24, 5. or.), *Tiotte Elgue* (Ortzaize, *He.*, 2005-X-13, 1). *Kotte, Tiotte* hauek *Kóte* (Irurtzun), *Tote* ('gros Joseph', Lafitte, 1987 [1944]: 149) bilakatzen dira inoiz, zenbaitetan bederen balio «handigarria» hartuz. Emakume izena ere izan daiteke (*Koté* 'María José', Arruazun eta Lesakan).

– **Joserra** → **Joxerra** → **Kotterra**: *Kottérta* (Ig.).

– **Maria Isabel** → **Maixabel, Maxabel** → **Mattel**: *Mattél* (Aniz).

– **Patxitto** → **Pattitto**: *Pattítto* (Luz.; bestela *Pátxi* erraten diote). Asimilazioa dukegu hemen.

7.1.3. [d̪] erabiltzea, [r], [r̪], [R], [d], [d̪]-ren ordain bustitzat

Honen kariatara, cf. Mendigatxak (Irigoien, 1957: 123) darabilen *mandoxko* edo *manddoko* 'mando ttipia': «Ekusten dud xiten dela akabalozko bat, mandoxko edo manddoko batian». Era berean, *dundu* 'urdira' izenondoa *ddunddu* edo *ddundduxka* bihur zitekeen, hitzunak nahi izanez gero: «Badigu erraitia *yunyuu*, gaiza amiñoaren; baitare *yunyusska*» (ibid., 125).

Hipokoristiko hauek kausitu ditut:

Andre (André), Andres (Andrés) → **Andde, Anddex**: *Ándde Duhalde* (kantaria, Uztaritzekoa), *Ándde Luberriaga* (Azkaineko auzapez ohia), *Anddèx* (Lei.), *Andde Sainte-Marie* (*He.*, 2003.XI-27, 8), *Andde Kurutcharry* (Baigorri, *He.*, 2004-II-25, 7), *Andde Darraidou* (*He.*, 2005-X-13, 3).

– **Domingo** → **Ddomingo**: *Ddomíngo* (Ari.–Aritz., NB), *Ddomingo* (Luz.; Sat., 1961: 214. *Yomingo* idazten du arruazuarrak). Elizondon *Yomingorena* azaltzen da 1727an, egun *Ddomingorena* idatziko genukeena segur aski.

– **Dominika** → **Ddominika**: *Yominica* (Garazi, 1893, Sat., 1971: 298), *Ddominika* (cf. Dirassar, 1995: 11).

– **Fernando, Ferrando** → **Ferrando**: *Ferránddo* (Luzaiden *Fernando* gehienak *Ferrando* dira); Xalbador bertsolaria ere (Urepele) *Ferrando* zen. *Ferranjo* (Etxamendi, 1988: 54, 75); Alduden *Ferrandoenebehere(a)* etxea zegoen (Etxepare, 1992: 260).

– **Kandelaria** → **Kanddelari**: *Kanddélari* (Les.).

– **Madalen(a)** (Magdalena, Madeleine) → **Maddalen**: *Maddálen* (Am., El.), *Maddalén* (Amiküze, Zub.; Ip. oro har), *Máddalèn* (Lei.), *Maddalén* (Luz.), *Maddalen* (Sak.er., Erdozia, 2001: 131), *Maddalen* (Minaberri, 1998: 21).

– **Maria (María, Marie), Mari** → **Maddia, Maia, Madda, Maddi**: *Maddí*, *Maddía* (Ami., Zub.; Ip. oro har), *Máddi* (Ara.; berez *María Gloria* da), *Máddi* (Ea., Ig., Luz.), *Máddi ElgáRtekwà* (Gamue), *Máddià* (Lei.), *Mádda* (Luz.), *Maddi* (Ea., Erdozia, 2001: 131), *Mayi* (Zubiri, 1990: 236), *Mayi* (Lafitte, 1982: 118, Landart, 1978: 16; Larzabal, 1991: 44), *Maddi* (Karrika, 1990: 183), *Mayi Jeanne*, *Mayi* (Treku, 1982: 15, 57), *Aiherrako Maji* (Larre, 2001: 276), *Mayi Dubarbier-Borda*, *Mayi Duhau* (Bes., Duhau, 2003: 406), *Maya Pochelu* (Haz., *He.*, 2003-X-9, 4), *Mayi Joantho* (Donoztiri, *He.*, 2003-X-9, 5), *Maddi Oihenart* (Zub., *He.*, 2003-XI-20, 3), *Maddi Beyrie* (Kanbo, *He.*, 2004-I-29, 4), *Mayi Elbuyar* (Bes., *He.*, 2004-VII-1, 4), *Mayi Noblia* (Sen., *He.*, 2004-X-28, 4), *Mayi Michelena* (Luhuso, *He.*, 2004-XI-11, 4), *Mayi Larraburuko* (Sara, *He.*, 2006-VIII-31, 4). *Máddi* forma *Madalena*-ren hipokoristikoa ere bada, behin edo beste; ikus beherago.

Hauekin batean, dokumentazioan, ondoko hauek ere opatu ditut:

– **Ernando** → **Ernando**. Luzaiden ageri da, 1763an, oikonimo batean: *Ernanyorena* (Sat., 1961: 213). Ehun urte beranduago ere azaltzen da: *Ernanyo Simón*, «*Ernanyo, casera*» (Sat., 1969: 94).

– **Predo** (< *Pedro*) → **Preddo**. Cf. Garaziko 1893ko eskutitzeko pasarteño hau: «Oray diela cembait ilabete gure nagauci (sic) preyoc saldu isandu 4 mila siquiro» (Sat., 1971: 298). Gutunaren egilea *Pedro Iribarne* zen, baina, sinatu *Preddo Iribarne* egiten zuen. Egungo *Peio*-ra iristeko bidea, edo bideetako bat behinik behin, hau izan daiteke: *Pedro* → *Preddo* (metatesiz) → *Preddo* (hipokoristikoa, sabaikaritia) → *Peddo*, *Peio* (izen ttipietan usu izaten diren kontsonante multzoen bakuntzeaz). *Pello*, berriz, eta aipatu den bezala, *Pero*-ren palatalizatzearen ondorena da, *Malli* hipokoristikoa *Mari*-renaren fruitu den moduan. *Pelo*, azkenik, *Pello*-tik atera dateke, soinu sabaikaritia despalatalizatzearen ondorioz, hasmentako *Pero*-rekiko lotura galdua baitzen orduko. Ikus [l] > [λ] pausoaz beherago diodana.

Etxe izenetan ere aurkitzen dugu palatalizazio hau Zaraitzun (*Boronddo*, *Menddi*, Mitx., 1967: 167) eta Luzaiden (cf. Lezeta auzoko *Bórddda* etxe izena, *Borya* 1770ean eta 1886an, Sat., 1965-1966: 28-29) argibidez. Hondarreko herri honetako Gaiñola auzoan *Bordelea* dugu, bertsolari entzutetsua izan

zen *Borddel*-en sortetxea (honetaz Sat., 1965 ikus daiteke). Toponimian ere eza-guna da aldakuntza; cf., erraterako, Hiriberri Aezkoako *Menddikoa* (NTEM-XXXIV, 188) edo Gaskueko *Mendditto* (NTEM-L, 106).

Horzkari ahostuna bustitzeko joera honi zor zaio, ultrazuzenketaz, zenbait hizkeratan aurkitzen ditugun *jeitzi* → *deitzi*, *jostetan* → *dostetan*-en modukoak, bai eta ere, besteak beste, Etxalargo egungo *Desóla* oikonimoa, *Iasola* XVII. mendean, *Jasola* XVIII.ean, *Iesola* XIX. eta XX.ean (Ap. & Sal.).

7.1.4. Hortz hobietako sudurkariaren bustitzea

Hipokoristikoak sortzeko beste bide bat hortz hobietako sudurkariaren bustitzea da, hots [n] > [ɲ] egitea. Kitxuak eragindako Peruko alderdi bateko gaztelanian (E. Tovar, 1942) zenbait kontsonanteren bustitzea gauzatzen da, besteak beste hemen aztertzen ari naizen [n] > [ɲ]: *Manuel*, *Manuela* → *Mañuco*, *Mañulin*, *Mañuli*, *Mañuquito*.

Hona hemen bildu ditudan datuak:

– **Ana (Ana, Anne → Annie) → Aña, Añi:** *Aña* (Aih., Amü., Itsasu-Aritz., Luz., Zub.), *Añi* (Amü.), *Aña* (Etxamendi, 1988: 75; M. Itzaina, Etxebarne, 1989: 7; Larzabal, 1991: 317; HUD, 1992: 322), *Aña Amestoy* (Ortzaize, *He.*, 2003-XI-20, 5), *Aña Motxoko* (Sen., *He.*, 2003-XII-25, 4), *Aña Costa* (Irisarri, *He.*, 2004-II-19, 5), *Aña* (Aih., *He.*, 2004-VIII-12, 5), *Aña* (Iholdi, *He.*, 2004-X-28, 5), *Aña Lafitte*, *Aña Marisco* (Bi., *He.*, 2004-XI-25, 5), *Aña* (Sen., *He.*, 2005-X-13, 4).

– **Anamari → Añamari:** *Añamari* (Eu.; ez da segurua), *Aña Mari* (Luzaideko gutunak), *Aña Mari Onchalo* (Uztaritze, *He.*, 2004-IX-30,4), *Añamari Intxaztoixipi* (Donaixti, *He.*, 2004-VII-22, 5), *Aña Mari Curutchet* (*He.*, 2005-X-6, 1), *Aña Mari Olaso* (Sara, *He.*, 2006-X-5, 4), *Aña Mari* (Ma.-Le., *He.*, 2006-XII-28, 4)

– **Aneta → Añeta:** *Añeta* (Zub.).

– **Arnaud, Arnault, Arnaut, Anaut, Ernaut → Añaut, Arño, Eñaut:** «*Aynaut, seynor de casa*» (Arboti, 1350-53, *CPBN*, 31. or.), *Aynaut* (Izura, *ibid.*, 42), *Arñó* (Amü., Luz., Zub.), *Arño* (Dirassar, 1995: 118), *Arño Gastanbide* (Aih., *He.*, 2004-II-19, 5), *Arño Beltzagi* (Aih., *He.*, 2006-IX-7, 5), *Eñaut* (NB, NVP, 585), *Eñaut de Lacabe* (Luz., 1787, Sat., 1961: 213), *Eñaut Inda* (Aldude; Etxepare, 1992: 259), *Eñaut* (Zubiri, 1990: 236), *Eñaut Urruti* (Arm., Landart, 1978: 15), *Eñaut Elizondo* (Donaz., Larre, 2001: 120), *Eñaut Inzaugarat*, *Arño Larre* (Banka, *He.*, 2004-XI-18, 5). Eiheralarren eta Luzaiden *Enaut* ere bazen (cf. egungo *Benát*): *Enaut de Azeritegui* (Luz., 1774, Sat., 1961: 213), *Enaut de Enuchans* (Eiheralarre, *ibid.*).

– **Austin, Austina** → **Austiñ, Austiña**: *Austiñ Korreoa* (Lei., Peru., 1996: 81), *Austiña Astibia* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 202), *Austiñ, Austiña* (Arano, ibid., 253, 263).

– **Beni(g)na** → **Beñina**: *Béñinà* (Lei.).

– **Bernardin, Bernardine** → **Beñardín, Beñadin, Beñardina**: *Beñadín* (gi., Haz.), *Beñardína* (em., Mithirina), *Beñardin* (em., Dirassar, 1995: 118), «*Beñadin Oyharzabal hazpandar apezza*» (Larre, 2001: 120).

– **Bernardo, Bernarda** → **Berñardo, Beñardo, Beñarda**: *Beñardaña* (Mezkirizko etxea, Ibarra, 2003: 131; ez dakit, halarik ere, hau ez ote den asimilazio atzerakariaren emaitza), *Beñárdo* (Am., Ara., El., Ig., Luz., Oitz, Sal., Zug.), *Joxe Beñardo* (Mitx., EIG-III, 122), *Berñardo* (Ain. & Etx., 2002: 223).

– **Bernart, Bernat, Benat** → **Beñat**: *Beñát* (Bi.–Aritz.; Ip.), *Beñát* edo *Berñardo* (Etxalekuko haurra; berezko izenez *Bernart* da), *Beñát IbáRnekwà* (Gamue), *Beñat Eyherabide*, *Beñat Olhatz* (Bes., Duhau, 2003: 406), *Beñat Mendiboure* (Irisarri, *He.*, 2004-VIII-12, 4), *Beñat Pascoual* (Uztaritzeko apezza, *He.*, 2004-VI-24, 4), *Beñat Abeberry* (Arbona, *He.*, 2004-X-28, 7), *Beñat Darretche* (Haz., *He.*, 2004-XI-18, 6), *Beñat Ondicol*, *Beñat Minhondo* (Bi., *He.*, 2004-XI-28, 5), *Beñat Noblia* (Heleta, *He.*, 2006-VI-8, 5), *Beñat Ansolabehere* (Aih., *He.*, 2006-VIII-31); *Beñat* ere bada Luzaide aldean. Herri honetan «yuanes surguinaineco berñaten condia» dugu Satrustegik (1969: 154) argitara eman zuen XIX. mendeko arotzaren kontu liburuan; hortaz, *Berñat* ere erabiltzen zatekeen. Barbierrek (1987: 227), Zubirik (1990: 55), Saint-Pierrek (1998: 75), Lafittek (1982: 112), Etxarrenek (1985: 64), Etxebarnek (1989: 57) eta Larrek (2001: 310) *Beñat* dakarte. Cf., gainera *Beñat Mendisko* armendariztar idazlearen izena. Arizkunen *Beñaténja* izeneko etxea dago egun.

– **Bidane** → **Bidañe**: *Bidáñe* (Itsaso).

– **Ernando** → **Erñando**: *Erñando* (Luz., 1800, Sat., 1961: 213).

– **Estanislao** → **Estanis** → **Extañix**: *Extañix* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256).

– **Fermin Antonio** → **Fermiñ Anttonio**: *Fermiñ Anttonio* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 219).

– **Fermina** → **Fermiña**: *Fermiña* (Lei., Peru., 1996, 158).

– **Fernando** → **Feñan**: *Féñan* (Ari.).

– **Imanol** → **Mañelo**: *Mañélo* (It.). Hemen irudi du izen zaharraren (*Manuel*-en) eta berriaren (*Imanol*-en) nahasketa zerbait gertatu dela. Bukarako bokala azaltzeko *Manuel*-en *Manolo* hipokoristikoa eragin diola kontu egin beharko dugu. Ikus *Manuel*-en eta antzekoen izen ttipiei eskainitako atalñoa, puntu honetan berean.

– **Inazio (Ignacio, Ignace), Inazia** → **Iñazio, Iñaxio Iñaxia**: *Iñáxi*, *Iñáxjo* (Ig.), *Iñáxjà*, *Iñáxjò*, *Áxjò* (Lei.), *Iñázjo* (Zub.), *Iñazio Rezola Bastida* (Baigorri, *He.*, 2004-XI-25, 5).

– **Joana, Joane, Juane** → **Maña, Mañe, Ñaña**: *Maña* (Lhande, 1926: 713), *Máñe* (Amü.; izen ofizialtzat *Jean du*), *Mañe* (Karrika, 1990: 22), *Ñaña* (L,

Lhande, 1926: 783; Iglesias, 2000: 282). Hemen, berriz, egungo izen ofizialen (*Jean, Jeanne*-ren) hipokoristikoak izen zaharretan (*Joana, Joane, Juane*-n) oinarriturik daudela ikusten da. Iglesiasek (ibid. 263) *Mañon* ‘petite Jeanne’ ere badakar. Euskaltzaindiak (2001: 278) *Maña* izena *Marina*-ren aldaeratzat ematen du. Amaiurren *Mañanea* oikonimoa ageri da 1726an eta 1825ean; egun *Mañaneko bórda* besterik ez dago.

– **Joakin** → **Joakiñ**: *Joakiñ Artxikonekoa* (Lei., Peru., 1996: 91), *Joakiñ* (Goi. eta Arano, Zubi. & Peru., 1998: 218, 257).

– **Joanes, Juanes** → **Ñañes**: *Ñañes* (orokorra, Lhanderen arabera, 1926: 783). Ikus *Joana, Joane, Juane* → *Maña, Mañe, Ñaña* atalñoan erran dadana.

– **Johane, Juhane** → **Johañe, Juhañe, Ñañe**: *Johañe, Jubañe* (Zub. Hemen *Johañe, Jubañe* ere badira, baina Jean-Louis Davantek diostanez, izen neutroak dira, hala soinu sabaikaria dutenak nola holakorik ez dutenak), *Ñañe* (Zub., Txomin Peillenek emandako datua), *Johañe* (Lhande, 1926: 711; Arbelbide, 1986: 46); ikus, gainera, NVP, 416. Mitxelenak dio (*FHV*, 210) aspirazioa zenbait aldiz euskararen beraren barnean garatu dela eta argibidetako zubere-rako *Johane, Johañe* ‘Juan’ aipatzen du.

– **Jose Fermin** → **Joxe Fermiñ**: *Joxe Fermiñ* (Lei., Peru., 1996: 120).

– **Jose Martin** → **Joxemartiñ, Joxematiñ**: *Joxemartiñ, Astaitzako Joxematiñ* (Lei., Peru., 1996: 77, 165).

– **Juan Fermin** → **Juan Fermiñ**: *Juan Fermiñ* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 257).

– **Katalin, Kattalin** → **Kattaliñ**: *Kattaliñ* (Lei., Peru., 1996: 87).

– **Manes, Manez** → **Mañex, Mañez**: *Mañex, Mañez* (Luz.; ikus Sat., 1961: 226), *Mañex* (Zubiri, 1990: 52; Lafitte, 1990: 252, 254); *Manex* ere bada.

– **Manuel, (Em)manuel, Manuela, (Em)manuelle, Manula, Manoli, Manolo** → **Mañuel, Mañu, Mañolo, Mañol, Mañuela, Mañula, Mañoli**: *Mañwél, Mañóli* (Am.), *Mañólo* (Ara., Oitz), *Mañwél* (Ea., Ergoiena), *Mañól, Mañúla* (El.), *Mañóli, Mañúel* (Goi.), *Máñu* edo *Mañwél* (Ig., pertsona bera), *Mañóli, Mañúla* (Lab.), *Máñwèl, Máñwelà, Máñulà* (Lei.), *Mañwél, Mañúla, Máñu* (Les.), *Mañuel* (Izagirre, 2002: 54), *Mañuela Idieder* (Ma.-Le., *He.*, 2004-XI-18, 4), *Mañu Biscay* (Aih., *He.*, 2006-VIII-31, 5). Mezkitritzen *Mañuelaña* etxe izena dago (Ibarra, 2003: 131); ez dakit, dena dela, *Beñardaña*-ren kasuan bezala, ez ote gauden asimilazio baten aitzinean.

– **Maria Inazia** → **Maiñaxi**: *Maiñaxi* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 254).

– **Mariana, Mariane, Menane** → **Mariaña, Mañaña, Mañeña, Mañeñe**: *Mañaña* (NB), *Mañaña* (Sohüta, Euskaltzaindia, 1999: 177), *Mariaña* (L, Lhande, 1926: 715. Autore honek biltzen duen *Mariaño* badirudi *Marie*-ri hobe-ki doakiola *Marianne*-ri baino), *Mañaña, Mañeña* (ibid., 713), *Mañaña* (Ip., Saint-Pierre, 1998: 76; Lafitte, 1987 [1944]: 149). Etxamendik (1988: 94, 96),

Dirassarrek (1995: 72) eta Larrek (2001: 13, 109) ere badakarte *Mañaña*; hon-darrekoak *Mariena* edo *Mañaña* izeneko izeba aipatzen du. Beskoitzen *Mañeñe Duhau* eta *Mañeñe Olbatz* bizi izan ziren (Bes., Duhau, 2003: 406). Lafittek dioenez (1987 [1944]: 149), *Manana* aldaerak balio handigarria du; cf. *Totte* → *Tote*, *Mattin* → *Patin* (ibid.). Larzabalek ere badakar *Manana* izena (1991: 261). Cf. *Maiana*.

- **Martin** → **Martiñ**: *Martiñ* (Uztapide, 1976: 335).
- **Migel Joakin** → **Miel Joakiñ**: *Miel Joakiñ* (Lei., Peru., 1996: 93, 158).
- **Monika** → **Moñi**: *Moñi* (Arb.).
- **Noel** → **Ñoel**: *Ñoel Mendy “Mentaberria”* (Bes., Duhau, 2003: 406).
- **Saturdina** → **Xaturdiñe**: *Xaturdiñe* (Lei., Peru., 1996: 166).

Zubirik, gainera, *Moñiño*, *Mañiño* darabiltza (1990: 236, 341).

Etxe izenetan ere aurkitzen dugu sudurkariaren palatalizatzea: *Martiñabarro* (Otsagabiko etxea, Camino, 1997: 105), *Mariamamuñuela* (Zaraitzu, Mitx., 1967: 167), *Borda de Mañueliko* (Burgi, NTEM-XIV, 37); *Pelomartiño*, *Pellomartiño* Luzaideko etxea zen 1886an (ikus Sat., 1961: 217 eta 1965-1966: 30).

7.1.5. Izen ttipiak sortzeko beste bide bat: dardarkariaren bustitzea ([r], [r̄], [R] > [λ])

Errokarieran dardarkaritik ateratako alboko palatal batzuk kausitzen ditugu, erabat finkaturik irudi duenez, hots, oinarriko forma bihurturik: «Iriko gizon guzietarik eztud baizik laur zarrago; lauretarik bata dago utsitruk; eta berze irurak daude txotxatiar *ellotruk* xain-xaina» (Irigoien, 1957: 121; ‘eroturik’ alegia, etzana nirea da).

Kitxuak eragindako Peruko alderdi bateko gaztelanian (E. Tovar, 1942) ohikoa da kontsonante batzuk palatalizatzea, [r] > [λ] adibidez: *Laura* → *Laurita* → *Llita*. Polgek (1983: 120) dio esperantoz ere hipokoristikoak egiteko palatalak ibiltzen direla, baina ematen duen adibide bakarrean dardarkaria sudurkari palatal bihurtzen da, ez alboko palatal: *Mario* → *Maño* (*Mánjo*).

Bizirik dauden hipokoristikoak hauek dira:

- **Andres Mari** → **Apalli**: *Apalli* (Ea.).
- **Maria, Mari, Mariato, Mariko** → **Malli, Malliato, Malliko**: *Mallio de Narbart* (*Maria de Narbart*-en ama, Narbarte, 1530, Eo.p., 1, 105), *Malli de Larrazpe* (Larrazpe, Ul., 1549, Urritzola, 2006: 123), «*mjn* (*Martin*) *de musquiz e malli su muger*» (Lar., 1552, At.p., 1, 54), «*Maria de drendiayn dco. Mallia-*

to» (sic, Gerendiain Ultzama, 1552, At.p., 1, 123), *Mallico de Elso* (Eltso, 1565, Urritzola, 2006: 128). Abaurregainean bada oraindik *Malli*, Iñaki Caminok dioenez (1997: 333), *Mari* izenetik atera dena.

– **Jose Fermin** → **Joxepillin**: *Jóxepillin* (Lei.). Ez dakit, dena dela, kasu honetan sabaiko albokaria dardarkaritik bakarretik atera den edo *-rm-* multzotik.

– **Juan Pedro, Jean-Pierre** → **Juanpello, Panpilli, Pellelella, Pellele**: *Pànpillí* (Amü.), *Juan Pello* (Luz., 1969b: 73). Lhandek (1926: 841, 854) *Panpilli*, *Pellelella* eta *Pellele* jasotzen ditu *Jean-Pierre*-ren kidetako. Ikus ondoko sarrera.

– **Pero, Pedro, Pierre, Piarres, Pierru** → **Pello** (ikus NVP, 411-412), **Pillo, Pilla, Piella, Pelle, Piellu, Pillun**: *Péllo* (Am., Aniz, Ari., Arr., Ea., Eltz., Eu., Igoa, Ilarr., Lab., Oitz, Sak.), *Pèlló* (Lei.), *Pilla* (Amü.; izen ofizialtzat *Pierre* du), *Pjellú* (*Pjerrú* → *Pjellú*, Zub.), *Pjèlla* (Zub.; hau ere *Pierre* da), *Pillún* (Ami.; irudi luke honek baduela atzizkia ere, albokaritzea ez ezik). *Juan Çuri fijo de Pillo* (Aramaio-Arratzola, 1498; Bazán & Martín, 1999: 9), *Pello* (Aizpitarte, XVIII. m., Knörr, 1981: 96). Luzaideko arotzaren kontuetan «doraico pelloin condia» ageri da, hots, 'Doraiko (Doraia etxeko) Pelloren kontua' (Sat., 1969: 160). Lhandek (1926: 853-854) *Peillo* 'Pierrot', *Pello* 'Pierre', 'Pierrot' eta *Pierre*-ren txikigarritzat jotzen dituen *Pele* eta *Pelle* biltzen ditu (ikus errepikapenari eskainitako atalean diodana, *Jean-Pierre* → *Panpilli*, *Pepela* atalñoan). D. Intzak (1974: 65) Goizuetako esaera zahar batean jasotzen du *Pello*: «*Mitxekoko Pello arraultz-koxkor yale: yan ta klik! gezurra diok ik*». *Pello Zabaleta*, *Mikoneko Pello*, *Pello Astibia* (Lei., Peru., 1996: 10, 120, 183), *Arotxan Pello* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 226).

– **Pedro Inazio** → **Pelloinazio**: *Pello Inazio Barunena* (Lei., Peru., 1996: 193).

– **Pedro Jose** → **Pellojoxe**: *Pellojoxe, Obillosko Pedrojoxe Ariztimuño* (Lei., Peru., 1996: 18, 35).

– **Pedro Juan** → **Pellojuan**: *Pello Juan* (Luz., Sat., 1969b: 73)

– **Pedro Mari** → **Pellomari**: *Pèllomári* (Ari., Eltz.), *Pellomari Morras* (Lei., Peru., 1996: 10).

Dokumentazioan, berriz, ondoko hau aurkitu dut:

– **Auri(a)** → **Aulli**: *Aulli* (Espartza Zaraitzu, 1576), *Aulli Echeverri* (Ezkaroze, 1576, Espartza Zaraitzuko eliza artxiboa, Bataio libururik zaharrena, 11. org.).

Ez dakit *Arnalde* > **Arlande*, *Erlande* → *Allande*, *Ellande* zeharo aurrekoak bezalako kasua den (ikus NVP, 411 eta Salaberri, 2003: 180). Satrustegik dio *Ellande* egun *Fernando*-ren baliokidetzat ematen dela (1961: 213). Lafittek (1990: 122), aldiz, *Allande Oihenart* deitzen du Zuberoako euskal idazle ezagu-

na, bere izenez *Arnaud* zena; Lhandek (1926: 37) *Allande*, *Ellande* formak *Arnauld*-en euskarazko kidetako ematen ditu, eta Txomin Peillenek *Allande* Zuberuoa *Arnaud* dela diost. *Allande*, *Ellande* eta *Allandu* izen usaiakoak dira egun: *Allände* (Zub.), *Ellände* (Amü.), *Alländu* (Etxahun Irurikoaren semea, Zub. Cf., bukaeraz kestione, *Battittu*), *Ellande Etxarren* (Uharte Garazi), *Ellande Alfaro* (*He.*, 2004-II-25, 7); literaturan ere agertzen da, espero izatekoa zenez (*Ellande*, Barbier, 1987: 119). Lehenbiziko *Ellande* Donibane Garazin aurkitu dut, 1412-13. urtean: «[...] onz demore Eyllande, lo bureler» (*CPBN*, 105. or.).

Honelakoetan despalatalizazioak, menturaz, kontrako ñabardura itsastean dioke izenari: *Pele* (Ip., Lhande, 1926: 854), *Juan Pelo* (Luz., Sat., 1969b: 73), *Pélo* (Luz.). *Péjo* ohikoa da Iparraldean (Lhande, 1926: 853); Luzaiden *Péjo* (eta *Juan Peio*, *Peio Juan*, Sat., 1969b: 73) aldaera ere usaiakoa da eta *Péllo*, berriaz, bakana. *Peio*, dokumentazioan, lehenengoz 1381ean ageri da, nik dakidala: *Peio Miguel* (Zabaltza, NB, Goih., 1966: 129). Duhauk Senpereko *Peio Chipi* izan zuen laguntzaile edo sustengatzaile (2003: 407).

7.1.6. Hortz hobietako albokoaren palatalizazioa

Hipokoristikoak erdiesteko beste bide bat hortz hobietako albokoaren palatalizatzea izan da ([l] > [λ]), baina ditudan lekukoak ez dira anitz. Badaiteste dokumentazioko franko kasutan irudikeria hutsa izatea, hots, arazo grafiko hutsaren aitzinean egotea, baina albokoaren bustitzea oikonimoetan ere gertatzen da, eta oikonimiatik kanpo ere ezaguna da, zenbait hizkeratan. Inoiz, oraingo datuetan, palatalizazioa automatikoki burutu dela irudi du, hots, ez duela balio adierazkorrik: *Teopillo* (Teofilo) (Azpiroz, 1997: 23); antzeko zerbait agitzen da Benasquen, itxura duenez (Saura, 1999-2000: 172). Kitxuak eragindako Peruko alderdi bateko gaztelanian (E. Tovar, 1942) arrunta da zenbait kontsonante bustitzea, [l] > [λ] erraterako: *Aurelio* → *Aulli*, *Laurencio*, *Laurentino* → *Llauri*.

Datu gutxi hauek bildu ditut:

- **Apolonia**, **Polonia** → **Polloni**: *Pollóni* (Am., Ig.).
- **Dolores** → **Dollores**: *Dóllorès*, *Llóllo* (Lei.), *Llóllo* (Les.).
- **Felipa**, **Felipe**, **Pedro Felipe** → **Fillipa**, **Pellipe**, **Pillipe**: *Fellípe* (Ea.), *Fillípa* (Ig.), *Pillípè* (Lei.), *Pellípe*, *Anttonio Pillipena* (Lei., Peru., 1996: 61, 206).
- **Karlin** (*Karlos*) → **Kallin**: *Kallín* (Lei.).
- **Maloles** (*María Dolores*) → **Mallo**: *Mállò* (Lei.).
- **Pedro Felipe** → **Pellopillipe**: *Péllopillipè* (Lei.).

Dokumentazioan ondoko hauek opatu ditut:

– **Gil** → **Gill**: *Gill Lopiz de Yriuerry* (Hiriberri Garazi, 1292, Goih., 1966: 135), *Diego Gill* (Done Bikendi Harana, 1504; Po., 1998: 392).

– **Katalina** → **Katallina**: *Catallina de arranibar*, *Catallina de hoa* (Orio, 1594, Ezkurdia, 1978: 65).

– **Lope** → **Llope**: «*don Llope Perez, clerigo e cura*» (Done Bikendi Harana – Kontrasta, 1332; Po., 329).

– **Migel** → **Migell**: *Pero Miguell* (Done Bikendi Harana, 1308; Po., 1998: 321), *Miguell de Sant Adrian*, *Miguell Sanches Ynnego*; *Miguell de Çabalegui* (Segura, 1374, D.Sal., 35), *Miguell de Lecuona*, *Juan Miguell de Leyçarraga* (Erre., 1406, C. & C. & G., 1991, 27), *Miguell de Murua*, *Miguell de Elorequi* (Legazpiko ibarra, 1483, Aierbe, 1993, 34, 121. or.).

– **Mikele** → **Mikelle**: *Miquelle Malanasta*, *Miquelle d’Inçe* (Bera, 1366, LPN, 567).

Luzaideko hizkeran oinarrizko bilakatu diren *polliki*, *pollita* daude (lehen adierazkor bihurtzeko *pollikiño* erran behar orain; bigarrena normalean bere horrela erabiltzen da), eta Baztanen *llagurre* ‘laburra’ oinarrikoaz landara (Izeta, 1996: 122), *kattillue* ‘katilua’, *lepua* ‘lepoa’, *llo* ‘loa’, *lloria*, *lloyia* ‘lorea’, *pollitte* eta *ullie* ‘eulia’ ere baditugu hizkera adierazkorrean, hurrekiko solasean eta (Salaburu, 1984: 119-120). Beste herri batzuetan ere gauza bera dugu; cf., erraterako, Goizuetako haur hizkerako *llo* ‘loa’ (Zubiri, 202). Zaraitzuko oikonomian ere [l]-ren palatalizazioaren fruitu den [ʎ] ageri da: *Allaman*, *Ballero*, *Gallant*, *Llanda*, *Pollit* (Mitx., 1967: 167; Camino, 1997: 104-105); hemen, bistan denez, balio adierazkorra du palatalak. Erronkaribarko Garde herrian *allorco* ‘alor ttikia’ toponimoa azaltzen da 1722an (*NTEM-XIV*, 235).

7.2. Izen ttipiak egiteko bigarren bidea: atzizkiak

Hipokoristikoak eratzeko beste bidea atzizkien erabilera izan da, batzuetan hots sinbolismoaz lagundurik, erran bezala. Berrekailuak baliatzea ez da inola ere gauza berria; Erdi Aroan, ikusiko dugun gisa, ohikoa zen, orain baino areago, eta irudi duenez aztura hau lehenagotik heldu zaigu, Akitanian ere aurkitzen baititugu (ikus Mitx., 1954, Gorr., 1984). Alabaina, Lakarrak (1995: 202, 2006: 270, 2006b: 601) eta Gorrotxategi & Lakarrak (2001: 412, 417) erraten dute gure hizkuntzan, denboraz, aurrizkiak ez ezik atzizkiak ere aski urriak zirela, baina 1995eko eta 2001eko lanetan behintzat aitzineuskaraz eta aurre-aitzineuskaraz ari dira (akitanieran ere ez ziren biziki ugariak), ez nik aztertu dudana garaikoaz. 2006bkoan eta 2007koan Lakarrak erraten du lehen mendeetako euskal testuetan eta beranduagoko herri testuetan eratorpen atzizkiak gutxi ibiltzen eta ezagutzen zirela eta haien –atzizkien– lekua hiztegiak zirela, Pouvreaurena eta Larramendirena, adibidez. Hau, jakina, ez dator bat nik antroponimian ikusi du-

danarekin, lan honetan agertzen diren atzizki ugariek argi adierazten baitute, pertsona izenen arloan behinik behin, guztiz arruntak zirela, txitean-pitean erabiltzen zirela. Nafarroako egungo euskaran ere anitz dira birao eta iraintzeko hitzetan azaltzen zaizkigun berrekailu eta berrekailuak (Salaberri & Zubiri, 2007).

Atzizkien erabilera edo *amplification* delakoa beste hizkuntza batzuetan ere ezaguna da, laugarren atalean ikusi dugun moduan; mazedonieran, erraterako, *-a*, *-e*, *-o*, *-ka*, *-ke*, *-ko* eta beste ibiltzen dira (Gulevska, 2002). Gai honetaz mintzo delarik honela dio Seemanek (1983: 241):

«Amplification is accomplished by suffixes, plentiful and varied in most languages. Suffixes are a form of endearment used in “lall” names and “pet” names. While lengthening the word, they connote diminutiveness, analogous to what psychiatrists call “reaction formation”, the representation of something by its opposite».

Hurrengo datuetan ikus daitekeen bezala, historian zehar erabili diren atzizkiak gaur egun erabiltzen direnak baino anitzez gehiago dira, hemen ematen diren guztiak, denak batean, inongo hizkeratan egon ez badira ere indarrean. Erran daitekeela uste dut garai bateko euskaran egun baino aise berrekailu gehiago zirela, eta beraz, aieka honetatik, pobretzea gertatu dela. Nolanahiko gisan, egungo erabilera dela eta, harrigarriro, Hasselrot (1957: 18) kexu ageri da, atzizki ugaritasuna ikusirik, antza («il y a tant de suffixes diminutifs en basque!»).

Dokumentazioko atzizkietako batzuk bakunak dira, baina beste batzuk, anitz egia erran, bikunak edo hirukunak ditugu, hots, beren baitan berrekailu bakun bat baino gehiago dituzte. Honelakoetan, maiz, zaila da osagaiak zein diren zehaztea, usu aukera bat baino gehiago daudelako gauzak azaltzeko. Atzizki batzea ohikoa da gaztelanian (cf. *chiquitico*; ikus Zamora, 1945: 544-555, González Ollé, 1962: 205-207), Valentzia aldean (Sopeña, 1990: 454), Gaskuñako hizkeretan (Rohlf, 1951: 471) eta hala zen frantsesean ere, beste orduz: Michaelssonek (1939: 113-114) *Pierre*-tik eratorritako *Pierrotin* (cf. *Pierrot* eta *Perrin*) «diminutif réitéré» delakoa aipatzen du Erdi Aroko Parisen; horretaz gainera *Garnotin*, *Guillotin*, *Margotin*, *Perrinet* eta *Robinet* ere ematen ditu. Beste hizkuntza batzuetan ere ohikoa da atzizkiak errepikatzea: Πουδί-σ-κος 'mutikoñoa' grekoz, *drzewe-s-ko* 'zuhaixka' polonieraz (Tovar, 1985: 460).

Berrekailu batzuen etorkia ezin da euskaran berean bilatu, dudarik gabe inguruko latin hizkuntzetatik hartu baitzituen gureak (*-eta*, *-iko*, *-in*, *-on*, *ot(e, a)*...), baina, zernahi gisaz, garbi dago mailegatuak izanagatik ere euskarak bereituak zituela, maiztasuna handia zutelako lehenik, «jatorragotzat» har daitezkeen beste batzuekin elkartzen zirelako edo aldameneko mintzairetan ageri ez diren elkarretaratzeak kausitzen ditugulako gero (*Joanetako*, *Joanikote*, *Joanikotxea*, *Maritonko*...), euskal izentzat har daitezkeen oinarriekin azaltzen direlako hirugarre-

nik (*Mitxelet, Otxoeta, Semeret...*), eta oraindik ere euskaldun diren edo berriki arte euskaldun izan diren herrietan agertzen direlako buruenik (*Blanquina de yrurcun, Irurtzun; Sançin de Jaureguigoyhen, Duzunaritze-Sarasketa...*). Erran bezala, ez dut zalantzan jartzen atzizki hipokoristiko horietako batzuen etorkia gure inguruko latin hizkuntzetan bilatu behar dela, ez eta euskararen auzo horietan usaiakoak zirela ere, zeren Hasselrotek dioenez (1957: 14) «les suffixes hypocoristiques s'empruntent avec la plus grande facilité d'une langue à l'autre». Bego hau garbi.

Ondoko atzizki eta lekukotasunak aurkitu ditut:

7.2.1. -(a)ga, -(a)ge

– **Katalinaga** (*Katalin, Katalina*): «*Yten mando a Catalinaga de Basauri yja de Sancho de Basauri*» (Oñ., 1520, Zu., 1998: 406). Cf. Mitxelenak (*AV*-en eta bestetan) *-aga*-ren balioaz dioena, antroponimoei itxekita agertzen delarik (*Feloaga*).

– **Paskoalage** (*Paskoala*): «*Pascoalague de Muniue, e si la dicha Pascoalague [...]*» (Mark., 1513, Enríquez, 1989, 48).

Irigoienek (1995: 25) Bilboko auzoa den *Txurdinaga*-n *Txurdin* pertsona izena eta *-aga* atzizki toponimikoa daudela uste du, eta badirudi hizpidetan dagoela. Nolanahi ere, mendebaldeko euskara mintzatzen den alderdian *Katalinaga* eta *Paskoalage* izateak *Txurdinaga*-n antzeko zerbait ez ote dagoen pentsarazten dit. Euskal toponimia pixka bat ezaguturik, ordea, uste dut hobe dela Begoñako auzoan *-aga* toponimikoa ikustea, oraingoz bederik.

7.2.2. -(a)ndo, -(a)nda

Atzizkia *-ndo, -nda* dela irudi du (cf. toponimian agertzen den *Zubindoa* eta Azkuek *Morfología Vasca*-ko 204. orrialdean bildu Orbarako *xubingoa*). Hau honela bada *Garzando, Otxando, Otxanda*-ren modukoak **Garzeando* (< *Garzea* + *-ndo*), *Otxoando* (< *Otxoa* + *-ndo*), *Otxoanda* (< *Otxoa* + *-nda*) bezalakoetatik atera izanen dira, *-oando, -oanda* segidatik alegia. Honek, dena dela, aipatu izenendako balio dezake, baina ez dirudi *oilasko, oilanda*-ren moduko izen arruntak *oiloa* + *-sko, -nda*-tik irten zirela pentsa daitekeenik. Azkuek (*MV*, 200-202) *-anda* (*exkanda* 'haritz txikia' < *arizkanda; oilanda, urdanda*; Gari-*baik* bildu zuen *Otxanda* ere jasotzen du: *Artekalean andra Otxanda Gabiolako*) eta *-ando* aipatzen ditu, bai eta horiekin erlazonaturik dauden *-kanda, -kando* ere, *-anga, -ango*-z landara. Zernahi dela, *-ngo, -nko* (erronkarierazko aldaera) atzizkia ere ematen du (ibid., 204), hots, *gorringo, zuringo* (*gorrinko, zurinko*), *potxingo* – *potxongo* 'putzu ttikia', *xubingo* eta *zorongo* 'erokka' hitzetan duguna.

Mitxelenak dio (AV, 510) *Otxanda Otxoa*-ren femeninoa dela eta *-(a)nda* atzizkia *oilanda*-n dugun bera dela; *Otxando* gizonentzako aldaera erdal eraginari zor zaiola uste du. Beste lan batean *-nda* atzizkia aipatzen du (1954: 428) eta *-nta*-tik eratoritzen; gero, inoiz *-nda*-tik *-nga* atera zela dio (*urdanda* > *urdanga*). Irigoienek (1995: 21-22) *-ndo*, *-nda* ematen ditu eta Azkuek Erronkarin eta bestetan jaso zituen *ezkilanto* ‘ezkila txikia’, *oillanta* ‘oilanda’, *pitxeranto* ‘pitxer txikia’, *urdanda* ‘emagaldua’ aipatzen. Díez Melcónek (1957: 126), Mitxelenaren ildotik, *Oggando*, *Oçando*-z ari delarik erraten du *Otxanda*-ren gizonentzako aldaera erdaldundua dela.

Ondokoak dira bildu ditudan datuak:

– **Garzando** (*Garze*, *Garzea*): *Guarçando* (Muru, Artieda ondokoa, 1178, Leire, 341), *Garçando de Iturgoien* (Iturgoien, 1213, GPrior., 149), *Garçando* (1215, Ost., 38). Ikus Irigoien (1982: 628).

– **Losando**: *Losando* (Oñ., 1149, Zu., 1994, 1, 2. or.). Dudazkoa da.

– **Otsanda**, **Otxanda** (*Otxoa*, *Otxo(a)*): *Ochanda* (1243, Ost., 116), *Osanda Gorria* (Artaxoa, 1330, LPN, 294), *Ochanda de Careaga* (Mark., 1471, Enríquez, 1989, 4), *Ochanda de Asconiza*, *Ochanda de Ciaran*, *Ochanda de Izurategui*, *Ochanda de Ocomardia*, *Ochanda de Zubillaga* (Oñ., 1489, Urkixo, 1912: 57), *Ochanda de Egurrolla* (Mutriku, 1504, Fdez. & Mont. & He., 2007, 57, 121. or.), *Ochanda de Mendraca* (Elorrio, 1514, Enríquez et al., 1997b, 113. or.), *Ochanda de Aroca* (Dur., d.g., Hid. et al., 1989c, 223, 943. or.). Sarasibarren *Ochandarena* oikonimoa ageri da 1639an (Ue.p., 40), *Ochandarena* 1677an, *Ochandenecoa* 1726an, *Otxandorena* egun (Ibarra, 2002: 510); 1726an *Ochandarena* zegoen Saldiasen. Ormaetxeak (1976: 151) «*Kaskazuri'ren Otxanda*» ‘Ochanda, la hija de Peli-blanco’ dakar.

– **Otsando**, **Otxando**: *domno Ossando* (Larrasoaña, 1041-1051, VM, 34), *Oxando* (Art., 1173, 130), «*Michele filius de Ochando*» (1210, Iratxe, 253, 271. or.), *don Ochando* (Berriain-Subitza, 1379, Mar., 328). Ikus Kremer-ek dioena, *Lopako*, *Lopeko* sarreran. *Ochandorena* Aldazko oikonimoa zen 1726an eta deitura ezaguna da egun.

– **Otxoando**, **Otxoanda** (*Otxoa*): *Ochoando*, *Ochoanda* (eta *Ochoan*, Del Valle, 1933: 177).

– **Zurindo** (*Zuri*). Irurreko *Zurindoain* herri hustuaren izenaren oinarri zegoen; ikus Salaberri (2000: 130).

7.2.3. **-(a)ndako** (< **-(a)nda + -ko**)

– **Otxandako** (*Otxoa*, *Otxanda*): *Ochandaco* (Orreaga, 1366, LPN, 488). Hemen atzizki konposatu baten aitzinean gaude, bistan denez, baina badirudi, berriro ere, bi osagaiak ez zaizkiola aldi berean itsatsi izenari, hau

da, *Otxandako*-ren etorkia, etorki hurbila, *Otxanda* zatekeen, ez *Otxoa*. Ikus *-ko* atzizkia.

7.2.4. **-(o)teko** (< **-(o)te** + **-ko**)

– **Otxoteko** (*Otxote*): *Ochoteco* (Done., 1366, *LPN*, 569); oikonimian ere ageri da: *Joanes de ochoteco* (Les., 1587, At.p., 6, 65). Hemen *Otxo(a)* + *-ote* + *-ko* dituzkegu, edo *Otxo(a)* + *-te* + *-ko*. Atzizki konposatua eramateak, bestalde, ez du erran nahi horren osagai guztiak aldi berekoak direla; alegia, badaiteke *-ko* berrekailua orduko eratorria zen *Otxote*-ri erantsi izana, Irigoienek (1995: 16) nahi zuen bezala. Arazo hau orokorra da, hots, atzizki konposatu gehienxkoenetan kausitzen dugu, hasmentan erran dudana bezala.

7.2.5. **-an**

Bi izenetan bakarrik aurkitu dut, eta biak azal daitezke beste modu batera; hortaz, zalantzakotzat ematea beste biderik ez dago:

– **Gastean** (*Gastea*-tik): *Gastean Balestaria* (Ollogoien, 1350, *LPN*, 363). Irigoienek (1982: 624) hondarreko bokala galdutako **Gasteani*, **Gasteane* / **Gasteano*-tik eratoritzen du; jakina, honela balitz ezin eman genezake hipokoristikotzat. Cf., bestalde, *Gassian* (*Gassian de Sorheburu*, Donoztiri, 1401, Goih., 1966: 255).

– **Petran** (*Petri*-tik? *Beltran*, *Bertran*-etik ere erator liteke, apika. Cf. *Petan*, *Pettan*): *Petran de Yancia* (Don., 1559, Jimeno, 1998: 232).

7.2.6. **-degi**

– **Joandegi** (*Joan*): «*a Machin de Muru e a Miguel de Aravaolaça e Joandegui de Vergaraeche*» (Legazpi–Segura, 1483, Aierbe, 1993, 35, 130. or.)

7.2.7. **-do**

Itxuraz *-to*-ren ozen ondoko aldaera da. Mitxelenak (*AV*, 180) «adiera zehaztugabea» duen *-da* atzizki toponimikoa ikustean *Bizcardo*-n ageri bide den *-do* aipatzen du, zein hizkera arruntean ere azaltzen baita: *mok(h)or* / *mok(h)ordo*, *uger* / *ugerdo*... De Rijkke (1998: 358-359) muga adlatiboaren marka aztertzean *ezkerdo* jasotzen du eta dio ‘ezkerretara’ adiera zukeela hastean. Mitxelenak aipatzen duen *-do*-rekiko lotura badenetz ikustea ezinezko iruditzen zaio, eta

Erretereriakoak bildutako elei *bizardo* ‘bizarduna’ edo, *gurdo* ‘guria, biguna’ (< *guri* ‘gantza’) eta *ezkerdo* gehitzen dizkie.

Irigoienek (1995: 4-6) *Bizkardo* («*la casa de labor de Bizcardo Arteché*», Gipuzkoa, 1857), *Ezkerdo* (*Garcia Ezquerdo*, Valbanera, 1108) eta *Gogordo* («*la casa de labor de Gogordo*», Gipuzkoa, 1857) –*do*-z osatutakotzat ematen ditu. Zernahi dela, *Ezkerdo* izengoitia izan daiteke eta *Bizkardo*, *Gogordo* toponimoak. Mendebaldeko euskararen *bizardo* ‘bizarduna’ eta *ugerdo* ‘zikina, zoldaz betea’ izenondoak, *Lapurdo* toponimoa (> *Lapurdi*) eta *Ilurdo*, *Ilurde* antroponimoak ere aipatzen ditu. Bizkaiko euskaltzainak –*do* hau –*to* bera ote den galdegiten dio bere buruari (ibid., 5) eta erantzuten –*r*-ren ondoko ahostuntzea arrunt gertakari zaharra dela euskaraz. Ossau ibarreko Erdi Aroko dokumentazioan –*dolo*, –*dot* atzizki hipokoristikoak ageri dira (*Johandolo*, *Joando*), –*olo* eta –*ot* hutsa dutenen aldamenean (*Arramonolo*, *Johanolo*... Ikus Irigoien, 1995b: 31-32).

Hugaldek (2002: 332-333), de Rijken oinatzetan muga adlatiboaren marka aztertzen duenean, erraten du *ezkerdo*-n eta *ugerdo*-n azaltzen den –*do* atzizkiak igurzkarri ahoskabe ondoan –*to* aldaera duela (*koipezto*, *pekazto*), eta beti gorputz ezaugarri gaitzesgarria adierazten duela. Espainoleko *zurdo* ‘ezkerra’-n dagoen bera dela gehitzen du eta ez duela etimologia ezagunik.

J. Gorrotxategik (2003: 31, 33) erraten du Hagenbacheko zilarrezko xafiak kausitu arte ez zela segurua akitanieran –*do*- atzizki beregainik ba ote zegoen, nahiz *Gisondonis* (dat.) eta *Sembedonis* (gen.) lekukoturik egon, eta, nik atalño honetan egin dudan bezala, sudurkari ondoko ahostuntzetzat har zitekeela gehitu. Orain, ordea, *Carerdonis* (gen.) eta *Sembedonis* (gen.) ikusirik, garbi dago akitanieran –*do* atzizkia bazegoela, Gasteizko irakaslearen iritzian. Hogei ta hamar urte lehenago Andersonek (1973: 233) *illurdo* Ascoliko *illurtibas*-ekin lotu zuen (eta *Berástegui* Italiako hiri horretako brontzeko *bilustibas*-ekin; oroitu beharra da *agerdo* eta *burdo* ere ageri direla *Turma*-n: *nalbeaden agerdo f[ilius] / ordumeles burdo f[ilius]*).

Hurrengo lekuko hauek bildu ditut:

– **Joando, Juando** (*Joan, Juan*). Labaiengo *Juandonea* (1726), *Joánde-nià* ([j], egun) oikonimoaren oinarrian da.

– **Matxindo** (*Matxin*). Gaintzako 1568ko *Machindo*-n dago (HA.p., 2), eta Aldazko 1726ko *Machindena*-n ere bai, antza duenez.

– **Migeldo** (*Migel*). Aurizko *Migueldorena* oikonimoan ageri da, 1794an eta 1796an (Sat., 1961: 218 eta 1965-1966: 33).

– **Zabardo** (*zabar* ‘utzia’, ‘nagia’, Irigoienen arabera [1995: 4]): *Zauardo submerinus* (Leatxe, 1193, VM, 36). Cf. *Fortunius Çabarra de Baranin* (Bara-

ñain, 1228, *GPrior.*, 207; hau, dena dela, *Jaun Orti Çaharra de Baranin* gisa ere ageri da, *ibid.*, 1226, 197) eta *Toda Maloa Çauarrdo, Johan Çauardo* (Artaxoa, 1330, *LPN*, 292).

Bestalde, *Bertrandeitz, Bertrandetz* patronimikoen oinarrian *Bertrando* zegoela kontu egin beharra dago, nire irudiko (ikus Salaberri, 2003: 164).

7.2.8. -el, -elo, -ela

Erromantzetik heldu den atzizkia da hau; ikus *-illo*.

– **Karbonel** (*Carbon*; cf. «*don Carbon, gener eius*», Mutiluri, 1167, Leire, 326): *Carbonel* (1157, Mont., 91).

– **Leonel** (*Leon*): «*Leonel, vizconde de Muruzabal*» (1413, Castro, XXX, 206, 100. or.). Del Valle Lertsundik (1933: 177) zaldun eleberriei egotzen die izen hau eta beste gutxi batzuk (*Floristan, Lanzarote, Tristan...*) erabili izanaren hobena.

– **Markiolo** (*Marki, Marko*): *Marquiolo* (Tutera, 1182; *GPrior.*, 52).

– **Peronela** (*Perona, Peirona*): *dona Peronela* (1282, Zier. & Ram., 1998, II.1).

Pielek (1948-49: 248) Erdi Aroko Galiziako *Kardellus* izena *-ellus* atzizkia dutenen artean sartzen du; Valpuestan *Cardellus* ageri da 939an (PS, 15, 34. or.) eta *Cardelus* 956an (*ibid.*, 32, 55. or.). Honen arabera, beraz, gure arteko *Gardele* (ikus Salaberri, 2003: 191), *Kardiel, Kardielle* eta beste multzo honetan sartu behar genituzke, nahiz oinarriko izena ez den, dakidanez, gurean inoiz agertzen.

7.2.9. -en

– **Adamen** (*Adam, Adame*): *Adamen* (Berbintzana, 1330, *LPN*, 239).

– **Gaxen, Kaxen, Gatxen** (*Gartxea, Gaxia, Gaxie*): *Gassen de Sarasqueta* (Dg., 1378, *Doc.Gasc.*, 127, 135. or.), «*Gassen seigneur de Sateritz*» (Isturitze, 1387, Goih., 1966: 252), *Gaxen de Santa Maria* (1399, *ibid.*, 381), *Caxen, Gaxen de Sant Esteuan* (Donoztiri, 1401, 1404, *ibid.*, 254), *Gatchen* (Aiziritze, 1412-13, *CPBN*, 77. or.), *Gatchen* (Mon., *ibid.*, 95. or.), *Cachen, Gachen de Borda(s)* (Oztibarre, 1428, Goih., 243), «*Gaxen, seinhor d'Arroqui*» (Uztaritze, 1428, *Doc.Gasc.II*, 335), *Cachen Echeuerce* (NB, 1428, Goih., 1966: 369).

– **Migelen** (*Migel*): «*Miguelen de la casa de Doray*» (Luz., 1428; Sat., 1965-1966: 26). Autore berak ondoko beste lan batean (1969: 71) «*Miguelen de la casa De Oray*» dakar.

– **Peien** (*Peio*): *Peyen d'Echeuerri* (NB, 1353, Goih., 1966: 369). Cf. *Peienaut* eta *Pegenauhea*.

– **Pelen, Belen, Pellen** (*Pele, Pelo, Pello*): «*Pelen, seynor d'Etchart*» (Sarrasketa, 1412-13, CPBN, 101. or.), *Pelen de Sant Steuan* (1414, Castro, XXXI, 308, 171. or.), «*Pelen de dinda en Oses*» (1587, D.p., 39), «*Esteban de ayzcoraguillearena hijo de Pelen*» (1603, Sunbillako bataiatuen liburua, 5. org.), «*Maria de ayzcoraguillearena hija de Pellen de Xoraxuria*» (17) (1605, *ibid.*), *Belen de Xoraxuria* (1611, 1613, Sunbillako ezkonduen liburua, 1602az geroztik, 74. org., 76), *Belen de Joraxuria* (*ibid.*, 1612). *Belen* hau gizona zela garbi dago: «*Juanes de Xoraxuria hijo legitimo de Belen de Xoraxuria y Maria [...] de la casa de Aizcoraguillearena*» (1608, Sunbillako bataiatuen liburua, 11. org.), «... *hija de belen de Xoraxuria y maria de ayzcoraguillena*» (1613, *ibid.*, 23. org.). Iglesiasiek (2000: 282) *Pelem* dakar eta dio –*m* horrek palatalizazioa adierazten duela; horrela izatera *Peleñ* irakurri behar genuke BABeko lekukotasuna. Cf., gainera, Zuberoako *Peillen* deitura.

7.2.10. -et, -ete, -eta

Kurylowicz-ek (1967: 5 eta hurr.) erraten du latineko –*īccus*, –*īccus*, –*accus*, –*ūccus*, –*ūccus* atzizki saila, honen parekoa den –*ittus*, –*ittus*, –*attus*, –*ūttus*, –*ūttus* bezala, hipokoristikoa sortzeko burutu ohi den izenen laburketaren («mutilation» darabil) ondorio dela, hots, eta konparaziorako, berez atzizkiduna zen *Bonicula* > *Bonica*-ren moduko batetik *Bonic-* edo *Bonit-* aterako zen lehenik, eta, hemendik, –*a* berrekailu femeninoaren eransketaren ondorioz, *Boni(c)ca* eta *Bonitta*. Ikertzaile honen irudiko, espainoleko –*ete* galorromanoari harturikako mailegua da.

Tovar-ek (1985: 462), Meyer-Lübkeri eta Hasselroti jarraikiz, erraten du –*ittus* berandu agertzen dela latinean eta txikigarri atzizkiak biziki maite ez dituen frantses hizkuntzan (ikus Dauzat, 1955). Michaelssonen arabera (1939: 112-113), Frantzian, Erdi Aroan, gizonentzako –*et* eta emakumeentzako –*ete* ziren arduenik erabiltzen ziren atzizki hipokoristikoa; Dauzat ere zentzu berean mintzo da egungo frantsesaz (1988 [1949]: 117).

González Ollek azaltzen du (1962: 191, 309) atzizkiak gaztelaniaz beti –*ete* forma duela –hondarreko –*e* fonologikoki egokitu beharri zor zaio– eta honek garbi frogatzen duela atzizkiaren kanpotar etorkia; hau aurkitzeko ez da aipatu autorearen iritzian frantseseraino joan behar, probentzeran, katalanean

(17) *Xoraxuria* oikonimoa Etxalarren eta Sunbillan dugu eta *Joraxuria* alderdi honetan hagitz hedaturik dagoen deitura da. Datu hauek Andres Iñigori eta Pello Apezteari zor dizkiet.

edo aragoieran kausi baitaiteke. Beste lan batean (1971: 488) erraten du, maiztasunari doakionez, 1353ko *El Libro del monedage de Tudela* delakoan *-et* dela bigarren atzizkia, *-ellus*-en ondorengoan gibeletik, baina hau baino izen desberdin gehiagorekin ibiltzen dela. Zierbidek dio (1970: 273) X-XV. mendeetako nafarreran atzizkirik ohikoena *-olo*, *-ola*, *-et*, *-eta*, *-iello* eta *-acho* direla.

Tovar-ek, González Olleren ildotik nonbait, azaltzen du (1985: 462) probentzeraz eta katalanez ere garapen handia izan duela (*homenet*, *caseta*). *Langue d'oc*-en eremuan ere ohikoa da *-et*, *-ette* / *-eta* atzizkia (Rohlf, 1951: 500, Fénié, 1992: 84-85, Grosclaude, 1992: 34, 36, 58, 61; Irigoien, 1995b: 31-32, Iglesias, 2000: 68, 263). Beider-ek dio (2001: 48) XIII-XIV. mendeetan Frantziako eta etorkia ipar Frantzian zuten Ingalaterrako juduen artean arruntak zirela *-et* (gi.) eta *-ette* / *-eta* (em.) berrekailua zuten izenak. Saurak (1999-2000) *Angeleta*, *Francheta*, *Juanet*, *Micalet*, *Mincheta*, *Mincholet*, *Pedronet*, *Peret*, *Petriquet*, *Remundet* eta beste biltzen ditu Benasquen, baina hauen aldamenean *-cho*, *-ico*, *-ic*, *-olo*, *-on* eta abar ere badirela gehitzen du (*Bernadico*, *Perico*, *Chuanico*, *Ramonic*, *Chanolo*). Gaztelaniako erabilerarako ikus Nález (1973: 46).

Mitxelenak dio (1969: 51) *-et*, *-ot* «derivados románicos de origen nord-oriental» direla eta euskarazko izenek, berriz, *-t(e)* aurkezten dutela, «con *-o*, *-e*, etc., del tema», hots, *-t(e)*, *-ot(e)*, *-et(e)*-z bukatzen direla. Zernahi gisaz, *-ot* euskarazko oinarri bati eratxikirik ere ageri da, *Garcheot*, *Garchot*-en errate baterako, edo euskararen iragazkitik igaro den *Machinot* aldaeran. Bestalde, zail iruditzen zait *-et*, *-ot* erdaratikakoak eta *-t(e)*, *-ot(e)*, *-et(e)* bereiztea. Errenteriarak *-et* atzizkia *-l* txikigarria duen izenari erants dakiokela gaineratzen du (ibid.), *Sancholet*-en eta *Garçolet*-en, erraterako.

Bizirik bakarrik hauek aurkitu ditut:

- **Aneta** (*Ana*, *Anne*): *Anéta* (Zub.). *Aníta* ere bada herrialde honetan.
- **Marianeta** (*Mariana*): *Marianéta* (Larrabile).

Gainerako lekukotasun guztiak historikoak dira, agiritatik jasoak:

- **Abramet** (*Abram*, *Abraham*): *Abramet* (Li., 1369, Ruiz, 2004, 2069, 316. or.).
- **Alfontset**, **Alfontxet** (*Alfontso*, *Alfontxo*): *Alfonchet de Sent Siice* (Dg., 1424, *Doc.Gasc.II*, 334).
- **Andregaileta** (*Andregaila*): *Andregaileta de Mezquiriz* (Iru., 1350, Ur., 1952: 90).
- **Andreu** (*Andreo*, *Andreu*): «*Pero Sanchitz, qui fu, per se e per Andreuet son fill*» (Li., 1333, *Sta.C.*, 24). Ez dakit Carrascok Guardian jasotzen duen *Andrenet* (1350, *LPN*, 341) ongi irakurria dagoen; horrela ez balitz *An-*

dreuet-en moduko baten ordainetan legoke. Zernahi gisaz, kontuan hartu beharra da Erriberrin ere *Andrenet* ageri dela (1264, Zier. & Ses., 1980: 218; 1416, Zier. & Ram., 2001, 29, 75. or. Azken hau *Andreuet* gisa ere azaltzen da, ibid., 1460, 53, 195. or.). *Andreu*, Grosclaudek dioenez (1992: 33), latineko *Andreas* izenaren okzitaniar aldaera da, gaskoia zehazkiago erran.

– **Antonet** (*Anton*): *Antonet* (Buñuel, 1353, Ur., 1961: 149).

– **Arnaldet** (*Arnaldo*): *Arnaldet* (Cortes, 1353, Ur., 1961: 143), *Arnaldet Pollan* (Iru., 1361, Leroy, 3, 10. zkia.).

– **Arramonet, Arremonet, Erramonet, Ramonet, Remonet** (*Arramon, Arremon, Erramon, Ramon, Remon*): *Ramonet Palmer* (Gares, 1265, DNLO, 50), «*Romonet, seynor de Goyen Eche*» (Larzabale, 1350-53, CPBN, 44. or.), *Arramonet, Erramonet duhart* (Maule, 1377, Zier., 1994: 226), *Romonet de Sault* (Duz., 1393, 1394, Goih., 1966: 127), *Romonet de Janitz* (Lekunberri Garazi, 1391, ibid., 146), *Arremonet de Sault* (Duz., 1406, ibid., 127), *Romonet de Aguerre* (1413, Castro, XXX, 94, 47. or.), *Romonet de Vidarray* (ibid., 125, 61. or.), *Romonet de Esparza, Romonet de Atondo* (1414, ibid., 226, 121. or.).

– **Aznaret** (*Aznar*): *Aznaret* (Iru., 1350, Ur., 1952: 94).

– **Baldoineta** (*Baldoina*): *Baldoineta* (*Miguel Baldoyn-en* alaba, Li., 1295, *Sta.C.*, 3).

– **Baronet** (*Baron*): «*Baronet et Semeno*» (Arlas, c. 1147, Goñi, 256).

– **Basket** (*Basko*): *Basquet* (Behaskane, 1397, Goih., 1966: 269).

– **Berdolet** (*Berdol*): «*Johanc et Berdolet de Saut*» (Biarnoko Laneplaneoak, itxuraz; 1378, *Doc.Gasc.*, 95, 115-116. or.), *Berdolet* (Maule, 1377, Zier., 1994: 228). Cf. *Berdot, Bardot* eta *Bertolet*.

– **Bernardet** (*Bernardo*): *Bernardet* (Iru., 1293, Zab., 1997, 142, 209. or.), *Bernardet* (Auritz, 1363, Mar., 261).

– **Bertolet** (*Bertolo(meo, meu)*): *Bertholet* (Iru., 1310, CDSCernin, 38), *Bertholet de Bafaiz* (NB, 1368, Goih., 1966: 364). Cf. *Berdolet*.

– **Bertranet** (*Bertran*): *Bertranet de Suhare* (Maule, 1377, Zier., 1994: 224), *Bertranet d'Echeçahar* (Dg., 1378, *Doc.Gasc.*, 125), *Bertranet* (1393, Goih., 1966: 387), *Bertranet de Labez* (1412, Castro, XXX, 136, 245), «*Bertranet de Soraburu, señor de la sala de Lauez*» (1414, ibid., XXXI, 56, 31. or.).

– **Blanketa** (*Blanka*): *Blancheta* (Erriberri, 1393, Castro, XX, 16, 12. or.).

– **Bonet, Boneta** (*Bono, Bona*): *Bonet de Aguerrea* (Buztintze, 1189, Goih., 1966: 128), *Boneti de Besascen, B[onet] de Beasquen* (Behaskane, 1241, 1246, Raymond, 1873, 62 eta 135. or.), *Bonet* (Iru., XIII. m., Ubieto, 1954, 10. aurkia), *Andrea dona Boneta* (Tutera, 1366, LPN, 439). Egun *Boneta* deitura da Azkoienean eta Iruñean. Llullek dioenez (2005: 19), «era raramente usat entre els cristians, però bastant corrent entre els jueus». Hemen bururatzen zaidan galdera hau da: *Bonet* jatorriz *bonus*-en txikigarria den *Bonitus* sandu izenetik ateratako izen neutroa zen (ikus Dauzat, 1980: 52) gurean ala *Bono*-ren hipokoristikoa bizia (*Bona*-rena menturaz, *Boneta*-ren kasuan)?

- **Brunet** (*Bruno*): «*Brunet et Caluet*» (Li., 1144, Iratxe, 145, 166. or.).
- **Daunet, Dauneta, Doneta, Dainet** (*Daune*): *Andredauneta* (Gara-zi, 1208, Ost., 33), *Daunet d’Aranseta* (1249, Ip.; Orp., 1997: 178), *Doneta* (Amü., 1350-53, CPBN, 41. or.), *Daynhet* (Maule, 1377, Zier., 1994: 224), *Doneta de Çabaleta* (Ber., 1506, Lema, 2007, 48, 324. or. Autore honek honela dio: «Probable error por “Domenga de Çabaleta”»).
- **Domengeta** (*Domenga*): *Domengeta* (Iru., 1309, CDSCernin, 31).
- **Dominget** (*Domingo*): *Dominguet de Baztan* (Iru., 1366, LPN, 549), *Dominguet* (Egiarreta, ibid., 562. or.). Garraldan 1764an *Pedro Dominguetena* ageri da (Au.p., 37, 37).
- **Elbireta** (*Elbira*): *Eluireta* (Li., 1295, Sta.C., 3), «*Eluireta, filla de Pero Garcia*» (Ribaforada, 1353, Ur., 1961: 158).
- **Españete** (*España*): «*Lostau despaynhete de Sunat*» (Maule, 1377, Zier., 1994: 226), «*Lostau despaignete dorbaytz*» (ibid., 227).
- **Españolet** (*Español*): *Espagnolet de Mesparraute* (Martxueta?, 1383, Goih., 1966: 286), *Espainollet* (Oragarre, 1387, ibid., 289), *Espaynnollet de Salla* (Aiziritze, 1408, ibid., 262).
- **Estebanet** (*Esteban*): *Estebanet* (Glez. Ollé, 1971: 487).
- **Estebanieta** (*Estebania*): *Estebanieta* (Glez. Ollé, 1971: 487).
- **Falkonet** (*Falkon*): *Falconet* (Iru., 1350, Ur., 1952: 89).
- **Felizieta** (*Felizia*): *Felicieta* (Zier., 1970: 362).
- **Fortet** (*Fort*): *Fortet de Garro* (Gerezietza, 1370, Goih., 1966: 31), *Fortet* (Gü., 1412-13, CPBN, 80. or.). Zierbidek dioenez (1995: 213), *Saint Fort*-enganako jainera hagitz hedaturik zegoen Frantziako hegoaldean eta hego-mendebaldean.
- **Garzet** (*Garze*): *Garcet* (It., 1366, LPN, 569). Irigoienek dio (1982: 628) honen atzizkia *-t(e)* edo *-t(o)* dela, eta erromantzez *-et*-tako hartu dela.
- **Gasket** (cf. *Gaizko, Gaizto, Gaskon*): *Gasquet* (Iru., XIII. m., Ubieto, 1954, 4. aurkia).
- **Gilet, Gillet, Gilete** (*Gil*): *Gillet de Bantellu* (Iru., 1361, Leroy, 35, 124. zkia. = *Gil de Bantellu*, ib., 44, 171. zkia.), *Gilet d’Aroztegui* (Lekaroz, 1366, LPN, 533), *Gilete Marroquin* (XV. m., LGS, 389).
- **Gillemeta** (*Gillema*), **Gillomet** (*Gillem, *Gillom?*): «*Peiret et Guillemet, et de Marieta*» (Li., 1196; Jim. & Jim., 1998, 11, 18. or.), *Guillemeta* (Li., 1333, Sta.C., 24). Dauzatek (1988 [1949]: 120) *Guillemet* aipatzen du Frantziako hipokoristiko usuen artean, eta dio *Guillaume*-ren hegoaldeko *Guillem* aldaeratik abiatutik sortua dela.
- **Goillardet, Gallardet** (*Goallart, Gallart*): *Gaillardet de Lissaysine* (= *Gaillard d’Eliceitcine*, Arruta, 1378, Goih., 1966: 267; *Goyllart d’Elicaychine*, ibid., 1387), *Gaolardet de Biella*, *Goayllardet* (Dg., 1378; *Doc.Gasc.*, 102, 120. or.).
- **Grazieta** (*Grazia*): *Gracieta* (Estellerria, irudiz, 1269, DNLO, 54), «*Graçieta, filla de Andreo*» (Cascante, 1353, Ur., 1961: 172).
- **Isabeleta** (*Isabel, Isabela*): *Hisabelleta* (XIV. m., Iru., CDSCernin, 36).

– **Jakuet** (*Jakue*): *Jaquet de Falces* (1393, Castro, XX, 420, 180. or.).

– **Joanete, Joanet, Juanet, Joaneta, Juaneta, Xuanete** (*Joan, Juan, Joane, Juane, Joana, Juana*). Hau, zenbait aldiz behintzat, *Joane* + *-te* uler daiteke; hona lekukoak: «*Johanet fil don Pere iouen omne*» (Li., 1232, Jim. & Jim., 244, 327. or.), *Johanet* (Iru., 1253, *GPrior.*, 348), «*Peruquot e Johaneta, vostres enfantz*» (Li., 1327, *Sta.C.*, 19), *Johanet el carniçero* (Viana, 1350, *LPN*, 336), *Johanet* (Leizpar-tze, 1350-53, *CPBN*, 13. or.), *Johanet* (Ami., 1351, Goih., 1966: 308), *Johanet* (Nabaskoze, 1366, *LPN*, 480), *Johanet d'Arçi* (Iru., ibid., 549. or.), *Johanet el cape-ro* (Eo., ibid., 532. or.), *Johanet* (Maule, 1377, Zier., 1994: 227), *Johaneta* (Tafalla, 1416, Zier. & Ram., 2001, 29, 75. or.), *Jonet de Yarrça* (sic) (Deba, 1453, Her. & Bar., 2006, 46, 153-154. or.), *Joanete de Aizpee* (Zerain, 1470, Aierbe, 2006, 232, 85. or.), *Joanete de Gorostiçu* (Leintz ibarra, 1497, Le. & C. & La., 18, 207. or.), *Juaneta de Jarola* (Eo., 1530, Eo.p., 1, 28), *Joaneta de Elizalde* (ibid., 1538, 1, 117), *Joanet* (Hondarribia, 1580, H.V.B., 1960b), *Chuanete* (Ip., Goih., 1991: 301). Igle-siasek BABeko XVIII. mendeko *Joanet* jasotzen du (2000: 263); Oihenartek XVII. mendean atsotitz hau bildu zuen (268): «*Joanetac saia oihal mehes, iaquia ecosaris, salda ehes*». Ikus Txillardegí (1971: 268) eta Irigoien (1992: 48).

– **Julianeta** (*Juliana*): *Julianeta* (Iru., 1346, *CDS Cernin*, 23).

– **Jurdanet** (*Jurdan*), **Jurdaneta** (*Jurdana*): «*Don Jurdan et uxor eius domna Maria, et Jurdanet, filio suo*» (Eraul, 1176-1178, Irantzú, 225. or.), *Jurda-neta* (Li., 1366, *LPN*, 610).

– **Kalbet** (*Kalbo*-tik; cf. *Galbarra, Garbala*): *Brunet et Caluet* (Li., 1144, Iratxe, 145, 166. or.), *domino Caluet* (1148, Goñi, 258), «*Petrus de Orque-yen et Calbet frater eius*» (Orkoién, 1168, ibid., 318), *Caluet de Sotes* (1196, Leire, 358), «*Ochoco de Yrusso fratrem de Caluet*» (Iruxo, 1204, Iratxe, 236, 253. or.), *Caluet d'undiano* (Iru., 1262, *Sta.Eng.*, 2), *Laurencio Chaluet* (1234, Goñi, 581), *don Caluet* (Zan., 1318, Jimeno, 1973: 255).

– **Katerineta** (*Katerina*): *Caterineta* (Zier., 1970: 360).

– **Leonet** (*Leon*): *Leonet de Eraso* (1414, Castro, XXXI, 275, 151. or.)
Egun deitura da.

– **Lobet** (*Lobo*): *Lobet de Arberas, Lobet d'Arberaz* (NB, 1125, 1150-1167, Raymond, 1873, 79, 117; 63, 99. or., Goih., 1966: 265), *Lobet de Narbach* (Donamartiri, 1327, Goih., 1966: 258), *Lobet de Sant Johan* (Iru., 1350, Ur., 1952: 90). *Lobat* ere bazen (ikus beherago).

– **Lopete** (*Lope*): *Lopete* (Eultz, XIII. m., Irantzú, 253. or.), *Lopete* (Zier., 1970: 363).

– **Lorentzet** (*Lorentz, Laurentz*): *Lorencet d'Agorreta* (1362, Ruiz, 1998, 540, 211. or.), *Lorençet d'Iriuas* (Iru., 1366, *LPN*, 549).

– **Marieta** (*Maria*): «*Peiret et Guillomet, et de Marieta*» (Li., 1196; Jim. & Jim., 1998, 11, 18. or.), *Marieta* (Espartza Galar, XIII. m., *GPrior.*, 105), *Marieta* (Erriberri, 1244, Zier. & Ses., 1980: 288), *Marieta* (Etxabarri, 1352, *Sta.C.*, II-13, «*la dita Maria, aya una fija del dito Remon, la quoa ha por nombre Marieta*»), «*Johan Dieç [...] et la dicha Maria et Marieta lur fija*» (Berrotza, 1358, Irantzú, 227. or.).

- **Marineta** (*Marina*): *Marineta* (Berbintzana, 1330, *LPN*, 245).
- **Martinet** (*Martino, Martin*): *Martinet* (Iru., 1235, 1302 *DNLO*, 2, 123; *ibid.*, *GPrior.*, 348), *Martinet de Ilurdoz* (1413, Castro, XXX, 120, 59. or.; *irudi du Martiquet de Ilurdoz* bera dela), *Martinet de Mongelos* (*ibid.*, 125, 61. or.), *Martinet de Etunain* (*ibid.*, 224, 109).
- **Martinoiet** (*Martinoi*): *Martinoyet de Larregui* (Biarritz, 1498, Goih., 1966: 22, 23). Hemen –*di* okzitaniar atzizkia eta –*et* ditugu, *Martin* izenaz gainera (ikus Iglesias, 2000: 264).
- **Migelet, Migelete** (*Migel, Migele, Migelo*): «*Mjgueleit fillo de Rumeo baraylla*» (Erriberri, 1320, Zier., 1974, 144), *Migueleite de Thaffailla* (1457, *Doc. Gasc.II*, 351).
- **Mitxelet(e), Mixelet(e)** (*Mitxel, Mixel*): *Michelet Semeneitz* (Iru., 1259, Ost., 173), *Michelet du Four* (Dg., 1364, Goih., 1966: 328), *Michelet de Mares[c]* (*ibid.*, 1390, *Doc.Gasc.II*, 228 = *Miguel de Maresc*, *ibid.*, 1387, 219 = *Miqueu de Maresc*, *ibid.*, 220), *Michelet de Casenave* (1414, Castro, XXXI, 175, 91. or.), *Michelete* (Azkaine, 1451, Goih., 1966: 15).
- **Mongillemet** (*Mongillon, *Mongillem*): *Monguilhemet* (Maule, 1377, Zier., 1994: 227).
- **Monteseta** (*Montesa*): «*Montesseta ma filla*» (*dona Montessa* eta *Sancho d'Uli*-ren alaba zen, 1293, Ost., 322).
- **Moxilet, Mosilet** (*Moxil, *Mosil*): *Mosilet* (Dg., 1354; Goihenetxek aipatzen du, 1991: 303. *Mochil* eta *Mussila* ere biltzen ditu eta izengoitizat ematen), *Mosilet* (1354, 1355..., Dg., Goih., 1966: 326).
- **Mutilet** (*Mutil, Mutila-tik?*): «*L'ostau de Muthilet demorant Daurade*» (Dg., 1412-13, *CPBN*, 104. or.).
- **Nabarret** (*Nabar*), **Nabarreta** (*Nabarra*): *Nauarret* (Iru., 1310, *CDS-Cernin*, 38), «*Navarreta, muger*» (Arboti, 1350-53, *CPBN*, 31. or.), «*Navarreta, viuda de Bidallot*» (1413, Castro, XXX, 552, 268. or.).
- **Nikolauet** (*Nikolau*): *Nicolauet de Guerez* (1412, Castro, XXIX, 295, 152. or.), *Nicholauet de Esparza* (1413, *ibid.*, 61, 33. or.; hau *Nicholaut de Esparza* moduan ere ageri da).
- **Orieta** (*Oria*): *Orieta la juntera* (Buñuel, 1353, Ur., 1961: 150), *Orieta* (Cascante, *ibid.*, 172).
- **Otset** (*Otso(a)*): *Ego Osset Aierb* (Aragoi, 1150, Goñi, 260).
- **Otxeta, Otxoeta, Otsoeta** (*Otxoa, Otxo, Otxoa*): *Otxoeta de Berroeta* (Garazi aldean, 1249, Goih., 1966: 365), *Ocheta de Saragueta* (Iru., 1366, *LPN*, 550), *Ochoeta* (Larraga, 1330, *ibid.*, 236. or.). Goihenetxek (1991: 302) *Othsoeta* biltzen du Iparraldean Erdi Aroan.
- **Paskoale, Paskualet, Paskalet, Paskaleta** (*Paskoal, Paskual, Paskal, Paskala*): *Pascualet Mielco* (Buñuel, 1280, Zabalo, 1972: 51), *Pascalet* (Dg., 1293, 1294, Goih., 1966: 323), *Garcia de la paschal(e)ta* (Erriberri, 1314, Zier., 1974, 131), *Paskoale* (Berrotza aldea, 1358, Irantzu, 229. or.), «*Pascalet, fil de don Pelegrin de Jaque*» (Zan., 1350; *LPN*, 382), *Pascalet* (Cascante, 1353, Ur., 1961: 172), *Pascalet*

Crozat (1362, Ruiz, 1998, 406, 97. or.), *Pascalet* (Auritz, 1363, Mar., 261), *Pascoalet de Eguaras* (1413, Castro, XXX, 256, 125. or.), *Pascoallet* (ibid., 513, 250. or.).

– **Paskueta** (*Paskua*): *Pascueta* (Buñuel, 1353, Ur., 1961: 151).

– **Paulet** (*Paule, Paulo*): «*Paullet de Guillebatin, notre marchand de Pampelune*» (Iru., 1360, Ruiz, 1997, 242; frankoa zen, irudi duenez).

– **Peiret** (*Peir, Peire*): «*Peiret et Guillomet, et de Marieta*» (Li., 1196; Jim. & Jim., 1998, 11, 18. or.), *Peyret* (1269, DNLO, 55), *Peyret* (Berrotza, 1358, Irantz, 226. or.), *Peyret* (Lodosa, 1350, LPN, 329), *Peyret de Mont Gelos* (Mon., 1400, Goih., 1966: 149), *Peyret de Echarri* (Iru., 1412, Castro, 1962, 272). Indurainen *Peiret* oikonimoa ageri da 1726an.

– **Peironeta** (*Peirona*): *Peyroneta* (Iru., 1350, Ur., 1952: 90).

– **Peret** (*Per*): *Peret d'Arenguren* (NB, 1387, Goih., 1966: 361).

– **Peronete** (*Peiron, *Peron*): *Peronete de Garat* (Donu., 1364, Goih., 1966: 293).

– **Perrinet** (*Perrin*): *Perrinet Delcano* (NB, 1397, Goih., 1966: 367).

– **Peruxet** (*Peruxe*): *Peruxet de Sojo* (1414, Castro, XXXI, 196, 102. or.). *Peru*-tik abia bagintez atzizki konposatua *-xet* (*-x(e) + -(e)t*) dela pentsatu behar genuke.

– **Petret** (*Petro*): *Petret* (Kaseda, 1317, Zab., 1997, 268, 461. or.).

– **Ponzet** (*Ponz, Pontz*): *Poncet* (Li., Barr., 1997-1), *Poncet de Sola* (Bai., 1443, 1448, Goih., 1966: 108), *Ponçet* (Zier., 1970: 367).

– **Raulet** (*Raul*): *Raoulet* (1394, Castro, XX, 791, 342. or.),

– **Salbadoret** (*Salvador*): *Salvadoret* (Erriberri, 1244, Zier. & Ses., 1980: 288), *Salvadoret de Lucxa* (Lüküze, 1385, Goih., 1966: 284), *Salvadoret de Roncesvalles* (1393, Castro, XX, 542, 232. or.).

– **Sanet** (*San* 'Sant, Santz, Santxo'. Cf. *Sanes de Arabio*, Elorrio, 1511, Enríquez et al., 1997, 147. or. Cf. orobat *Sante*): «*Arnalt Sanç, dicho Sanet*» (Uhartehiri, 1350-53, CPBN, 33. or.).

– **Santsset** (*Sants*). Erratzuko *Sanssetena* oikonimoaren oinarrian dago (Ondarra, 1984: 18).

– **Santxet, Santxeta** (*Santxo, Santxa*): *Sancheta* (Estellerria?, 1269, DNLO, 54), «*Sancho Ferrandiç [...] ouo un fijo que'l diçian Sanchet*» (Piedramillera, 1358, Irantz, 228. or.), *Sancheta d'Estella* (Iru., 1350, Ur., 1952: 90). *Santxet*, irudi duenez, Aurizperriko 1644ko *Sanchetena* oikonimoaren oinarrian dago (ikus Ibarra, 2002: 500).

– **Santzet, Sanzet** (*Santz, Sanz*): *Sançet* (Iru., 1350, Ur., 1952: 90), *Sancet* (Erro, 1366, LPN, 469). Ibarrak (2002: 495) *Sançetena* oikonimoa bilzen du Olondritzen 1644an, *Sanzetena* 1726an, *Zanzet* bihurtua egun.

– **Semeret** (*Semero*): «*Semeret, casteyllano d'Utzcaric*» (sic, c. 1308, Zab., 1995, 257), *Semeret d'Agorreca* (NB, 1354, Goih., 1966: 359).

– **Simonet, Simoneta** (*Simon, Simona*): *Simonet* (Iru., XIV. m., *CDS-Cernin*, 36), *Simonet* (1363, Ruiz, 1998, 709, 360. or.), *Simonet* (1413, Castro, XXX, 858, 424. or.), *Simoneta* (Zier., 1970: 368).

– **Tomaset** (*Tomas*): *Tomaset* (Auritz, 1363, Mar., 261).

– **Txanet, Xanet(e)** (*Joan(e)*). Cf. *Txante, San, Sanet*: *Chanet* (1359, MD, 1971, 82, 84), «*Chanet d'Aparrayn, molier de Lassague*» (Izura, 1393, *Doc. Gasc.II*, 252), *Xanete de Lored* (XV. m., LGS, 361).

– **Uget** (*Hug(o)*): «*Vc de Concotz [...] Uguet mon filtz*» (1269, DNLO, 55), *Uguet de Licassoy*n (Iru., 1329, Barr., 52). Zierbidek (1970: 369) *Uchet* jasozten du eta dio *Hugo, Uco*-ren txikigarria dela. «Katalan herrietan» ere ageri da; Llullek dioenez (2005: 21), *Huguet de Ribesaltes* bizi zen 1341ean Mallorcan. Etorkiaz ere ikus azken lan hau.

1400. urtean *Bordat de Acxa* ageri da Ahatsan (Goih., 1966: 116); Grosclaudek (1992: 62-63) *Borde* biltzen du Biarno-Bigorretan eta honen eratorriak diren *Bordet, Bordeta* eta *Bordat* ere bai, besteak beste.

7.2.11. **-etako** (< **-eta** + **-ko**)

– **Joanetako** (*Joana*): *Johanetaco de dame* (Irur., 1537, Eo.p., 1, 112).

7.2.12. **-etillo** (< **-et** + **-illo**)

– **Joanetillo** (*Joan, Joane*): «*Pero de Çavalegui, e Iohanetillo su yerno çapateros*» (Segura, 1374, D.Sal., 35).

7.2.13. **-eto** (< **-et** + **-to**. Alabaina, *-eto* hau *-eta*-ren aldaera maskulinoztat har daiteke)

– **Simeneto** (*Simen*): *Simeneto* (Goih., 1991: 303). **Ximene*-ren tanke-rako batetik abiatu-rik azaltzea hobe ote? Cf. *Xemine (Xemine Nicolay, Berbin-tzana, LPN, 242)*. Kasu honetan *-to* genuke, ez *-eto*.

7.2.14. **-eton** (< **-et** + **-on**)

– **Xaneton** (*Joane, Xoane, (T)xanet*): *Xaneton* (Maule, 1377, Zier., 1994: 227); *Chanet*-etik eratorri behar bada *-on* besterik ez dagoela kontu egin daiteke.

7.2.15. **-go**

Hau *-ko*-ren ozen ondoko aldaera da arruntean, baina ez beti; argibidez *Joanesgo*-n *-go* ez dago ozen ondoan, eta alderantziz, ozen ondoan zenbaite-

tan *-ko* ageri da, *Matxinko*-n erraterako. Bi hauetako lehena dela-eta aintzat hartu behar da gaur egun Burundako alderdi bateko toponimian *-tz + -ko > -zgo* egiten dela eta Elkanoko Lizarragak ere badituela *-s + -ko, -s + -tik > -sgo, -sdik*-en etsenpluak: «*Emausgo Castelura*» (JMESB, 59), «*Parisdic Veneciará*» (ibid., 84), «*Parisgo Patróna*» (ibid., 107). Iruñe ondoko Gazolatz herrian, ildo beretik, *Saguesgo sotoaldea* zegoen 1549an (Li.p., 2); cf. Unanuko *Arbizitz* eta *Arbizizgo barga*, *Arbizizgo itturriya*, *Orritz* eta *Orrizgo baltsa*, *Orrizgo itturriye* (NTEM, VIII, 68, 85). Nolanahiko gisan, Uharte Arakilen *Eniz* eta *Enizko erreka*, *Iberats* edo *Iberas* eta *Iberasko erreka* ditugu (NTEM-XII, 137 eta 144), eta Elkanokoak *-s + -ko > -sko* ere badu: «*Tiberiasco itsaso áldean*», «*Silosco Monasterioarén Abáde*» (JMESB, 60 eta 101).

Hauk dira bildu ditudan lekukotasunak:

– **Alamango** (*Alaman*): *Alamango* (Dg., 1378, Goih., 1966: 342). *Alaman* izenez Llull (2005: 18) ikus daiteke.

– **Beltrango** (*Beltran*): *Veltrango de elso* (Eltso, 1536, At.p., 1, 35). Anotz Ezkabarten *Beltrangorena* etxea zegoen 1726an, eta Sunbillako egungo *Beত্রাঈনী Beltrangonea* zen urte horretan.

– **Bertungo** (**Bertun?* Cf. *Fertun* ‘Fortuño’): *Bertungo de Sohaburu* (Donoztiri, 1394, Goih., 1966: 255), *L’ostau de Bertungo* (Dg., 1412-13, CPBN, 104. or.).

– **Fertungo** (*Fertun*): «*Fertungo Galindeç in Alhagerin*» (1136, Leire, 308).

– **Fortungo, Furtungo** (*Fortun, Furtun*): *Furtungo de Echeverria* (Ilharre, 1350-53, CPBN, 38. or.), «*Fortungo seigneur de Soraburu*» (Donoztiri, 1353, Goih., 1966: 255), *Fortungo de Ganaberro* (sic) (Jatsu, 1364, ibid., 141).

– **Joanesgo, Juanesgo** (*Joanes, Juanes*): *Juanesgo de Olaçaran, Joanesgo de Olaçaran* (Oñ., 1485, Zu., 1994, 30, 209. or. eta 1489, 34, 263. or.), *Joanesgo* (Etxeberri Arakilgo oikonimoa, 1580an, HA.p., 4).

– **Joango, Juango** (*Joan, Juan*): *Johango de Sant Martin* (Donamartiri, 1369, Goih., 1966: 256), *Johango d’Ascue* (Hondarribia, 1384, C. & C. & G., 1991, 18), «*Juango, rementero*» (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 100. or.), «*Juango d’Acuri, procurador de las anteiglesias de Santa Maria de Çeanuri e Santa Maria de Lamadanno*» (Dur., 1471, Hid. et al., 1989, 48, 266. or.), *Joango de Aya, Joango de Ayçara, Juango de Çuloaga* (Erre., 1474, C. & C. & G., 1997, 58, 23. or.), *Johango de Galarreta, Johango de Elornatiri, Johango de Yrarracabal, Johango de Açoque* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 4. eta 5. or.), *Johango de Araystondo, Johango de Larrecha, Johango de Aquearça, Johango de la Rementeria* (ibid., 175, 192. or., 177, 194. or., 187, 204-205. or., hurrrenez hurren), «*Juango, el çapatero*» (Lekeitio, 1511, Enríquez et al., 1997, 196. or.), *Juango de Laquidiola* (Oñ., 1514, Zu., 1999: 162), «*Johanot fiço de Johango Johantorena*» (Genbe, 1519, J.p., 5).

– **Joanmartingo, Juanmartingo** (*Joanmartin, Juanmartin*): *Juan Martingo de Areyçabalaga* (Azkoitia, 1488, Aierbe, 1993, 66, 193. or.), «*Joan Martingo de Lasao, criado de mi, el dicho escrivano*» (Don., 1501, La. & Le., 1995, 78, 153. or.), «*Johan Martingo de Deva e Johan Martingo de Çiaran*» (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 4. or.), «*Johan Martingo de la Plaza*» (ibid., 5. or.), «... *lo de Johan Martingo de Arrona e lo de Johan Martingo*» (ibid., 102, 123. or.), «*Juan Martingo de Lasao*» (Azpeitia, 1518-20, Fdez. & Mont. & He., 2007, 110, 325. or.).

– **Juanbeltrango** (*Juan Beltran*): *Juan Beltrango* (Erre., 1490, C. & C. & G., 1997, 79, 94. or.).

– **Mariajuango, Marijoango, Marijuango** (*Mariajuan, Marijoan, Marijuan*): «*Mari Joanguo de Olleagua*» (Mutriku, 1504, Fdez. & Mont. & He., 2007, 53, 103. or.), «*Maria Juanguo de Arriolla*» (Mutriku, 1504, ibid., 57, 118. or.), «*Mari joango de çumeta*» (Orio, 1580, Ezkurdia, 1978: 64). Goizuetan *Marijoangorena* oikonimoa ageri da 1616tik aitzina XVII. mendean, *Marijuangoenea* XVIII.ean, *Marijuangonea* XIX.ean (Her., 1978: 79, 82).

– **Maringo** (*Marina* izenetik, antza): «*Maryngo de Çorrnoça, texedora*» (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 104. or.).

– **Martingo** (*Martin*): «*Martingo de Labayen*» (Lab., 1537, At.p., 1, 23), «*Martingo de echeberria*» (Osk., 1551, At.p., 1, 102), «*Martingo tornariarena, Martingo de churdinena*» (Ezkurra, 1600, Ih.p., 2), «*Martingo*» (L, 1759; Iglesias, 2000: 46). «*Amartinguo, Amartingo*» ere ageri da Atarrabian egindako dokumentu batean, baina gauza bitxia iruditzen zait: «*Amartinguo, escudero, señor del palacio de Hugarte que es en la tierra de Oy(arçun [...] Mar(y)a de Ugarte, fija del dicho Amartingo*» (1428, Oiar.al., La. & Ta., 1993, XXVIII, 85. or.).

– **Matxingo** (*Matxin*): «*Machingo d'Arrayoz*» (NB, 1379, Goih., 1966: 362), «*Machingo de La Carre*» (Lakarra, 1387, ibid., 143), «*Machingo d'Orotz*» (Iru., 1393, *Doc.Gasc.II*, 249 = *Martin de Oroz, Martin de Orotz*, ibid.), «*Machingo de Lasse, filh de Guassarnaut de Lasse*» (Ainhize, 1395, ibid., 276), «*Machingo d'Arreche*» (Ahatsa, 1397, Goih., 1966: 119. Irudi duenez 1397ko *Machin de Arrechea, Machin de Areche* bera da; ibid.), «*Machingo d'Ybarolle*» (Dg., 1405, ibid., 349), «*Machingo, señor de la casa de Mirandea, en la parroquia de Lacarra, vecino de Arazuri*» (1413, Castro, XXX, 912, 452. or.), «*Machingo de Echarri*» (1414, ibid., XXXI, 293, 162. or.), «*Machingo Baztan*» (Dg., 1428, Goih., 1966: 349). Abaurrepean 1726an *Machingo* oikonimoa azaltzen da, Aroztegin eta Oronozen 1727an *Machingorena*.

– **Menjongo** (*Menjon*): *Menjongo* (Iglesias, 2000: 265, 282).

– **Sanjuango** (*Sanjuan*): «*San juango de Vrquica*» (Lekeitio, irudi duenez, 1515, Enríquez et al., 1992, 239, 811. or.).

– **Txango, Xango** (*Txoan, Xoan*): «*Chango*». Del Vallek (1933: 180) *Juanicot*-en euskara beteko kideztat hartzen du. Sunbillan *Changonea* eta *Martinchango* oikonimoak zeuden 1726an, *Txángenià* eta *Txángobattà* orain. Olondritzen *Sangorena* ageri da 1794an (Au.p., 42); ez dakit hondarreko honetan

eskribauak *Txango*-ren aldaera zatekeen *Xango*-ren moduko zerbait ez ote zuen idatzi nahi izan.

– **Txaringo** (*Marina, Maringo*): *Charingo* (Ber., 1552, Del Valle, 1933: 180).

– **Txartingo** (*Martina*): «*Chartyngo, su fña*» (Ber., 1503, Lema, 2007b, 28, 109. or.).

– **Txatalingo** (*Txatalin*). Leitzako 1726ko *Chatalingoena* oikonimoan dago.

– **Urdingo** (*Urdin*): *Urdingo d' Ezponde* (Duzunaritze-Sarasketa, 1412-13, CPBN, 100. or.). Irigoienek dio (1995: 16), *Urdingo*-z mintzatzean, *Urdinco*-tik atera dela, sudurkari ondoko herskaria ahostuntzearen ondorioz, baina ez du *Urdinco*-ren lekukorik aipatzen; nik ez dut inon opatu. Arantzako 1726ko *Urdingorena* oikonimoaren oinarrian ere *Urdingo* dago.

– **Urtungo, Ortungo** (*Urtun*): *Hurtungo de Sorapurü* (Sorhapürü, 1365, Goih., 1966: 294), *Ortungo de Sorapurü* (1387, ibid.), *Urthungo de Sorhaburu* (Dg., 1387, *Doc. Gasc. II*, 219), *Hurtungo de Sorhaburu* (Donoztiri, 1387, Goih., 1966: 255), *Urtungo de Yrissarry* (Irisarri, 1388, Goih., 1966: 207), *Ortungo de Sorhaburu* (1393, Castro, XX, 295, 126. or.) = *Urtungo de Sorhaburu* (ibid., 1394, 815, 352. or.). Cf. *Bertran de Hurtungo* (1413, Castro, XXX, 120, 59. or.).

Izengoitiekien ere agertzen da:

– **Baztango** (*Baztan*): *Baztango* (Nafarroa, 1300, Ziganda, 2007: 146).

– **Salinasgo** (*Salinas*): «*En las casas de Salinasgo, bivda, bibe ella misma*» (Be., 1511, Enríquez et al., 1997, 245. or.).

7.2.16. –go(t)xe(a) (< -go + -(t)xe(a))

– **Joangoxe, Juangoxe, Juangotxe** (*Joan, Juan*): *Jongose de Yarrça* (sic) (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 121. or.), *Johangoxe de Erreten* (Deba, 1482, Bar. & Her., 2006, 36, 60. or.), *Johangose Manuel* (ibid., 1483, 198, 217. or.), *Juangoxe de Ribera*, *Juangoxe d'Oyarçaval* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Juangoxe de Garmeo* (ibid., 100. or.), *Juangoxe de Soraluçe* (Ber., 1509, Lema, 2007, 61, 418. or.), *Johangose de hugar* (Ugar, 1520, J.p., 5), *Johangoxe* (Arraioz, 1540, Eo.p., 1, 137; *Joanes de Arraioz*-en aita zen), *Juangoxe Vorda* (Zug., 1545, Eo.p., 1, 100?). Iparraldean –Saran, ustez– *Joangoche de sorhaindo* eta *Jolangoche detchassarry* ageri dira (Iglesias, 2000: 265).

Hipokoristiko hau dago Etxalekuko 1616ko *Juangoxerena* oikonimoaren azpian (Ih.p., 4), eta orobat, segur aski, Ihabengo 1726ko *Juangosenearen* oinarrian. Saran, 1609-1624 epean *Juangosetegui* izeneko etxea dago (Barandiaran, 1949), non, irudi duenez, *Juangoxe* baitugu. Aritzuko 1726ko *Juangochenea*-n, berriz, *Juangotxe* aldaera dagoke. Hau, bistan da, egungo *Juangoxe* 'Juan José'-tik bereizi beharra da.

– **Martingoxea** (*Martin*): «*Martyn de Zabaleta dicho Martingoxea*» (Leitza; 1610ean hila. De Carlos & Alduntzin). K. Izagirrek Ultzaman *Marti Goxe* bildu zuen (1966: 461), baina horren oinarrian *Martín José* egonen da. Cf. oraingo *Juangoxe* (*Juan José*).

7.2.17. **-got(e)** (< **-go** + **-ot(e)**); *-kot(e)*-ren ozen ondoko aldaera).

Dena dela, **-go** + **-te** ere uler daiteke

– **Joangote, Juangot, Juangote** (*Joan, Juan*): *Juangote d'Oyçaguirre* (sic, Erre., 1490, C. & C. & G., 1997, 79, 90. or.), *Johangote, Johangote el Rodero* (Jaitz, 1518, J.p., 5), *Johangote de Senosiayn* (Arteta, 1525, J.p., 5), *Johangote de lanz* (Lantz, 1537, At.p., 1, 29), *Joangote de Larrayncar* (Lar., 1537, At.p., 1, 22), *Joangote andia* (Lar., 1552, At.p., 1, 82). Narbarten oinarrian *Juangot* zukeen *Juangotena* etxea ageri da 1727an, eta Erratzun *Gangotena* 1726an. Ondarrak dioenez (1984: 14), azken herri honetan *Miguel de Juangotena* azaltzen da, hots, eboluzionatu gabeko aldaera. Oroitu beharra da Baztanen *joan* > *gan* gertatu dela.

– **Martingot** (*Martin*): *Martingot de Favtes* (= *Martin García de Favtes*, Don., 1473, Enr. & Hid. & Mar., 1999, 101, 411. or.), *Martingot de Tantas* (Don., 1478, C. & C. & G., 1997, 72, 73. or.), *Martingot de Echeberri* (Pasaia, 1518-20, Fdez. & Mont. & He., 2007, 110, 428. or.), *Martingot* (Iglesias, 2000: 265). Biarritzar ikertzaileak hemen *Martingo* dugula dio eta *-t* segur aski analogikoa dela; daitekeen beste interpretazioa *Martin* + *-go* [-ko] + *ot* dagoela kontu egitea da. Ikus *-kot(e)*.

7.2.18. **-goto** (< **-go** + **-to**)

– **Juangoto** (*Juan*): *Juangoto de Guraynburu* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.).

7.2.19. **-gotxo** (< **-go** + **-txo**)

– **Joangotxo, Juangotxo** (*Joan, Juan*): *Juangocho de Ardos* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Juangocho de Vzçanga* (Azpeitia, 1518-20, Fdez. & Mont. & He., 2007, 110, 511. or.), *Juangocho de Yçiar* (Deba, ibid., 512. or.), *Juangocho de Ybarguren* (Deba, ibid., 513. or. = *Juanocho de Ybarguren*, us-tez; ibid., 514. or.), *Juangocho* (Gazolatz, 1549, Li.p., 2.), *Johangocho de Arana* (Goi., 1555 (18)).

(18) P. Perurenak emandako datua.

7.2.20. **-goxo** (< **-go** + **-xo**)

– **Joangoxo** (*Joan*): *Johangoxo* (Aurtiz, 1538, Eo.p., 1, 115).

7.2.21. **-goxoto** (< **-go** + **-x(e) edo -xo** + **-to**)

– **Joangoxoto** (*Joan*): Aritzuko (1606, Ue.p., 42) *Joangoxotorena* oikonomoaren oinarrian dagoke, baina ez da guztiz segurua, asimilazioaren ondore ere izan daitekeelako, *Joangoxoterena*-ren moduko batetik abiatuta.

7.2.22. **-iket** (< **-iko** + **-et**)

– **Martiket** (*Marti*; *Marti* + *-ko* + *-et* ere uler daiteke): *Martiquet de Ilurdoz* (1413, Castro, XXX, 23, 17. or. Irudi du *Martinet de Ilurdoz* bera dela; ibid., 120, 59. or. *Martico de Ilurdoz* ere agertzen da, ibid., 752, 369. or.), *Martiquet de Oyloqui* (ibid., 649, 315. or.), «*Martin de martiquet m^e de la maison de barguinthoy*» (Arbona, 1755, Iglesias, 2000: 47). Galarko *Martiquetena* oikonomoan ere ageri da (Jimeno, 1987: 294; 1727).

– **Periket** (*Per*, *Pero*, *Peru*). Soraurengo *Periquetena* oikonomoan azalzen zaigu (1589, Ih.p., 2, 1605, 1606, Ue.p., 42; 1726an *Periquitenecoa* ageri da). Saurak Benasquen (1999-2000: 174) *Petriquet* bildu du.

7.2.23. **-iko** (**-iku**, **gi.**), **-ika** (**em.**)

Gaztelanian opatzen dugun atzizki bera da. Shulzek dioenez (1904: 27-28), galieran ere ageri da, erromatarren garaiko izenetan; Menéndez Pidalen iritzian (1977 [1904]: 234) *-iccu* txikigarria jatorriz ez da latinoa. Meyer-Lübkeren arabera (1974 [1890-1906]: 590-591) Iberiar Penintsulan eta errumanieran agertzen da, eta orobat Afrikako idazkuntan, *c*-rekin hemen, ez aldaera erromantzeek eskatzen duten *cc*-rekin; gainera, Afrikako horietan ezin da frogatu *-i*- luzea dela. Aitzinxeago (ibid., 596) «*ibérique*»-tzat hartzen du, baina ez dakit ziurtasun osoz 'Iberiar Penintsulakoa' ala 'iberierakoa' erran nahi duen. Hasselrotek (1957: 41) zeltikoa edo iberikoa dela uste du; Palomar Lapesak (1957: 122-123) *-icco-*, *-ico-* eta hauen modukoak hizkuntza zeltikoetan hagitz erabiliak diren *-k*-dun atzizkien artean sailkatzen ditu. Tovar-ek (1959: 69-80) indoeuropeako *-ko*-ren eratorritzat jotzen du *-iko* (eta *-sko*), eta erraten du Eurasiako ondaretik atera datekeela, euskal *-ko* bezala. Atzizkiaren bokala dela eta honela dio: «Evidentemente esta desinencia se explica por la unión con *-ko* de la vocal de temas en *-i*, lo cual permitió que el tipo *-iko-* se hiciera productivo ya en época común verosímilmente» (ibid., 78).

González Ollek (1962: 322 eta hurr.) atzizkiaz jaulki direnak aipatu eta ondoan erraten du bere ustez egiantzik handiena duen ustekaria jatorri zelta aldezen duena dela. Zernahi gisaz, Berceoren *zatico* aipatzen du eta gaineratzen euskarazko etorkia ezin dela erabat baztertu, batez ere *zat-ico* ulertu zela ontzat hartzen bada (*zatlillo* aldaera ere bazen). Evansen arabera (1967: 330), pertsona izen eratorrietan «zabalkiro» ibili den indoeuropar atzizkia da. Kurylowiczen (1967) iritziazen berri izateko ikus *-et*, *-ete*, *-eta* atzizkiari eskainitako atalptoan diodana.

Rohlfsek dio (1951: 505) Espainian eta Akitanian baizik ez dela ibiltzen, eta honek atzizkiaren iberiar jatorriaren alde hitz egiten duela, etorki zehatza zein den oraino ikusteko badago ere. Ikertzaile honek berak, beste lan batean (1977: 228), gaskoieraren *-ic* espainoleko (Aragoi eta Nafarroako) *-ico*-ri dago kiola erraten du, eta erromatarren aurrekoa dela. Tovar-ek (1985: 461-462) galizieran eta portugaleran ere azaltzen dela gehitzen du; Grosclaudek (1992: 57) *Bernardicou* – *Bernadicon* dakar, baina erraten du atzizkia *-ivus* dela; hemen, segur aski, oker daktilografikoa dagoke tartean. Saurak (1999-2000: 178) Benasquen *-ico*, *-ica* badela azaltzen du (*Anica*, *Bernadico*, *Chuanico*, *Perico*, *Ramonnic*...), baina ez duela maiztasun handirik, Aragoiko eta Penintsulako beste alderdi batzuetan agitzen denaz bestera; aitzineko beste autore batzuei jarraikiz zeltolatinotzat ematen du (1996-97: 154). Hungarieran ere bada *-ika* / *-ike* atzizkia, izen arruntetan eta berezietan: *ládika* ‘little box’, *Katika* < *Katalin*, *Petike* < *Péter* (Posgay, 2002: 1030).

Gorrotxategi (1984: 171) honela mintzo da gai honetaz:

«El sufijo *-ko-*, y especialmente *-iko-*, es muy frecuente en la formación de onomástica en todo el Occidente Europeo. Limitándonos a ámbitos cercanos al nuestro, se usa en la formación de nombres galos: *Boudicca*, cf. *Bouda*, *Bodus*, *Bodo-rigi*, dat.; *Lanicus*, cf. *Lano-* ‘plenus’ en *Lanus*, *Lana*, top. *Mediolanum*; *Talicius*, cf. *Talo-* en *Dubnotalus*, *Tatalus*, *Talanus*, etc. Cf. Dottin, 108-9. También es frecuente en Hispania en la creación de étnicos: *areicoraticós*, cf. *arecorata*, y sobre todo en los nombres de gentilidades que aparecen en gen. pl. en las inscr. Latinas: *Ambatig.* de *Ambatus*, *Elanicum* de *Elanus*, etc».

Kausitu ditudan *-iko*-dun izen ttipiak hauek dira:

- **Anjeliko**, **Anjelika** (*Anjel*, *Anjela*): *An[x]elíko*, *An[x]elíka* (Eu.).
- **Antoniko**, **Anttoniko** (*Antonio*, *Anttonio*): *Anthonjco de Huart* (Iruñea-Uharte, 1514, Zier. & Ram., 1997: 28), *Anttónikò* (Goi.), *Antoniko* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256).
- **Baxiliko** (*Basilio*, *Baxilio*): *Baxilikò* (Lab.).
- **Beñatiko** (*Beñat*): *Beñatíko* (Eu.).

- **Bernartiko** (*Bernart*): *Bernartiko* (Eu.).
- **Bitoriko, Bitoriko** (*Bitorio, Bitorio*): *Bittòrikò* (Lei.), *Bitoricorena* (Larrasoañako etxea 1677an, Ibarra, 2002: 508).
- **Bizentiko, Bixentiko** (*Bizente, Bixente*): *Bizentíko* (Ara.), *Bixentíko* (Ig., Oitz, Sak., Urd.).
- **Emiliko** (*Emilio*): *Emilíko* (Arizkun [Bozate]).
- **Eñautiko** (*Eñaut*): *Eñautíko* (Eu.).
- **Extebaniko** (*Esteban, Exteban*): *Extebaníko* (Auza; txiki xamarra zen. *Extéban* ere erraten zioten).
- **Joaniko, Juaniko, Joanika** (*Joan, Juan*): *Maria Johanica* (Muneta-San Martinen, 1350, LPN, 364), «*Johanico, fillo de Johan Antonio*» (Buñuel, 1353, Ur., 1961: 151), *Iohannico de Janitz* (Lekunberri Garazi, 1391, Goih., 1966: 146), *Johanico d'Arrecalde* (Dg., 1391, *Doc.Gasc.II*, 230 = *Johan d'Arrecalde*, ibid., 1392, 234 = *Joanicot de Recalde*, ibid., 1395, 262), *Johannico de Beguios* (= *Johanico de Beguios*, Behauze, 1393, Goih., 1966: 268), *Johanico de Bayona* (Bai., 1397, ibid., 85), *Johanico de Badoztain* (1413, Castro, XXX, 550, 268. or. = *Johanico de Badoztain*, ibid., 573, 278. or.), *Joanico de Ylarduy* (1471, Ilarduia, Aierbe, 2006, 244, 39. or.), *Johanico de Ansozregui* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 6. or.), «*Juanico, ferrero*» (Zaldu., 1486, Po., 2001, 14, 386. or.), *Juanico de Murueta* (Dur., 1487, Hid. et al., 1989b, 68, 374. or.), «*Juanico, hijo de mi*» (Mark., 1499, Enríquez, 1989, 30), «*Juanico de Gordoia, hierno de Pedro Saez, e Juanico de Araya*» (Araia, 1500, Po., 2001, 30, 90. or.), *Juanico* (Ond., 1511, Enríquez et al., 1987, 187. or.), *Joanico de Catayde* (Oñati, 1520, Lema, 2007, 176, 732. or.), *Joanico vazterra* (Abartzuza, 1551, Li.p., 2), «*Juanico de Aricaleta hijo de Juanes de Aricaleta*» (Zirauki, 1574, Zi.p., 2), *Juanico el Sastre* (Artozki, A.p., 13), *Jwaníko* (Beram., Eu.).

XVIII. mendeko Gabon kanta batean ere azaltzen da; ikus *Periko* sarrera. Peru *Abarka*-n ere ageri da (113. or.): «M.J. Ze izen emoten deutzazu? Zer da Ioanis? / P. Ioanis esaten deutsee prantzés euskaldunak Juan edo Juaniko esaten deutzagunari, zelan Petri Pedrori, ta Estebe Estebani. Kiputzari esan deutzat Txorgori Gregorio esateko». Aizpitartek ere *Juanico* dakar, XVIII. mendean (Knörr, 1981: 96).

- **Juanjoxiko** (*Juanjose, Juanjoxe*): *Jwànjoxíko* (Ea.).
- **Juanmaiko** (*Juanmari, Juanmai*): *Jwànmaíko* (Ea.).
- **Luxianiko** (*Luziano, Luxiano*): *Luxjánikò* (Lei.).
- **Manueliko** (*Manuel*): *Manwelíko* (Eu.).
- **Martiniko, Martiniku, Martinika** (*Martin, Martina*): *Martinico de Laborda* (Pasaia, 1457, Elortegi, 1992: 165), *Martiniquo de Solarte* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 6. or.), *Martinico de Arayz* (Tolosa, 1497), «*Martinjco fijo de Johantoa*» (Jaitz, 1518, J.p., 5), *Martinico de Aburruça* (Tolosa, ustez, 1519, Aierbe, 2006, 318, 357. or.), *Martinjco de martino* (Jaitz, 1520, J.p., 5), *Martinjco bengoa* (Munarriz, 1521, ibid.), *Martinjco de yruxo* (ibid.), «*Martinico e pedroco*» (Ziritza, 1524, ibid.), *Martinico de peruchena*, *Martinico de perusquire-*

na (Bere., 1581, Ih.p., 1), *Martinico de ozcoz* (Osk., 1583, Ih.p., 1), *Martinicu*, *Martinico* (Lei., 1587, Lei.p., 43), *Martinika* (Les.).

– **Migeliko**, **Mieliko** (*Migel*): *Mjguelico de munjain* (Arzotz, 1521, J.p., 5), «*Mjguelico fij(o) de peru berrja*» (Arraitza, ibid.), *Migelico de orondriz* (Gartzain, 1539, Eo.p., 1, 61), *Miguelico de Lanz* (Ira., 1540, At.p., 1), «*Miguelico de Sarranz vezino que dixo ser del dco. lugar de Sarranz*» (Zarrantz, 1546, At.p., 1, 34), *Miguelico* (Hondarribia, 1580, H.V.B., 1960b), *Miguelico (de garcaron)* (Gartzaron, 1582, Ih.p., 1), *Mjguelico de yllaReguj* (Ilarr., 1587, Ih.p., 1), *Mjguelico de assiaynena* (Muskitz, 1596, Ih.p., 1), *Miguelico marimiguelena* (Zubiri, 1601, Ue.p., 39), *Mieliko* (Lab.; gizon txikia da), *Mielikò*, *Milìkò*, *Mikò* (Lei.), *Mieliko* (Lei., Peru., 1996: 97).

– **Periko** (*Pedro, Pero, Peru*): *Periquo* (Piedramillera, XIV. m., Irantzu, 225. or.), *Perico* (Dg., 1378, *Doc.Gasc.*, 127, 135. or.), «*Perico, hijo de Pero Sanchez*» (Gares, 1412, Castro, XXIX, 321, 164. or.), *Perico de Vlçola* (Mark., 1499, Enríquez, 1989, 30), *Perico de Balcola* (ibid., 31), «*Pedro de Arimendi, cuia es la dicha casa e caseria de Arimendi, vecino de la dicha villa, e Perico de Arimendi, su fijo lejitimo*» (Ber., 1509, Lema, 2007, 66, 434. or.), «*Juan Ferrandes d'Eyçaguirre e Perico, su criado*» (Ber., 1520, ibid., 135, 668. or.), *Perico de Beistegui* (Ber., 1550, Del Valle, 1933: 179), «*perico e martjnico mis fijos*» (Zier., 1970: 366), *Periko* (El., Ig., Lab., Lak., Zug.), *Pèrikò* (Lei.), *Periko Lizartza*, *Periko «Zaldar»*, *Periko Sagastibeltza* (Lei., Peru., 1996: 45, 132, 140), *Periko* (Aezkoa, Camino: 1997: 547), *Periko* (Zubieta, *Berria*, 2005-6-25, 42. or.). S. A. de la Gandararen 1757. mendeko Gabon kanta batean ere ageri da: «Eznea Perico, / arzazu: / gastaeta, Joanico, / ez aztu. / Ardaoagaz, Anchon / contu pichiruon. / Fararira / Presenteguín eah / Zast hurira» (Kaltzakorta, 1999: 149). Cf. *Peru Abarka*-ko pasarte hau (26. or.): «Niri esaten deuste Peru batzuk, besteak Periko: eztot nik, umeetatik bere, jaunaren izenik entzuten, da gitxiago *Donemik*»; Aizpitartek *Perico* dakar (Knörr, 1981: 96). Kasuren batean menturaz *Peri* + *-ko* uler liteke. Leitzan honen eratorria den *Pèrikotxò* dago egun.

Dokumentazioan ondoko hipokoristikoak aurkitu ditut:

– **Alfonsiko** (*Alfonso*). Beriaingo *Alfonsicorena* (1656) oikonimoaren oinarrian dago (Jimeno, 1987: 112).

– **Andresiko** (*Andres*). Bidaurretako 1727ko *Andresicorena* etxe izenaren oinarrian dago.

– **Anika** (*Ana*): *Anica de Elso* (Iru., 1538, Urritzola, 2006: 115). Biurrungo 1727ko *Anicarena* oikonimoaren oinarrian ere hipokoristiko hori bera zegoen.

– **Antxiko** (*Antxo*): *Anchico de Vnzella* (Aramaio, 1499; Bazán & Martín, 1999: 33).

– **Beltraniko** (*Beltran*). Subitzako 1727ko *Beltranicorena* etxe izenaren jatorrian dago.

- **Bertrandiko** (*Bertrand(o)*; cf. *Bertran* izena eta *Bertrandeiz*, *Bertrandez* patronimikoak): *Bertrandico Duart* (1412, Castro, 1962, 82).
- **Erradiko** (*Errando*): *Erradico de Villa* (XV.m., LPS, 368).
- **Faustiko** (*Fausto*). Aitzoaingo *Faustikorena* oikonimoaren oinarrian dago (Jimeno, 1992: 66). Behin bakarrik azaltzen da, 1771n.
- **Fernandiko** (*Fernando*): *Fernandico de huarte* (Ua., 1578, HA.p., 4), *Fernandico de erbiti* (Ilarr., 1587, Ih.p., 1). Larraintzitzen 1573an eta Gulian 1578an *Fernandico* oikonimoa ageri da (HA.p., 4).
- **Ferrandiko** (*Ferrando*): *Ferrandico de Orisoain* (1413, Castro, XXX, 643, 312. or.), «*Ferrandico fijo de Sancho mutilon*» (Jaitz, 1518, J.p., 5), *Ferrandico de Urdanoz* (Etxarri Etxauribar, 1521, J.p., 5).
- **Filipiko** (*Felipe, Filipe*). Gerendiain Erroibarko egungo *Filipiko* oikonimoan dukegu (Ibarra, 2002: 499).
- **Gartxiko** (*Gartxo*). *Garchicorena* (Añorbe, Bidaurreta, 1727), *Garchicorena*, *Garchoconecoa* (Atondo, 1794; Jimeno, 1990: 144), *Gartxikorena* (Añezkar eta Berriozar, Jimeno, 1992: 148, 298) etxe izenetan dago.
- **Giliko** (*Gil*). Oikonimotzat ageri da: *Gilico* (Itzalle, 1679, Z.p., 10, 42), *Gilicorena* (Adiots, 1727), *Jilicorena* (Añorbe, Etxauri, Muru Astera-in, 1727).
- **Gonzaliko** (*Gonzalo*). Ekala-Eulateko *Gonzalicozensoroadana* ('Gonzalikoren soroa den lekua' alegia) toponimoan dago (Ar.p., 4, 1688).
- **Grazianika** (*Graziana*): *Gracianja* (Zier., 1970: 363).
- **Josefiko** (*Josef*). Abintzaoko etxe baten izentzat ageri da: «*Pieza de la casa de vecinos llamada de Josefico*» (1799, Al.p., 49, 101).
- **Juanisiko** (*Juanis*). Arizkungo *Juanisicorena* (1726) oikonimoaren oinarrian dago.
- **Katelinika** (*Katelina*): *Catelinja* (Zier., 1970: 360).
- **Klarika** (*Klara*). Utergako 1727ko *Claricarena* etxe izenean da.
- **Lopiko** (*Lope*): *Lopico de Garavilla* (XV. m., LGS, 238, 284), *Lopico* (Zier., 1970: 364).
- **Luisiko, Luisika** (*Luis, Luisa*). Gizonentzako Ilarrazko *Luysicorena* (1605, 1640, 1641, Ue.p., 39, 40 eta 41) eta Larrasoanako *Luisicorena*, *Luissicorena* (1644), *Luisicorena* (1677) (Ibarra, 2002: 507, 508) oikonimoetan ageri da; *Luisica* Garibairen alabetako bat zen, dirudienez.
- **Mantxiko** (*Mantxo*). Aurizperriko XX. mendeko *Mantxikonea* oikonimoaren oinarrian dagoke, beste zerbaiten itxuratxartzearen emaitza ez bada segurik (Ibarra, 2002: 501).
- **Matxiniko** (*Matxin*). Jose Lezamizen (1654-1708) *Vida del Apostol Santiago* liburuko Gabon kanta honetan ageri da: «Matxiniko / zer dio, Txeru? / Atzorik ona / ze barri dogu?» (Kaltzakorta, 1999: 135).
- **Pauliko** (*Paule, Paulo*). Legardako 1727ko *Paulicoenecoa* etxe izenaren oinarrian dago.
- **Perriko** (*Per*): *Perrico* (Bastida, 1343, Goih., 1966: 314).

– **Santxiko, Santxika** (*Santxo, Santxa*): *Sanchyca de Gueldo* (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 193. or.), *Sanchico* (Jaitz, 1518, J.p., 5). *Sanchicorena* Arren, Soraurenen (1726), Arraitzan eta Elizondon (1727) ageri da; Espartza Galarren *Sanchico*, *Sanchiconecoa* azaltzen da (Jimeno, 1987: 199). González Ollek (1971: 488) *Martico* eta *Petrico* ere aipatzen ditu, baina nire ustean haue-
tan *-iko* ez ezik *-ko* hutsa ere izan liteke; nik azken atzizki honi eskaini puntuan sartu ditut.

– **Txoaniko** (*Txoan*). Goizuetako *Choanicorena*, *Choaniquenea* (1616az geroztik, Her., 1978: 78), *Choanicanea* (1726), *Txánikenè* (egun) etxe izenaren oinarrian dago. Aranon, 1726an *Chuaniquenea* oikonimoa ageri da, baina egun ez dago holakorik, erran didatenez.

– **Txopiko** (*Txope*): *Chopico de Anuncibay* (XV. m., LGS, 252, 264).

7.2.24. **-ikon** (< **-iko** + **-on**)

– **Joanikon** (*Joan*): *Johanicon de Sabarotz* (Bai., 1467, Goih., 1966: 107).

– **Perikon** (*Pero, Peru*): *Juan Pericon de Jadssu* (Jatsu Garazi, 1300, Ziganda, 2007: 191), *Pericon* (Jaitz, 1366, LPN, 588), *Pericon de Yturriaga* (Bilbo, 1511, Enríquez et al., 1997: 332), *Pericon* (Auritz, 1796, Sat., 1969: 74).

7.2.25. **-ikon**i (< **-iko** + **-oni**)

– **Joanikoni** (*Joan*): «*Johaniconi, seynor de l'ostau de Mongelos*» (Bastida, 1412-13, CPBN, 93. or.). Ikus *Peironi*, *Peroni*, *-oni* atzizkiari eskainitako atalñoan.

7.2.26. **-ikot, -ikote** (< **-iko** + **-ot(e)** / **-t** / **-te**)

– **Joanikot, Juanikot** (*Joan, Juan*): *Johanicot d'Ostauals* (Izura, 1354, Goih., 1966: 240), *Johanicot de Domezayn* (Dg., 1378; *Doc.Gasc.*, 111, 125. or.), *Johanicot d'Escaray* (Donu., 1395, *Doc.Gasc.II*, 270), *Johanicot de Mendie* (Bardoze, 1469, Goih., 1966: 17), «*Johanicot sr de Chagoyen*» (Kanbo, 1451, *ibid.*, 28), *Juanicot de Ronçesballes* (Don., 1475, C. & C. & G., 1997, 68, 51. or.), *Iuanycod de Ronçesvalles*, *Iuanycod de Uçarraga* (Don., 1484, La. & Le., 1995, 62, 115. or.), *Johanicot, Johanicot de Martinche* (Biarritz, 1498, Goih., 1966: 21, 23), «*Johanicot el vort de vergara*» (Eo., 1529, Eo.p., 1, 82), *Juanjcot*, «*Juanicot de Ugarte capelu gabea*» (Baztan, 1539, Eo.p., 1, 48), *Juanicot de oses* (Labio, 1586, Iru.p., 32. K-1, 51).

– **Joanikote** (*Joan, Juan*): *Joannicote de Olaeta* (Eskoriatza, 1497, Le. & C. & La., 18, 207. or.). Arrasate erre zuteneko kantuan ere ageri da (ikus hu-

rrengo atzizkia): «*Gomez andia çanarren, / An çan Presebal bere, / Bay Joanicote bere. / Madalenaan an ey dauça / Viola tronpeta bague*» (TAV, 3.1.7).

7.2.27. **-ikoti** (< **-iko** + **-ti**)

– **Joanikoti** (*Joan*): *Joanicoti de Hiriberis* (Makea, 1245, Goih., 1966: 49), *Joanicoti* (NVP, 416). Aurreko atalñoan aipatu dudan Arrasate erre zuteneko kantua beste era honetara ere bildu zen: «*Gomez andia canarren / An zan Presebal bere, / Bay Joanicoti bere. / Madalenaan ey danza / Viola trompeta bague*» (TAV, 3.1.7).

7.2.28. **-ikotx(ea)** (< **-iko(t)** + **-(t)x(ea)**)

– **Joanikotxea** (*Joan*): *Johanjcochea* (Eo., 1530, Eo.p., 1, 70).

– **Juanikotx** (*Juan*): Elizondoko *Juanicochena* (1727), *Juanicochenea* (1824, Ba. h., 1, 92. zkia., 50-51. or.) oikonimoaren oinarrian dagoela dirudi.

7.2.29. **-ikox** (< **-iko** + **-x**)

– **Joanikox** (*Joan*): *Johanicox de Subesqun* (Suh., 1434, *Doc. Gasc. II*, 339).

7.2.30. **-illo** (**-iello(s)**), **-illu**, **-illa** (**-iella**)

Menéndez Pidalek dioenez (1977 [1904]: 227), latineko *-ëllus*-etik aterra da atzizki hau; zernahi dela, erromatarren garaian ezagunak ziren *-illa* atzizkia zuten izen femeninoak (ikus Schulze, 1904: 26). Meyer-Lübkek (1974 [1890-1906]: 591-594) erraten du latinez *-ellu* atzizkia hasmentan bakarrik *kontsonantea* + *r*, *n*, *l* segidetako bat zuten izenei eransten zitzaizela, baina gero hizkuntza horretan berean edozein errori eratxiki zitzaizola. Honekin batera, baina gutxiagotan, *-illu* ere agertzen dela dio, eta gaineratzen *-ulus* bukaera zuten izenek latin berantiarrean eta erromantzeen sortze garaian *-ellus*-ekin ordezkatu zutela. Gai honetaz Strodach (1933: 26 eta hurr., 86.a bereziki) ikus daiteke.

González Ollek dio (1962: 277 eta hurr.) hispanoerromantzez *-ellus*-en ondorengoak direla haste-hastetik zabalduenik daudenak; 1353ko *El Libro del monedage de Tudela*-n ere (Uranga, 1961, 1962) maiztasun handienekoak dira Nafarroako Unibertsitateko irakasle ohiaren arabera (1971: 488). «Langue d'oc»-en eremuan usaiakoak dira *-ille* bukaera dutenak (Fénié & Fénié, 1992:

84); Gaskuñan *-et* (maskulinoa) / *-ero* (femeninoa) dira latineko atzizkiaren ondorengoak (Rohlf, 1951: 500). Dolçen iritzian (1960: 399), *-inus*, *-ellus*, *-inius*, *-illus* bukaerako erakuntza onomastikoak biziki ugariak ziren latinez, zuten hipokoristikoko balioagatik. Zierbidek dioenez (1970: 271), *-ëllu*-ren ondorengoak *-iello*, *-ello*, *-illo* dira nafarreran, berak aztertutako dokumentazioan, behin ere ez *-ialla*, *-iallo*.

Bizirik ondoko hipokoristiko hau opatu dut:

– **Joakinillo** (*Joakin*): *Jwakinillo* (Les.; txikia eta mehea da).

Dokumentazioan hurrengo lekukotasun hauek jaso ditut, baina segur aski ez da zaila izanen testigantza gehiago biltzea:

– **Audeliella** (*Audeilla* gizon izena zen, Ablitasko mairuen artean): «*Eyça el cabrero mayor tenia a Audeliyella su fillo*» (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 165).

– **Bibiellas** (*Bibas*, Ablitasko mairu baten izena zen): «*Mahoma Variellas el menor tenia dos pupillos, Biueillas et Mahoma*» (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 166).

– **Diagillo** (*Diago*): «*Diaguillo de Umaran*» (XV. m., LGS, 373).

– **Elbiriella** (*Elbira*): «*Eluiriyella*» (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 165).

– **Franzesillo** (*Franzes*). Mitxelenak (AV, 10) Errenteriako *Francesilla*-ga baserria aipatzen du eta erraten oinarrian *Francesillo* dagoela.

– **Galindiello** (*Galindo*): *Gualjndiello* (Erriberri, 1244, Zier. & Ses., 1980: 171).

– **Gonzalbiello** (*Gonzalbo*): «*Goncalvieyllo el Tinoso de Rosa*» (San Adrián, 1280, Zabalo, 1972: 54).

– **Haliellos** (*Hali*; mairu izena): «*Haliellos, fillo de Yça Cauaillo*» (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 166).

– **Joanillo, Juanillo** (*Joan, Juan*): *Juanillo de Mena* (XV. m., LGS, 274), *Joanillo de Legazpia* (Tolosa, 1479, Le. & Ta., 1996, 24, 82. or.), *Johanillo de Vidaurreta* (Bidaurreta, 1509, J.p., 5). Etxauriko 1727ko *Juanillorena* oikonimoaren oinarrian *Juanillo* aldaera dago.

– **Lopiello** (*Lope*): *Lopieillo de Parra* (Cascante, 1353, Ur., 1961: 171).

– **Lopillu**. Elgorriagako *Lopilluarena* (1558), *Lopillurena* (1569), *Lopillu* (1571), *Topilluà* (egun) oikonimoaren oinarrian dago (Iñigo, 1996: 493). Herri berean *Lopillu lurra* leku izena ere azaltzen da, 1571n (ibid., 202).

– **Madalenilla** (*Madalena*): *Madalenilla* (Gipuzkoa, Del Valle, 1933: 179).

– **Marinilla** (*Marina*): *Marinilla* (Glez. Ollé, 1971: 488).

– **Markiello** (*Marko*): *Marquieyllo* (Buñuel, 1353, Ur., 1961: 150).

– **Martillo** (*Marti*). 1726ko Lekunberriko *Martillonea* oikonimoaren oinarrian dagoke, baina ez da segurua; *Martichorena* eta *Martinena* ere baziren herrian.

– **Martinillo** (*Martin*): *Martinillo de Guinea, Martinillo Marroquin* (XV. m., LGS, 248, 308).

– **Ospenillo** (*Ospina* goitzenetik, segur aski): *Ospenillo de Montellano* (XV. m., LGS, 373). Cf. *Furtud Ospina* «era hombre perverso y llamáronle Ospina, que en vascuence equivale a vinagre» (ibid., 138), *Ospina de Ugarte* (ibid., 248, 261, 263, 265).

– **Perillo** (*Pero*): «*Juan Verde e Perillo*» (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 2. or.).

– **Semeniello** (*Semen*): «*Semen d'Armissen tenia estonz a Semeniello, Marquesuela et Maria Garçia, sus fillos de la primera muller*» (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 165).

– **Todiella** (*Toda*): «*Todiella, fija de Johan Periç*» (Berrotza aldea, 1358, Irantzu, 227. or.).

– **Txopillo** (*Txope*). Leitzako *Txopilloborda* etxe izenaren oinarrian dago (NTEMXLVIII: 130). 1596an aurkitu dut lehen aldikotz: «*Beltran de chubieta, m. de chubia, Ju^a Lopez de Chopillo, lope de altamira*» (HA.p., 2). 1726an *Chopillo* moduan ageri da oikonimoa.

7.2.31. -ilon

– **Pedrilon** (*Pedro*): *Pedrilon* (Iru., 1172, Goñi, 337).

7.2.32. -in (gi.), -ino (gi.), -ina (em.)

Meyer-Lübkek azaltzen du (1974 [1890-1906]: 540-541) latineko *-inus*, *-ina* atzizkia 'antza' adierazten zuen adjektibo erabileratik txikigarri balioa izatera igaro zela, batez ere italieran eta portugaleran. Menéndez Pidalen arabera (1977 [1904]: 232), latineko *-inu*, *-ine*-tik eratorri behar dira espainoleko *-ino*, *-in*. Rohlfssek, Pirinioetako hizkerez ari delarik (1951: 502-503), Meyer-Lübkeren ildotik, erraten du atzizkiak hastapenean jabegoa edo antzekotasuna adierazi zuela, baina gero txikigarri bihurtu zela, abere izenekin eta ahaidego hitzekin; maitasuna ere adierazten du, adjektiboekin partikulazki. Pielen irizian (1956: 140) *-inus* atzizkia, germaniar izenetan, *-ein(s)* atzizki txikigarria latinera egokitzearen ondorio da. Dolçen irudiko (1960: 399) latinez *-inus*, *-ellus*, *-inius*, *-illus* bukaeradun erakuntza onomastikoak biziro ugariak ziren, zuten hipokoristiko balioagatik.

García Gómezek (1954: 9-10) Iberiar Penintsulako eta hemendik kanpoko arabiar munduan *-in* bukaera duten hipokoristikoak usaiakoak direla zehazten du, *-ān* edo *-ūn* dutenak ardurakoak diren gisa berean. Mariner-ek (1956-57) bereziki Valentzian ohikoak diren *Paquitin*, *Pepín*, *Placidín*-en modukoez (< *Paquita*, *Pepa*,

Plácida) dihardu eta dio hauek gaztelaniaren hizkuntza sistema hankazgoratzen dutela, *-in* arruntean gizon izenekin erabiltzen delako. Frantsesez eta italieraz ere antzeko zerbait gertatzen da (Glez. Ollé, 1962: 214-216); ikertzaile honek gaztelaniaz bakarrik *-ino*, *-ina* dokumentatzen direla erraten du (ibid., 191), baina aldaera apokopatua Oviedon ageri dela, *Bonin*, *Johanin*, *Maladin*-en tankerakoetan. Autore beraren irudiko (ibid., 329), gaztelaniako atzizkiaren iturburu argia ‘jatorria’, ‘jabegoa’, ‘antza’ adierako adjektiboak sortzen zituen latineko *-inus* da. Berandua-go, 1353ko *El Libro del monedage de Tudela* aztertzen ari dela (1971: 488), erraten du bertan *-ino* eta *-ito* ez direla azaltzen, mirestekoa ez dena, arrazoi geografiko eta kronologikoengatik, baina gehitzen du *-inus*-en ondorengoak garai bereko testuetan badirela (*Johanin* Iruñean, 1385ean).

Buesak (1989: 46, 46) *-in*-ekin eratutako Aragoiko *Chuchín*, *Chusín* (*Jesús*), *Chonín* (*Ascensión*, *Asunción*), *Pachín* (*Francisco*, *Joaquín*) eta beste aipatzen ditu, eta dio arrunta dela gaztelaniaz mintzatzen den franko lekutan. Kanarietan burges familietako haurren izenetan erabili izan da *-in* (Morera, 1991: 204, 217). Saurak (1999-2000: 178) *Bernardino* eta *Chuanina* jasotzen ditu Benasquen. «Langue d’oc»-en eremuan ere ohikoak dira *-in*, *-ine* (eta *-ie*) / *-ina* bukaera duten izenak: *Arnaudin*, *Jantine*... (Fénié, 1992: 84-85), *Amadine* / *Amadina*; *Arnautin* – *Arnaudin* – *Nautin* – *Naudin*; *Blanquine* / *Blanquina*, *Bonine* / *Bonina*... (Grosclaude, 1992: 33, 36, 60, 61); Iglesiasek (2000: 176, 264) okzitaniar atzizkitzat hartzen du *-in*, *-ina*. Dauzaten arabera (1988 [1949]: 113), lehen bizitasun handia zuen berrekailuak (*Jeannin*, *Perrin*...), eta batez ere Frantziako hegoaldean gorde da. Michaelssonek (1939: 112) Parisko Erdi Aroko datuetan aurkitu ditu *Aubin* (*Auberi*), *Bertin* (*Bertaut*), *Gilebin* (*Gilebert*), *Marguerin* (*Marguerite*) eta abarren modukoak. Beider-ek (2001: 48-50) *-in* atzizki hipokoristikoa frantsesez erabili izan dela dio eta, horregatik, ez dela harritzeko Erdi Aroko Frantziako askenazi izenetan kausitzea; zailagoa da, autore beraren arabera, Suitzako eta Alemaniako juduen artean zergatik ageri den azaltzea, germaniar errorik ez duten izenetan.

Dolçek erraten du (1960: 394) latinez *-inus* eta *-illus*-ek, zuten izaera hipokoristikoari esker, patronimikoak sortu zituztela: *Carinus Carus*-en semea zen, *Drusilla Drusus*-en alaba, *Messalina Messalla*-rena; ikus, halaber, Kremer-ek (1995-96: 219) dioena.

Nabarmentzekoa da, bestalde, hainbat izengoititan aurkitzen dugun *-in* atzizkia: *Kaskin*, *Malsin*, *Muxin*, *Pertxin*, *Tirin*, *Matachin*, *Zurrutin* (Salaberri, 1995: 155); Luzaiden, 1886an, *Chirrisquin* eta *Chirrisquin hija* etxeak dokumentatzen dira (Sat., 1965-1966: 29). Cf., gainera, Artaxoako 1330eko *Bartolo Charrin* (1330, *LPN*, 292). *Txikirrin* Aezkoako etxea da 1740tik gutxienez, eta deitura ere bai, Nafarroan. Iberiar epigrafian emakume izenak sortzeko erabiltzen ziren osagaien artean *-in* berrekailua bide zegoen (Velaza, 1996: 38-39).

Hurrengo lekuko bizi hauek bildu ditut:

- **Bautistin** (*Bautista*): *Báutistin* (Lei.).
- **Felixin** (*Felix*): *Felixín* (Lak., hirurogei urte ingurukoa).
- **Jexuxin, Kexuxin, Kettuttin, Txutxin** (*Jesus, Kesus*): *Kèttuttín, Txutxín* (Ea.), *Jèxuxín* (Lar.), *Jéxuxìn, Kéxuxìn, Txutxín* (Lei.).
- **Karlin** (*Karlos*): *Kalín, Kallín* (Lei.).
- **Manolin** (*Manolo*): *Manolín* (Les.).
- **Patxikin** (*Patxiko*): *Patxikín* (Ea.).
- **Sabadina, Xabadin** (eta **Xalbadi**) (*Sabada*): *Xabadin* (Haz., eta *Xalbadí*), *Xabadin* (Luz.), *Sabadina Sabatena* (Done., 1532, Eo.p., 1, 188). Iglesia-sek (2000: 264) *Saubadina* biltzen du, eta *Sauvada* + *-ina* «petite Saubade, Sauvée»-tik eratoritzen.
- **Tomaxin** (*Tomas*): *Tòmaxín* (Lei.).

Dokumentazioan ondoko hauek aurkitu ditut:

- **Antonin** (*Anton*): *Antonin d'Urdayss* (Bai., 1377, Goih., 1966: 109).
- **Baskin** (*Basko*): *Basquin d'Assiayn* (NB, 1368, Goih., 1966: 363; «*lo basquin d'Assiayn*» ere aipatzen du, ibid.), *Basquin d'Atis* (NB, 1378, ibid., 363), *Basquin du Saut* (Zibitze, 1378, ibid., 217), *Basquin de Sant Johan* (Dg., 1407, ibid., 349), *Basquin d'Assyain, Basquin d'Astis, Basquin de Chusco* (Ip. Erdi Aroan, Goih., 1991: 303). Ikertzaile honek izengoitzat hartzen du, eta hala dirudi dela *lo basquin* deizioan (ibid.; *Basquinat* ere bazen: «*Johan Sanz de Garro dit Basquin ou le Basquinat*», Gerezieta, 1384, Goih., 1966: 31). Zernahi dela, *Basco* izena ere bazen Erdi Aroan (*Basco d'Aysa*, Iru., 1343, Barr., 152).
- **Bertaline, Bertelin** (*Bertal*): *Bertelin* (Li., 1174, Goñi, 345; frankoa?), *Bertaline* (BBA, XVIII. m., Iglesias, 2000: 264). Azken ikertzaile honek *Bertal -ina* zatitzen du izena eta «petite Berte» azaltzen.
- **Blankina** (*Blanka*): *Blanquina de yrurcun* (Irurtzun, 1565, HA.p., 2), *Blanquina de ayuça* (Li., 1572, Li.p., 4). Grosclaudek dioenez (1992: 60), *Blanquine* Biarnoko 1385eko suen zerrendan ageri da.
- **Gillemin** (*Gillem*): «*Guillemin Boteri, dicho Ferragut*» (1362, Ruiz, 1998, 345, 37. or.).
- **Jeanin** (*Jean*): *Jehanin* (Dg., 1364, Goih., 1966: 340).
- **Joanin** (*Joan*): *Johanin* (Acedo, 1350, LPN, 356), *Johanin Danet* (Dg., 1361, Goih., 1966: 328), *Johanin* (Beire, 1366, LPN, 490), *Johanin de Aguerre* (NB, 1396, Goih., 1966: 359), *Johanin de Sant Vicent* (Donaz., 1397, ibid., 160), *Johanjn* (Erriberri, 29, Zier. & Ram., 2001, 29, 75. or.), *Joanin* (Dur., d.g., Hid. et al., 1989c, 231, 1037. or.).
- **Lorenzin** (*Lorenz(o)*). Burutaingo 1726ko *Lorenziñena* oikoni-moaren oinarrian dagoke.

– **Menjonin, Monjonin, Minjonin** (*Menjon*): *Menjonin de Larepunte* (Bai., 1396, Goih., 1966: 101), *Mingonin de Subieta* (Martxuta, 1399, ibid., 287), *Monjonin de Barcos* (Bai., 1417, ibid., 91), *Menjonin d'Irube* (Bai., 1464, ibid., 99), *Menjonyn de Subiac* (Bai., XIV. m.?, ibid., 108).

– **Mominus** (*Momus*): *Mominus* (Artea, IX-X. m., Az. & Gar., 1996: 161-164 eta 315-316).

– **Munina** (*Munia*): *Munnina* (Val., 865, PS, 4, 19. or.), *Munina* (ibid., 875, 6, 22. or.), «*Ego Olio et uxor mea Munnina*» (951, Ubieta, 1976, 60, 73. or.). San Juan de la Peñako kartularioan *Monina* dago (Az. & Gar., 1996: 315).

– **Nabarrina** (*Nabarra*): *Navarrina* (Arboti, 1350-53, CPBN, 31. or.), *Navarrine* (Maule, 1377, Zier., 1994: 223). Igliesiek (2000: 115, 264) Biarritzko *Navarrine* etxe izena (*Navarrina* «petite Navarre») dakar.

– **Ortin** (*Orti*): *Ortin Lopez* (Cabanillas, 1366, LPN, 428).

– **Pereina** (*Pere*): *Pereyna de Garro* («éleveur de porcs», Ortzaize, 1381; Goih., 1966: 199).

– **Santzin, San(t)sin** (*Santz, San(t)so*): *Sancins de Feriague* (Uztaritze, 1249, Goih., 1966: 70), *Sançin de Jaureguigoyhen* (Duzunaritze-Sarasketa, 1412-13, CPBN, 101. or.), *Sansin d'Iraurgen* (Bai., 1501; Goih., 1966: 99). Cf. *Santsiñena, Santsinenea, Santsinena, Santsinenea, Santsiñena, Santsiñenea* deiturak. Lhanderen arabera (1926: 1031), *Xantxin Sanche* izena da lapurteraz eta gosearen personifikatzea ere bai; beste aldaera bat, autore honek dakarrenez, *Petiri-Santz* da (ibid., 858). Duny-Pétrék (1996:18) *Xantxin-gorri* biltzen du kantu batean eta erraten *Santso*-ren txikigarria dela.

– **Santzino** (*Santz*): *Sancino* (Ip. Erdi Aroan, Goih., 1991: 303). *Santzin* + *-no* dagoela ere kontu egin daiteke.

– **Txopin** (*Txope*): *Chopin de Lored* (XV. m., LGS, 333).

– **Txopino** (*Txope*): *Chopyno d'Anuçibay* (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 47. or.). Buesak eta Lagüensek (1996-1997: 17) Aragoiko *Garcia Chopino* aipatzen dute eta izengoitizat hartzen, *Txope*-rekin erlazionatu gabe.

7.2.33. –intxe (< -in + -(t)xe)

– **Jonintxe** (*Joan*): *Joninche* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 122. or.).

7.2.34. -ito, -itto; -ita (em.)

Meyer-Lübkek dio (1974 [1890-1906]: 596-597) *-ittus* atzizki txikigarria etorkiz ez dela latinekoa; Iberiar Penintsulako *-ito*, ikertzaile honen ustean, *-iccu* iberikoaren eta Frantziatik edo Kataluniatik hartutako *-ittu*-ren arteko gurutzatzearen emaitza da. Rohlfsek (1951: 508; 1977: 228), Pirinioetako

hizkeretako atzizkiak aztertzen ari delarik, erraten du *-it*, txikigarria denean, *-ittus*-etik atera dela eta espainoleko *-ito*-ri dagokiola. Hasselrotek (1957: 23, 37) uste du lotura zuzena dela latin hizkuntzetako *-tt*-dun atzizkien eta latinez arruntak ziren zeltatikako *-itto*, *-itta*-dun (*Gallitta*, *Pollitta*...) cognominen artean. Tovar-ek (1985: 464) *-ito*-ren etorkia «eztabaidatua» dela dio eta erromatar inperioaren garaiko hipokoristikoetan (*Ateuritus*, *Autaritus*, *Bonitus*, *Gallita*, *Induitus*, *Nonnita*...) agertzen dela. González Ollek (1962: 261. or. eta hurr.) jaulki diren ustekarien bilduma modukoa egiten du eta, denen artean, etorki germaniarra eta zelta aldeztuak ematen ditu egiantzik handienekotzat. Berak uste du, oraino zer azaldu badela erraten badu ere, Hasselroten teoria zeltikoa dela egun sinesgarritasun handiena duena.

Atzizki hau dela-eta honela dio Buesak (1989: 48) egungo Aragoiko hipokoristikoak aztertzean:

«Sorprende la gran difusión de *-ito*, *-ita*, que precisamente por ser raros en sustantivos comunes y adjetivos de las hablas aragonesas, tienen un matiz marcadamente cariñoso».

Egun usaiakoa da Hegoaldean, ezaguna baita atzizki hipokoristikoak aise igarotzen direla, maileguan, hizkuntza batetik bestera (Hasselrot, 1957: 14, 41-43). Arrazoia gaztelaniaz ohikoa izatea da, baita hizkera arruntean *-ica*, *-ico* ibiltzen diren tokietan ere, duen balio adierazkorragatik (*Blanquita*, *Isidrito* Uxuen, erraterako). Nafarroako erdaratan, antroponimoetan, zenbait aldiz *-ico* eta *-ito* bereizi egiten dira: lehenak tamaina adierazten du, eta bigarrenak hipokoristikotasuna (*Luisico* ≠ *Luisito*, *Pedrico* ≠ *Pedrito*, Uxuen).

Egungo kasuren batean *-itos* dugu, ez *-ito*, oinarrizko izena *-s*-ez bukatzen denean: *Karlos* → *Karlitos*, *Mercedes* → *Merzeditas*, *Milagros* → *Milagritos*. Funtsean gaztelaniako usadioa da hau; ikus Carreño (1999).

- **Adelita** (*Adela*): *Adelíta* (Ea., El.).
- **Agedita** (*Ageda*): *Agedíta* (El.).
- **Alfonsito, Alfonsito** (*Alfonso, Alfonsito*): *Alfonsító* (Ara.), *Alfonsító* (Les.).
- **Andresito, Andresitto** (*Andres*): *Andresító* (Ig.), *Andrésittò* (Lei.).
- **Anita** (*Ana*): *Aníta* (Garazi, Lab., Luz., Zub., Zug.), *Anita Lopepe* (Larزابale-Bunuze, *He.*, 2004-III-18, 3), *Anita Falxa* (Larزابale, *He.*, 2005-2-17, 5). *Anéta* ere bada.
- **Anjelita** (*Anjeles*): *Anjelíta* (Ara., Ig.).
- **Anpaitto** (*Anparo*): *Anpáittò* (Lei.).
- **Barbaita** (*Barbara*): *Barbáita* (Ara.).
- **Bittorito** (*Bitorio, Bittorio*): *Bittóritò* (Lei.).

- **Borjita** (*Borja*): *Borjita* (Hondarribia, mutil ttikia da).
- **Elenita** (*Elena*): *Elenita* (El.).
- **Enkarnita** (*Enkarna* < *Enkarnazion*, *Enkarnaxion*): *Enkárnità* (El.).
- **Esperantxita** (*Esperantzta*): *Espèrantxita* (Auzo; *Esperántza* ere erraten diote).
- **Faito** (*Rafael*): *Fáitò* (Lei.).
- **Gergorito, Gregorito** (*Gergorio, Gregorio*): *Gérgoritò, Grégoritò* (Lei.).
- **Inazito, Inazita, Inaxito, Iñaxita, Iñaxito** (*Inazio, Inazi(a), Iñaxi, Iñaxio*): *Ìnazita* (El.), *Inaxito* (Ea.), *Iñáxitó* (Goi.), *Inázitò, Inázitá* (Lei.), *Iñaxita* (Lizaso, 1998: 138).
- **Inesita, Inexita** (*Ines*): *Inesita* (Am., El.), *Inexita* (dudazkotzat eman didate, Eu.).
- **Ingrazita** (*Ingrazia*): *Ingrázitá* (Lei.).
- **Isidrito, Isidrita, Ixidrito, Ixidrita** (*Isidro, Isidra, Ixidra*): *Isidritò, Isídrità, Ixídrìtò, Ixídrità* (Lei.).
- **Ixabelita** (*Isabel, Ixabel*): *Ixábelità* (Goi.).
- **Jabito** (*Jabi*): *Jábitò* (Lei.).
- **Jexuxita** → **Txutxita** (*Maria Jexux*): *Txutxita* (Arr.).
- **Jexuxito** (*Jesus, Jexux*): *Jéxuxitò* (El.).
- **Jorjito** (*Jorje*): *Jorjito* (Ara.; honen aitatxi *Jórje áundi* zen).
- **Joselito** (*Jose Luis*): *Joselito* (Ea.).
- **Joxepita, Oxepita** (*Joxepa, Oxepa*): *Jòxepita* (Ara., Eu.), *Oxépità* (Goi.), *Joxépita* (Lab.), *Jóxepità, Óxepità* (Lei.), *Joxepita* (Oitz).
- **Juangoxito** (*Juangoxe, Juanjose*): *Jwángoxitò* (Goi.).
- **Juanito, Joanito, Joanita, Juanita** (*Juan, Juana*): *Joanyto d'Arriola* (Bidania, 1481, Aierbe, 2006, 250, 163. or.), *Juanito* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 261. or.), *Juanito de Lexalde* (Zaldu., 1496, Lu. & Zu., 2001, 95, 87. or.), *Juanito de Ormaçabal* (Zeg., 1516, Po., 2001, 43, 239. or.), *Joanita* (Am.), *Jwanitò, Jwanità* (Asteasu), *Jwanita, Jwanito* (El.), *Jwanito, Jwanita* (Ea., Eu., Ig.), *Jwanito* (Lab., Oitz), *Jwanito, Jwanita* (Zug.), *Joanito Agirre Gogortza, Joanita Arribillaga Sagastibeltza, Juanita, Joanita, Joanita Atsotitakoa, Joanito Urbitakoa* (Lei., Peru., 1996: 7, 150, 158, 167, 206), *Joanito* (ibid., 136), *Joanita, Joanito* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 254, 262), *Klementeneko Juanita* (Arnegi, *He.*, 2004-X-28, 5. or.).
- **Julita** (*Julia*): *Julita* (Ig., Zug.).
- **Karlitos, Karlito** (*Karlos*): *Karlitos* (El.), *Karlito Barneche* (Heleta, *He.*, 2006-X-19, 5).
- **Klarita** (*Klara*): *Klarita* (El., Ig., Zug.).
- **Kontxita** (*Konzeptzion, Kontxa*): *Kontxità* (Goi.), *Kontxita* (Ara., El., Eu., Ig., Zug. Etxalekukoari *Kóntxi* ere erraten diote; Etxalarren *Kóntxi* ere badago), *Kontxita* (Lizaso, 1998: 138).
- **Korito** (*Koro*): *Korito Arraras, Korito* (Lei., Peru., 1996: 7, 165).

- **Kristinita** (*Kristina*): *Kristiníta* (El.; *Kristi* ere erraten diote).
- **Kruzito** (*Kruz*): *Kruzító* (Ea.).
- **Laxarito** (*Lazaro, Laxaro*): *Láxaritó* (Goi.).
- **Lolita** (*Dolores, Dolorita(s)*): *Lolíta* (Ara., Ig.).
- **Lorentxito** (*Lorentzo, Lorentxo*): *Loréntxitò* (Goi.).
- **Luisito, Luixito, Luxito, Luixita, Luxita** (*Luis, Luisa, Luix, Luixa*): *Lwixító* (Arb., Arr., Auza, Sal.), *Lwisíta, Lwisító* (El.), *Lwisító* (Ig.), *Lwíxitò, Lwixità* (Lei.), *Luxító, Luxíta* (M^a Luisa berezko izenez, Eu.).
- **Lukaxito** (*Lukas, Lukax*): *Lùkaxító* (Arb.).
- **Lutxita** (*Lutxi*): *Lutxità* (Goi.).
- **Manolito** (*Manuel, Manolo*): *Manolító* (Ig., Zug.).
- **Marikita** (*Maria*): *Marikíta* (Baigorri). Irudi luke tartean, oinarriaren eta *-ita*-ren artean, badela beste atzizki bat. Amaiurren *Mariquitarena* (1726), *Maquitenea* (1825), *Makiténěa* eta *Makitèneko bórda* ditugu.
- **Markoxito** (*Markos, Markox*): *Màrkoxító* (Arb.).
- **Martinita** (*Martina*): *Màrtiníta* (El.).
- **Merzeditas** (*Mercedes*): *Mèrzeditas* (El.).
- **Migelito, Mielito, Milito** (*Migel*): *Mielító* (Eu.), *Migelító* (Ea., Eltz.), *Militò* (Lei.). Saraguetak (1979: 10) Mezkirizko *Migelitoña* etxea aipatzen du.
- **Milagritos** (*Milagros*): *Milagritos* (Eu.).
- **Pakito, Pakita, Pakitto, Pakitta** (*Pako, Paka*): *Pakíta* (Ara., Lab.), *Pakító* (El.), *Pakitto* (It., Les.), *Pakító* (Ig., Zug.), *Pakíta* (El., Lab.), *Pákittò, Pákittà* (Lei.), *Pakito Zabaleta, Pakita Zestau, Pakita* (Lei., Peru., 1996: 12, 150), *Pakita Balda Mendinueta* (Arb., Erdozia, 2001: 39).
- **Pantxito, Pantxita** (*Pantxo*): *Pántxitò* (Lei.), *Pantxító* (El.), *Pantxita* (Urd.-Zug., Montoya, 2004: 227). Hemen kontuan hartu behar da *-ito* hau oinarritzko izenak (*Frantzisko*-k) duen *-sko* bukaeraren ordainez egon daitekeela.
- **Paulito, Paulita** (*Paulo, Pablo, Paula*): *Paulító* (Am., El.), *Paulíta* (Ari.).
- **Paxita** (*Paz*): *Paxíta* (María Paz berezko izenez).
- **Pedrito** (*Pedro*): *Pedrito* (El.), *Pedrito* (Luz., Sat., 1969b: 73).
- **Pellito** (*Pedro, Pello*): *Pellító* (Ea., Arb.).
- **Pepito, Pepita** (*Jose, Josefa*): *Pepíta* (Eu.), *Pepito Yantzi* (Lizaso, 1998: 87).
- **Poentxito, Pontxito** (< *Pontxo* < *Florentzio*): *Poéntxitò* (Goi.), *Pontxito Irurtia* (Lei., Peru., 1996: 214).
- **Prakito** (*Praisko*): *Prakító* (Ea.).
- **Purita** (*Purifikazion*): *Puríta* (Ara., Eu.).
- **Ramonzito, Ramonita** (*Ramon, Ramona*): *Ramoníta* (El.), *Ramonzító* (Zug.).
- **Rosarito, Rosaito, Roxarito, Roxaito** (*Rosario, Roxari*): *Rosarító* (El., Lak., Oitz), *Roxáito* (Eu.), *Roxarító* (It.), *Rosáitò* (Lei.).

- **Roxita** (*Rosa*): *Roxita* (El., Ig., Lab.).
- **Sagrario, Sagraitto** (*Sagrario*): *Sagrario, Sagraitto* (Eu.).
- **Terexita** (*Terexa < Teresa*): *Terexita* (El.).
- **Tomasito, Tomaxito** (*Tomas*): *Tomasito* edo *Tomaxito* (Arr.), *Tomasito* (El., Les.).
- **Txarito** (*Txaro < Rosario*): *Txarito* (El.).
- **Xantita** (*(Mari) Santos*): *Xántita* (Lei.).

Dokumentazioan hurrengo hauek opatu ditut:

- **Antxito** (*Antxo*). Elizondoko *Anchitorena* oikonimoan azaltzen da (1727, 1781, Ba.h., 1, 92. zkia., 46; egun *Antxitonéa* erraten zaio erdaraz, *Antxitóněa, Antxitónja* euskaraz). Itsason, 1726an, honekin lotua bide dagoen *Anchetorena* etxe izena zegoen.
 - **Belaskita** (*Belasko*), **Blaskita** (*Blasko*): *domna Belasquita* (980-990, Lakarra, 1945: 232), *domna Blasquita* (Arresa, 1097, Lakarra, 72), *dompna Blaschita* (Oibar-Argedas, 1101, Leire, 190), *dona Blasquita* (Arraztia, Deierri, 1256, Irantzu, 234. or.), *Blasquita de Ariçaleta* (XIII. m., Irantzu, 245. or.), *Blasquita femina* (Iru., XIII. m., Ubieto, 1954, 5. aurkia). Portugalera *Velasquida* zegoen (Leite de Vasconcellos, 1928: 110).
 - **Beraskita** (*Berasko*): *dompna Berasquita de Guendulain* (1142-1150, Ost., 7).
 - **Diagito** (*Diago*): *Diaguito de Muñatones* (XV. m., LGS, 468).
 - **Ferrandito, Ferrandita** (*Ferrando, *Ferranda*): *Ferrandito, Ferrandita* (Ondarroako 1893ko gutunak; ikus Kamino & Salaberri, 2006: 106).
 - **Frantziskito** (*Frantzisko*): «*Yten mando a Françisquito, mi fijo*» (Oñ., 1517, Zu., 1998: 397).
 - **Gartxito** (*Gartxo*-tik edo beharbada *Gartxia*-tik). Iruritan 1824an *Garchitorena* oikonimoa ageri da (Ba.h., 1, 92, 49), Lekarozen 1727an *Garchitorenena*, orain *Gartxitónja* bihurtua. Etxalarren *Gartxitonea* dugu egun, baina ez dago honen lekukotasun zaharrik (Ap. & Sal.). Ororbiako 1726-27ko *Architonecoa* ere *Gartxito*-n edo honen **Artxito* aldaeran oinarritua dateke.
 - **Gazito** (*Garzi(a)?*). Amaiurko *Gazitorena* (1726), *Gacitorena* (1825), *Gaztóněa* (egun) oikonimoaren oinarrian dago.
 - **Mantzito** (*Mantxo < Mantso*). Oikonimotzat ediren dut: «*Casa de Manchito*» (Itzalle, 1695, Z.p., 20, 13).

7.2.35. -itxo

- **Juanitxo** (*Juan*): *Juanicho de Vriçar* (Urizar, 1503, Po., 2005, B31, 311. or.), *Juanycho de Galarçaeche* (Aretxabaleta, 1497, Le. & C. & La., 16, 197. or.).

7.2.36. **-ki, -gi**

Irigoienek, *Martin Enequy* antroponimoa aztertzean, erraten du *-ki* atzizkia *-ko*-ren aldaera besterik ez dela, baina ez du azalpen gehiagorik ematen (1983: 12). Toponimian, alderdi batzuetan bereziki, ardura agertzen da *-ki*: *Iturriki, Kortaki, Mendiki, Torrekia, Zaldukia, Zubizarki...* Ikus Salaberri (1998: 80-81). Hasselrotek (1957: 308-309) dio zenbait hizkuntzatan «que le soleil, et Dieu même, soient nommés par des diminutifs véritables, est un fait qui, tout courant qu'il est, suscite souvent quelque étonnement». Ez dakit euskarazko *eguzki* eta *jainko* berez txikigarriak direnetz, baina bistan da hitz horietan egon daitezkeen *-ki* eta *-ko* atzizkiak txikigarriak (eta hipokoristikoak) izan direla gure hizkuntzan. Inoiz *-ke* aldaera ere ageri da, segur aski erdararen eraginez.

Ditudan lekukotasunak hauek dira:

– **Eneki**: *Martin Enequy* (Etxabarri Allin, 1350, LPN, 364).

– **Joangi, Joanki, Juangi** (*Joan*): *Juanguí d'Iraugui* (Don., 1446, Crespo et al., 1996, 119, 161. or.), *Juanguy de Vçarraga* (Deba, c. 1444, Her. & Bar., 2006, 38, 135. or.), *Joanguí de Igueldo* (Pasaia, 1457, Elortegi, 1992: 165), *Joanguí de Arburu* (Oiartzun, 1474, C. & C. & G., 1997, 59, 25. or.), *Joanguí de Aranburu* (Oiar.al., 1478, ibid., 69, 56. or.), *Juanguí de Arrallus, Juanguí de Arraçola* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 263. or.), *Juanguí de Viayn* (Oñ., 1503, Zu., 1999: 92, 96; ibid., 1506, 128-129. or.) = *Joanqui de Biayn* (Oñ., 1514-1516, Zu., 1998: 374), *Juanguí de Arabaolaça* (Legazpi, 1513, Aierbe, 2006, 290, 274. or.), *Johanguí de gorostapolo* (Apaioa [Azp.], 1530, Eo.p., 1, 116), *Pedro Joanguí* (Ezkaroze, 1641, Z.p., 1, 22). Orotz-Betelun *Joanguí* oikonimoa ageri da 1625ean (Au.p., 2bis, 247), Astitzen *Juanguirena* 1726an, Munarritzen 1758an (MUA).

– **Mariki(a)** (*Mari(a)*): *Mariqui de Çapatartegui, Mariqui de Ysturiçaga* (Andoain, 1475, Le. & Ta., 1996, 19, 65. or.), «*donna Millia e Mariquya, biudas*» (Egino, 1529, Po., 2001, 38, 172. or.). Olaguen *Mariquirena* oikonimoa zegoen 1582an (At.p., 8, 73) eta 1608an (Ue.p., 42), *Mariquerena* 1582an (At.p., 8, 73), *Mariquenecoa* 1726an. Gerendia in Erroibarren *Mariquirena* ageri da urte honetan, Etxaurin *Mariquiencoa* 1727an, *Mariquena* Gerendia in Ultzaman data berean.

– **Martiki** (*Marti*): *Martiqui de Pollon* (Pasaia, 1457, Elortegi, 1992: 165), *Martiqui de Alçega* (Don., 1462, La. & Le., 1995, 57, 103. or.). Zizur nagusiko *Marchiquenecoa* oikonimoaren oinarrian (Jimeno, 1986: 212) *Martiki* bera egon liteke, edo honen **Martixiki* aldaera (cf., bestalde, *Peruski / Peruske*), besteak beste.

– **Matxiki, Matxike** (*Matxi*): «*a Machin de Muru e a Miguel de Aravaolaça e Joandegui de Vergaraeche e Machique Teyeria*» (sic) (Legazpi–Segura, 1483, Aierbe, 1993, 35, 130. or.). Luzaiden 1726an orain ezezaguna den *Machi-*

quirena etxe izena azaltzen da, eta badaiteke hemen ere *Matxiki* izatea; kontuan har, edozein modutan, herri honetan *Maittipi* (*Mari(a)* + *ttipi*) oraino bizirik dagoela.

– **Matxingi** (*Matxin*): «*Martin de Larraul, dicho Machingui*» (Andoain, 1475, Le. & Ta., 1996, 20, 66. or.).

– **Mitxelki** (*Mitxel*). Ardatz Itzagaondoko *Michelquirena* etxe izenaren oinarrian dago (1770, Au.p., 43, 26); agirietan oikonimo hau berau urte batzuk lehenago, 1726an, *Michelqui* da.

– **Nonaki** (**Nona?* Cf. *Nuno*, *Nuño*, *Nunu*, *Nunia*): *Nonnaqui* (Itzalle, XI. m., Leire, 184).

– **Otxoake** (*Otxoa*): *Ochoaque de Uralde* (Azua, Araba, 1470, Zu., 1994, 10, 50. or.).

– **Otxoki** (*Otxo(a)*). Errazkingo *Ochoquirena* (1594, Le.p. 1) eta Goizuetako *Ochoquirena* (XVII. m.), *Ochoqui* (XVIII. m.), *Ochoquia* (XIX. m.) oikonimoetan aurkitu dit. Urumearen ertzeko herrikoa *Otxóki* ahoskatzen da egun; Baraibarren *Otxokinbórda* dago orain (*NTEM* XLV, 104).

– **Peruki** (*Peru*). Olagueko *Peruquirena* etxe izenaren oinarrian bide dago (1582, At.p., 8, 73). Oikonimo hau, dena dela, *Perusquirena* ere dokumentatzen da. Ikus *Peruski* sarrera.

– **Xonaske** (*Xonas* 'Jonas?'): *Xonasque de Ariçavalo* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.).

– **Xurdangi, Txurdangi** ((*T*)*xurdan(a)*). Aranoko *Jurdanguy de arano* antroponimoan (NA0, 66346, 1559) eta herri bereko *Jurdangui* (1555; P. Perurenaren datuak), *Churdangui* (1726), *Txurdáingi* (egun) etxe izenean ageri da (cf., atzizkirik eza dela eta, herri bereko *Perucho*, 1726, *Péutxò* orain). Egungo aldaeran sudurkariaren aitzinean ageri den bokal erdiaz kestone, pentsa daiteke bukaerako palatalak eragin diola, edo, menturaz, zuzenagoa izanen da erratea hemen ere *aingeru*-n, *aingira*-n sortu den arrazoi beragatik sortu dela, edo bi gauzok izan dutela zerikusia. Ikus *Ainhize* izenaren bokal erdiaz mintzatzean diodana (Salaberri, 2005). Zubirik eta Perurenak (1998: 236) *Txurdangiko borda* biltzen dute.

7.2.37. -kin, -kina (< -ki + -in(a)?)

Luchairek (1973 [1879]: 69) Akitaniako *Bibos-cinnis*-en dagoen atzizkia euskarako *-gin* (< *egin*) egile atzizkiarekin lotzen du. Von Grienberger-ek (1905: 543-544) erraten du, Meyer-Lübkeren *Romanische Namenstudien* lanari egindako iruzkinean, *Eldequina*, *Inderquina*, *Enderkina* izenetako *-kina* atzizki-biltzearen ondorio dela, eta bigarren zatia ezin zaiola gotikoari atxiki. Autore honek uste du «*Bertiario Maloquinici ic test*» idazkuneko *Maloquinici* hori ez dela patronimikoa, eta oinarrian dagoen **Maloquinus* latineko *-inus*-dun izenen artean sailkatu beharra dela.

Mitxelena (1954: 415) *-cin(n)* dakusa Akitaniako idazkuretako *Bihoscinnis* genitiboan, eta apika *Torsteginno*-n. Errenteriarak *-cin(n)* edo *-gin(n)*, menturaz, Erdi Aroko *Anderquina*, *Anderguina*, *Andrequina*-n dagokeela ere badio (ibid., 435). Gorratzategiren irudiz (1984: 128, 165), Erdi Aroko *Anderequina*-n dugun atzizkia *-kin(n)* da, hots, **-nn-* geminatu edo *fortis*-a dukeena, bokal artean erortzen ez dena; Akitaniako idazkunei doakienez, *Torste-ginn-o* ez ezik *Tors-tegi-nn-o* ere zatitu daitekeela dio, eta, beraz, azken izen honetan beste atzizki bat ere izan genezake. González Ollek (1962: 166) latineko *-ina* dakusa *Anderquina*-n, baina ez du zehazten oinarrian zer izen dagoen.

Iglesias (2000: 176-177), *-ic* erromatarren aurreko okzitaniar atzizkia aztertzen ari delarik, erraten du *-iccu*-tik atera dela (ikus Menéndez Pidalen iritzia, *-iko* sarreran), eta Nafarroan eta Aragoin biziki erabilia dela (*-ico* itxurapean, jakina). Asturiasen arrunt adiera afektiboa duten *-iquin*, *iquina* (*homiquin*, *muyeriquina*) ere aipatzen ditu, eta gehitzen Erdi Aroko *Anderguina*, *Anderquina*, *Andrequina*-n dugun bera datekeela. Hemen oroitu beharra da Michaëlssonen arabera (Dauzat, 1988 [1949]: 113, 117) *-quin* atzizki hipokoristikoa flamenkoa zela, flandriarra alegia, *Gosquin*, *Hanequin*, *Willequin*-en modukoetan. Gure kasuan logikoena Akitaniara jotzea dela irudi du, ez Asturias edo Flandriara, denen etorki komuna frogakizun baitago oraino, hagitz oker ez banabil.

Lekukotasunak:

– **And(e)rekina** (*And(e)re*): *Anderquina* (759, Ubieto, 1976, 1, 9. or.), *Andrequina* (Araba, 1096, ibid.-II, 262, 175. or.), *domina Andrequina* (1142, Goñi, 235), *Anderquina* (Sauvelade, 1178, Gorr., 1984: 128), *Anderequina* (Caro Baroja, 1945, 68). *Andergina* (Val., 950, PS, 26, 48. or.) eta *Andrequiña* (XV. m., LGS, 38) ere bada.

– **Joanikin, Janekin** (*Joane, Juane, *Jane*): *Janequin de Hiriard* (Bai., 1466, Goih., 1966: 98), «*Mariton, Johanon y Johaniquin, hijos naturales de mosen Leonel*» (Iru., 1413, Castro, XXX, 889, 439. or.). 1369an «*Hanequin l'alemant*» ageri da (Ruiz, 2004, 2038, 274. or.).

– **Marikin** (*Mari(a)*): *Mariquin seme* (Gerendiain Ultzama, 1552, At.p., 1, 123). Honela dio agiriak: «*Malliato [...] hija que soy de machinto dco. Mariquin seme defunto*». Pentsa daiteke, halaber, hau *Marikiren seme*-ren moduko batetik atera dela.

– **Pereskin** (*Pero*-ren aldaera, irudi duenez): «*Pero Martines de Malax, dicho Peresquin*», «*el mançanal que Peresquin de Malax tiene en lo de Murelaga*» (Malax, 1411, Enr. & Sar., 1986, 22).

– **Perukin** (*Peru*). Etxalarko *Peruquiñena* (XVII-XVIII. m.), *Peruquiñenea* (XIX-XX. m.), *Perukiñenia* (egun) oikonimoaren oinarrian dago (Ap. & Sal.).

– **Zarkin, Zarkina** (*Zar*): *Sanso Zarquina* (Art., c. 1158, 123), «*Pascoal, fijo de Lope Çarrguin*» (sic) (Oteitza Iguzkitzaibar, 1330, *LPN*, 289). Bigarrena zalantzazkoa da, izengoiti itxura handia izateaz landara, <g>-z idatzirik baitago (cf. *Andergina*). Zernahi dela, oinarrian *zahar* izenondoa dugu, bi lekukotasunetan.

– **Zorrakin**. Omaetxebarriak (1949: 157) Gaztelako agirietan agertzen den *Zorraquinus* aipatzen du, eta *Sarracinus*-ekin lotzen.

Iruñean 1285ean *Garcia Lopeitz Burusquin* azaltzen da (*DNLO*, 72). Hau, agerian denez, izengoitizat hartu beharko dugu, ez izentzat. Cf. *Burusko* Aezkoako deitura.

7.2.38. -kito (< -ko + -ito)

– **Patxikito** (*Patxi*): *Patxikito* (Ig., Lie.).

7.2.39. -ko (-ku), -ka (femeninoa; bakanka agertzen da). Ikus –go berrekailuari eskainitako atalñoan erran dudana.

Astarloaren arabera (1803: 260) *Martinkorena*-n azaltzen den –*ko*-k balio handigarria du, baina hau ezin da ontzat hartu, datuak ikusirik. Luchaireren irudiko (1973 [1879]: 69), *Belexconis* izenak («où le radical paraît ibérique») zalantzarik gabe euskarako *co, go* «suffixe qualitatif» du osagaitzat (ikus Gorr., 1984: 262).

Schuchardtek (1909: 243) Ascolico brontzeko *Austinco* izenean *Austin*-eta –*co* zekusan, hots, *Ausa* (*Vich* egun) gogora zekarkion oinarria, eta –*ko* atzizki zeltiko eta euskalduna. Honela dio:

«-co in *Austin-co* 4^b ist das bekannte kelt. Iber. Bask. –*ko* (s. Iber. Dekl. S. 44 ff.; vgl. insbesondere aquit. *Estenconis* Gen. XIII, 271), *Austin*- hat vielleicht eine Beziehung zu dem *Ausa* des Nordostens».

Lizopek (1931: 61) –(c)-*co* ikusi beharrean *uca, ucca, aco, inco* edo *enco* atzizki ligurrak dakuski *Attaco, Estenco* bezalako izenen bukaeran, nahiz horietako batzuk euskal etimologia garbikoak diren Mitxelenaren (1954: 415-416) eta Gorrotxategiren arabera (1984: 159, 245, 261, 367; 1985: 617, 622. Ikus, gainera, 1984: 147-148, 1986: 530 eta 2003: 31): *Belexconis, Cereco, Ombecco, Sembeco, Senicco*... Eibarko irakasleak dioenez (1984: 229, 257), –*co*(*n*) atzizkia ardurenean maskulinoak diren pertsona izenetan kausitzen dugu, –*ten*(*n*) eta –*to*(*n*) bezala bi modutara izkiriatuak: herskari bikoitzarekin (–*cco*-) edo herska-

ri bakunarekin (-co-). Mitxelenak (1957b: 128) erraten du grafia geminatu horiek ebakera gogorra adierazten dutela, ez aspiratua, eta *b*, *d* eta *g* ez direla sekula geminatzen.

Bähr-en iritzian (1948: 105) *Austin-co* izenaren -co atzizkia zelta da. Tovar-en irudituan (1954, 1959: 69-80, 1985: 460, 463-464, 466), euskarazko -ko (-sko, -ska ere bai) -ico-rekin eta -i-ren ordeztelako bokal tematikoak dituzten atzizkiekin loturik dago, eta euskarara Europako mendebalde indoeuropartutik zabalduko zen. Albertosek (1966: 46) *Austinco* iberiar baten izena dela erraten du, baina erroгатik eta atzizkiagatik indoeuropar antroponimoa irudi duela (**auēs*- 'dir-dir egin' erroa duena menturaz); atzizkia ligurra iruditzen zaio. Ikus, orobat, Palomar Lapesaren lana (1960: 374). Abadiñoko inskripzioko *Iavninco* izenaz Tovar (1959: 96-99), Mitxelena (*TAV*, 2.1.2.) eta Trask (1995: 74-75) ikus daitezke.

Mitxelenak dioenez (1954: 441-442), Akitaniako idazkUNETAKO -co(n), -cco(n) berrekailua txikigarriak eta, oro har, hipokoristikoak sortzen dituen euskarazko -ko-rekin identifika daiteke. Akitanian *Ombecco*-n, *Laurco*-n, *Senicco*-n eta bestetan agertzen da, zenbait aldiz sudurkariaren luzapena duela, zehar kasuetan: *Attaconi(s)*, *Belexconis*, *Borconis*, *Haslconis*, *Halscotarris*, *Sembeconis*... (ibid., 415-416); ikus orobat Lafon (1959: 9-10) eta Gorrotxategi (1984: 134, 147, 159, 177, 261-262). Mitxelenak eta Gorrotxategi nabarmentzen duten bezala, beti izen maskulinoen lagun ageri da, *Andreconi*-n izan ezik; Errenteriakoak (1954: 429, 442), Akitaniako aipatu atzizkia eta Erdi Aroko -co bat-berztat hartu ondoan, erraten du *Onneca*, *Urraca* izenen bukaerako -ca generoaren mozioa duen -co-ren aldaera besterik ez dela. Beranduago ordea, *Eneko* / *Oneka* pareaz ari dela, eta elkarren arteko harremana baztertu gabe, honela mintzo da (1969: 52):

«Lo más turbador es acaso el par *En(n)eco* / *On(n)eca*, rom. *Yennego* / *Uennega* (*Huenega*, 471, 1283, Buñuel), difícil de separar, donde la diferencia de terminación, que podría explicarse con el modelo latino-románico, se complica con la variación en el vocalismo inicial».

Hubschmiden lanari egindako erreseinan (1969b: 401) erraten du euskarazko -ko-k (-ka-k) indoeuropear bete-beteko baliokidetza duela, baina bat-etortze honetaz ez du iritzia ematen, eta artikulua «bat-etortzea, halabehar hutsa da edo badu motibazio historikoa?» galderarekin bukatzen du. Beranduxeagoko beste lan batean (1972: 310) deklinabideko -ko-rekin identifikatzen du eta erraten bizidunekin ezin agertzearen arrazoa atzizkiak, haiekin ibiltzen zenean, eratorpen balioa atxikitzea edo hartzea izan zela, batez ere balio txikigarria, zein Akitaniako idazkUNETAN ongi dokumentaturik baitago.

Eslabiar hizkuntzetan *-ka* eta *-ko* duten berrekailu txikigarri eta hipokoristikoak badira (Beider, 2001: 72, 76), lehena femeninoa batez ere eta bigarrena maskulinoa, baina ez naiz horren eta gurearen artean harremanik badenetz errateko gauza.

FHV maisu lanean (255-257) Mitxelenak erraten du Akitaniako idazkuntetan, bokalen artean, *cc* eta *tt* grafiak ardurakoak direla, *-cco(n)* eta *-tto(n)* bezalako atzizkietan, *c* eta *t*-rekiko txandaketan betiere. Honen azalbide bat izan daiteke, haren iritzian, hasperendu gabeko herskari ahoskabe gogorak irudikatzen zituztela kontu egitea, ez geminatuak. Txandaketa *th*-ren eta *t*-ren artean gertatzen zenean, ordea, hasperendua adierazi nahi zela uste du. Ez da hau, zernahi gisaz, eta autoreak dioen bezala, daitekeen azalpen bakarra, indoeuropar hizkuntzetan, izen berezietan, kontsonanteen geminazioa ongi ezaguna delako. Gaineratzen du Galiako idazkuntetan grafia bikoitzak bakunekin batean agertzen direla, eta berez aspiratuak adierazi ohi zituzten letrak edo letra multzoak erabiltzen zirela.

Verdek (1974: 284 eta hurr.) beste ikertzaileek mahaigaineratutako usetekariak aipatzen ditu, baina berak ez du garbi ikusten berrekailuaren nondikakoa, eta bere buruari galdegiten dio *Eneko*-n (> *Yéñego*) ez ote dagoen Menéndez Pidalek aztertzen duen *-eko* (> *-(i)ego* erromantzez) erromatarren aurreko hispaniar atzizkia. Ondorio hau iristen du: «Nos perdemos en la noche de los tiempos, pero lo que queda claro es que no llega a “demostrar” que el *-co* de *Enneco* sea un vasquismo, aunque no deja de ser verosímil». Ikus, gainera, *-iko* sarrean erran dudana.

Irigoién (1987: 59-63; 1990: 44-46, 1995: 16-17) ados dago Mitxelenak dioenarekin, baina uste du *-ko* zenbait testuingurutan bizidunekin ere joan daitekeela eta banaketa edo distribuzioaren eremua ez dela hain garbia. *-Ti* atzizkiak duen jokabide bera duela uste du: deklinabidean ibiltzen da, pertsona izenekin eta izengoitiek.

Nik bildu ditudan datuetan *-ka* femeninoa hagitx gutxitan agertzen da, eta emazteki izenek berek ere *-ko* eraman ohi dute eskuarki (*Auriko*, *Elbirako*, *Mariko*...); beharbada honen arrazoia oinarriko izena garbiro gizonarena edo emaztekiarena *-ez* batarena nahiz bestearena *-izatea* dateke (ikus Mariner, 1956-57); cf. egungo *Arritxu*, *Estitxu*... femeninoak; ikus Íñigo & Salaberri (1997: 261). Guztiaz ere, euskara arruntean *-ka* zenbaitetan emeekin erabiltzen da, adibidez *behoka* (baina *zaldiko*) hitzean; ikus Mitxelena (1954: 429). Velazak dio (1996: 45-46) iberieraz *-ka* morfoa badela, agian pertsonak ekintza egiten duela edo haren alde egiten dela adierazten dukeena, hots, ergatiboaren antzeko zerbait datekeena, baina zer balio semantiko duen ez dago garbi, eta «las hipótesis que se pueden formular no pasan de ser especulaciones con mayor o menor

fundamento» erranez bukatzen du. Morvanek dioenez (1996: 225), *-ko-k -to* eta *-txo* aldaerak ditu, baina ez dakit zertan oinarritzen den baieztapen hori egiteko, ez baitu arrazoirik ematen; japonierako *-ko* 'txikia, haurra'-ri dago-kiokoeela ere badio.

Erdi Aroan arrunt ugaria da atzizki hau; ez da ahantzi behar XIII. mendean Berceok darabilen *çatico* 'zatitxoa' hitzean ageri dela (Tovar, 1985: 462). Ikus *-iko*-ren etorkiaren mintzatzean erran dudana.

Gaur egun atzizki hau gutxitan kausitzen dugu, baina ezin erran behin ere agertzen ez dela:

– **Asisko** (*Asis*): *Asísko Urmeneta* (Iru.).

– **Harizko** (*Haritz*): *Harísko* (Iru.).

– **Patziko, Patxiku, Patziku, Mantziku, Patxika...**: *Mantzíku* (Ari.), *Patxíku* (Done.), *Patzíku* (Goi., Ig., It., Lab., Oitz), *Patzíku* (Luz.), *Patxíku* (Sak.), *Patxíku* (*Garoa*, 90. or.), *Patxíku Ubilots* (Ormaetxea, 1976: 287; hurrengo orrialdean *Patxi* deitzen dio), *Patxíku Alduntzin Zabaleta*, *Patxíku Deskarga Telletxea* (Lei., Peru., 1996: 7-8, 117), *Patxíku Saltsa* (Areso, ibid., 36, 143), *Le-kungaraiko Patziku* (Lizaso, 1998: 31), *Patxíku* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 188). Kontua da izenok *Patxi*-tik eratorri behar diren edo zuzenean *Frantzisko*-tik, kasu batean eta bestean desberdin aztertu behar baikenituzke. Azkuek hiztegian *Patxi*, *Patxíku*, *Patxíku*, *Patxíku* formak *Francisco*, *José Francisco*, *Francisca*-ren izen herrikoitzat ematen ditu.

Jakina den bezala, *Eneko* mutil izena hedatua da egun, eta *Eneka* femeninoa ere ez da ezezaguna, baina ez bata ez bertzea ez dira hipokoristikotzat hartzen, jatorriz apika hola izanagatik ere. Ikus beherago diodana.

Orain ohikoa ez bada ere, agirietako lekukotasunetan eta oikoni-moetan ugariak dira *-ko* atzizkia duten izen ttipiak. Hauek dira nik aurkitu ditudanak:

– **Abereko** (*Abere?*): *Auereco* (1193, Goñi, 405).

– **Adamako** (*Adame*): «*Adamaco fils de Jaurreguissarre*» (Sen., 1415, Goih., 1966: 56).

– **Anako** (*Ana*): *Anaco de Justiz* (Hondarribia, 1577, H.V.B., 1960: 104). Cf. *Anato*, *Anatxo* eta *Anasso* (*Anaxo*).

– **Andereko** (cf. *Andere*, Apardoze, 991, Leire, 12; *Andere*, Artaxoa, 1330, LPN, 294): «*Kasa de Andereco*» (Izize, XI. m., Leire, 186). Cf. *Mariandresco*. *Andere* Akitaniako idazkunetan agertzen da (ikus honetaz Luchoire, 1881: 159-160, Mitx., 1954: 417-418 eta 431, Gorr., 1984: 127-134 eta 1995: 42, Gorrotxategi & Lakarra, 1996: 119-122).

– **Andiko** (*Handi-tik?*): «*Andjco Gassion, bureler, fill de don Pere Andjco*» (Li., 1345, *Sta.C.*, 31), «*Andjco de Munita, ortelan*» (ibid., 1350, 35).

– **Aniko** (*Ani-tik*; cf. Menéndez Pidalek [1986: 208] biltzen duen *Anni Obecoz*, edo *Assur Hanniz*, *Peitro Fanniz* eta *Aniz* Baztanen eta Ziraukin. Ikus Salaberri, 2003: 91): *Anico d'Ursue* (gi., 1359, Ruiz, 1997, 190).

– **Antoko** (cf. «*Anto, seynor d'Iryart*», Irulegi, 1412-13, *CPBN*, 111. or.): *Antoco Yturburu* (Jatsu, 1396, Goih., 1966: 142), *Antoco Echeverce* (Uhart Garazi, 1396, ibid., 167), *Antoquo de Sant Johan* (Dg., 1406, ibid., 338), «*Antoquo, seynor d'Aguerre de Bildarraytz*» (Aih., 1412-13, *CPBN*, 91. or.), *Antoquo d'Etcheverry* (Mon., ibid., 95. or.). Irigoienek (1994: 193) Garesko *Anto Carpentero* (1366, *LPN*, 552) aztertzean erraten du *Ancho / Sancho*-rekin dukeela zetikusia, ongi irakurririk badago; lehenagoko beste lan batean (1977: 373) *Ancho Lucea* eta *Anto Lucea* lagun bera zirela errana zuen. Goizuetan *Antoco* oikonimoa zegoen 1726an, Artazkotzen *Antocorena* 1690ean (Jimeno, 1989: 87), Artikan 1727an (ikus, orobat, Jimeno, 1992: 179).

– **Antsako** (*Antsa*). Doneztebeko *Antsakonea* oikonimoan ageri dela dirudi (Iñigo, 1996: 438), baina hau dokumentatzen ere den *Ansocone*-tik atera zitekeen, asimilazioz. Hola izatera, hurrengo izenaren lekukoaren artean sailkatu behar genuke.

– **Antsoko, Antxoko** (*Antso, Antxo*): *Anchoco* (1352, Goih., 1966: 386); Larraintzarko *Anchocorena* etxe izenean ere ageri da (1536, 1552, *At.p.*, 1, 33 eta 118, 1726). Orotz-Betelun eta Naxurietan, berriz, *Ansocorena* oikonimoa azaltzen da (1627, *Au.p.*, 2bis, 239, 1652 *Elo.p.*, 2); 1726an bi herrietan *Ansoco* dugu.

– **Auriko** (*Auria*): «*Aurico, es muda et pobra*» (Adoain, 1366, *LPN*, 472), *Aurico* (Orreaga, ibid., 488).

– **Axeariko** (*Azeari*): *Axearico* (Orbaizeta, 1366, *LPN*, 474).

– **Belako, Bellako** (*Bela, Bello, Bella*): «*Belaco Filius Cent(u)le Centule[z]*» (Basauri, IX-X. m., Az. & Gar., 1996, 167-168. or.; ikus Irigoien, 1995: 15), *Jaun Velaco* (= *Don Belaco*; Aiara, 1076 aldean; Caro Baroja, 1945: 17). Mitxelenak uste du (1954: 429) *Bellaco*-k *Enneco*-n, *Vitaco*-n dagoen –*co* atzizki bera duela; Irigoienek irudiko (1983: 8), berandu sortu ziren izenetakoa da, *Didaco* bezala.

– **Bernadeko, Bernadako** (**Bernad*; cf. *Bernart, Bernat*): *Bernadeco* (Suh., 1353, Goih., 1966: 163), *Bernadeco de Sant Per* (Donaz., 1364, ibid., 156), *Bernadaco de Lacarra* (Lakarra, 1398, ibid., 145). Gixunen, 1340an *Benedico de Hereguy* biltzen du Goihenetxek (1966: 36), baina ez dakit xuxen hemen sartu behar den ala ez. Ikus *Berradeco*-n eta *Erlandeko*-n diodana.

– **Berradeko** (*Berrade* egun deitura da Nafarroan, Uxuen erraterako; Maulen 1377an «*Lostau de arrade*» ageri da, *Berradeco*-ren aldamenen [Zier., 1994: 229]. Donibane Garazin 1378an «*Bernat, aperat Hurrea*» azaltzen da, urte eta herri berean ageri den *Berrade Urrea* berbera, *Doc.Gasc.*, 123, 133. or. eta 127, 135. or., hurrenez hurren): *Berradeco* (Ami., 1351, Goih., 1966: 308), *Berra-*

deco, *Barradeco* (Donaz., 1364, *ibid.*, 156 = *Bernadeco*), *Berradeco de Sant Per* (1366, Castro, VI, 92, 42. or.), *Berradeco* (Maule, 1377, Zier., 1994: 229), *Berradeco* (Mon., 1378, Goih., 1966: 148), *Berradeco, Borradeco* (Zaro, 1378, *ibid.*, 132 = *Erradeco*), *Berradeco de Saut* (Zibitze, 1384, *ibid.*, 217), *Berradeco de Lacarra* (Lakarra, 1396, 1401, 1404, *ibid.*, 144; dirudienez hau eta *Bernadaco de Lacarra* pertsona bera ziren), *Berradeco de Mendiayn* (Donu., 1412-13, CPBN, 76. or.), «*Berradeco, lo carniçer*» (Dg., *ibid.*, 103. or.), «*Berradeco, seinhor de Perriulhe*» (Uztaritze, 1428, *Doc.Gasc.II*, 335).

Goihenetxek (1991: 301) *Berradeco*, *Erradeco Bernardus*-etik eratorzen du, *Bernardeco* bezala. *Bernadeko* > *Berradeko* bilakaera *Fernando* > *Ferrando*-n, *Ernando* > *Errando*-n edo *Gernika* > *Gerrike*-n dugun bera dateke, hots, aurreanzko asimilazioa. Honekin batean, ordea, pertsona bera izendatzen duten *Ernadeco de Santa Gracia* eta *Erlandeco de Santa Gracia* ere badaude, eta lehena *Bernadeko*-rekin lotzea erraza izanagatik, ezin dut gauza bera erran bigarrenaz, hau *Errandeko*, *Ferrandeko*-rekin anitzez errazkiago erlaziona baitaiteke, disimilazioa burutu dela onesten bada, hots, *-rr-* > *-rl-* gauzatu dela.

– **Betriko, Petriko, Petiriko** (*Betri, Petri, Petiri*): *Petrico* (Buñuel, 1353, Ur., 1961: 151), *Petrico d'Arrambide* (NB, 1368, Goih., 1966: 362), *Petrico* (“Bielenabe”, Atharratze ustez, 1377, Zier., 1994: 210), *Petrico de Belaroa* (Hiriberri Garazi, 1396, Goih., 1966: 135), *Petrico d'Heguito* (Izpura, 1396, *ibid.*, 138), *Petrico d'Escontz* (Dg., 1397, *Doc.Gasc.II*, 283), *Petrico de Olite* (1412, Castro, XXIX, 10, 14. or.), *Petriquo de Jatsu* (Bidaxune, 1451, *Doc.Gasc.II*, 348; = *Pedro de Jatsu*, *ibid.*, 1454, 349; = *Pero Peritz de Jacxu*, Dg., 1454, *ibid.*, 350), *Petrico d'Elissonde* (Bai., 1457, Goih., 1966: 94), *Petrico de yrurita* (Irur., 1531, Eo.p., 1, 147), *Petrico tellechegaray* (Zug., 1545, Eo.p., 1, 100?).

– **Bitako**: «*Beila eta alio Beila Vitaco*» («in Erentana», 952, Ubieto, 1976, 64, 75. or.; cf. *Bitakoiz, Bitakoz* patronimikoak, Salaberri, 2003: 166. Ikus, berebat, NVP, 417). Mitxelenak dio (*TAV*, 2.1.6.) *Uitaco Vita*-tik atera dela eta beharbada txikigarri edo hipokoristikoa zen atzizkiak Akitaniako idazkuntako *-c(o)* dakarkigula gogora. 1957ko lantxoan (373. or.) erraten du *Vitaco* izenaren *-ko*-k, euskal jatorrikoa bada, txikigarri balioa izan behar duela.

– **Bonko** (*Bon(o)*). Olabeko 1726ko *Boncorena* oikonimoaren oinarrian dateke.

– **Diegoko**. Zizur Nagusiko *Diegocorena, Diegocorenecoa* etxe izenean da (Jimeno, 1986: 211).

– **Elbirako** (*Elbira*): «*Eluiraco, fya de Garcia Sanchiz*» (Arroitz, 1330, LPN, 279).

– **Eneko, Ieneko**: «*Eneco d'Erbiz, notari de Soule*» (Zub., 1338, Zier. & San., *Doc. Gasc.I*, 4, 43), «*Eneco de Monreyau, recibidor de Sangossa*» (Beloritz-San Martin, 1409, *Doc.Gasc.II*, 312), *Yeneco d'Ursue* (Dg., 1459, *Doc.Gasc.II*, 352), *Eneco de yllarraz* (Ilarratz, 1634, Ue.p., 40). Aurizperri, Lantz eta Zanduetan *Enecorena* oikonimoa ageri da 1726an, *Enoko* bilakatua lehen herrian XX. mendean (Barandiaran, 1973: 257); Arizkunen *Enekónja* dago egun.

Eneko-ren etimologia dela eta, Mitxelenak *ene*-rekin erlazionaturik egon zitekeelako ondorioa atera zuen, lehenago Eleizalde bezala. Honela dio Erreteriarrek (*EIG-VII*, 91):

«Papertxo bat prest neukan, besteak beste, *Eneko*, antzina *Enneco* idatzia, ukitzen duena. Bada ezpada ere, kontutan hartzekoa zela nioen ez ote zitekeen izan *ene*-ren ahaidea. Tira, esana zegoen hori ere, eta Eleizalde esana, IX (1912), 315-316, artikulutxo labur batean. Hau da berorren azkena: “Así pues, mientras no se pruebe lo contrario, puede admitirse que *eneko* es una forma arcaica equivalente al actual *enetxo* que significa, en el lenguaje cariñoso y familiar, ‘miño’; de aquí se elevó a ser una voz onomástica, propia y exclusiva del Euskera”».

Corominesek (1973: 244) *Enneco* eta *Oveco* «iberiar-akitaniar»-tzat hartzen ditu. Irigoienek, Eleizalde eta Mitxelenak bezala, osagaiak *ene* + *-ko* direla uste du; ikus, dena dela, ikertzaile honek (Irigoienek) dioena *-so*, *-xo*-ri eskaini ataltxoan, *Enexo* sarreran. Euskaltzain bizkaitarraren arabera, Nafarroako VIII. mendeko *Eneko* da ageri den aurreneko lekukotasuna.

Gorrotxategik (1984: 202, 379), Akitaniako *Ennebox* antroponimoa aztertzean, erraten du oinarrirako *Turma Salluitana*-ko *Enneges* dugula, eta honekin batera Erdi Aroan biziro ugaria den *Enneco* forma, *Enneconis* genitiboan, *Ennecoiz* euskaraz. Ez du zehazten, halarik ere, euskal posesiboarekin lotu behar den ala ez. Beranduagoko beste lan batean (1993: 425) *Turma*-ko *Enneges* pirinioar izentzat ematen du eta gehitzen *Enne-box* akitaniarraren eta Erdi Aroko *Enneco*-ren «paraleloa» dela (19). Orpustanek (2000: 209) Iruñeko errege izandako *Eneco Arizta* aipatzen du, eta dio izena segur aski euskal jatorrikoa dela, etimologia ilun badago ere, oraino; bukaera *-ko* «txikigarria» da autore honen irudiko. Ikus Salaberri (2003: 172 eta hurr.).

– **Eneka:** *domna Enneca*. Irigoienek (1983: 23) aipatzen du, baina Euskal Herritik kanpo azaltzen da, Albeldan; bizkaitar ikertzaileak *Oneka* forma honen aldaera dela uste du. *Onneko* aztertzean dio *on* ‘ona’-rekiko gurutzaketaz sortu izanen dela, Errioxako *domna Bueneka buena*-rekiko gurutzaketaz sortu datekeen era berean (ibid., 25). Edozein modutan, Iruñean ere ageri da izen hau: «*Contra mulierem Enecam Aceari*» (1096, Goñi, 59).

– **Erlandeko:** *Erlandeco* (Goih., 1991: 301), *Erlandeco* (1534, Goih., 1966: 387), *Erlandeco de Santa Gracia* (Jutsi, 1368: ibid., 225 = *Ernadeco de Santa Gracia*, ibid.). Goihenetxeren iritzian (1986: 301) *Errandeco*-ren aldaera da eta hau *Arnaldus*-en eratorria, hots, *Ellande*, *Allande*-ren jatorrikide. Zernahi dela, *Errandeco Ferrandeco*-ren baliokide ere izan daiteke, agiri batean biek lagun bera adierazten dutenez gero; hondarrekoa, bistan da, *Ferrand*-etik atera da.

(19) Honela dio hitzez hitz: «Entre estos últimos (Pirinioetako izenen artean) colocaría yo sin duda a *Enneges*, con paralelos en el aquitano *Enne-box* y en el vascón medieval *Enneco* (vasc. mod. *Eneko*, español *Íniigo*)».

Badirudi Goihenetxek biltzen dituen 1355eko *Eraldeco*-k eta *Herandeco*-k (1966: 387) *Erlandeco*-rekin zerikusia dutela.

– **Ernadeko** (*Bernard*-etik?, *Ernard*-etik?, *Arnaldus*-etik?): *Ernadeco de Santa Gracia* (Jutsi, 1368, Goih., 1966: 225 = *Erlandeco de Santa Gracia*, ibid.).

– **Ernardoko** (*Ernando*). Otsakarko *Hernandocorena* (1616, Ih.p., 4) oikonimoaren oinarrian dago.

– **Erradeko** (ikus *Berradeko*): *Erradeco* (Zaro, 1378, Goih., 1966: 132 = *Berradeco*, *Borradeco*).

– **Erramuko** (*Erramu*): *Erramuco de la Renterya*, *Erramuco* (Ond., 1490, Enríquez, 18).

– **Errandeko** (*Errande*, Goih., 1991: 301): *Erandeco de Saint Johan* (Dg., 1354, 1355, Goih., 1966: 337), *Errandeco Yribarren* (Izपुरa, 1396, ibid., 138), *Errandeco de Larramendy* (Jutsi, 1396, ibid., 225 = *Ferrandeco de Larramendi*, ibid., 1397), *Errandeco Lacuyr* (Arboti, 1396, ibid., 266), «*Lostau de Errandequo, lo pintor*» (Dg., 1412-13, CPBN, 104. or.). Goihenetxeren arabera *Erlande*, *Allande*, *Ellande*-ren aldaera da, hots, *Arnaldus*-en eratorria, baina *Ferrandeco*-rekin berdindurik ikusteak *Ferrando*-ren eratorritzat hartzera narama. Ikus *Berradeko* eta *Erlandeko* sarreretan erran dudana.

– **Estebeko** (*Estebe*): *Estebeco* (Eo., Eo.p., 1, 44, 1522), *Estebeco de harosteguy* (Biarritz, 1725, Iglesias, 2000: 277, 281). Erratzun *Estebecorena* oikonimoa zegoen 1726an.

– **Ferrandeko** (*Ferrando* edo *Ferrand*): *Ferrandeco de Larramendi* (Jutsi, 1396, Goih., 1966: 225 = *Errandeco de Larramendy*, ibid., 1396), *Ferrandeco* (Hiriberri Garazi, 1399, ibid., 135). Ikus *Berradeko*, *Erlandeko* eta *Errandeko* sarreretan erran dudana.

– **Ferranko** (*Ferran(t)*): *Ferranco* (Jaitz, 1518, J.p., 5).

– **Gaizko** (hipokoristikoa?, oinarritzko izena eskas dut): *Gaizco de Barbarien* (1135, Lakarra, 1965, 128, 150. or.), *Gaizco de Muru* (c. 1167, Goñi, 306), *Gaizco de Zuaz* (1196, Leire, 358), *Gaizco tender* (1204, Iratxe, 233). Luchairek (1881: 165) Leireko *Gaizcho* eta *Gaizto* aipatzen ditu eta «*mauvais*» itzultzen; Mitxelena (AV, 250) *gaizt*-etik eratoritzen du *Gaizto* eta dio *Gaizko*-tik atera datekeela. Saurak (1999-2000: 178) *Gaskuña*-rekin lotzen du, baina bistan da etimologia horrek ez duela izena ongi azaltzen.

– **Ganesko** (*Joanes*-en *Ganes* aldaeratik; cf. *Ganex*, gorago). Arizkungo *Ganescorena* (1826, Ba.hi., 1, 92 zkia., 73. org.), *Ganeskónja* (egun) oikonimoaren oinarrian dago; badaiteke, zernahi dela, etorkiz *Ganes* gabe *Ganex* izatea.

– **Gasteako** (*Gastea*): *Gasteaco de Lizarazu* (1412, Castro, XXIX, 30, 31. or.; 1413, ibid., XXX, 280, 130. or.).

– **Gilko, Xilko** (*Gil, Xil*): *Gilco de Zaragoza* (1413, Castro, XXX, 161, 80. or.). Adoaingo *Gilcorena* (1614, Ag.p., 14, 597. or.), Subitzako *Xilcorena* (1659), *Jilcorena* (1677), *Xilconecoa*, *Xilcorenecoa* (1679) (Jimeno, 1987: 430 eta 1927) eta Itzalleko 1726ko *Jilcorena* oikonimoaren oinarrian ere badago; Caminok (1995: 88) Hiriberri Aezkoako *Xilko* etxe izena aipatzen du.

– **Gillenko** (*Gillen*). Adiosko eta Biurrungo 1727ko *Guillencorena* oikonimoen oinarrian dago.

– **Graxiko** (*Graxi(a)*): *Grayssico* (Orreaga, 1366, LPN, 488), *Augeron de Grachico* (Biarritz, 1498, Goih., 1966: 21. *Graxiko* etxe izena da hemen; ikus Iglesias, 2000: 264).

– **Grazianko** (*Grazian*). Añorbeko eta Legardako 1727ko *Graciancorena* oikonimoen oinarrian dago.

– **Itxusko, Utxusko** (*Itsusi*; cf. *Sancio Aceariz de Ixussi*, Adoain, c. 1033, Leire, 25; *dona Itsussi*, Etaio, 1211, Iratxe, 274; *domna Essussi*, ibid., 1213, 276); *domna Hilgusco* (Araba, 1085, Ubieto, 1976-II, 109, 81. or.), *Huchusco d'Aguerre*, *Uchusco d'Aguarre* (Buztintze, 1294, Goih., 1966: 128), *Iohan Martinez de Ychusco*, *Miguel Yvanes de Ychusco* (Don., 1303, La. & Le., 1995, 8, 14. or.), *Ychusco Barrenco* (Err., 1366, LPN, 531), *Ychusco* (Mithiriña, 1350-53, CPBN, 40. or.), *Ychusco de Sant* (Zibitze, 1353, Goih., 1966: 216), *Aznar Ychusco* (Izaba, 1366, LPN, 477), «*Gassernaut de Lacarre dit Ychusquo*», «*Garcia Arnal de Lacarra dit Echosco*» (Iratxe, 1391, Goih., 1966: 144), *Uchusco Meriotegui* (Lasa, 1412-13, CPBN, 109. or.), «*Uchusco, seynor d'Etchagoyen*» (20) (Anhauze, ibid.), *Ychusco de Lasaga* (1414, Castro, XXXI, 616, 329. or.). Goihenetxek (1991: 304) izengoitzat hartzen ditu deizio hau eta honen *Ichuscotoa* eratorria; ikerztaile berak «*Bernard de Villanova de Berdos, dit Ychusco*» dakar (1966: 17).

Mitxelena (AV, 20. or.) *Higgusco itsu*, *itxu*-ren gain moldaturik dagoela uste du, baina oinarrian *itsusi* edo honen aldaera adierazkorra zatekeen *itxusi* ere egon zitekeen (ikus Mitxelena berak dioena, 1969: 16), Irigoienek (1995: 16) nahi duen bezala. *Itsusto* (*Ysusto*) eta *Itsuste*, *Itxuste* hipokoristikoetan *itsu* + *-sto* (*itsusi* + *-sto* ere daitekeena dela dirudi) eta *itsu*, *itxu* + *-ste* izan genitzake, baina *itsus(i)*, *itxus(i)* + *-te* ere bai (cf. *itsuseria*, *itsuski*, *itsustu*...). *Uchusco* aldaera, Irigoienek dioenez (ibid., 16), bokal asimilazioaren fruitu da.

– **Jaunlopizko** (*Jaun Lopi(t)z*). Asteraingo *Jaun Lopizcorena* (1683) etxe izenaren oinarrian dago (Jimeno, 1986: 156); *Lopizcorena* ere azaltzen da.

– **Joaneko, Juaneko** (*Joane, Juane*): *Johaneco* (*Sancta Cruz*-en, Baztan, 1366, LPN, 532), *Johaneco* (Ezkati [Anue], ibid., 533. or.), *Johaneco Lucea* (Ortzaize, 1378, Goih., 1966: 203), *Joaneco de Todorica* (Munitibar?, 1430, Enr. & Hid. & Mar., 2005, 29, 63. or.), «*Iohan de Lascano, dicho Juaneco*» (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 21. or.), «*Joaneco de Areyçaga, dueño de la casa de Areyçagaçelaya*» (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 170, 186. or.).

– **Joanesko, Juanesko** (*Joanes, Juanes*), **Joanisko** (*Joanis*): *Johanesco* (Dg., 1412-13, CPBN, 104. or.), *Juanesco*, *Joanesco* (Larunbe, 1564, HA.p., 4. Honela dio agiriak: «*Joanot de Ozta y su hijo Juanesco conforme al testamento de*

(20) Lan honetan oraingo gure *tx* irudikatzen *ch* nahiz *tch* agertzen dira, eta *x* irudikatzen *ch* eta *ss*, azken hau *s*-ren ordean ere egon daitekeen arren. Nire ustez, egun *Utxusko* idatziko genukeena dugu hemen, baina hau ez da segurua. Cf. Larzabaleko *Ancho Etchaluze*, 1412-13, CPBN, 87.

la madre de Joanesco»), Juanesco de ybaRarena (Bere., 1581, Ih.p., 1). Irigoienek (1995: 17) *Johanesco* izena *Johane* + *-sko* ulertzen du, eta garbi da horrela ere azter daitekeela, baina, *Joanes* garai batean *Joane* baino aise usuagoa baitzen, nik *Joanes* + *-ko* ikusi nahiago dut. Cf., gainera, *Joanesgo*, non atzizkia irudiz ez baita *-sko*. Espartza Galarko oikonimian *Joanisco* izeneko etxea zegoen 1723an, *Joanico* 1838an (Jimeno, 1987: 197).

– **Joanko, Juanko, Janko, Fanko** (*Joan, Juan, Xoan*): *Johanco* (It., Elgorriaga, 1366, LPN, 569), *Johanco d'Urtubie* (Arberoa, 1374, *Doc.Gasc.*, 68, 96. or.), *Johanco* (Lakarri, 1377, Zier., 1994: 119), *Johanco de Bon Loch* (Lekuine, 1387, Goih., 1966: 26), *Juanco de Paganduru* (Makea, 1401, ibid., 48), *Janco d'Arriague* (NB, 1406, ibid., 363. *Toanche, Tonneche* bera da; ikus bi sarrera hauek), *Johanco Salaberry* (Larزابale, 1412-13, CPBN, 86. or.), *Johanco d'Arbiçu* (1436, Zier. & Ram., 2001, 38, 119. or.), *Joanco de Yçagurre* (sic) (Oiar.al., 1475, C. & C. & G., 1997, 62, 35. or.), *Juanco de Uriçar* (Plentzia, 1496, Enríquez, 1988: 182), «*Chartico de artero e Johanco su cuñado, Johanto fijo de Johan de aroz; sus fijos choanco, choaneto, chartico*» (Betelu, 1520, J.p., 5), *Joanco de escaray* (Osk., 1606, Ih.p., 1).

– **Joanperizko, Juanperizko** (*Joanperitz, Juanperitz*): *Johan Perizco* (Bera aldea, 1366, LPN, 567), «*Pierres de gaztelu, hierno de juanperizco*» (D.p., 17, 1559).

– **Juanako** (*Juana*): «*Juanaco, la cosdurera*» (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 137. or.), «*Juanaco, que vive con Maria Vrtis de Puerto*» (Bilbao, 1473-1475, ibid., 308. or.). Iruritan *Juanacorena* oikonimoa ageri da 1727an eta 1826an (Ba.h., 1, 92, 70. org.). Anizen, ibar berean, *Juanacorena* zegoen 1727an eta 1826an (Ba.h., 1, 92, 77. or.), *Kanakónja* bilakatua egun, segur aski [x]-z ebakitzen zelako (cf. *Kótte*, haran bereko Erratzun), baina asimilazioaren fruitu ere izan daiteke.

– **Juanisko** (*Juanis*). *Juanisco andiarena* Itzako oikonimoan ageri da (Jimeno, 1990: 206).

– **Juanmartinesko** (*Juanmartines*): «*Juan Martines de Aordia llamado Juan Martinesco*» (Arra., 1407, Crespo et al, 1996, 65, 25. or.).

– **Karlosko** (*Karlos*). Zabaltza Etxauribarko 1727ko *Carloscorena* etxe izenaren oinarrian dago.

– **Katalinko** (*Katalin*): *Cathalinco de lanz* (Lantz, 1537, At.p., 1, 29). Urdazubin *Catalincorena* etxea zegoen 1726an, Iruritan 1727an, Berriogoitin (ikus Jimeno, 1992: 263) eta Gerendiain Ultzaman *Cathalinconea* urte berean, Arizkunen *Katalinkónja* orain (*Katalinkonéa* Salabururen arabera, 1984: 312).

– **Leonko, Lonko** (*Leon*): *Lonco de Lanz* (Iru., 1350, Ur., 1952: 90). Zilbetin *Leoncorena* zegoen 1726an, *Lénköjn étxëa* egun; Agezan *Leoncoa* genuen (1695, K.p., 8).

– **Lopeko, Lopako** (*Lope, Lopa*): *Bartulon Lopaco* (Artaxoa, 1330, LPN, 298), *Lopeco d'Irnixo* (Iru., 1361, Leroy, 20, 74. zkia.), *Lopeco de Hueve Meson* (Dg., 1364, Goih., 1966: 336), *Lopeco* (Añorbe, 1366, LPN, 524), *Lopeco*

d'Aynçoa (Aintztoa, ibid., 666. or.), *Lopeco Yrygoyen* (Irulegi, 1412-13, CPBN, 110. or.), *Lopeco de Artiga* (1413, Castro, XXX, 858, 424. or.), *Lopeco de Racxa* (1414, ibid., XXXI, 476, 262. or.). Kremer-en iritzian (1995-96: 212) *Lupandus*, *Lupanco*, *Lopaco*, *Lopeco*, *Lopecha* euskarazko *Ochando*, *Ochanquo*, *Ochocho*, *Ochoco* baliokideetarik abiatuak baizik ez dira azaltzen ahal. Garraldan 1726an *Lopecoa* etxea ageri da, Biurrunen eta Legardan 1727an *Lopecorena*.

– **Lopizko** (*Lopi(t)z*). Ikus *Jaunlopizko*.

– **Luisko** (*Luis*). Añezkarko *Luiskorena* oikonimoaren oinarrian dagoela dirudi (Jimeno, 1992: 148). Badaiteke, dena dela, *Luisiko* ere egotea, sinkopak ohikoak baitziren Iruñerriko hizkeran.

– **Mantxoko** (*Mantxo*, *Mantso*). Hiriberri Deierriko 1797ko *Manchocorena* etxe izenean ageri da (Deierriko hipot., 73, 335. or.).

– **Mariako**, **Mariko**, **Malliko** (*Maria*, *Mari*): *Marico* (Piedramillera, XIV. m., Irantzu, 225. or.), *Marico d'Iriart* (Orbaizeta, 1366, LPN, 474), *Marico Tripera* (Zan., ibid., 484. or.), *Maryquo d'Arrayotz* (Dg., 1412-13, CPBN, 105. or.), *Mariaco* (Eo., 1529, Eo.p., 1, 82), *Malliko de Narbart* (*Maria de Narbart*-en ama; Narbarte, 1530, Eo.p., 1, 105). Behin gizon izentzat azaltzen da: *don Mariquo* (Li., 1295, *Sta.C.*, 3). Debako «*Merico de Arrçubiaga en Arrçubiaga*»-n azaltzen dena ere multzo honetakoa dateke (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 122. or. Ez dakit ongi irakurria dagoenez). Oikonimian ere agertzen da: *Mari-corena* (Lekunberri, 1726), *Mariacorena* (Subitza, 1727), *Marico* (Espartza Gal, 1727, Abaurregaina, 1740, Elo.p., 3).

– **Mariandreko** (*Mari* + *Andre*-tik? Cf. *Maria Andres*, It., 1718; Iñigo & Salaberri, 1997: 264): *Mariandreco de Laborda* (Pasaia, 1457, Elortegi, 1992: 165). Ikus *Andereko*.

– **Marilopezko** (*Marilopez*; cf. *Joanperizko*, *Juanperizko*): «*Mari Lopezco ederrezza / ez esan secular gauçic / baldin gura ezpadoçu / ez difinçuen tacharic*» (Perez Lazarragakoaren bertsoak, c. 1567, 47. or. aurkia).

– **Marisantzeko** (*Marisantz*): *Marisanceco* (Auritz, 1363, Mar., 261).

– **Martako** (*Marta*). Goizuetako *Martaconea*-ren oinarrian egon liteke (Her., 1978: 88), baina ez da segurua, erraterako *Martaconea*-ren moduko baten itxuratxartzea izan daitekeelako.

– **Martieko** (*Martie*): *Martieco de Sorarte* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 120. or.), *Martieco d'Arzac* (Don., 1484, La. & Le., 1995, 62, 115. or.), *Martieco de Arana* (Don., 1559, Jimeno, 1998: 230), «*Martyn de Urqiola dicho Martieco Belça*» (1609an hil zen, Leitzan, De Carlos & Alduntzin). Goizuetan *Martio* oikonimioa ageri da 1726an, oinarrian *Martieko* edo *Martieko* dukeena.

– **Martiko** (*Marti*, *Martin*, *Matin*): «*Martico, fillo de Per Andres*» (Buñuel, 1353, Ur., 1961: 151), *Martico* (Suh., 1353, Goih., 1966: 163), *Martico d'Udaue* (Latasa Imotz, 1366, LPN, 560), «*Pero Martiniç de Martin Ortiç, Martico su hermano*» (Piedramillera, 1358, Irantzu, 228. or.), *Martico* (Dg., 1364, Goih., 1966: 341), *Martico d'Iriart* (Orbaizeta, 1366, LPN, 474), *Martico de*

Acedo (1413, Castro, XXX, 971, 479. or.), *Martico de Çuvismendy* (Segura, 1445, Aierbe, 1993, 29, 86-87. or.), *Martico* (Araia, 1455, Po., 2001, 12, 33. or.), «*Martico e Juanche, fijos de Catelina*» (Zaldu., 1460, ibid., 6, 337. or.), *Martico de Garayburu* (Don., 1478, C. & C. & G., 1997, 72, 73. or. = *Marticot de Garayburu*, ibid., 69, 56. or.), *Martico* (Apinaiz, 1510, Lema, 2007b, 59, 212. or.), *Martico de Berlincasagasti* (Zeg., 1516, Po., 2001, 43, 239. or.), *Martico gorria* (Munarritz, 1519, J.p., 5), *Martico de Çubilaga* (Amezketza, 1519, Aierbe, 2006, 311, 335. or.).

– **Martinako** (*Martina*): *Martinaco de Sagurdia* (Arra., 1517, Le. & G., 1998: 198), «*Martinaco, panadera*» (Arra., 1520, ibid., 234).

– **Martinko** (*Martin*): *Martinco* (Baztan?, 1366, LPN, 576), *Martinco de Ybarguren* (Ziordikoa?, Eginokoa?, 1520, Po., 2001, 45, 278. or.), *Mynco. de ezcurra* (Ezcurra, itxuraz, 1552, At.p., 1, 82). Gendulain Esteribarren *Martincorena* oikonimoa zegoen 1640an (Ue.p., 40) eta 1644an (Ibarra, 2002: 504), eta Otsan 1646an (Elo.p., 2). Munarritzen 1693an eta 1758an *Martincorena* ageri da, *Martingonecoa* bilakatua 1790an (MUA). *Martinkorena* deitua da egun.

– **Mateoko**. Añorbeko 1727ko *Matheocorena* oikonimoaren oinarrian dago.

– **Matxiko, Matxiku** (*Matxi, Matxin*; bukaera dela eta, cf. *Patxiko / Patxiku*): *Machico Arrya* (NB, 1358, Goih., 1966: 362), *Machico Çapatero* (Bera, 1366, LPN, 567), *Machico* (ibid., 576. or.), *Machicu* (Urroz, ibid., 569. or.), *Machico d'ozte*, *Machico d'Oztet* (Zibitze, 1378, Goih., 1966: 219 = *Martin d'Ozte(t)*, *Machi d'Ozte(t)*, *Machin d'Ozte(t)*, *Machingo d'Ozte(t)*, ibid.), *Machico de Uriçar* (Plentzia, 1496, Enríquez, 1988: 183, 184 = «*Martin de Uriçar, dicho "Machico"*», ibid., 184. or.), *Machico de Estuasú*, *Machico çapatero*, *Machico de Areystondo* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 4. eta 5. or.).

– **Matxinko** (*Matxin*): «*Machin d'Echabe e Machinco d'Echae*» (Alkiza, 1396, Roldán, 1991, 37, 90. or.). Aurizperriko *Mantxinkonea* etxea (Barandiaran, 1973: 257) segur aski *Matxinkonea* zaharrago batetik atera dateke.

– **Menautuko** (*Menauto, *Menautu*): *Menautuquo Larre* (Labetze, 1396, Goih., 1966: 280). Cf. *Menautux*.

– **Migelko, Mielko** (*Migel*): «*fillos de Mielco*» (Cortes, 1280, Zabalo, 1972: 51), *Miguelccos de Larraun* (sic) (Zuhatzu Arakil, 1388, Ur., 1954: 271), *Miguelco de blascoayn* (Bidaurreta, 1509, J.p., 5; etxe izena?). *Miguelcorena* oikonimoa Urdaitzen kausitu dut, 1629an (Ue.p., 40) eta 1641ean (Ue.p., 41), Zildotzen 1726an eta Añorben 1727an.

– **Mikeleko** (*Mikele*): *Miqueleco* (Amalain, 1366, LPN, 559).

– **Mitxeleko** (**Mitxele*): *Micheleco Regis* (Iruñea, 1300, Ziganda, 2007: 132; latinez idatzitako agiria).

– **Mitxelko** (*Mitxel*): *Michelco de Cirauqui* (1349, Barr., 175), «*Michelco fijo de Chariquo*» (Bera, 1366, LPN, 529), *Michelco Lapux* (ibid., 567. or.), *Michelco*, *Michelco Larrondo* (Uhartea Garazi, 1368, 1396, Goih., 1966: 166,

167), *Michelco Beretergaitz*, *Michelco Bergant* (Dg., 1378, *Doc.Gasc.*, 127, 135. or.), *Michelco de Eraso* (1393, Castro, XX, 567, 245. or.), *Michelco d'Echaeuz* (Donaz.-Luz., 1405, Goih., 1966: 159), *Michelco d'Irylarry* (Irulegi, 1412-13, CPBN, 111. or.), *Michelco de Leçaun* (1413, Castro, XXX, 523, 256. or.), *Michelco de Tafalla* (1414, ibid., XXXI, 69, 37. or.), *Michelco Lucea de Aldaz* (Iru., 1526, Zier. & Ram., 1998, III.22), *Michelco de gaztaynalde* (Bere., 1546, At.p., 1, 28).

– **Mizelko** (*Mizel*): *Miçelco* (Ortzaize aldea, 1412-13, CPBN, 94. or.), *Micelco d'Arreguipere* (Irulegi, ibid., 111. or.).

– **Musako** (*Musa* izenetik; cf. *Mussa Gutia*, XII. m., Goñi, 452; cf., gainera, «*Assona, qui fuit uxor de domno Muza*», 980-990, Lakarra, 1945: 229): «*Musaco Emusauo filius Sansonis*» (gi., Oñ., 1149, Omaetxebarria, 1957: 120); autore honek (ibid., 119) *Musako* Arrasateko *Musakola* auzo izenean dagoela uste du (*Musako + ola*, beraz); «*Johango d'Ascue e Martin, Yerno de Musaco, vesinos de Fuentarrivia*» (Hondarribia, 1384, C. & C. & G., 1991, 18).

– **Nabarko** (*Nabarra*): «*Xoanco de larrayneguia e nabarrco su muger*» (Lar., 1552, At.p., 1, 53). *Nabarcorenea* Zugarramurdiko etxea zen 1726an.

– **Obeko** (*hobe*-tik?): *Obeco* (Val., 804, PS, 1, 11. or.), «*presbiteri Hobeconi*» (Argote, X. mendeko idazkuna, Az. & Gar., 1996, 125-126. or.), *Oueco Murde* (1258, DMLO, 46).

Meyer-Lübkek dio (1917: 14) portugalerako *Oveco*-k ondoan espainoleko *Ovieco* duela, eta *Romanischen Namenstudien I*-en *-eco*, *-eca*, *-ego*, *-ega* «mit allem Vorbehalt» gotikoko *-iks*-en azpian sailkatu bazituen ere, orain zerrendari ukitu batzuk egin behar zaizkiola uste du. Suitzar hizkuntzalariaren iritzian, *Oveco*-ren atzizkia *Gallaecus*-en dagoen bera da, etorkiz zelta edo iberiarra. Izena, ordea, euskaratikakoa iruditzen zaio, oinarrian *obe* 'hobe' baitakusa: «Danach kann *Oveco* begrifflich in die christliche Reihe *Agathos*, *Agathe*, *Bonus*, *Bona* gehören».

Corominesek (1973: 244) *Enneco* eta *Oveco* «iberiar-akitaniar»-tzat hartzen ditu. Irigoienek arabera (1983: 45, 1995c: 47) izen honen osagaiak *hobe* + *-ko* (atzizki hipokoristikoa) dira, eta latineko *Melior*-ekin berdindu ondoan, Erdi Aroan *Melioretus* ere bazela oroitarazten digu. Gorrotxategik eta Lakarrak ere (2001: 412) Erdi Aroko *Obeconi* antroponimoa *hobe*-ren gain moldatua dagoela uste dute. Beranduxeago Gorrotxategik (2003: 33), Hagenbacheko zilar xafletako *Obbelexi* aztertzean, erraten du bertan *Hobeco*-ren moduko Erdi Aroko euskal izenen oinarrian dagoen *Obe*- egon litekeela. Boullonek (1999: 343), berriz, zenbait ikertzailearen iritzia bildu ondoren, «de procedencia discutida» dela dio.

– **Oneka** (ikus atal honen hasieran eta *Eneka* sarreran diodana): «*Domna Onneca qui fuit uxor de Asnari Galindones de Aragon*» (980-990, Lakarra, 1945: 230), *Onecha Legarrecoa de Esparça* (Espartza Galar, 1199, GPrior., 102), *Andre Oneca* (Otazu, XIII. m., ibid., 128). Meyer-Lübkek dio (1917: 14) izena «iberisch-baskisch» dela eta *on* 'gut'-etik atera dela.

– **Oneko.** Irigoienek (1983: 24) Najerako *Onneko Aznariz* aipatzen du; ikus *Eneka* sarreran diodana.

– **Oroko:** *Oroco* (Eguesibar, 1090, Leire, 130). *Auru*, *Aurio*-rekin lotua dagoela dirudi; *Ora* femeninoa aurkitu dut, baina **Oro* gizonentzako ez. *Oro*-ren moduko toponimo batetik abiatu ere azal daiteke.

– **Osanka** (*Osana*): *dona Osanca de Mecola* (Dur., 1489, Hid. et al., 1989b, 78, 412. or. = *Osana de mecola*, ibid., 415. or.).

– **Otsako** (*Otsoa*): *Osaco* (“Lekere”-n, Araba, 952, Ubieto, 1976, 64. Gizon izena da, NVP, 417).

– **Otsoko, Otxoko** (*Otsoa, Otxoa, Otxo*): *Oxoco* (Adoain, Leire, c. 1033, 25), *Garcia Ossoco* (Iratxe, 1102, Lakarra, 1965, 81, 104. or.), *Jaun Ochoquo* (Arakil-Larraun aldean, c. 1167, Goñi, 307, 270. or.), *Ochoco de Araçuri* (1170, Goñi, 330, 291. or.), *Ochoco de Artaxona* (Li., 1222, Iratxe, 319, 333. or.), *Ochoco de Alda* (1293, Iratxe, 227), *Ochoco* (Aranguren aldean, 1242, Ost., 112), *Ochoco* (Girgillao, 1256, Irantz, 235. or.), *Ochoco Puges* (Dg., 1350, Goih., 1966: 336), *Ochoco* (Arrakasgoiti, 1366, LPN, 506), *Ochoco de Iriberrri* (1393, Castro, XX, 353, 152. or.), «*L’ostau de Otchoquo*» (Dg., 1412-13, CPBN, 106. or.), *Ochoquo de Monreal* (1413, Castro, XXX, 10, 11. or.). Goihenetxek (1991: 302) *Ochoco* biltzen du Iparraldean Erdi Aroan. Ikus Kremer-ek dioena, *Lopako, Lopeko* sarreran.

– **Pedroko** (*Pedro*): *Pedroco de Huart* (Iruñea-Uharte, 1514, Zier. & Ram., 1997, 28), *Pedroco de Elso* (= *Pedro de Elso*, Iru., XVI. m., Urritzola, 2006: 112-113), *Pedroco* (Ugar, 1520, J.p., 5), *Pedroco de goynj* (Ziritza, 1521, ibid.), *Pedroco de gaztelu* (Ziga, 1531, Eo.p., 1, 100), *Pedroco del ferrero* (Lar., 1552, At.p., 1, 54), «*Pedroco hijo de fernando*» (Labio, 1590, Ih.p., 1), *Pedroco* (Lezaun, 1657, Sainz & Sainz, 50. or.).

– **Peitroko** (*Peitro*): *Peytroco* (Erro, 1366, LPN, 469).

– **Peloko** (*Pelo*), **Pelloko** (*Pello*): *Pelloco de Elso* (*Pedro de Elso y Latasa* gisa ere ageri da; honela erraten da agirian: «Antes que saliera del dho lugar de Larraincar el pretendiente ordinariamente le llamaban *Pelloco delso unos y otros de Latassa*», 1621, NAO, auziak, 269187 (21)), *Pelloco* (Luz., 1758; Sat., 1961: 219, 1969: 74), *Peloko* (Otsagabia, Orbaizeta; Camino, 1997: 104).

– **Pereko** (*Pere*). Iruritako *Perekonea* oikonimoaren oinarrian dago (*Perecorenea* 1645ean; NTEM-LII-2, 166. or.).

– **Peruka** (*Peru*): *Peruca dollozi* (NVP, 412). Ez dakit *Peru(t)za*-ren moduko ebakera ez ote daitekeen proposa aldaera dokumentatu horrentzat; cf. *Joaniza* (Gipuzkoa, XVI. m.; Del Valle Lertsundi, 1933: 178), *Miqueleiza* (Oñ., 1489, F. M^a. Ugarte, 1973: 369), *Miqueliza de Zañarta* (Oñ., 1581, Urkixo, 1912: 56)... Ikus Iñigo & Salaberry (1997). Aipatu femenino horiek, hala ere, <z>, <ç> edo <ch>-z izkiriaturik egoten dira, ez <c>-z.

(21) Datu hau Ricardo Urritzola artxibo arakatzaile sutuari zor diot.

– **Peruko** (*Peru*): «*Peruco, fi de Eluira Periz*» (Arellano, 1330, LPN, 281), «*Peruco, fiyo de Pero Miguel*» (Piedramillera, 1350, ibid., 359. or.), *Peruco* (*Pere Estiualiz-en* semea, Piedramillera, 1358, Irantzu, 228. or.), *Peruco d'Aroztegui*, (Aldaba, 1366, LPN, 520), *Ene Peruco* (Ea., ibid., 551. or.), *Peruco de Liçarren* (1378, Goih., 1966: 377), «*Peruco, llamado borde de Arleta*» (1393, Castro, XX, 632, 272. or.), *Peruco de Asiain* (1413, ibid., XXX, 646, 314. or.), *Peruco de Olano*, *Peruco de Guevara* (ibid., 858, 424. or.), *Peruco de Zabaldica* (ibid., 869, 431. or.), *Peruco de Ançuriaga* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 118. or.), «*Chachu fiyo de Peruco de Mendaro [...] e Peruco de Arçabalaga*» (Deba - Itziar, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 11. or.), *Peruco* (Done Bikendi Harana, 1491, Po., 1998: 348), *Peruco de ezcurra* (Ezkurra, 1552, At.p., 1, 82). Goihene-tzek (1991: 302) *Peruco* biltzen du Iparraldean Erdi Aroan.

– **Samurko** (*Samur*): *Samurcho Ortiz* (Ibiltzieta, 1072, Leire, 97). Lu-chairek (1881: 166) *samur* 'tendre'-rekin lotzen du, baina *Samur* izena ere bazen, goitizena ez ezik: *Samur d'Ostauals* (Izura, 1362, Goih., 1966: 240).

– **Sanjoaneko** (*Sanjoan*). Cf. *San Juan de Espiçu*, Ziortza, 1508, Enr. & Sar., 1989, 21, 218. or.; *San Juan Hernandes de Gallestygui*, Ond., 1514, Enríquez, 1997b, 16): «*San Joaneco, fiyo de Martin Ochoa*» (Bilbo aldekoa dirudienez. 1329, Enr. & Hid. & Mar., 1999, 8, 31. or.). Cf. *Sanjuango* eta *Sanjuantxe*.

– **Santxako** (*Santxa*): *Sanchaco* (Iguzkitza, 1197, Iratxe, 222), «*Sanchaco mi sobrina*» (Undio, 1377, CDSCernin, 29).

– **Santxoko** (*Santxo*): *Sanchoco* (Iruñerria, XIII. m., GPrior., 108), *Sanchoco* (Art., XIII-XIV. m., 183).

– **Saoxko** (Cf. «*Maria Saox, manceba de Flores de Marquina*», Bilbo, 1470, Enríquez eta al., 1996b, 177): *Saoxco de Vryçar* (em., 1464, ibid., 104. or.), «*Saoxco, que biue con Maria Pres de Vedia*» (1473-1475, ibid., 308. or.).

– **Semeko** (*Seme*): *Semeco* (Zibitze, 1350-53, CPBN, 45. or.). Cf. Akita-niako *Sembeconi* (Gorr., 1984: 255), zein Lizopen arabera (1931: 110) euskarako *seme*-rekin erlazionatu behar baita. Elizondon *Semecorena* etxea zegoen 1727an.

– **Semenko** (*Semen*): *Semenco Guillen* (Tutera, 1158, Art., 113). Iri-goienek dio (1983: 23) *Seme* (?) + *-nko* ez ezik *Semen(o)* + *-ko* ere izan daitekeela; nik bigarren azterketa hau hobesten dut.

– **Totako** (*Tota*): «*La pieça de Domingo Iriartequo e de Totaquo*» (Artabia, 1258, Iratxe, 397, 72. or.), «*Totaquo, fija de Maria Periz Gemas*» (Villatuerta, 1330, LPN, 288).

– **Txaperiko** (*Txaperi*): «*Juan Perez de Barruttia, dicho Chaperico*» (Garagartza, Arra., 1480, 247, 511. or.).

– **Txareko** (*Txare*): «*Chareco e Maria, mis primos*» (Mark., 1512, Enríquez, 1989, 44).

– **Txariako, Txariko** (*Txaria, Txari*): «*Michelco fiyo de Charico*» (Bera, 1366, LPN, 529), *Charico de Uhobil* (Oñ., 1502, Zu., 1999: 192), *Chariaco Martinez de Amatiano* (Ber., 1547, Del Valle, 1933: 179). *Cherieco de Ugarte*-n dugun *Txerie* hau *Txerio*-rekin lotu behar dela dirudi; ikus beheitixeago.

– **Txartiko** (*Marti*, **Txarti*; cf. *Txartie*, *Txartin*): *Chartico* (Deba, 1453, Her. & Bar., 2006, 46, 154. or.), *Chartico de Eleyçalde* (Ziz.-Ad., 1470, Le. & Ta., 1996, 18, 60. or.), *Chartico de Yturalde* (Ziz., 1475, *ibid.*, 21, 70. or.), *Chartyco* (Dur., 1498, Hid., 1989b, 106, 554. or.), *Chartico de Uobil* (Oñ., 1502, Zu., 1999, 70. or.), *Chartyco de Lusurdiano* (Ber., 1503, Lema, 2007b, 28, 109. or.), *Chartico Barata* (Oñ., 1514-1516, Zu., 1999, 164, 360), *Chartico d'Eldua* (Tolosa, 1519, Aierbe, 2006, 322, 366. or.), *Chartico de artero*, *Chartico de Ussaralde* (Betelu, 1520, J.p., 5). Madotzen 1726an *Charticorena* oikonimoa ageri da, eta Leitzan urte berean *Charticorena* eta *Charticonechiquia*. Pasaian *Txartiku* baserria dago, eta *Txartikueña*, *Txartikuko zelaia*, *Txartikumalla* aurkintzak (Elortegi, 1992: 174).

– **Txatxuko** (*Txatxu*): *Chachuco d'Atela* (Mungia, 1490, Enr. & Hid. & Mar., 2007, 4, 19. or.), *Chachuco de Lecoya* (Ond., 1495, Enríquez, 1991, 18, 196. or.), *Chachuco de Yarraçabal*, *Chachuco* (Deba, 1518-20, Fdez. & Mont. & He., 2007, 110, 334. eta 512. or.), *Chachuco de Sertucha* (Lekeitio, 1510/1556, Enríquez et al., 1993, 91. or.), «*Catalina de Aldaola, fija de Chachuco*» (Lekeitio, 1510/1556, *ibid.*, 194 or.).

– **Txerrieko** (*Txerio*): *Cherico de Ugarte* (Xemein, 1474, Enríquez & Sarriegui, 1986, 38). Ikus *Txariako*, *Txariko*, goraxeago.

– **Txeruko** (*Txeru*): *Cheruco* (NVP, 412).

– **Txoanko, Xoanko** (*Txoan, Xoan*; cf. *Xuan, Xoane*): «*Chartico de artero e Johanco su cuñado, Johanto fijo de Johan de aroz; sus fijos choanco, choaneto, chartico*» (Betelu, 1520, J.p., 5), *Xoanco Garaycoeche* (Zenotz, 1539, At.p., 1, 31), *Xoanco chipia de garcaron* (Muskitz, 1546, *ibid.*, 49).

– **Xemeko** (*Xeme*): *Chemeco* (Dg., 1412-13, CPBN, 105. or.). Behar bada *Txemeko* irakurri behar genuke.

– **Xemeroko** (*Xemero*). Makirriain Ezkabarteko *Xemercorena* etxe izenean opatu dut (Ue.p., 43).

– **Urraka** (*Urra*): *Vrraca Galindonis*, *Urraka Enecones* (Apardoze, 991, Leire, 12), *Urracha Ortiz de Orcheien* (1145, Leire, 321), *Hurraca Periz* (Mañeru, 1350, LPN, 374), *Donna Vrraca de Bedia* (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 56). Jungfer-ek (1902: 7) *Urraca* izena eta *urraca* espainol apelatiboa euskaratik hartuak direla uste du; Gorostiagak (1958: 59) *Urraka*-n *ur*re eta *-ka* atzizki txikigarria daudela dio.

Urraca-rekin batera *Urrana* dugu “Ulibarrilior”-en, Araban, 952. urtean (Ubieto, 1976, 64) eta Elorrion («*uxor sua Urrana Uittacoç*», 1013, Hid. et al., 1), eta *Urrato* edo *Orrato* Obarran (*Urraca* izena *Orraca* gisa ere ageri da; «*Ego Urrato et uxor sua Tota*», MD, 1965, 101. 1020ko agiria da). Atzizki txandaketa ikusirik oinarrian, Gorostiagak nahi zuen bezala, *ur*re ‘urrea’ dugula pentsa liteke eta osotasunak, menturaz, latinetikako *Auria*, *Oria*-ren parekoa zela. Zernahi gisaz, oinarrian *Urra* dagoela irudi du (*Hurra Xemeniz*, Faltzes, 1330, LPN, 251, *Hurra Garçia*, Andosilla, *ibid.*, 261. or., *Hurra*, San Martin Unx, 1366, *ibid.*, 490. or.), ez *Urre*. Ikus Irigoien (1994: 228 eta 1995: 4). Cf., alabaina, *Urreza* izena: «*Ego Galindo et uxor mea Urreza*» (997, Ubieto, 1976, 114, 124. or.).

– **Zuriko, Xuriko** (*Zuri, Xuri*): *Johan Çuriquo* (Artaxoa, 1330, LPN, 303). *Xuriko* Artozkiko *Xuricorena*-n (1607, Ag.p., 13, 385. or.), Urizko (1614, Ag.p., 14, 588. org., 1726) *Xuricorena, Juricorena*-n eta Ekai Longidako *Juricorena*-n (1851, Agoizko hipot., 3, 393. or.) dago. Arian *Jurico* eta *Xurico* oikonomoak ageri dira 1617an (Au.p., 2, 200); Orbaran *Maria Surico* eta *Maria de Churico* izeneko lagunak azaltzen dira 1764an (Au.p., 37, 1).

Irigoierek (1995: 13-14) *Didaco* izenak ere (*Diago, Diego...*) –ko duela dio eta jatorria latineko *Didus, Didi(us)* dela. *Didaco*-rekin batean *Didiaco* eta *Didico* ere ageri dira, nahiz hondarreko biak lehena bezain usuak ez diren Erdi Aroan. Ikertzaile berak Ezporogin 1366an azaltzen den *Ajuca* (LPN, 490) menturaz emakume izena datekeela dio, *Aio* pertsona izenaren hipokoristikoa.

Gure atzikia ikusi antroponimo horiekin ez ezik izengoitiek ere aurkitzen dugu:

– **Araneko** (*Arana*): *Araneco* (Dur., d.g., Hid. et al., 1989c, 223, 960. or.).

– **Barzenako** (*Barzena*): «*En las casas de Barzenaco, bivda, bibe ella misma*» (Be., 1511, Enríquez et al., 1997, 236. or.). Cf. *Pero Garçia de Barzena* (ibid., 238. or.).

– **Berrioko** (*Berrio*): «*En las casas de Berrioco bibe ella misma*» (Be., 1511, Enríquez et al., 1997, 239. or.).

– **Ermuko** (*Ermua*): *Ermuco de Ocharcoaga*, «*en las casas de Hermuco de Ocharcoaga ay dos fuegos*» (Bilbo, 1511, 1514, Enríquez et al., 1997, 293. or. eta 1997b, 83. or.).

– **Garitako** (*Garita*): «*Pago Garitaco*» (Dur., d.g., Hid. et al., 1989c, 223, 941. or.).

– **Loitegiko** (*Loitegi*): *Loyteguico de Areso* (Lei., 1587, Lei.p., 43).

– **Olabarriko** (*Olabarri*): «*Pago Olauarrico, vna sarten...VI*» (Dur., d.g., Hid. et al., 1989c, 223, 938. or.).

– **Olaetako** (*Olaeta*): «*Sabe e byo que solia estar vna choça e bybya en ella vn byejo que cree que se llama Goxençia y a la muger Olaetaco*» (Dur., 1489, Hid. et al., 1989b, 78, 419. or.), «*e que solia bybyr vna muger que llamaban Olaetaco*» (ibid., 422. or.).

– **Plazako** (*Plaza*): «*En vna choça vibe Plaçaco*» (Be., 1511, Enríquez et al., 1997, 250. or.).

– **Urduiako** (*Urduña?*): «*El sobredicho Martin de Mondragon, testigo e jurado [...] dixo que solia oyr a vna muger que llamaban Vrrduyaco*» (Dur., 1489, Hid. et al., 1989b, 78, 427. or.).

– **Zugastiko** (*Zugasti*): «*En las casas de Çugastico bibe ella misma*» (Be., 1511, Enríquez et al., 1997, 240. or.).

Cf. gainera *Erroieko* («*Mariacho, fija de Herroyeco*», Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 264. or.) eta *Matxako* («*En las casas de Machaco bibe el mismo*», Urduña, 1511, Enríquez et al., 1997, 51. or., «*Machaco, biuda*», 1514, Enríquez et al., 1997b, 32. or.).

Nafarroan, zenbait aldiz, *herri izena + -ko + -rena* egitura duten oikonimoak agertzen dira, hots, *Olaetako, Zugastiko* horien modukoak: *Adioscorena* (Añorbe, 1727), *Astrainconea, Lezauncorena* (Adiots, 1727). Bestalde, *-ko* atzizkia izen ttipietarik kanpo ere aurkitzen dugu: *Chotilcorena* (Subitzako etxea, 1727).

7.2.40. **-kot(e)** (< **-ko + -ot(e)** / **-ko + -t(e)**)

Del Vallek dio (1933: 180) Donostia inguruko eta Frantziako muga aldeko agiritan bukaeran *-t* duten *Joanot, Perrot* txikigarriak azaltzen direla, eta *Juanes*-tik eta *Pero*-tik atera direla. Hauekin batean osagaitzat gaztelaniako eta frantseseko atzizki txikigarriak dituen *Juanicot* «txikigarriaren txikigarria» (euskarazko *Chango*-ren baliokidea) ere aipatzen du. Ikus *-ot(e, a)*-n diodana.

Lekukotasunak:

– **Itxuskot, Utxuskot** (*Itsusi*): «*Ychusquot, Sr del palatio de Larçabau*» (1385, Goih., 1966: 228; *Ychusquet* ere irakur liteke, apika), *Uchuscot de Laxague* (Dg., 1387, *Doc.Gasc.II*, 219), *Uchuscot d'Eyharçe* (Bastida, 1412-13, *CPBN*, 93. or.).

– **Joankot, Juankot, Joankote, Juankote** (*Joan, Juan*): *Johancot de Garrat* (Heleta, 1353, Goih., 1966: 250), *Juancot de Paganduru* (1404, Makea, *ibid.*, 48), «*Johancot, seynor de Harane*» (Iholdi, 1412-13, *CPBN*, 89. or.), *Joancote de muez* (Muetz-Tutera, 1553, Li.p., 1bis). *Joancote* oikonimoa Etxeberri Arakilen (1570, 1580 HA.p., 4) eta Osinagan (1619, Ih.p., 4) aurkitu dut; Etxarri Etxauribarren *Juancoterena* ageri da 1727an.

– **Martikot** (*Marti*): *Marticot de Beroui* (Esterenzubi, 1358, Goih., 1966: 133), *Marticot de Callao, Marticot de Yhercoa, Marticot Dubnuguer* (Pasaia, 1457, Elortegi, 1992: 165), *Marticot de Garayburu* (Oiar.al., 1478, C. & C. & G., 1997, 69, 56. or. = *Martico de Garayburu*, *ibid.*, 72, 73. or.), *Marticot de Aguirre* (Erre., 1490, *ibid.*, 80, 98. or.), *Marticot de Liçarrague* (Oiar.al., *ibid.*, 81, 99. or.), *Marticot de Larreguy* (Biarritz, 1498, Goih., 1966: 20). Iglesiasek Biarritzko *Marticot* etxe izena biltzen du eta dio *Marti* okzitaniar aldaeran oinarriturik dagoela (2000: 118, 264-265). Ditugun testigantzak ikusirik badirudi biarritzar ikertzailearen usteak funtsa baduela; zernahi gisaz, *Marti* aldaera ezaguna zen gure artean ere, *Martie, Martin* eta besterekin batean.

– **Matxikot(e)** (*Matxi*): *Machicote* (Sunbilla, 1366, *LPN*, 569), *Machicote de Leyçaola* (Deba, c. 1444, *Her. & Bar.*, 2006, 36, 133. or. Autoreok *Machicor* transkribatu dute). *Matxiko*-ren gain eratua dagoela ere pentsa daiteke; Irigoienek (1995: 9) hemen *Matxiko* + *-te* daudela uste du, eta menturaz hala dateke. Oieregin 1727an *Machicotena* oikonimoa ageri da.

– **Otxokote** (*Otxo(a)*). Labaiengo 1726ko *Ochocotenea* oikonimoaren oinarrian dagoela dirudi.

– **Pedrokote** (*Pedro*): *Pedro Cote de Cortaçar* (Ispaster, 1470, Enríquez et al., 1992: 255). Ez dakit *Cote* bizirik dagoen *Kote* bera den ala *Pedrocote* gaizki zatitua; lehen kasuan *Pedro Jose*-ren ordeztu gogon litzateke *Pedro Cote* hori.

– **Perukot** (*Peru*): «*De Peruquot e de Johaneta, vostres enfantz*» (Li., 1327, *Sta.C.*, 19).

– **Xoankote** (*Xoan*): *Xohancote de tipulace* (etxea, irudi duenez; *Narbarre*, 1528, *Eo.p.*, 1, 78).

7.2.41. **-koti** (< **-ko** + **-ti**)

– **Martikoti** (*Marti*): *Marticoti de Hiribarria* (sic, *Makea*, 1245, *Goih.*, 1966, 49).

7.2.42. **-koto(a)** (< **-ko** + **-to(a)**)

– **Enekoto** (*Eneko*). Erratzuko 1726ko *Enecottorena* oikonimoaren oinarrian dago.

– **Itxuskotoa** (*Itxusi*): *Ychuscotoa* (Ip. Erdi Aroan, *Goih.*, 1991: 303). Ikertzaile honek goitizentzat hartzen du, ez izentzat.

– **Joankoto, Juankoto, Xoankoto** (*Joan, Juan, Xoan*): *Juancoto deyvarrarena* (Erbiti, 1593, *Ih.p.*, 1). *Joankoto* Sorauren (1589, *Ih.p.*, 2, 1611, *Ue.p.*, 42, 1726), *Iribas* (Le.p., 1, 1594), *Satrustegi* (1604, *Ih.p.*, 3) eta *Osinagako* (1619, *Ih.p.*, 4) *Joancotorena* etxe izenetan agertzen da; Soraurengoa, dena dela, *Juancotorena* da 1726an. Hipokoristikoaren hirugarren aldaera *Etxalekuko Xoancoto moco*-n dugu (1549, *At.p.*, 1, 82).

7.2.43. **-koxe(a)** (< **-ko** + **-xe** + **(a)**)

– **Joankoxe(a), Juankoxe** (*Joan, Juan*): «*Johancoxe filh de Cazemayor*» (1377, *Zier.*, 1994: 116), *Johancoxe Goieneche* (*Duz.*, 1396, *Goih.*, 1966: 127), *Johancoxe d'Agote* (*Izpura*, 1396, *ibid.*, 138), *Johancoxe de Luxa* (Lüküze, 1396, 1426, *ibid.*, 285), *Juancoxe, Juhancoxe de Lacarra* (1401, 1404, *ibid.*, 145), «*Johancoche, fil d'Aroztegui de Yrissarry*» (*Irisarri*, 1408, *Doc.Gasc.II*, 311), *Johancoxe*

(Suh., 1429, Goih., 1966: 164), *Johancoxia de Harismendi* (Sara, 1451, ibid., 59), «*Johancotxia, seigneur de Oyhengaray*» (L, 1451, ibid., 82).

– **Mitzelkoxe** (*Mitxel*; *Mitzelko* + *-xe* ere uler daiteke, jakina): *Michelcoxe* (Done., 1366, LPN, 569).

– **Totakoxe** (*Tota*): *Totacoje* (*Totica* itzulia, RS, 306). Honela dio atsotitzak: «*Totacoje mirabe prestu / gauza guichietara guertu*». Itzulpena honako hau da: «*Totica siruienta que vale mucho, / aparejada para pocas cosas*». J. A. Lakarrak (1996: 323) honela ezartzen du egungo grafian: «*Totakoxe mirabe prestu, / gauza gitxietara gertu*».

Inoiz izengoitiaren gainean moldatua ere aurkitu dut aztergai dugun atzizkia:

– **Undakoxe** (*Unda*, oikonimoa irudi duenez): «*De Vndacoxe reęevymos otro tanto*» (Dur., 1498, Hid., 1989b, 106, 542. or.). Cf. *Pedro de Vnda* (ibid., 544).

7.2.44. -l

Hemen *-o-z* bukatzen diren izenetan *-ol* gaskoi edo okzitaniar atzizkia ere izan genezake, apika; ikus Grosclaude (1992: 247), Iglesias (2000: 176) eta *-o* atzizkiak mintzatzean diodana. Michaelssonek (1939: 114), Parisko Erdi Aroko hipokoristikoak aztertzean, erraten du *-l* dutenak hastapenean oinarrizko izenetan albokoa agertzeari zor zaizkiola (*Ansel* → *Anselet*, *Anselot*; *Daniel* → *Danelet*, *Marcel* → *Marcelet*...), baina, hagitz herrikoiak zirenez gero, jendeak, nonbait, *-l* izen ttipiaren ezaugarritzat hartu zuela eta bestelakoetan ere erabiltzen hasi zela: *Aubert* → *Aubelet*, *Guibert* → *Guibelet*, *Hubert* → *Hubelet*, *Lambert* → *Lambelet*, *Lambelin*, *Lambelot*; *Richeut* → *Richelot*... Nik *-l*, *-let*, *-liko*, *-lo* aurkitu ditut. Juduek Austrian, Alemanian eta bestetan ibili izan duten *-l* hipokoristiko atzizkiak (Beider, 2001: 59. eta hurr.) ez bide du zerikusirik hemen aztertzen ari naizenarekin.

Hauak dira aurkitu ditudan lekukoak:

– **Auriol** (*Aurio*), **Oriol** (*Orio*): *Auriol Sanz* (Elortzibar, 1097, Leire, 160), *Oriol Sanoiz*, *Oriol Arceiz* (1071, Leire, 90).

– **Baskol** (*Basko*): «*Bernardus de Belsunce dictus Bascol*» (Makea, 1332, Goih., 1966: 51).

– **Enekol** (*Eneko*): *Enecol* (Iru., XIII. m., Ubieto, 1954, 3. aurkia).

– **Garziala** (*Garzia*): *Garçiala Cal* (Arguedas, 1366, LPN, 432). Ez dakit seguru hau nola irakurri behar den, *Gaçia la Cal* ere egin litekeelako, apika.

– **Santsol** (*Santso*): *dona Hurraca de Santsol* (Mendabia, 1350, LPN, 330), *Sancho de Santsol* (Mues, 1350, LPN, 360). Badaiteke hemen *Santsol*

herri izena egotea, baina *Santso*-ren hipokoristikoa ere izan daiteke, jakina. Cf. *Sanzol*.

– **Sanzol** (*Sanzo*): *Sanzol de Irigoien* (c. 1167, Goñi, 306), *Sançol* (Iru., XIII. m., Ubieto, 1954, 4. gimberra), *Sançol de Beraizcois* (Bes., 1368, Goih., 1966: 27), *Sançol* (Azkarate, ibid., 183), «*Gracia l'amiga de Sançol*» (Lizasoain, 1388, Ur., 1954: 278).

7.2.45. **-let(e)** (< **-l** + **-et(e)**)

Mitxelenak dio (1969: 51) *Sancholet* eta *Garçolet* izenen bukaeran *-et* erdaratikakoa dagoela (ikus atzizki honetaz gorago erran dudana), jatorri bereko *-l*-ri atxikirik. Cf., alabaina, *Maitele*-n izan genezakeen *-le* bukaera («*Ioanne fillo de Maitele*», Subitza, 1267; Ost., 206) (22). Beste aukera bat *-ol* + *-et* ikustea da (ikus *-l* atzizkia).

– **Garziolet** (*Garzio*): «*Garcia mancebo et Garciolet*», «*E[necus] filius de Garciolet*» (1212, Iratxe, 269, 286-287. or.).

– **Garzolet** (*Garzeo*, *Garzo*): «*Sancho Garceiz fill de Garçolet*» (Estelle-ria, 1286, DNLO, 75). Irigoienek hemen *Garço* + *le* (*-lo*-ren aldaeratzat hartzen du) + *t(e)* edo *-t(o)* dakuski (1982: 627) .

– **Santxolet** (*Santxo*): *Sancholet* (1193, Iratxe, 217, 234. or.), *Sancholet* (Oiertza, Zizur zendea, 1256, Irantz, 239. or.). Olatz Galarren *Casa Sancholete* ageri da 1680an (Jimeno, 1987: 324).

7.2.46. **-liko** (< **-l** + **-iko**). Ikus aitzineko sarrera

– **Santxoliko** (*Santxo*). Antxorizko *Sanholicorena* etxe izenean ageri da (1646, Ue.p., 41).

7.2.47. **-lo**

Gorrotxategik (1984: 125, 152, 227) Galietako eta Akitaniako *-lo*-atzizkia aipatzen du, *Adeili* eta *Baesellae* izenetan dagokeena. Lan berean, aitzinago, latinekotzat hartzen du *Sambilii* (gen.) izenean dagoen berrekailua, baina konposatua denez gero (*-lo-* + *-io*), ez dakit seguru biez ari zen ala bakarrik bigarrenaz. Ikertzaile honek berak (2000: 151) atzizkia zenbait toponimo zelta-

(22) Alemanaren zenbait dialektotan, Alsazian adibidez, arrunta izan da *-le* atzizkia hipokoristikoak egiteko, kristauen artean lehenik eta hauengandik hartu zuten juduen artean gero.

tan ere azaltzen dela gehitzen du (*Mediolon*-en errate baterako). Irigoienek (1995:19) *txotxolo*, *kokolo* eta antzeko hitz adierazkorretan dagoen bukaerarekin berdintzen du *-lo*.

Erdi Aroko agirietan gutxi azaltzen da:

– **Auriolo** (*Aurio*): *Auriolo Gardeleiz* (Zaraitzu, 1037, VM, 34).

– **Markolo** (*Marko*): *Marcolo de la Cuesta* (Villatuerta, 1330, LPN, 286), «*Marcolo, el ferrero*» (Oteitza, ibid., 290).

– **Otxalo** (*Otxoa*): *Garcia Ochalo* (1217, Iratxe, 290). Ikus Irigoien (1995: 19). Ikertzaile honek (1995b: 27-28) Biarnoko *Ossau* ibarraren izena ere *Otsalo*-tik eratortzen du, Pirinioetako hizkeretan ohikoa den azken bokalaren galtzapenez eta amaierako albokoaren bokaltzez. Erdi Aroan *Ochalo*z eta *Ochaleç* patronimikoak ere aurkitzen ditugu (Salaberri, 2003: 230).

– **Txopelo** (*Txope*): *Chopelo* (Mutriku, 1504, Fdez. & Mont. & He., 2007, 53, 107. or.).

– **Zurilo** (*Zuri*): *Zurilo* (1210, Iratxe, 253, 271. or.), *Çurilo* (Ilarr., XIII. m., GPrior., 111).

Mikelo dela eta, ikus *-o* atzizkia aztertzean diodana. *Ossau* ibarrean Erdi Aroan usuak ziren *-olo* bukaera zuten hipokoristikoak: *Arramanolo* - *Ramanolo*, *Gassiolo*, *Guilhaumolo*, *Johanolo* – *Johandolo*, *Monicolo*... Ikus Irigoien (1995b: 31-32). Badirudi, hala ere, hau gaskoieraren *-olo* atzizki txikigarri eta hipokoristikoa zela (Grosclaude, 1992: 53, 64). Benasquen *Chanolo* ageri da, oikonimotzat (< *Ioanne*; Saura, 1999-2000: 168, 170, 178); ikertzaile honek atzizkia *-ölu*-tik eratortzen du.

Lekunberrin 1726an ageri den *Martillonea* oikonimoaren oinarrian *Marti* + *-lo* egon liteke, baina uste dut ezin dela erabat baztertu *Martinillo*-tik atera delakoa. Baliteke, orobat, *Marti* aldaera ezaguna eta *-illo* atzizkia izatea. Beste azalpen bat ere proposa daiteke honendako: *martillo* ‘mailua’, izengoiti bihurtua.

7.2.48. **-los** (< **-lo** + **-s**)

– **Martilos**. Behin bakarrik ageri da, eta ez da inola ere segurua; Leitzako *Martilos* oikonimoaren oinarrian egon liteke (1594, Lei.p., 1; egun *Barkillos* erraten zaio, oker ez banago). Cf. aitzineko sarrerako *Martillonea*-z mintzatzean erran dudana.

7.2.49. **-lot** (< **-lo** + **-ot** / **-t**)

– **Garzilot** (*Garzi*): *Garcia Garceyz de Garçilot* (Lukin, 1330, *LPN*, 277). Zalantzakoa da; cf. *Domenga Garcia de Garcia Lot* (ibid).

7.2.50. **-nko, -ngo**

Gorago, *-(a)ndo*, *-(a)nda* aztertzerakoan ikusi dugun bezala, Mitxelena *-nga* atzizkia inoiz *-nda*-tik atera dela uste du (*urdanda* > *urdanga*). Irigoienek (1995: 22), ordea, *urdanga urde*-tik eratortzen du zuzenean, hots, *urdanda*-tik igaroarazi gabe, eta honetaz landara *gorrinko* > *gorringo*, *zurinko* > *zuringo*, *luzanga* / *luzanka* ('luxea' edo) eta *txardango* 'karobian harria mugitzeko ibiltzen den makilarik txikiena' / *txardanko* 'zurezko matxarda txikia' ere aipatzen ditu. Zernahi dela, atzizkia ez da batera emankorra, antroponimian behinik behin. Mendigatzak (in Irigoien, 1957: 154) *xamarinko* «que se llama el potro y caballo pequeño», *xibinko* «puente pequeño ó puentecico» biltzen ditu, hots, *zamari*-ren eta *zubi*, *zibi*-ren txikigarriak.

– **Artxango** (< **Gartxango*). Irigoienek (1982: 628) Irunberriko 1366ko *Miguel Archango* deizioaren bigarren osagaia *Garzea*, *Garzia*-ren eratorrietan sartzen du eta *Lupanco*-rekin (*Lupo*-tik) parekatzen.

– **Lupanko**: *Lupanco* (1027, *CSM*, 181). Irigoienek dio (1983: 23) hemen *Lupa-* + *-nko* ditugula, eta oinarria *Lupo*-tik atera dela, «euskaraz betetzen den erregelaren arabera» (23), hots, *-o-* > *-a-* aldakuntzaren arabera. 1995eko lanean (22) berriz ere etimologia bera proposatzen du.

– **Otxanko, Otsango** (*Otxo(a)*, *Otso(a)*): *Johan Ochanquo* (Artaxoa, 1366, *LPN*, 437). Irigoienek (1983: 23) oinarrian *Otxa-* izena dagoela dio, eta hau *otso* 'otsoa'-ren bustitze adierazkorra dela; *Enenko* (*Ennenco*) ere aipatzen du. Etxalarren *Osango* izeneko etxea ageri da XIX. mendean, *Otsángo* ebakia egun (Ap. & Sal.).

7.2.51. **-no, -na**

Irigoienek (1995: 21) *-no* eta *-ño* bat-bera direla uste du; bigarren hau, Bizkaiko euskaltzainaren arabera, palatalizazio adierazkorraren ondore dateke. *Amañi*-n ageri den *-ñi* atzizkia *-ño*-ren aldaeratzat ematen du.

(23) Erreferentzia oker ematen du; izen hau azaltzen den agiria ez da 92.a, 181.a baizik.

Lekukotasunak:

– **Garino** (< *Garin* + *-no* beharbada, baina ez da batere segurua, *Garindo*-ren eratorria ere izan baitaiteke), **Gerino**, **Garina**: *Garino* (Zaraitzu, 997, Leire, 13), *Garinno Datoe* (Uskartzte, 1072, ibid., 97), *Garinno d’Esparça* (1046, ibid., 36), *Gerino* (1278, Zab., 1995, 100), *Garina femina* (Iru., XIII. m., Ubieto, 1954, 5. aurkia).

– **Joanno**, **Juanno** (*Joan*, *Juan*): *Johanno de Luxa* (1401, Lüküze, Goih., 1966: 285 = *Johancoxe de Luxa*), *Juanno* (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 177. or.).

– **Ortino**, **Urtino** (*Orti*, *Urti*): «*Teste don Ortino*» (Art., 1111, 47), «*Teste filio Sancii Ortiz, Ortino*» (ibid., 56), *Ortino garmon* (ibid., 59), *Hurtino de Achaga* (Mark., 1505, Hid. et al., 1989c, 141, 667. or.).

– **Semeno**, **Semero** (< *seme* + *-no*, irudi duenez. Ikus Mitx., 1954: 432, Gorr., 1995: 45 eta Knörr, 1998: 221), **Semera**, **Xemeno**, **Xemero**: *Semeno Miqueleiz* (Barañain, 1195, GPrior., 79), *Semeno Larracecoa* (Zizur zendea, 1199, ibid., 103), *Semero Surra* (Etxarren, 1227, ibid., 200), *Semera femina* (Iru., XIII. m., Ubieto, 1954, 5. aurkia), *Xemeno de Uncit* (Untziti, 1255, Ost., 157), *Chemero Galdroytz* (= *Semero Galdroytz*, Dg., 1372, Goih., 1966: 330). Ikus *Xemero*, *Xemerot*, palatalizazioari eskainitako atalean.

– **Zabino** (*Xabier*): *Zabino* (Narbarte). Ikus izen honetaz gorago erran dudana.

7.2.52. –ñi

Aitzineko puntuan erran bezala, Irigoienek (1995: 21) *amañi*-n ageri den *–ñi* bukaera atzizkizkitzat hartzen du, eta *–ño*-ren aldaeratzat jotzen.

– **Pierrañi** (*Pier*, *Pierra*): *Pjerrañi* (Zub.).

7.2.53. –ño (-ñoa kasu batean)

Azkuek (1969 [1923-1933]: 284), euskal deiki edo bokati boez ari dela, erraten du gure hizkuntzan horrelako lau edo bost besterik ez direla, horien artean *to* eta honen txikigarriak diren *tto* edo *txo* (mutilekilakoa), eta *no* eta honen txikigarria den *ño* (neskekilakoa). Lekeitiarrak hiztegi ezagunean erronkarierako *ño* ‘txikia’ biltzen du (eta *ñotarik* ‘haurretik’, *ñotto* ‘txikitxoa’, *ñotu* ‘txikitu’, ‘murriztu’), zein, irudi duenez, atzizkia izatetik hitz askea izatera igaro baita (cf. *keria*, *kuntze*, *tasun*, *tegi* eta beste).

Akitanieran bazen, Gorrotxategik dioenez (1985: 623), *–nno-* atzizki geminatua, zenbait aldiz behinik behin galiar izenei ere eratxikitzen zitzaiena

(*Touta-nno-(rigis)*, *Adiatu-nnus*); ez dakit, dena dela, orain mintzagai dugun *-ño* Akitaniako *-nno*-rekin lot daitekeenetz. Hemen oroitu beharra da *-no* atzizki txikigarria onomastikan ezaguna dela (AV, 470): *Arano*, *Arizno*, *Artano*, *Elkano*, *Etxano* eta abar. Uxueko *Zaldunaga* eta Eslabako *Zaldinaga* toponimoak ere aipa daitezke, biak aitzineko *Zaldinuaga* batetik atera baitira (*Zaldinoaga*-tik antza; Salaberri, 1994: 916). Errenteriarrak dioenez (AV, 470), *-no* atzizki hau *-nn-* dokumentatzen da Erdi Aroan, aipatu Akitaniako atzizkiaren grafia bera-rekin. Honek erran nahi luke *-no* zaharragoa dela egungo *-ño* palatalizatua baino. Ikus Irigoienek dioena, *-no*, *-na*-ri eskainitako atalñoan.

Atzizki hau nagusi da egun Iparraldeko hizkera batzuetan (ikus Kami-no & Salaberri, 2001) eta, beraz, beste atzizki anitz ez bezala, emankorra da oraino antroponimian. Hauek dira bizirik kausitu ditudan izen ttipiak:

– **Anañoa** (*Ana*): *Anañua Iribarren* (Camino, 2008: 12).

– **Bettiño** (*Betti*): «*Oseba xahar Bettiño*» (Larre, 2001: 329).

– **Joanaño, Juanaño** (*Joana, Juana, Jeanne*): *Yuanayo* (Garazi aldean, 1893, Sat., 1971: 298), *Joanaño* (Lafitte, 1987 [1944]: 177), *Jwanáño* (Lan., Luz.). Lehen herrikoa ofizialki *Jeanne* zen, baina bistan da izen ttipiaren iturburua lehenagoko *Joana*, *Juana*-n bilatu behar dela. Luzaideko *Juanaño* ofizialki [X]juana dateke, baina izen ttipia [j]-z ebakitzen da.

– **Juaniño** (*Jeanine?*, *Juana?* Nolanahi ere *Juanaño*-ren baliokidea da): [J]jwaniño (Luz.), cf. Zubiri (1990: 236).

– **Mariaño, Mariño** (*Maria, Mari*). *Mariño* Luzaideko *Mariñorenia* (1693), *Marinoinea* (1699), *Mariñorena* (1773) (Sat., 1961: 217), *Mariño* (1787, Au.p., 42, 1850, A.h., 3, 225-226. or.) oikonimoan ageri da; orain *Mañóinja* erraten zaio euskaraz, eta *Casa Mariño* erdaraz. *Mariaño* Lhandek biltzen du (1926: 715), baina ez *Marie* edo *Maria*-ren kidetzat, *Marianne*-ren baliokidetzat baizik. Azkuek (urterik gabe, 18) «*Mariaño, errazu*» izeneko erromantzearen titulua biltzen du; Etxamendik ere (1988: 121) erabiltzen du izen hau bere eleberrian. Barbierrek *Mariño* eta *Mariaño* hipokoristikoak darabiltza (1987: 113, 154); Duny-Pétrék (1996: 181) *Mariaño* izena *Mariette* itzultzen du frantsesera.

– **Piarreño, Pierraño** (*Piarre, Pier, Pierra*): *Pjerráño* (Ami.), *Piarreño* (Luz., 1816, Sat., 1961: 219 eta 1969: 74, Barbier, 1987: 96, Otsobi, 1992: 23, Etxarren, 1985: 66), «*Piarreño Mogaburu Behauze Goitikoa*» (Larre, 2001: 308). Etxegaraik Donibane Lohizuneko *Piarríño-baita* izeneko «ardangela» jasotzen du (1926: 121). Ibarrek *Pierreño* biltzen du Larrasoñan XX. mendean (2002: 508); honetan *Pierre*-ren antzeko zerbait egon daiteke (cf. *Pjér*, *Pjerra* eta *Piarre*).

– **Preoño, Peoño** (*Pedro*): *Preoño* («sapparreco preoño egunac 2», alegia, ‘*Xaparrja* etxeko Preoño bi egun’, Sat., 1969: 210). Xarrittonek (Narbaitz, 1999: 6) erraten du P. Narbaitzen aita *Peoño Narbaitz* zela.

Dokumentazioan eta literaturan beste hauek ditugu:

– **Betiriño** (*Betiri*): *Betiriño* (Luz., 1767, Sat., 1961: 213). Hiriart-Urruti Althegik *bettiriñoa* ‘zezena’ adieraz-edo darabil (1994: 265), oker ez banabil: «Bettiriñoaren berririk baduzuia? Nik ez dut. Zezena xixtatueta, uste nuen zin edo min ximixta zerbeit agertu zela; bainan Ezpeletan botatu zituen eiki azken uztarrak».

– **Juanesño** (*Juanes*): *Juanesño de Iribarne* (= *Juan de Iribarren manezño*, Luz., 1770, Sat., 1961: 217).

– **Manezño** (*Manez*): *Juan de Iribarren manezño* (= *Juanesño de Iribarne*, Luz., 1770, Sat., 1961: 217).

– **Margaritañoa** (*Margarita*): «*Ni bederen, ene biziaren ematera nago ene Margaritañoaren alde*» (Duvoisin, 1987: 46).

– **Martiño** (*Martin*). Luzaideko *Martinóinja*, *Martiñoinja* (Gaindola eta Gañekoleta; bi aldaerak erabiltzen dira bi auzoetan) etheen izenetan dago (ikus Sat., 1961: 217 eta 1965-66: 28, 30; nik *Martiño* kausitu dut 1850ean; A.h., 3, 279. or.).

– **Migelño** (*Migel*): *Miguelño* (Dg., 1764, Au.p., 37, 56).

– **Pelloño** (*Pello*): *Pelloño* (Luz., 1776; Sat., 1961: 219), *Pelloño* (Etxepare, 1988: 171).

– **Pelomartiño** (*Pello Martin*): *Pelo Martiño* (eta *Martinpelo*) (Luz., 1847, Sat., 1961: 217).

– **Xabaño** (*Xabat*). Satrustegik (1961: 219) *Chabagno* (*Xabaño*) deituraren oinarrian *Sabat* dakusa, baina badirudi *Xabat* egokiagoa dela.

– **Xuriño, Zuriño** (*Xuri, Zuri*). Luzaideko *Churiñorena* (1726), *Zuriñorena* (1770, Sat., 1965-1966: 28) etxe izenean ageri da.

7.2.54. -o

Ez dakit seguru hipokoristiko atzizkia den ala ez den; zernahi dela, hots sinbolismoa duten izenei lagun eginez ere azaltzen da. Irigoienen arabera (1995b: 31), bukaerako *-o* hori gradu hurbileko artikulua baizik ez da. Ossau ibarreko dokumentazioan behin baino gehiagotan ageri da *-o*: *Bascoo*, *Berducoo*, *Peuroo* (ibid., 31-32), baina badirudi hemen *-on* hipokoristiko atzizkiaren ondorengoaren aitzinean garela (ikus Grosclaude, 1992: 56, 80), edo *-ol* (*-olum* latinez) berrekailuaren ondokoarenean (ibid., 64-65).

Lekuko hauek bildu ditut:

– **Garzeo, Garzio, Gazeo, Gaxio**: *Pero Garçeo de Ardanaz*, (1262, GPrior., 396), *Garcio Periz* (Lizasoain, 1366, LPN, 520), «*Fernando fiyo de Gaçeo*» («Çuaçu», 1493, Díaz de Durana, 56; «Gaçeo» izengoitia izan liteke, Fernandoren aita Arabako herri horretakoa zela pentsatzen badugu), *Gassio* (Iri-

goien, 1995b: 31). Ikus, hondarreko hau dela eta, sabaiaurreko frikariaren bi-dezko palatalizazioa aztertzean erran dudana, *Garzia* sarreran.

– **Mario** (*Maria?*): «*Mario de Segura, con su yja*», «*Mario de Çubila-ga, con su yja*», «*Mario de Çelaya, sobrina de Sancho Abad de Çelaya*» (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 255 eta 258. or.).

– **Martxio** (*Marti, Matxin?*): *Marchio Alvaro* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.). Cf. Galarko *Marchiarena* (1797), *Martxena* (egun) oikonimoa (Jimeno, 1987: 294).

– **Matxeo** (*Mateo?*, *Marti* palatalizatua + -o? Cf. *Martxio, Matxio*): *Macheo de Yribia* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 100. or.). Aintzioan 1780an *Macherena* oikonimoa ageri da (Au.p., 42), baina ez dakit izenburuko hori bera den ala beste zerbait.

– **Matxino** (*Matxin*): *Machino de Chaburu* (Dur., 1443, Hid. et al., 1989, 9, 36. or.), *Machino de Gabiria* (Erre., 1474, C. & C. & G., 1997, 58, 23. or., ibid., 59, 26. or.), *Machino de Seyn* (Oiar.al., 1475, ibid., 62, 35. or.), *Machino de Lesaca* (Erre., 1490, ibid., 79, 94. or.).

– **Matxio** (ikus aurreko sarrerak): *Machio d'Olays* (Erre., 1406, C. & C. & G., 1991, 27), *Machio de Mendarayn* (1425, ibid., 33).

– **Maxino** (*Matxin?*): *Maxino de Siaur* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.). Cf. *Matxino*.

– **Mikelo** (*Mikel, Mikele*): *Miquelo Gorria* (Ibero, 1350, LPN, 390), *Miquelo Veynça* (Sal., 1366, ibid., 570. or.).

– **Mitxel** (*Mitxel*): «*Michelo, hermano del dicho Machite*» (Sak., 1407, Crespo et al, 1996, 65, 25-26. or.), *Michelo* (Erre., 1409, C. & C. & G., 1991, 31), «*Michelo en Arraga con su fijo*» (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 119. or.).

Del Valle Lertsundik (1933: 176) honela dio, Gipuzkoako XV eta XVI. mendetako hipokoristikoez ari dela:

«Existe también cierta tendencia a agregar una “o” o una “a” al nombre correspondiente castellano que termine con consonante, según sea de varón o de hembra; así por ejemplo de Isabel, Inés, Angel, Miguel, Nicolás, Martín, hacen Isabela, Inesa, Angelo, Miqueo, Nicolao, Marto (usado como derivación de Martín y no como masculino de Marta). Esta tendencia contrasta con la contraria de suprimir la “a” o la “o” final de los nombres femeninos o masculinos que en castellano terminan con ellas; encontramos por ejemplo: Mari, Marín, Osán, Madalen, Cristín, Per, Fortún, Chomin, Chordón, Bernal, Arnal, que corresponden o derivan de María, Marina, Osana, Magdalena, Cristina, Pedro, Fortuño, Domingo, Ordoño, Bernardo, Arnaldo».

Irigoienek (1995: 19) *Mikelo*-n *-lo* atzizkia dagoela uste du, *Otxalo*-n edo *Zurilo*-n bezala, eta badaiteke hola izatea; Del Valle Lertsundik aipatzen duen *Angelo*-n ere *Angel* + *-lo* ikus daiteke, baina *Angel* + *o* ere bai.

7.2.55. **-on (-un, inoiz edo behin); -ona** (emakume izenekin)

Gaztelaniaz arruntean handigarria den *-on* (< *-one*), gaitzesgarria eta txikigarria izan daitekeena (Glez. Ollé, 1962: 337), gure artean ere aurkitzen dugu, izen ttipietan (*Joanon, Migelon, Peiron...*), Gaskuñan eta Biarnon bezala (Grosclaude, 1991: 379, 1992: 36-37, 57-58, Fénié, 1992: 84-85: *Arnauton – Arnaton – Nauton – Naudon, Bernadon, Bertalon – Bartalon...*; gaskoiz *-où* itxurapean ageri da: *Janoù, Micheloù, Menicoù, Bertranoù...* Rohlfs, 1977: 228-229). Asturiasen *Juanón, Miguelón*-en modukoak txikigarriak dira, A. Alonso-ren arabera (1982 [1954]: 189). Aragoin, berriz, handigarria nahiz txikigarria izan daiteke (Glez. Ollé, 1962: 337). Eskualde honetan izen arrunt eta izenondoekin ere atzizki usua da hau txikigarritako, Buesak dioenez (1989: 44), izen bereziki ez ezik (*Pablón, Pedrón, Antoñón...*, Rohlfs, 1951: 516, 1977: 229). Ikus, berebat, Saurak Benasquen bildu dituenak, 1999-2000: 178). Frantzian ere *-on* txikigarria izan daiteke Dauzaten (1988 [1949]: 113) eta Hummelen (1997: 199) arabera, nahiz zenbait aldiz antzinako erregimen kasutzat hartu beharra den. Erdi Aroan ere agertzen da Parisen (*Auberée → Auberon, Marie → Marion, Maron*, Michaelsson, 1939: 112-113). Italieraz *-one* «a typical augmentative ending» da: *Iacovone* ‘big Jim’, *Colone* ‘big Nick’ (Hanks, 2003, XViii).

Atzizkiaren hedadura ikusirik, ez da miresteko gure artean ere azaltea. Gainera, inoiz beste berrekailu hipokoristiko bati gaineratzen zaio *-on* (*Lopellon*) edo palatalizatutako izenari (*Gartxon*). Kasuren batean giblean darama hipokoristikoa (*Santzonet*), hondar kasu honetan *Sanctione*-tik zuzenean ateratako aldaeraren aitzinean (*Santzon*) ez bagaude behintzat.

Bakarra kausitu dut bizirik:

– **Pillun** (*Pillo, Piellu*): *Pillún* (Ami.).

Ugariak dira, ordea, dokumentazioan bildu ditudanak:

– **Andraon** (*Andre, Andreo*): *Andraon de Pisueta* (Lekeitio, 1556, Enríquez et al., 1993, 2, 165. or.), *Andraon* (Lekeitio, 1510/1556, ibid., 82. or.).

– **Arnalton, Arnaldon** (*Arnalt, *Arnald*): *Arnalton* (Estellerria, 1248, DNLO, 9), *Arnalton de Larçabau* (Lan., 1350-53, CPBN, 49. or.), *Arnaldon* («*Arnal Lup, seigneur de Lucxe*» delakoaren semea, 1355, Ruiz, 1997, 117).

– **Arnauton, Ernauton, Ernaton, Ainauton, Einauton** (*Arnaut, Arnauto, Ernaut*): *Arnauton, Aynauton, Eynauton, Ernauton delarçabal* (1350etik aitzina, Goih., 1966: 228), *Arnauton de Bildosteguy dayharp* (Ainharbe, 1377, Zier., 1994: 178), *Arnauton Lucxa* (Dg., 1387, *Doc.Gasc.II*, 219 = *Arnauton de Lucxe*, ibid., 1397, 284), «*Jo, Arnaut Santz de Tardetz, seynor de Luxe [...] et garde de mon fil Arnauton*» (Lüküze, urtea?, *Doc.Gasc.II*, 356), *Hernaton de goyta*.

(Goi., 1551, Ih.p., 1), *Ernauton de olasso* (Goi., 1581, Iru.p., 5-I, 101), *Hernauton de çiganda* (Beuntza, 1616, Ih.p., 4). Goihenetxek (1991: 301) Iparraldeko *Aynahton*, *Eynahton* biltzen ditu, Erdi Aroan; Etxalekun *Ernauton* oikonimoa ageri da (*Ernauton dechalecu*, 1587, HA.p., 5).

– **Aton** (*Ato*): *Bermundus Aton de Mendilorri* (Iru., XIII. m., Ubieto, 1954, 4. aurkia). Cf. *Enekon*.

– **Aujeron** (*Aujer*): *Augeron de Grachico*, *Augeron de Sarote* (Biarritz, 1498, Goih., 1966: 21, 24).

– **Baskon** (*Basko*): «*Johan de Saut dit Basco de Marueil*», «*Johan de Saut dit Bascon de Mareuil*» (Zibitze, 1354, Goih., 1966: 217).

– **Bernardon, Bernadon, Benadon** (*Bernard(o)*): *Bernardon* (*Bernart de Montaner-en* semea, Li., 1295, *Sta.C.*, 2), *Benadon* (Mon., 1351, 1350-1362, Goih., 1966: 148), *Bernardon d’Atez* (Iru., 1366, *LPN*, 541), *Benadon d’Ostauls* (Izura, 1354, Goih., 1966, 240), *Bernadon de Garat* (Bai., 1462; *ibid.*, 96), *Bernadon d’Etchayde* (Bai., 1485; *ibid.*, 95), *Vernardon de ybarbide* (Bai., 1530, *Eo.p.*, 1, 142).

– **Bertranon** (*Bertran*): *Bertranon de Laxssaga* (Latxaga, 1392, Goih., 1966: 231), *Bertranon d’elleicxaga* (Bai., 1394, *ibid.*, 103), *Bertranon de Galharrete* (1462, *ibid.*, 96).

– **Bertulon, Bartulon, Bertolon, Bertalon** (*Bertulo*, **Bartulo*, *Bertolo*, **Bertalo*): *Bertulon Bitas* (Artaxoa, 1330, *LPN*, 296), *Bartulon* (*ibid.*, 298), «*Bertolon, yerrno de Sancho Surra*» (*ibid.*, 299), *Bertulon de Maynçia* = *Bertulo de Maynçia* = *Bertolo de Maynçia* (*ibid.*, 300-302), *Bertalon de Bonachen* (Bai., 1434, Goih., 1966: 94). Gaskuñan ere ageri dira *Bertalon*, *Bartalon* izen ttipiak (Grosclaude, 1992: 58).

– **Domejon, Domenjon, Dominjon, Menjon, Minjon** (*Domenjo*): *Domingon de Herryard* (Bai., 1297, Goih., 1966: 98), *Minjon* (Villamayor, 1350, *LPN*, 361), *Domengon Mulatero* (Orreaga, 1366, *ibid.*, 488. or.), *Domenjon de Jaulerri* (Biarritz, 1342, Goih., 1966: 22), *Domenjon d’Alçuete* (Dg., 1385, *Doc. Gasc.II*, 204 = *Domenjo*, *ibid.*, Iru., 208), *Domenjon de Liceyri* (Iru., 1422, *ibid.*, 330), *Domengon de Daynhoa* (Bai., 1442, Goih., 1966: 94), *Menjon d’Etcheyon* (1465, *ibid.*, 95).

– **Elbirona** (*Elbira*): *Eluirona Vrdina*, *Eluirona Solla* (Artaxoa, 1366, *LPN*, 437).

– **Enekon** (*Eneko*). Zalantzazkoa da: *Amuna Enecon* (Adoain, c. 1033, Leire, 25). Hemen patronimikoa izan daiteke, *Enecons*-etik ateratako txistukaririk gabeko aldaera, adibidez.

– **Gartxon** (*Gartxo*): *Semen Garchon* (Hiriberri, Li., 1246, Lakarra, 376), *Domenga Garchon* (XIII. m., *GPrior.*, 104).

– **Garxion, Garsion, Gaxion, Gaixion** (**Garxia*, *Garsia*, *Gaxia*, *Garzio*, *Gaxio*): *Gassion de Centronico* (1174, Mont., 148), *Gassion de Orquoien* (Orkoien, 1192, Goñi, 400), *Garsion de Arceiz* (Garazi, 1208, Ost., 33), *Garsion* (1216, Iratxe, 286, 302. or.), *Garsion de Galar* (Galar aldea, XIII. m., *GPrior.*

105), *Garssion de Elequi* (Iru., 1230, Goñi, 566), *Martin Gaission* (Estellerria, 1248, DNLO, 9), *don Gaixion* (Zan., 1300, Jimeno, 1973: 252 eta DNLO, 109), *Gassion de Larte* (Bai., 1414, Goih., 1966: 102). Zierbidek (1995: 213) *Gassion* forma *García*-ren Biarnoko eratorritzat ematen du.

– **Garzon, Gazon** (*Garze, Garzeo, Garzo, Gazeo*): *Garcon de Zuaz* (1196, Leire, 358), *Johan Gazon* (Cárcar, 1330, LPN, 263), *Johan Garçon* (Azkoien, 1366, ibid., 622. or.).

– **Gasernauton** (*Gasernaut*): *Gassernauton d'Esscas* (Bai., 1383, Goih., 1966: 95).

– **Gatxon** (**Gatxo, Gartxo*. Cf. *Gatxot*, beherago): *Pero Gachon* (Iri-goien, 1982: 624).

– **Gilon** (*Gil*): *Gilon de Belonessa* (Erriberri, XIII-XIV. m., *Doc.Gasc.II*, 354).

– **Graxion** (*Graxi*): *Grassion* (Biarrizko etxe baten izena, Iglesias, 2000: 261).

– **Joanon, Juanon** (*Joan, Juan*): «*Mariton, Johanon y Johaniquin, hijos naturales de mosen Leonel*» (Iru., 1413, Castro, XXX, 889, 439. or.), *Juanon* (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 76. Or.), *Joanon Urricola* (*Joanot?*, Lar., 1551, At.p., 1, 85), *Joanon de Gascue* (Gaskue, 1552, At.p., 1, 82).

– **Juanison** (*Juanis*). Sorauengo 1726ko *Juanisonena* oikonimoaren oinarrian dago.

– **Lopellon** (**Lopello*; cf. *Lopillo*): *Lopellon* (Getze Galar, 1256, Iran-tzu, 237. or.), *Lopeyllon* (Arellano, 1330, LPN, 281).

– **Marion, Mariona** (*Maria*): *Mariona Garchot* (Artaxoa, 1330, LPN, 302); *Mari Ona* ere uler daiteke. Orpustanek *Marion* bildu du XIV. mendean Iparraldean (2000: 204).

– **Martinon** (*Martin, Martino*): *Martinon de Chubiagua* (Bai., 1354, Goih., 1966: 94), *Martinon d'Amessaga* (Ubaso, 1393, ibid., 292), *Martinon de Bertaline* (Biarritz, 1498, ibid., 20), *Martinon de Larrondo* (ibid., 23), «*Martinon de Barader, sr. de Machin*» (ibid.).

– **Menauton, Monauton, Manaton** (*Menaut, Menaut, Monaud, Monaut*): *Menauton dolhavy* (Maule, 1377, Zier., 1994: 225), *Monauton* (ibid., 227), *Monauton* (Izura, 1393, *Doc.Gasc.II*, 251), *Manaton de Santa Maria* (Bidarte, 1416, Goih., 1966: 25), *Menauton de Sabaros* (Bai., 1442, ibid., 107), *Menauton d'Araus* (1469, ibid., 89), *Menauton de mostos* («*de tierra de bascos*», Iru., 1599, Ih.p., 2).

– **Migelon** (*Migel*): *Mjguelon de Leyca* (Iru., 1514, Zier. & Ram., 1997: 28), *Miguelon de oscoz* (Eu., 1548, At.p., 1, 81).

– **Mikelon, Mikelun** (*Mikel, Mikele, Mikelo, Mikelao*): *Miquelon d'Uhalde* (Bai., 1462, Goih., 1966: 109), *Miquelun de armora* (Am., 1530, Eo.p., 1, 106). Dauzatek (1988 [1949]: 125) Normandia eta Pikardiako *Miquel* aldaeraren *Miquelon* hipokoristikoa aipatzen du; Iglesiasek (2000: 263) okzitaniar atzizkia duten izenen artean sartzen du BABeko *Miquelon*.

- **Milleton** (*Milet*): *Milheton* (Maule, 1377, Zier., 1994: 228).
- **Nabarron** (gi., *Nabar*): *Nauarron* (Iru., 1351, *CDSCernin*, 25).
- **Peidron** (*Peidro*): «*Peydron, fi de Mingo Abbat*» (Mendabia, 1361, Leroy, 13, 50. zkia.).
- **Peienauton** (*Peienaut*): *Pegenauton darrolhan* (Maule, 1377, Zier., 1994: 226).
- **Peiron, Peirona, Perona** (*Peire, Per(e, o)*): *dona Peirona* (1261, Ost., 188), *dona Peyrona* (1287, *DNLO*, 81), *Peyrona de Echeverce* (Donoztiri, 1350-53, *CPBN*, 26. or.), *Peyron* (Larزابale, 1350-53, *CPBN*, 45. or.), *Peyron* (Mon., 1350-1362, Goih., 1966: 148), *Peyron de Landarana* (1358, *ibid.*, 376), *Perona de Otañes* (XV. m., *LGS*, 109, 140), *Perona* (Del Valle, 1933: 177). Ikus *Peirot-en diodana*.
- **Pernauton, Perernauton** (*Pernaut, Per Arnaut*): *Per Arnauton* (Lan., 1401, Goih., 1966: 208), *Pernauton de Laxague* (Bai., 1458, *ibid.*, 103), *Pernauton de Larran* (Bai., 1462, *ibid.*, 101), «*Pernauton, sr de Le Brete*» (Biarritz, 1498, *ibid.*, 23).
- **Petrona** (*Petra*): *Petrona* (1188, Zier., 1970: 288).
- **Plazentzon** (**Plazenz*; cf. *Plazença* emazteki izena): *Plazençon* (Iru., 1351, *CDSCernin*, 25).
- **San(t)son** (*San(t)so*): *Pero Sanson* (Sorlada, 1350, *LPN*, 360). Ez dakit hemen izen biblikoarekin lotutako goitizena ez ote dugun.
- **Santuron** (*Santuru*): *Santuron d'Elorriaga* (Dur., 1512, *Hid. et al.*, 1989c, 169, 748. or.).
- **Santxon** (*Santxo*): *Sanchon Perez de Larramendy* (Azkoitia, 1413, *Aierbe*, 1993, 21, 43. or.).
- **Saubadon** (**Saubad, Saubat*): *Saubadon de Segure* (Bai., 1464, Goih., 1966: 107).
- **Semeron** (*Semero*): *Semeron de Olave* (Aramaio, 1499; Bazán & Martín, 1999: 20 = *Semero de Olabe*, *ibid.*, 17, 20. or.).
- **Txerun** (*Txeru*): *Cherun Bueno* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 257. or.).
- **Ugon** (*Ugo*): *Hugon Corneillon* (Erriberri, XIII-XIV. mend., *Doc. Gasc.II*, 354).
- **Xunon** (*Xuan, Xuane?*): «*Xunon, ferrero*» (Leintz Gatzaga, 1477, Zu., 1994, 13, 80. or.).

7.2.56. -onet (< -on + -et)

- **Arnautonet** (*Arnaut*): «*Arnautonet, deu faur d'Ortes*» (Orthezkoa bezaraz, Paue, 1408, *Doc.Gasc.II*, 307).
- **Gillonet** (*Gil(l)*): *Guillonet* (Suh., 1353, Goih., 1966: 163).
- **Marañonet** (*Maraño*): *Maraynonet* (Lerin, 1330, *LPN*, 270).

– **San(t)sonet, Santzonet, Santzanet** (*San(t)so, Santz, Santzo*): *Sançonet* (Tutera, 1215, Jim. & Jim., 118, 179. or.), *Sanssonet* (NB, 1266, Carrasco, 1999: 222), *Sançonet de Liçaraçu* (Leizpartze-Lizaratzu, 1353, Goih., 1966: 189), *Sansonet de Licaracu* (1362, Ruiz, 1998, 412, 102. or.), *Sanconet de Laborda* (1364, Goih., 1966: 376), *Sançonet* (Gartzain, 1366, LPN, 533).

Ez dakit *Menjolet* izena **Menjonet*-en moduko batetik atera den, disimilazioz, edo **Menjo* + *l* + *-et* ikusi behar den. Lekukoak bat baino gehiago dira: *Menjolet de Bidart* (Bai., 1462, Goih., 1966: 93), *Menjolet d’Urruti* (Bai., 1462, ibid., 110), *Mengolet d’Amotz Hiriart* (Sen., 1472, ibid., 89), *Menjolet de Hari-tsague* (Bai., 1486, ibid., 97).

7.2.57. -oni

– **Peironi, Peroni** (*Pero, Peiro*): *Peyroni* (Uharte Garazi, 1378, Goih., 1966: 166), *Peroni de Haranart* (Dg., 1412-13, CPBN, 106. or.). Cf. *Joanikoni*.

7.2.58. -onin, -onina (< -on(i) + -in(a))

– **Peironin, Peronin, Peronina** (*Peiro, Per, Pere, Pero*): *Peronina* (Bai., 1297, Goih., 1966: 100), *Peronin* (Izura, 1350-53, CPBN, 42. or.), *Peyronin d’Irurlegui* (DG, 1381, Goih., 1966: 382), *Peyrounin* (BABen, Iglesias, 2000: 264). *Peiron, Perona*-tik abiatzen bagara *-in(a)* besterik ez da ikusi behar izenotan.

– **Petronina** (*Petro, Petra*): *Petronina* (Bai., 1297, Goih., 1966: 100).

7.2.59. -osoa (ez da garbi ikusten atzizkia den edo *Otsoa* «deitura»)

– **Joanosoa** (*Joan*). Oikonimo baten oinarrian dago: *Cassa de Joanosoaarena* (Aldatz, 1594, Le.p., 1).

– **Martiosoa** (*Marti*): *Martiosoa de arangoa* (Lekunberri, 1594, Le.p. 1).

7.2.60. –ot(e, a) (ikus *-te* atzizkia; bukaera *-o* duten izenen kasuan atzizkia *-t* edo *-te* dela ere pentsa daiteke)

Meyer-Lübke (1974 [1890-1906]: 596) gaztelaniako *-ote* frantsesetik hartutakoa dela erraten du, eta frogatzat *ue*-ren ordezkia *o*, eta *-o*-ren ordezkia *-e* izatea ematen du. Rohlfsek (1951: 512) latineko *-ottus*-etik atera den Pirinioetako *-ot, -óto* atzizkia *-txikigarria* hasieran *- biltzen* du eta zehazten adjektiboek itxekitzen zaienean esatera biguntzen duela. Benasquen ere aurkitzen dugu (*Ber-*

nadot, Minchot, Ramonot..., Saura, 1999-2000: 178); Alvar-ek Aragoiko *-ueto* (*-ote*) txikigarria jasotzen du (Hasselrot, 1957: 116).

Fénié & Féniéren arabera (1992: 84-85), «langue d'oc»-en eremuan ohikoak dira *-ot*, *-otte* bukaera duten antroponimoak: *Arnauchot, Bertranot, Charlot, Jacquot, Perricot...* Grosclaudek ere biltzen ditu *-ot*, *-ote*-dun hipokoristikoak hiztegian (1992: 32, 33, 34, 57): *Andrivot, Anérot, Bernabot, Bernadòt, Bernadotte - Bernadòta, Manotte...* Hasselroten iritzian (1957: 107) Gaskuña eta Biarno dira atzizki honen «le véritable Eldorado»; Irigoienek (1995b: 31-32) Erdi Aroan eskualde horretako Ossau ibarrean ageri diren batzuk ematen ditu: *Gassiot, Guilhamot, Johandot, Johanot, Monicot, Peyrot*, e.a. Iglesiasek (2000: 176, 263) *-òt*, *-òta* okzitaniar atzizkien artean sartzen ditu eta BABeko *Joannote, Joanòt* izenak aipatzen; autore honen arabera (ibid., 76) *-ote* edo *-ot* ez da aurkitzen diren zenbait *-ot*-ekin nahasi behar, hauetan *-t* analogiko eta mutua baitzen.

Mitxelenak dio (1969: 51) *-t(e)* amaiera duten hipokoristikoek euskarazko oinarriak izaten dituztela, eta *-et*, *-ot* dutenak, aldiz, «Ipar-ekialdeko etorkia duten erromantzeko eratorriak» direla. Ez dirudi, halere, hau denik *Enekot, Gartxot, Pelot*-en kasua, oinarria usaian euskarazkotzat jotzen baita; hauek, halere, beste interpretazio bat ere izan dezakete (*Eneko + -t, Gartxo + -t, Pelo + -t*). Irigoienek ere, *Semesot* aztertzean, *-ot(e)* bukaera erdararekiko analogiari leporatzen dio (1995: 20), baina nire irudiko atzizkia, *-iko*, *-on* eta beste bezala, aski guretua genuen.

Galegoz *-ote* bukaera dugu *Xoan*-en hipokoristikoa den *Xoanote* izenean (Ferro, 1998: 549); hizkuntza honetan, portugaleran gertatzen den moduan, atzizkia txikigarria izaten da hizkera arruntean, edo txikigarri-mespretxuzkoa (ikus, dena dela, Freixeiro, 1996: 107), ez handigarri-mespretxuzkoa. Frantzia ere, Paris aldean, Borgoñan eta Ekialdean, *-ot* aski hedaturik dago (Dauzat, 1988 [1949]: 113); hiriburuan ere ohikoak ziren *-ot*, *-ote*-dun hipokoristikoak Erdi Aroan (Michaelsson, 1939: 112): *Acelot (Aceline), Guillot (Guillome), Hellote (Helloys), Juliot (Julien), Marguerot (Marguerite)*... Hasselrotek (1957: 45) *-ottu* galiar-erromatar eremu osoan ibili zela erraten du, eta, Meyer-Lübkeri jarraikiz (1974 [1890-1906]: 508. atala, 598-599. or.), gehienbat gizon izenekin azaltzen dela, baina aitzinago zehazten du Euskal Herriko mugako Gaskuñan eta Biarnon femeninoaren alderako ezinikusi hori erabat edo ia erabat desagertu zela (ibid., 113-114). Autore beraren arabera (ibid., 104), *-ote* hispaniar-portugaldarra ezin da zuzenean lotu *-ottu*-rekin, bukaerako *-e* bokalak eta gaztelanian *o* irekia ez diptongatzeak atzizkia mailegatua dela (katalanetik segur aski) erakusten dutelako.

Gaztelaniaz handigarri-mespretxuzkoa ohi den *-ote*, *-ota* (*carota, culote, manota*, adibidez; cf. gure *lodikote, mozkote, zarkote...* Azkue, 1969-I

[1923-1933]: 195-196) euskaraz hipokoristikoa dela dakusagu, gehienxkoenetan *-ot* itxurapean: *Enekot*, *Gartxot(e)*, *Joanot*, *Laurentzot*, *Mitxelot* eta beste (24). *-Ot* berrekailua, bestalde, behin baino gehiagotan opatzen dugu izengoitiek (Fifot, *Txakillot*, *Txikot*, Salaberri, 1995: 155), seguru asko zuen balio adierazkorragatik. Spitzer-ek (Hasselrotek dakar, 1957: 112) gure atzizki honen karikatura-adiera edo gaitzespen-ñabardura aipatzen du: «Le suff. *-ot* n'est pas un simple diminutif, il est chargé de nuances péjoratives, augmentatives, caricaturales».

Hauek dira ditudan lekukoak:

– **Adamot** (*Adam*, *Adame*): *Adamot* (Dg., 1362, Goih., 1966: 337).

– **Amigot** (*Amigo*): *Amigot de Garro* (1249, Castro, XXX, 22, 21. or.), *Amigot de Garro* (Gerezieta, 1252, Goih., 1966: 30), *Sancho Amigot* (Urzainki, 1366, LPN, 478), «*Amigot de Çubulet señor de Alzuguren*» (Ezpeleta, 1587, Goih., 1966: 30). *Amigo* + *-t* ere interpreta daiteke; cf. *Lagun* izena (*Lagun de Laudrigui*, Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 100. or.). Olaben 1610ean (Ue.p., 42) eta Orikainen 1726an *Amigotena* oikonimoa zegoen.

– **Andreota**, **Andraota** (*Andrea*. Cf. *Andraon*): *Andreota* (Li., 1366, LPN, 610), *Andraota de Arriaga* (Lekeitio, 1503, Enr. & Hid. & Mar., 2005; moja zen), *Andraota de Çareca* (Lekeitio, 1510/1556, Enríquez et al., 1993, 3. or.), *Andraota de Soloaran*, *Andraota de Malax* (ibid., 19. or.), *Andraota de Acha* (ibid., 123. or.), *Andraota del Puerto* (ibid., 125. or.), *Andraota de Licona* (ibid., 145. or.), *Andraota de Leaegui*, *Andraotta* (sic) *de Asterrica* (ibid., 158. or.).

– **Angulot** (**Angulo*; cf. oraingo *Angulo* deitura espainol ezaguna): *Angulot de Sent Johan* (Dg., 1395, Goih., 1966: 337).

– **Antsote**, **Antxot**, **Antxote** (*Antso*, *Antxo*): *Anchot de Guessane* (Dg., 1364, Goih., 1966: 330), *Anchot d'Urdous* (Urdoze, 1396, ibid., 194), «*L'ostau d'Anchot, lo maestro*» (Eihalarre, 1412-13, CPBN, 107. or.), *Anchote de lanz* (Eritzegoiti, 1536, At.p., 1, 8.), *Ansote* (Irurtzun, 1576, HA.p., 4).

– **Aujerot** (*Aujer*; *Oier* izen bera da): *Augerot de Garro* (Gerezieta, 1379, Goih., 1966: 32), *Augerot de Uhart* (Oztibarre, 1393, Castro, XX, 272, 116. or. = *Ogerot de Uhart*, ibid., 338, 146. or.), *Augerot d'Uhart* (1399, Goih., 1966: 285), *Augerot de Mauleon* (1412, Castro, XXIX, 314, 169. or.), *Augerot de Seint Pierre* (Sen., 1437, 1441, Goih., 1966: 56), *Augerot de Luxe* (Bai., 1462, ibid., 102).

– **Aznarot** (*Aznar*): *Aznarot* (Ezkaroze, 1366, LPN, 475, Ustaize, ibid., 479).

(24) Rūke-Draviṇak dio (1960: 82) letonieraren zenbait dialektotan txikigarritzat hartzen diren atzizkiak beste dialekto batzuetan handigarriak direla. Latin hizkuntzetan *-on* atzizkia handigarria da batzuetan, eta txikigarria besteetan; bi adierak dituenik ere bada. Ikus atzizki honi eskainitako atala.

– **Bardot, Berdot.** Ez da oinarritzko izena agertzen; Grosclaude (1992: 55-56) honela mintzo da honetaz *Berd-* sarreran: «Nom individuel très usité au Moyen Âge. Origine inconnue: faut-il le rapporter à la racine germanique –*Berd* / –*Bert* qu'on trouve par ex. dans Albert, Robert, etc.? Ne semble pas avoir de rapport avec l'adj. *verd* (= vert) avec les dérivés duquel il peut se confondre. Ne se trouve jamais sous sa forme simple: on n'en connaît que des dérivés. Mais Berganton a montré que certaines formes de ce nom sont parfois prises, au Moyen Âge, comme des dérivés de Bernat». Iglesiasek (2000: 315) *Bardon* deitura biltzen du eta *Bardo* germaniar pertsona izenetik eratortzen; italieraz *Bardone* dela gehitzen du. Ikus, baita ere, Chapuyk zioena (1934: 15).

Lekukotasunak: *Bardot de Micave* (Gixune, 1340, Goih., 1966: 37), *Bardot d'Uhart* (Uharte Garazi, 1387, ibid., 166), *Berdot de Lasse* (Lasa, 1368, 1377, ibid., 186), *Berdot d'Agramont*, «*Berdot, seynor d'Anus*» (Dg., 1378, *Doc. Gasc.*, 94, 115. or.). Cf. Mauleko 1377ko *Berdolet* eta Ossau ibarreko *Berdolo*, *Berdot*, *Berdon*, *Berdolet*, *Berducon*, *Berducoo* (Irigoién, 1995b: 32) (25).

– **Bartolot, Bertolot, Bertolota** (*Bartolo*, *Bertol*, *Bertolo(meo)*): *Bertolot de Mendya* (Iru., 1350, Ur., 1952: 89), *Bartholot de Buendia* (Ribaforada, 1353, ibid., 1961: 158), «*Bertholot, fiyo de Bertholomeo el mercero*» (Iru., 1361, Leroy, 3, 10. zkia.), «*Bertolot, fi de Johan*» (Andion, 1330, LPN, 227), «*Bertolota, fiya de Gil Pardo*» (Berbintzana, ibid., 240. or.). Glez. Ollek (1971: 488) 1353ko *El Libro del monedage de Tudela* aztertzean *Bertholot*-en izaera hipokoristikoa ezarri du, izen horren bi agerraldietan aldamenen deitura azaltzen delako; hona dakargun 1361eko lekukotasunean, ordea, garbi samar ikusten da *Bertolot Bertolomeo*-ren hipokoristikoa zela.

– **Beraskot** (*Berasko*): *Berascot* (“Bielenabe”, Atharratze ustez, 1377, Zier., 1994: 209).

– **Blaskot** (*Blasko*): *Blascot* (Izaba, 1366, LPN, 477).

– **Denisot** (*Denis*): *Denisot de Ysla* (Tutera, 1361, Ruiz, 293, 326. or.), «*Denisot de Sant German, qui a present es venido de França*» (ibid., 296, 329. or.).

– **Diagot** (*Diago*): *Diagot* (Iru., 1366, LPN, 540); *Diago* + *-t* ere uler daiteke.

– **Durasot** (*Duras*): «*Durassot d'Aguerre, fiys de Michelot*» (Bai., 1466, Goih., 1966: 88).

– **Emerot** (*Semerot*-en aldaera?): *Emerot d'Eguirondo* (Dg., 1439, *Doc. Gasc. II*, 346).

– **Enekot** (*Eneko*): *Enechot* (1211, Iratxe, 256, 274. or.), *Ennecot* (Larraza, 1330, LPN, 236), *Enecot d'Imarcoain* (Iru., 1350, Ur., 1952: 92), *Enecot* (Suh., 1353, Goih., 1966: 163), *Enecot Carpentero* (Gurbizar, 1366, LPN, 468), «*Enecot, fiyo de Garcia Yeneguiz*» (Biotzari, ibid., 473. or.), *Enecot* (Gares, ibid.,

(25) Pirinioetako alderdi zabal batean ezaguna da ozen ondoko herskari ahoskabeen ahostuntzea; ikus Irigoien (1995b: 29-30).

552. or.), *Enecot* (Leizpartze-Lizaratzu, 1368, Goih., 1966: 189), *Enequot de Orbaycieta* (1413, Castro, XXX, 35, 23. or. Hau *Eneco de Orbaiceta* moduan ere ageri da), *Enecot de Urdaniz* (1414, ibid., XXXI, 476, 262. or.), *Enequot de Qualbategui* (Dg., 1422, *Doc.Gasc.II*, 329), *Enecot de Gurpide* (1423, Zier. & Ram., 2001, 32, 92. or.). Orpustanek (2000: 219) Joana Albretekoaren idazkari izan zen *Enecot de Sponde* edo *Ezponda* aipatzen du.

– **Estebanot** (*Esteban*): *Esteuanot d'Aylloz* (Li., 1299, *Sta.C.*, 4), *Esteuanot Domingo* (Viana, 1307, Zab., 1997, 189, 338. or.).

– **Estebot** (*Estebe*): *Stebot de Hirigoien* (Bai., 1483, Goih., 1966: 98). XVIII. mendean ere ageri da, BABen (Iglesias, 2000: 263); ikertzaile honek «petit Etienne» itzultzen du.

– **Gartxot, Gartxote** (*Gartxo*): *Garchot* (Suh., 1353, Goih., 1966: 163), *Garchot* (Hiriberri Garazi, 1354, ibid., 135), *Garchot Landa Arteco* (Sorauraen, 1366, LPN, 565), *Garchot de Behorlegui* (Behorlegi, 1378, Goih., 1966: 124), «*Garchot, seynor de Berhoete*» (Aih., 1412-13, CPBN, 91. or.), *Garchot de Artajona* (1413, Castro, XXX, 381, 187. or.; Erriberriko auzoa zen), *Garchote de ayzpun* (oikonimoa?, Urdotz, 1521, J.p., 5).

– **Garziot** (*Garzi, Garzia*): *Garciot de Lalane* (Izpura, 1353, Goih., 1966: 137), *Garçiot de Leach* (1360, Ruiz, 1997, 240), *Garciot de Naz* (1362, ibid., 1998, 437, 123. or.), *Garciot Ferrandiz de Leaz* (1362, ibid., 157. or. = *Garcia de Leach*, ibid., 462, 144. or. = *Garcia Ferrandiz de Leach*, ibid., 475, 154. or. = *Garçi Ferrandiz de Leach*, ibid., 1363, 879, 519. or.), *Garciot de Assança* (Bastida, 1371, Goih., 1966: 312), *Garciot d'Ariart* (NB, 1376, 361).

– **Gaxiot** (*Gaxia, Garsia*): *Guasiot de Baygorri* (Baigorri, 1358, Goih., 1966: 177), *Gassiot* (Izura, 1393, *Doc.Gasc.II*, 246; cf. *Arnaut Gassiot de Sagarra*, Dg., 1396, ibid., 281), *Arn Gaxiot de Larre* (Izpura, 1401, Goih., 1966: 138), *Arn Gaxiot de Lane*, *Arnt Gassiot de Lane* (ibid., 1404).

– **Gillemot, Gilemot, Gillemota** (*Gillem, Gilem, Gillema*): *Guilemot* (Iru., 1350, Ur., 1952: 93), *Guillemot d'Alday* (Bai., 1354, 1355, Goih., 1966: 88), *Guillemot de Lascayn* (1355, ibid., 376), *Guilhemot* (Maule, 1377, Zier., 1994: 226), *Guillemot d'Armentariz* (Arm., 1378, Goih., 1966: 204), *Guilhemota de Goybeneche* (Dg., 1393, ibid., 331), «*Guillemot, llamado Biscondea*» (1393, Castro, XX, 352, 151. or.), *Guillemot de Callaha* (1412, Castro, 1962, 8), *Guillemot d'Ochagaia* (Iru., 1423; Martínez, 1995: 77). *Guillemot*, Dauzatek dioenez (1988 [1949]: 120), Frantziako hegoaldeko *Guillem*-en gain eraikitako hipokoristiko usua da.

– **Gilot** (*Gil*): *Gilot* (Olexoa, 1212, Iratxe, 271, 288. or.).

– **Grazianota** (*Graziana*): «*Gratianote de Sorhoete femme de Diego d'Arze*» (Bai., 1457, 1482, Goih., 1966: 108).

– **Graziot**: *Graciot de Seaulx* (Zibitze, 1378, Goih., 1966: 217); autore honek beste lan batean (1986: 302) *Garzia*-tik eratoritzen du.

– **Jakmot** (*Jacme(s)*): *Jacmot de Chalar* (Biarritz, 1498, Goih., 1966: 21), *Jacmot de Larregui* (ibid., 22). Leku berean *Jacmoton* ere bazegoen 1568an (Iglesias, 2000: 193).

– **Jakot** (*Jac(mes)*): «*Jacmes d'Uhard aperat Jacot*» (Gixune, 1340, Goih., 1966: 38).

– **Jaumot** (*Jaume*): *Jaumot de Cornos* (Don., 1475, C. & C. & G., 1997, 68, 51. or.).

– **Jeanot** (*Jean*): *Jeannot* (Landart, 1978: 24).

– **Joanisot** (*Joanis*): *Joannisot* (BBA, XVIII. m.; Iglesias, 2000: 264).

– **Joanot, Juanot, Joanote** (*Joan, Juan*): *Juanot de Rementero* (Erre., 1406, C. & C. & G., 1991, 27), *Johanot de Bergare* (Uztaritze, 1428, *Doc. Gasc. II*, 335), *Johanot d'Espelete* (Ezpeleta, 1451, Goih., 1966: 31), *Joanot* (Zaldu., 1464, Po., 2001, 8, 355. or.), *Johanot de Belsunce* (Bai., 1482, Goih., 1966: 92), «*Johanot fijo de Johango Johantorena*» (Genbe, 1519, J.p.), «*Johanot de cirica fijo de martico*» (Ziritza, 1521, J.p., 5), «*Sanchot yerno de Johanico, Johanot fijo de Johango*» (Munarriz, *ibid.*), *Johanot de Iturrisurj* (Iru., 1534, Eo.p., 1, 54), *Johanot elicalde* (*Xohane elicalde*-ren semea, Eo., 1540, Eo.p., 1, 63), *Joanot Uxua de Garralda* (Muniain Artzibar, 1575, NAO, prozesuak, 212596), *Juanot de Yarça* (Ihabar, 1587, HA.p., 5), *Joannot Darmendaritz* (= *Jeanne Darmendaritz*, Biarritz, Iglesias, 2000: 276).

– **Laurentzot** (*Laurentz*): *Laurençot* (Zan., 1366, LPN, 484), *Laurençot d'Iturrioz* (Hondarribia, 1425, C. & C. & G., 1991, 33).

– **Magdalenota**: *Magdalenotte* (Iglesias, 2000: 263). Ikertzaile honek okzitaniarazko *Magdalenòta*-tik eratortzen du eta «petite Magdaleine» iraultzen frantsesera.

– **Makote**: *Macote* (Oñ., 1149, Zu., 1994, 1, 2. or.). Cf. *Markot*, beheitixego.

– **Manota** (*Alamana*): *Manota* (Izura, 1350). Grosclaudek (1992: 32) *Alaman* izenaren sailean sartzen du; Orpustanen arabera (2000: 208) **Alamanota*-tik atera da, hasierako bi silabak aferesiz galdu eta ondoan. Zernahi gisaz, *Menaut*, *Monaud* izena ere ezaguna da (ikus *Menauton*, *Monauton*, *Manaton* sarrera).

– **Markot** (*Marko*): *Marcot* (Miranda Arga, 1366, LPN, 620).

– **Martinot** (*Martin*): *Martinot d'Arreche* (Aintzila, 1368, Goih., 1966: 119). Dauzatek (1988 [1949]: 125) *Martin*-en Frantziako hipokoristikoen artean aipatzen du izen hau. Leten *Martinotena* etxea ageri da 1599tik 1631 arte gutxienez (Jimeno, 1990: 238) eta Lintzoainen 1726an.

– **Martiot, Martirot** (*Marti(n)*): «*Martirot de Stoago, fio de Pedro de Stoago*» (Don., 1436, La. & Le., 1995, 52, 91. or.), *Martiot de Yllarregui* (Erre., 1490, C. & C. & G., 1997, 79, 94. or.).

– **Matxinot, Matxinote** (*Matxin, Matxino*): *Machinot* (Leizpartze-Lizaratzu, 1378, Goih., 1966: 191), *Machinote Bastero* (Oiar.al., 1475, C. & C. & G., 1997, 62, 35. or.).

– **Matxiot** (*Matxi*): *Machiot de Coquerel, Machiot* (1369, Ruiz, 2004, 1985, 214. or.) = *Mahiot de Coquerel* (*ibid.*, 1986, 215. or., 2000, 233. or.).

– **Menautote** (*Menaut*): *Menautothe d'Arratcoyhe* (Zozueta, 1412-13, CPBN, 77. or.).

– **Menjote** (*Menjo*): *Menjote, Menjottes* (BAB, XVIII. m.; Iglesias, 2000: 263). Ikertzaille honek *Menjôt-etik* atera dela erraten du eta «petit Dominique» adiera duela.

– **Migelot, Migalot** (*Migel*): *Migalot* (Li., 1295, *Sta.C.*, 3), *Miguelot* (Glez. Ollé, 1971: 488), *Miguellot de Sant Johan* (Dg., 1378, Goih., 1966: 339).

– **Mikelot** (*Mikel, Mikele*): *Miquelot Anto* (Dg., 1350, 1354, Goih., 1966: 336).

– **Mitxelot, Mixelot** (*Mitxel, Mixel*): *Michelot d'Iturriaga, Michelot* (Eo., 1366, *LPN*, 532), *Michelot de Saut* (Zibitze, 1405, Goih., 1966: 217), *Michelot d'Esquipa* (Dg., 1428, *ibid.*, 349), *Michelot d'Aguerre* (Bai., 1433-1467, *ibid.*, 88), «*Michelot, fijo de garcia de cibiga*» (Baztan, Eo.p. 1, 112), *Michelot de aynoa* (Ainhoa, 1539, Eo.p., 1, 4). Dauzatek (1988 [1949]: 125) *Michel-en* Frantziako hipokoristikoen artean aipatzen du *Michelot*.

– **Mongillot** (cf. *Monguilhon*; Maule, 1377, Zier., 1994: 225): *Monguilhot* (*ibid.*, 227).

– **Monikot, Munikot** (*Moniko*; cf. *Monico Munio* XI. mendeko idazkuna, Az. & Gar., 1996, 138. or.): *Municot* (Izura, 1350-53, *CPBN*, 42. or.), «*Monicot et Johanicot de Saut*» (1354, Goih., 1966: 381), *Monicot de Cheberry* (Bai., 1362, *ibid.*, 94), *Monicot de Huguie* (Bai., 1373, 1376, *ibid.*, 98). Biarnoko Ossau ibarreko dokumentazioan *Monicot* ageri da, *Monicolo* eta *Monicon-en* aldamenean; Irigoien irudiko (1995b: 32) izen hauek *Monnio*, *Munnio*-rekin lotu beharrak dira.

– **Muxot, Musot** (*Moso, Moxo*. Cf. *Moisso Çauleco*, Erro, 1366, *LPN*, 469, *Moxo de Gracia*, Aribere, *ibid.*, 473, «*Martin Peres e Sancho, fijos de Suyto e Moxo*», Legazpiko ibarra, 1384, Aierbe, 1993, 7, 10. or.; *Moxo de Çulaga*, Oiar. al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 100. or.): *Mussot Gortayri* (Soroeta, 1412-13, *CPBN*, 110. or.). *Moso* Zaraitzuko deitura da egun.

– **Nabarrot** (*Nabar*): «*Nauarrot de Rostaing, escuier*» (1361, Ruiz, 1997, 257, 296. or. = «*Nauar de Rostayn, escuier*»; 1360, *ibid.*, 233, 269. or.).

– **Oierot** (*Oier*; ikus *Aujerot*): *Ogerot de Anssa* (Ahatsa, 1368, Goih., 1966: 116), *Ogerot de Garro* (Gerezieta, 1379, *ibid.*, 32), *Ogerot de Masparraute* (Martxueta?, 1401, *ibid.*, 287), *Ogerot de Echeverria* (1412, Castro, XXIX, 28, 27. or.), *Ogerot de Lauetz* (1413, *ibid.*, XXX, 94, 47. or.), *Ogerot de Ayça* (*ibid.*, 484, 238. or. = *Oger de Ayça*, *ibid.*, 491 = «*Oger, señor de Hayça*», *ibid.*, 517), *Ojerot graxitorená* (Irur., 1529, Eo.p., 1, 69), *Ojerot de muru* (Amatriain, 1529, Amatriaingo jauregia).

– **Pantxot** (*Pantxo*): *Panchot de munarriz* (Munarriz, 1521, J.p., 5), *Panchot de muez* (Estenotz, 1521, *ibid.*).

– **Peirot** (*Peir, Peiro*): *Peyrot de Echeverri* (Gamue, 1350-53, *CPBN*, 29. or.), *Peirot de Suescun* (Suh., 1350-1358, Goih., 1966: 164), «*Peyrot, seynor de Bitchico*» (Ibarrola, 1412-13, *CPBN*, 85. or.), *Peyrot d'Urrutie* (Bai., 1460, Goih., 1966: 110), *Peyrot de mendie* (Bai., 1469, *ibid.*, 102). Dauzatek (1988 [1949]: 126) *Pierre*-ren Frantziako hegoaldeko *Peire*, *Peyre* aldaeraren *Peyret*, *Peyron*, *Peyronnet*, *Peyrot*, *Peyrouton* hipokoristikoak biltzen ditu.

– **Pelegriot** (*Pelegrin*): *Pelegriot de Masperraute* (Martxueta?, 1451, Goih., 1966: 287).

– **Pelot** (*Pelo*): *Pelot de Luxe* (Luz., 1368-1374, Goih., 1966: 284), «*Pelot demorant Aguerre*» (Behaskane, 1412-13, CPBN, 76. or.), *Estebeny de Pelot* (Bidarte, 1755, Iglesias, 2000: 47). Lhandek (1926: 853) Zuberoako *peillot* dakar eta dio 'personne sans initiative' dela, *Peillo* 'Pierrot, dimin. de Pierre'-ren edo *peillo* 'nigaud', 'benêt'-en aldaera.

– **Perot** (*Per, Pere, Pero*): «*Perot Garcie, dit hundincho*» (sic; izenburuan «Urdincho» paratu dute; 1361, Ruiz, 1997, 264), *Perot de Sainte Grace* (Garazi, 1378, Goih., 1966: 173), *Perot de Vrybarry* (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 78. or.). Biurrunen *Perotena* etxea zegoen 1727an.

– **Perrot** (*Per, Pere, Pero*): *Perrot de Berguelay* (NB, 1352, Goih., 1966: 364), *Perrot de Sente Gracie* (Izura, 1365, *Doc.Gasc.*, 48, 81. or.), *Perrot de Lucxe* (= *Perot de Luxe*, 1369, Ruiz, 2004, 2033, 269. or. = *Pero Periz de Lucxa*, *ibid.*, 2035, 271. or.), *Perrot de Sainte Grace* (Jutsi, 1378, Goih., 1966: 226), *Perrot* (Dg., 1386, *ibid.*, 341). Zierbidek (1995: 213) *Pedro, Peire, Per, Pere* multzoa aipatzen du eta gero *Perrot* txikigarria dela gehitzen, zein aldaerarena zehaztu gabe, ordea.

– **Pierrot** (*Pierre*): *Pierrot* (Landart, 1978: 51, 81), *Pierrot Etchenique* (Kanbo, *He.*, 2004-1-29, 4), *Pierrot* (Sen., *He.*, 2004-XI-11, 4).

– **San(t)sot** (*Sanso, Santso*): *Sansot de Birust, Sansot d'Echayde* (Bai., 1462, Goih., 1966: 93, 94), *Sansot de Lesale* (Bai., 1499; *ibid.*, 103). Dauzatek (1988 [1949]: 126) *Samson, Sanson* izenaren hipokoristikotzat jotzen du *Sansot*. Euskal Herrian egiantz handiagokoa da *San(t)so*-tik atera dela pentsatzea, nire irudiko. Ikus ondoko atalñoa.

– **Santxot, Santxote** (*Santxo*): *Sanchot* (Iru., 1253, *GPrior.*, 348), *Sanchot* (Suh., 1353, Goih., 1966: 163), *Sanchot d'Arrecalde* (Dg., 1364, *Doc.Gasc.*, 39, 74. or.), *Sanchote d'Alçayaga* (Les., 1366, *LPN*, 567), *Sanchot* (Mon., 1350-1362, Goih., 1966: 148), *Sanchot de Ayanz* (1393, Castro, XX, 490, 210. or.), «*Sanchot, fils d'Auger de Sancto Petro*» (Sen., 1401, Goih., 1966: 53), *Sanchot d'Etcheverry d'Ugangué* (Uganga, 1412-13, CPBN, 102. or.), *Sanchote de Leanis* (Dur., 1426, Hid. et al., 1989, 1, 1. or.), *Sanchote de Escauriza* (Barakaldo, XV. m., LGS, 356, 387), *Sanchot de lanz* (Lantz, 1537, At.p., 1, 29).

Irigoienek (1995: 9) *Santxo* + *-te* zatitzen du eta dio Nafarroako XIV. mendeko *Sanchot de Beruet*-ek atzizki bera duela, baina «adaptado a la forma sufijal que circulaba en el mundo románico como *-ot*». Nire ustez ekonomikoagoa da pentsatzea atzizkia *-ot(e)* zela, ez *-te*, *Santxot* aldaera ikusirik, nahiz hau bukaerako *-e* erortzearen ondorena ere izan daitekeen, jakina.

– **San(t)zot** (*Santz, Santzo*): *Sançot* (1386, Goih., 1966: 391), *Sançot de Brisco* (Erriberri - Beskoitze, 1386, *Doc.Gasc.II*, 217).

– **Saubadote** (**Saubad, Saubat*): *Saubadote de Lehet* (Biarritz, 1498, Goih., 1966: 23).

– **Semenot** (*Semen, Semeno*): *Semenot* (Bebintzana, 1330, *LPN*, 240).

– **Semerot, Semerote, Xemerot** (*Semero, Xemero*): *Semerot* (Erriberri, 1264, Zier. & Ses., 1980: 190), *Semerot* (Dg., 1294, Goih., 1966: 323), *Xemerot d’Azpiroz* (Iru., 1366, LPN, 549), *Xemerot de Garro* (Gerezietza, 1378, Goih., 1966: 31), *Chemerot d’Echeverri* (sic) (Dg., 1423, *Doc.Gasc.II*, 331), *Semerote* (ikus *-te-ri* eskainitako atalñoa).

– **Txarlot** (*Txarles*): *Charlot de tardetz* (“Bielenabe”, Atharratze ustez, 1377, Zier., 1994: 210), «*Charlot de Beaumont, alferitz de Navarre*» (Dg., 1391, *Doc.Gasc.II*, 230 = «*Charles de Beaumont, alferitz de Navarre*», sic, Bai., 1394, *ibid.*, 253). Nafar oikonimian ere azaltzen da: *Charlot de arcoz* (etxea?, Arzotz, 1521, J.p., 5), *Charlotena* (Saigots, 1619, Au.p., 2, 70, 1639, UE., 40, Eugi, 1726-27 eta egun, Muru Asterain, 1727), *Charlotena* (1644), *Chalotena* (1677), *Txalotenea* (orain, Ibarra, 2002: 503). Dauzatek (1988 [1949]: 118-119) izen frantses eta okzitaniarren hipokoristikoak zerrendatzerakoan aipatzen du *Charlot*.

– **Ximaot** (*Ximon?*): *Ximaot Ordonio* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 200, 219. or.).

7.2.61. -otiko (< -ot + -iko)

– **Joanotiko** (*Joan*): *Johannotico de Huart* (Iruñea–Uharte, 1514, Zier. & Ram., 1997, 28), *Johannotico de ycurcu* (Muniain Gesalatz, 1521, J.p., 5), *Joanotico de Guizurdiaga* (Izardiaga, 1578, HA.p., 4), *Joanotico de Satrustegui* (Irurtzun, 1570, *ibid.*), *Joanotico de Senosiain* (Hiriberri Arakil, 1585, *ibid.*, 2).

7.2.62. -otin (< -ot(e) + -in)

– **Joanotin, Juanotin** (*Joan, Juan*): *Juanotyn de Yeroby* (Hondarribia, 1470, C. & C. & G., 1997, 54, 4. or.), *Juanotin de Yorobi* = *Johanotin* (Hondarribia, 1479, La. & Ta., 1993, 55, 208. or.).

– **Peirotin** (*Peir, Peire, Peiro*): *Peyrottin de Hiriart* (Angelu, 1395, Goih., 1966: 12. Izenaren erdian dagoen lehen <t> letraren aitzinean bada ongi irakurtzen ez den ikurra).

7.2.63. -oton (< -ot(e) + -on)

– **Peirotin** (*Peir, Peiro*): *Peyroton deu Cauterer* (Maule, 1377, Zier., 1994: 226), «*Peyroton, marescau d’Ostabat*» (Izura, 1393, *Doc.Gasc.II*, 246), *Peyroton d’Oucoz* (Dg., 1378, *Doc.Gasc.*, 100), *Peyroton de lehet* (Sara, 1396, Goih., 1966: 60), *Peirotin de Lucxa* (Lüküze, 1396, *ibid.*, 284), *Peyroton d’Alçurrin* (Bastida, 1412-13, CPBN, 93. or.), *Peyroton de Nassantz* (Bai., 1438, Goih., 1966: 103). Ikus *Peirot-en* diodana. Cf., gainera, *Peireton, Pereton*.

7.2.64. **-otxe(a)** (< **-ot(e)** + **-(t)xe(a)**)

– **Joanotxe(a)** (*Joan*): *Johanocxe de Erro* (sic, Erro, 1366, *LPN*, 666), *Johanotchea d'Irygoytz suson* (Ortzaize aldea, 1412-13, *CPBN*, 94. or.). Irigoienek (1995: 10) *Johan* + *no* + *-tche* interpretatzen du izen hau.

7.2.65. **-otxo** (< **-ot(e)** + **-txo** edo **-o** + **-txo**)

– **Juanotxo** (*Juan*): «*Juancho, el barbero*» (Oñ., 1504, Zu., 1999: 203), *Juancho de Ybarguren* (Deba, 1518-20, Fdez. & Mont. & He., 2007, 110, 514. or. = *Juangocho de Ybarguren*, ibid., 513. or.).

– **Martinotxo** (*Martin*): *Martinocho de Leburan* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.). Hau *Martino* + *-txo* ere uler daiteke.

7.2.66. **-s** (cf. **-x**)

– **Maris** (*Mari*). Saldiasko 1726ko *Marisena* oikonimoaren oinarrian dateke. Dena dela, *Maritx* eta *Marix* hipokoristikoak ere baziren.

– **Matxis** (*Matxi*): *Machis de Liçarraga* (Oiar.al., 1474, C. & C. & G., 1997, 59, 25. or.), *Machis d'Olays* (ibid., 62, 35. or.), *Machis d'Ardoys* (ibid., 1478, 69, 56. or.).

– **Perus** (*Peru*): *Perus* (Arra., 1476, Crespo et al., 1996-b, 232, 465. or.), *Perus de Durango* (gi., Ermua, 1511, Enríquez et al., 1997: 157), *Perus de Jauregui* (Arra., 1438, ibid., 1996, 115, 146. or.). *Perus* ere agertzen da: *Perus de Noca* (Arra., 1476, Crespo et al., 1996-b, 232, 470. or.).

– **Petrus**: *Petrus de Arteaga* (Arra., 1480, Crespo et al., 1996-b, 247, 511. or.).

7.2.67. **-ski** (< **-s** + **-ki**)

– **Mariski** (*Mari(a)*). Etxalargo *Marisquirena* (XVII-XX), *Marisquinegaraya* (XVI-XVII), *Marisquirenaberea* (XVIII) etxe izen historikoen eta egungo *Mariskireneko borda*-ren oinarrian dago (Ap. & Sal.).

– **Peruski, Peruske** (*Peru*): «*Perusque, criado del dicho Pedro*» (sic) (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 58. or.), *Perusqui de Mazquiaran* (Zeg., 1470, Aierbe, 2006, 231, 82. or.), «*Perusqui, çapatero*» (Bilbo, 1473-1475, ibid., 260. or.), *Perusqui de Larraul* (Andoain, 1475, Le. & Ta., 1996, 19, 66. or.), *Perusque de Urnieta* (Oiar.al., 1478, C. & C. & G., 1997, 69, 56. or.), *Perusque de Berastegui* (ibid., 71, 70. or. = *Perusqui de Berastegui*, ibid, 72, 73. or.), *Perusqui de Galarreta* (Egilatz, 1485, Aierbe, 1993, 39, 154. or.), *Perusque de Çuloeta*, *Perusque de Osynaga*, *Perusque*

Bueno, *Perusque Rodero*, *Perusque de Aguirre Goyria* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 250, 253, 258, 266 eta 267. or.), *Perusque de Anguioc̄ar* (Elgeta, 1493, Elortza, 2000, 2, 10. or.), «*Perusque de Lequeitio e Perusqui de Roxey e Perusqui de Maturana*» (Aramaio, 1499; Bazán & Martín, 1999: 34), «*Perusqui fijo de Jauncerucoa*» (Jaitz, 1519, J.p., 5), *Perusqui de Herquiaga* (Ispaster, 1520, Enríquez et al., 1992b, 267, 893. or.), *Perusqj de eztenoz* (Estenotz, 1521, J.p., 5), *Perusqj de elicaberria* (Ibero, 1521, ibid.), *Perusqui vazterrecoa* (Etxabarri Allin, 1545, Li.p., 2), *Perusqui de herbiti* (Erbiti, 1587, HA.p., 5), *Perusqui de arguiñarena* (Eu., 1609, Ih.p. 1).

– **Petruske** (*Petru*, *Petro*): *Petrusque de Aguirre* (Oñ., 1502, Zu., 1999: 70). Hau **Petruski*-ren tankerako batetik atera dateke, erdarak eragindako *-i > -e* irekitzearen ondorioz. Cf. *Peruski* (normalean) / *Peruske* (zenbait aldiz) edo, datua Oñatikoa baita, *Oñati* / *Oñate*.

Irigoienek (1995: 18) Donemiliagako *Beliski* biltzen du eta dio hau, segur aski, latineko *Belli(us)*-etik atera datekeela, atzizkia betiere *-ski* delarik. Diez Melconek (1957: 45) biltzen duen 955eko *Belisco* ere aipatzen du bizkaitar ikertzaileak.

7.2.68. **-skito** (< **-ski** + **-to**)

– **Peruskito** (*Peru*): *Perusquito de Xuarbe* (Eu., 1549, At.p., 1, 82 = *Perusquicho de Xuarbe*). Hau *Peruski* + *-to* ere uler daiteke, *Perusquicho* aldaera *Peruski* + *-txo* uler daitekeen era berean. Astitzen segur aski aitzineko *Peruskito-rena* batetik atera den *Perusquiterena* etxe izena azaltzen da 1726an.

7.2.69. **-skitxo** (< **-ski** + **-txo**)

– **Peruskitxo** (*Peru*): «*Perusquicho de Xuarbe pollero vezino de Xuarbe*» (Suarbe, 1547, At.p., 1, 72 = «*Perusquito de Xuarbe pollero*», Eu., 1551, At.p., 1, 77). Bi aldieron azpian menturaz *Peruskitto* dukegu.

7.2.70. **-sko**, **-xko** (< **-s**, **-(t)x** + **-ko**) (gizonena, baina ez beti), **-ska**, **-xka** (< **-s**, **-(t)x** + **-ka**) (emaztekiena)

Schuchardtek (1908: 67) *-ska*, *-xka*, *-sko*, *-xko* atzizki txikigarria aipatzen du eta erraten oinarrian batu diren beste bi atzizki txikigarri daudela: *-to* (*neskato*) > *-tto* > *-txo* lehenbizikoa, agian Akitaniako *Anderexo* pertsona izenean dagoena, eta *-ko* (*neskako* ‘kleines Mädchen’ hitzean dagoena) bigarrena, *-tx* *-k*-ren aitzinean *-x*- bilakatzen baita. Rohlfsek (1951: 524) etorki iluneko aragoierako *-usco* gaitzespeneko atzizkia aipatzen du (*fesco*, *tontusco*...), baina ez dakit gure honekin zerikusirik ba ote duen.

Tovar (1959: 74) indoeuroperako *-sko-* atzizkia konposatutzat harztearen aldeko ageri da; bigarren osagarria euskaraz ere azaltzen den *-ko* dateke (ikus sarrera hau), eta lehena kaukasierako ergatiboa, euskarako *-z* instrumentala eta indoeuroperako *-s* (*breuis* vs. *breue*), noizbait ergatibo hondarkia izan zatekeena. Mitxelenak (1969: 51) *-sko* «posible sufijo compuesto»-tzat jotzen du eta dio *oilasko* hitzean ageri den bera datekeela. Jarraian *Jaun* izenetik atera den *Iauskonea* toki izena aipatzen du, eratorpen hau txoil argi ikusten ez badu ere. Zernahi gisaz, garbi dago, jarraian ematen ditudan lekukoak ikusirik, ez dela zalantzan jartzen ahal atzizki hori egiazki izan zela.

Irigoierek (1995: 17) erraten du euskaraz, hizkera arruntean alegia, bai *-sko* eta bai *-xko* erabiltzen direla, bigarrena palatalizazio adierazkorrarekin. Gainera, *-ska* (*bideska*, *liburuska*) eta *-xka* formak aurrekoen aldaeratzat ematen ditu, euskaraz ez baitu genero gramatikalik. Hau, nire irudiko, eta ditudan testigantzak ikusirik, ezin da osoro ontzat hartu, *-a-z* bukatu izenak (bereziak, ez arruntak) femeninoak direlako. Hots, *-txe(a)*, *-xe(a)*, *-(t)xa*-ren kasuan ez bezala, hemen *-a* genero mozioaren adierazgailua dela irudi du.

Eslabiar hizkuntzetan *Isachko* (< *Isak*), *Marechko* (< *Marek*) bezalako izen ttipiak badira, baina hau, Beider-ek dioenez (2001: 76), eslabiar morfologiaren ezaugarri fonetikoa da, alegia, izenaren azken belarra busti egiten da atzizkia hartzean.

Hauek dira ditudan lekukotasunak:

– **Argisko** (**Argi?*): «*Alium agrum que comparavimus de Didaco Alia-mez, in limite de Argisco*» (959, Ubieto, 1976, 84, 98-99. or.).

– **Belasko**. Izen hau usaiakoa zen gure artean, nahiz eta aldaera euskaldunagoa ere bazuen: *Berasko*. Hau Luchairek argi erran zuen aspaldian (1881: 154-155). Gorostiagak (1958: 58), Irigoienek (1995: 7) eta bestek garbi ikusi zuten *Bela* antroponimoaren eratorria dela.

Mitxelenak (*AV*, 147) dio, Luchairek (1881: 155) nabarmendu zuen gisan, bokal arteko albokoa dardarkari bilakatu dela gure hizkuntzan, eta hau oztopoa dela *bele*-tik abiatzeko. Omaetxeberriak (1949: 158) *Vigila*-rekiko lotura hautsi nahi du, «ya que es inconcebible la adición del sufijo vasco *-sko* a un nombre propio visigótico» eta etorkitzat *bera* ‘biguna’-ren aurrekoa datekeen *bela* ematen du. Lan honetan ikus daitekeen bezala, euskal atzizkiak etorkiz kanpotarrak ziren izenei eranstea eguneroko gauza zen, gure artean. Beranduagoko beste artikulua batean (1957: 118) *Bela*-n bokal arteko *-l*-ren atxikitzea azentuagatik eta izena eremu ez euskaldunean gordetzeagatik gertatu dela dio. Autore honen arabera, *Belasco*-n gordetzea, berriz, ezin zaio azentuari leporatu, eremu ez euskaldunean erabiltzeari eta *Bela*-rekiko analogiari baizik.

Grosclaudek (1992: 60) Biarnoko *Blasco* «iberiar jatorrikoa» eta franko berria dela dio. Etorkia, autore honen ustean, euskarazko *beltz* izenondoan bilatu beharra da «batere dudarik gabe»; Pirinioez iparraldean erabili den aldaera *Brasquet* dela gehitzen du.

Orpustanek (2000: 203) *Blasco*-rendako proposatzen duen jatorria ez da onestekoa nire ustean. Ikertzaile honek dioenez, *Blasco Blas*-en «forme à diminutif basque» da, hots, *Blas* + *-ko*; honen arabera lehena latineko *Blasius*-etik atera da eta bigarrena *-ko* atzizki hipokoristikoa da. Iglesiasek (2000: 243) dioena ere («*Velasco* peut-être du basque *belasko*, ‘petit corbeau» ezin da ontzat hartu, ikusi bezala *Velasco*-ren euskarazko bete-beteko aldaera *Berasko* delako.

Mitxelenak biltzen duen aipuan ikusten den moduan (1984: 22), *Belasko* erdarazko *Belaco*-ren euskarazko baliokidea zen:

«E los que vinieron a poblar la tierra de Ayala, dellos eran vascongados e dellos latinados. E los vascongados llamaban a este don Vela, Jaun Velasco; e los latinados, don Belaco».

Honek, nolana ere, *Belasko*, euskaraz, hizkuntzaren arau fonologikoekin akortago den *Berasko*-en aldamenen bizi zela erran nahi du. Gorrotxategik (1984: 159-160) azaltzen du *Berasco*, *Berascoitz* izanik arrazoizkoa dela *bele*, *bela*, *belatz*-endako **L* gogorra zukeen etimoa proposatzea. Zernahi gisaz, ez du baztertzten *Velasco*, *Belasco* eta euskarazko *Berasco* zuzen-zuzena akitanierako *Belexco*-tik atera zelako ustekaria. Nire iritzian, berriz, *Belasko* ongi dokumentaturik dagoen *Vela*-tik atera da, eta hau *Veila*, *Vigila* bisigodotik (ikus Salaberri, 2003: 158-159). Euskarazko *Berasko*, bestalde, aipatutako *Belasko*-tik atera zatekeen, bokal arteko albokoaren dardarkaritze ezagunaren ondorioz.

– **Bernardeska** (*Bernard(a)*): *Bernardesca* (1347, Orp., 1999: 133).

– **Erlandexka** (*Erlande*): *Errelandeyxca* (Baigorri, 1347, Orp., 1999: 133). Ikertzaile berak, Orpustanek, beste lan batean (2000: 207) *Rolandine* itzultzen du. Goihenetzek, berriz, *Erlande* edo *Errande Arnaldus*-etik erartortzen du. Ikus *Berradeko*, *Errandeko*-z mintzatzean erran dudana.

– **Enesko**: *Peru Pastor Enesquo* (Artaxoa, 1366, *LPN*, 438). Irigoienek (1983: 23) *Enesquo*-n *-sko* atzizkia dagoela dio (oinarria *ene* dateke, *Eneko*-n bezala).

– **Fortanesko** (*Fortaner*): *Fortanesco* («Bielenabe», Atharratze ustez, 1377, Zier., 1994: 210).

– **Gillemeska**, **Gilemeska** (*Gillema*): *Guillemesca Sant Johan* (Dg., 1350, Goih., 1966: 336), *Guilemesca de Sant Johan* (ibid.).

– **Marijoanexko**, **Marixoanexko** (*Mari* + *Joane*, *Mari* + *Xoane*): *Mary Xoanexco* (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 29. or.), «*Mari Joanexco, texedora*» (1470, ibid., 130. or.).

– **Marixko**, **Marisko** (*Mari*): *Marixco de aldeco* (Ziga, 1539, Eo.p., 1, 89-2). Erratzun *Mariscorena* etxea azaltzen da 1726an eta Iruritan hurrengo urtean; *Marisco* deitura da Iparraldean: «*Aña eta Graxi Marisco*» (Bi., *He.*, 2004-XI-25, 5).

– **Martinoko** (*Martino*): *Martinochsco* (Biarritz, 1498; Goiehenetxe, 1966: 25). Iglesiasek (2000: 265) –*chsco* bukaerak euskarazko –*sco* irudikatzen duela dio, baina nire ustez egiantz handiagokoa da, kasu honetan, –*sco* dagoela pentsatzea.

– **Martisko, Martixko** (*Marti*-tik; *Martixa*-tik ere abia gintezke, apika. Honela izatekotz atzizkia –*ko* hutsa dela pentsatu behar genuke. Kontuan har *Martixis* ere bazela, eta aztergai dugun oinarrian **Martis* + –*ko* ere egon daitekeela. Cf. *Perus / Peruste*): *Martisco de Ardos* (Oiar.al., 1475, C. & C. & G., 1997, 62, 35. or.), *Martisco de Arcos*, *Martisco de Asme* (Oiar.al., 1490, ibid., 81, 99. or.), *Martisco de Villaviciosa* (Pasaia, 1556, Elortegi, 1992: 45), *Martixco* (Zier., 1970: 365).

– **Pedroxko** (*Pedro*). *Pedroxko* Gerendiain Erroibarko etxea da (Ibarra, 2002: 499, 2003: 145).

– **Perisko, Perixko, Periska** (*Peri*): «*Perisco el peillitero*» (Eo., 1366, LPN, 532), «*Peryxco, cosdurerera*» (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 46. or.), «*Peryxco, su conpannera*», *Peryxco de Vermeo* (em., irudi duenez; Bilbo, 1464, ibid., 104. or.), «*Perixco, hija de Mari Juan de la Calle*» (Mark., 1500, Enríquez, 1989, 32), *Perisca de Çaballagua* (Mutriku, 1504, Fdez. & Mont. & He., 2007, 57, 118. or.), *Perisco de Lyquinano* (Arra., 1515, Le. & G., 1998: 163). Cf. *Peruski*.

– **Perosko** (*Pero*). *Peroscorena* etxe izenaren oinarrian da (Egozkue, 1726, Elizondo, 1727 eta 1820, Ba.h., 1, 92. zkia., 31. or.).

– **Perusko** (*Peru*): *Perusco de Lecomberri* (Elgoibar, 1452, Aierbe & Etxezarraga, 1999: 41), *Perusco Larreco* (Zaldu., 1465, Po., 2001, 9, 365. or.), *Perusco Andia* (Agurain?, 1522, ibid., 45, 304. or.). Deban 1483an *Peruscoisteguieta* toponimoa ageri da (Bar. & Her., 2006, 180, 197. or.) eta Ostitzen 1726an *Peroscorena* oikonimoa.

– **Petrisko, Petriska, Betriska** (*Petri, Betri*): *Petrisca, Betrisca* (Mon., 1350-1362, Goih., 1966: 148), *Petrisca, Betrisca* (Larزابale, 1350, ibid., 228. or.), *Petrisko de Legarre* (Les., 1366, LPN, 567).

– **Petruska, Petrukska** (**Petru*; cf. *Petro*): *Petrusca de Larçabal* (Larزابale, 1350, Goih., 1966: 228), *Petruxca Pastor* (Zan., 1366, LPN, 484).

Durangoko dokumentazioan «*Pero Ruys de Euba, carnesçero, e Peurraçco, su fijo*» (Durango, 1443, Hid. et al., 1989, 8, 36. or.) = «*Pero Roys de Euba, carneçero, e Perurtyçco, su fijo*» (ibid., 10, 41. or.) ageri dira. *Peru*-ren eratorria dela garbi ikusten bada ere (aita *Pero* da, gainera), ez dakit xuxen zein aldaera den hor dagoena.

– **Sabasko** (*Saubat, Sabat, Xabat?*): *Sabasco de Ausmendi* (Don., 1478, C. & C. & G., 1997, 70, 65. or.).

7.2.71. -skot (< -s, -(t)x + -ko + -ot / -t)

– **Sabaskot** (*Saubat, Sabat, Xabat? Sabasko* eta *Sabastot* ere badira): *Sabascot de Babaça* (Don., 1475, C. & C. & G., 1997, 68, 51. or. = *Sabastot de Babaeta?*, ibid., 70, 65. or.).

7.2.72. **-so, -xo (-xu inoiz, latinez idatzi agirietan)**

Hau Akitaniako inskripzioetan azaltzen den *-xo* edo *-xso* atzizkiarekin aldera daiteke, *Anderexo*, *Anderexso* (nom.), *Bonxsoni* (dat.), *Ombexonis* (gen.), *Sembexonis* (gen.), *Sembexson(is)* (gen.), *Senixsonis* (gen.) eta abarretan dugunarekin alegia (Gorr., 1984: 131-132, 175). *-Xo*, *-xso* hori *-se(n)*-ekin aldizkatzen da, oinarri berari eratxikirik ageri baitira biok (*-se* atzizkia ere bada aipatu idazkuntan, ibid., 126, 127, 129).

Schuchardtek (1908: 37) Akitaniako *Narhonsus* izena ‘Narbonner’ itzultzen du eta erraten akitanierako *-so*, *-xo* atzizkia *-co* lekuzko berrekailuarekin identifikatu beharra dagoela. Alegia, *Narhonsus* hori ‘Narbonakoa’ litzateke austriar hizkuntzalariaren arabera. Aitzinago, hala ere, *Anderexo* izenean beharbada *-to* > *-tto* > *-txo* atzizkia dagoela azaltzen du (ibid., 67).

Mitxelena (1954: 443), Akitaniako *-xo*, *-xso* atzizkiak euskarazko *-txo*-rekin aldera daitezkeela erran ondoan, Erdi Aroko antroponimoetan txistukaridun bukaera bat baino gehiago daudela dio, eta ezin dela hauen ebakera osotara zehaztu:

«*-xo*, *xso* puede compararse a vasc. *-txo*: el aquit. *Anderexo* sería así igual a vasc. mod. *Andretxo* “señorita, mujercita”. En antropónimos medievales hay más de una terminación en silbante, cuya pronunciación exacta no se puede precisar».

Geroagoko lan batean (1969: 51) *Semenso* aipatzen du erreteriarrek eta gehitzen *ilhobaso* ‘iloba, biloba’ hitzarekin erka daitekeela; espresuki erraten ez badu ere, *-so*-n pentsatzen ari zela ondorioztatu beharra da. Honek ez du erran nahi, hala ere, Mitxelenarendako *-so* eta *-xo* atzizki bera zirela. Akitaniako *-se(n)* atzizkiak mintzatzean (1954: 416) *Hautense* eta *Hautensoni* alderatzen ditu, eta dio beharbada *-so(n)* atzizkia *-xo(n)*-en aldaera datekeela, *-n* ondoan. Irigoienek (1995: 20), egungo euskara mintzagai hartuz, Iparraldean *aitaso* ‘aitona’ eta *amaso* ‘amona’ erabiltzen direla dio, eta *aitaxo* eta *amaxo* aldaera adierazkorak dituztela.

Lafonek (1965: 82) *Larrasoni* jainko izenaren osagaiak *larre*, *larra* ‘larrea’ eta *-so* erator-atzizkia direla erraten du, eta osotasuna Okzitaniako Tolosako inskripzio bateko *Siluanno deo*-rekin erka daitekeela. Beste izen batzuetan *-xs*, *-x* osagaia dakusa, *Bonxsus*, *Bonxus*, *Berhaxsis*-en erraterako (1966: 272). Gorrotxategik zehazten duen bezala (1984: 131), *-x(s)o* gizon, emakume nahiz jainko izenak sortzeko erabili zen. Autore honek berak dio gaur egun (Caro Baroja, Lafon, Mitxelena), euskarazko *-txo* (edo *-tto*?) atzizki txikigarriarekin aldera daitekeela pentsatzen dela (ibid., 131-132, 175). Bestalde, ez du txoil gar-

bi ikusten (ibid., 131, 162) *Beltesonis*, *Harausoni*, *Harousoni* eta *Larrasoni*-n ageri den *-soni*, *-sonis* atzizkia *-x(s)o*, *-x(s)o-n-is*-ekin erlazionatu beharra denetz. Lan berean (167, 170, 176-177), Lafonen oinatzetan antza, *-x(s)-* atzizki txistukariduna ere aipatzen du, zein *Bihoxus* (nom.; cf. *Bibotarris*, gen., eta *Bibotus*, nom.), *Hannaxus* (nom.; cf. *Hannabi*, gen., *Hannas*, nom.), *Lohixsi* (gen.; cf. *Lohitton*, dat.), *Narhonsus* (nom.; cf. *Narhun-ges-i*, gen., Lergan) izenetan ere agertzen baitateke. Fonemaren gauzatzea dela eta, badirudi, euskaraz agitzen den bezala, neutralizazioa burutzen zela ozen ondoan, txistukaria igurzkaria zelarik albokoen eta dardarkarien ondoan, eta afrikaria sudurkarien gibelean.

Lekukotasunak:

– **Altaruxu** (**Altaru*): *Altaruxu* (Art., 1111, 55). Cf. *Enec Altaruz* (ibid., 1104, 31).

– **Anaso, Anaxo** (*Ana?*, *Hanna?*, *Hanno*, *Anno?*): *Annasso presbiter* (Val., 913, PS, 9, 27. or.), *Annasso* (ibid., 929, 12, 31. or.). Caro Barojak (1945: 166) Akitanian ageri diren *Hanna*, *Hannac*, *Hannas* izenaren txikigarritzat hartzen du *Annasso*, eta dio izen horiek *Janariz* nafar toponimoaren oinarrian dardela. Gorrotxategik (1984: 215-218) Valpuestako 903ko *Annaso* ere aipatzen du, baina nik ez dut <s> bakarra duen lekukotasunik aurkitu kartulario horretan, 1911ko *Analso* ez bada. Hau, ordea, ez dator bat Eibarkoak aipatzen duen izenaren datarekin, eta, gainera, nik inon kausitu ez dudana *Anal*-en moduko oinarria duke, ez *Anna*-. Atzizkia dela eta, ikus ikertzaile berak dioena, *-za*, *-zo*, *-zu* atzizkiari eskainitako atalñoan. Nolanahi ere, *Anako*, *Anato* eta *Anatxo* hipokoristikoak femeninoak dira, eta *Annasso*, berriz, maskulinoa. Bestalde, ez dakit Akitaniako *Hanna*-dun izenak emaztekienak, gizonkienak ala bienak diren.

– **Ardixo**. Irigoienek (1983: 46) biltzen du (*domnus Ardixo de Menaza*, Oñako dokumentazioan) eta dio oinarrian *ardi* animalia izena dagoela.

– **Argiso, Argixo**: *Argisso* (Val., 875, PS, 6, 22. or.). Mitxelenak dio (*AV*, 261) Cardenako *Argisso*-ren oinarrian *argi* egonen dela, *-g-* hori belar ahostuna bada; Irigoienek (1983: 42-43, 1995: 47) *argi* dakusa oinarritzat eta *-so* atzizkitzat, baina, dakidala, ez du honen adiera zein den azaltzen (cf. *Garbiso*). Lafonek (1965: 86) Enséruneko inskripzioko *argi* edo *arci* izena aipatzen du, eta dio euskarako *argi* dakarrela gogora. Díez Melcónek (1957: 122) *Arguiso* euskal izenean *argi* oinarria eta *-zu* (*-zo*) ugaritasunezko atzizkia dakuski (*Argitsu* ‘(hombre) preclaro’), Azkueri jarraikiz.

– **Belso, Beltso, Beltxo**: *Belso* (1217, Iratxe, 292, 309 or.), *Belcho de Auarçuça* (Abartzuza, XIII. m., Irantzu, 262. or.), «*don Belcho, broter*» (Li., 1327, *Sta.C.*, 19), «*fijos de Pero Sanchiz del Era de Belso*» (sic) (Deikaztelu, 1350, *LPN*, 327), *Velche de Espeleta* (XV. m., LGS, 168). *Beltxo Beltz* + *-txo*-tik ere erator liteke, apika; Mitxelenak (1969: 52) *Belso*, *Beltxo*-ren bukaerako *-o* hori genero mozioarena dela uste du, alegia, *Apalo* eta *Zailo*-n dugun bera dela. Irigoien (1981: 388-389) ez dago ados errenteriarrek dioenarekin, alegia, *Velcho*, *Belso*,

Apalo eta *Zailo*-n (erdarazko) genero mozioa duen *beltz*, *apal* eta *zail*-en eratorriak ikustearekin, berak holakoetan, Aulestiko *umio*-n gertatzen den moduan, gradu hurbileko mugatzailea ikusi nahiago baitu.

Gure irudiz bi hizkuntzalariek dute arrazoi, alde batetik *-o*-dun aldaera horietako zenbait leku erabat euskaldunetako dokumentazioan agertzen direlako, eta, bestetik, Irigoienek aipatzen dituenetako batzuk Azagra, Azkoien eta Erriberrikoak direlako, eremu guztiz erdaldunekoak edo mugakoak. Ezin dut ahaztu, jakina, uxuetarrok berok, erdaraz, *ujuetarra* erraten diegula herriko emakumei, baina *ujuetarro* gizoni. Irigoienek, 1981eko lanean *Belcho*, *Belso* izenaz ari delarik, erraten du latineko *Bellus*-en bikia den *Belli(us)*-etik ateratako *Bel(e)* / *Beli*-rekin erlazonaturik dagokeela, hots, izen hau bera datekeela, atzizkiz. Berrekailua desberdina da oinarri bereko *Beliche* edo *Belische*-n (1062) eta *Melchi*-n (*Sancho Melchi*, Artaxoa, 1119-1137, zein 1136ko *Sancho Melchiz*-ekin eta 1136-1150eko eta 1157ko *Sancio Meleiz*-ekin identifikatu behar baita, bizkaitar euskaltzainaren arabera); erromatarren garaiko *Belsus* ere aipatzen du (*Belsus f(ecit)*, *CIL* XIII). 1994ko lanean (200, 236-237), berriz, *Belcho*, *Uelso* izena *Belça*, *Belcha*-rekin lotzen du, *beltz*-en oinarritu izenarekin alegia, eta *Melcho* diptongatze erromanikoa izan duten *Mielco* eta *Mielgo*-rekin sailkatzen: «Bai *Mielco*, eta bai *Mielgo* formek *-e-* > *-ie-* dipthongazio romanikoa dute, eta bigarrenak, gainera, oklusivo gorra *-l*-ren ondoan ozendurik. Beste alde batetik *Melcho*-k txistukari busti-palatala duela dirudi, hypokoristikoki bihurturik, lehen momentuan bederen». Ikus jatorri ñabartasun honetaz, *-txi* atzizkiari eskainitako atalñoan diodana. Aranon *Belso* oikonimoa ageri da 1726an, *Béltso* ebakia egun; herri honetako Suro auzoan *Béltso*ko *bórda* deriztan etxea ere bada.

– **Domixo** (cf. *Domix* emakume izena). Zalantzakoa da; menturaz Olatz Galarko 1727ko *Domissorena* etxe izenean ageri dateke. Hau *Domejarena* (1654, 1669), *Domejorena* (1658), *Domenjarena* (1651), *Domicherenecoa*, *Domichorena*, *Domiserenecoa* (1677) gisa ere azaltzen da (Jimeno, 1987: 322-323)

– **Eneguxo** (**Enegu?*): *Enneguxo* (ikus Irigoien, 1983: 25; Orpustanek ere aipatzen du, eta *Eneko*-ren txikigarri hipokoristikotzat jotzen, 1999: 132).

– **Enexo**. Irigoienek (1983: 22) uste du Donemiliagako dokumentazioko «*Enexoris Arabi scripsit*» delakoan ageri den *Enexoris* horren oinarrian *Enexo* dagoela eta *-xo* atzizkia *-txo*-ren aldaera dela. Ikertzaile beraren arabera, Erdi Aroko kartularioetan azaltzen den *Enecho*-ren azpian *Enetxo* dagoke, ez beti *Eneko*.

– **Garbiso, Garbixo**: *Garbisso* (Apardoze, 991, Leire, 12), *Garbisso Acenariç de Caramesas* (Aragoi? 1048, Leire, 44). Cf. *Garbix*. Ez dakit, dena dela, jatorrian **Garbi* dagoen, ez baitugu honen lekukotasunik. Asturiasen ere azaltzen da *Garvixo* (bai eta *Garvisici* patronimikoa ere), XII. mendean (García Leal, 1988: 133). Mitxelenak (*AV*, 261) oinarrian *garbi* dagoela dio. Irigoien (1983: 42, 1995c: 47) akort da honekin; atzizkia *-so* dela uste du bizkaitar euskalariak, *Argiso*-k duen berbera.

– **Gariso, Galixo, Kaliso, Kalixo.** Ez dakit hipokoristikoa denetz, horretarako oinarriko izena zein den jakin behar nukeelako: *Garcia Garisso* (1099-1122, Iratxe, 110), *Galisso Garceiz* = *Calisso Garceiz* (XI. m., Iratxe, 77), *Calisso Garceiz* (XI. m., Iratxe, 77). Cf. *Garisoain* herri izena. Akitaniako inskripzioetan hauen antza duten *Gerexo*, *Gerexso* ditugu (Gorr., 1984: 209).

– **Ilunso** (*Ilun*): *Juan de Ylunso* (Ermua, 1511, Enríquez et al., 1997, 160. or.), *Juan Ylunso de Arando* (ibid., 1514, 1997b, 150. or.). Hemen, zernahi dela, *Ilunso* toponimoa izan daiteke; cf. *Ilunsoain*, *Iluntsain* toki izenak (Salaberri, 2000: 130). Akitaniako idazkuntan, eta orobat hemendik kanpo (cf. Araba Iruñako *Illuna* antroponimoa, Albertos, 1984: 42 eta Narbonako *herculi Ilunno Andose*, Gorrotxategi, 2002: 88), euskarazko *ilun*-ekin lotu izan diren *ilun(n)*-en eratorriak kausitzen ditugu. Ikus *TAV* (1.1, 1.2) eta Gorrotxategi (1984: 228). Nolanahiko gisan, Mitxelenak berak (1954: 439), Gorrotxategik oroitarazten duenez (1984: 335), uste du Akitaniako *ilun(n)*-en eta euskarako *il(h)un*-en arteko erkaketa ez dela irudi duen bezain argia, euskal hitzak **illun* edo **iLun* behar baitu, hots, bokal artean *-r*-ra igaro ez den alboko gogorra. Zernahi gisaz, erraten du iberiar idazkeran *-ld-* zena, Ascoliko brontzeko *-ll-* bera, *l* zela autore klasikoetan, Espainiako latineko idazkuntan eta baita Akitanian ere, eta uste du euskarazko *il(h)un* : akitanierazko *ilun(n)*- (iberierazko *-ildun*, *-illun*) berdinketari ongi eutsi dakiokela. *Ilun*-en karietara, Gorrotxategik dio (1984: 365) Erdi Aroko euskal antroponimian ez duela kiderik, baina hau ez da guztiz hola: San Vicenten 1350ean ageri den *Johan de Yluna* (*LPN*, 348) nahasgarriaz landa, Arroizko data bereko *Pero Garçia Illuna* eta hamasei urte beranduagoko *Pero Yluna* ditugu (*LPN*, 327 eta 592).

– **Jaunso** (*Jaun*; cf. *Jaun Yruritaco*, Irur.?, 1157, Goñi, 289): *Jaunso* (Val., 956, PS, 32, 55. or.), *Jaunso de Calullano* (Ameskua aldean, c. 1108, Leire, 222). Mitxelenak (*AV*, 20) *Jaunso* eta *Jaunti* izenak *jaun* hitzarekin lotzen ditu; Irigoienek ere gauza bera egiten du (1995: 6-7. Ikus, orobat, 1995c: 47), eta, bidenabar, erdarazko *Senioret* (*Senior*-etik) eta *Donellus* (*Donnu*-tik) aipatzen ditu.

– **Juanso** (*Juan*). Aldazko 1726ko *Juansorena* oikonimoaren oinarrian dagoke.

– **Mariso, Marixo** (*Mari(a)*). Allin 1726an *Marissonea* oikonimoa ageri da.

– **Migel(t)so** (*Migel*). Subitzako *Miguelsorena*-n azaltzen da, 1727an.

– **Nunuso, Nonuso** (*Nunu*; cf. *Nunuto*): «*Nonnusso testis*» (Val., 929, 939, PS, 12, 15), *Nunuso Narriatçeç de Lobinaç* (Elorrio, 1013, Hidalgo et al., 1988, 1). Mitxelenak erraten du (*TAV*, 2.1.6.) izen honek eratorria irudi duela, eta atzizkiak, menturaz txikigarri edo hipokoristikoa denak, Akitaniako inskripzioetako *-x(s)o* dakarrela gogora. J. Hubschmiden lan bat iruzkintzean, errenteriarrek *Nonnusso* antroponimoaren atzizkia *-us-* gabe *-s(s)o* dela zehazten du (1961: 359), *-u* oinarriaren zati baita; *Nuño*-rekin aldera daitekeela ere badio, eta agertu ere *Nuno*, *Nunno*, *Nuño* eta *Nuñu* ez ezik *Nunu* ere agertzen da dokumentazioan (Salaberri, 2003:

221). Ikus, orobat, Gorrotxategi (1984: 226). *Nunuso* eta *Unuso*-ren arteko erlazioa azaltzeko Gasteizko irakasleak dakarren Erdi Aroko *domna Narbona* (1195) / *dona Aruona* (1199) pareta (Garzia Larrageta, 1957, 77 eta 101) aipa daiteke. Kontuan har *Nunuto* eta *Munuto* antroponimoak ere dokumentaturik daudela (ikus sarrera hauek). *Nunuso*-k, bestalde, *Nunusoiz*, *Nunusoz* eta *Anusoiz* (cf. *Nanuteiz*, *Nunuto*-tik irudi duenez) patronimikoak sortu zituen (Salaberri, 2003: 222).

– **Semenso** (*Semen*): *Miguel Semenso* (Artaxoa, 1330, 1366, *LPN*, 299, 437).

– **Unuso**: *Nunuso*-ren aldaera dateke (Caro Baroja, 1945: 166). Gorrotxategi (1984: 226) dio *Unuso* Akitaniako *Hunnu*-rekin aldaera daitekeela, alderdi eta garai horretako *Hanna*- Valpuestako Erdi Aroko *Annaso*-rekin aldaera daitekeen bezala (nik *Annaso* eta *Analso* besterik ez dut aurkitu, erran bezala. Ikus goraxeago, ataltxo honetan berean).

– **Urdinso** (*Urdin*; cf. *Belso*, *Belxo*, *Beltxo*): *Orti Ordinsso* (Lakarra, 1974: 177), *Pedro de Hurdinso* (Hondarribia, 1299, La. & Ta., 1993, 7, 12. or.), *Pero Vrdinso* (Larragoa, 1350, *LPN*, 366).

7.2.73. -sot (< -so + -ot / -t)

– **Marisot** (*Mari*). Oieregiko 1615eko *Marisotena* oikonimoaren oinarrian bide dago. Ikus, hala ere, *Maritxot*, *-txot(e, a)* atzikiari eskaini ataltxoan.

– **Semesot** (*Seme*): *Semesot* (Iru., 1094. Irigoienek [1995: 20] aipatzen du). Bizkaitar euskaltzainak *Semeso*-tik atera dela dio eta bukaera erdal munduan ohikoa zen *-ot*-ekiko analogiari zor zaiola. Nik ez dut *Semeso* opatu, eta *-ot(e)* atzikia mundu erromanikoan zabal ibili den arren, gurean ere indarrean egon dela dudarik ez dago (ikus eskaintzen diodan ataltxoan).

7.2.74. -ste (< -s + -te)

– **Antsoste** (*Antso*): «*Ansoste e Juan d'Alça*» (Erre., 1406, C. & C. & G., 1991, 27).

– **Peroste**, **Peruste** (*Pero*, *Peru*): *Peruste del Molino* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 119. or.), *Peruste de Alzola* (Elgoibar, 1452, Aierbe & Etxezarraga, 1999: 36), *Peruste de Leyçarrola* (Deba, 1453, Her. & Bar., 2006, 46, 154. or.), *Peruste de Arestondo* (ibid., 1465, 60, 201. or.), *Peruste de Oyarbide* (Idiazabal, 1454, Po., 2001, 11, 18. or.), *Peruste de Bidasoro* (Oiar.al., 1475, C. & C. & G., 1997, 62, 35. or.; ibid., 69, 56. or.), *Peruste del mollino* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 5. or.), *Peruste de Arbelaiz* (Irun, NVP, 412). *Perus* ongi dokumentatua dagoenez gero, *Peruste* hau haren gain zuzenean moldatua dagoela ere kontu egin daiteke; alegia, berriz atzikki konposatu baten aitzinean gara, baina ez dakit bi osagaiak aldikideak direneta.

Leitzan 1726an *Perustena* izeneko etxea ageri da, eta Larraintzarren ondoko urtean *Perostenea*, Oskotzen *Perostena*. Hauen guztien azpian, dena dela, **Perost*, **Perust* dagoela dirudi, nahiz *Perosterena* > *Perosten(e)a*-ren moduko bilakaera guztiz ohikoa den.

7.2.75. **-sto** (< **-s** + **-to**). Cf. *-txto* eta *-xto*.

– **Maristo** (*Maria*): *Maristo de Astina* (Lizartza, 1450, Le. & Ta., 10, 20. or.).

– **Martisto** (*Marti*). Etsaingo *Martistonia* etxe izenean ageri da (NVP, 590).

– **Mikelesto** (*Mikele*). *Mikelestorena* deituran azaltzen da (NVP, 418); oikonimo gisa Etxalarren dugu: *Miquelestorena* XVII-XIX. mendeetan, *Miquelestonea*, *Mikelestonea* XX.ean, *Mikéstenià* egun (Ap. & Sal.).

– **Perosto** (*Pero*): *Perosto de Elso*, «*Perosto de Elso, alias Motela*» (Latasa edo Eltso, XVI. m., Urritzola, 2006: 119 = *Peroxto de Elso*, ibid., 123).

7.2.76. **-stot** (*-skot*-en aldaera dela dirudi)

– **Sabastot**: *Sabastot de Babaeta* (Don., 1478, C. & C. & G., 1997, 70, 65. or.).

7.2.77. **-t**. (Cf. *-te*)

– **Adant** (*Adan*): «*Adant, jurado por la villa de Lombier*» (1329, Zier. & Ram., 1998b, 130).

– **Baskot** (*Basko*). *Baskotarenea* etxe izenean aurkitu dut (Lekaroz, 1825, Ba.h., 1, 92 zkia., 61. org.). *Basko* + *-ot* ere uler daiteke, ordea.

– **Domingot, Mingot** (*Domingo*): *Domingot* (1249, Goih., 1966: 387), *Domingot Mercar* (Erronkari, 1366, LPN, 478), *Mingot de Fautes* (Don., 1478, C. & C. & G., 1997, 71, 70. or.), *Mingot de Ganderatz* (Bai., 1480, 1486, Goih., 1966: 96). Gerendiain Ultzamako *Domingotena* oikonimoan ere azaltzen da (1608, Ue.p., 42). *Domingo*, *Mingo* + *-ot* ere uler daiteke.

– **Graxit** (*Graxi*): *Graxit de Beycourt*, *Grachit de Beygorre* (Bai., 1561, Goih., 1966: 93) (26). Iglesiassek (2000: 261) Biarrizko *Grachit* oikonimoa bil-tzen du; Iruritan *Gragitena* oikonimoa (*Graxitena*, alegia) ageri da 1826an (Ba.h., 1, 92 zkia., 71).

(26) Ez dakit ziur, dena dela, emakume izenak diren.

- **Joant** (*Joan*): «*Johant, sobrino de Garçia Çauval*» (Villatuerta, 1330, LPN, 287).
- **Lobat** (*Lobo, Loba*): *Lobat* (1217, Jim. & Jim., 143, 205. or.), *Lobat d'Aransus* (Arhantsuse, 1378, Goih., 1966: 211).
- **Mikaut** (*Mikeo, Mikeu?*): «*Micaut, nuestro cozinero*» (1361, Ruiz, 1997, 284).
- **Nikolaut** (*Nikolau*): *Nicholaut de Esparza* (1413, Castro, XXX, 35, 23. or.). Hau *Nicholauet de Esparza* moduan ere ageri da.
- **Pettit** (*Petri, *Petti*). Ez dakit Ortzaizeko 1249ko *Pechit Maguiarte* eta Sarako 1451eko *Pechit, Piechit* izenetan (Goih., 1966: 59, 201) *Pettit*-en antzeko zerbait dugun ala *Petxit* irakurri behar den zuzen-zuzenean (cf. *Mattin / Matxin*).
- **Xement** (*Xemen*): *Chement* (Ip., Erdi Aroan, Goih., 1991: 303).

Irigoienek (1995b: 33) Ossau ibarrean ageri den *Nabart d'Aruri* antroponimoa *Narbate*-rekin lotzen du (*Nabart* 1212an) eta, Mitxelenari jarraikiz, *naba* + *arte*-ren bitartez azaltzen. Nire ustez ezin da erabat baztertu hemen *Nabar* antroponimoaren (*Guilhem Nabarr* ageri da Ossaun) hipokoristikoaren aitzinean gaudelako ideia.

7.2.78. –ta

Ez dakit atzizkia den ere; ondoko bi lekukotasun hauek bildu ditut:

- **Mauruta, Marota**: «*Et ego Mauruta et uxor mea Gutina*» (943, Ubieto, 1976, 32, 46. or.), *Marota de Lesaca* (Hondarribia, 1577, H.V.B., 1577). *Maruca* ere bazen: «*Petrico et Maruca, fillos de Ferrand Ortiz*» (Buñuel, 1353, Ur., 1961: 151).
- **Otsota** (*Otso(a)?, Otxeta* eta *Otxoeta* badira): *Osota* (Artaxoa, 1330, LPN, 300).

7.2.79. –te (ikus –ot(e))

Akitanian bukaeran sudurkaria duen eta gizon nahiz emakumeekin ibiltzen den –ten berrekailua ageri da: *Accaten, Andosten – Andostenni – Andostenno; Cisonten, Habanten(n), Hauteten, Sembetenn, Sembetennis* (Mitx., 1954: 417 eta Gorr., 1984: 122, 131, 140, 186, 257, 263, 368...). Eibarko ikertzaileak erraten du *Sembetten* antroponimoan –tten(n) aldaera dagoela, zein zehar kasuetan latineko deklinabide hondarkien aitzinean sudurkari bikoitzarekin agertzen baita (–tennis gen., –tenni dat.). Herskari bikoitzaren eta bakunaren arteko aldizkatze bera kausitzen dugu, Gorrotxategik dioenez, beste atzizki batzuetan

ere: *-co(n)* : *-cco(n)*, *-to(n)* : *-tto(n)*. Autore honek beronek (1984: 159), Gaskuñako *Beuste* < *Belste* toponimoa ukitzean, erraten du beste izen batzuetan ere isola edo bakartu daitekeen *-te* atzizkia ageri dela: *Beltesonis* (Gipuzkoan), *Baeserte* (jainko izena), *Idiatte* (jainko izena), *Torsteginno*.

Aurrerago (ibid., 162, 302), *Aherbelste* (*Aher-bels-te*) ere aipatzen du eta zehazten hemen atzizkia ezin dela *-ten(n)* izan. Uste du *-t* eta *-e* osagaiak dituen konposatua dela eta azaltzen du bokala zenbait jainko izenetan, itxuraz, datiboaren hondarkia dela. Iberieraz ere badira atzizki hau berau duten formak, *borste* (cf. Akitaniako *Bors-us*) adibidez. Aitzinago (ibid., 368) *-t-* atzizkia aipatzen du, *Baeser-te*, *Aherbels-te*, *Biho-t-us*, *Bor-t-oss-i* eta *Idiatte-n* dagokeena.

Schuchardtek dio (1909: 244) Akitaniako pertsona izenetan usaiakoa den *-ten* bukaera ageri dela eta beharbada atzizki txikigarria dela; Ascoliko brontzeko *Suise-tar-ten* izen iberikoarekin lotzen du austriar hizkuntzalariak. Caro Barojak (1981: 4) *Suisetarten* aipatzen du, eta Kristoren aurreko lehen mendeko iberiar izenak beharbada toki izenetan oinarriturik zeudela gaineratzen badu ere (alegia, toki izena + *-(t)ar* zeudela), ez du *-ten* atzizkia ukitzen.

Irigoienek (1995: 9) *-te*-dun izen bakan batzuk eman eta ondoan *Matxikote* ere aipatzen du, osagaiak *Matxiko* (< *Martiko*) eta *-te* direla erranez. Honekin batera euskarazko *lodikote* eta *mozkote* izenondoak ere ematen ditu, baina hemen atzizkia ez da *-te* hutsa; *Matxikote* izenean ere *-ko* + *-te* ez ezik *-ko* + *-ote* ere izan genitzake.

Bildu ditudan lekuko batzuetan, *-o* bukaera dutenetan, *-te* gabe *-ote* ere ikus daiteke, adibidez *Antxote-n*, *Otsote* edo *Otxote-n* eta *Semerote-n*, baina gainerakoetan garbi dago bukaera *-te* dela. Horregatik, uste dut Gorrotxategiren orain hogeitaz gehiago urteko hitzak (1984: 257-258) nabartu egin behar direla, dauden datuak ikusirik. Honela dio:

«Este suf. aquit. [*-ten(n)*] no tiene correspondencia conocida por el momento en vasco, ya que la equiparación hecha por Caro Baroja, *HEMP*, I, 3, 806 con vasco (*le*)en, (*azk*)en no es satisfactoria».

Ez dakit Erdi Aroko *-te* zein neurritan lot daitekeen Akitaniako *-ten(n)*-ekin, hark ez baitu honek duen bukaerako sudurkari gogorra, baina gorago ikusi bezala, *-te* ere bazen Akitanian, eta badaiteke honekin behintzat erlazioa izatea, edo atzizki bera izatea.

Egia erran, Gorrotxategik berak (1984: 304, 311) onartzen du *Aherbelste-n* eta *Baeserte-n*, bai eta *Alardosto-n* ere, *-t* atzizkia egon daitekeela (azkenak latineko *-o* datiboaren hondarkia duke). Hemendik, zenbaitetan segurik,

teonimoa deklinatu gabe dagoela onartzeko (hau jainko izenetan usu agitzen da; ikus lan bereko 300 eta 306. or.) eta atzizkia *-te* dela errateko egin behar den urratsa ez da oso handia.

Bestalde, Gasteizko irakasleak behin teonimoen bukaerako *-e* datiboaren hondarkitzat hartzen duen arren (305. or.), «jainko izenek duten ohiko ezaugarria» dela ere erraten du (*Andose, Arhe, Artabe* edo *Artehe, Baeserte, Baiase, Buaiigorixe, Garre, Herauscorritsehe, Labe*), «latineko moldeen aitzinean gibelka ari zen arkaismoa», gehiago zehaztu gabe, nahiz irudi duen hemen ere datiboaren bukaera zukeela gogoan, akitanierak ibiltzen zuen datiboaren *-ebe* edo *-e* bukaera (313, 331, 341 eta 373. or.). Cf. Nafarroako *Selatse* (Gorrotategiren irakurketa ematen dut, 1995b: 227, 2006: 132; Velazak [1992, 1993: 213, 2006: 60] *Stelaitse* irakurtzen du), Miñaoko *Helasse* eta beharbada Mendigorriko *Larrabi* edo *Larabe* teonimoak (Gorr., 1993b: 153). Iruxon hondarreko honen biziki irudia den *Larabe* teonimoa agertu da (Tobalino eta Jimeno, 1998), eta Izkuen bukaeratzat bokal bera duen *Itsacurinne* aurkitu dute (Jimeno, Tobalina eta Velaza, 1998).

Hauek dira bildu ditudan lekukotasunak:

– **Anderete** (*Andere*): *Anderete* (Olexua, XIII. m., Irantzu, 253. or.). *Andere, Andore, Andreo*-ren hipokoristikotzat ere har daiteke. Cf. *Andere* (Artaxoa, 1330, LPN, 294), «*Andre, fijo de Pero Franco*» (Berbintzana, ibid., 239. or.) eta *Andreuet*.

– **Antxote** (*Antxo*). Itsasoko *Anchoterena* oikonimoan agertu da (1543, Ih.p., 1). Hau *-ot(e)* atzizkia dutenen artean ere sar liteke.

– **Domikute** (*Domiku*): *Domicute d'Artiga* (1236, GPrior., 265), *Domicute* (Ekoién, Itzarbeibar, 1242, Iratxe, 368, 45. or.).

– **Gorrite**: *Xemeno Gorrite* (Irunberri, 1366, LPN, 501). *Gorriti* –Nafarroako herria da– izenaren aldaera ere izan zitekeen *-e*-dun forma, erdarak eragindako amaierako bokal itxien irekitzea ezaguna baita gurean (cf. *Peruski / Peruske*).

– **Itsuste, Itxuste** (*Itsusi*). Ikus Irigoien, 1995: 8 eta *Itxusko* sarreran diodana. Cf. *Sancio Aceariz de Ixussi*, Adoain, c. 1033, Leire, 25): *Ixuste de Ronzasuals* (c. 1119, Goñi, 135), *Ysuste Mulatero* (Eo., 1366, LPN, 532), *Ychuste d'Olaçabal* (1301, DNLO, 113), *Ychuste* (Sunbilla, 1366, LPN, 529), *Ychuste de Echeuetea* (ibid., 531), *Ychuste* (1358-1359, MD, 1971, 80), *Yssuste d'Arozpide*, (Arr., 1388, Ur., 1954: 268). Hauek *itsu, itxu* + *-ste* ere uler daitezke.

– **Itxute** (*itsu* izen arruntaren aldaera adierazgarria irudi duen *itxu* dukegu oinarrian; cf. *Itsuste, Itxuste*): *Ichute Echeuerri* (Bera aldean, 1366, LPN, 567).

– **Joanete** (*Joane*). Ikus *-et, -ete, -eta*-ri eskainitako atalean diodana, izen hau aipatzean.

– **Joante** (*Joan-etik*). *Joante de Mazquiarian* (Zeg., 1470, Aierbe, 2006, 231, 82. or.); Oskozko 1544ko *Johanterena*-n (HA.p., 2) eta Narbarteko 1727an *Yoanteneai*-n ere ageri da.

– **Matxite** (*Matxi*): *Machite* (Aranatz, 1366, LPN, 570), *Machite de Berastegui* (NB, 1368, Goih., 1966: 364), *Machite d'Iraçu* (Ziz., 1391, Roldán, 1991, 33, 82. or.), *Machite de Aguirregui* (Sak., 1407, Crespo et al., 1996, 65, 25. or.), *Machyte de Olalde* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 122. or.).

– **Otsote, Otxote** (*Otsoa, Otxo(a)*): *Otote de Laharria* (Oñ., 1149, Omaetxebarria, 1957: 116), *Ochote el Rodero* (Done., 1366, LPN, 528), *Ochote* (Latasa-Imotz, ibid., 560), *Ochote el maestro* (Les., ibid., 567), *Ochote de Beruet* (NB, 1381, Goih., 1966: 365), *Pedro Ochote de Otañes* (XV. m., LGS, 315), *Ochote d'Aguirre* (Erre., 1406, C. & C. & G., 1991, 27), *Ochote d'Arrieto* (Bai., 1432, La. & Ta., 1993, XXXI, 96. or.), *Ochote* (Araia, 1455, Po., 2001, 12, 33. or.), *Ochote de Lesaca* (Hondarribia, 1470, C. & C. & G., 1997, 53, 3. or.), *Ochote* (Bermeo – Mungia, 1490, Enr. & Hid. & Mar., 6, 25. or.), *Ochote* (Santurtzi, 1496, Enr. & Hid. & Mar., 2005, 71, 189. or.). Goihenetzek (1991: 302) *Ochote* biltzen du Iparraldean Erdi Aroan. *Otxo(a)* + *-ote* ere zatitu daiteke. Kremer-ek (1995-1996: 212) izena euskalduna dela uste du eta atzizkia «ingurune erroman-tzean» hartua dela.

– **Perute** (*Peru*): *Perute de Garcia Çuri* (Bera, 1366, LPN, 567).

– **Semerote** (*Semero*): *Semerote* (Olexua, XIII. m., Irantzu, 253. or.).

Hau *Semero* + *-ote* dela ere uler daiteke.

– **Sante, Txante** (cf. *San, Sanes* eta (*T*)*xanet, Xanete*): *Sante d'Echeuerria* (Lesaka aldean, 1366, LPN, 567), *Chante de Salduriz*, *Chante d'Ayduri* (Bera, ibid.). Ikus Irigoien (1994: 253).

– **Txerute** (*Txeru*): «*Pero Ruis de Laris, dicho "Cherute"*» (Mark., 1508, Enr. & Sar., 1989, 23, 26, 245, 335 or.), *Cherute* (ibid., 279. or.).

7.2.80. –ti (-di)

Mitxelenaren arabera (AV, 556) Erdi Aroko izen berezietan, erdal-euskal eremuan («en la zona castellano-vasca»), *-ti* aski amaiera ugaria da: *Dolquiti, Jaunti, Nequeti, Laquentize* (patronimikoa). Hauetakoa lehenak latin jatorrikoa irudi du errenteriarren arabera («cf. el cognomen tardío *Dulcitus*»). Díez Melcón (1957: 123) akort da Mitxelenarekin, eta erraten du mintzagai hartu dugun izena *Dulcis*-en eratorria izan daitekeela, alegia, *Dulcidius, Dolcitus*-etik atera zitekeela.

Irigoienek (1983: 15), *Albi* izenaz mintzatzean, erraten du XI. mendean Oviedon *-ti* atzizkia duen patronimikoa badela (*Fortunio Alvitiz*). Beste lan batzuetan (1990: 39-46, 1995: 7-8) azaltzen du antroponimoetan ageri den *-ti* hipokoristiko atzizkia euskaraz bizidunekin aurkitzen dugun bera dela, hots,

bakarti, *basati*, *gezurti* eta bestetan dagoen bera, eta ablatiboarekin identifikatzera iritsi dela ere gehitzen du, hondarki zaharragoa ordezkatuz. *Barruti*, *goiti*, *urruti* eta bestetan dugun atzizkiarekin ere identifikatzen du (1990: 42), bai eta ere *Gorriti*-n eta *Oñati*-n dugunarekin (ibid., 43). Ondoriotzat erraten du (ibid., 44) *-ti* latineko *-ti(us)*-ekin loturik egon daitekeela, zein *-tus*-en aldaera besterik ez baitzen: *Nicetus* (> *Niceto*) / *Niceti(us)* (> *Niqueti*).

Hauek dira aurkitu ditudan lekukotasunak:

– **Belati** (*Bela*): *Domno Belati* (1052-1054, Errioxa; Irigoien, 1990: 43-44, 1995: 7).

– **Dolkiti**: *Dolquiti Beilaz*, *Beila Dolquiti* (936, Ubieto, 1976, 23, 40. or.), *Dulquitus presbiter* (ibid., 937, 24, 41. or.).

– **Harriti** (cf. *Arri Fuera*, Arroitz, 1330, LPN, 279): *Harriti* (Cardenako kartularioa, c. 967; Irigoien, 1990: 43 eta 1995: 7).

– **Jaundi** (*Jaun*): «*Garcia Gonzalez de Cestave et Jaundi et Lachendi*» (Araba, c. 1084, Ubieto, 1976-II, 93, 71. or.). Irigoienek (1995: 6-7) *Jaundi* (< *Jaunti*) biltzen du eta azaltzen gero *Jandi* bilakatu zela, adibidez Bizkaiko *Janditegui* eta *Yandiola* toponimoetan.

– **Jaunti** (*Jaun*): *Jauncti* (800, Ubieto, 1976, 2, 12. or.), *Jaunti* (Zeanuri, XI. m., Az. & Gar., 1996, 238-240. or.). Moretek *Jaunti* aipatzen du (*Anales*, II, 315) eta Omaetxebarriak ere biltzen du (1949: 157). Mitxelenak dio (*AV*, 20) *Jaunso* eta *Jaunti* izenak *jaun* hitzarekin loturik daudela (cf. *Jaun Yruritaco*, Irur., 1157, Goñi, 289) eta orobat Irigoienek (1995: 6-7, 1995c: 47). Azken iker-tzaile honek, gainera, erdarazko *Senioret* (*Senior*-etik) eta *Donellus* (*Donnu*-tik) izenak aipatzen ditu. Díez Melcónek ere (1957: 126) *jaun* eta *-ti* dakuski *Jontiren* osagaitzat.

– **Juanti** (*Juan*). Baraibarko 1726ko *Juantirena*-n dagoela dirudi, baina hau apika metatesiz sortu dela kontu egin beharko dugu, **Jauntirena*-tik abiatuta.

– **Jonti** (*Jaunti*-tik atera dela irudi du, monoptongazioz. Ikus Irigoien, 1995: 7 eta 1995c: 47): *Ionti* (Val., 913, PS, 9, 27. or.), *Iointi* (934, Ubieto, 1976, 22, 39. or.), *Ionti Senproni* (“Lekere”-n, Araban, 952. urtean; ibid., 64), *lakenti Goen et Ionti, suo germano* (Akosta aldean, 1062, ibid., 323, 311. or.).

– **Larriti**: *Larriti* (Irigoien, 1983: 8).

7.2.81. **-tiko** (< **-ti** + **-ko** edo **-ti** + **-iko**. Beharbada *-tilko*-ren emaitza ere izan liteke. Ikus beheraxeago)

– **Joantiko, Juantiko** (*Joan, Juan*). Idoiko *Joanticorena* (1643, Ue.p., 41), Getze Galarko *Joanticorena, Juanticorena* (1727 eta Jimeno, 1987: 371) eta Eguarasko *Juanticorena* (1727) oikonimoen oinarrian dago.

– **Santxotiko** (*Santxo*). Aitzoaingo *Sanchoticorena* (1597, A.p., 6, 228. or.) etxe izenean ageri da.

7.2.82. **-til** (< **-ti** + **-l**)

– **Paskotil** (*Pasko*; cf. *Paskoiz* patronimikoa): *Pascotil Ruyz de Verrayarra* (Erre., 1456, C. & C. & G., 1991, 44). Badaiteke *leihatila*, *neskatila*-n dugun atzizki bera izatea. Ikus *-tilko*.

7.2.83. **-tilko** (< **-ti** + **-l** + **-ko**)

– **Otxotilko** (*Otxo(a)*). Subitzako *Ochotilcorena* (1794, Elo.p., 46, 104) etxe izenaren oinarrian dago.

7.2.84. **-tillo** (< **-ti** + **-l** + **-o** / **-ti** + **-illo**)

– **Juantillo** (*Juan*): «*Juantiallo* (sic), *hermitanno que era a la sason en Santa Luçia de Axpee, quel dicho Juantyllo solia biuir [...]*» (Dur., 1463, Hid. et al., 1989d, 10, 119. or.).

7.2.85. **-to(a)**, **-tto(a)**

Luchairek erraten du (1973 [1879]: 75) Akitaniako *Lohitton*, *Arnaston*, *Nescato* izenetan dagoen *-to*, *-ton* atzizkia Espainian ohikoa dela eta bi azalbide izan ditzakeela: a) *-to*, *-(n)to* atzizki zelta konposatuaren bidezkoa, eta b) *-tto*, *-to* euskal («basque français») atzizki txikigarriaren bidezkoa. *Nescato* dela-eta honek dio: «Si *Nescato* n'était pas aujourd'hui encore un pur nom basque "jeune fille" on pourrait en rapprocher certains noms celtiques féminins comme *Diseto*». Lizopek (1931: 62, 118), Luchaireri jarraikiz, oinarri italo-zeltak dakuski *Lobixus*, *Lohitton* eta *Nescato* bezalako izenetan, azkenekoan «nom propre du féminin à rapprocher du basque *Nescato* (jeune fille)» gehitzen badu ere lehenik, eta *Nescato* «paraît devoir être examiné à part» –alegia, izen zelta femeninoetatik aparte-gero.

Mitxelenak (1954: 417), Akitaniako onomastika aztertzean, *-to(n)* aipatzen du, eta honekin batean *Lohitton*-en bide dagoen *-tton(n)*, «itxuraz» bat sartzen baldin badu ere, bere zalantzaren adierazgarri, antza. Hizkuntzalari berak dio, *-to* edo *-txo*-ren lehenetasun kronologikoaz ari delarik, seguru erratea zaila dela, akitanieran hauen aitzindari bide diren bi atzizki daudelako, *-t(t)o* eta

–*x(s)o* (FHV, 186-187). TAV-en (1.1.) Aran ibarreko *Ilurberrixo* eta *Anderexo* aztertzean «es ya antigua la identificación [...] del sufijo –*xo* (escrito también –*xso*) con vasc. –*txo* en diminutivos [...]» besterik ez du erraten.

Gorrotxategik (1984, 131-132), *Anderexo* eta *Anderexo* aztertzean, –*xso*, *x(s)o* atzizkia aipatzen du eta, euskarako –*txo*-rekin alderatu ohi dela gaineratu ondoan, dio menturaz –*tto*-rekin ere erka daitekeela. Ikertzaile berak (1984: 141) *Andoston* aztertzean erraten du izen hau *Andoss-us*-etik eratorri dela, –*t(t)o(n)*- baliatuz, eta, –*xso*, *xso-n-is* atzizkiak bezala, zehar kasuetan –*n*- bakarra duela. *Andoston*-en –*n* hau, beraz, *Oxson*-ena bezala (ibid., 250-251), kontu grafiko hutsa dateke, zehar kasuetatik hedatu dena. Lan berean azaltzen du (235, 241. or.) –*co(n)* eta –*ten(n)* berrekailuek bezala honek ere bi aldaera dituela: herskari bakuna duen –*to(n)* eta herskari geminatua duen –*tto(n)*. Zernahi dela, garbi dakusa akitanierako –*tto(n)* : euskarazko –*to* berdinketa (ibid., 370).

Hasselrotek (1957: 18) alde batera uzten du latin hizkuntzen –*tt*-dun txikigarriak eta balio bera duen espainoleko –*ito* forma euskarazko –*to*-rekin lotua dagoela dioen Cejador y Fraucaren teoria, euskal atzizkiak artetan baizik ez baitu nolabaiteko adiera txikigarria. Lapurterazko –*tto*-rekiko lotura ere ezesten du Hasselrotek, –*tt*- grafiaren azpian soinu palatala (euskaraz *tx* idazten duguna) dagoelako. Honela bukatzen du: «... la provenance basque des suffixes romans en –*tt*- est une hypothèse gratuite, dépourvue de toute vraisemblance».

Tovar-en ustez (1985: 460) irudi luke, euskarazko –*tto*, –*txo*, –*txu* atzizkietan, txikigarriak egiteko munduan barna hedaturik dauden eratorpenaren eta hots aldakuntzaren arteko uztardura gertatu dela. Morvanek (1996: 225), oker nire ustean, –*to* eta –*txo* berrekailuak –*ko*-ren aldaerak direla uste du. Ikus –*ko*-ri eta –*ño*-ri eskainitako ataltxoak.

Bizirik dauden –*to*, –*tto*-dun hipokoristikoak hauek dira:

– **Felixto** (*Felix*): *Felixto* (Ara.).

– **Jexuxto** (*Jexux*): *Jexúxtò* (Goi.; adinekoa da).

– **Joanto, Joantoa, Juanto, Juantto, Jantto** (*Joan, Juan, Jean*): *Juanto de Esoyn*, *Juanto de Gorostiçu* (Elduaian, Le. & Ta., 10, 19. or.), *Juanto Goicoa* (Araia, 1455, Po., 2001, 12, 33. or.), *Joanto de Alçate* (Pasaia, 1457, Elortegi, 1992: 165), «*Johanto de Elexalde, e Juanto, fiyo de Juanto Goycoa*» (Zaldu., 1460, Po., 2001, 6, 337. or.), «*Juanto de Gurruçeta e Juango de Gurruçeta*», *Juanto de Vrbiçu* (Idiazabal, 1463, Aierbe, 2006, 218, 23. or.), «*Iohn (sic) de la Torre e Iohanto, su fiyo*» (Gordoa, 1470, Zu., 1994, 10, 52. or.), «*Iohanto, fiyo de Iohn (sic) Sanches de Bicuña*» (Ilarduia, 1470, ibid.), *Juanto de Ola* (Andoain, 1475, Aierbe, 1993, 40, 122. or.), *Juanto de Asyain* (Genevilla, 1481, Po., 1998: 163), *Juanto de Liçarçu*, *Juanto de Illarriqui* (sic) (Erre., 1490, C. & C. & G., 1997, 79, 94. or.),

Juanto de Çiluaga, *Juanto de Yrançu* (Oiar.al., ibid., 81, 99-100. or.), *Johanto Aeça* (Iru., 1501, G.p., 1), *Juanto de Vriçar* (Luzuriaga, 1502, Po., 2005, B29, 287. or.), *Joanto de Antia* (Zeg., 1516, Po., 2001, 43, 239. or.), *Johantoa de alçotegui* (Betelu, 1520, J.p., 5), *Johanto andia* (Leotz, 1529, Amatriaingo jauregia). Egun *Juántto*, *Jántto* dugu Zuberoan.

– **Koteto**, **Kottetto** (*Kote* < *Jose*, *Koxe*): *Kotéto* (Done.), *Kottétto* (Ig.), *Kotéto* (Les.; pisu handiko gizona omen da), *Koteto* (Zubieta, *Berria*, 2005-6-25, 42. or.).

– **Mattintto** (*Mattin*): *Mattíntto* (Les.).

– **Neretto** (*Nerea*): *Nerétto* (Irurtzun).

– **Peito**, **Peitto** (*Pei*, *Peio*): *Peítto* (Haz.), *Peito*, *Peitto* (Sat., 1961, 226, 1969b: 73). *Pei* Iparraldean ez ezik Benasquen ere ageri da (Saura, 1999-2000: 174). Autore honek dioenez, *Pèyre* fonetikoki laburtzearen ondorio da izena, eta bilakaera *mai* < *maire* < *matre*, *pai* < **paire* < *patre* apelatiboetan dagoen bera da.

– **Pettitto** (*Petri*, *Betti*, *Pedro*): *Pettítto* (Sunbilla), *Pettitto Berterreche* (Larre, 2001: 229). Cf. *Pette*.

Dokumentazioan aise ugariagoak dira berrekailu hau duten antroponimoak:

– **Alabato** (*Alaba*): *Allauato Ortiz* (1080, Iratxe, 61).

– **Alemantto** (*Aleman*). Amaiurko *Alemànttoneko bórda* etxe izenaren oinarrian dago.

– **Amato**: *Amato de Galluasse* (Itzalle, XI. m., Leire, 184). Zalantzakoa da, nahitaez «Ama»-ren hipokoristikoa izan behar ez duelako. Cf. *Amado de Garagarza* (Don., 1559, Jimeno, 1998: 228), «*Xemena, mulier de Amatu*» (Adoain, c. 1033, Leire, 25).

– **Anato** (*Ana*): *Anato* (Ua., 1578, HA.p., 4). Satrustegik (1961: 219) Luzaideko 1729ko *Anato de Sala* izen bitxien artean sailkatzen du, baina Uhar-te Arakilen ere azaltzeak hain arraroa ez zela erran nahi du. Alabaina, ez bide zuen maiztasun handirik ere.

– **Anjelto** (*Anjel*). Ezkirotz Galarko *Anjeltorena* oikonimoaren oinarrian da (Jimeno, 1987: 240).

– **Antoniotto** (*Antonio*): *Anthonjoto* (Iru., 1541, Zier. & Ram., 1997: 36).

– **Arnauto** (*Arnaut*): *Arnauto* (Hozta, 1378, Goih., 1966: 219), *Arnauto Inta* (Dg., 1378, ibid., 332), *Arnauto* (Donu., 1412-13, CPBN, 76. or.), *Arnauto d'Eyharçe* (Bastida, ibid., 93. or.), *Arnauto de goy[çue]ta* (Goi., 1550, Ih.p., 1).

– **Arremonto** (*Arremon*), **Erramunto** (*Erramun*), **Remonto** (*Remon*): *Remonto de Janitz* (Lekunberri Garazi, 1391, Goih., 1966: 146), «*L'ostau d'Arremonto, lo faur*» (Dg., 1412-13, CPBN, 104. or.). *Erramunto* aldaera Luzaideko Pekotxeta auzoko *Erramuntóinja* etxe izenean ageri da (Satrustegik *Erramunto* biltzen du, 1961: 214).

- **Bernarto** (*Bernart*). Beriaingo *Bernartorena* oikonimoaren oinarrian dago, irudi duenez (Jimeno, 1987: 112).
- **Betrittoa** (*Betri*): *Betrittoa* (1796, Luz., Sat., 1961: 213 eta 1969: 74).
- **Domekato** (*Domeka*): *Domecato* (Iru., 1366, LPN, 549).
- **Domingoto** (*Domingo*). Usiko *Domingotorena* oikonimoan aurkitu dut (Ue.p., 44).
- **Domisto** edo **Domixto** (*Domix*, emakume izena). Urdazubiko 1726ko *Domistorena* oikonimoaren oinarrian dago.
- **Dotxato** (*Dota*, **Dotta*?; **Dotatxo*-ren moduko batetik atera ote da, metatesiz? Ez dirudi, dokumentatzen den lekuagatik): «*L'ostau de Johanesco onz esta Dochato*» (Dg., 1412-13, CPBN, 104. or.).
- **Elbirato** (*Elbira*): *Elbirato de aguerre* (Err., 1541, Eo.p., 1, 149).
- **Erlantto** (**Erlan*. Cf. *Erlande* izena, *Ellande* hipokoristikoa eta *Erlantz*, *Erlanz* patronimikoa. Salaberri, 2003: 180). Luzaideko 1863ko *Erlantto* eta *Erlanttoborda* oikonimoetan azaltzen da (Sat., 1969: 94).
- **Frantziskoto** (*Frantzisko*). Nagoreko 1849ko *Franziscoto* oikonimoan ageri da (A.h., 3, 90-91. or.). Ikus, dena dela, *Frantziskotxo* iruzkintzean diodana.
- **Gartxito** (*Garzi*, *Garzia*. Atzizkiaz landa hots sinbolismoa ere badukegu izen honetan). *Garchitorena* oikonimoan kausitu dut (Lekaroz, 1727, Iru., 1824, Ba.h., 1, 92, 49); kasu honetan *-to* ez ezik *-ito* ere izan genezake.
- **Garziato** (*Garzia*): *Garciato* (em., Maule, 1377, Zier., 1994: 229), *Garciato de muzqui* (em., Estenotz, 1521, 1524, J.p., 5).
- **Gasernauto** (*Gasernaut*): *Gassernauto* (Dg., 1378, Goih., 1966: 340). *Arnauto*-ren kasuan bezala jatorrizkoa *-o*-dun aldaera izan daiteke.
- **Gaxento**, **Gasento** (*Gaxen*, *Gasen*): *Gachento* (= *Garcia Art* = *Gasen* = *Gasento*, oker ez banago; Donamartiri, 1407, Goih., 1966: 256), *Gasento* (Donamartiri, 1408; ibid., 256).
- **Gilento**, **Gillento** (*Gil(l)en*). Tafallan *Guillemtto Periz* ageri da 1460an (Zier. & Ram., 2001, 53, 196. or.). Sudurkari hobikaria duen aldaera Esnozko *Guilentorena* (1764, Au.p. 37, 43) edo *Guilontrorena* (1726), Garraldako *Gilento* (ibid. 37, 43) eta Erroko *Guilentorena* (1644 eta 1726) etxe izenetan dago.
- **Gilto**, **Xilto** (*Gil*, *Xil*). Oikonimian agertzen da: *Gilto* eta *Giltorena* (Anozibar, 1535, At.p., 1, 1 eta 1727), *Giltorena*, *Jiltorena* (Etsain, 1640, Ue.p., 40, 1726), *Siltorena* (Zazpe, 1726), *Siltorena*, *Chiltoenea* (Aintztoa, 1726 eta 1788, Au.p., 42). Azken hau dela eta, Ibarrek (2002: 497) 1644ko *Giltorena* eta oraingo *Xilto* aipatzen ditu. Cf. *Gilko*, *Xilko*.
- **Gixonto** (*Gixon*): *Guissonto d'Aguerre* (Mithiriña, 1412-13, CPBN, 79. or.).
- **Graziato**, **Grazito**, **Graxito**, **Garaxito** (*Grazia*, *Grazi*, *Graxi*, *Garaxi*): *Graxito* (Iru., 1531, Eo.p., 1, 147), *Graxito de yraycoz* (Ira., 1536, At.p., 1, 11), *Graxito de drendiayn*, *Graxito de eguaras* (Zenotz, 1548, At.p., 1, 74), *Gra-*

ziato de oscoz (Osk., 1548, HA.p., 1), *Garaxito jostuna* (Urritzola Ultzama, 1552, Eo.p., 1, 56), *Garaxito* (= *Graxito de cihiga*) (Ziga, 1552, Eo.p., 1, 56), *Graxito de cihiga* (= *Garaxito*; Ziga, 1555, Eo.p., 1, 56).

– **Itsusto** (*Itsusi*; ikus *Itxute*, *Itsuste*, *Itxuste* aztertzean erran dudana, *-te* atzizkiari eskaini ataltxoan): *Ysusto* (1350; Orp., 1999: 133).

– **Jaunto** (*Jaun*-etik. Cf. *Jauntxe*). Badostaingo (1788, Au.p., 42) eta Aintzioako (1799, Au.p., 42) *Jauntorena* etxe izenetan aurkitu dut. Ikus *Jaunti* sarreran diodana.

– **Joanato** (*Joana*): *Johanato de euce* (Goñi, 1518, J.p., 5), *Johanato mi-quelearena* (Elgorriaga, 1531, Eo.p., 1, 101), «*Joannes de Ciganda e Joanato su muger*» (Lar., 1552, At.p., 1, 54), *Joanato Gorria* (Aldude–Luzaide aldean, 1614, Arb., 355. or.).

– **Joanesto, Juanesto, Juanisto** (*Joanes, Juanes, Juanis*): *Johanesto de arizteguj* (Gartzain, 1539, Eo.p., 1, 61). Inbuluzketan *Juanistorena* zegoen 1677an (Ibarra, 2002: 506), *Juanestorena* 1726an.

– **Joaneto** (*Joane*): «*Joaneto de arano dicho martiarano*», «*Joaneto de arano bastero de arano*» (Arano, 1555; 1560, NAO, proceso, 66569; P. Perurenak emandako datuak), *Joaneto de oztiz* (Ostitz, 1608, Ue.p., 39).

– **Joanmiguelto** (*Joanmigel*): *Johan Miguelto* (Iru., XVI. m., Urritzola, 2006: 112).

– **Katelinto** (*Katelina*): «*Juana hija de Catelinto*» (Ihabar, 1587, HA.p., 5).

– **Lopeto** (*Lope*): «*Lopeto, seynor d’Etcheverrye*» (Gamue, 1412-13, CPBN, 78. or.), *Lopeto de Larrayncar* (Lar., 1536, At.p., 1, 33), *Lopeto Jauregui* (Eu., 1548, At.p., 1, 82): «*miglico. hijo de lopeto*» (Ilarr., 1552, At.p., 1, 82). Etxalekun *Lopetorena* etxea azaltzen da 1551n (At.p., 1), Berriozarren 1727an (ikus Jimeno, 1992: 299).

– **Maiorto** (*Maior, Maiora*), cf. *Mayorto de Aoyca* (Auza, 1537, At.p., 1).

– **Malliato, Mallito** (*Mallia, Malli* < *Maria*): «*Maria de drendiayn dco. Malliato*» (Gerendiain Ultzama, 1552, At.p., 1, 123), *Mallito* (Espartza Zaraitzuko etxea 1811n, Oi.p., 93).

– **Mariajoanto, Mariajuanto** (*Mariajoan, Mariajuan*): *Maria Johanto de yturralde* (*Joanot de Oarriz*-en alaba, Zuraurre [Ziga], 1529, Eo.p., 1, 80), *Maria Juanto de Bertiz* (*Juan de Bertiz*-en alaba; Legasa, 1530, Eo.p., 1, 130).

– **Mariato(a), Marito** (*Maria, Mari*): *Marito* (Donu., 1351, Goih., 1966: 295), «*Yo maria lopiz de sallinas [...] mariato mj fija*» (Jaitz, 1521, ibid.), *Mariato de lanz*, *Marito de lanz* (Lantz, 1537, At.p., 1, 29), *Marito de Vença* (sic, Beuntza, 1544, At.p., 1, 10), *Mariato de Latassa* (Latasa Imotz, 1535, ibid., 32), *Marito de aroztegui* (Aroztegi, 1551, At.p., 1), *Marito andia de osynaga* (Markalain, 1552, ibid.). Iparraldean ere ageri da *Mariato* (Iglesias, 2000: 265).

Satrustegik argitara emandako testu batean (1987: 48-49) Donibane Lohizuneko *Mariatoa* ageri da:

«Ene espos maitea otoi adineçaçu hizgutis çeren ezpaitut denboraric nahi-beçala çuri neure sentimenduyac erateco. Mariatoa ene maitea biozes minço-naçaizu [...] halaber gomendacen derauçut Mariatoa çeiña baita ene emastea yçanen ere bai secular [...]. Gorainci ene espos Mariatoari secular yçanen dudanari erraten dut [...]».

– **Martieto(a)** (*Martie*): *Martieto de gaztelurena* (Lar., 1536, At.p., 1, 33), *Martieto de aoyca* (Eltz., 1537, ibid., 1, 22), *Martietoa de errecaidea* (Erbiti, 1552, ibid., 1, 72), *Martieto de Veruete* (Bere., 1597, Ih.p., 1). Oikonimian ere ageri da: *Martieto* (Etxeberri Arakil, 1580, 1595, HA.p., 4), *Martietorena* (Eritzegoiti, 1596, Ih.p., 1).

– **Martinto** (*Martin*): *Martinto arribillaga* (Irur., 1529, 1531, Eo.p., 1, 69, 55), *Martinto de lecueder* (Elbete, 1538, Eo.p., 1, 129). Olaitzen *Martintorena* etxe izena azaltzen da 1726an, Iruritan 1727an, Arizkunen *Martintonea* 1820an (Ba.h.1, 92, 22-22. org.), *Martintónja* egun. Etxalarren *Martintorena* agertzen da XVII-XVIII. mendeetan, *Martintonia* XIX-XX.etan; egun desagertua da (Ap. & Sal.).

– **Mattito** (*Mattin*): «*Martin Sanchez de (Mattito)*» (Dur., 1490, Hid. et al., 1989b, 79, 437. or.).

– **Matxinto** (*Matxin*): *Machinto de huart* (Ziga [Zuraurre], 1528, Eo.p., 1, 99), *Machinto de Recaldea* (Latasa Odieta, 1335, At.p., 1, 32), *Machinto landa* (Ariztegi, Gartzain, 1536, Eo.p., 1, 25), «*Machinto dco. Mariquin seme*» (Geren-diaian Ultzama, 1552, At.p., 1, 123) (27).

– **Menauto** (*Menaut*): *Menauto de Berraute* (Zibitze, 1350-53, CPBN, 46. or.), *Menauto de Behasquen* (Ami., 1397, Goih., 1966: 269), «*Menauto, seynor d'Iryart*» (Behaskane, 1412-13, CPBN, 76. or.), «*Menauto, seynor d'Etchagoyen*» (Zozueta, 1412-13, CPBN, 77. or.). Pentsa daitekea *Menauto* oinarrizko aldaera dela?

– **Migelto** (*Migel*): «*Miguel de larrea alias Migelto de larrea*» (Lekaroz, 1530, Eo.p., 1, 108), «*Miguelto de elso hijo de micheto*» (Eltso, 1537, At.p., 1, 22), *Miguelto michelexarena* (Itsaso, 1574, Ih.p., 1), *Miguelto de Juancote* (= *Miguelcho de Joancote*, Etxeberri, 1580, HA.p., 4), *Miguelto de Goycochea* (Goldaratz, 1587, HA.p., 5).

– **Mikeleto** (*Mikele*), **Mikelato** (*Mikela*): *Miqueleto de Imart* (Lekaroz, 1529, Eo.p., 1, 82), *Miqueleto de huart* (ibid., 1536, 1539, 24, 50). Emaztekientzako aldaera Urritzola-Galaingo *Miquelatorena* etxe izenean ageri da (1619, Iru.p., 50, 517).

– **Mixelto**, **Mixelto**: *Michelto* (Azkaine, 1451, Goih., 1966: 15). Ituren oinarriztat *Mixelto* duen *Mixéltenià* oikonimoa dago (Iñigo, 1996: 538; *Mi-*

(27) Honela dio agiriak: «Yo maria de drendiayn dco. Malliato viuda muger qui (sic) fue por tpo. [tiempo] de michel de licaso mi marido defunto [...] hija que soy de machinto dco. mariquin seme defunto».

cheltorena 1726an), Elizondon *Michelttorena* zegoen 1726an eta Gaskuen *Mi-choltorena* (< *Micheltoarena*) urte berean.

– **Mitxeto** (*Mitxel*): *Micheto de Bertiz* (1413, Castro, XXX, 521, 253. or.), *Micheto* (Segura, 1454, Aierbe, 2006, 214, 17. or.), *Micheto de ycurçu* (Izur-tzu, 1518, J.p., 5), «*Micheto de Loydi e Micheto de Toledo*» (Amezketeta, 1519, Aier-be, 2006, 311, 335. or.), *Micheto de Yrigoyena* (Amezketeta edo Abaltzisketa, 1519, Aierbe, 314, 347. or.), *Mjcheto de Artariain* (Artariain, 1529, Amatriaingo jauregia), *Micheto de Urricola* (Lar., 1536, At.p., 1, 33), *Micheto de guindulayn* (Erri-pa, 1536, At.p., 1, 36), *Micheto de Olague* (Olague, 1537, At.p., 1), «*Miguelto de elso hijo de micheto*» (Eltso, 1537, At.p., 1, 22), *Micheto Urrutia* (Girgillao, 1545, G.p., 2), *Micheto goycoa* (Eraso, 1553, At.p., 1, 137).

– **Munuto**: *Munuto* (X-XI. m., Az. & Gar., 1996, 229-230 eta 316-317. orr). Ikus *Nunuto*.

– **Nabarto** (*Nabar*): *Navarto* (Izura, 1350-53, CPBN, 42. or.).

– **Nikolauto** (*Nikolau*). Luzaideko *Nicolautorena* oikonimoan ageri da (1769 eta 1770, Sat., 1961: 218 eta 1965-1966: 28).

– **Nunuto** (*Nuni*): *Nunnutto Miottaco* (Elorrio, 1013, Hidalgo et al., 1988, 1). Ikus *Nunuso*, *Unuso*. Mitxelenak dio (*TAV*, 2.1.6) eratorria irudi dua-la, eta atzizkiak –beharbada txikigarri edo hipokoristikoa, errenteriarraren arabera– Akitaniako inskripzioetako –*t(t)ο* dakarrela gogora. Mallabiko idaz-kun batean *Munuto* antroponimoa agertzen da, ikusi bezala. Tovar-ek (1959: 98) eta Mitxelenak (*TAV*, 2.1.2) honen antz handia duen *Manuto* aipatzen dute. Goñik (1997, 243) honen patronimikoa izan daitekeen 1143ko *Nanuteiz* («*Sanso Nanuteyz in Arania*») dakar. Honek erran nahi duke, beharbada, *Mu-nuto* – *Manuto* aldizkatzearekin batean *Nunuto* - **Nanuto* ere bazela. Ikus Salaberri (2003: 222).

– **Otxoto** (*Otxo(a)*). Beteluko (1568, HA.p., 2), Errazkingo (1726) eta Eritzebeitiko (1856, Jimeno, 1990: 172) *Ochotorena* oikonimoen oinarrian dago.

– **Pantxikato** (*Pantxika*). Lakuntzako 1779ko *Panchicatonecoa* oikoni-moan ageri da (Goikoetxea).

– **Paskoto** (*Pasko*. Cf. *Paskotil*). Iglesiasen arabera (2000: 280) *Pasco-to* Erdi Aroan ohikoa zen *Pascouau* ‘Pâques’ izen gaskoitik atera den euskal aldaera da.

– **Pedrotto(a)** (*Pedro*). Luzaideko oikonimian kausitu dut; 1787an *Pe-drotoa* ageri da (Au.p., 42) eta egun *Preottwájnja* erraten zaio. 1726an, berriz, *Pedrochuarena* gisa azaltzen da, baina –*txo* ez da erabiltzen Garaziko herrian, eta are gutiago –*txu*. Satrustegik (1969: 74) *Pedrotoa*, *Pedrottoa*, *Pedrottua* eta *Preottoa* dokumentatzen ditu.

– **Peireto** (*Peire*): *Peyreto* (Mañeru, 1513, G.p., 1). Ez dakit Garinoain-go *Pereytorena* oikonimoa (1583, Bar.p., 2bis) metatesiari zor zaion.

– **Pelento** (*Pelen*): *Pelento de Reparatse* (Donibane Lohizune, 1454, Goih., 1966: 54).

– **Peroto** (*Pero*). *Perotorena* oikonimoan opatu dut (Badostain, 1616, Au.p., 2).

– **Peruto** (*Peru*): *Peruto* (Izurtzu, 1520, J.p., 5), *Peruto de yçurçu* (Jaitz, 1521, ibid.), *Peruto de yriart* (Irur., 1541, Eo.p., 1, 94). Soraurenen 1589an (Ih.p., 2) eta 1606an (Ue.p., 42) *Perutorena* oikonimoa azaltzen da.

– **Petritoa, Petrittoa, Pretittua** (*Petri*): *Petritoa de Nas* (Ari., 1530, Eo.p., 1, 76); *Petritoa, Petrittoa, Pretittua* (Ondarrola, Sat., 1969: 74). Ikus *Petritxo*.

– **Santzto** (*Santz*): *Santzto* (“Bielenabe”, Atharratze ustez, 1377, Zier., 1994: 209).

– **(T)xemeto** (*Xeme, Txeme*): *Chemeto* (1412; Orpustanek aipatzen du, 1999: 133). Arizkungo 1726ko *Semetorena*-ren oinarrian ere badago; hau, oker ez banabil, 1827ko *Simitonea* (Ba.h., 1, 92, 82. org.) eta egungo *Ximitónja* edo *Ximitonéa* bera da. Elizondon *Jemettorena* dokumentatzen da 1727an.

– **Txanto** (**Txoanto*-tik?, *Anto*-tik?): *Chanto Chipia* (Les., 1366, LPN, 567). Elizondon *Chanttoarena* etxea zegoen 1727an.

– **Txantxoto** (*Santxo*). Ollakarizketako *Chanchotorena* etxe izenean dago (1767, K.p, 20).

– **Xoaneto, Xoaneto** (**Txoane, Xoane*): «*Chartico de artero e Johanco su cuñado, Johanto fijo de Johan de aroz; sus fijos choanco, choaneto, chartico*» (Betelu, 1520, J.p., 5), *Xohaneto de tipulace* (*Johanes de tipulace*-ren aita; NARBART [Tipulatze], 1530, Eo.p., 1, 74), *Xoaneto de lanz* (Lantz, 1537, At.p., 1, 29).

– **Urrato** (*Urra*): *Urrato* (eta *Urratone*) (Obarra, 1020, MD, 1965, 101). Ikus *Urraka* sarreran erran dudana.

– **Xoanto** (*Xoan*; cf. *Xoane, Xoana*): *Soanto el ferrero* (Lantz, 1366, LPN, 553), *Choanto de Lesale* (Bai., 1455, Goih., 1966: 103 = *Choantaco de Lasale*, ibid., 1464).

Atzizki hau oraino ibiltzen da izen arruntetan; ikus, erraterako, Erdotziak (2001: 240) biltzen dituen Sakana erdialdeko etsenpluak. Oikonimian ere ageri da; adibidez, ondoko etxe izen hauek aipa daitezke: Arizkungo 1726ko *Asottorena* (*Atsotorena*, alegia), *Atsoténja* bihurtua egun, Elizondoko 1824ko *Barbertorena* (Ba.h., 1, 92, 50. org.-51. or.) eta Lekunberriko 1726ko *Astiztonea* (*Astitz Larraungo herria* da, eta deitura).

7.2.86. -toko (< -to + -ko)

– **Joantoko, Juantoko, Xoantoko** (*Joan, Juan, Xoan(e)*): *Choantoco de Lesale* (Bai., 1464, Goih., 1966: 103 = *Choanto de Lesale*, ibid., 1455), *Johantoco de ciriča* (Ziritza, 1524, J.p., 5 = *Johango de ciriča*, ibid.), «*Johannes el hijo de Xohantoco viramonde*» (Eo., 1529, Eo.p., 1, 82), *Xohantoco dame*, *Xohantoco de cocaya* (Ornoz-Mugairi, 1538, Eo.p., 1, 118; bigarrena *Johanot anchorena*-ren aita zen), *Xohantoco micheltorena* (Eo., 1538, Eo.p., 1, 129).

– **Mitxetoko** (*Mitxel*). Olondrizko 1606ko *Michetoco* etxe izenean ageri da (Ue.p., 42).

7.2.87. -ton (< -to + -on)

– **Garzaton, Garziation** (*Garzia, Garze, Garzo*): *Garçaton Sendoa* (Garde, 1366, *LPN*, 478. Cf. *Ayoro Garçatoyn*, *ibid.*), *Garciaton Petrox* (Urzainki, *ibid.*). Hauetaz honela dio Irigoienek (1982: 628): «... formas con sufijo –ton / –toyn que procede del acusativo latino de –to > –tone(m), con variante *–toni, añadido a *Garce*, como primer miembro de derivado *Garça-*, pudiendo estar sobre *Garcia-* [...]».

– **Juanton** (*Juan*): *Juanton de Yllarrigui* (Erre., 1490, C. & C. & G., 1997, 80, 98. or.).

– **Mariton** (*Mari*): «*Mariton, Johanon y Johaniquin, hijos naturales de mosen Leonel*» (Iru., 1413, Castro, XXX, 889, 439. or.), «*Mariton de munjain viuda*» (Jaitz, 1521, J.p., 5).

– **Peireton, Pereton** (*Peire, Pere*): *Peireton d'Ostauals* (Izura, 1350, Goih., 1966: 239), «*Perreton de garro, Voisin de Pampelune*» (Gerezieta, 1406; *ibid.*, 32), *Peireton d'Olço* (Iholdi, 1424, *ibid.*, 206), *Pereton el Sastre* (Lar., 1536, At.p., 1, 33), *Pereton de Urrassun* (Azp. [Urrassun], 1537, Eo.p., 1, 122).

– **Xaneton** (*Xoane, Xuane, *Xane*): *Xaneton* (Maule, 1377, Zier., 1994: 227).

7.2.88. -toni (< -to + -oni)

– **Juanatoni** (*Juana*). Legardako 1727ko *Juanatonicoa* oikonimoaren oinarrian dagoke, baina hipokoristikoaren osagaiak *Juanaton* + *iko(a)* dela ere kontu egin daiteke.

7.2.89. -tonko (< -to + -on + -ko)

– **Maritonko** (*Mari*): «*Andres e Maritonco su muger*» (Lar., 1552, At.p., 1, 54).

7.2.90. -txe(a), -xe(a), -(t)xa

Akitaniako idazkuntetan opatzen dugun *–se(n)* (edo *–se*, *–senis*) atzizkiarekin aldera daiteke hau: *Anderesen* (dat.), *Ereseni* (dat.), *Hautense*, *Neureseni* (dat.), denak emakume izenak. Ozen ondoan *–xe* bihur bide zitekeen

(*Edunxe*), baina ingurune horretatik kanpo ere azal zitekeen (*Uriaxe*), eta sudurkari ondoan, bestalde, *-se(n)* moduan ere ageri zen (*Hautense*). Ikus Mitxelena (1954: 416, 421, 442-443; *FHV*, 290-291) eta Gorrotxategi (1984: 131, 153, 157, 201, 205, 222, 289, 368-369). Hagenbachen *Berexe* emakume izena agertu da, non berrekailua, *Uriaxe*-n bezala, ez baitago ozen ondoan. Oinarrian *bere* 'berea' dagoke, *Gerexo*-n *gere* 'geurea' dagokeen era berean (Gorr., 2003: 30).

Ikertzaile honek dio (1984: 130, 239) *-se(n)* Akitanian emazteki izenak sortzeko baizik erabiltzen ez diren erroei eratxikitzen zaiela (*Andere-*, *Ere-*, *Hauten-*), edo bietarako balio dutenei (*Neure-*), oraingoan ere emakume izena moldatzeko. Hau *-x(s)o(n)* atzizkiarekiko txandaketan azal daiteke Akitaniako idazkuntetan, oinarri berari atxikirik (*Ereseni* / *Erhexoni*, ibid., 129, 205). Badira, orobat, *-tse* bukaera duten edo duketen zenbait teonimo, Akitanian eta Nafarroan: *Erditse*, *Herauscorritsehe* eta *Selatse*; Arabako Miñaoko *Helasse* ere gogoan hartzekoa da (ibid., 349).

Rohlfsek (1956: 116) Commingesko idazkun bateko *Anderessa* aipatzen du eta izena *Andere*-rekin lotzen, baina atzizkia *-essu*-rekin erlazionatzen du, alegia, honen aldaera femeninoarekin (*-essa*-rekin; alemaniar hizkuntzalariak ez du forma hau biltzen, baina bere hitzetatik segitzen da). Ez du garbi ikusten aipatu *-essu* hori zein talde etnikoren gain utzi behar den, baina dio galiarren aitzinekoa dela.

Mitxelenak (1969: 51) *Betissa*, *Mateoysa*, *Ortissa*-n azaltzen den *-(y)sa* atzizkia aipatzen du; ikusiak ikusi, badirudi *-xa* irakur daitekeela bukaera hori Erretereriako maisuak jasotzen dituen lekukotasunetan. Inñigok eta Salaberrik (1997: 269-270) atzizkia emakume izenak sortzeko ibili diren baliabideetako bat zela diote, gizon izenetatik abiatu, baina *-xa* maskulinoetan ere ageri dela, *Jaun Lopexa*-n, konparazione. Beste lekukotasun batzuetan ere beste horrenbeste agitzen da: *Lopecha Obaco*, *Perucha de Caveria* = *Lope Obaco*, *Peru de Gaueria* (1358-1359, MD, 1971, 81-82). Irigoienek iritzian (1995: 12), *Lopecha Obaco* gizon izena izatea apika euskarak genero moziorik ez edukitzeari zor zaio.

Mitxelenak (1954: 428) azaltzen du zenbait atzizki txikigarri edo maitasunezko ez diotela sexuari erreferentziarik egiten, eta beste batzuen helburua izena femenino bihurtzea dela; aurrenekoen artean *-to* (*-tto*), *-txo* aipatzen du, eta bigarrenen artean *-nda* (*oilasko* / *oilanda*). Nik bildu ditudan lekukotasunek, ordea, *-(t)xa* gizon nahiz emakumeentzako zela erakusten dute, erlaziona dadin hau *-txo*-rekin, erlaziona dadin *-txe(a)*, *-xe(a)*-rekin.

Irigoienek (1995: 10-12) *-txe* atzizkia *oraintxe*, *lebentxeago*, *hauetxek* hitzetan ageri den bera dela uste du. Euskaltzain zenaren arabera gehienbat *-baina* ez bakarrik *-sudurkari* ondoan erabiltzen da, aditzondo edo erakuslee-

kin, zenbait kasutan indarra emateko, indartzeko. Gero, *-xe* atzizkiaz ari delarik, ez du argitzen *-txe*-rekin identifikatu behar den ala ez, eta erraten du aditzondo eta erakusleekin erabiltzen dela, zenbait kasutan indarra emateko: *geroxeago*, *horixe*... Ikertzale honek (ibid., 12-13) *-txa* eta *-xa* atzizkiak desberdintzat hartzen ditu, bata besteaganik ez ezik *-txe* eta *-xe*-tik ere bereiziz. Ikus, dena dela, *-so*, *-xo* atzizkiari eskainitakoa atalean *Belso*, *Beltso*, *Beltxo* izena aztertzean erran dudana, bai eta *-txi* berrekailuari dagokion puntuan egiten dudana iruzkina ere.

Kintanak dio (2004: 586-587) *-xe* atzizkiak, Perez Lazarragakoaren lanean, balio txikikari edo hipokoristikoa duela, «gure ohiko *-txo*-ren antzera», eta atzizkia garai batean egun baino aise hedatuago zegoela. Uste du «denbora pasa ahala, segur aski funtzio berbera zuten *-to*, *-txo*, *-sko*, *-ska* moduko atzizkiekiko lehiakidetzan, pixkanaka, erakusle eta leku-denboretako aditzondoetarako bereizi zela, ohiko txikikari-funtzioa aipaturiko beste atzizki horiei erabat utzirik». Jatorriaz kestione, pentsatzen du *-xe* atzizkia *xebe* hitzetik atera zatekeela, *-zar* eta *-tzar zahar*-etik atera diren era berean. Autore honen iritzian Akitanian agertzen ere den *-se(n)* etorki berekoa dateke, denen iturrमततत **sene* gisako bat onartzen bada, zein menturaz *seni*-rekin loturik baitateke.

Beste hizkuntza batzuetan ere arruntak dira soinu palatalak atzizki hipokoristikoetan, errusieraz erraterako; ikus Stankiewicz (1957), Fokker (1960), Beider (2001: 73), Lawson & Nevo (2005).

Bizirik dagoen hipokoristiko bakarra ondoko hau da:

– **Katixa** (*Katti*): *Katixa* (Amü., L, NB, Zub.), *Katixa* (Barbier, 1987: 158), *Katixa* (Minaberri, 198: 177), *Katixa Callaba* (P. Narbaitzen ama; Xarritonek aipatzen du, Narbaitz, 1999: 6), *Katixa Dubarbier-Borda* (Bes., Duha, 2003: 406). Halarik ere, frantsesez *Catiche* bada, hagitz oker ez banabil.

Lekukotasun dokumentalak:

– **Amorexea** (*Amore*): *Amorexea* (Lantz, 1366, LPN, 553). Honetaz Irigoien (1983: 37) ikus daiteke; autore honek dio urte bereko *Maytessa* (*Miguel Periz Maytessa*) beharbada *Amorexea*-ren euskarazko bete-beteko kidea datekeela.

– **Andraxa** (*Andra?*): «*Vna que se llama Andrraxe*» (sic) (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 95. or.).

– **Antotxe** (*Anto*): *Antoche d'Anciburo* (Ortzaize, 1381, Goih., 1966: 197), *Antoche d'Echeuerri* (ibid., 199), *Antoche d'Echaue* (NB, 1381, ibid., 368).

– **Arnautxea** (*Arnaut*): *Guillem Arnauxea* (Latxaga, Oztibarre, 1394, Goih., 1966: 239), *Arnautchea* (Ortzaize, 1400; ibid., 203).

– **Atutxa** (**Atu*; *Ato* ongi dokumentatua dago): «*En las casas de Juan de Larraguti ay un fuego; bibe Atucha, que hes muger soltera*» (Bilbo, 1514, Enríquez et al., 1997b, 86. or.). Egun deitura ezaguna da Bizkai aldean. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da *Atutxa* Dimako auzoa ere badela eta izengoititako erabilia egon daitekeela. Irigoienek (1986: 41) Gipuzkoa eta Madrilgo *Atotxa* ere aipatzen du.

– **Beltrantxe, Bertrantxea** (*Beltran, Bertran*). Lehendabizikoa Lanzko *Beltranchearena* (1608, Ue.p., 42), *Beltranchena* (1726) oikonimoan ageri da. Goihenetzek *Bertranchea de Cuirançu* (NB, 1368, 1966: 367) eta *Bertrachea* jasotzen ditu (ibid., 388). Castrok (1413, XXX, 840, 412. or.) *Bertranchea d'Uhart* biltzen du, aitzinxeago *Bertran d'Uhart* gisa ageri den bera, antza (ibid., 844, 415. or.).

– **Betixa** (**Beti?* *Betiri?*): *Betissa* (Zizur edo Galar zendea, XIII. m., *GPrior.*, 114).

– **Betrauxea** (*Bertran, Petran?*): *Betrauxea d'Uhart* (1413, Castro, XXX, 280, 138. or.).

– **Betrixea, Petritxea, Petrixe(a), Petrixa** (*Petri*): *Petrysa* (Larزابale, 1350, Goih., 1966: 228), *Petrichea* (Ami., 1351, ibid., 308), *Betrisea* (1355, ibid., 387), *Petricia* (Donaz., 1378, ibid., 156. or.), «*Petrixa d'Iriuerri de Labau*» (Garaiz, 1381, ibid., 172. or.), «*Petrichea, filh de l'ostau d'Echevelce d'Irissarry*» (Irisarri, 1408, *Doc.Gasc.II*, 308). Goihenetzek (1991: 302) *Petrichia* ere biltzen du Iparraldean, Erdi Aroan. Arantzako 1726ko *Petricheana* oikonimoaren oinarrian *Petritx(e)* dagoela irudi du; Narbarten *Petrisenea* zegoen 1727an eta Zubietan *Petrixenea* dago egun (Iñigo, 1996: 576).

– **Bitoritxa** (*Bitori?*): *Vytoricha* (Plentzia, 1516; Enríquez, 1988: 309).

– **Bor(t)xea, Bor(t)xa** (*Bort*): *Borxea de Phagandura, Bortxea de Fagandura* (Makea, 1393, Goih., 1966: 48), *Borchea de Ganaberro* (Jatsu, 1364, ibid., 141), *Borcha de Saut* (sic, Zibitze, 1368, ibid., 217), *Borchea* (1414, Castro, XXXI, 226, 121. or.), *Borchea d'Aguerre* (NB, 1429, Goih., 1966: 359). *Bort* izen arrunta dela dirudi: «*Johan, bort d'Aguerre*» (NB, 1405, ibid., 359), «*Johan de Aguerre, llamado Borchea*» (1413, Castro, XXX, 543, 264. or.). *Orti*-ren aldaera datekeen *Borte* izena ere ezaguna da. Gorrotxategik (1984: 179), *Bortossi* aztertzean, erraten du izen hau latineko *Fortis*-etik ateratako *b*-dun aldaera batean oinarrituko zela, hedatzeko tenorean.

– **Diaotxe** (*Diago*): *Diaoche de Palacio* (XV. m., LGS, 283).

– **Domikuxa** (*Domiku*): «*Domicussa filio de Meteri*» (Estellerria, 1206, Lakarra, 239).

– **Enekotxa** (*Eneko*): *Enecocho* (Bilboko udal artxiboa, 1558, Bilbao sección antigua, D. Olabarrieta eskribaua).

– **Enexe**. Irigoienek dio (1983: 30) Santanderren 1056an ageri den *Enege* seguru asko *Enexe* irakurri behar dela; ikertzaile honen arabera *Eneko*-rekin lotua dago forma hau, hots, oinarria bera da, baina ez atzizkia. Verdek (1978: 327) ez du garbi ikusten *Eneche* deitura *Eneco*-rekin erlazionaturik dagoenez.

– **Ernandoxe** (*Errando*). Berueteko *Hernandoxerena* (1581, Ih.p., 1), *Errandogena* (1726) etxe izenean dago.

– **Errandexea, Arrandexea** (*Errande*. Ikus *Errandeko*-z mintzatzean diodana): *Arrandechea* (Mon., 1351, Goih., 1966: 148), *Erandechea* (Dg., 1412-13, CPBN, 103. or.).

– **Errandotxa** (*Errando*-tik): *Herrandocha* (em.?: Bilbo, 1473-1475, Enríquez et al., 1996b, 308. or.), *Errandocha* (em.; Ond., 1511, Enríquez et al., 1997, 184. or.). Cf., gainera, ondoko hau: «*Herrocha, mançeba que fue de Martin, espeçiero*» (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 161. or.).

– **Errandoxe** (*Errando*). Berueteko *Errandoxené* etxe izenean dugu.

– **Ferrandoxe** (*Ferrando*): *Ferrandoxe* (Oreitia, 1510, Lema, 2007b, 59, 208. or.).

– **Gaztexe** (*Gazte*): *Gaztexe de Yradi* (Oiar.al., 1474, C. & C. & G., 1997, 59, 25. or.).

– **Gillemoxea** (*Gillemo*): *Guillemosea* (Mon., 1350-1362, Goih., 1966: 148).

– **Gogortxe** (*Gogor*): *Gogorrche de Murguia* (sic) (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 119. or.)

– **Jauntxe** (*Jaun*): *Garcia Jaunche* (Artaxoa, 1235, Goñi, 590).

– **Joanxe, Joantxe, Juantxe** (*Joan, Juan*): *Johanxe* (Suh., 1353, Goih., 1966: 163), *Johanche* (Done., 1366, LPN, 529), «*Johanche el del palatio de Uergara*», *Johanche d'Iriuarren* (Ari., 1366, LPN, 531), *Johanxe de Murillo* (1393, Castro, XX, 490, 210. or.), «*Johanche Leyçarrague, seynor d'Iratçecabal*» (Ortzaize aldea, 1412-13, CPBN, 95. or.), *Juanche de Chipito*, *Juanche d'Illarra* (Erre., 1406, C. & C. & G., 1991, 27), *Juanche d'Iarça* (Iartza, Lazkao aldean, 1426, Hid. et al., 1989, 1, 8. or. = *Juanchen d'Iarça*, ibid., 1. or.), «*Joanxe el casero de Yraro*» (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 121. or.), «*Martico e Juanche, fijos de Cateлина*» (Zaldu., 1460, Po., 2001, 6, 337. or.), *Joanxe de Sarasti*, *Joanxe de Yerobi* (Erre., 1474, C. & C. & G., 1997, 58, 23. or.), *Juanse d'Oyarria* (Oiar.al., 1490, ibid., 81, 100. or.), *Juanche de Aguirre* (Legazpi, 1513, Aierbe, 2006, 290, 273. or.), *Johanche ynes* (Larragoa, 1515, G.p., 1.), *Johanxe de Ciga* (Lar., 1536, At.p., 1, 33), *Johanche dorralde* (Eltso, 1539, At.p., 1, 31).

– **Juanexe** (*Juane*): *Juanexe* (Bilbo, 1502; Enr. & Hid. & Mar., 2005, 80, 260. or.).

– **Juanperitxe** (*Juanperi*[t]z, *Juanperi*(t)x edo **Juanperi*. Cf. *Txaperi*): «*Juan Periche, fiyo de Martin Peres de Arraçola*» (Arra., 1475, Crespo et al., 1996-b, 228, 429. or.).

– **Katalintxe** (*Katalin, Katelina*): «*Catalinche, fija de Garçia de Liendo*» (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 193. or.), *Cathelinché* (Biarritzko etxe baten izena zen; Iglesias, 2000: 113, 265).

– **Lopexa, Lopetxa, Lopexe, Lupetxa** (*Lope, Lupe*): *Lopese Martines de Yraççabal* (Tolosa, 1451, Her. & Bar., 2006, 44, 150. or.), *Lupecha de Huru-buru* (Plentzia, 1509; Enríquez, 1988: 276), *Jaun Lopeysa* (Estellerría, XIII. m.,

Irantzu, 261. or.), *Lopecha Obaco* (= *Lope Obaco*; gizona zen, beraz. 1358-1359, MD, 1971, 81), *Lopexa* (1362, Ruiz, 1998, 441, 126. or.), *Lopecha del Portal* (Ond., 1511, Enríquez et al., 1997: 192), *Lopecha de Aramença* (Ond., 1514, Enríquez, 16), «... a Martin Juan de Laarrio e a Lopecha, su hermana» (Arra., 1519, Le. & G., 1998: 221), *Lopecha* (Bilboko Udal Artxiboa, 1558, Bilbao sección antigua, D. Olabarrieta eskribaua).

– **Mariaxe, Marixe** (*Maria, Mari*): *Marixe* (“Bielenabe”, Atharratze ustez, 1377, Zier., 1994: 209), «*Mariaxe, criada de Pero Prieto*» (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 193. or.), *Mariaxe de Ameçola* (Bilbo, 1492, Enríquez et al., 1996b, 338. or.), *Mariaxe de Bareyca* (Errigoitia, 1514, Enríquez et al., 1997b, 212).

– **Marintxe** (*Marina*): «*Dona Marina Martines de Legarda [...] Marinche, su fja*» (Dur., 1487, Hid. et al., 1989b, 68, 374. or.).

– **Martietxe, Martiexe** (*Martie*): *Martiexe* (Bilbo, 1502; Enr. & Hid. & Mar., 2005, 80, 260. or.), *Martieche de artola* (Etxarri Larraun, Le.p 1, 1594).

– **Martintxe** (*Martin*): *Martynche de Sastarrayn* (Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 120. or.), *Minche de Arriluçea* (sic, Araba, 1510, Lema, 2007b, 59, 212. or.).

– **Martinxe** (*Martin*): «*Martinxe fijo de Juan Armaten*» (Deba, c. 1444, Her. & Bar., 2006, 36, 133. or.).

– **Martixa, Martitxa, Martixe(a)** (*Marti*): *Martichia de La Carre* (Iratxe, 1387, Goih., 1966: 144. Ikus, gainera, 1986: 302), *Martixa de Araya* (NB, 1396, Goih., 1966: 361), *Marticha* (Ond., 1495, Enríquez, 1991, 18), *Martixa de Joangorena* (Ihaben, 1552, At.p., 1., 82), *Martixe de beramendi* (Arruitz, 1594, Le.p., 1).

– **Mateoxa** (*Mateo*): *Mateoysa* (Zufia, Iratxe, 113).

– **Matxintxa** (*Matxin*). Goizuetako oikonimotzat ageri da gutxienez 1616tik aitzina (Her., 1978: 80); egun *Matxíntxa* erraten da.

– **Menauxea** (*Menaut*): *Menauchea* (Behauze, 1353, Goih., 1966: 268).

– **Migeltxe** (*Migel*): *Miguelche Goyena* (Berroeta, 1366, LPN, 532).

– **Mikeletxa** (*Mikele*): «*Pedro de Aris, marido de Miquelecha*» (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 86. or.)

– **Mikelexe** (*Mikele*). Itsasoko *Miquelexearena* (1550, At.p., 1, 22), *Miquelelegena* (1726) etxe izenean aurkitu dut.

– **Monautoxe(a)** (*Monaut*): *Monautochea* (Ami., 1351, Goih., 1966: 308), *Monautoxe* (Maule, 1377, Zier., 1994: 227). Menturaz izen honetan *-toxe(a)* atzizki konposatua ikusi behar genuke, eta beste puntu batean sailkatu.

– **Morrontxe** (cf. *Morrore Çuria*, Oñati, 1489, Zu., 1994, 34, 264. or. eta *Mon(t)dragon* > *Mondragoe* bilakaera): *Morronche de Arrbe* (sic) (Deba, 1436, 1465, Her. & Bar., 2006, 34 eta 59, 121 eta 196 or.).

– **Nafartxe** (*Nafar, Nafarra*): *Nafarche*, «*el fijo de Nafarche*» (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 244 eta 259. or.).

- **Nikolauxe** (*Nikolau*): «*Njcolau martinena llamado njcolauxe*» (Eo., 1540, Eo.p., 1, 128).
- **Onsaluxe** (**Onsalu* ‘Gonzalo’-tik, hain segur ere): *Onsaluxe de Atoeta* (Mark., 1512, Enríquez, 1989, 45). Cf. *Unsalutxa*.
- **Ortiga** (*Orti*): *Ortissa de Enassurieta* (Mañeru, 1230, GPrior., 114).
- **Paskalaxe** (*Paskala*): *Pascalaxe* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 262. or.).
- **Pedruxa, Petruxa** (**Pedru*, *Petru*-tik? Cf. *Pedruxo*, *Petruxka*): *Pedrussa* (Eultz, XIII. m., Irantzu, 253. or.), *Petrusa de Ezpeleta* («*ujier de armas*», 1413, Castro, XXX, 140, 67. or.), *Petrussa* (NVP, 412).
- **Peienau(t)xea** (*Peienaut*; cf. egungo *Pejenaute* deitura eta Erdi Aroko *Gassernaut*, *Sanchenaut*): *Pegenachea d’Aguerre*, *Peganauchea d’Aguerre* (NB, 1365, Goih., 1966: 359), *Pegenauchea*, *Pegenauxea*, *Peyenauchea* (1368, ibid., 391), *Pegenauchea* (Ortzaize, 1402; ibid., 197).
- **Perenauxea, Pernauxea, Penauxea** (*Pere Arnaut*, *Perarnaut*; cf. Nafarroako *Pernaut* deitura): *Penauxea* (Suh., 1353, Goih., 1966: 163), *Perenauchea d’Echegoien* (Izpura, 1396, ibid., 138), *Pernauxea Yturralde* (Izpura, 1396, ibid., 138), *Pernauxea de Liçaraçu* (Leizpartze-Lizaratzu, 1406?, ibid., 191).
- **Peritxa** (*Peri*): «*Perycha, fija de Juan de Sertucha*» (Lekeitio, 1510 / 1556, Enríquez et al., 1993, 91. or. = «*Perucha, hija de Juan de Sertucha*»).
- **Perotxe** (*Pero*): *Peroche Marroquin de Otañes* (XV. m., LGS, 311).
- **Perutxa, Peruxa, Peruxe** (*Peru*): *Perucha de Caueria* (= *Peru de Gaue-ria*, 1358-1359, MD, 1971, 81-82), «*Juan d’Erçila, armero, e Peruxe, su hermano*» (Dur., 1443, Hid. et al., 1989, 9, 35. or.), *Peruxe yateco* (Nafarroa, 1366, NVP, 412), *Peruxa de Chenique* (NB, 1402, Goih., 1966: 367), *Peruxe de Desojo* (1414, Castro, XXXI, 627, 334. or.), *Perucha* (em., Oñ., 1489, Ugarte, 1973: 369), *Peruxa* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 262 eta 266. or.), «*Perucha, hija de Juan de Sertucha*» (Lekeitio, 1510/1556, Enríquez et al., 1993, 36. or. = «*Perycha, fija de Juan de Sertucha*»). El-gorriagan *Perúxenià* etxea dugu egun, *Peruxerena* 1542an (Iñigo, 1996: 492).
- **Remonetxea** (*Remon*): *Remonechea* (Donu., 1396, Goih., 1966: 293)
- **Sanjoantxe, Sanjuantxe** (*Sanjoan*, *Sanjuan*): «*San Juan de Garduza e San Juanche, su fijo*» (Berriatu, 1475, Enr. & Hid. & Mar., 2005, 52, 141-143. or.), *San Johanche de Ollaoqui* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 5. or.). Cf. *Sanjoaneko* eta *Sanjuango*.
- **Semerotxea** (*Semero*): *Semerochea* (Done., 1366, LPN, 529).
- **Taretxe** (*Taresa*, *Teresa*-tik?): «*Tareche, criada de Maria Ynniguis*» (Bilbo, 1473-1475, Enríquez et al., 1996b, 287. or.).
- **Toantxe** (*Joan*): *Toanche de Arriaga* (NB, 1405, Goih., 1966: 363). Ikus *Tonetxe* eta *Janko*. Ez dakit Goihenetxek ongi irakurri zuen.
- **Tonetxe** (*Joan*): *Tonneche de Arriagua* (= *Toanche de Arriaga*; NB, 1405, Goih., 1966: 363).
- **Txerrantxe** (*Txerran*): «*Juane Vecataria e Pedro, su hijo, e Cherranche e otros vezinos e moradores del dicho lugar de Landa*» (Landa, Arratzu-Ubarrundia, 1514, Le. & C. & La., 26, 371. or.).

– **Unsalutxa**: *Vnsalucha* (Dur., d.g., Hid. et al., 1989c, 223, 940. or.). Cf. *Onsaluxe*.

– **Urtixe** (*Urti*): *Vrtixe de Sopena* (XV. m., LGS, 357). Ikus Irigoien (1994: 216-217).

– **Usoxe** (*Uso*): *Vsoxe de Vrrexti* (em., irudi duenez; Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 193. or.).

– **Zurixa, Zurixe** (*Zuri*): *Maria Çurixa* (Los Arcos, 1350, LPN, 333), *Zurixe* (gi.) (Irig., 1994: 17).

Irudi du zenbait aldiz goitzenekin ere erabil zitekeela: *Regexe de Gamboa* (XV. m., LGS, 234), «*La fija de Pangoaxe*», *Sarriaxe* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 260 eta 262. or.).

7.2.91. **-txeko** (< **-txe, xe + -ko**)

– **Joantxeko** (*Joan*). *Joancheco d'Aldasoro* (Segura, 1451, Aierbe, 2006, 213, 8. or.). 1616ko Urritzola-Galaingo *Joanchecorena* (Ue.p., 4.) etxe izenaren oinarrian ere badago.

7.2.92. **-txen** (< **-txe, xe / -x, -tx + -en**)

– **Joantxen, Juantxen** (*Joan, Juan*): *Juanchen d'Iarça* (Iartza, Lazkao aldean, 1426, Hid. et al., 1989, 1, 1. or. = *Juanche de Iarça*, ibid., 8. or.), *Joanchen de Aguirreçabal* (Segura, 1470, 233, 88. or.).

– **Katalintxen** (*Katalin*): «*Yten mando a Catalinchen, mi serbienta [...]*» (Oñ., 1517, Zu., 1998: 395).

7.2.93. **-txet** (< **-txe, -xe / -x, -tx + -et**)

– **Perutxet** (*Peru*): «*Juan de Liart alias Peruchet*» (Oibar, XVI. m., Oibarko Eliza Artxiboa, bataio liburua).

7.2.94. **-txeto** (< **-txe + -to**)

– **Joantxeto, Juantxeto** (*Joan, Juan*): *Johancheto aguerre* (Ziga, 1539, Eo.p., 1, 50), *Juancheto alcuarte* (Arraioz, 1541, Eo.p., 1, 139), «*Juancheto de aguerre alias Juancheto velca*» (Ziga, 1555, Eo.p., 56; *Joancheto aguerre* bera dela dirudi). Burutainen *Joanchetorena* etxea ageri da 1609an (Ue.p., 42).

7.2.95. **-txi**

– **Juantxi** (*Juan*): «*Mari Juanchi, fija de Juan Furtado*» (Ond., 1495, Enríquez, 1991, 18, 196. or.).

– **Martitxi** (*Marti*): *Martichi de Goyçueta, Martichi d'Oyarçaval* (Oiar. al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 100. or.).

Irigoienek (1995: 7) *Janchitegui Errandocoa* biltzen du eta dio hau *Jaunti, Jaunti*-ren moduko izena dela, baina atzizkia *-txi* dela oraingoan. Hone-taz landa, Artaxoako 1120ko *Meltxi* ere (cf. *Melchi, Garcia Melchi*, Art., 48, 63) jasotzen du Bizkaiko euskaltzainak, eta herri berean azaltzen den *Meltxo*-rekin lotzen (*Pero Miguel Melcho*, 1330, LPN, 299). Ikertzaile honek dioenez, *Meltxi* latineko *Melli(us)* izenetik dator; hauetaz lekora Arratiako *neskatxi* ‘neskatxa’ eta Bermeoko *alabatxi* (*alaba*-ren hipokoristikoa) ere aipatzen ditu. Nolanahi ere, irudi luke bizkaitar euskaltzainak ez zuela beti gogoan lehenago idatzi zuena, gauza bana erraten baitu, izen beraren etorkiaz, 1981eko lanean (388-389), 1994koan (236-237) eta aipatu dudan 1995eko horretan. Ikus *-so*, *-xo* atzizkiari atalean errandakoa, *Belso, Beltso, Beltxo* sarreran.

7.2.96. **-txin** (< **-txi** + **-in**)

– **Juantxin** (*Juan*): *Juanchin Velador* (Deba, c. 1444, Her. & Bar., 2006, 36, 133. or.).

7.2.97. **-txis** (< **-txi** + **-s**)

– **Peritxis** (*Peri*): «*En las casas de la mançeba de Perichis bibe ella mis-ma*» (Be., 1511, Enríquez et al., 1997, 240). Behin bakarrik ageri da dokumenta-zioan, eta ez da, beraz, segurua.

7.2.98. **-txito** (< **-txi** / **-txo** + **-ito** // **-txi** + **-to**)

– **Juantxito** (*Juan*). Anizko 1727ko *Juanchitorena*-ren oinarrian dago. Egun *Gantxitónja* erraten diote (*joan* > *gan* bezala). Cf. *Antxito, Gartxito, Pantxito*.

7.2.99. **-txo(a), -txu**

Atzizki hau bizirik dago, neurri batean, egungo gaztelanian (*Pilarcho, Ramoncho*...); Boyd-Bowmanek (1955: 365) euskaratik hedatu dela uste du. Van

Wijkek (1964: 309), etorkia aztertzeari lotu gabe, *-cho* gehienbat *-n*-ez bukatzen diren izenei itsasten zaiela zehazten du. Buesak, berriz, erraten du (1989: 43, 47) *Francho*, *Pancho* (*Francisco*) izenaren bukaera *Juan*-era zabaldu dela, eta *Juancho* sortu dela; orobat, eta autore beraren iritzian, *Alfonso*-tik ateratako *Poncho*-ren azken zatia *Ramoncho*-ra hedatu da. Izan ere, ikertzaile honek, hondarreko izenari doakionez, atzizkia edo bukaera *-oncho* dela erraten du, oker nire ustez, zeren *Ramoncho*-ren kasuan behinik behin garbi dago, izena *Ramon* bada, bukaera *-cho* besterik ez dela. Saurak (1999-2000: 178) *Perucho* jasotzen du Benasquen eta *-ucho* atzizkia daukala erraten; Azkuek dioena ezagutzeko (1969 [1923-1933]: 284) ikus daiteke. Ikus, berebat, *-ño* eta *-txo* sarrerak.

Lizopek dioenez (1931: 119), akitanierak *xo* izan du emazteki izenak egiteko (*Anderexo*, *Ehrexo*, *Hautenso*), *to* ez ezik, baina ez du euskararen egungo *-txo* edo *-to*-rekin lotzen. Autore honen irudituan, tokiko izen horiek ez zitzaizkien aise egokitzen latineko deklinabideei, zalantza franko baitaude izen bat deklinabide bati edo besteari atxikitzeke tenorean, eta artetan deklinatu gabe ere agertzen da.

Mitxelenak erraten du (1954: 443), euskarazko *-to* (*-tto*) Akitaniako *-to(n)*-ekin berdindu ondoan, eskualde honetako *-xo*, *-xso* euskarazko *-txo*-rekin aldera daitekeela eta idazkun zaharretako *Anderexo* egungo *andretxo*-ren kidea daitekeela (ikus *-to(a)*, *-tto(a)*-ri eskaini alttxoa). Beranduagoko beste lan batean (*FHV*, 186-187) *-t(t)o* eta *-txo* morfema beraren aldaerak ote diren segurua ez dela erraten du, akitanieran hauei dagozkien bi berrekailu desberdin baitaude: *-t(t)o* eta *-x(s)o*.

Gorrotxategik (1984: 131, 162, 205) *-x(s)o* gizon nahiz emazteki izenekin azal daitekeela aipatzen du, baina ez du zeharo garbi ikusten *Beltesonis*, *Harrausoni*, *Harousoni* eta *Larrasoni*-n ageri den *-soni*, *-sonis*-ekin erlazionatu beharra den. Lan berean (186. or.) *-s(s)-*, ardura, *-x(s)*-en partez dagoela dio, eta *Osson* : *Osson* eta *Odoxo* : *Odossi* pareekin batean *Baigorixo* : *Baigoriso* ere ematen du. Aurrerago (329. or.), *Haravsoni* edo *Harovsoni* teonimoa *Herauscorritshe* orobat jaingo izenaren *Heraus*-oinarriarekin berdindu eta gero, erraten du daitekeena dela oinarri horri *-x(s)o(n)*-en aldaera den *-so(n)*- atzizkia gehitu izana. Lan bikain honen bukaera aldean (ibid., 368-370), *-xso-*, *-xsus* edo *-xsi* eta *-xso(n)*-aipatutakoan, azaltzen du menturaz latinaren deklinabideari era batera baino gehiagotara egokitu zaion atzizki afrikatu bakarraren aitzinean garatekeela, eta Mitxelenaren hatzean gehitzen du, euskarazko *-xo*, *-txo*-rekin erkatu ondoren, *-to*-ren palatalizatzearen emaitzat har daitekeela. Ikus, halaber, autore beraren 1993b lana (152-153). Jimenok, Tobalinak eta Velazak (1998) atzizki hori berori bide duen Izkueko hilarriko *Abinsunsonis* (gen.) aipatzen dute.

Erabileraz kestone, B. Lizarragak erraten didanaren arabera, Leitzan artikulua emakume izenetan baizik ez da ageri, gutxitan gainera: *Joxepatxoa*,

Oxepatxoa, Joakinatxoa, Mariatxoa... Honetaz ikus Mitxelena (1955, 1959) eta Lekuona (1955) (28). Historian zehar ez da genero mozioa erabili izan, maiz oinarriko izenak bazuelako (*Agustinatxo, Juanatxo...*), edo izen hori garbiki emaztekiekin erabiltzen zelako, egungo *Anetxu, Bakartxo* edo *Estitxu*-rekin gertatzen den bezala. Baziren, halarik ere, *-a* bukaera zutenak; ikus *-txe(a)*, *-xe(a)*, *-(t)xa*-ri eskainitako atala.

Bildu ditudan egungo lekukotasunak hauek dira:

- **Adriantxo** (*Adrian*): *Adrjántxo* (Ea., Sak.er.).
- **Aimartxo** (*Aimar*): *Aimártxo* (Eu.).
- **Anetxu** (*Ane*): *Anétxu* (Iru.).
- **Antoniato** (*Antonia*). Zubirik eta Perurenak (1998: 211) biltzen dituzten bertso batzuetan ageri da, baina bertso horiek ez dira Urumea bazterreko herrikoak, nahiz han jasoak diren.
- **Arritxu**: *Arritokieta* (Zumaiako Andre Mariaren ermita) izenaren hipokoristikoa da, aski arrunta. Ikus daitekeen moduan, *-txu* atzizkia *Arri* aldaera laburtuari itsatsi zaio. *Harritxu* berezkoa ere, izen ttipia ez dena alegia, bada.
- **Austintxo, Auxintxo** (*Austin*): *Aústintxo* (Ig.), *Áuxtintxò* (Lei.).
- **Bakartxo** (*Bakarne*): *Bakártxo* (Iru.).
- **Domintxo** (*Domingo*). *Domíntxo* (Les.).
- **Erramuntxo, Ramontxo, Ramuntxo** (*Erramun, Ramon, Ramun*): *Errámuntxò* (Goi.), *Ramóntxo* (Eu., Ig., Sak., Zug.), *Rámontxò* (Lei.), *Ramuntxo Mintegui* (*He.*, 2003-X-9, 8), *Ramuntxo* (*Haz.*, *He.*, 2004-VII-1, 4), *Ramuntxo Duhart* (*Ma.-Le.*, *He.*, 2004-XI-18, 4), *Ramuntxo Orhategaray*, *Ramuntxo Urruty* (*Bi.*, *He.*, 2004-XII-2, 5), *Ramuntxo Etchart* (*Haz.*, *He.*, 2006-X-12, 4).
- **Estebantxo** (*Esteban*): *Estebántxo* (El.); Uterga herriko 1727ko *Estebanchorena* etxe izenaren oinarrian ere badago.
- **Estitxu** (*Esti* < *Estibalitz*): *Estítxu* (nonahi orain, Hegoaldean; Aranzan eta Lesakan, erraterako).
- **Fermintxo, Mintxo** (*Fermin*): *Fermíntxo* (Ea., El., Eu., Ig., Sak.er.), *Férmintxò* (Lei.; orokorra Hegoaldean), *Míntxo* (Ul.). Goizuetako 1678ko etxeen zerrendan «*Fermin de Zubiri dueño de Ferminchonea*» dago (P. Perurenak emandako datua).
- **Finatxo** (*Fina*. Ikus zazpigarren atalaren hastea): *Finátxo* (Urdiain).
- **Grabeltxo** (*Grab(i)el*, ustez): *Grabeltxo(nak)* (Bakaiku edo Iturmendiko izengoitia, Ondarra, 2005: 496).
- **Ikertxo** (*Iker*): *Ikértxo* (Iru.).
- **Isabeltxo, Ixabeltxo** (*Isabel, Ixabel*): *Ixábeltxò* (Lei.); Goizuetako *Isabelchonea* etxe izenean *Isabeltxo* dago (XIX. m., *Her.*, 1978: 78).

(28) Leraten *Domingoa* dokumentatzen da 1350ean (*LPN*, 372).

- **Itziartxo Iziartxo** (*Itziar, Iziar*): *Itziártxo* (Eu.), *Izjártxo* (Arr.).
- **Joakinatxo, Joakinatxoa, Juakinatxoa, Joakintxo, Juakintxo** (*Joakina, Juakina, Joakin, Juakin*): *Jwakíntxo* (Ea., Sak.er.), *Jwakíntxo* (El.), *Juakíntxo* (Eu.), *Joákinatxò, Jwakinátxoa, Joakínatxoà, Jwákíntxò* (Lei.), *Joakíntxo* (Oitz), *Joakinatxo Astibia* (Lei., Peru., 1996: 7, 221). Etxegaraik (1926: 118) Burgiko *Joakintxo* oikonimoa jasotzen du; Goizuetan *Joaquinchoneco borda* zegoen XIX. mendean (Her., 1978: 82).
 - **Joanatxo, Juanatxo** (*Joana, Juana*): *Johanacho* (Narbarte, 1727), *Johanacho Sagardi* (Elgorriaga, 1531, Eo.p., 1, 101), *Jwanátxo* (Zug.). *Joanatcho* Biarrizko etxea zen XVIII. mendean (Iglesias, 2000: 116-117, 265); Arraitzan 1727an *Juanachorena* oikonimoa zegoen.
 - **Joanestxo** (*Joanes*): *Joánestxò* (Lei.).
 - **Joantxo** (*Joan*), **Juantxo** (*Juan*): *Johancho de Bera* (Bera, 1366, LPN, 567), *Joancho Goicoa* (Aletxa, 1456, Po., 1998, 24. or.), *Joancho de Arrieta* (Zekuiano, 1456, Po., 1998, 24. or.), *Juancho de Ondarmuno* (Idiazabal, 1463, Aierbe, 2006, 218, 23. or.), *Joancho de Aizarna* (Tolosa, 1475, Aierbe, 1993, 41, 124. or.), *Juancho Luçea* (Zaldu., 1486, Po., 2001, 14, 386. or.), *Juancho* (Oñ., 1489, Ugarte, 1973: 369), *Joantcho d'Estenaga* (sic), *Juancho* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 265 eta 268. or.), *Juancho de Garmendia, Juancho de Sarasti* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Juancho de Ugalde* (ibid., 100. or.), *Juancho* (Lekeitio, 1511, Enríquez et al., 1997, 213), *Juanchu de Ocomardia* (Oñ., 1514-1516; Zu., 1998: 339), *Juancho de Udabe* (Udabe, 1587, HA.p., 5), *Juancho* (Aizpitarte, XVIII. m., Knörr, 1981: 96), *Jwántxo* (El., Eu., Ig., Iru., Lab., Les., Oitz, Sak.), *Jwántxò* (Lei.), *Juantxo Arotxa* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 188).
 - **Jontxo, Jontxu** (*Jon*): *Jóntxo* (Ea.), *Jóntxu* (Eo., Lab.).
 - **Joxeakintxo** (*Joxeakin*): *Jóxeakíntxò* (Lei.).
 - **Joxepatxo, Joxepatxoa, Oxepatxo** (*Joxepa*): *Jóxepatxò, Joxépatxoà, Óxepatxò* (Lei.).
 - **Josetxo, Joxetxo, Oxetxo** (*Jose, Joxe*): *Josétxo* (Arr., Ea., El., Eu., Ig., Iru., Lab., Oitz, Zug.), *Joxétxò, Oxétxò* (Goi.), *Jósetxò* (Lei.).
 - **Juliantxo** (*Julian*): *Juljántxo* (El.), *Júljangtxò* (Lei.).
 - **Karmentxo, Karmentxu, Mentxu** (*Kármén*): *Karméntxu* (Arr., Eu., Iru.), *Kármentxò, Kármentxù* (Lei.), *Méntxu* (Irungoa; Arantzan bizi da), *Karmentxo* (Etxegarai, 1926: 84, Loidi, 1968: 76).
 - **Katalintxo(a)** (*Katalin*), **Katelinatxo** (*Katelina*): *Catelinacho* (Joan Perez Lazarragakoa, 1567, 20. org.), *Catalinchoa* (Pasaia, 1635, Elortegi, 1992: 56), *Katalintxo Lizarraga* (Lei., Peru., 1996: 237). Leitzan *Catalinhonea* etxe izena azaltzen da 1726an; egun *Katalintxone(a), Katalintxoneko borda* daude (Peru., 1996: 94, 147, 206).
 - **Kristobeltxo, Kristoaltxo** (*Kristo(b)al, *Kristobel*): *Christovelcho de Sagarçuça* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Kristoaltxo* (Lei.). Unanuko *Kristoaltxôna* oikonimoaren oinarrian ere badago (Erdozia, 2001: 205).

– **Leontxo** (*Leon*): *Leóntxo* (El.). Uste dut ez dela *Lorentxo*, *Loentxo*-tik ateratako forma.

– **Lurtxo** (*Lur*): *Lúrtxo* (Iru.).

– **Madalentxo, Maalentxo, Malentxo** (*Madalena*): *Maléntxo* (Ea.), *Maálentxò* (Goi.; adinekoa). *Madalentxo* XVII. mendeko gutun batean ageri da (Irigarai, 1971: 64-65): «Jesus M^a dala gurequin. nic uste deçu (sic) lecua dedala escribicecoç argatik yce[z] esanion madalenchori eman [...]». J. M. Satrustegik ere eman zuen argitara urte batzuk beranduago (1987: 43), alde zenbaitekin: «Jesus A. dala gurequin. Nic, vste deçu, lecu[a] dedala escribicecoç; argatic yceç esan nion, madalenchori eman, mesede eguin digue [...]». *Malentxo*, bestalde, *Garoa*-ko pertsonaia baten izena da.

– **Maitetxu** (*Maitè*): *Máitétxu* (Lab., *Máj* eta *Máitte* ere deitzen dute; Oitz).

– **Manuelatxu, Manulatxo** (*Manuela, Manula*): «*Neure alaba Manuelatxu*» (Azkuek [urterik gabe, 19] jasotzen duen erromantzearen izena da hau), *Manulatxo* (Lei., Peru., 1996: 160).

– **Manueltxo** (*Manuel*): *Mánweltxò* (Lei.), *Manueltxo* (*Garoa*, 31. or.).

– **Mariatxo(a)** (*Maria*): *Mariacho de Vasauri*, «*Mariacho, fija de Herroyeco*» (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 264. or.), *Mariacho de Ondaçorrer*, *Mariacho de Vriçar* (Elorrio, 1511, Enríquez et al., 1997, 154. or.), «*Maria e Mariacho de Leyça*» (Lizartza, 1515, Le. & G., 1998: 267), *Mariacho* (Elgoibar aldea, 1516, Elortza, 2000, 18, 107. or.), *Mariacho* (*Maria*-ren ama; Eo., 1529, Eo.p., 1, 82), *Mariacho putorena* (Elgorriaga, 1531, Eo.p., 1, 101), *Mariacho de ezcurra* (Igoa, 1547, At.p., 1, 72), *Mariacho de Gaztelu* (Done., 1554, A.p., 1, 145), *Mariacho de Yriarte* (Arzotz, 1577, Li.p., 1bis), *Mariatxo* (Lei., Peru., 1996: 229), *Márjatxò*, *Márjatxoà* (Lei.).

– **Maritxo, Maritxu, Maitxu** (*Mari(a)*): *Marichu de Leanisbaso* (Dur., d.g., Hid. et al., 1989c, 223, 972. or.), *Maritxo* (Iztueta, 1990: 295), *Maritxu* (Azkuek [urterik gabe, 18] biltzen duen kantuararen izena da). Egun ere ezaguna da *Marítxò* (Goi.), *Marítxu* (Ara., Auza, El., Eu., Ig., Oitz, Zug.) hipokoristikoa.

– **Martintxo** (*Martin*): *Martincho de Larzanguren* (Zeg., 1454, Po., 2001, 11, 18. or.), «*Martincho de Yrigoyen e Martincho de Idiaçabal*» (Tolosa, 1475, Aierbe, 1993, 41, 124. or.), *Martyncho de Biçiola* (Legazpiko ibarra, 1483, Aierbe, 1993, 34, 121. or.), *Martincho de Larraguibel* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 6. or.), *Martincho* (Oñ., 1489, Ugarte, 1973: 369), *Martincho de Garybay*, *Martincho de Larriatoro* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 245 eta 246. or.), *Martincho d'Echiberría* (sic) (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Martincho de Costortegui* (Legazpi, 1513, Aierbe, 2006, 290, 274. or.), *Myncho. de osacar*, *Myncho. de aldaz* (Bere., 1581, Ih.p., 1), *Martintxo* (Iztueta, 1990: 295), *Martintxo* (Aniz, Arr., El., Eu., Ig., It., Oitz, Sak., Zug.), *Mártintxò* (Lei.).

– **Migeltxo, Mieltxo** (*Migel*): *Mielcho de bechalecu* (sic, Osk., 1548, HA.p., 1), *Miguelcho de Juancote* (= *Miguelto de Joancote*, Etxeberri, 1580, ibid., 4). Egungo egunean ere, ezaguna den bezala, arrunt ugariak dira *Migeltxo*-ak;

Berroetan, adibidez, *Migéltxo*, *Miéltxo* dugu, Arruazun, Etxalarren, Iturenen, Oitzen eta Sakanan *Migéltxo*, Goizuetan *Miéltxò* eta Leitzan *Migéltxò*, *Miéltxò*; hondarreko herri honetan Perurenak (1996: 18) *Mieltxo Yoantzarkoa* biltzen du.

– **Mikelatxo** (*Mik(a)ela*): *Mikélatxò* (Lei.), *Mikelatxo* (Lei., Peru., 1996: 172).

– **Mikeltxo** (*Mikel*): *Miquelcho de altamira* (Goi., 1550, Ih.p., 1), *Mikeltxò* (Lei.).

– **Mirentxu** (*Miren*): *Miréntxù* (Goi.), *Miréntxu* (Lab., Zug.). Hagitz hedatua dago Hegoaldean.

– **Oxemiritxo** (*Oxemiri* < *Oxemari* < *Joxemari*): *Oxémiritxò* (Goi.).

– **Patxitxo** (*Patxi*): *Patxítxo* (Aniz).

– **Paulinatxoa** (*Paulina*): *Paulinatxua* (Lei., Peru., 1996: 135).

– **Pedrutxo** (**Pedru, Pedro*): «*Pedrucho, el sesmero*» (Guardia, 1350, LPN, 342), *Pedrútxo* (Ua.). Ikus *Pedrutzon*, beherago.

– **Perikotxo** (*Periko*): *Périkotxò* (Lei.), *Perikotxo Lasarte* (Lei., Peru., 1996: 10).

– **Perutxo, Perutxu** (*Peru*): *Perucho d’Eliçaondo* (Iru., 1366, LPN, 549), «*Pero Martines sobrenonbre Perucho*» (Legazpi, 1384, D.Sal., 55), *Perucho de Ybarburu* (Erre., 1425, C. & C. & G., 1991, 33), *Perucho de Coziain* (Luz., Sat., 1969: 71), «*Perucho, fijo de Pero Luça*» (Araia, 1455, Po., 2001, 12, 33. or.), *Perucho Veengoa* (Zaldu., 1460, Po., 2001, 6, 342. or.), *Perucho de Alzola* (Elgoibar, 1462, Aierbe & Etxezarraga, 1999: 77), «*Perucho de Vribarri* (Adana, 1465, Po., 2005, 109, 567. or.), «*Perucho, fijo de Martin Corostydy*» (Mark., 1471, ibid., 102), *Perucho de Monesteriobide* (Ber., 1488, Lema, 2007b, 17, 69. or.), *Perucho* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 256. or.), *Perucho de Aranbuian*, *Perucho de Cornoça*, *Perucho de Beloaga*, *Perucho de Urbietta*, *Perucho de Arisinado* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99-100 or.), *Perucho* (Urbisu, 1490; Po., 1988: 181), *Perucho de Marquina* (Elorrio, 1501, Hidalgo et al., 23), *Maria de Peruchu* (Urduña, 1511, Enríquez et al., 1997, 76. or.), *Perucho Bazterreco* («Barayona»-n, Burundán, 1516, Po., 2001, 43, 255. or.), *Perucho de Ondarra* (Ziordia, 1516; ibid., 265. or.), *Perucho* (Aizpitarte, XVIII. m., Knörr, 1981: 96). Cf. D. Intzak Lizarraga Ergoienean eta Goizuetan jaso zuen esaera hau: «*Nolako Perutxo, alako Maritxo*» (1974: 18, 65).

– **Petratxu** (*Petra*): «*Bira bira, monte / zozo Bizente / Ibarrangelun alkate, / Bilbon errekidore; / gure auzoko Petratxu bere / atzera bira leiteke*». Azkuek bildua da (1969, II, 775).

– **Piedatxo** (*Piedad*): *Pjédaxò* (Done.), *Pjedátxo* (Ig.).

– **Pilartxo** (*Pilar*): *Pilarcho* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Pilartxò* (Lei.), *Pilártxo* (El., Les.).

– **Rafaeltxo** (*Rafael*): *Rafaéltxo* (El.).

– **Xabiertxo, Jabiertxo** (*Xabier, Jabier*): *Jabjértxo* (Ara., El., Ig., Iru., Les.), *Xabjértxo* (Eu.), *Xábjertxò*, *Jábjertxò* (Lei.). Pío Barojak *Javiercho* darabil liburu batean (Knörr, 2002: 613).

Aurkitu ditudan lekukotasun dokumentalak, berriz, ondoko hauek dira:

– **Agedatxo** (*Ageda*). Munarrizko oikonimoa da egun (Egillor, 2001: 126).

– **Agustinatxo** (*Agustina*). Lasarte Gipuzkoako 1716ko testu batean ageri da (Sat., 1987: 62): «*Daga Espataq eraguin ditut Armero baten echean / Agustinatxo Ybillico nais Surequin nere gaisean*».

– **Anatxo** (*Ana*). Kintanak (2004: 581) *Anacho audicanna* dakusa Juan Perez Lazarragakoaren izkribuetan, baina testuaren transkribatzaileak (ikus Perez Lazarragakoa, 2004 [c. 1567], 20. or. ginberra) *Anacho Audicarra* irakurri du eta nik ere hola dela uste dut. Hipokoristikoaren ondoan dagoen *Audicarra* forma *Audika* (*Audicana* gaztelaniaz) arabar herrikoen gentilizioa da. Hemen mintzagai dugun izen ttipia Lekunberriko 1726ko *Anachonea* oikonimoan ere ageri dela irudi du; Unanuko egungo *Anatxôna*-n ere badago (Erdozia, 2001: 205).

– **Barbaratxo** (*Barbara*). Goizuetako *Barbarachonea* (behiala), *Barbaratxone* (egun) oikonimoaren oinarrian dago (Her., 1978: 80, 87).

– **Beltxo**: *Belcho de Echeuerria* (Eraul, 1255, Irantzu, 231. or.). Ikus *-so*, *-xo* atzizkiari eskainitako ataltxoan diodana, *Belso*, *Beltso*, *Beltxo* aztertzean.

– **Doloretxo** (*Dolores*). Pío Barojak darabil, bere liburuetakoko batean (Knörr, 2002: 612).

– **Domingotxo** (*Domingo*). Arantzako (1726) eta Goizuetako (1700etik aurrera; Her., 1978: 79) *Domingochonea* etxe izenean azaltzen da.

– **Enetxo**, **Enitxo**. Irigoienen iritzian (1983: 22, 23) Erdi Aroko *Enecho*, *Enicho* grafien azpian *Enetx*, *Enitxo* ere izan genitzake, *Eneko*, *Eniko* ez ezik. Ikus *Enexo* sarrera, *-so*, *-xo*-ri eskainitako atalñoan.

– **Estebetxo** (*Estebe*): *Estebecho de Arpide* (Oiar.al., 1475, C. & C. & G., 1997, 62, 35. or.), *Estevecho de Vergara*, *Estevecho d'Olayçola*, *Estevecho de Juanderrotarena* (Oiar.al., 1490, ibid., 81, 99. or.).

– **Ferrantxo** (*Ferrant*, *Ferrand*): *Ferrancho de munjayn* (Etxarri Etxauribar, 1521, J.p., 5).

– **Filipetxo** (*Filipe*). Etxegaraik (1926: 118) aipatzen duen Orotz-Beteluko *Filipitxo* oikonimoan dagoela dirudi.

– **Frantziskotxo** (*Frantzisko*). Goizuetako *Franziscochoena* (1726), *Frantziskenené* (egun) oikonimoaren oinarrian dago. Etxegaraik (1926: 118) Nagoreko *Franziskotxo* etxe izena dakar; nik *Franziscoto* bildu dut 1849an herri horretan (A.h., 3, 90-91. or.).

– **Gastetxo** (*Gaste*, *Gastea*): *Gastecho Barrueta* (1448, Gipuzkoa, Irigoien, 1982: 624). Garraldan 1726an azaltzen den *Asteacho* oikonimoan *Gastea*-ren aldaera datekeen *Astea* egon liteke.

– **Gorgoritxo** (*Gergori*, *Gorgori(o)*). Lakuntzako *Gorgorichonecoa* (1779) oikonimoan ageri da.

– **Gorritxo** (cf. *Gorri*, *Gorria* identifikatzaile ohikoa). Berriobeiti (Jimeno, 1992: 232), Sunbilla (1726), Beraskoain eta Biurrungo (1727) *Gorrichorena* oikonimoen oinarrian zegoen. Oñatin *Gorrichotegui* zegoen 1762an, *Gorritxitxi* egun (Ugarte & Zumalde, 1975: 105).

– **Grazitxo** (*Grazi*): *Graçicho* (Bilbo, 1470, Enríquez et al., 1996b, 194, 295. or.).

– **Jakobetxo** (*Jakobe*). Goizuetako *Jacobecheona* oikonimoaren (1726) oinarrian dago.

– **Joanetxo** (*Joane*): *Joan Lopez dicho Joanecho* (Agurain, 1510, Lema, 2007b, 59, 206. or.), *Joanecho de Uralde* (ibid., 207. or.), *Joanecho* (NVP, 416).

– **Joantxu, Juantxu** (*Joan, Juan*): *Juanchu de Uriburu* (1415, Arra., Crespo et al., 1996, 72, 36. or.), *Joanchu de Ayçarna* (Tolosa, 1470, Le. & Ta., 1996, 18, 59. or.), «*Joan Dies de Alda y Joanchu, su sobryno*» (Alda, 1474, Aierbe, 2006, 247, 154. or.), «*Joanchu fijo de la byuda, y Joan fijo de Joanchu*» (Kontrasta, ibid.), *Joanchu de Deua* (Agurain – Harana aldean, ibid.), «*Joan Portal e Johanchu Mertin, su hijo*» (Leintz Gatzaga, 1477, Zu., 1994, 13, 80. or.), «*Joanchu fijo de la viuda, e Joan fijo de Joanchu, vesino de la villa de Contrasta [...] e a Joanchu de Deva*» (Kontrasta, 1474, Aierbe, 2006, 247, 151. or.), *Johanchu rementero, Johanchu de Errota* (Deba, 1483, Bar. & Her., 2006, 2, 5. or.).

– **Lopetxo** (*Lope*), **Lopatxo** (*Lopa*): «*Lopecho et Miquèle Costero*» (Behorlegi, 1350-1353, CPBN, 68. or.), *Lopecho de Otañes* (XV. m., LGS, 316), *Lopecho de Ybarreta* (Zeg., 1454, Po., 2001, 11, 19. or.), *Lopecho de Vlibarri* (Urbisu, 1490; Po., 1988; 181), *Lopecho, Lopecho de Lecuona* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Lopecho* (Ira., 1540, At.p., 1), *Lopecho de sagasti, Lopecho de diagorena* (Bere., 1581, Ih.p., 1), *Lopacho* (Zier., 1970: 364).

– **Mariabonatxo** (*Mariabona*-ren hipokoristikoa; cf. *Maribona*, Pasaia, 1628, Elortegi, 1992: 56; *Maria la bona*, ibid., 1634. Cf., gainera, *Bona*, Larraga, 1330, LPN, 234): *Mariabonacho* (Pasaia, 1654, Elortegi, 1992: 57).

– **Marijuantxo** (*Marijuan*). Saldiasako 1726ko *Marijuanchonea* oikonimoaren oinarrian dago.

– **Marinatxo** (*Marina*): *Marinacho de Ybarguren* (Elorrio, 1511, Enríquez et al., 1997, 148. or.).

– **Martietxo** (*Martie*): *Martiecho de Ysurrieta, Martiecho de Faloaga* (Oiar.al., 1475, C. & C. & G., 1997, 62, 35. or.), *Martiecho de Ardoys* (ibid., 1478, 69, 56. or.), *Martiecho de Orosqo* (Dur., 1487, Hid. et al., 1989b, 68, 377. or.), *Martiecho de Garmendia, Martiecho Palmas, Martiecho de Ausoque, Martiecho de Garbuno, Martiecho Dardos* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 81, 99. or.), *Martiecho d'Alça* (ibid., 100. or.), *Martiecho de Lequioda* (Oñ., 1502, Zu., 1999: 76 ≠ *Chartin de Lequioda*, ibid.), *Martiecho* (Eu., 1548, At.p., 1, 81), *Martiecho de alli* (Alli, 1594, Le.p., 1).

– **Martitxo** (*Marti*): *Marticho de Erescano* (Lamindao, Dima, 1456, Hidalgo de Cisneros et al., 19, 386), *Marticho de Laçaguren, Maticho de Larçaguren* (Zeg., 1471, 244, 139-140. or.), *Marticho* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 255.

or.), *Marticho de Yvarria*, *Marticho de Borda*, *Marticho de Udiçavar*, *Marticho de Licardi* (Oiar.al., 1490, C. & C. & G., 1997, 100. or.), «*Marticho de Labayen, alcalde de Aguinaga*» (1493, Zier. & Ram., 1998, III.19), *Marticho mussu*, *Marticho musu* (Eu., c. 1494, Urritzola, 2007: 63), *Marticho d'Echaray* (Zeg., 1516, Po., 2001, 43, 239. or.), *Marticho Sarabo* (Segura, 1516, ibid., 241. or.), *Marticho de Guendulayn* (Erripa, 1536, At.p., 1. 36), *Marticho lucea*, *Marticho laspidea*, *Marticho gorrindo* (Aurtiz, 1538, Eo.p., 1, 115), *Marticho de ecaburu* (Ilarr., 1537, At.p., 1, 22), *Marticho* (Eu., 1548, HA.p., 1).

– **Martutxo** (**Martu*, *Marto* 'Marti'-tik hain segur. Cf. *Martitxo*): *Martucho de Ardos* (Oiar.al., 1474, C. & C. & G., 1997, 59, 25. or. Ez dakit ziur *Martucho* hau gero ageri den *Martie de Ardos*-i edo *Martisco de Ardos*-i dagokion [ibid., 1475, 62, 35. or.], baina baietz ematen du. Beste agiri batean *Martin de Ardoys*, *Martiecho de Ardoys* eta *Machis d'Ardoys* azaltzen dira; 1478, ibid., 69, 56. or.).

– **Matrolotxu** (*Martolo*, *Matrolo* 'Bartolo'): *Matrolochu* (Unamunok darabil, Knörr, 2002: 615).

– **Mengatxo** (*Menga* < *Domenga*): *Mengacho de Iohannes Cidez* (c. 1210, Mont., 232. Euskal Herritik kanpoko, antza), *D. Mengacho* (Erriberri, 1244, Zier. & Ses., 1980: 147), *Mengacho* (Tutera, 1300, Ziganda, 2007: 14).

– **Mengutxo** (**Mengu?* Cf. *Mengo*. Euskal Herritik kanpoko, Magañaakoa): *Mengucho* (1184, Mont., 201).

– **Migiletxo** (*Migele*). Ilarregiko 1726ko *Miguelechonea* oikonimoaren oinarrian da (cf. urte bereko Golarazko *Miguletorena*).

– **Mikallatxo** (*Mikalla*): *Mikallatxo* (*Garoa*, 220. or.).

– **Mikeletxo** (*Mikele*): «*Miquelecho de Çuaznabar, dicho pilaje*» (Oiar.al., 1478, C. & C. & G., 1997, 71, 70. or.), *Miquelecho de Çubillaga* (Amezketan, 1519, Aierbe, 2006, 311, 335. or.), *Miquelecho de cubieta* (Zubieta, 1538, Eo.p., 1, 115), *Miquelecho de erasun* (Era., 1552, At.p., 1, 82), *Miquelecho berasayn* (Beratsain, 1552, At.p., 1, 127), «*Miquelecho de echalecu vezino del lugar de echalecu*» (Eu., 1552, At.p., 1, 121), «*la casa de miquelacho de altamjra*» (Goi., 1560, NAO, proceso, 66569).

– **Otxotxo** (*Otxo(a)*): *Ochocho Alaman* (Estellerria, XIII. m., GPrior., 121). Irigoienek *-txo* atzizkia duela dio, baina baliteke *Ochoco* (*Otxoko*) transkribatzeko modua besterik ez izatea. Ezin seguru egon, halarik ere.

– **Paulatxo** (*Paula*): *Paulatxo* (*Garoa*, 119. or.).

– **Pedrotxo** (*Pedro*): *Pedrocho pascoalena* (Ezkurra, 1556, At.p., 1), *Pedrocho el de Juandeollo* (Irurtzun, 1594, HA.p., 4). Alkotzen *Pedrochorena* etxea ageri da 1606an (I.p., 32bis, 92), Ukarren *Pedrochoenecoa* 1727an. Irañetan *Pedrotxo* dago egun (Erdozia, 2004: 492, 515).

– **Pepeitxo** (*Pepe*): *Pepecho* (Aizpitarte, XVIII. m., Knörr, 1981: 96).

– **Peritxo** (*Peri*): «*Juan Peres de Menica e Pericho, su moço*» (Dur., 1443, Hid. et al., 1989, 9, 35. or.), *Pericho de Gorostiça* (Mark., 1471, Enríquez, 1989, 4), *Pericho de Lexarça* (Mark., 1490, Enríquez, 1989, 19). Joan Perez Lazarragoak *Pericho* darabil (2004 [c. 1567], 26. org.). Cf. «*la casa de Perichoena*»

(Sondika, 1704, Kortezubi, 1796; Irigoien & Olasolo, 1998: 2185). Subitzan *Perichorena* oikonimoa ageri da 1677an, *Perochena* eta *Peruchena* berantago (Jimeno, 1987: 431-432).

– **Perotxo(a)** (*Pero* nahiz *Perotx*): «*Roy Periz fio de don Perocho*» (Martzilla, 1309, Zab., 1997, 225, 387. or.), *Perocho* (1368, Goih., 1966: 391), *Perochoa de Arta* (Mark., 1508, Enr. & Sar., 1989, 23, 307. or.), *Perochoa de Loytya* (Ziortza, 1508, Enr. & Sar., 1989, 23, 308. or.), *Perocho de Oria* (Oñ., 1516, Zu., 1998: 389), *Perocho Yribarren* (Ira., 1537, At.p., 1, 22).

– **Petritxo, Petritxo** (*Petri*): *Petrycho de San Pere* (1414, Castro, XXXI, 176, 91. or.), *Petricho Luçea* (Oiar.al., 1478, C. & C. & G., 1997, 69, 56. or.), *Petricho de arizcun* (Eo., 1529, Eo.p., 1, 82), *Petricho de Oyarain* (Goi., 1550, Ih.p., 1), *Petricho de descarga* (Goi., 1560, NAO, proceso, 66569), *Petrichoa* (Ondarroala, Sat., 1969: 74. Segur aski *Petritoa*, *Petrittoa*, *Prettittua* bera). Berueten eta Labaienen *Petrichonea* oikonimoa azaltzen da 1726an.

– **Samurtxo** (*Samur?*): *Samurcho Ortiz* (Ibiltzieta, 1072, Leire, 97). Luchairek (1881: 166) *Samurco Ortiz* irakurtzen du eta dio osagaiak *samur* ‘tendre’ eta *-ko* direla.

– **Txatxutxo** (*Txatxu*): «*Joan de Çumeta, dicho Chachuluçe e Maria su muger, e Joango su fiyo, dicho Chachucho*» (Ziz.-Ad., 1470, Le. & Ta., 1996, 18, 62. or.).

– **Txurdantxo** (*Xurdan(a)*, *Txurdan(a)*). Arantzako 1726ko *Churdanchonea* etxe izenean dugu.

– **Txurdintxo** (*Txurdin*): «*Churdincho yerno de Johango*» (Les., 1423; Jiménez de Aberasturi, 1980: 393).

– **Urdintxo** (*Urdin*): *Ourdincho* (1359, Ruiz, 1997, 195), *Sancho de Urdincho* (Zan., 1414, Castro, XXXI, 548, 297. or.), *Garcia Hurdincho* (Zan., 1501, Jimeno, 1973: 305). Makirriain Ezkabarten eta Ilarregin *Urdinchorena* ageri da 1726an, Iraizotzen 1727an.

7.2.100. **-txoki** (< **-txo** + **-ki**)

Aski zalantzazkoa da atzizkia:

– **Martitxoki**. Aranoko *Martichoqui* (1726), *Martitxiki* (orain) oikoni-moan egon daiteke. Berrekailurik eza dela eta, cf. herri bereko *Perucho*, *Zapatarri* (1726), *Péutxò*, *Zapátai* (egun). Bestalde, *-txoki* bukaera *-txiki* bihurtzea herri etimologiari zor zaioke.

7.2.101. **-txon** (< **-txo** + **-on**), **-txun** (< **-txu** + **-on**)

– **Juantsun** (*Juan*): *Juanchun d’Elorduy*, *Juanchun de Yraçabal*, *Juanchun de Ugarteçabal* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 262 eta 266. or.).

– **Mariatxon** (*Maria*): *Mariachon*, «*la fija de Gabiria Mariachon*», *Mariachon de Çuloeta* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 249, 251 eta 259. or.).

– **Martitxon** (*Marti*): *Martichon de Olaran* (Zeg., 1470, Aierbe, 2006, 231, 82. or.).

– **Pedrutxon** (**Pedru, Pedro*): *Pedruchon* (Guardia, 1366, LPN, 633). Hau, halarik ere, erdarazko *Pedrucho*-ren «bir-hipokoristikoa» izan liteke (cf. *delgaducho, feucho*). Ikus Guardiako *Pedrucho*, *-txo*-ri eskainitako atalñoan eta *Peruzon*, *-zon* atzizkian.

7.2.102. **-txonki** (< **-txo** + **-on** + **-ki**)

– **Mariatxonki** (*Maria*): *Mariachonqui* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 254. or.).

7.2.103. **-txot(e, a)** (< **-txo** + **-ot(e, a)** / **-txo** + **-te(a)**)

Iglesiasek (2000: 75, 80, 264-265), BABeko datuez ari delarik, euskarazko atzizkia *-txo* dela erraten du eta bukaerako *-t* hori mutu eta analogikoa dela. Honек balio dezake menturaz aipatu alderdi horretako izenendako, baina ez Oreiengo lekukoarendako.

– **Joantxot, Juantxot(e)** (*Joan*): *Joanchot Oreien* (Oreien, 1578, HA.p., 4); Sunbillan *Juanchotena* eta *Juanchotenea* etxeak zeuden 1726an.

– **Kulautxot** (*Nikolau*): *Coulau(t)chot* (Iglesias, 2000: 265).

– **Maritxot, Marixot** (*Mari*): *Marichout* (Iglesias, 2000: 265, 281). Ikertzaile honen irudiko *-chout* gisa gaskoitu den *-txo* euskarazko atzizkia dugu hemen. Cf. *Peiretxota*. Oieregin *Marixot* edo *Marisot*-en oinarriturik bide dagoen *Marisotena* oikonimoa ageri da 1615ean (Ue.p., 43) (ikus *-sot* atzizkia).

– **Martitxot** (*Marti*): *Martichot* (Iglesias, 2000: 265). Autore honek oinarrian *Martitxo* dagoela dio eta *-t* hori «adventice» dela.

– **Mikeutxot** (*Mikeu*): *Miqueuchot* (BAB, 1568. Iglesias, 2000: 264, 282).

– **Perutxote** (*Peru*): *Peruchote de Otañes* (XV. m., LGS, 340), *Peruchote* (Zaldu., 1464, Po., 2001, 8, 356. or.).

7.2.104. **-txto** (< **-tx** + **-to**)

– **Perotxto** (*Pero*-tik; *Perotx* + *-to* ditugula ere kontu egin daiteke, jakina): *Perochto de Yribarren* (Erripa, 1536, At.p., 1, 36), *Perochto motella delso* (Eltsu, 1549, At.p., 1, 85). Larraintzarren 1552an *Perochtoarena* etxea ageri da (At.p., 1, 118).

7.2.105. **-txuko** (< **-txu** + **-ko**)

– **Juantxuko** (*Juan*; *Juantxu* + *-ko* ere uler daiteke, jakina): *Juanchuco de Valçategui* (Oñatiko konderrria, 1485, Zu., 1994, 30, 209. or.).

7.2.106. **-tzo, -tza** (cf. *-zo, -zu, -za*)

– **Gamitza** (*Gami-*): *Gamica, Gamiza* (nom.; MD, 1965, 9, 30), *Gamizani, Gamizane* (gen., ibid., 6, 90)... Irigoienek (1983: 15-16) izen honetan *-tza* atzizkia dagoela dio, baina ez du zehazten hau zertzat hartu beharra den. Oinarria *Gami* da ikertzaile beraren arabera, hau da, kristau idazkUNETAKO *Gamius, Gamio*-ren aldaera. *Gamitza* irakurri behar bide den honen aldamenean Zuñigako 1366ko *Gamiz* dugu, zein izen bera baita Irigoienek arabera, bukaerako bokala eskas badu ere. Hau Bizkaiko eta Arabako *Gamiz* toponimo nagusia bera da, eta, hortaz, bizkaitar euskaltzainaren irudituan, aztergai dugun antroponimoa dateke bi herrialde horietako *Gamiz* sorrarazi duena, ez Caro Barojak nahi zuen bezala **Gamicus* baten **Gamici* genitiboa.

- **Gorritzo, Gorritza** (ikus *-zo, -zu, -za*).
- **Jabetzo** (*Javier*): *Jabétzo* (Les.; mutil azkarra da, Fontán).
- **Juanto** (*Juan*): *Jwántzo* (Lab.; gizon azkarra).
- **Mieltzo** (*Miel*): *Miélto* (Zubietako mutil gazte azkarra).
- **Unaitzo** (*Unai*): *Undáitzo* (Les.; mutil kozkorra da, Fontán).
- **Zabiertzo** (*Xabier*): *Zabjértzo* (Les.; mutil zabala da, Fontán).

7.2.107. **-uelo, -uela**

Erdaraz erabili eta erabiltzen den atzizkia da hau; jatorria latineko *-ŏlus* tonikoan du (Menéndez Pidal, 1977 [1904]: 228; González Ollé, 1962: 119, 189. Ikus, orobat, lan bereko 281. orrialdea). Zenbait aldiz ez dakit seguru atzizkia *-ŏlus*-etik atera den ala *-ĕllus*-etik; irudi luke berrekailuak beregaintasuna lortu zuela eta edozein oinarriri erants zekiokela.

Lekuko gehienak Nafarroako Erriberakoak dira:

- **Garziuela** (*Garzi(a)*): «*Garçiuela, fillo de Pero Sesma*» (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 165).
- **Garzuela** (*Garzo*): *Garçuela* (Oiertza, Zizur zendea, 1256, Irantzuz, 239. or. Gizona dateke).
- **Izuela** (*Iza*): «*Ybraym Caluo tenia pupillo a Yçuela, fillo de Lop d'Ohea*» (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 166).

– **Markesuela** (*Markesa*): *Marquesuela* (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 165). Llullek (2005: 23) *marca* germaniar izen arruntetik eratorritzen du *Marquès* antroponimoa; autore honek azaltzen du Mallorcan XIII. mendean bazirela *Marquès* batzuk, baina ohikoagoa zela *Marquesa* emazteki izena eta honen *Marquesina* eratorria.

– **Pedruelo** (*Pedro*): *Pedruelo de Sesma* (Cárcar, 1280, Zabalo, 1972: 55), «*Pedruelo, fi de Miguel*» (Milagro, 1330, LPN, 256), *Pedruelo* (Artaxoa, 1330, LPN, 300), *Pedruelo* (Cascante, 1353, Ur., 1961: 172). Honetaz ikus Glez. Ollé (1962: 195).

– **Santxuelo, Santxuela** (*Santxo, Santxa*): *Sanchuela* (1214, Iru., Jim. & Jim., 1998, 111, 169. or.), «*Sansuelo, nieto de don Bitá Pedro*» (Uxue-Oliva, 1230, Munita, 1984, 13, 61. or.), «*Pedruelo e Sanchuelo mens filtz*» (Zan., 1293, Ost., 322), *Sanchuelo* (Almuntza, 1330, LPN, 277), *Sanchuelo de Sant Vicent* (Donaz., 1391, Goih., 1966: 160).

– **Teresuela** (*Teresa*): *Theresuela* (Ablitas, 1353, Ur., 1961: 165).

7.2.108. **-x, -tx** (cf. *-s* eta *-(t)xa*, bigarren hau *-txe(a)*, *-xe(a)* atzizkiari eskaini atalean)

Mitxelenak (1954: 416) *-oss(o)* edo *-ox(o)* bukaera aipatzen du lehenik (*Alardossi, Andossus, Andoxus, Ilunnosi...*), eta gero (ibid., 418), *Andos* izena aztertzean, erraten du hau *Andossus*-en aldaera baizik ez dela, akitanierako formatik hurbilago dagoena. Gorrotxategiren arabera (1984: 134) «jatorrizko izenak latineko deklinabideari egokitzearen arazoa oso konponbide zailekoa da, gauzatzeko orduan ageri duen ñabartasunagatik». *Andossus, Andos*-en kasuan oinarria *-s*-rekin bukatzen zatekeen, baina aipatu egokitzen dela eta *-s*-rekin idatziko zen oraingoan. Amaiera bereko beste izen batzuk, ordea, *-x-z* izkiriaturik aurkitzen ditugu, Gasteizko irakasleak dioenez. Beste batean (*ILVNNOSI*, ibid., 228) *-os(s)o-* atzizkia aipatzen du (*Andossus, Bortossi...*) eta gaineratzen ohiko grafia *-ss-* baldin bada ere, zenbait aldiz *-s-* ere azaltzen dela, *Andose* eta *Baiosi* teonimoetan, konparazio baterako.

Ikertzaile honek berak (ibid., 126, 139, 368-369), *-oss(o)*, *-ox(o)*-atzizkia aipatu eta gero, erraten du lehen aldaeraren osagaiak *o* bokala eta nola-baiteko elementu afrikatua direla. Oinarriaren bukaerako bokalaren arabera atzizkiak aldaera desberdinak dituela gaineratzen du (*-iss(o)* eta *-ass*), eta zuzenean oinarriari eratxikitzen zaionean, tarteko bokalik gabe, *-x(s)-(o)-* dugula, *-x(s)-us* bilakatua nominatibo singularrean (*Bihoxus, Hannaxus*, ibid., 176). *Bontof* izena aztertzean (1984: 175) *-tossus* atzizkia aipatzen du, *Bortossi* genitiboan dagokeen bera, eta dio konposatua dela eta osagaiak *-to* eta *-(o)ss* direla. Hurrengo orrialdean, berriz, *-oss(o)-* dakusa *Bortossi*-n, eta aitzinago, lanaren bukaera aldean (368. or.) *-osso-*. Autore berak *Anderexo*-n dugun *-x(s)o* atzizkiaren

aldaera datekeen *-s* ere, *Anderes* eta *Hannas*-en dagokeena, hartzen du solasgai beste toki batean (ibid., 129). *LOHIXSI* sarreran (ibid., 234) izenak *-x(s)*- atzizkia duela azaltzen du eta berrekailu hau berau opatzen dugula *Hannaxus*, *Bihoxus* eta bestetan; akabailan (368. or.), berriz, *-xsus*, *-xsi* dakusa *Bonxus*, *Bonxsus*, *Hannaxus*, *Lohixsi* eta *Uloboxo*-n. Beste zenbait aldiz, *HALOISSO* sarreran adibidez (ibid., 328), *-iss* atzizkia aipatzen du.

Gorrotxategik berak, beranduagoko beste lan batean (2003: 29-30, 32), erraten du *Andos*, *Andossus*, *Andoxus*, *Handos* eta besteren oinarriaren bukaera soinu afrikatua dela, euskarazko /ts/ hain zuzen ere. Etimologiaz denaz bezainbatean, orain uste du bukaera *dots* ‘(abere) arra’ izena dela, Hagenbacheko zilarrezko xafletan ageri ere den *Doxxi* (gen.) antroponimoan dugun berbera, ez aitzineko beste lan batzuetan erran zuen bezala atzizkia. *Dots* hori *ordots*, *bildots* eta *ondosco* ‘ahari gaztea’ euskarazko kabala izenetan ere azaltzen da. Oinarria, ez bairik gabe, eta *Handos* aldaera ikusirik, euskarazko *handi*-rekin lot dezakegu, nahiz eta, Bähr-*ez* geroztik gutxienez, aspiraziorik ez izateak galierako *ande*-aurrizki indargarriarekin erlazionatzera bulkatu dituen ikertzaileak. Osotasunak ‘dominus’ adiera du, hots, *Andere* ‘andrea’-ren baliokide maskulinoa da.

Lopez-Mugartzak (2008: 254-255) *-(e)tx*, *-etx*, *-itx*, *-(o)tx*, *-utx* bukaerak, *Galetx*, *Martitx*, *Nekotx*, *Petrotx*, *Salbotx* eta bestetan daudenak «*-iz*, *-ez*, *-ix* eta antzeko atzizki patronimikoen sailekoa»-k direla erraten du, eta baliteke hau horrela izatea (cf. *Brasco*-tik atera den *domingo Brascoch de Roncal*, 1631), baina ez du patronimikoa dela erakusten. Egia da Erronkarin (*h*)aitza hitza *atxa* bihurtu zela, edo *gaitza* > *gatxa* (cf. *Mendigatxa* deitura), Euskal Herriaren beste muturrean bezala, eta aipatu ditudan horien azpian **Galeitz*, (*E*)*nekoitz*, *Martitz*, *Petroitz* eta **Salboitz* egon litezkeela, baina frogarria falta da. Bestalde, *-tx* horiek hipokoristikoak izan daitezke (ikus Salaberrri, 2003: 178, 224), jarraian heldu diren datuetan ikus daitekeen bezala; *-txe(a)*, *-xe(a)*, *-(t)xa* atzizkiari eskainitako atalñoa ere so egin daiteke. Gainera, ezin da erabat baztertu, Lopez-Mugartzak egiten duen bezala, hauen oinarrian, edo batzuetan behintzat, *-etxe* dugulako ustea, berak ematen dituen datuetan *Necoechea* garbi ageri baita, adibidez.

Hauk dira nik kausitu ditudan datuak:

– **Benatx** (*Benat*, *Beinat*, *Bernat*): *Benach Ezponda*, *Benach Vidart* (Gazari, 1364, Goih., 1966: 170).

– **Domikux** (*Domiku*): *Domicus Arreysaga* (NB, 1249, Goih., 1966: 362). Cf. *Domikuxa*.

– **Domentx**, **Domintx**. Hau lortzeko (cf. *Domix* emazteki izena), *Domingo* > **Domen*, *Domingo* > **Domin* bilakaera burutu dela (cf. *Txomin*) pentsatu beharra dago, eta gero atzizkia atxiki zaiola; gogoan hartu beharra da, gainera, Lesakan *Domintxo* dugula bizirik. Arizkungo *Domenchenea* (1645,

NTEMLII-1, 100), *Dominchenea* (1726, Ondarra, 1984: 8), *Dominchenea* (1825, Ba.h., 1, 92 zkia., 62. org.), *Domintxénja* (egun (29)) oikonimoan ageri da mintzagai dugun izen ttpia. Orpustanek dioenez (2000: 203), *Domintx* berriki arte egon da bizirik Euskal Herrian; Iglesiasek (2000: 278-280) Biarrizko *Domeinch de Larrendouette* dakar. Ormaetxearen laneko pertsonaietako bat (1976: 162) *Domitxi Irurte'ko* da, baina, batetik, ez dakit berak asmatua den edo oinarri errealik baduen, eta, bestetik, ez dakit *Domintx*-en (erabateko) baliokidea den.

– **Enekox, Enekotx** (*Eneko*): «*Mary Enecox, criada de Rodrigo*» (Bilbo, 1464, Enríquez et al., 1996b, 102. or.), *Enecoch* (Del Valle, 1933, 181). Mitxelena eta Irigaraik Del Valleren *Enecoch* hori *Enekoitz* patronimikotik atera dela uste dute, *Onsaluch* **Onsalutz*-etik atera den era berean, eta segur aski azken ikertzaile hori oker dagoela (NVP, 414). Nik, ordea, uste dut *Enekotx* forma *Eneko*-ren hipokoristikoa ere izan daitekeela eta Del Valle hizpidean zegokeela; cf. *Perotx*, *Perutx* eta *-txe* duten izen ugariak.

– **Garbix** (**Garbi* batetik?): *Garbiss Maniz* (Erronkari aldean, 1098, Leire, 162). Ikus *Garbiso*, *Garbixo*.

– **Joanetx** (*Joane*): *Johanech d'Istilarte* (Lekaroz, 1366, LPN, 533).

– **Joanox** (*Joan*): *Joanoy de Larendoet* (Bai., 1469, Goih., 1966: 101). Cf., dena dela, *Joanoies*. Hemen, gainera, tarteko *-o-* hori azalkizun geldituko litzateke.

– **Lopitx** (*Lope*). Lanzko (1726), Iraizozko eta Gaskueko (1727) *Lopichena* oikonimoaren oinarrian dagoela dirudi. Nolanahiko gisan, ezaguna da *tx*-ren ondoko *e > i* hersketa (*etxe > itxe*, adibidez) eta, beraz, pentsa daiteke *Lopitx* gabe **Lopetx* dugula. Guztiaz ere, hersketaren kariatara, Allin *Lopichorena* ageri da 1726an eta Antxoritzen *Lopitxo* dago orain (Ibarra, 2002: 502).

– **Maritx** (*Mari*): *Marich* (Irulegi, 1350-53, CPBN, 14. or.), *Marich* (Ziga [Zuraurre], 1532, Eo.p., 1, 120). Goldaratz (1587, HA.p., 5), Etxarri Larraun eta Leazkuen *Marichena* oikonimoa azaltzen da 1726an. *Maritxenea* oikonimoa bizirik dago oraino Elgorriagan eta Iturenen (Iñigo, 1996: 489 eta 536).

– **Martix, Martitx** (*Marti*): *Martix* (Donibane Lohizune, 1451, Goih., 1966: 54), «*Martix, fijo de Yraegui, clavetero*» (Oñ., 1514, Zu., 1999: 160). Cf. *Martixa*, *Martitxa*, *Martitxe* gorago. Nabatzen *Martixena* zegoen 1544an (HA.p., 1), Galarren *Martigena* 1594an, *Martichena* 1675ean (Jimeno, 1987: 294), Alkotzen *Martixena* 1616an (Ue.p., 44) eta Baraibarren 1726an.

– **Menautux** (*Menauto*, **Menautu*): *Menautuch de meyllorve* (Gü., 1412-13, CPBN, 76. or.). Cf. *Menautuko*.

– **Migelox** (*Migelo*). Getze Galarko *Migueloxena* oikonimoan dago (1727).

(29) Patxi Menta arizkundar irakasle eta filologoak dioskunez, *-nja* eta *-néa* ebakerak dira ezagunak herrian, hiztunaren arabera, ez bakarrik hizkuntzaren arabera. Salaburuk (1984: 312) *-néa* biltzen du: *Mañtonéa*, *Mapitzenéa*, *Matxintonéa*... Beste herri batzuetan ebakera hauek erdaraz mintzatzean dira ohiko; euskaraz, berriz, *-nja* egiten da.

– **Mitxetx** (*Mitxel*). Aritzuko 1726ko *Michechena*-ren oinarrian dagoke.

– **Peritx, Perix** (*Peri*; ikus NVP, 412): «*Perix el baquero*» (Oñ., 1514-1516; Zu., 1998: 363 = «*Perox el baquero*», *ibid.*, 374), «*Pedro de gortayri llamado perich*» (Arraioz, 1539, Eo.p., 1, 85). Ostitzen *Perichena* etxe izena ageri da 1608an (Ue.p., 42), Lantzen 1650ean (Ue.p., 41) eta 1726an, Sunbillan hondarreko urtean, Iruritan 1825ean (Ba.h., 1, 92 zkoa., 60. or.).

– **Perotx, Perox** (*Pero*): *Peroch de Çuraurre* (Iru., 1350, Ur., 1952: 87), *Peroch d'Isçille* (Garazi, 1364, Goih., 1966: 170), *Peroch* (Irunberri, 1366, LPN, 487), *Peroch d'Urrarin* (Err., 1366, LPN, 531), *Peroch de Lehet* (Sara, 1396, Goih., 1966: 60), *Peroch de Santa Gracia* (Jutsi, 1399, *ibid.*, 226), *Perox de Santa Gracia* (1400, *ibid.*), *Perox de Alçibar* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 260. or.), *Peroch de echarri* (Bidaurreta, 1509, J.p., 5), «*Perox el baquero*» (Oñ., 1514-1516; Zu., 1998: 374 = «*Perix el baquero*», *ibid.*, 363. or.), *Peroch petrarena* (Oronoz, 1522, Eo.p., 1, 44), *Peroch de goyeneche* (Aniz, 1530, Eo.p., 1, 140), *Peroch Yribarren* (Ira., 1537, At.p., 1, 22), *Peroch de aoyca* (Auza, 1537, At.p., 1), *Peroch de miquel larrearena* (Lar., 1551, At.p., 1, 85).

– **Perutx, Perux** (*Peru*): *Peruch d'Iriuarren* (Ari., 1366, LPN, 531), *Peruch Arçaya* (Eo., 1366, LPN, 532), «*Perus de Lequerica e Perus de Rexil* (= *Perusqui de Roxey*) e *Perus de Maturana* (= *Perusqui de Maturana*)» (Aramaio, 1499; Bazán & Martín, 1999: 59), *Peruch marirena* (Ziga, 1539, Eo.p., 1, 49).

– **Petrotx, Petrox** (*Petro*): «*Aznar Petrox, el de fuera*» (Burgi, 1366, LPN, 479), *Garciaton Petrox* (Urzainki, 1366, LPN, 478).

– **Romirotx**: *Romiroch Yartuco* (1600 baino lehenagokoa). Mitxelenak eta Bidegainek (1954: 186) erdarazko *Ramírez*-en ordainez egon daitekeela azaltzen dute, hots, *Ramiro*-ren patronimikoa izan daitekeela, baina gehitzen dute *Ramirito*-ren baliokidea ere izan daitekeela.

– **Salbotx** (*Salbo*): *Salbotx* (oraingo deitura. Beste azalpen bat ere baduke; ikus gorago, atal honetan berean).

7.2.109. **-xito** (< **-x** + **-ito**)

– **Juanxito** (*Juan*): *Juanxito de Liçahur* (Andoain, 1475, Aierbe, 1993, 40, 122. or.). *Juanzito*-ren hipokoristikoa beharbada? Cf., gainera, *Juantxito*, *-txito* atzizkiari eskaini atalñoan.

7.2.110. **-xto** (< **-x** + **-to**). Cf. *-sto* eta *-txto*.

– **Perixto** (*Peri*): *Perixto* (Irur., 1541, Eo.p., 1, 94).

– **Peroxto** (*Pero*): *Peroxto de Elso* (= *Perosto de Elso*, Latasa edo Eltso, 1549, Urritzola, 2006: 119, 123).

7.2.111. **-zo, -zu, -za** (cf. *-tzo, -tza*)

Luchairek (1881: 160) Gipuzkoako egungo *-txo, -txu* txikigarria daku-sa Leireko *Anderezu, Andereço*-ren azpian (*Anderezu* eta *Andereco* badaude, baina ez, dakidanez, *Andereço*-rik). Mitxelenak (*AV*, 20. or.) *-sso, -zo, -zu* atzizkiak aipatzen dituen arren, ez dakar bestelako zehaztapenik. Ez dakit Rohlfsek (1951 [1933]: 484-486 eta 512) ematen duen *-as* (Gaskuña) / *-azo* (Aragoi) // *-òs* (Gaskuña) parekatzeak atzizki handigarriekin zerikusirik ba ote duen, hots, eta buruenean, latineko *-aceum, -oceum*-ekin loturik ote dagoen. Arazoetako bat bokala galtzearen arrazoia ematea litzateke. Aisekiago azal daiteke hastean adjektiboak sortzeko ibili bide zen *-iciu* atzizkiaren eratorritzat (ibid., 507), alegia, Pirinioen iparraldeko isurialdean *-is* eta aragoieran *-izo* denaren haurridetzat, hau alemaniar ikertzailearen arabera txikigarria ere izan baitaiteke. Zernahi dela, bokalaren arazoak hor jarraitzen du, ez da desagertu.

Ménédez Pidalek (1986 [1926], 41₂, 209) Santoñako kartularioko *Ortiço, Hortiço* biltzen du eta dio kristau idazkun batean aurkitutako *Forticius* bera dela. Irigoienek (1995: 23) *Belazo, Garseça, Gasseza* eta *Lopeço* formek *-iciu, -icia*-rekin loturik dauden galdegiten dio bere buruari, hasierako *-i*-rik ez badute ere. Alabaina, egiantz handiagokoa iruditzen zaio *-cius, -cia* eta *-tius, -tia* bukaerak zituzten latineko izenetan oinarriturik egotea, analogiaz. Nolanahi ere den, euskaltzain zenak *-tza* atzizkia *-tza* multzokaritik bereizi beharra dela uste du, hondarreko honen aldaera zaharra *-tzaha* zelako. Gorrotxategik (1984: 132) *Anderexso* izenean ageri den atzizkia iruzkintzean honela dio: «Frecuentemente [se documenta] en nombres medievales: *Andreçu* [...] y su variante *Anderazo* [...], *Anderaza* [...], *Nunuso* (frente a *Nunuto*) [...], *Annaso* [...], *Anasso* [...]». Honek menturaz erran nahi duke izen hauetako bukaerak, hau da, hemen aztergai duguna eta *-s(s)o*, atzizki bera direla.

Lekukotasunak:

– **Anderaza, Anderazo, Anderazu, Anderezu, Enderazu** (oinarrrian *Andere* dago. Cf. *Andre*, Apardoze, 991, M. Duque, 12): *Anderazo* (759, Ubieto, 1976, 1, 9. or.), «*Ego Paternus et uxor mea Anderazu*» (940, ibid., 28, 44. or.; Val., 945, 20, 40. or.), «*Ego Paternus et uxor mea Enderazu*» (Val., 945, 41. or.), *Anderazo, Anderazu* (ibid., 957, 35, 57. or.), *Anderaza* (ibid., 984-995, 46, 68. or.), «*Kasa de Anderezu Xemenones*» (Itzalle, XI. m., Leire, 184), *Andereçu Heresaiz* (Gudugarreta, Gipuzkoa, XI. m., Leire; Gorrotxategik aipatzen du, 1984: 128), *Andereçu* (1142-1159, Goñi, 240), *Anderaza* (Gorr., 1984, 132). M. Alvar-ek (1976: 23-24) *andere*-rekin lotzen du izena, baina bukaerarako franko sinesgaitz eta bitxi zaidan *-azo* ‘atsoa’ proposatzen du. Gorrotxategik (1984: 132) Akitaniako idazkUNETAN azaltzen den *-x(s)o*-rekin (*Anderexso, Anderexo*...) eta Erdi Aroko *-s(s)o*-rekin (*Annaso, Anasso, Nunuso*) lotzen du, aipatu bezala, eta *Anderazo* forma *Anderezu*-ren aldaera dela ere badio.

– **Ferruzu**: «*Iuxta limite de Ferruzu*» (San Juan de Orbañanos, 867, Ubieto, 1976, 8, 18. or.), *Ferruzu* (956, ibid., 70, 83. or.). Ez dago batere argi, dena dela, hipokoristikoa ote den; cf. «*Oveco Ferruci de Salinas et Munnio Ferruci*» (988, ibid., 100, 114. or.). Irigoienek (1983: 21) *Ferruzo* eta *Ferruzu* izenetan dauden *-tzo*, *-tzu* atzizkiak aipatzen ditu (bai eta *-tzi* ere, baina badaiteke hau patronimikoaren atzizkiaren loturik egotea); nire iritzian, ordea, izen horien bukaerak *-zo*, *-zu* berdin irakur daitezke. Beranduagoko beste lan batean (1995: 23), goraxeago ikusi moduan, *Belazo* (*Bela*; cf. *Velaza* deitura) eta *Garseza*, *Garseza* (*Garsea*) ere biltzen ditu.

– **Gorriza, Gorrizo** (cf. *Gorri, Gorria* identifikatzaile ohikoa): *Maria Gorriza, Pero Gorriço* (Artaxoa, 1330, LPN, 300), *Maria Gorriça* (Zirauki, 1350, ibid., 373). *Gorriza* Mañeruibarko herri hustua ere bada (ikus LPN, 375).

– **Lopez** (*Lope*), **Lopaza** (*Lopa*): *Lopaza* (Val., 973, PS, 43, 65. or.), *Miguel Lopeço* (Artaxoa, 1330, LPN, 292). Ez dakit Oñatin 1489an ageri den *Lopençu* (*Lopençu de Larinaga*, Zu., 1994, 34, 258. or.) hemen sartu behar den ala oraindaino opatu ez dugun berrekailutzat hartu behar den.

– **Perizu** (*Peri*): *Peryçu de Ysaso* (Oñ., 1489, Zu., 1994, 34, 261. or.).

– **Peroza** (*Pero*). Alkozko 1609ko *Peroçarena* oikonimoaren oinarrian dateke (Ue.p., 42).

Artaxoan *Marcuz* izentzat ere ageri da, patronimikotzat ez ezik: «... *de Marcuz et de sorore sua Oneca*» (Art., c. 1169, 129); Garaziko *Joantz* zalantzazkoa da (1189, Goih., 1966: 174. Cf. *Berganton / Bergantin / Bergantz*, Grosclaude, 1992: 56). Bestalde, ez dakit Oñatiko 1489ko *Guereça* izenak (*Guereça de Çuaçola*, Zu., 1994, 34, 258. or.) atal honetan aztertu dudana berrekailuarekin zerikusirik baduenetz.

Buruenik, aipatu nahi dut badela *-iza* (edo *-itza*, beharbada) bukaera duen emakume-izen sail bat, bestek (Del Valle, 1933:177-178) eta neronek (Iñigo & Salaberry, 1997: 268) femenino hustako hartu duguna, hots, ez hipokoristikotzat, baina egun ez nago horretaz orain dela urte batzuk bezain seguru: *Domecoyza* – *Domicuza*, *Joaneyça*, *Lopeyça* – *Lopiza*, *Mariza*, *Martiza*, *Miqueleiza* – *Miqueliza*, *Periça*...

7.2.112. **-zon** (< **-zo** + **-on**)

Izen bakarra bildu dut, eta ezin, beraz, hagitx seguru egon atzizkiaren izaeraz.

– **Peruzon** (*Peru*; cf. *Pedruxon*, gorago): *Peruçon de Cantal* (Deba, 1518-20, Fdez. & Mont. & He., 2007, 110, 514. or.).

7.3. Hipokoristikoak egiteko hirugarren bidea: izenen laburtzea

Gorago erran dudan bezala, hirugarren bide hau lehenarekin batean azaldu ohi da, hots, aldaera laburtuak bustirik agertzen dira gehienetan. Datuak ikusteko beste modu bat palatalizatzea burutu aitzinetik izenak laburtuak zeudela kontu egitea da, alegia, *Anuntzi*, *Asun*, *Estanis*... genituela pentsatzea, eta hauek gero *Anuntxi*, *Axun*, *Ixtanix* bihurtu zirela. Hau, alabaina, gogorra egiten da zenbait izenekin (**Domin*, **Kontzezi*, **Mertze*) eta inoiz garbi xamar dago aldaera laburtuak forma bustian duela iturri (*Mantto*). Behin edo beste bigarren erabidearekin batean ere opatzen dugu, hots, izen laburtua atzizki hipokoristikoarekin batean aurkitzen dugu.

Izenak hastapenetik labur daitezke (aferesia), erditik (izen trinkotze eta barne laburtzea) eta bukaeratik (apokopea), kasu guztietan galdutakoa tamaina berekoa ez delarik, gainera. Horien aldakan, beste ikertzaile batzuek egiten dutenari jarraikiz, errepikapen edo bikoizketa deitu ohi dena ere eman dut. Zenbaitetan izen bat toki batean baino gehiagotan sar daiteke, eta mugak tarteka ez dira zeharo garbi egoten, errealitatea nik alde zurretik prestatua nion orkoi herstitik itzurtzen delako. Gainera, inoiz izen ttipia non sartu ez nekien, eta horien dako «bestelakoak» deitu saila apailatu dut. Nolanahiko gisan, Stratmannek gatzelaniarako dioen moduan (1935: 30, 35), aitortu beharra dago nabarmena dela izenak errazak eta laburrak egiteko euskaran dagoen joera, zein ere den xede hori erdiesteko ibiltzen den bidea.

Beste hizkuntzetan ere ezagunak dira izen laburtzeak: alemana dela eta (*Kurznamen*, *Abkürzungsnamen* deitzen dituzte), adibidez, Naumannen (1976: 14 eta hurr., 1996: 1759) eta Debusen (1988: 37) datuetan ikus daiteke izenaren lehen parte ezaba daitekeela (*Andreas* → *Dreas* edo *Reas*, *Beate* → *Ate*, *Cornelis* → *Nelis*, *Garlinde* → *Linde*, *Joachim* → *Achim*, *Wolfgang* → *Gang*), bigarrena (*Andreas* → *Andre(e)*, *Dietmar* → *Diet*, *Eckehard* → *Ecke*, *Isabel* → *Isa*, *Wolfgang* → *Wolf*), erdikoa (*Beatrix* → *Bax*, *Erika* → *Eka*, *Gisela* → *Gila*, *Helmut* → *Helut*, *Marina* → *Mana*, *Monika* → *Moka* eta *Mona*, *Regina* → *Rena*, *Ursula* → *Ula* eta *Ulla*), bi aldeetakoak (*Angelika* → *Geli*, *Claudia* → *Laudi*, *Cornelia* → *Neli*, *Dolores* → *Lore*, *Joachim* → *Achi*, *Sebastian* → *Basti*) eta, halaber, handik eta hemendik moztu daitekeela (*Dominique* → *Doi*, *Liselotte* → *Lilo*, *Veronika* → *Vroni*). Hizkuntza honetan, izen bikoitzetan oinarritutako laburtzeak ere badira: *Klaus-Volker* → *Kafau*, *Hans-Jürgen* → *Hajü* (Schultheis, 1976: 79), *Anne-Kathrin* → *Anneka*, *Birgit-Charlotte* → *Bi-Cha*, *Hans-Joachim* → *Hajo*, *Jens-Peter* → *Jepe*... (Debus, 1988: 37).

Frantsesean ere antzeko zerbait dago: izena hasieratik labur daiteke (*Honorine* → *Norine*), bukaeratik (*Bénédicte* → *Béne*), bietatik aukeran (*Nicolas* → *Nico* / *Colas*), edo bietatik nahitaez (*Enmanuel* → *Manu*). Izen bikoitzen hi-

pokoristikoak ere badira: *Laure-Lise* → *Loli*, *Marie-Alice* → *Mali* nahiz *Mili*, *Marie-Emilie* → *Mami*... (Plénat, 1984: 173-175).

Errusieran, ingelesean (*Henry* → *Hank*, *Matthew* → *Matt*, *Richard* → *Dick*, *Theodore* → *Teddy*; ikus Seeman, 1983: 241), alemanean (*Elfriede* → *Elfi*, *Gertrud* → *Gerti*, *Wilhelm* → *Willi*..., Wiese, 2001: 136), frantsesean (ikus beheherago), gaztelanian (*Concepción* → *Concha*, *Mercedes* → *Merche*, *Yolanda* → *Yoli*...) eta beste hizkuntzetan agitzen den bezala, euskaraz ere hipokoristikoez zenbait aldaketa morfonologiko eta morfologiko jasaten dituzte, azentu aldaketaz landara:

- Palatalizazioa: *Aitziber* → *Atxi*, *Anuntziacion* → *Anuntxi*, *Arantzazu* → *Arantxa*, *Asier* → *Axi*, *Asuntzion* → *Axun*, *Bartolomeo* → *Bartololo*, *Katalina*, *Katrin* → *Katti*, *Telesfora* → *Titeles*...
- Bokalkaltze edo diptongo baxuntzea: *Aitziber* → *Atxi*, *Juan Frantzisko* → *Zanfran*, *Juan Jose* → *Kankoxe*... Historikoetan *Juantxo*, *Juantxu* → *Txatxo*, *Txatxu* aipa daiteke, bai eta, kodaren galtzapenarekin edo hori gabe –nondik eratoritzen dugun–, *Juanperi*([t]z) → *Txaperi* ere.
- Bokalkaltzea:
 - *a* → *i*: *Arantxa* → *Arantxi*, *Fernando* → *Perdi*, *Madalena* → *Maddi*, *Mikaela* → *Miki*, *Romualda* → *Romi*. Batzuetan *i* bokala galdu den segmentuan zegoen: *Barbara* → *Barbaita* → *Barbi*, *Kattalina* → *Katti*. Hau femeninoak egiteko Hegoaldean dagoen joerarekin lotu beharra da. Ikus gorago.
 - *a* → *o*: *Alejandro* → *Alejo*. Hau alemanez ere ezaguna da: *Gerbert* → *Gebbo*, *Hermann* → *Hemmo*... (Naumann, 1996: 1758).
 - *e* → *i*: *Alejandro* → *Ali*, *Eufemia* → *Ufemia* → *Ufi*. Ikus gorago erran dudana.
- Atzizki gehiketa:
 - *Txu*: *Arritokieta* → *Arri* → *Arritxu*, *Bakarne* → **Bakar* → *Bakar txo*, *Estibaliz* → *Esti* → *Estitxu*.
- Kontsonante galtzea: *Birjina* → **Birkinia* → *Birji*, *Biki* (cf. *Edurne* → *Nune*), *Fernando* → *Feñan* (cf. *Bernardo* → *Beñardo*, *Bernat* → *Beñat*), *Frantzisko* → *Patxi*, *Kankoxe* → *Kakox*, *Patrizia* → *Patti*. Azken honetan palatalizazioak sexua bereizten lagundu du, Leitzañan bederik. Cf. *Patrizio* → *Patri*. Lee-Shoenfeldek (2002: 19), alemaneko ele laburtuak aztertzen ari delarik, erraten du ingelesez *Patricia* izena *Patty* laburtzen dela, ez *Patry*, hain zuzen ere forma laburtu hutsak, «the bare truncatum» delakoak (alegia, *-i* atzizkirik ez due-

nak) onartzeko moduko silaba izan behar duelako; alemanez ere murrizketa bera dago: *Andreas* → *Andi*, *Gabriele* → *Gabi*, erraterako. Frantsesean ere kontsonante multzoaren bakuntzea –eta kontsonantearen errepikapena– dugu izen honetan, maskulinoan segurik: *Patrice* → *Papi* (Plénat, 1982: 105). Boyd-Bowmanek dioenez (1955: 344 eta 358), *Pachi* aldaera *Patricia*-ren hipokoristikoa da Mexikon eta Txilen.

- Kontsonante aldaketa: *Jabier* → *Kapi*, *Jesus* → *Ketzu*, *Juan Franzisko* → *Zanfran*.
- Asimilazioa (ikus «errepikapen edo bikoizketa» atalñoa): *Dominika* → **Domi* → *Momi* (cf. *Edurne* → *Nune*), *Jean-Pierre* → *Xanpier* → **Xanpi* → *Panpi* edo *Jean-Pierre* → *Xanpier* → **Panpier* → *Panpi*, *Josune* → *Totune* → *Totu*.

Kontsonante multzoak bakuntzeko joera hori bera kausitzen dugu beste hizkuntza batzuetan ere, erran bezala. Alemana dela eta, honela dio Grüter-ek (2003: 37):

«In addition to the prosodic constraints on the shape of the truncated form, there also exist restrictions on the segmental and melodic material tolerated in the hypocoristic, in particular with regard to consonant clusters».

Hizkuntza horretan «onset» edo silaba-hastean kontsonante multzoak saihesten dira, baina bakarrik bigarren silaban: *Gabriele* → *Gabi* (ez **Gabri*), *Gäbu*, ez lehenbizikoan: *Gregor* → *Gregu* (ibid.); multzoan sudurkaria eta herskari homorganikoa daudenean, ordea, ez dago bakuntzerik, edo ez erabatekoa behinik behin (Wiese, 2001: 137, Grüter, 2003: 40): *Andreas* → *Andi* – *Ändü*, *Franko* → *Franki* – *Fränku*, *Jean-Pierre* → *Schämpu*. Grüter-ek atxikitzen diren multzoen inguramendua zabaltzen du, aleman baturako (*Hans* → *Han.si*) eta Bernakorako (*Hans* → *Hän.su*, *Herbert* → *He.bu*, *Norbert* → *Nö.bu*, *Oskar* → *Ös.ku*, *Viktor* → *Viktu*, *Wa[w]ter* → *Wä[w].tu...*); hauetaz lekora, «onset» bihurtu diren «kodak» daude (*Konrad* → *Kö.nu*, *Manfred* → *Ma.ni*, *Os[v]ald* → *Ö.su*, *Silvan* → *Si.lu...*). Aipatu ikertzailearen arabera (ibid., 42), hizkuntzaren fonotaktika da agintzen duena, kontsonante multzoak onartzeko edo ez onartzeko denboran, horien ozentasun profila azken batean. Kontuan hartu behar da, horren karietara, hona ekarritako ize-netarik franko, historikoki, konposatuak direla.

Frantsesez ere bakuntzen dira kontsonante multzoak hipokoristikoe-tan: *Catherine* ([katRín]) → *Titi(ne)*, *Brigitte* → *Bijou*, *Christine* → *Kikine* edo *Kiki*, *Fabrice* → *Babi*, *François* → *Fanfä*, *Fanfou*, *Fafou*, *Marguerite* ([maRgRit]) → *Guiguitte*, *Sandrine* → *Sandou...* Ez beti, hala ere, zenbait aldiz kontsonante

multzoa erraztua duen aldaera hola ez duenaren aldakan kausitzen dugulako: *Brigitte* → *Bribri* eta *Bibi*, edo *Brijou* eta *Bijou*, *Christine* → *Kikine*, *Kiki* eta *Cricri*, *Claude* → *Cloclo* zein *Coco*, *Florence* → *Floflo* edo *Fofo*. Bikoiztasuna dago, orobat, *hershari* edo *igurzkarri* + *ozena*-ren ordez *kontsonantea* + *irristaria* badaude: *François* → *Soisoi* edo *Sasa*, *Geneviève* → *Viévié* nahiz *Vévé*, *Pierre* → *Piépié* zein *Pépé*. Beste batzuetan aukera bakarra da: *Marianne* → *Maya*, *Thierry* → *Téry*. Silabaren koda ere bakundua egon daiteke: *Isabelle* → *Zabé*, *Dominique* → *Minique* edo *Mini* (Plénat, 1982, 1984).

Euskaraz irudi luke gehienbat apokopea pairatutako izen ttipietan gertatzen direla bakuntze eta errazte horiek (ikus goitixeago), baina, jakina, alemanean eta ingelesean ez bezala, gure artean *Patrizio* → *Patri*, *Zipriano* → *Xipriano* → *Xipri*-ren tankerakoak badira, nahiz *Patrizia* → *Patti* ere bildua dudan. Apokopetik kanpora ere badaude kontsonante-multzo sinpletzeak: *Benedikto* → *Benedito*, *Beneito*; *Eduarne* → *Nune*; *Florentzio* → *Fontxo*, *Pontxio*; *Gertrudis* → *Ketruxa*, *Mari Krutz* → *Maikutz*, *Prudentzio* → *Pontxio*, baina bakundugabeak ere badira: *Primitibo* → *Primi*. Zenbait hizkeratan ohikoa den bokal arteko dardarkari bakunaren erortzea ere bada izen batzuetan: *Mari Jose* → *Maixe*, *Maria Martina* → *Maimartin*, *Maria Teresa* → *Maittere*... Behin [l] dugu etorkizko [r]-ren ordainetan: *Bitorio* → *Bittorio* → *Bittolo*. Ez dakit *Jeronimo* → *Jolmo* ere hemen sartu behar denetz.

Inoiz sabaikaria ondoko soinu sabaikariarekin batu dela irudi du: *Máxùn*. Beste batzuetan, azkenik, apokopea besterik ez dago: *Agustin* → *Agus*, *Arantxa* → *Aran*, *Bixente* → *Bixen*... Stratmannek (1935: 27-28) dioenez, «die Akzentuierung spielt dabei eine große Rolle».

Frantsesez eta beste hizkuntza batzuetan agitzen den moduan, irudi luke euskaraz joera izan dela eta oraino badela izen laburtuak bi silabako egiteko, araua ez izanagatik ere, jakina: *Frantzisko* → *Patxi*, *Domingo* → *Txomin*, *Juantxo* → *Txatxu*, *Aitziber* → *Aitxiber* → *Atxi* eta *Tzibi*; *Anastasio* → *Taxjo*, *Eduarne* → *Nune*, *Frantzisko* → *Praxku*, *Xixku*, *Gabina* → *Gabi*, *Garazi* → *Gara*, *Izaskun* → *Izas*, *Kakun* eta *Txakun*; *Iziar* → *Izi*, *Jean-Joseph* → *Xantxo*, *Jean-Pierre* → *Panpi*, *Joxe Anton* → *Koxton*, *Joxepa* → *Koxpa*, *Joxepiña* → *Piña*, *Juan Joxe* → *Jwanxe*, *Kakox*; *Madalen* → *Malen*, *Marikrutz* → *Maikutz*, *Modexto* → *Moxto*, *Nagore* → *Nago*, *Nartziso* → *Nartxi*, *Prudentzio* → *Prontxjo*, *Sebastian* → *Xaxtjan*, *Xaxtin*...

7.3.1. Aferesia

Boyd-Bowmanek dioenez (1955: 346), espainolez azentuaren aitzineko silabak galtzen dira: *Emilia* → *Mila*, *Encarnación* → *Chon*, *Chona*; cf., gainera, *Agustín* → *Tin*, *Agustina* → *Tina*, *Alberto* → *Beto*, *Benito* → *Nito* (Hondurasen

partikulazki, Van Wijk, 1964: 303 eta hurr.), *Ignacio* → *Nacho* edo gure aita zenaren *Hemenegildo* → *Gildo* hipokoristikoa.

Errusieraz ere beste hainbeste agitzen da, usaian beste gertakari batzuekin batera: *Aleksánder* → *Sándra*, *Elízar* → *Zárja*, *Iván* → *Vánja*... (Stankiewicz, 1957: 198), *Anatoly* → *Tolya*, *Anfisa* → *Fisa*; *Bronislava*, *Rostislav* → *Slava*, *Dimitryi* → *Mitya*, *Elena* → *Lena*, *Evgeniya* → *Genya*, *Ludmila* → *Mila*, *Nikolaj* → *Kolja*, *Serafima* → *Fima* eta abar (Rakušan, 1981: 45, Lawson & Nevo, 2005: 58 eta hurr.). Mazedonieran *Aleksandra* → *Sandra*, *Angel* → *Gel* eta *Elizabeta* → *Beti* aipatzen ditu Gulevskak (2002: 191).

Alemanaz kestone, ikus Bernako hizkerako erabileraz laugarren atalean diodana eta 7.3-n aipatu ditudan etsenpluak. Beste hizkuntza batzuetan ere aurkitzen dugu aferesia, erraterako Brasilgo Amazoniasko banawan (ikus laugarren atala) eta frantsesean. Hondarreko hizkuntza honetan, *Dominique* → *Minique*, *Honorine* → *Norine*, *Nathalie* → *Thalie*, *Nicolas* → *Colas* ditugu, eta hauekin batean, bukaera ere bakundu duen *Isabelle* → *Zabé* (Plénat, 1984: 173). Egia erran, hizkuntza honetan, zenbait izenek aferesia eta apokopea aurkezten dituzte aldi berean: *Elisabeth* → *Lisa*, *Enmanuel* → *Manu*, eta beste batzuek gertakari bata zein bestea onartzen dute: *Dominique* → *Domi* nahiz *Minique*, *Nathalie* → *Natha* eta *Thalie*, *Nicolas* → *Nico* zein *Colas*. Akan hizkuntzan ere hitz hasierako ezabaketa da izen ttipiak antolatzean gehienik erabiltzen dena (Obeng, 2001: 123): *Kwàdzúó* → *dzuóò*, *Kòfi* → *Fii*, *Kwàsi* → *Sii*..., nahiz hitz bukaerakoa ere ezaguna den (ibid., 124-125).

Stankiewiczek (1957) eta beste autore frankok *truncation* erraten diote aferesia eta apokopea barne hartzen dituen laburketari, usu atzizkia ezartzearekin batean burutzen denari: *Amélie* → *Meli*, *Elizabeth* → *Lizzy*, *Betty*, *Zabet*, *Elodie* → *Lodi*, *Roberta* → *Bertie*, *William* → *Will* (→ *Willy*), e.a. (Nelson 1998, Wiese 2001, Grüter 2003, Stonham 2004, Milam 2006) (30). H. B. Allenek (1956: 78-79), Egiptoko arabiera aztertzean, multzo berean sailkatzen ditu silaba bat galtzen duten izenak, hots aldaketarekin edo hori gabe, gerta dadin erortzea izenaren hasieran (*Nabilla* → *Boula*, *Samiba* → *Miba*), gerta dadin bukaeran (*Farida* → *Fari*, *Hanieh* → *Hani*). Beider-ek (2001: 97), aldiz, «*truncation of initial elements (aphaeresis)*» erabiltzen du nik lan honetan aferesi deitu dudana adierazteko, eta askenazi juduen artean ohikoak izan diren *Alexander* → *Sander*; *Elchanan* edo *Yochanan* → *Chanan*; *Zipporah*, *Cippure*, *Zip(p)ur* → *Pure* eta abar aipatzen ditu.

(30) Dena dela, morfologia prosodikoak honela dakusa «*truncation*» delakoa (Mester, 1990: 478): «*Prosodic Morphology* [...] maintains that morphological truncation is not an operation of deleting segments or syllables from a base form, but rather involves the mapping of the base melody segments to a prosodically defined template».

Euskaraz, ikus daitekeen bezala, hitz hasierako lehen silaba(k) ezabateaz landa, hipokoristikoaren aurreneko soinua ere, alegia, gelditzen den formaren lehen soinua ere aldaturik egon daiteke. Zenbait kasutan izen ttipiak daraman berrekailua aferesia gauzatu ondoren itsatsi zaiioke erroari; gaztelanarako ikus Stratmannek (1935: 29) dioena. Hauek dira bildu ditudan le-kukotasunak:

- **Alfonsito** → **Zito**: *Zito* (Lei.).
- **Anastasito** → **Tasito**: *Tasíto* (Les.).
- **Anastaxio** → **Taxio**: *Táxjo* (Zug.).
- **Anjeliko** → **Iko**: *Íko* (Ea.).
- **Bonifazia, Bonifaxio** → **Faxio, Paxio, Paxi**: *Páxi* (em., Goi.), *Fáxjo* (gi., Zug.), *Paxio* (gi., Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216).
- **Edurne** → **Nune**: *Núne* (Les.; ikus beherago).
- **Engrazia** → **Engraxi** → **Geraxi, Geaxi**: *Geraxi, Geaxi* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 218). Ez dakit ziur *Ge(r)axi Engrazia*-ri dagokion. Ikus *Grazia-na, Gerezina* eta besteren aldaera palatalizatuak, gorago.
- **Estefania** → **Fani**: *Fáni* (El., Zug.).
- **Fermintxo** → **Mintxo**: *Míntxo* (Ultzama).
- **Frantxixku** → **Xixku**: *Xíxku* (El.).
- **Garbikunde** → **Kunde**: *Kúnde* (Ig.).
- **Gontzalo** → **Txalo**: *Txálo* (Done.).
- **Ildefontxito** → **Atxito**: *Atxíto* (Arr.).
- **Inaxio, Iñaxio** → **Axio**: *Áxjò* (Lei.), *Áxjo* (Sak.), *Axio* (Ea., Erdozia, 2001: 152).
- **Isidoro** → **Xidoro**: *Xidóro* (Ara.).
- **Ixidro, Izidro** → **Xidro, Zidro**: *Xídro, Zídro* (Azp.), *Xidró* (Lei.).
- **Jose Luis, Joxe Luis** → **Oseluis, Oxeluilx**: *Oseluis, Oxeluilx* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 215-216).
- **Josepiña** → **Piña**: *Píña* (Astigarraga).
- **Joxe, Joxepa** → **Oxe, Oxepa**: *Oxe Aranburu, Oxepa* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216, 218).
- **Joxe Juan** → **Oxejuan**: *Oxejuan* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 247).
- **Joxepanttoni** → **Oxepanttoni**: *Oxepanttoni* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 219).
- **Juangoxito** → **Xito**: *Xítò* (Goi.).
- **Karmentxu** → **Mentxu**: *Méntxu* (Arantzan bizi den irundarra).
- **Luxia** → **Axia**: *Áxja* (Lei.).
- **Maria Jesus** → **Txus, Txusa**: *Txús* (Lab. Erdaraz ere ezaguna da, Iruñean eta, erraterako), *Txúsa* (Auza).
- **Patxito** → **Atxito**: *Atxíto* (Urdiain).
- **Rosario, Roxari(o), Roxarito** → **Txaro, Txarito**: *Txáro* (El.), *Txáró, Txáritò* (Lei.).

Agirietan aurkitu ditudanak bakanak dira:

– **Antolin** → **Tolin**: «*Tolin de Vribarri, morador en Vribarri*» (Bilbo, 1493, Hid., 1989b, 89, 482. or.).

– **Domenjon, Dominjon** → **Menjon, Minjon**: *Minjon* (Villamayor, 1350, LPN, 361; *Menjon d'Etcheyon*, Bai., 1465, Goih., 1966: 95).

– **Nikolautxot** → **Kulautxot**: *Coulau(t)chot* (Iglesias, 2000: 265).

7.3.2. Izen trinkotzea eta barne laburtzea

Honi ingelesez *condensation* erraten zaio, eta alemanez *Kontraktion* (Stratmann, 1935: 34-35, Frank, 1975: 518). Beider-ek (2001: 99) «*truncation of internal elements (syncope)*» darabil hitz barneko bokal edo kontsonanteren baten ezabatzea adierazteko, eta Obengek (1997: 48, 2001: 122) *truncation* edo «*utterance medial truncation*» ibiltzen du Ghana eta Boli Kostako Akan hizkuntzan lekune berean ezabaketa handia gauzatu denean. Adibidez, *Jen wura kwesi* ('our lord' + 'igandea') *Jòsi* bilakatzen da; ikusten den bezala, ezabaketaren ondoren gelditu diren [j-] eta [-si]-ren artean [o] luze bat sartu da.

Izen trinkotze eta barne laburtzea bestetan ere ezaguna da: *Angela* → *Anga*, *Gisela* → *Gila*, *Manfred* → *Manet*, *Ramona* → *Rama* (alemanez, Nau-
mann, 1976: 16), *Marie-Hélène* → *Marlene*, *Marie-Thérèse* → *Marise*... (frantsesez, Seeman, 1983: 241), *Maria Luisa* → *Marisa* (espainolez), e.a.

Gurean, zenbait aldiz, irudi luke hipokoristikoa sortzeko, konposatuetan, izen bakoitzetik xati bat hartu dela: *Maria Biktoria* → *Maribi*, *Maria Lurdes* → *Malu*. Hau funtsean espainolez (*María del Carmen* → *Mari Carmen* → *Maica*, *María Victoria* → *Mariví*) eta frantsesez (*Marie-Bernard* → *Mabé*, *Marie-Emilie* → *Mami*) ezaguna den hipokoristiko erabidea baizik ez da.

Ez ditut hemen sartu dardarkaria besterik galdu ez duten izen ttipiak: *Andres* → *Anddex*, *Bernat* → *Beñat*, *Fernan(do)* → *Feñan...*, ez igurzari ahostu-
na galdu dutenak (*Miél*), ez eta gorago aipatu ditudan beste bokal galtze eta bakuntze batzuk ere. Behin edo beste hipokoristiko atzizkia eranstearekin ba-
tean burutzen dira soinu bakuntzeak: *Florentzio* → *Poéntxitò* (Goi.).

Hurrengo lekukotasun hauek jaso ditut:

– **Ana Isabel** → **Anabel**: *Anábel* (Lab.) (31).

(31) Herri honetako informatzaileek erraten didatenez, neska deitzean, deikietan alegia, azentua aldatzen da eta *Anábel* bilakatzen. Hau bera gertatzen da anitz izenekin, *Aúxtin* / *Auxtín*, *Maribel* / *Maribél*, *Maribi* / *Maribí* eta besterekin, erraterako.

- **Andres Mari** → **Apalli**: *Apáll* (Ea.).
- **Anizeta** → **Anizta, Anixta**: *Anízta, Aníxta* (Goi. (32)). Cf. *Mikla*.
- **Antonio Frantzisko** → **Antoniofraxku, Antoniopraxku**: *Antoniofraxku, Antoniopraxku* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256).
- **Benedikto** → **Benedito** → **Beneito**: *Benedító, Beneíto* (El.).
- **Florentzio** → **Fontxo, Prontxio, Pontxio**: *Próntxjò, Póntxjò* (Lei.), *Fóntxo* (Lier.), *Pontxio Irurtia* (Lei., Peru., 1996: 127).
- **Frantziska, Frantxixka** → **Fantxika, Pantxika, Maintxika**: *Fantxíke, Pantxíke* (Am.), *Pantxíkà* (Goi.), *Pantxíka* (Zug.), *Maintxike Goñi* (Lekaroz; EHH Aeoko berriemaileen artean ageri da), *Pantxika* (Barbier, 1987: 97), *Pantxike* (Lei., Peru., 1996: 67, 107), *Pantxika Ouret* (Ma.-Le., He., 2004-VI-10, 4), *Pantxika Maitia* (Ip., He., 2004-VI-24, 1), *Pantxika Darthayette* (Ma.-Le., He., 2004-VII-1, 4), *Pantxika Ibarboure* (He., 2004-X-28, 3), *Pantxika Hirigoyen* (Angelu, He., 2004-X-28, 5), *Pantxika Barnetche* (Bi., He., 2004-XI-25, 5).
- **Frantziska Antonia** → **Praxkanttoni**: *Praxkanttoni* (Peru., 1996: 22).
- **Frantzisko, Frantziska** → **Fraisko, Fraxko, Fraxku, Praisko, Praxku, Paiko, Pako, Fraxka; Praiska, Praxka**: *Páko* (Ara., Eu.), *Páiko* (Azpeitia), *Fráxkè, Práxkà, Fráxkò, Fráxkù, Práxkù* (Lei.), *Fraxku* (Sak.er., Erdozia, 2001: 191), *Fraxku Domartinbordakoa, Fraxku Sagastibeltza, Fraxku Arraras, Fraxku Astibia, Praxke, Praxku Zabaleta, Musungo Praxku, Fraxku, Yoantzarko Praxku, Domartinbordako Praxku, Fraxku Gogortza, Praxku Alduntzin, Fraxka San Martin Ontsalonekoa, Praxka Ontsalonekoa, Fraxka Astibia, Fraxku Erreroa, Praxku Arbillaga* (Lei., Peru., 1996: 10, 11, 13, 18, 33, 120, 138, 139, 145, 149, 176, 194, 196, 222, 237), *Maleneko Fraxku, Praxku* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 228, 257). XVIII. mendean *Fraisko* agertzen da (Knörr, 1981: 95-96), Mogelek *Peru Abarka*-n (30. or.) *Praiska* dakar.
- **Gertrudis** → **Ketruxa**: *Ketrúxa* (Ea.). Hemen irudi du femeni-noaren –a jaso duela izenak.
- **Inaxio** → **Ixio**: *Ixio* (Garoa, 99. or.).
- **Jeronimo** → **Jolmo**: *[X]ólmo* (El.).
- **Joan Mari** → **Joamai**: *Joamai* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 253).
- **Josefa, Joxepa, Joxepi** → **Koxpa, Koxpi**: *Kóxpa* (Ari., Azp.), *Kóxpi* (Ari.; honi *Kóxpa* ere erraten diote).
- **Joxe Anton** → **Joxton, Koxton**: *Joxtón, Koxtón* (Goi., Lei.). Ez dakit Aurizperriko *Kaxton* etxea (Barandiaran, 1973: 257), bestela *Antton* izenaz ezagutzen zena, *Koxe Antton*-en moduko batetik ez ote den atera.
- **Joxe Fermin** → **Joxermin**: *Jóxe:rmin* (Lei.).
- **Joxe Joakin** → **Joxeakin**: *Jóxeakin* (Lei.).
- **Joxepa Antonia** → **Koxpantoni**: *Kóxpantóni* (Err.).

(32) Ez dakit kasu honetan bokalaren galtzapena helburu adierazgarritz burutu den edo Goizuetan gertatzen diren sinkopa ugarietako bat den. Ikus Perurena & Zubiri (1998: 32-37).

– **Juan Inazio, Juan Inaxio** → **Juainaxio, Juanixio**: *Jwáinaxjò* (Lei.), *Jwaníxjo* (Etxarri Aranazko etxea).

– **Juan Joxe** → **Juanxe**: *Jwánxe* (Ara.).

– **Juana Frantxiska** → **Juanafraxka, Juanfraxka**: *Jwánafraxkè, Jwánfraxkè* (Lei.), *Juanafraxka, Juana Fraxka* (Lei., Peru., 1996: 48, 49).

– **Lorentxo, Lorentxa** → (**Loentxo, *Loentxa**) → **Lontxo, Lontxa**: *Lóntxo* (Eu., Zug.), *Lóntxò, Lóntxà* (Lei.), *Lontxo Zubitur, Errutizko Lontxa Olano, Loentxo Arriango(a), Lontxo Tellerikoa, Lontxa Sagastibeltza, Arriango Lontxo Lasarte, Lontxo, Lontxo Peustenekoa* (Lei., Peru., 1996: 10, 13, 44, 58, 81, 149, 210, 228, 234). Hondurasen, edo Erdi Amerikan bederik, *Alonso* izenaren hipokoristikoa da *Loncho* (Van Wijk, 1964: 303).

– **Madalen** → **Malen**: *Málèn* (Lei.), *Malen* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 215).

– **Marguerite** (→ ***Margerita**) → **Margitta**: *Margítta* (Amü., Gü, Lan.), *Margitta Mathieu* (Gü., He., 2004-XI-18, 6).

– **Mari Jose** → **Maixe**: *Máixxe* (Ara., Irur.; bigarren herrikoari *Marijo* ere erraten diote).

– **Mari Krutz** → **Maikutz**: *Májkùtz* (Lei.).

– **Maria Antonia** → **Manttoni**: *Manttóni* (Am., Err., Eu.); Arbizuko etxe baten izena ere bada *Manttóni*. Pío Barojak *Maintoni* darabil liburu batean (Knörr, 2002: 615).

– **Maria A(s)zentzion** → **Maixtentxon**: *Màixtentxón* (Eu.).

– **Maria Asuntxion** → **Maxuntxon**: *Máxuntxón* (Lei.).

– **Maria Dolores** → **Maloles**: *Málolès* (Lei.).

– **Maria Inazia** → **Mañasi**: *Mañasi* (Knörr, 2002: 613).

– **Maria Isabel** → **Maribel**: *Maribél* (Ara.), *Maribel* (Lab.).

– **Maria Jesus** → **Marixux, Maixux, Matxus, Makexux**: *Máixùx* (Goi.), *Mákexùx, Máxùx* (Lei.), *Maríxux, Máixux, Matxús* (Les.).

– **Maria Joxepa** → **Maijoxpa, Marixepa, Maixepa, Maxepa, Maspá**: *Máixépa* (Ara.), *Máxepà* (Lei.), *Maspá* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 193), *Mai Joxpa* (Bakaiku, Ondarra, 2005: 496). Ormaetxeak (1976: 27) *Marixepa* du.

– **Maria Luisa** (→ **Maria Luixa**), **Marie Louise** (→ **Mari Luix(a)**) → **Mailuixa, Mailuxa, Mailux, Maluxa, Mailüsa, Ma(r)ixa, Marisa, Mauxa**: *Mailhwíxa, Mailúxa* (Amü., Ami.), *Mailüsa* ([z]-z ebakia, azentua ü ganean du; Zub.), *Marísa* (Lab.), *Máyxà* (Lei.), *Maluxa* (Burunda, Zuazo, 1994: 315), *Maria Luixa* (Lizaso, 1998: 55), *Mailux Ahadoberry* (Larre, 2001: 109), *Mailuxa Peyrelongue «Kanttoinea»* (Bes., Duhau, 2003: 407), *Laxalde Mailux* (Baigorri, He., 2004-X-28, 5), *Mailux Arteta* (Baigorri, He., 2004-XII-2, 5).

– **Maria Luzia** → **Maxi**: *Máxi* (Ea.).

– **Maria Pilar** → **Maripi**: *Marípi* (Les.).

– **Maria Teresa (María Teresa, Marie Thérèse)** → **Mariterexa** → **Maitesa, Maitexa, Matexa**: *Maitésa* ([z]-z ebakia, Zub.), *Maitéxa* (Behauze,

Uhartehirikoa da), *Matéxa* (Aniz), *Mari Terexa* (Treku, 1982: 15), *Maitexa Du-bois* (Haz., *He.*, 2003-XII-25, 4).

– **Marie-Jeanne** → **Maixan**: *Maixán* (Hozta).

– **Martin Joxe** → **Martioxe, Martiuxe, Matioxe**: *Martioxè, Martiuxè* (Lei.), *Martioxe Altamira* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 198), *Abadebordako Martioxe, Matioxe Arriarangoa, Matioxe Zabaleta, Martioxe, Martioxe Abadebordakoa, Martioxe Oronoz* (Lei., Peru., 1996: 8, 10, 45, 111, 133, 139, 239).

– **Mertzedes** → **Mertxex**: *Mertxéx* (Eu.).

– **Migel Inazio, Migel Inaxio** → **Milaxio**: *Miláxjò* (Urdiain).

– **Migel Martin** → **Mil Martin**: *Etxeberriko Mil Martin* (Ormaetxea, 1976: 310).

– **Migeliko** → **Miliko** → **Miko**: *Milikò, Mikò* (Lei.), *Miliko (Migeliko)* (Bakaikuko edo Iturmendiko izengoitia, Ondarra, 2005: 496).

– **Mikaela** → **Mikla**: *Mikla* (Goi.). Ikus *Anízta, Aníxta*-z errandakoa.

– **Modexto** → **Moxto**: *Móxtò* (Am.).

– **Prudentxio** → **Pontxio**: *Póntxjo* (Ari.-Aritz.).

– **Sagarrito** → **Sarito**: *Sáritò* (Lei.).

– **Santiago** → **Xantio**: *Xántiò* (Lei.), *Xantío* (Ara., Les.).

– **Sebastian** → **Xaxtian, Xaxtin**: *Xáxtin* (Arr., Lak.), *Xastian Lesaka, Xastian* (Ormaetxea, 1976: 320, 324). Ez dakit izen laburtu hauek sinkopari zor zaizkion ala euskaraz dagoen bokal arteko igurzkarriak galtzeko joeraren hoben ote diren.

– **Sinforosa** → **Xinpoxa**: *Xinpoxà* (Goi.).

– **Terexa** → **Texa**: *Texa Bordaberrikoa, Texa Zabaleta* (Lei., Peru., 1996: 21, 177), *Texa Haicaguerre* (*Euskoneus*, 277 zkia., 2004-XI-19, 26).

– **Tio Inaxio** → **Tixio**: *Tixjó* (Lei.).

– **Tio Joxe** → **Tixixe**: *Tíxixè* (Lei.).

7.3.3. Apokopea

Nik *apokope* erabiltzen badut ere, ingelesez autore batzuek *regression* deitu dute: Seemanen arabera (1983: 241) «regression [...] is a return to childhood preoccupations (excretion, for instance), onomatopoeia (Biff, Boom), or place in the family of origin (Sonny, Baby, Sis)». Obengek (2001: 1124), akan hizkuntzaz ari delarik, «*word-final deletion*» izendatzen du (*Áκωσψία* → *Ákóó* edo *Ákó*, *Κωβινά* → *Κωβί*, *Κόφι* → *Κόό*... Ikus 4.12) eta Frankek (1975: 518) alemana aztertzean *Verkürzen* darabil bai apokopetzat jo dezakeguna (*Susanne* → *Su*), bai aferesiaren barnean sar daitekeena (*Brigitte* → *Gitte*) adierazteko. Beider-ek (2001: 98) «*truncation of final elements (apocope)*» bataiatzen du eta erraten askenazi izenetan apokopea eskuarki atzizki gehiketarekin batean gauzatzen dela, baina ez edozein berrekailurekin:

«... the truncation of the last syllables of the disyllabic or polysyllabic base forms occurs regularly enough when one uses the Germanic suffixes *-lin* and *-l* and is necessarily present when one adds the Slavic elements *-ke*, *-she*, *-ish*, *-kbne* and *-e*».

Gainera, arruntena, apokopearekin batean, hondar soinuaren palatalizaztea zen Europa erdialdeko juduen artean.

Apokopea beste hizkuntza batzuetan ohikoa izan da eta da, frantsesetz erraterako: *Honorée* → *Honor*, *Marguerite* → *Margue* (Michaelsson, 1939: 112), *Bénédicté* → *Béné*, *Marianne* → *Maya*, *Raphaël* → *Rapha*, *Romuald* → *Romu*, *Valérie* → *Valé*, *Véronique* → *Véro* (Plénat, 1984: 173-174), *Caroline* → *Caro*, *Dorothee* → *Doro*, *Dominique* → *Domi* (Nelson, 1998: 185) (33). Hizkuntza honetan, aferesiaz ihardukitzean erran moduan, zenbait izenek bi laburbideak onesten dituzte.

Gaztelaniaz ere ohikoa da: *Teresa* → *Tere*, *Valentín*, *Valentiniano* → *Valen* (ikus Boyd-Bowman, 1955: 337), edo, gure familatik atera gabe, *Gumer-sindo* → *Gumer*, *Soledad* → *Sole*, *Zósimo* → *Zosi*. Alemanez apokopea jasandako aldaerari atzizki edo bukaera gehitu dakiok, nahiz goraxeago ikusi dugun gisan hau ez den baitezpadako: *Bettina* edo *Martina* → *Tinchen*, *Dietmar* → *Dietel*, *Dorothea* → *Dorle*, *Eberhardt* → *Ebbel*, *Hannelore* → *Hanne*, *Magdalena* → *Magda*, *Wolfgang* → *Wolfer* (Naumann, 1976: 15, 1996: 1759). Euskaraz ere badira holakoak: *Arritokieta* → *Arri* → *Arritxu*, *Bakarne* → **Bakar* → *Bakartxo*, *Estibaliz* → *Esti* → *Estitxu*.

Errusieraz ere badira aldaera apokopatuak: *Boris* → *Bob*, *Gennadi* → *Gena*, *Nikita* → *Nika*, *Rafael (Raphael)* → *Raph*, *Robert* → *Rob* (Lawson & Nevo, 2005). Hizkuntza honetan, Fokker-ek dioenez (1960: 268-269), izen neutroak, hauen aldaera laburtuak eta laburtuen aldaera adierazkorrak bereizten dira, nahiz hondarreko hauek, artetan, neutroetan ere oinarri daitezkeen zuzen-zuzenean. Forma laburtuek, aipatutako ikertzailearen arabera, ia beti bi silaba dituzte eta *-a* bokalarekin bukatzen dira: *Fjodor* → *Fedja*, *Ljudmila* → *Ljuda*, *Raisa* → *Raja*, *Vadim* → *Vadja*, *Varvara* → *Varja*, *Vsevolod* → *Seva*... Autore honek nolabaiteko atzizkia ikusteko partez erraten du laburtze prozesuan bi silabako hitz eredu adierazkorra erabiltzen dela, eta lehentasuna ematen zaiela silaba irekiei eta kontsonante berdinei. Zernahi dela, silaba bakarreko izen laburtuak ere badira errusieran, baina, irudi duenez, bakarrik deikietan erabil daitezke, eta ezin dira deklinatu: *Grigorij* → *Griša* → *Griš*, *Natalja* → *Nata* → *Nat*, *Ivan* → *Vanja* → *Van*. Izen pare ba-

(33) Aferesiaz mintzatzean erran bezala, ikertzaile honek gertakari hau *truncation* izenekoaren barnean sartzen du, apokopearekin batean.

tean hiru silabako forma laburtuak ditugu: *Sergei* → *Serjoža*, *Vladimir* → *Volodja* (eta *Lodja*).

Mazedonieran Gulevskak (2002: 190-191) *Aleksandar* → *Alek* edo *Aleks*, *Bisera* → *Bi*, *Dijana* → *Di*, *Frosina* → *Fros*, *Jasmina* → *Ūes*, *Katerina* → *Ket*, *Liljana* → *Lil*, *Nikola* edo *Nikolina* → *Ni*, *Trifun* → *Trif* eta beste aipatzen ditu, eta gehitzen laburtu eta *-i-dun* atzizkia (*-ci*, *-gi*, *-ki*...) hartu duten hipokoristikoak (*Jasmina* → *Ūesi*, *Katerina* → *Keti*, e.a. Ikus laugarren atala) ardurakoak direla. Hauetako gehienak, hala ere, gazteen hizkeran baizik ez dira azaltzen; adineko hiztunak herabeago agertzen dira honelakoak ibiltzeko denboran. Adibideetan ikusten den bezala, silaba bakarrekoak dira hipokoristikoak. Polonieran ere badira eta lehen ere izan dira aferesiak jasandako izenak (Kurylowicz, 1967): *Stanisław* → *Stan*, *Sulimir* → *Suł*, *Sulim*. Kasu batzuetan atzizkiaren aitzinean gelditzen den kontsonantea palatala da edo izan daiteke: *Stanek* edo *Staniek*, *Sulek* edo *Sulek*, *Franciszek* → *Franiu*, *Józef* → *Józiu*, *Tadeusz* → *Tadziu*.

Surinamgo saramaka izenekoan artean, bestetan gertatzen denaz bestera, aldaera laburtuak izen osoak baino begiramen eta errespetu handiagokotzat hartzen dira (Price, 1972: 352).

Lan honen hastapenean aipatu ditudan emazteki izenen *-ia* > *-i* laburketa ere hemen sar liteke (*Anbroxi*, *Anttoni*, *Axintxi*, *Baxili*, *Benantxi*, *Bittori*, *Emili*...), baina, erran bezala, hau aski zabaldurik dago, Hegoaldean behinik behin, eta ekonomikoago iruditu zait hasierako atal hartan ematea. Iparraldean, *Mari-Antoni* ageri da Lafitteren lanean (1982: 60).

Lekuko hauek ditut:

- **Agustin** → **Agus**: *Águs* (Ari., Ig.).
- **Aitziber** → **Atxi**: *Átxi* (Les.).
- **Alejandro** → **Alejo**, **Ali**: *Aléjo* (Lab.), *Áli* (Les.).
- **Anuntziacion** → **Anuntxi**: *Anúntxi* (Ara., Auza, El., Ig.), *Anúntxi* (Arr., Goi.), *Anuntxi* (Lei., Peru., 1996: 129).
- **Arantxa** → **Arantxi** (→) **Aran**: *Áran* (Lab.). *Arántxi* ere deitzen dute neska hau. Ikusten den bezala, hemen hipokoristiko baten hipokoristikoa dugu, hots, «bir-hipokoristikoa».
- **Arantzazu** → **Arantxa**: *Arántxa* (orokorra Hego Euskal Herrian; Arantzan dugu bat, erraterako).
- **Arritokieta** → **Arritxu** (aski zabaldua, Zumaia aldean eta). Ikus *-txo*, *-txu* atzizkiari eskaini atalñoa.
- **Asier** → **Axi**: *Áxi* (Les.).
- **Astension** → **Astzen**: *Astzén* (El.).

- **Asuntzion, Axuntx(i)on** → **Asun, Axun**: *Áxun* (Am., Arb., Arr., El., Lab., Les.), *Áxùn* (Goiz.), *Ásun* (El., Ig., Oitz), *Áxùn* (Lei.).
- **Barbara** → **Barbaita** → **Barbi**: *Bárbi* (Ara.).
- **Bartolomeo, Barthélemy** → **Bartolo** → **Barttolo, Marttolo, Mattolo, Berttolo**: *Barttólo* (El., Ziga), *Barttólo, Berttólo* (Haz.), *Barttolo* (Abaurregaina, Camino, 1997, 258; Mezkiritz, Ibarra, 2000: 248). Ikus, gainera, HUD (1992: 369). Ormaetxeak *Azpirozko Marttolo* dakar lehenik (1976: 94) eta *Azpiroz'ko Mattolo* gero (ibid., 313).
- **Bazilio** → **Bazi**: *Bázi* (Lab.).
- **Begoña** → **Bego**. Orokorra da; Arantzan ageri da *Bégo*, adibidez.
- **Benedi(k)ta, Benedi(k)to** → **Bene**: *Béne* (El., em. eta gi.), *Béne* (Zug., gi.).
- **Benigna** → **Beñi**: *Béñi* (It.).
- **Birjinia, *Birkinia** → **Birji, Biki**: *Bírji, Biki* (Ara.).
- **Bisitazion** → **Bixi**: *Bíxi* (Ea., El.).
- **Bitoriano** (< Victoriano) → **Bittolo**: *Bittólo* (Ea.).
- **Bitorio** → **Bittolo**: *Bittólo* (Urdiain; *Bittórjo* ere erraten diote).
- **Bixente, Bixenta** → **Bixen**: *Bíxen* (gi., Ara., Les., Oitz), *Bíxèn* (em., Ereñotzu).
- **Bonifazio, Bonifazia** → **Boni**: *Bóni* (gi., Altsasuko frailea, Biarritz, Ig., Osk., Urritza; em., Arr., Beram.).
- **Daniel** → **Dani**: *Dáni* (Ara., Ig.).
- **Dionisio, Dionixia** → **Dioni**: *Djóni* (El., em., Lab., gi.).
- **Domingo** → **Txomin**: *Txómin* (Les., Zug., orokorra), *Txomin* (*Ga-roa*, 166. or.; Loidi, 1968: 16), *Txomin Olaetxea* (Lei., Peru., 1996: 10), *Txomin Darritchon* (Kanbo, *He.*, 2003-X-9, 4).
- **Dominika** → **Domi** → **Momi**: *Dómi* (Luz.), *Mómi* (Lei.). Hondarrekoan, ikusten den bezala, errepikapena eta apokopea ditugu, batera.
- **Dominika** → **Titika**: *Titíka* (Iparraldean). Txomin Peillenek erraten digunez, *Titíka* pare bat besterik ez du ezagutzen.
- **Eduarne** → **Edu**: *Édu* (Lab.; neska hau *Núne* ere deitzen dute. Les.).
- **Elisabet** → **Eli**: *Éli* (Lab.). Hau, erdaraz, baina Euskal Herrian, *eliza* osagaia duten deituren forma laburtua izaten da, *Elizalde*-rena konparazione, *Larrañeta*, *Larramendi*-rena *Larra* eta *Martikorena*-rena *Martiko* den bezala.
- **Enkarnazion, Enkarnaxion** → **Enkarna, Enkarni**: *Enkárna* (Ara., Bere., El. Azken herri honetan *Enkarna*-tik ateratako *Enkarnita* ere badago. Ikus *-ita, -ito*), *Enkárni* (Ig.).
- **Epifanio, Epifania** → **Epi**: *Épi* (em., Lei.), *Épi* (gi., Les.).
- **Esperantza, Experantza** → **Espe, Expe**: *Éspe* (Ua.), *Éxpe* (Ig.), *Éxpè* (Lei.).
- **Estanislao** → **Extanix, Extañix, Ixtanix**: *Extánix* (Auza, Lab.), *Ixtánix* (Goi.), *Extanix Perurena* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 203), *Extañix* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 256).

- **Estefania** → **Estefa**: *Estéfa* (Zug.).
- **Estibaliz** → **Esti(txu)**: *Ésti, Estítxu* (toki anitzetan).
- **Eufemia** → **Ufemia** → **Ufi**: *Úfi* (Am.).
- **Federiko** → **Fede**: *Féde* (Ara.).
- **Felisa** → **Feli**: *Féli* (Eu.; M^a Felisa izena du).
- **Felixiana** → **Felixa**: *Felíxi* (Ara.).
- **Fernando** → **Feñan, Perdi**: *Féñan* (Ari.), *Pérdi* (Auza; gaztea da).
- **Filomena** → **Filo**: *Fílo* (Ara., Eu.).
- **Florentzia** → **Floren**: *Flóren* (Ara., El.).
- **Frantxisko, Frantxiska, François** → **Frantxi, Patxi, Pantxo, Pan-txa**: *Frántxi* (Ara.), *Pántxo* (Am., Ziga), *Pátxi, Pántxò, Pántxà* (Lei.), *Pátxi* (Ig.), *Ernaniko Patxi «Bakallo»* (Peru., 1996: 153), *Patxi Noblia* (*He.*, 2004-VI-3, 2), *Patxi Iriart* (*He.*, 2004-VI-24, 3), *Patxi Lizarraga Senar* (Dorrao, Erdozia, 2001: 39). Espartza Galarren *Pancho Beriain* izeneko etxea zegoen 1838an (Jimeno, 1987: 198).
 - **Frantzisko, Franzisko** → **Franzis, Pantxix, Fran**: *Fránzis* (Ari.), *Frán* (Auza, gaztea; beste gazteek honela deitzen dute. Bestela *Frantzisko* da), *Pantxix Bidart* (*He.*, 2004-XII-2, 5), *Pantxix Harispourou* (Itsasu, *He.*, 2004-XI-11, 4).
 - **Gabina** → **Gabi**: *Gábi* (Ig.).
 - **Garazi** → **Gara**: *Gára* (Zug.).
 - **Garikoitz** → **Gari**: *Gári* (toki frankotan, Zarautzen, adibidez).
 - **Gontzalo** → (***Gontzalu, *Gontxalu**) → **Gontxu**: *Góntxu* (Zug.).
 - **Imakulada** → **Ima**: *Íma* (Zug.).
 - **Isabel, Ixabel** → **Isa, Ixa**: *Ísa* (Lar.), *Íxa* (Ig., Les.).
 - **Isidora, Ixidora** → **Ixi**: *Íxi* (Lei.), *Ixi* (Lei., Peru., 1996: 235).
 - **Izaskun** → **Izas**: *Ízas* (Lab.); neska hau *Kákun* eta *Txáskun* ere deitzen dute.
 - **Iziar** → **Izi**: *Ízi* (Zug.).
 - **Jabier** → **Jabi, Kapi**: *Jábi* (Ara., Ig.), *Kápi* (Lab.).
 - **Jean-Joseph** → **Xantxo**: *Xantxo Iturrioz* (*He.*, 2006-VIII-3).
 - **Jean-Pierre** → **Xanpier** → ***Xanpi** → **Panpi** edo **Xanpier** → ***Panpier** → **Panpi, Panpale, Panpella, Panpiale, Panpili, Panpilli**: *Pánpi* (pilotari ezaguna), *Panpalé* (Haz.), *Panpélla* (Zub.), *Panpjalé* (Haz.). *Panpi Sare* (Hirigarai, 1998: 23), *Panpi Barnetxe* (Arbelbide, 2003: 85), *Panpi Etche-goin* (*He.*, 2003-X-9, 4), *Panpi Etcheberry* (Behorlegi, *He.*, 2003-XI-20, 5), *Panpi Garat* (Suh., *He.*, 2004-VIII-12, 5), *Panpi Guerendiain* (Sara, *He.*, 2006-VIII-19, 4). Inoiz *Panpili* eta *Panpilli* ere aurkitzen dugu: *Jean Pierre Daguerre* (*Panpili*) (Arrosa, *He.*, 2004-VII-1, 5), *Panpili* (Mattin eta Maddi Trekuren semea, *He.*, 2005-3-24, 4), «Amatxi bezperetan; Panpilli bakarrik etxean» (Léon, 1993: 181).
 - **Jenobeba** → **Jeno**: *Jéno* (Ara.).
 - **Jerbasio** → **Jerba**: *Jérba* (Ara.).

- **Jose Antonio** → **Joxeanton, Joxean, Joxanto, Joxan**: *Jóxan* (Arr., Ea., Sak.er.), *Joxánto* (El.), *Jóxeantòn, Jóxeàn* (Goi.), *Jóxjan* (Ig.), *Joxeán* (Oitz).
- **Jose Fermin** → **Joxe Fermin** → **Joxe Permin** → **Joxepe**: *Jóxepè* (Lei.).
- **Jose Inazio** → **Joxi**: *Jóxi* (Ea.).
- **Jose Luis** → **Joxe Luis** → **Joxelu, Jozelo, Jozelu**: *Jóxelù* (Lei.), *Jozé-lo* (Les.), *Jozélu* (Urroz).
- **Jose Migel** → **Joxemi**: *Joxémi* (Ari., Ig.).
- **Jose Ramon** → **Joxerramon** → **Joserra, Joxerra, Kotterra**: *Josérria* (Ara.), *Joxérria* (Ara., Ea., Oitz), *Kottérria* (Ig.).
- **Josepiña, Joxepiña** → **Joxepi**: *Joxépi* (Beram., Eo.-Beartzun, El., Goi.), *Jóxepi* (Lei.), *Joxepi Zestau* (Lei., Peru., 1996: 13).
- **Josune** → **Totune** → **Totu, Tutu**: *Totú* (Ari.), *Tútu* (Iruñean bizi da).
- **Juan Frantzisko** → **Zanfran**: *Zánfràn* (Lei.).
- **Juan Jose** → **Juanjo**: *Jwánjo* (Ara., Ari., Ig.).
- **Juan Joxe** → **Kankoxe** → **Kakox**: *Kákòx* (Lei.).
- **Juan Mari** → **Juanma**: *Jwánma* (Eu.).
- **Juanita** → **Juani**: *Jwáni* (Lei.).
- **Katalina** → **Kattalina** → **Katta, Katti**: *Kátta, Kátta* (Ea.), *Katti* (Lei., Peru., 1996: 210), *Katti Azeri* (Izturitze, *He.*, 2004-VI-3, 5).
- **Katarina** → **Keti**: *Ketí* (Haz.).
- **Kexux** → **Ketxu, Ketzu**: *Kétxu* (Ig.), *Kétzu* (Urroz).
- **Kontsuelo** → **Kontxu**: *Kóntxù* (Lei.).
- **Kontzezion** → **Kontxa, Kontxesi, Kontxéxi, Kontxixi, Kontxi**: *Kontxéxi* (Arr.), *Kóntxi* (Auza, Eu., Ig., Imozkoari *Kontxita* ere erraten diote), *Kontxéxi, Kóntxi* (El.), *Kontxési* (Goi.), *Kontxa Labayen, Kontxixi* (Lei., Peru., 1996: 9, 18).
- **Kristina** → **Kristi**: *Krísti* (El.; *Kristiníta* ere erraten diote).
- **Ladislao** → **Ladis**: *Ládis* (*Galartza*, pilotari ezaguna. Baraibar).
- **Laura** → **Lali** → **La**: *Láli, Lá* (neska bera, Les.).
- **Laureano** → **Lauriano** → **Lauri**: *Láuri* (Zug.).
- **Laurendi** → **Lauren**: *Láuren* (Oitz).
- **Leire** → **Lele** → **Le**: *Lé* (Les.).
- **Letizia** → **Leti**: *Léti* (Ara., Oitz).
- **Lidia** → **Lili** → **Li**: *Lí* (Les.).
- **Lolita** → **Loli**: *Lóli* (Ara., Auza, Eltz.). Hau zuzen-zuzena *Dolores*-tik edo *Lola*-tik ateratako izen ttipizat ere har daiteke.
- **Lorentza** → **Loren**: *Lórèn* (Lei.).
- **Luis Jabier** → **Luisja**: *Lwís[x]a* (Ig.).
- **Luis Migel** → **Luismi**: *Lwísmi* (Oitz).
- **Madalena** → **Maalen**: *Maálen* (Goi.).
- **Madalena** → **Maddi**: *Máddi* (Ara.). Herri honetan bertan bada beste *Máddi* bat, berezko izenez *María Gloria* dena.
- **Maidier** → **Ma**: *Má* (Les.).

- **Maite** → **Mai**: *Máj* (Lab.; *Máitte* eta *Majtétxu* ere deitzen dute).
- **Maloles** → **Mallo**: *Mállò* (Lei.).
- **Manttoni** → **Mantto**: *Mántto* (Astigarraga).
- **Manuel, Mañuel, (Em)manuel(le)** → **Mañu**: *Máñu* (Ig., Les.), *Mañu Biscay* (Aih., He., 2006-VIII-31, 5).
- **Margarita** → **Margari**: *Margári* (Ara., El.).
- **Maria** → **Mari**: *Mári* (Ara., El., Ig. eta nonahi).
- **Maria A(s)zentzion** → **Maixtentxon** → **Maixten**: *Màixten* (Eu.).
- **Maria Angeles** → **Marian**: *Márjan* (Ara., Ari., Era.).
- **Maria Asuntzion** → **Maria Asuntxion** → **Maxuntxon** → **Maxun**: *Máxùn* (Lei.).
- **Maria Asuntzion** → **Mariasun**: *Marjásun* (Ara.).
- **Maria Biktoria** → **Maribi**: *Maribí* (Arantzan bizi den goizuetarra, Arr., Ig.).
- **Maria Dolores** → **Mariloli** → **Marilo**: *Màriló*, *Màrilóli* (bi neska, Ig.).
- **Maria Jesus** → **Mariaje**: *Marjá[x]e* (Lab.).
- **Maria Jose** → **Mariajo, Marijo**: *Mari[x]o* (Ig., Lab.), *Marjá[x]o* (Les.).
- **Maria Martina** → **Maimartin**: *Màimartín* (Lei.). Hemen hasierako *Mai-* horrek garbi uzten du sexua zein den.
- **Maria Soledad** → **Marisol** → **Maixol**: *Marisól* (Ara., Ig.), *Majxól* (Eu.).
- **Maria Teresa** → **Maitere, Maittere, Maite**: *Máite* (Arruazun, us-tez), *Maiñtère* (Arr., Eu., Ig.), *Máñtèrè* (Zubieta), *Maitere* (Arano, Zubi. & Peru., 1998: 261).
- **Maria Zelestina** → **Marixele**: *Màrixéle* (Ea.).
- **Martzelino, Martzelina** → **Martxelo, Martxeli**: *Martxéli* (Ara.), *Mártxelì* (Lei.), *Martxélo* (Iru., Tolosa...). Ez dakit tartean ez ote diren *Martxelino, Martxelina*-ren modukoak izan. *Martzelo* izenak ere eragingo zion beharbada *Martzelino*-ri, *Martxelo* bihur zedin.
- **Matilde** → **Mati, Matti**: *Máti* (Am.), *Matti* (Lei., Peru., 1996: 235). Ez dakit izen osoa *Matilde* den kasu honetan.
- **Maximo** → **Maxi**: *Máxi* (Iru.).
- **Mertzedes** → **Mertxe**: *Mértxe* (Alkotch, Ara., Auza, El., Eu., Ig., Ira., Lak.; Imozkoari *Mertxéx* ere erraten diote), *Mértxè* (Goi.), *Mertxe Zabaleta* (Lei., Peru., 1996: 95, 96), *Mertxe* (Goi., Zubi. & Peru., 1998: 216).
- **Mikaela** → **Miki**: *Miki* (Ari.). Irudi du honi femeninoak *-i-z* bukatzeko dagoen joerak eragin diola.
- **Monika** → **Moñi**: *Móñi* (Arb.).
- **Nagore** → **Nago**: *Nágo* (Segura).
- **Nartziso** → **Nartxi**: *Nártxi* (Lei.).

- **Natibidad** → **Nati**: *Náti* (Ara., El.).
- **Oxentonio** → **Oxenton**: *Oxéntòn* (Goi.).
- **Panttaleon** → **Pantta**: *Pántta* (Ara.).
- **Patrizia** → **Patti**: *Pátti* (Done., Les.), *Pátti* (Lei.).
- **Patrizio, Patrizia** → **Patri**: *Pátri* (em., Ig.), *Pátri* (gi., Lei.).
- **Paxkual** → **Paxku**: *Páxku* (Am., Lab.).
- **Perpetua** → **Perpe**: *Pérpe* (El.).
- **Polonia** → **Polloni**: *Pollóni* (Am., Ig.).
- **Presentazion, Prexentazion** → **Presen, Prexen**: *Présen* (Ara., Arr., Lab., Lar.), *Préxen* (El., Zug.).
- **Primitibo, Primitio** (*Primitjo*, Ara.) → **Primi**: *Prími* (Ara., Ig.).
- **Purifikazion** → **Puri** → **Purita**: *Puríta* (Ara.).
- **Rafael** → **Rafa**. Orokorra da Hegoaldean; adibidez, Arantzan dugu *Ráfa*.
- **Resurrezion** → **Rexu**: *Réxu* (El., Ig.), *Réxù* (Goi., Lei.).
- **Romualda** → **Romi**: *Rómi* (Ari.). Ikus *Mikaela*, goraxeago.
- **Sabina** → **Xabina** → **Xabi**: *Xábi* (Sak.er.).
- **Salbador** → **Xalbador** → **Xalba**: *Xálba* (El.).
- **Santiago, Xantiago** → **Xanti** → **Zanti** → **Zan**: *Xánti* (Am., Arr., El., Ig., Lab.), *Xánti* (Lei.), *Xánti, Zánti, Zán* (Urd.), *Xanti Saubaber* (Uztaritze, *He.*, 2004-IX-30, 4).
- **Sebastian** → **Sebas, Sabas, Xebas**: *Sébas, Sábas* (Ara.), *Xébas* (Ig.).
- **Seberiana** → **Xeberiana** → **Xebe**: *Xébe* (Oitz).
- **Seberino** → **Xeberino** → **Xebe, Xibirin**: *Xébe* (Ara., Ig.), *Xibirin* (Lei.).
- **Soledad** → **Xole**: *Xólè* (Goi.), *Xóle* (Ara., El., Urroz).
- **Sorkunde** → **Xorkun**: *Xórkùn* (Lei.).
- **Telesfora** → **Tteles**: *Ttéles* (Ea.), *Tteles* (Ea.; Erdozia, 2001: 134).
- **Teresa** → **Tere** → **Tte**: *Tére* (Ara., Ig.), *Tté* (Ea.), *Tere Larralde* (Lei., Peru., 1996: 9).
- **Trinidad** → **Trini**: *Trini* (Ara., El.), *Trini Rekalde* (Uitzi, Peru., 1996: 11).
- **Xabier** → **Xabi, Txabi**: *Xábi* (Ara., Arr., El., Ig., Lab., Oitz), *Txábi* (Lab.), *Xábi* (Lei.), *Xabi Errekarte* (Ma.-Le.), *Xabi Oillarburu* (Jutsi), *Xabi Saldubehere* (Aldude) (*He.*, 2004-VIII-12, 4, 5).
- **Xaturnino, Xaturdino, Xaturnina, Xaturdina** → **Xatur**: *Xátur* (gi., Ara.), *Xátur* (em., Arr.), *Xátùr* (em., Goi., Lei.), *Xatur* (gi., Ip., *He.*, 2004-VIII-5, 4).
- **Zeferino** → **Txipirin**: *Txipírìn* (Goi.).
- **Zelestino, Zelestina** → **Xelextino, Xelextina** → **Xele**: *Xéle* (El., gi.; EA, em.), *Xélè* (Goi., gi.).
- **Zipriano** → **Xipriano** → **Xipri**: *Xípri* (El., Madotz), *Xípri* (Goi.), *Xipri Arbelbide* (Iparraldeko idazlea).

Dokumentazioan *Nikolao, Nikolas* → *Nikol (Nicol de Umendia, Arra., 1513, Le. & G., 1998: 113)* aurkitu dut.

Apokopea, ezaguna den bezala, izenei ez ezik deiturei edo izengoitiei ere badagokie: *Basterretxea* → *Báste* (Iru.), *Goizueta* → *Goixút* (Les.), *Larramendi, Larrañeta* → *Lárra* (Iru.), *Martikorena* → *Martiko* (Iru.), *Mitxelena* → *Mítxe* (Les.), *Salaberri* → *Xála* (lapurtar pilotari ezaguna), *Susperregi* → *Xúxpe* (Les.), *Txoperena* → *Txópè* (Goi.), *Zubizarreta* → *Txúbi* (Azpeitia). Etxe izenetan oinarritutako goitzenetan ohikoa da (Salaberri, 2006): *Itxinikja* → *Itxiniki* (Aniz), *Indartea* → *Indárt*, *Irjertea* → *Irjért* (Ari.), *Hégja* → *Hégi* (Arnegi), *Xabáltenià* → *Xabált* (Dona.), *Aldálurria* → *Alddálur*, *Arrósia* → *Arróxe* (El.), *Txamóberri* → *Txámò* (Goi.), *Kamiuà* → *Kamío*, *Zubildja* → *Xubilde* (It.), *Kokótxià* → *Kokótx* (Oiz), *Koskórrenià* → *Koskórro* (Sal.)...

Ikusten den bezala, apokope edo laburtzea palatalizazioarekin batean gertatu ohi da, nahiz ez beti. Alemanez ere, Naumannen arabera (1977, 1996: 1760), *Kosenamen* edo *Koseformen* direlakoak izenenak ez ezik deiturenak ere izan daitezke, gurean bezala: *Dippmann* → *Dipp*, *Fischer* → *Fisch*, *Müller* → *Mü*, *Oppel* → *Opp*, *Roschütz* → *Rosch*, *Scherf* → *Scherfi*, *Schumacher* → *Schumi*, *Stetefeld* → *Stete*, *Uhlemann* → *Uhle*, *Wolgemuth* → *Wolge*, e.a. Lehenago, Gansleweitek (1971: 25), Kadenek (1972: 14) eta Schultheisek (1976: 79-80) ere bilduak zituzten honelakoak: *Birnbaum* → *Birn(e)*, *Erbstößer* → *Erbse*; *Glöckner* → *Glöcks*, *Kleks*; *Hanschkatz* → *Hanschi*, *Hoffmann* → *Hoffi*, *Matuschewski* → *Matu*, *Pfeifer* → *Pfiff*, *Winkelmann* → *Winkel*, e.a.

7.3.4. Errepikapen edo bikoizketa

Michaelssonek (1939: 112), Dauzatek (1988 [1949]: 115) eta Plénatek (1982, 1984: 163) *redoublement* erabiltzen dute, B. H. Allenek *reduplication* eta *duplication* (1956: 77), Stankiewiczek (1957:197), Neethlingek (1995: 92, 2005: 128), Obengek (1997: 45), Nelsonek (1998: 186), Daviesek (2000: 22) eta Bat-Elek (2005: 127) *reduplication*, Lipskik (1995: 422-423) «*reduplicative hypocoristics*» eta «*reduplicated hypocoristics*», Davisek eta Zawaydehek «*reduplicated hypocoristics*» (1999: 90), Boyd-Bowmanek (1960: 147) eta Van Wijkek (1964: 310) *reduplicación*, Seemanek (1983: 241) *duplication*, Zadokek (1983: 94) «*reduplication and iteration*», Debusek (1988: 32) *Reduplikationsform* eta Bleider-ek (2001: 99) «*duplication of the initial consonant*».

Gertakari hau usaiakoa da eta izan da beste hizkuntza batzuetan ere. Zadokek (1983: 94) elamitarren hipokoristikoak aztertzean erraten du errepikapen edo iterazioa hizkuntzek duten baliabiderik arruntenetakoa dela, eta, besteak beste, semitikoan ere badela. Lipskik (1995: 418) argitzen du ez dagoela

unibertsalki onetsirik dagoen errepikapenaren definiziorik, baina gehitzen du fonologian, ardura, «eremu fonologikoaren» edo honen zati baten kopiatzearen eta afijazioaren arteko uztardurari egiten diola erreferentzia:

«Although no universally-accepted definition of reduplication exists, within phonology the term usually refers to a combination of *copy* and *affixation* of part or all of a phonological domain (morpheme, word, etc.).».

Jordaniako arabieran badira honelakoak, laugarren atalean Davis eta Zawaydehen lanez mintzatzean ikusi bezala. Egiptoko arabieran ere, H. B. Allenen arabera (1956: 77-78), errepikapena baliabide emankorra da, eta orobat gertatzen da hebreeran, Bat-Elek (2005: 127) erraten duenez.

Errusieran, Stankiewiczen arabera (1957: 2001-201), «the non-productive category of reduplicated forms constitutes a subgroup of the hypocoristica. The stems of the reduplicated forms are based on the first syllable of the truncated stem plus the reduplicated initial consonant»: (*Borís* → *Bórja* → *Bóba*, (*Egór* → *Górja* → *Góga*, (*Nikoláj* → *Kólja* → *Kóka*, (*Volodímir* → *Volódja* → *Vóva*...), hots, forma errepikatuak lortzeko hipokoristikotik abiatu beharra da, ez oinarriko izenetik. Ikus, orobat, Michaelsson (1939: 112) eta Lawson & Nevo (2005: 68, 72). Eslabiarren eta lituaniarren artean bizi izandako askenazi juduek ere ibiltzen zituzten errepikapenean oinarritutako izen ttipi batzuk (*Dovid* → *Dode*, *Duvid* → *Dude*, *Nokhem* → *Nyonnye*, *Volf* → *Vove*), baina betiere alderdi bereko kristauak baino franko gutxiago, ale batzuk baizik ez, egia erran (Beider, 2001: 99).

Gulevskak (2002: 190-191), mazedonieraren hipokoristikoez mintzatzean, *Biljana* → *Bibi* (eta *Biki* eta *Bili* ere bai), *Dijana* → *Dida* eta *Didu*, *Dimitar* → *Mimi*, *Gordana* → *Goga* → *Gogĩ*, *Krste* edo *Krsto* → *Kiki*, *Liljana* → *Lili* eta *Lilu*, *Petra* → *Pipi*, *Slobodan* → *Bobi* eta beste aipatzen ditu, denak gazte jendearen hizkerakoak.

Frantsesez ere arruntak dira bikoizketadun izen ttipiak; ondoko hauek ditugu, besteak beste: *Auguste* → *Gugusse*, *Victor* → *Totor* (Michaelsson, 1939: 112), *Angeline* → *Gigi*, *Arnaud* → *Nano*, *Carole* → *Caco*, *Domini-que* → *Dodo*, *Mimique* edo *Mimi*; *Elisabeth* eta *Isabelle* → *Babé*, *Eveline* → *Vivi*, *Karine* → *Kaki*, *Laurent* → *Lolo*, *Simone* → *Momo*, *Roger* → *Jojo*, *Sophie* → *Sosso* edo *Fifi*, *Théophile* → *Toto*, *Xavier* → *Xaxa* (Plénat, 1982 eta 1984), *Emile* → *Mimil*, *Hubert* → *Beber*, *Hélène* → *Lelen*, *Michelle* → *Mimi*, *Nicole* → *Nini*; *Otto*, *Thomas* → *Toto* (Nelson, 1998: 186). *Herria*-n (2006-X-26, 5) ageri den *Lulu* (*Barthaburu*) *Louis*-en frantseseko hipokoristikoa besterik ez da. Polgek (1983: 119) *Henri* → *Riri* aipatzen du eta «forme phonétiquement aberrante» deitzen.

Italieraz *Domenico* → *Memmo* (Davies, 2000: 22), *Giovanni* → *Nanni*, *Giuseppe* → *Beppe*, *Luigi* → *Gigi* (Cohen, 1977: 104), *Giuseppe* → *Beppo*, *Renato* → *Tato* (Debus, 1988: 32) ditugu, alemanez *Birgit* → *Bibbe* eta *Giga*, *Gudrun* → *Guga* eta *Gugu*, *Joachim* → *Jojo*, *Julia* → *Juju*, *Kirsten* → *Kiki*, (*Klaus*-) *Peter* → *Pepe*, *Lothar* → *Lolo*, *Miriam* → *Mima*, *Roman* → *Nanan*, *Sylvia* → *Sisi*, *T(h)orsten* → *Dodo* eta *Toto*, *Tilman* → *Lille*, *Viola* → *Vivi*, *Wiebke* → *Wiwi*... (Nau-
mann, 1976: 24, Debus, 1988: 38-39).

Gaztelaniaz hauek ditugu, besteak beste: *Adela* → *Lala*, *Ana* → (*Ani-
ta*) → *Tita*, *Titi*; *Antonio* → *Toto*, *Tonton*; *Camila* → *Lila*; *Carlota* → *Lolo*, *Loló*;
Carmen → *Mamen*; *Carola*, *Dolores* → *Lola*, *Cayetano* → *Quiqui* (Stratmann,
1935: 9 eta hurr.), *Aurora* → *Lola*, *Catalina* → *Nina*, *Enrique* → *Quique*, *Micae-
la* → *Mime*, *Moisés* → *Totó*, *Obdulia* → *Lula*, *Ramona* → *Monona*, *Teresa* →
Teté, *Virgilio* → *Lilo* (Boyd-Bowman, 1955: 344-346), *Elena* → *Nena* (Fontane-
lla, 1962: 560), *Eduardo* → *Lalo*, *Guillermo* → *Memo*, *Leonor* → *Nonó*, *Nonoy*
(Van Wijk, 1964), *Andrés* → *Lele*, *Manolo* → *Lolo* (Morera, 1991: 207), *Ana* →
Nana, *Oscar* → *Caco*, *Olga* → *Coca* eta *Goga* (Lipski, 1995: 422-423), *Aurelia*
→ *Lela*, *Jorge* → *Coque* edo *Coquis*, *Socorro* → *Coco* (Báez, 2002: 249 eta hurr.).
Van Wijkek -ito hipokoristiko atzizkia duten zenbait izenetan oinarritutako
Tito jasotzen du: *Andres* → (*Andresito*) → *Tito*; *Ángel*, *Ángela* → (*Angelito*, *Ange-
lita*) → *Tito*, *Tita*; *Carlos* → (*Carlitos*) → *Tito*, *Rafael* → (*Rafaelito*) → *Tito*
(ibid., 311).

Hizkuntza berean errepikapenarekin batean txistukaritzea ere ager
daiteke: *Asunción* → *Choncha*, *Chicha* (Stratmann, 1935: 11), *Alicia* → *Chichi*
(Boyd-Bowman, 1955: 344), *Eloisa* → *Chocha* (Van Wijk, 1964: 309), *Jesús*
(?) > *Chichín* (Morera, 1991: 208), *Bonifacia* → *Chacha* (Piñeros, 2000: 31,
33), *Cecilia* → *Chechi*, *Inocencio* → *Chencho*, *Jesús* → *Chucho*, *Jesusa* → *Chu-
cha*, *Narciso* → *Chicho* (Báez, 2002: 247 eta hurr.) edo bestelako palataliza-
tzeak: *Aurelia* → *Yeya*, *Diego* → *Yeyo*, *Gloria* → *Yoya* (Morera, 1991: 208). Cf.,
gainera, gure inguruan aditzen den *José* → *Josetxo*, *Josetxu* → *Txetxo*, *Txetxu*
eta gaztelaniaz hain hedaturik dagoen *Pepe*, irudi duenez *Josepe*-ren moduko
batetik atera dena.

Seemanek (1983: 241) hizkuntza batekoak baino gehiagotakoak aipa-
tzen ditu: *Ernestine* → *Titine*, *Francisco* → *Cici*, *Giuseppe* → *Pepe*, *Kyryl* → *Kiki*,
Louise → *Lulu*, *Luigi* → *Gigi*, *Miriam* → *Mimi*, *Robert* → *Bebet*.

Hausa afrikar hizkuntzan hipokoristikoak egiteko era bat baino gehia-
go daude; horietako batean azkeneko silaba errepikatzen da, Newman eta Ah-
madek (1992: 161) diotenez, eta errepikatzearekin batean azkenurreko bokala
luzatzen: *Àlhajì* → *Àlhàjijji*, *Bellò* → *Bèlloolo*, *Kulù* → *Kulùulu*, *Saalè* → *Sàale-
ele*, e.a. Kontinente bereko Akan hizkuntzan ere modu bat baino gehiago daude

izen ttipiak egiteko, eta horietako bat errepikapena da, baina bakarrik fante dialektuan (hiru dialekto idatzi nagusi ditu: asante, akuapen eta fante; Obeng, 1997: 45). Hemen izenak bi silaba baditu, lehena ezabatzen da eta bigarren errepikatzen; forma errepikatuko lehen bokala luzatu egiten da, zenbait aldiz behinik behin. Izenak hiru silaba baditu azkena ez da errepikatzen, hots, hipokoristikoak bi silabakoak dira eta aurrenekoaren bokala beti luzea da: *Á!bá* → *Bàá!bá*, *Èkú!á* → *Kúükú!á*, *Kòfí* → *Fí!fí*, *Kòdzyó* → *Dzyóózyó*, *Kwèèkú* → *Kúükú*, *Kwèst* → *Súst*... (ibid.; ikus, berebat, 2001: 122-124). Hego Afrikako xhosera hizkuntzan ere ohikoak dira errepikapenezko izen ttipiak: *Lulama* → *Lulu*, *Ndyebo* → *Bobo*, *Nonzima* → *Nzinzi*, *Zanele* → *Zaza*... Hauek, Neethlingek dioenez (2005: 129), barne zirkulu txiki batean baizik ez dira ibiltzen, biziro oker ez banago gurean agitzen den bezala.

Boyd-Bowmanek (1955: 358-359) azaltzen du gaztelaniako hipokoristiko errepikatuetan zortzi kontsonante (/p/, /t/, /k/, /m/, /n/, /ch/, /y/ eta /l/) besterik ez dela agertzen. Euskaraz, ditudan lekukotasunen arabera betiere, kontsonante hauek azaltzen dira: /k/, /l/, /ll/, /m/, /n/, /ñ/, /p/, /t/, /tt/, /tx/ eta /x/. Zernahi dela, etorkizuneko ikerketak eta datu bilketak segur aski lekukotasun gehiago eta soinu gehiago azaleratuko ditu.

Gertakari berbera ez izanagatik, geminazioa ere ibili izan da, han-hemen, izen ttipiak erdiesteko. Adibidez, Gorrotxategik dio (1984: 123) galiar antroponimian erabiltzen zela, izen konposatuaren lehen osagaia oinarritzat hartuta (*Epedorix* → *Eppo*, *Eppius*, *Ep(p)illus*), eta germanieraz ere ageri dela bilakabide hau (*Sige-rich*, *Sig-fridus* → *Sicco*).

Euskara dela eta, irudi du anitzetan asimilazio prozesu baten aitzinean garela (ikus apokopeaz mintzatzean errandakoa); gehienetan bi silabako hipokoristikoak izaten dira, gaztelaniaz eta frantsesez bezala (Nelson, 1998: 186, 191). Lekukotasun hauek ditut:

- **Allande** → **Allalle**: *Allalle* (Altzai, Urdatx–Aramitz) (34).
- **Dolores** → **Loles**: *Lóles* (Eo., Oitz).
- **Dominika** → ***Domi** → **Momi**: *Mómi* (Lei.). Hemen, ikusten den bezala, errepikapena (asimilazioa) eta apokopea ditugu, batean.
 - **Edurne** → **Nune**: *Núne* (Lab.). Neska hau *Édu* ere deitzen dute.
 - **Graxi** → **Xaxi**: *Xáxi* (Larrabile, Altzai; izen ofizialtzat *Engrace* dute emazteki hauek).
 - **Iñaki** → **Kaki**: *Káki* (Lei.).
 - **Izaskun** → **Kakun**: *Kákun* (Lab.). Neska hau *Ízas* eta *Txáskun* ere deitzen dute.

(34) Txomin Peillen eta Jean-Louis Davant zuberotar euskaltzainek emandako datua.

– **Jean-Pierre** → **Panpella, Panpiale, Panpilli, Pepela**: *Panpélla* (Zub.), *Panpjalé* (Haz.), *Pānpillí* (Amü.), *Pepéla Mirande* (Zub.). Lhandek (1926: 853) *Pele* aipatzen du, *Pierre*-ren txikigarria dela erranez. Menturaz hizteggigile honek berak jasotzen duen *Pelle*-ren despalatalizazioaren ondorio dateke. Cf. *Pello / Pelo*. Ikus gorago, apokopeari eskaini atala.

– **Johañe** → **Ñañe**: *Ñáñe* (Zub., «txikia zelako» (35)).

– **Jose** edo **Joxe** → **Kote, Kotte** (→) **Tote, Ttotte**: *Toté, Ttotté* (Garazi; Lafitte, 1987 [1944]: 149), *Ttotte Sarthou* (Haz., *He.*, 2005-X-13, 4), *Ttotte Goyenette* (Haz., *He.*, 2006-VIII-31). *Ttotte* hau *Tote* bihur daiteke ('gros Joseph', Lafitte, 1987 [1944]: 149). Bilakera alderantzizkoa ere izan liteke, ordea, hots, *Kote* → *Tote* → *Ttotte*.

– **Jose(pe)** → **Pepe**. 1727an hau aurkitu dut, Beriainen: «*Ytten en otra Cassa de dho Juan de Herize llamada Peperena auita con su familia Josseph de Tiebas*»; *Pépe* (Eu., Lab.. Imozkoari *Pépe* gazteek deitzen diote; besteek *Josétxo*).

– **Josefa** → **Josefita** → **Josepita** → **Pepita** → **Pepi**: *Pepíta, Pépi* (Ara.), *Pepíta* (Ig.), *Pepita jauregui* (Sara, *He.*, 2004-XI-11, 4).

– **Josune** → **Totune** → **Totu, Tutu**: *Totúne, Totú* (Ari.), *Tútu* (Iruñean bizi den euskalduna).

– **Juanamari** → **Mamai**: *Mamáĭ* (Aniz).

– **Juankruz** → **Kankutx** → **Kaku**: *Kánkutx* (Ari.), *Kakú* (Auza). Zenbait hizkeratan dagoen [x] soinua [k] egiteko joerak ere eragin izanen dio; cf. *Jose* → *Kóte* (Zug.), *Kótte* (Err.), (*Maria*) *Angeles* → *Ankéles* (Ari.).

– **Katti** → **Ttatti**: *Ttattí* (Ami.).

– **Laura** → **Lali**: *Láli* (edo *Lá*, Les.).

– **Leire** → **Lele**: *Léle* (edo *Lé*, Les.).

– **Lidia** → **Lili**: *Líli* (edo *Lí*, Les.).

– **Mari Paz** → **Papax**: *Papáx* (Dona.).

– **Martine** → **Ttattin**: *Ttattin Arambel* (Urepele, *He.*, 2004-IV-12, 5).

– **Migelmari** → **Mamari**: *Mamári* (Ig.).

– **Sebastian** → **Xaxtian** → **Ttattan**: *Ttattán* (Lei.).

Dokumentazioan ere agertzen da, behin edo beste, erabide hau (ikus gorago):

– **Joanis** → **Nanis**. Berriogoiti eta Berriozarko *Nanisena* oikonimoen oinarrian dateke (1727). Ikus, orobat, Jimeno (1992: 263, 300).

– **Juantsu** → **Txatxu**: *Chachu Arrona* (Deba, 1436).

– **Martin** → **Txatxin**: *Chachin Urragui* (Arra., 1429).

– **Santxo** → **Txantxo**: *Chancho Ylundain* (Altzorritz, 1796).

(35) Txomin Peillenek emandako datua.

Stankiewiczek dio (1957: 201) errusierako hipokoristikoen errepikapen-aldaeretan gehienik agertzen diren kontsonanteak ezpainkariak eta belarrak direla, eta irudi du euskaraz ere hala dela, nahiz erabateko nagusitasunik ez den eta albokoa ere ezaguna den, jasotako lekukoetan ikus daitekeen bezala. Dokumentazioko izen ttipietan, bestalde, <tx> azaltzen zaigu.

7.3.5. Bestelakoak

Kasuren batean laburdura leku batean baino gehiagotan burutzen da, edo orain arte ikusitakoez bestelakoa da bilakaera:

- **Aitziber** → **Tzibi**: *Tzibi* (Aitziber Juaristi, Athleticeko emakume taldeko jokalaria, *Egunero*, 2003-4-29, 22, *Berria*, 2005-8-13, 24).
- **Asuntx(i)on** → **Axunta**: *Axúnta* (El.).
- **Hipolito** → **Poli**: *Póli* (Am., Ara.).
- **Imanol** → **Mañelo**: *Mañélo* (It.). Hemen irudi du izen zaharraren (*Manuel*-en) eta berriaren (*Imanol*-en) nahasketa zerbait gertatu dela.
- **Jesus Mari** → **Txuma**: *Txúma* (Dona.). Gaztelaniaz ere hola.
- **Jose Antonio** → **Joze Antonio** → **Zaton**: *Záton* (Lab.).
- **Jose Mari** → **Joze Mari** → **Jozemo**: *Jozémo* (Lab.).
- **Jose Mari, Joxemari** → **Txema**: *Txéma* (Eu.). Urte mordoxka bat dutenek *Joxemári* deitzen diote, baina gazteek *Txéma* nahiago. Kontuan har gaztelaniaz ere *Txema* ibiltzen dela.
- **Karlos** → **Kaio**: *Kájo* (Ara.).
- **Mari Karmen** → **Apamen**: *Apámen* (Ea.).
- **Maria Azentzion** → **Mazintzi**: *Mázintzi* (Lei.).
- **Maria Biktoria** → **Maribi**: *Maribi* (Ig., Lab.).
- **Maria Julia** → **Marijuli**: *Mári[x]úli* (Ara.).
- **Maria Lurdes** → **Malu**: *Málu* (Lab.).
- **Marijose** → **Kozpi**: *Kózpi*. Labaiengo berriemaileek erraten dutenez, Baztango *Marijose* bati baino gehiagori *Kózpi* deitzen diete.
- **Martin Joxe** → **Martioxe, Martiuxe** → **Matux**: *Mátux* (Lei.).
- **Martin Xeperino** → **Martixepe**: *Mártixepè* (Lei.) (36).
- **Migel Mari** → **Mielmo**: *Miélmo* (Lab.).
- **Pantxito** → **Patxi**: *Pátxi* (orokorra). Hemen bukaerako *-to* hori atzizkitzat hartuko zen, eta, behin hipokoristikoaren eramailea handitu eta gizonduz gero, galdu.
- **Rafaelito** → **Faito**: *Fáitò* (Lei.).
- **Xarle** (< Charles) → **Ttale**: *Ttále Ouret* (Suh.).

(36) Ez dakit segurur iturria hor aipatzen dudan hori den.

Zenbaitetan, hipokoristikoaren jabearen azkartasuna nabarmentzeko edo, *-o* erabiltzen da bukaeran; hau da *Jozemo*-ren kasua, baina ez dakit azalpen honek *Mielmo*-rendako ere balio ote duen. Beste batzuetan *-i* bukaera erabiltzen da, espainolez bezalatsu, hipokoristikotasuna erdiesteko: *Arantxa* → *Arantxi*, *Aitziber* → *Tzibi*, *Enkarna* → *Enkarni*, *Felixa* → *Felixi*, *Josefa* → *Koxpa* → *Koxpi*... Gorago erran moduan, Hegoaldean usaiakoa da emakume izenak *-i*-z bukatzea, baita oinarrizko aldaerak *-ia* ez duenean ere, batzuetan.

Zenbait aldiz, Satrustegiri (Euskaltzaindia, 2001: 15) jarraituz goitiago erran dudan bezala, ez dago garbi egungo forma laburtua zein izenetatik atera den; hau da, adibidez, Urdiaingo *Finatxo*-ren kasua, zein *-ina*-z amaitutako izen ugariren laburtzearen ondorio baita.

8. ONDORIOAK

8.1. Disemiarik ez gehienetan euskal hipokoristikoetan

Oro har, eta ondorio moduan, erran daiteke euskaraz ez dela disemiarik hipokoristikoetan, kasu bakanen batean ez bada, are gutiago polisemiarik, Aragoiko hizkeran (Buesa, 1989: 47-48), alemanean (Naumann, 1976: 15, 1996: 1758) (1), errusieran (Stankiewicz, 1957: 197, 199, 205; Fokker, 1960: 270) (2) eta bereziki frantsesean (Plénat, 1982: 92-94 eta hurr.) (3) eta Egiptoko arabieran (B. H. Allen, 1956: 77) agitzen denaz bestera. Erran nahi dut gure hizkuntzan hipokoristiko bakoitza oinarritzko izen banari dagokiola, ez bi edo gehiagori (4).

Badira zenbait salbuespen hala ere: *Florentzio, Prudentzio* → *Prontxo, Pontxio*; *Maria, Madalena* → *Maddi*; *Seberiana, Seberino* → *Xebe*; *Txantxo, San-*

(1) Hizkuntza honetan, erraterako, *Sig* (gizon izenetan batez ere) edo *Sigi* (emazteki izenetan gehienbat) ondoko izen hauen hipokoristikoak izan daitezke: *Siegmar, Siegfried, Siegbert, Sieg(is)mund, Siegward, Sieghard, Siegram, Siegburg, Sieghild, Sieglind(e), Sigrid* eta *Sigrun*-enak. *Tina*, berriz, *Bettina, Christina* eta *Martina*-rena izan daiteke. Ingelesez ere badira, edo izan dira behinik behin, holakoak; Laversuchek (2006: 340) honela dio, Estatu Batuetako esklaboen izenen inguruko artikulu interesgarrian: «One obstacle to classification was the use of a clipped variants such as *Sam*. This extremely common personal name could have been a shortening for the full name *Sampson, Samuel*, or *Sambo* [...]».

(2) Hauek diotenez, izen laburtu bat bi izen neutro edo gehiagoren ondorio izan daiteke: *Aleksandr(a), Aljona* → *Alja*; *Nikolaj, Konstantin* → *Koka*. Nolanahi ere, beste batzuetan ongi bereizten dira; adibidez, *Paláša* forma *Palagėja*-ren hipokoristikoa da, eta *Páša*, berriz, *Pável* edo *Paraskéva*-rena (kasu honetan berriz ere disemia dago, bistan denez); *Miša* forma *Mixail*-en izen ttipia da, ez *Mila*-rena (*Miláša*) (Stankiewicz, 1957: 205).

(3) Hizkuntza honetan biziki ugariak dira disemia eta polisemia kasuak; ikaragarria da, konparaziorako, *Nanou* hipokoristikoaren oinarrian egon daitezkeen izenen kopurua: *Anne, Annie, Bernadette, Bernard, Daniel, Dominique, Eliane, Elisabeth, Geneviève, Marie-Antoinette, Nadia, Nadine, Natacha, Nathalie* eta *Rolande*, gutxieneko kontuan. Beste kasu ez hain emankor batzuk: *Béatrice, Bénédicte* → *Bibi*; *Jacqueline, Karine* → *Kiki*; *Marguerite, Monique* → *Mimi*; *Geneviève, Hélène* → *Ninou*; *Christian(e), Christine, Christophe, Thierry* → *Titou*; *Cécile, Sylvianne, Sylvie* → *Sissou*, e.a.

(4) Alderantzizkoa, ordea, beheitiago diodan moduan, ez da gertatzen, alegia, oinarritzko izen batek hipokoristiko mordoxka izan ditzake.

txo edo *Antxo*-tik, baina beharbada *Joantxo*-tik ere bai. Salbuespenik nabarmenena, apika, lan honen hastapenean aipatu dudana *Finatxo* da, zein, erran bezala, *-ina* bukaera zuten hainbat izenen hipokristikoa izan baitzitekeen, orain urte batzuk. Anizko *Mamai* eta Igantziko *Mamari* fonikoki gertu daude eta oinarriko izen banari dagozkio: Baztangoa *Juana Mari* da eta Bortzerrietakoa *Migel Mari*. Gainera, sexua zenbait aldiz ez da ongi bereizten (cf. *Saturnino*, *Saturnina* → *Xatur*), eta hipokoristikoetarik beretarik sortutako «bir-hipokoristikoetan» disemia bat gutxienez aurkitu dut: *Ildefontxito*, *Patxito* → *Atxito*, baldin oinarriko izenak eman dizkidaten bi horiek badira, alegia, jasotako informazioan hutsik ez badago.

8.2. Euskal hipokoristikoak ezin dira eremu dialektal bakarrera mugatu, orokorrak dira

Lan honetako datu ugariak ikusita garbi dago bustidura –eta atzizkien erabilera– ezin dela mugatu, Orpustanek (1999: 135) egiten duen bezala, eremu dialektal bakarrera, Arabara zehazkiago erran:

«La palatalisation expressive apparaît ainsi nettement, vu le contexte, comme un trait du langage familier et familial, ce qu'elle est restée dans l'usage jusqu'à l'époque contemporaine. Mais aucun autre document des autres secteurs dialectaux n'en donne, pour l'époque médiévale, une extension comparable à ce texte alavais».

Ezin da erran beste eremu dialektaletan ez dela horrelakorik agertzen, lan honetan ikus daitekeen gisan Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko datuak ugariak direlako. Iparraldean ere hipokoristikoak ardurakoak izan dira eta oraino hala dira, Goihenetxeren ikerketetan, oraingo literatura lanetan eta agerkarietan ikus daitekeen moduan.

Bestalde, irudi luke orain gauzak aldatzen ari direla, berrekailuren baten kasuan: datu historikoetan *-txu* atzizkia mendebalde-erdialdean kausitzen dugu, gutxitan hala ere (*Juantxu* Arrasaten, *Joantxu* Tolosan, *Maritxu* Durangon, *Perutxu* Urduñan), baina egungo egunean *Estitxu*, *Jontxu*, *Maitetxu*, *Mirentxu*... daude Goizueta, Labaien, Leitza eta Zugarramurdi nafar herrietan, eta, beraz, pentsatu beharko dugu Ekialdeko dokumentazioan *-txu* ez aurkitzea halabarrez gertatu dela edo, beste gisan, aldakuntza burutu dela, hots, historian zehar *-txo* zena orain *-txu* izan daitekeela, onomastikan ere erdialderanzko joera nagusitzen ari dela(5). Bestalde, *-ño* atzizkia mugaz haraindian ibiltzen da

(5) «Ere» diot dialektologian, Zuazok garbi erakutsi duen bezala (2003: 107, 128, 131-132, 134, 176), erdialderanzko joera dagoelako, Baztanen hein batean, baina batez ere Gipuzkoan

(mugaz honaindian *andereño* dago, baina salbuespena da), eta normala da, hortaz, *Bettiño*, *Juanaño* eta beste soilik Iparraldekoak izatea.

Etorkia zer izenetan duten seguru ez dakidan hipokoristikoak edo hipokoristiko ustekoak, bestalde, gehienbat mendebalde-erdialdekoak dira: *Arbe-txe* («*Arbeche el casero de Çoçaberro*», Deba, 1436, Her. & Bar., 2006, 34, 122. or.), *Gatxi*, *Nitxin*, *Txabira*, *Txan*, *Txandra*, *Txanen*, *Txara*, *Txaran*, *Txare*, *Txarrieko*, *Txerraman*, *Txetxona*...

8.3. Hipokoristikoak, historian zehar, etxe eta lagunarteko giroan erabili izan direla dirudi, baina agirietan anitzetan agertzen dira

Izen ttipiak ezin dira mugatu, Orpustanek egiten duen bezala (1999: 135), soilik familia barruko erabilerara. Izan ere, agiri ofizialetan behin eta berriaz azaltzea, nire irudiz, ustekizun horren aurka mintzo da. Zernahi dela, eta gorago erran dudan gisan, euskararen egoera soziolinguistikoak, gainetik beti beste hizkuntza bat edukitzeak gure izen ttipiak maizkara oinarriko izentzat hartzea izan du emaitza.

8.4. Hipokoristikoak ez dira euskararen baliogabetzearen ondorioztat ematen ahal, euskara indartsuago eta honelako gehiago azaltzen direlako

Ortzaizeko irakasleak dio izen ttipien erabilera euskararen baliogabetzearen ondorioa dela, gatzelania ofizialaren aitzinean, baina niri uste hau ustela iruditzen zait. Egia da, arestian erran dudan moduan, hipokoristiko batzuk erdarazko izen neutroekin berdintzen zirela, baina egia da, berebat, alderdi batean zenbat eta euskara indartsuago egon den, orduan eta hipokoristiko gehiago azaltzen direla alderdi horretako dokumentazioan, eta gaur egun ere beste horrenbeste agitzen da hizkuntza bizirik dagoen eremuetan. Honela dio Nafarroa Behereko ikertzaileak (1999: 134):

«Cette hypocorisation à outrance, signe peut-être d'une certaine dévalorisation de la langue populaire face au castillan officiel, ne trouve pas de répondant comparable dans les autres zones dialectales, et a pu être tenue pour un trait plus "basco-hispanique" que basque».

berean (Oiarzun alderdian). Probintziako muga aldean dauden nafar herri eta ibarretan ere (Araitz, Arano, Areso, Bortziriak, Sakana...) nabarmena da aipaturikako lerratzea, eta urrunxego daudenetan orobat (Imotz, Larraun, Malerreka).

Ez dut ulertzen nola egin daitekeen honelako baieztapena. Izan ere, Iparaldean, egun, *Antton, Añex, Battitt(a), Beñardo, Eloixa, Ganix, Johaño, Manex, Mañex, Mattin, Paxkal, Paxkalin, Trattin, Xabadin* eta beste ohikoak dira egun eta dokumentazioan ere agertzen dira ildo bereko aldaera palatalizatuak, *Matxin* eta *Xeme* konparazioan. Atzizkidun hipokoristikoak, bestalde, ugariak izan dira alderdi horretan, Goihenetxeren 1966ko lanean eta bestetan ikus daitekeen bezala.

Nafarroa Garaian Berant Erdi Aroan eta Bizkundean izen ttipi desberdin gehiago –eta maizago– opatzen ditugu egun oraindik euskaldunak diren alderdietan (Baztan, Imotz, Leitza, Ultzama...) luzaz hizkuntzaren muga edo honetatik franko hurbil egon diren Oibar, Orbaibar, Ibargoiti eta bestetan baino. Hemen «salbuespena» gure hizkuntza XIX edo XX. mendeetan galdu duen Nafarroako erdi aldeko eremu zabala da (Etxauribar, Gesalatz, Iruñerria...), lehenagoko garaietan guztiz euskaldunak izanik hipokoristikoak arrunt ugariak baitziren hor ere.

8.5. Elebitasun egoerak, hots, euskara mendekoa izateak hipokoristikoaren sisteman eragina izan du

Badirudi euskara, bizi izan den elebitasun egoerarengatik, erdararen aldean behe mailakoa izan dela, ez segur aski azken mendeko neurrian, ez eta Euskal Herriko alderdi guztietan modu berean ere. Beharbada arrazoi horrengatik hipokoristiko batzuk (*Juaniko, Matxin, Patxi, Pello...*) erdarazko izenen mailakotzat hartzen ziratekeen, hots, “positibo”-en mailakotzat ematen ziratekeen. Zernahi dela, izen ttipi “neutraldu” horietako batzuek behintzat nolabaiteko hipokoristikotasuna atxiki zutela eta dutela erran daiteke, alegia, ez dutela zeharo galdu zuten indar adierazkor berezia (*Juaniko, Patxi...*). Nolabait ere bidatz erditan dau dela erran genezake, hipokoristiko garbien eta izen neutroen, positiboaren artean.

8.6. Hipokoristikoak eratzeko baliabideen bilakaera: ikuspegi orokorra

Lan honetan aurkeztu ditudan datuak ikusirik, irudi luke Antzinatetik segur aski, eta Erdi Aroz geroztik seguru, antolabiderik emankorrena morfologikoa izan zela, atzizkien erabilera, eta gero hauek urrituz joan direla, oraingo egoerara iritsi arte (-ño Ip., -iko, -ika Heg., -ito, -ita eta -to batez ere Heg., -tto Ip. zein Heg.). Gaurko urritasuna atzizki kopuruari ez ezik, hipokoristiko desberdinen kopuruari ere badagokio, nahiz hemen aldean baden berrekailu batzuetarik besteetara.

Hogeigarren mendean erabide morfologikoak baino gehiago ibili dira fonologikoak, hots sinbolismoa alegia, usu, gorago erran bezala, bi bideak, mor-

fologikoa eta fonologikoa, batean agertzen badira ere. Lehenaren maiztasuna handitu egiten da, jakina, era bateko edo besteko izen laburtzeak ere aintzat hartzen badira, eta uste dut aintzat hartu behar direla, hagitz oker ez banabil hipokoristikoak moldatzean oinarritzko izenaren hasierako, bukaerako edo erdiko laburtzeak, egun, behinola baino aise gehiagotan azaltzen direlako.

Hogeigarren mendean, Sabino Arana eta Julio Eleizalderen iraultza onomastikoa gertatu zen lehenik, gerla zibilaren aitzinetik, eta Satrustegirena gero, Frankismoaren azken urteetan eta «trantsizioa» deitu denean. Gaur egun, autore horiek asmatu, moldatu eta bildutako izenak erabiltzen dira, bai eta Abandokoak irekitako bidetik geroago sortu direnak ere: *Bidane, Eguzkiñe, Ixone, Izarne, Zuriñe*, e.a. Gure egunotan ardurakoak diren beste izen anitz «ekologiko» edo «naturatikako» deitu ditzakegu: *Ekaitz, Haizea, Haritz, Hodei, Ibai, Ihintza, Ilargi, Ira eta Iradi, Izar eta Izarra, Lizar, Zumar...*

Oraingo izen hauetako guztiak, edo gehienak behinik behin (cf. Akitaniako *Arixo deo*), berriak dira, aurreko mendeetako sistema onomastikotik, izenak paratzeko finkaturik zegoen ohitura eta usadiotik hasantzen direnak, eta irudi du hiztunek oraindik ez dituztela erabat barneratu, hipokoristikoak sortzeko garaian behintzat: *Axier, Bidañe, Egoitx, Gaixka, Gotxone, Haritz, Olatx, Xorkun, Xumar...* bildu ditut, baina, datuetan ikusten den moduan, askoz gutxiago baliatzen dira palatalizazio bideak izen berri horiekin tradizio zaharrekokin baino. Beharbada denbora kontua izanen da, barneratzeko eta izen horietara jartzeko hamarkada batzuk behar ditugula, baina ez dakit gauza zertan geldituko den. Bestalde, eta goitiago erran dudan bezala, izen neutrotako *Beñat, Eñaut, Maddalen, Maddi, Manex, Pello, Xalbat* eta abar paratzea hipokoristikoak eratzeko euskaraz izan den eta oraino ere baden sistemaren aurka doa, horiekin palatalizazio bidea itxirik dagoelako eta egun ditugun atzizki bakanak baliatzea beste aterabiderik ez delako, hau egin badaiteke behinik behin. Izan ere, ez dirudi *Beñatto, Eñautxo, Maddalentto, Maddiño, Manexto* edo *Xalbaño*-ren modukoak sortzea txoil erraza denik.

8.6.1. Hots sinbolismoa. Baliabideen emankortasuna eta banaketa geografikoa

8.6.1.1. Txetxekari afrikatua ([č])

Txetxekari afrikatuaren erabilera franko arrunta da Hegoaldean orain, eta aski hedaturik egon da Erdi Aroan eta geroko denboretan ere. Del Valle Lertsundik aipatzen duen eta literaturan ere opatu dudana [č]-ren erabilera protektikoa (*Albi* → *Txalbi*, *Ana* → *Txana*, *Andres* → *Txandres*, *Anton* → *Txanton*, *Elena* → *Txelena*, *Esteban* → *Txesteban*, *Ordoño* → *Txordon...*) egun galdua da,

eta bakarrik beste soinu baten ordez aurkitzen dugu, hagitz gutitan hasierako lekunean (*Domingo* → *Txomin*, *Zezipio* → *Txixilio*), anitzetan barnekoan (*Franztzisko* → *Pantxito*; *Tiburtzio*, *Diburtzio* → *Tiburtxio*, *Diburtxio*...) eta zenbaite-tan bukaerakoan (*Egoitz* → *Egoitx*, *Haritz* → *Haritx*, *Olatz* → *Olatx*). Erran liteke txetxekaria protetikoa izatetik eta gehienbat lehen silaban agertzetik hitz barruan agertzera igaro dela (*Aitziber* → *Aitxiber*), datu historikoetan ere hone-lakoak aurkitzen diren arren (*Dota* → *Dotxato*, *Garzo* → *Gartxo*, *Gartxot*; *Migel*, *Mikel(e)* → *Mitxel*).

Irudi duenez, orain, iradoki duten moldean, mendebaldeko euskaran bustidura adierazkorrak ez du lekurik, baina nik, hau, ezin dut ez ziurtatu ez gezurtatu ere, esku artean erabili ditudan egungo datu bizi gehientsuenak Nafarroakoak direlako. Geroko ikerketak erran beharko du, beraz, aierutzat hartu den uste hori egiazkoa den edo alderdi ustelik baduen.

Zernahi gisaz, badirudi, ditugun lekukoak ikusirik, txetxekaria, prote-tikoa edo beste soinu baten ordezkatzaille, ohikoa izan dela mendebaldeko hizkera horietan: 1596ko atsotizetan *Txordon* dugu (Lekeition 1520an azaltzen da) eta *Peru Abarka*-n *Txorgori* ageri da, nahiz hau «kiputz» bati zuzendurik dagoen.

Bestalde, Araian *Matxin* dago (1455), Aramaion *Txaora*, *Txeru*, *Txeruko* (XV-XVI. m.), Arrasaten *Txaperiko* (1480), *Txartin* (1475), *Txatxin* (1429), *Txerran* (1520), *Txeru* (1511), *Txope* (1517). Arratzu-Ubarrundian *Txerrantxe* (1514) ageri da, Astegietan *Txanen* (1464), Aulestin *Txan* (1516-1520), Bergaran *Matxin* (1547), *Mitxel* (1547), *Txadalen* (1548), *Txandres* (1503), *Txanton* (c. 1550), *Txaria* (1547), *Txariako* (1548), *Txarin* (1487, 1552), *Txaringo* (1552), *Txartiko* (1503), *Txartingo* (1503), *Txatalin* (1547), *Txatxu* (1506), *Txope* (1547) eta *Txosan* (1547).

Bilbon *Mitxel* (1495), *Txaperi* (1479), *Txartin* (1470) eta *Txopino* (1464) ditugu, Deban *Matxin*, *Matxite*, *Mitxelo*, *Txatxu(a)* - *Txatxo*, *Txerran*, *Txope* (1436, 1465, 1482), *Txartiko* (1453), *Txatxuko* (1518), *Txerran* (1518, 1525), *Txesteban*, *Txatxin* (1525), *Txomin* (1518), Durangon *Txarran* (1512), *Txerran* (1453), *Txurdin* (d.g.), Eibarren *Txofre* (Del Valle), Elgoibarren *Txurio* (1452), Elorrión *Txaria* (1511), Ispasterren *Txaperi* (1496), Leintz Gatzagan *Matxin* eta *Txartin* (1477). Lekeition *Gartxoa* (1504) eta *Txatxu* (1511) lekukotu ditut, *Txordon*-ez landara, Markinan *Matxin* (1471, 1498), *Txaperi* (1471, 1512), *Txare* (1471), *Txaria* (1512), *Txatxu* (1471, 1500), *Txomin* (1516), *Txope* (1512), *Txopino* (1464), *Txurdin* eta *Txurdina* (1507-1510, 1511), Mungian *Matxin* eta *Txatxuko* (1490), Mutrikun *Txarina*, *Txaxi*, *Txopelo* (1504), *Txartina* (1506) *Txomin* (1518).

Ondarroan *Txatina* (1511) dago; Oñatin *Matxin* (1489, 1512), *Mitxel* (1502), *Txandra* (1489), *Txara* (1489), *Txaria* (1489), *Txariko* (1502), *Txarin*

(1489), *Txartero* (1489), *Txartin*, *Txertin* (1489, 1502, 1512), *Txatxin* (1489), *Txerran* (1496), *Txerraman* (1489), *Txerun* (1489), *Txetxona* (1489), *Txetu* (*Txeru?*, 1524), *Txurdin* (1489), *Txuri*, *Txurio* (1489) eta *Txurtin* (1489) azaltzen dira, Orozkon *Txomin* (1516), Soraluzen *Txaria* (1481), Zerainen *Txurio* (1590), Zior-tzan *Txana* (1411), *Txatxu* (1508), *Txerute* (1508), *Txope* (1507-1510) eta *Txosan* (1507-1510).

Mendebaldetik kanpo ere ezaguna izan da eta da [č]-ren erabilera, baina ez soinu protetikotzat; bai ordea hitz hasieran, hitz barnean eta hitz bukaeran Nafarroan, azken bietan Iparraldean. Alderdi honetan *Gartxot* eta *Matxin* azaltzen dira agirietan eta egun *Laurentx*, *Martxalin*, *Martxel*, *Martxela* eta beste indarrean dira oraino. Beraz, erran daiteke mendiez beste aldean hipokoristikoak sortzeko bide hau ere bizirik egon dela eta oraino hala dagoela. Egia da, halarik ere, dokumentazioko emaitzak ez direla Hegoaldekoak bezain aberatsak, baina hemen arazo metodologikoa dago, mendiez haraindiko aise agiri bilduma gutxiago ibili baititut mugaz honaindikoan aldean.

8.6.1.2. **Sabaiaurreko igurzkaria ([š])**

Hipokoristikoak egiteko erabili izan diren baliabideen artean, gora-go erran dudana bezala, egun Nafarroan eta segur aski Gipuzkoan ere emankorrena dena sabaiaurreko igurzkaria ([š]) da, maiz beste erabideren batekin batera (*Baxiliko*, *Bixi*, *Kontxixiana*, *Ixtanix*, *Oxenton...*). Hau aspaldian ere ezaguna zen; Akitanian ibiltzen zen (ikus Gorrotxategiren ekarpenak) eta Erdi Aroan ohikoa zen: *Xemena Axubeliz* (Adoain, 1033), *Xemen Lopiz de Elorçe* (Zenborain, 1138), *Axearico* (Orbaizeta, 1366), *Guisson Mulatero* (Saraqueta, 1366), *Xemerot de Garro* (Gerezieta, 1378); «*Guisson, seynor de Bebe-ythie*» (Lapizketa, 1412-13), *Choane de Baratssar* (Baiona, 1465). Bilbon sabaiaurreko igurzkariaren lekukotasun garbi bat bada XV. mendean: *Mary Xoanexco* (1464), eta Oñatin beste bat, XVI. mendearen hasieran: *Juan Ximon de Ocumardia* (1502) = *Juanximo de Ocomardia* (1502) = *Juan Chimon de Ocomardia* (1512).

8.6.1.3. **[s], [c] duten hipokoristikoaren banaketa geografikoa eta antzinasuna**

Irudi du honelakoak Nafarroako leku guztietan ez direla ibiltzen; Ulzaman, erraterako, ez dago horrelakorik, eta Sakanan ere ez, nik dakidala, baina hemen, berriz ere, aintzat hartu behar da ikerketa atzeratua dabilela. Erabide hau aurkitu dudana herririk mendebaldekoena Leitza da; hemendik hasita Luzai-deraino iristen da, gutxieneko kontuan, bidean Malerreka, Baztan eta, antza,

Erroibar ere harrapatuz. Badirudi azkarrak, sendoak, gizen antza izaten direla z-dun hipokoristikoak dituztenak.

Gertakari honen antzinatasunaz kestione, erran daiteke ez dela berria; [s]-dun izen ttipiak, hemen mintzagai dugun aldaketa morfonologikoa ez ezik atzizkia ere badutenak XV. menderako azaltzen dira: *Micelco d'Arreguipere* (Irulegi, 1412-13), *Miçelco* (Ortzaize aldea, 1412-13). Honetan, berriz ere, grafiak zuzen interpretatzeko arazoa ageri da, Erdi Aroko eta beranduagoko lekukotasunetan, anitz aldiz, ez baita aise grafema jakin baten gibelean zein txistukari ezkututzen den ikustea. Badirudi garai hartako *Sança* izena ere (*Sança de Larri-naga*, *Sança de Osynaga*, *Sança de Yraegui*, Oñati, 1489) hipokoristiko berezi hauen barnean sailka daitekeela.

8.6.1.4. Sabaiko herskari ahoskabea ([t̪])

Aitzinekoarekin batean egungo izen ttipietan indar franko duen beste soinu palatal bat sabaiko herskari ahoskabea da. Gehienetan hortz hobietako horzkari ahoskabearen palatalizatzearen ondorioa da, baina ez beti. Itxuraz, gainera, honen erabilera zaharra da, hemen berriro ere, sabaiaurreko igurzkariaren kasuan bezala, arazo grafikoekin topo egiten dugun arren: *Pettiri* (cf. *Pechiri*, Ip., 1350ean eta Irunberrin 1366an; *la casa de Pechirivarrena*, Mithiriña, 1350-53an), *Betti* (Omaetxebarriak *Bechi* jasotzen du –*Bechirirena* oikonimoan, antza– eta *Betti*-tik eratortzen)...

Soinu hau hagitz erabilia da Euskal Herri osoan, bai Hegoaldean (*Alberto*, *Bartolo*, *Bittori*, *Martta*, *Mattane*, *Metterio*...), eta bai Iparraldean (*Antton*, *Battitta*, *Betti*, *Janbattitt*, *Kattin*, *Loanttina*, *Margitta*, *Mattin*...).

8.6.1.5. Sabaiko herskari ahostuna ([d̪])

Horzkari ahostunaren bustidura nahiko ekialdekoa dela dirudi; honetan antroponimia toponimiarekin bateratsu datorrela irudi luke, oker ez banago *Bordda*, *Menddikoa*-ren moduko toponimo bustirik –txikigarririk– Nafarroako ekialdetik eta Iparraldetik kanpo ez baita ageri. Horren ordainak *Bordatxo*, *Mendikoa* hutsak izan ohi dira beste toki batzuetan. Egia da Leitzan *Maddalen*-ren badela, baina hau oraingo datua da, eta uste dut *Madalen(a)* “positiboa”-ren palatalizatzea baino gehiago izen osoaren mailegua dukegula hemen, alegia, izen hau Satrustegiren izendegiaren 1977ko eta 1983ko argitalpenekin zabaldu datekeela, Leitzara eta bestetara, baina «usteka» ari naiz berriz ere. *Andre*, *Andres* → *Andde*, *Anddex* pausoari doakionez, nabarmentzekoa da *dd*-ren sorburua,

hemen, *dr* multzoa dela, ez *d* hutsa (cf. Del Vallek jasotzen duen *Chaxi* = *Doña Grazia*), *r* horren izaera zein baita ere.

8.6.1.6. **Hortz hobietako sudurkariaren bustitzea ([n] > [ɲ])**

Bildu ditudan gertakari honen lekukotasun gehienak Euskal Herriko ekialdekoak dira, Iparraldekoak eta Nafarroakoak; azken honetan mendebalde-
renik opatzen ditugunak Goizuetakoak dira batetik, eta Irurtzun-
Basaburuetaoak bestetik. Hemendik sartalderantz badira sudurkari bustia du-
ten izenak: *Martiñ* Uztapideren lanean, *Joxepiña* (→ *Piña*) Astigarraga-Asteasun,
Austiñ(a), *Fermiña*, *Joakiñ*, *Kattaliñ*, *Xaturdiñe* Perurenak Leitzan eta Goizuetan
bildutakoetan..., baina kasu hauetan ez dakit palatalizazioa adierazkorra den,
aurreko bokal sabaikariak sudurkariari eragin dion, hots, automatikoa den, edo
biak batean azaltzen zaizkigun. Nolanahiko gisan, irudi du emakume izenak
behinik behin, hots, *Fermiña*-ren tankerakoak adierazkorrak direla, Juan Jose
Zubiri lankideak diostanez, ohikoa *Joakina*, *Martina* erratea baita Goizueta al-
derdi horretan. *Iñaxio*, *Iñaxi*-ren modukoak, bestalde, arruntak dira Gipuzkoan
ere, Nafarroan ez ezik.

8.6.1.7. **Dardarkariaren eta albokoaren palatalizatzea ([r], [r̄], [R], [I] > [λ])**

Dardarkariaren palatalizatzea, hots, alboko sabaikari bilakatzea
ekialdekotzat har daitekeela dirudi, ditudan datu historiko bakanen arabera,
baina edozein modutan gai hau, hemen ukitzen ari naizen beste batzuk beza-
la, hobeki eta sakonkiago aztertu beharra dago. Nire datuen arabera *Aulli*,
Malliato... Ultzamatik ekialdera azaltzen dira, baina Aramaio–Arratzolan *Pi-
llo* dugu 1498an, eta Aizpitartek *Pello* biltzen du XVIII. mendean. Luzaiden,
bestalde, *Pello* lekukotzen eta erabiltzen bada ere, egun *Peio* da usaiako aldae-
ra eta *Pelo* ere ezaguna da (6). *Peio* XIV. mendean aurkitu dut lehen aldiz,
Nafarroa Beherean. Kontuan eduki behar da Iparraldean *Pei*, *Peir*, *Peis*, *Pes*
ezagunak zirela Erdi Aroan, eta agian aldaera horiek zer ikusi izan zuketela
Peio-ren sorreran. Aintzat hartu behar da, berebat, eta ikusi bezala, horzkari
ahostuna palatalizatzea gertakari ezaguna dela, eta menturaz honek ere eragi-
na izan dukeela aipatu aldaera horren sorreran (cf. *Pedro* > *Predo* > *Preddo* >
**Peddo* > *Peio*).

(6) Baliteke aldaera honek nolabaiteko adiera edo kutsu handiagarria izatea, baina galde-
katu dudan berriemaileak ez du gure susmo hau baietsi. Cf. Lafittek (1987 [1944]: 149) aipatzen
dituen *Manana* ‘grosse Marianne’ (*Mañana*), *Tote* ‘gros Joseph’ (*Totte*). Hala ere, Lhandek
(1926: 853) «*Pele* dimin. de Pierre (prénom)» dakar; honen aldamenen, ordea, *Pelle* ere aipatzen
du (ibid., 854). Barbierrek (1987: 128-129) eta Otsobik ere (1992: 166) *Pelo* darabilte.

Leitzako *Jose Fermin* > *Joxepillin* bilakaeran kontuan izan behar da abiapuntua *rm* multzo heterosilabikoa dela, ez bakarrik dardarkari bakuna. Nolanahi ere, ez dirudi bilakabide hau hagitz emankorra izan denik.

Albokoaren palatalizatzeaz den bezainbatez, badira dokumentazioko <ll> batzuk irudikatze grafiko hutsak zirela, ez fonologikoak, pentsatzeko arrazoiak (cf. Done Bikendi Haranako 1308ko *Migell* eta herri honetako eta Kontrastako 1332ko *Llope*). Egia da, hala ere, egun *Dolores*, *Polloni*-ren moduko izen ttipiak ohikoak direla, eta ez dagoela zalantzarik baliabide hau egun erabiltzen dela eta orain baino lehen ere erabili izan dela. Bustitze honek duen emankortasuna zenbaterainokoa den ezin dut xuxen erran, baina gazteen eta ez hain gazteen solasean gero eta usuagoa den *yeismoa*-k pentsarazten dit albokoaren bustitzeak etorkizun beltza duela, gutxienez [λ] moduan emateak.

Bukatzeko, garbi utzi nahi dut gertakarion erabileran izan daitekeen aldea ez dela Iparralde / Hegoalde mugaren arabera finkatzen, izan ere Nafarroa (edo Nafarroako eremu zabal bat) neurri handi batean mugaz haraindiko hizkerekin doala irudi baitu, alegia, bereizketa, hein batean segurik, Mendebalde / Ekialde koordenaden arabera egin beharko dela.

8.6.2. Erabide morfologikoa: atzizkiak

Lan honetan ikusi dugun bezala, euskaraz hamaika atzizki izan dira historian zehar hipokoristikoak egiteko, atzizki horiek guztiak leku eta hizkera guztietan bizirik egon ez badira ere. Erran nahi dut batzuek hedadura geografiko eta kronologiko bat izan dutela eta besteek beste bat, baina nolahi ere, aberastasun handia egon da, ororen buruan japoniera bezalako hizkuntza batekin erkatzen badugu, adibidez. Honetan hipokoristikoak egiteko aukerak ugariak dira, baina beti maitasunezko aldaeraren oinarritzat hartzen den erroaren mora kopuruarekin jokatu behar da, atzizkia bakarra edo ia bakarra (ikus gorago) baita, [-*txan*] ebakitzen dena hain justu ere (ikus Poser, 1984, Milam, 2006)(7). Dena dela, aitortu beharra dago gurean ere urritze, eskaste bilakaera bat izan dela, eta egun emankorrak diren berrekailuak gutxi direla.

8.6.2.1. Atzizkien eremu banaketa

Hipokoristikoak egiteko historian zehar aurkitu ditudan atzizkiak orokorrak izan daitezke, ia orokorrak, aski hedatuak, mendebaldekoak, ekialde-

(7) Hau ez da guztiz egia; *-san* eta *-sama* ere badaude, gutxieneko kontuan, baina ez dakit atzizki beraren aldaerak diren edo hiru atzizki desberdin. Kozasak (2000: 2) desberdintzat hartzen ditu eta dio informalena *-chan* dela, orokorrena *-san* eta gizalegezkoena («the most polite») *-sama*.

koak –ekialdekotzat Nafarroa (gehiena) eta mugaz haraindiko eremua hartzen dut–, Iparraldekoak, Hegoaldekoak, herrialde batekoak eta batekoak baino gehiagotakoak («ñabarrak» deitu ditut). Zernahi dela, gogoan eduki beharra da hemen aurkezten dudan sailkapen hau osoro behin-behinekkoa dela eta datu berriak aurkitzearekin gauzak aise alda daitezkeela. Arazo larrienetako bat atzizki konposatu ugariak nola interpretatu behar diren zehaztea da, hots, osagaiak zein diren garbiro finkatzea, eta, honekin batera, beren baitan txistukariren bat bilitzen duten berrekailuen arteko erlazioa nolakoa den argi uztea. Behin betiko ondorioetara iristeko oraindik tokian tokiko ikerketa lan sakona egin beharra da, dokumentazioko eta gungo datuak bilduz eta aztertuz.

Hona hemen, beraz, oraingoz erran dezakedana, berrekailu bakoitzaren hedadura geografikoaren inguruan:

- a) Euskal Herri osokoak, orokorrak: *-ko (-ku)*, *-go*, *-ka*; *-on (-un)*, *-ona*; *-ot(e, a)*, *-to*, *-tto* (Ak., A, G, B [d.gu.], L, NB, NG, Zub. [d.gu.]), *-txe(a)*, *-xe(a)*, *-(t)xa* (A, B, G, L, NB, NG, Zub. [d.gu.]).
- b) Ia Euskal Herri osokoak: *-et* (A, G [Hondarribia], NB, NG, L, Zub.), *-ete* (Leintz ibarrean aldi batez), *-eta* (Zub., egun), *-go* (gehienetan *-ko*-ren aldaera, ez beti: B, G, NB, NG, Zub.), *-iko*, *-iku*, *-ika* (NG gutxienez egun; A, B, G, L, NB, NG, dok.), *-x*, *-tx* (Ak., A [Aramaio], B [dud.], G [Oñ.], NB, NG).
- c) Franko zabalduak zeudenak: *-ikot(e)* (G [Arra., Eskoriatza], L, NB, NG), *-in*, *-ino*, *-ina* (NG, egun; B, L, NB, NG, dok.), *-ito(s)*, *-ita* (G, NB, NG eta hain segur A, B ere bai, egun; A, B, G, NG, dok.), *-kin*, *-kina* (Ak., A, B, L), *-kot(e)* (B [d.gu.], G, L, NB, NG), *-koxe(a)* (B, L, NB, NG), *-sko*, *-xko*, *-ska*, *-ska* (A, G, L, NB, NG), *-so*, *-xo (-xu)* (Ak., B, G, NG, [dud.]), *-te* (Ak.?, B, G, NB, NG), *-txo*, *-txu* (A, B, G, L, NB, NG), *-txot(e, a)* (BAB [gaskoia?], A eta B [Perutxote], NG).
- c) Mendebaldekoak: *-aga* (Mark., Oñ. [d.gu.]), *-itxo* (Urizar [Agurain alderdia], Aretxabaleta), *-txon*, *-txun* (A, Oñ., Zeg. [d.gu.]), *-txonki* (Oñ. [d.gu.]), *-txuko* (Oñ. [d.gu.]).
- d) Ekialdekoak: *-en* (Ip., NG), *-koto* (Ip. [behin], NG), *-l* (L [behin], NG), *-onet* (NB, NG), *-otxe(a)* ([d.gu.], NB, NG), *-t* (L, NB, NG), *-toko* (L, NG).
- e) Hegoaldekoak: *-(a)ndo*, *-(a)nda* (A, B, G, NG), *-an* (NG, G), *-go(t)xe(a)* (G [Oiar.ald.], NG), *-got(e)* (G, NG), *-gotxo* (G, NG), *-illo (-iello(s), -illu, -illa (-iella))* (NG egun, behin; B, G, NG, dok.), *-ki*, *-gi* (A, G, NG), *-o* (B, G, NG), *-s* (B, G, NG), *-ski* (A, B, G, NG), *-ste* (G, NG [d.gu.]), *-sto* (G, NG [d.gu.]), *-ta* (G, NG [d.gu.]), *-te*

(G, NG [d.gu.]), *-ti*, *-di* (A, B, NG [dud.]), *-txeko* (G, NG [d.gu.]), *-txen* (Lazkao, Oñ., Segura), *-txi* (B, G [d.gu.]).

- f) Iparraldekoak: *-ño* (Ak. [-*nno*], NB [bizirik]), *-onin*, *-onina* (L, NB), *-oton* (L, NB, Zub.).
- g) Bizkaikoak: *-tillo* (behin), *-txis* (behin).
- h) Gipuzkoakoak: *-degi* (behin), *-etillo* (behin), *-goto* (behin, G [Oiar. ald.]), *-otxo*, *-skot* (behin, dud.), *-stot* (behin, dud.), *-til* (behin), *-xito* (behin, dud.).
- i) Lapurdikoa: *-koti* (behin).
- j) Nafarroa Beherekoak: *-ikoni* (behin, Bastida), *-ikox* (behin), *-oni* (d.gu.).
- k) Nafarroa Garaikoak: *-(a)ndako* (d.gu.), *-(o)teko* (d.gu.), *-el*, *-elo*, *-ela* (Erribera), *-etako* (behin), *-goxo* (behin), *-goxoto* (behin), *-ikotx(ea)* (d.gu.), *-ilon* (behin), *-kito* (behin, bizirik), *-let*, *-liko* (behin), *-los* (behin, dud.), *-lot* (behin, dud.); *-nko*, *-ngo* (d.gu.), *-osoa* (dud.), *-otiko*, *-skito* (d.gu.), *-skitxo* (d.gu.), *-sot* (d.gu., dud.), *-tiko* (d.gu.), *-tilko* (behin), *-toni* (behin), *-tonko* (behin), *-txeko* (behin), *-txeto*; *-txito* (behin), *-txoki* (behin, Arano), *-txto*, *-tzo* (*-tza*) (Zubietatik ekialdera), *-uelo*, *-uela*.
- l) Zuberokoak: *-eton* (behin), *-ñi* (egun, behin).
- ll) Nābarrak: *-do* (Ak., NG), *-iket* (d.gu., NG, L), *-ikon* (d.gu., B, L, NG), *-ikoti* (d.gu., G [Arrasate], L), *-lo* (Ak., G [Mutriku], NG), *-no*, *-na* (B, NB, NG), *-otin* ([d.gu.], G, L), *-ton* (G, NB, NG).

Bestalde, zaila zait arrunt, datu historikoetan oinarrituz, beste orduz atzizki hipokoristikoen artean eta eskualde bakoitzean adierazkortasun mailakazterik ba ote zen sumatzea; egungo datuak ikusirik ere ez da aise aldea atzematea.

8.6.3. Izenen laburtzea

Hipokoristikoa erdiesteko izena laburtzea, dela hasieratik, dela erditik edo bukaeratik, egungo gertakaria da gehienbat, edo hori da behintzat agiriak aztertuz atera daitekeen ondorioa, nahiz badiren zenbait forma laburtu zahar (*Patxi* < *Frantzisko*, *Txaperi* < *Juanperi* ([t]z), *Txatxu* < *Juantxu*, *Txerran* < *Ferran[do]*, *Txomen* < *Domenga*, *Domenia*; *Txomin* < *Domingo*, *Txordon* < *Ordoño*). Hortaz, irudi du behiala izen laburtzea ez zela egun bezain arrunta, menturaz forma murriztu horiek agirietan emateko nolabaiteko herabea izan bazitekeen ere. Zernahi dela, heraberik ez da hautematen atzizkidun izen ttipiak eta

aldaera palatalizatuak dokumentuetan idazteko tenorean, eta, beraz, arrazoinamendu hori zalantzazkotzat jo beste biderik ez dakusat oraingoz.

Gaur egun izena alderdi batetik edo bestetik (bietatik alegia) laburtuz ere sortzen dira hipokoristiko desberdinak: *Gontzalo* → *Gontxu* eta *Txalo*, *Izaskun* → *Txaskun* eta *Izas...* Halarik ere, ditudan datuen arabera, euskaraz ez da ohikoa izen batek, aferesiz eta apokopez bi hipokoristiko edo forma laburtu izatea. Hots, ez da normala, dakidala, gaztelaniazko *Hermenegildo*, *Hermenegilda* → *Herme* / *Gildo*, *Gilda* (hizkuntza honetan era honetakoak ez dira ugariak) edo errusierazko *Dimitrij* → *Dima* / *Mitja*, *Ljudmila* → *Ljuda* / *Mila*, *Natalja* → *Nata* / *Talja*, *Rostiláv* → *Rostja* / *Sláva*-ren moduko bikoiztasunak. Hondarreko hizkuntza honetan ere, Stankiewiczzek dioenez (1957: 198), honelako pareak gizon izenetan ez dira anitz, andreneenetan ugariagoak izan arren: *Galina* → *Gálja*, *Gála* edo *Lina*, *Iraida* → *Íra* edo *Ída...*

Egungo izen ttipi laburtuak silababiko egiteko joera garbia ikusten da: *Aitziber* → *Atxi* eta *Tzibi*, *Gabina* → *Gabi*, *Modexto* → *Moxto*, *Prudentzio* → *Prontxjo...* nahiz hau ez den inola ere lege. Dokumentazioan askoz gutxiagotan agertzen dira honelakoak: *Domingo* → *Txomin*, *Frantzisko* → *Patxi*, *Juantsu* → *Txatxu...* Gaztelanian ere atzizkirik gabeko izen ttipietan bi silabako «template» edo plantilla dago, hirukoak ere izanagatik; azken hauek oinarriko izenak hiru silaba baino gehiago dituenen azaltzen dira (Lipski, 1995: 391).

8.7. **Izen batek hipokoristiko bat baino gehiago izan zitzakeen eta izan ditzake**

